

Sebastian Mendiburu

**JESUSEN AMORE-NEKEEI
DAGOZTEN ZENBAIT
OTOITZGAI
(II)**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Josu Landa Ijurko.
Iturria: *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitz-
gai (Bigarren liburua)*, Sebastian Mendiburu (Patrizio
Antonio Orkaiztegiren edizioa). Eusebio Lopezen
etxean, 1904.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=352>

JESUSEN AMORE-NEKEEI DAGOZTEN ZENBAIT OTOITZGAI

**JESUSEN KONPAÑIKO
A. SEBASTIAN MENDIBURUK
EGIÑAK**

BIGARREN LIBURUA

TOLOSAKO LIBURUGILLE
EUSEBIO LOPEZ-EN ETXEAN
1904-garren urtean

BEAR BEZALA

XXVIII.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN IGES EGITEA, TA IJIT-ARTERAKO BIDEA

Jesusen Presentazioko lana bukatu orduko, edo andik anitz luzatu gabe, adirazi zion gure Jaungoiko maitiak san Joseri, ar zitzala Jesus bera ta Jesusen Ama; ta zidoala biekin Ejiptora, ta iduki zitzala an biak berekin, Jaungoiko berak besterik adirazi artean; zeren Herodes zegoen Jesus galdu naiez, ta al bazezan, Jesus ill-erazteko. Egin zen guzia, Jaungoikoak adirazi zuen bezala; ta aldi onetan erakutsi zizkigun gure Jesusek anitz gauza ta, besteen artean, bi guztiz on-zuzenak; «bide, ta lagun gaistoetatik iges egitea» bata; ta bestea «Jaunak nai dueño, emeki ta enoiatu gabe bizitzea, gertatzen diran lan ta nekeen artean, latzak oriek, eta gogorak izanagatik». Lenbizikoa da oraingo otoitz-gaiean guk ekusi bear duguna.

A.

**Jesusek gaur erakusten diguna da
lagun gaistoen artetik iges egitea**

Zoaz igesi Ejiptora, erran zion len san Joseri gure Jaungoiko maitagarriak; eta *iges egizue zuek lagun gaistoeon artetik*, esaten digu guri gaur gure Jaungoiko berak. Herodes erregek, aditu ezkerro, aditu zuen bezala, irur goiztar erregeak ekarri zioten Jesusen jaioberria, joan bear zuen (ta alik lasterrena) Jaungoikogizon jaioberriari bere ongi-etorriak, eta agur andiak egitera, baña gaistoegia zen Herodes erregea orrelako lan on bat egiteko. Oitua zegoen Herodes gogoak ematen ziona egitera, ta bere erreinuko guzien Jaun ta Jabe izatera; ta ezin ekusi zuen nion ere, bera baño geiagorik; eta orregatik etzuen oñik igitu, zegoen tokitik, Jesus billatzeko. Gaizki egiña zen, bai, Herodesen lan txar, edo egoera galdu au; baña etzen au, ez, Herodesek aldi artan egin zuen gauzarik gaistoena; gaistoagoa zen orain adituko dezun bertze lan gaisto au.

Jesusen jaioberria ekarri zioten erregei, erran izandu zien errege Herodesek, joan zitezela berak beren bidez Jesusen billan, ta Jesus ekustera; ta berak, Jesus arkitu ta ekusi ondoan, zetozkiola non arkitzen zen Jesus ari adiraztera; ni ere noan (zion), zuen eran, an bertan berari nere agurrak egitera, au zen aldi artan

Herodesek erran izandu zuena; baña etzen au, ez, Herodes gaistoak bere gogoan zerabilena; Herodesek orduan bere gogoan zerabilena zen Jesus lenbaitlen illik uztea: ta, Jesus illotza utzi naiez, illerazi zituen, andik anitz luzatu gale, Belen bereko, ta Belengo bazterretako aur txiki guziak.

Bazuen Jesusek, aurra bazen ere, Herodes gaistoak gogoan zerabilen asmo galgarri onen berria, bein baño geiagotan len adirazi dugun bezala; baña prest bazegoen ere, zegoen bezala, bertatik edo noiznai bere bizia, ta bere barrenean zuen odol guzia gure amorez emateko, au eman baño len erakutsi, edo adirazi nai izandu zizkigun, guk egin bear ditugun anitz gauza ta egiteko; ta orregatik kendu zen, bere lan on, edo erakuste au eragotzi nai zikeon Herodes galgarraren begietatik edo atzaparretatik, eta artu zituen Ejiptoko bide gaistoa, ta bideko neke gogorrak; erakusten zigula bere iges egite nekagarriarekin era bereko aldietan guri dagokiguna, edo guk egin bearra.

1. Zenbat bere nekerekin egin ote zuen gure Jesus maitagarriak aldi onetako erakuste au, edo zein andi gogorrak izandu ote ziran Ejiptoko bere bidean Jesusek ekusirikako nekeak. Ori da gauza bat, Eskritura santak guri adirazten ez diguna; baña gauza da guk

gerok, orduko bertze zenbaitez oroitu ezkerro, nolerebait ezagutu dezakeguna.

Zer gauzak dira, orretarako guk geren gogoan artu, ta erabilli ditzakegun gauzak? Oriek dira, Jesusen orduko bidearen asiera beinik bein; bigarren lekuan bide bera, edo bidearen era; irugarrenean urtearen orduko sasoia; laugarrenean Amaren adiña ta biotza; ta azkenean Jesus berarena. Ekus ditzagun bortzak banaka.

Beren eskuz, ta nekez bizi ziranak ziran, len ere adirazi zaikun bezala, Jesusen Ama maitagarria, ta onen Esposo, ta bizikide on san Jose birtutetsua, ta badakizu zuk zerorrek ere norañoakoak izain oi diran, era onetan bizi diranen ondasunak eta gauzak, beintzat erbestetuak bizi diranean, Ejipton Jesusen Ama ta san Jose bizitu ziran bezala. Zituzten gauza txikietatik artu bear izandu zuten, beren itxetik, Ejiptoraño bidean izandu zutena; bada, gabaz ta lotan zegoela, adirazi zion gure Jaungoiko maiteak san Jose, Ama-Semeak arturik, atera zedilla lenbaitlen bere itxetik, eta iges egin zezala Ejiptoko erresumara, edo Ejiptora; ta, urrengo eguna argitu baño len, ta nior nekatu bage, arako bidean arkitzen ziran irurak. Orra etxetik

Ejiptorañoako Jesusen bidearen asiera! Orra zein pres-tazio gutikoa! Orra zein nekagarria!

Eta bide bera? Zer-nolakoa? Luzea beinik bein; ta denbora berean mendiz, sasiz, leku agorrez ongi betea. Eta badakizu, era onetako bideetan eskas izan oi dirala, edo ura, edo ostatua, edo jatekoa, ta bear diran beste gauzetatik zer edo zer.

Noiz ote, edo urtearen zein sasoietan artu zuten Ama Semeak eta san Josek beren bide luze nekagarri au? Urtearen bigarren illean, edo aren inguruan; ta denbora ori, dakizun bezala, izan oi da otzez, izotzez, euriz, elurrez, aize gogorrez, ta eguraldi gaistoz ongi nastua.

Norañoakoak ote ziran bide au artu zutenean, Jesu-sen Amaren adiña, ta indar guziak? Ez andiak; orain-dik alabaña urte gutizko donzella zen orduan Jesusen Ama Birjina; ta donzella, nekeetara orrenbat ez oitua; bada bere aurtasunetik asi, ta ezkondu arteko urte guziak egin izandu zituen Ama birjinak Jerusalengo eli-zan, an emeki bizi ziran aurtxo, ta donzella gazteen artean; gazterik atera zen andik ezkontzaz; ta ezkon-durik etzuen orrenbat denbora, ijit-arterako bide au artu zuenean. Eta zer biotz ote zen Ama onen biotza? Amak izandu duen biotzik beratzen ta urrikaltiena.

Ongi: ta Jesus beraren biotza, ta adiña? Jesusen biotza, Jaungoiko-gizonaren biotza zen; ta orregatik zen biotz maitari-ezin-maitariagoa; ta Jesusen adiña, ill bi ere bagekoa, edo beintzat anitz geiago etzituen aurrarena, Interprete ta gizon jakintsuak aditzera ematen dutenaz.

Izanik bada, ziran bezalakoak, aditu dituzun bost gauzak, ekusi zazu zerorrek, zein andi gogorrak izan bear zuten Jesus aurtxoak bere bide onetan ekusi, edo izandu zituen nekeak! zein gogorrak orduko Jesusen otzikarak; eta aize-ukaldiak! bada bere Ama birjinak naiagatik, etzen erraz bide ain luze-gaistoan guzieta-tik ura gordetzea, edo nekerik gabe ateratzea.

Onelako bere nekeen aringarritzat, eta bizitzan irauteko, bide guzian etzuen Jesusek artzen Amaren bularra beste jan-edanik; ori da alabaña adin artako aurren jan-edana; ta ekusten dezu zer bular, edo zer esne izan ziteken, otzez ta nekez betea zebillen, ta emeki azia zegoen Birjin gazte baten esnea, edo bularra!

Eta arere indar gutiagokoa izain zen, Jesusek artzen zuen bular edo esne au, egia bada interprete andia. Maldonadok adirazten duena; bada, onen ustez, oñez ibilli zen Jesusen Ama, erditzeko zegoela,

joan zenean bere erritik Belen errirañoko laur egune-ko bidean; ta, bide artarako zena, zen Jesusen Ama beste bide luze onetarako ere; edo gutirekin arkitzen zena, besteren oñez ibiltzeko.

Baña dena dela, edo zebillela bere oñez, edo astotxoren batean Jesusen Ama maitagarria bere erritik Ejiptora joan zenean, onek zeraman, bidea bide luzea zen, ta bide gaisto gogor-nekagarria. Bidera zen, prisaka bezala; ta bidean ibilli zen urteko sasoi ez-onean, bidez dabillen edozeinendako: ta Jesusen Ama bezalako Amaren era onetako ibillera, ez da orrenbateko ibillera, aur jaio berriari bear bezalako bularra emateko.

Andia bazen ere, etzen andiena, Ama-Semeak orduan izandu zuten pena, ta nekea; andiagoa zen beren biotz aldetik izandu zutena. Bazekien Ama Birjinak nor zen bere besoetan zerabillen, bere Semetxoa. Bazekien Jaungoiko-gizona zela; ta Jaungoiko, gure amoreakgatik gizon egiña. Ekusten zuen bidenabar bide guzian Jesusek zeramana. Ekusten zuen, guzia zeramala jakiundez beterikako Jaungoiko-gizonak bezala, ta ekusten zuen, zeraman guzia zeramala umill-umill ta bear bezala, bere Ait-Eternoaren ize-nean, ta munduko guzien amoreakgatik. Ekusi zazu, bada, nolakoak izan zitezkeen, jakite ta ekuste onek

Amaren biotz eskerdun urrikalti-maitariari ematen ziozkan kezka, eta aldarreak.

Au berau ekusten zuen Jesusek, bere Amaren gañerako nekeen artean; ta bere ekuste onek nekatzzen zion Jesusi bere biotz ezin maitariagoa, bide gais-toko ibillerak, aize otzek, eta zeramatzien, beste neke guziak baño agitz eta agitz geiago; bere Ama zuen alabaña (ta Ama munduko guziak baño maiteago zuena), bere amorez ain penaturik Jesusek ekusten zuena.

Nekeak eta nekeak dira, Jesus maitea; ta, alde guzietatik estutzen zaituzten nekeak, bide latz-gogor onetarako, zure lagunak; eta alere guzien artean zabilta zu Jaungoiko-gizonaren eran, edo ezinobeki; ta zere neke latz guziak artzen dituzula zere Aita Jaungoikoaren izenean; ta gure guzien onerako; ta bidena-bar agertzen diguzula, nola iges egiten den lagun gaistoen artetik.

2. Bai; Jesusek gaurko bere igesi-nekeekin ederki erakusten digu lagun gaistoen artetik iges egiten; baita besterik ere; bada Jesusek gaur iges egin du Herodes galgarriaren atzaparretatik, bere geroko bizi-tzan egiteko Aita Eternoak adirazten diozkan gauza guziak; eta bere iges egite onekin adirazten digu, guk

ere gorde dezagula zeruko graziaren bizitza, lagun galgarrien artetik iges egiten dugula; ta egin dezagula geren bizitzan, gure Jaungoikoari atsegin egiñen dion guzia. Au guzia zuk egiteko, egin bearko dituzu, ta trikatu gabe edo emen bertatik, Jesusen gaurko iges egitearen erako iges egiteak; edo utzi bearko dituzu zere lagun galgarriak, eta bekaturako bide gaistoak. Ote dakizu zuk zer lagunak diran, ta zer bideak, bide-lagun galgarri oriek? Adiraziko derezkitzut nik, zenbait beintzat.

Bekatueta eraman oi zaitu, dakizun arako lagun arekin edo bertzearekin itz egiteak, aren etxeratzeak, edo ari begira egoteak? Orra bada, orra zure Herodes, edo zure lagun galgarria; orra Jesusek gaur zuri utzerazi nai dizun laguna, ta bekaturako bidea. Galdu nai ezpadezu dezun grazia ta zeruko bizitza, iges egin bearko dezu etxe orretatik; baita zere galgarri orren begietatik ere; ta, au ez egitera, egiten ez dezu zuk gure Jesusek gaur erakasten digun iges egitea.

Bekatura eraman oi zaitu dakizun aldietako joko ark, edanak, danzak, jostatzeak, egoerak, alferkeriak, ibillerak, edo zerk edo zerk? Orra ori ere, zu galdu nai zaituen Herodes gaistoa; edo orra zure animako bizitz ederraren bide galgarria. Nai ezpadezu bada ken daki-

zun bizitz on ori, edo, zere jaungoikoak emanik dezun zeruko grazia, utzi bearko dezu dagoen lekuan, ta billatu bearko dezu, naiz dela nekez beterik eta negarra dariozula, beste lekuren bat, beste tokiren bat, eta bertze bizitza. Zuri ori eragin naiez, da gaurko Jesusen iges egitea ta nekeko bidea: ta eragin naiez, zere lagunetatik bat ere zuk gaistatzen ez dezula.

3. Bai; gaurko Jesusen bide gogor ta iges egite nekekoak erakusten dizu beste gauzarik ere; bada erakusten dizu nola galerazten diran besteen galbide gaistoak. Atozea: zurekin egoteak, zurekin jostatzeak, zurekin edateak, edo zure danzak, itzak, sartu-ate-reak, edo bertze zerbaitek ematen dio norbaiti sua, edo gaitzerako bide-moduren bat? Orra bada, bide au ere zuri gal-erazi naiez da Jesusen gaurko iges egitea, bada, bere bizia ez galtzeko ezezik, iges egiten du gaur Jesusek kendu naiez, suturik arkitzen zen Herodesi, gaitzerako ta aurren eriotzez bazterrak betetze-ko bidea.

Bazekien alabaña Jesus maitagarriak, zer zen Herodesek bere gogoan zerabillena: edo nola zebillen Herodes, Jesus berari bizia kendu naiez, ta au ari lenbaitlen kentzeko bideen billan: ta orregatik Jesus maitteak iges egin zuen ijit-artera, arkitzen etzuenean,

billatzen zuen Jesus, palaka zekion Herodesi bere barren gaistoa; ta utz zitzan beren amekin, ta beren bizia kendu bage, aur inozenteak; edo beintzat egin etzezan, Jesus berari bizia kentzearekin egiñen zuen bekatu arrigarria. Orra gaur Jesusek bere iges egite nekezkoarekin erakusten digun ikaskaria! ta orra ikaskari oraindañokoan zuk, ongi beintzat, ikasi ez dezuna.

Ez egiazki, nere Jaungoiko maitagarria, ez! Nere ikaste eder onetan baño pozikago ibilli naz ni, nere gogo gaistoari atsegin egiten zioten beste zenbait bide galdutan; ta orregatik ibilli naz ni bide galgarriz galgarri, ta bekatuz bekatu! Onik ez nuen nik, zenbait denboraz beintzat, era onetan edo gaizkiz gaizki ez nenbillenean; ta, ekusten banuen ere, bide galgarri onen bukaera dela sulezea, ez nintzan lotsatzen, ez nintzan izutzen, ta aitzina ninjoan ni egunoro, ta gaizki nenbillen denbora guzian!

Baña bere galtzeari begiratzen ez dionak, nola begiratuko dio besterenari? Nik beintzat oraindañokotan ez diot, ez, anitz begiratu; bada egin izandu dut nik nere aragi gaistoak eta gogo galduak eragin didatena, batere begiratu gabe, nerekin zebiltzane, orretan nik

ematen nien bear ez bezalako ekuskarira edo esplorara, ta bekaturako bidera!

Eta zenbat ote dira, nere lan txar onelakoakgatik, ekusten nindutenak egin dituzten bekatuak, edo nik bekatuetarako nere lagunei ta ekusten nindutenei eman dieztedan bide gaistoak? A nere Jaungoiko ezin zuzenagoa! ta era onetan nik eragin ditudanez ere, nere bekatuez bezala, artu bear zuk niri, nork daki nolako kontuak!

Ibilleraren gaistoa oraindano nere ibillera, edo onela nenbillen denborako ibillera nerea! Barkatu ote derezkit nere Jaungoiko zuzen justuak, ala nenbillenean nik neronek egin nituen, ta ekusten nindunei eragin niezten bekatuak? Baldin nik ori orain baneki, ez nengoke, ez, ditudan adiña ai-rekin, naigaberekin, ta kezcarekin! Barkatuak ezpadaude ere, barkatuko al dizkidatzu zuk nere Jesus maitagarria, zere bideko neke gogorrakgatik; eta emain al didazu, oraindano bide txarrak utzi, ta zuk erakutsi didazuna zuzen ta arin artzeko bear dudan zure laguntza ta grazia. Eskatzen dizut, gaizki-egiñen damuarekin, ta, bide zuzenetan baizik oñik ez sartzeko gogoz ta naiez beterik! Indazu bada. Bai arren, bai!

Qui amat periculum, in illo peribit.

Eccli. 3. 27.

Gaitz-bidez bide, edo bide gaistoz dabilena, bere gogoz andik badabil eta berak nai duela, bekataria da, ta betiko galduko bearra, esaten digu bere Eskritura santan gure Jaungoiko maitagarriak. Bai: bekataria da gaitz-bidez bide, edo bekatara eraman oi duen bidez dabilen gizona ta beste edozein. Orregatik bada, edo, gaitz bide galgarri au utzi bagez, bekatara zen Sanson, bekatara zen Dabid, baita Salomon ere; ta orregatik beragatik bekatara ziran, nork daki zenbat berzte gizon jakintsu, andi, ta santu. Orrelakorik zuri gerta ez dakizun, edo bekatu-bideak zuri galerazteko, da gaurko Jesusen iges egitea.

Ongi: ta noren ondoren ibilli nai dezu zuk, datozen egunetan, ta zere bizitza guzian? Bide galgarriz dabilzanen, ta galtzen diranen ondoren; edo, bide txarrak utzi, ta onak erakusten dizkitzun zere Jesusen ondoren?

Zure ondoren, nere Jesus maitagarria: zure ondoren nai dut nik ibilli azken asnaserano. Ai! au egin banu nik lendabizitik; eta bein ere bekaturatzen ez

nintzala! Besterik izain zen gaur, bai; ta orain arkituko nintzan ni, nagoen baño agitz zure alderago, ta egoin nintzan grazi andiarekin, ta, nork daki zenbat irabazi ta zerurako merezimentu nerekin nituela? Zure ondoren, edo zuk erakusten didazun eran ibilli gabez, galdu ditut nik, nere Jesus maitagarria, galdu ditudanak, eta galdu dut askotan nere anima!

Eta, zer dakit nik nola dagoen egungo egunean ere! Nere eroegia! nere galdu-galgarria! Iraun balezate azken-orduraño oraingo nere damu zentzatuak, eta asmo zuzenak! Baietz uste dut, nere Jaungoiko maittea: bai, zuk laguntzen didazula! Lagun zakizkit bada, bai arren, bai!

*Egrederet de terra tua, et de cognatione tua,
et de domo patris tui;
et veni in terram, quam monstravero tibi.*

Genes. 12. 1.

Atera zaitez zere erritik, zere aideen artetik, baita zere aitaren itxetik ere, ta atoz nik erakutsiko dizudan errira, edo bazter batera, erran zion aldi batez Jaun-

goikoak Abrani; ta zerbait orrelako errain izandu dit niri ere, nork daki zenbat aldiz eta zenbat aldetara!

Abranen erria, idoloiz ta bekatu-bidez beterik zegoen erria zen; bide oriez, idoloen ondoren ta gaizki zebiltzanak ziran Abranen aideak; baita Abranen aita bera ere; ta berez, garbiro, bear bezala, idolorik bageko etxean bizi zediñ bere famili utsarekin, andik eram zuen Abran bere Jaungoikoak, artarako ona zen lekura. Eta deitzen nau ni ere gauza beretako, niri dagokidan tokira ta bizierara. Abranek eranzun zion bere Jaungoikoari, ta artu zuen, trikatu edo luzatu gabe ta bere-bereala, Jaungoiko berak berezi zion erri-rako edo bazterrerako bidea. Eranzun diot nik ere, nere Jaungoikoak deitu didanetan, edo artu izandu ditut nik ere, bide gaistoak utzirik, nere Jaunagana daramaten bide on garbi zuzenak?

Ez noski, ta erdietan ere! Oitua nengoen lekuan, edo artua nedukan ibilleran bizitu naz ni, geienez beintzat, edo denbora luzeetan. Maite nituen nik nere idolo txarrak, edo gogoeta loiak. Maite nituen nik nere atsegina lizunak, nere jostatze galduak, eta bide galgariak; baita nere Jaunaren gogarakoak etziran gauzetatik beste zenbait ere; ta, ez uzteagatik, utzi izandu

dut nik, nere Jesus maitagarriak erakutsia dadukan zerurako bide zuzena.

Artuko al dut orain bada ere? Baldinbere, bai! galdua naz ni, nik orain ez-aditu egitera, deiez ta lagundu-naiez dagoen nere Jaungoikoari, edo berak ez ukitzera gero nere biotz txar galdu au.

Baña ukituko ote dit niri nere Jaungoikoak denboraren batez, edo gero noiz edo noiz? Zeri dagokala, erantzuten ezpadiot nik orain, deitzen didanean?

Ez, nere Jaungoiko maitea, ez! Ez dut nai, ez, denbora geiagoz egon, nagoen bezala! Erantzun uste dizut, eta artuko dut nik gaur bertatik erakusten didazun zere bide zuzen au! Indazu arren, nagitasunak garaitzeko, ta bide onetan arin ibiltzeko bear dudan zure laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

Ecce elongavi fugiens, et mansi in solitudine.

Ps. 54. 8.

Mundu guzia bete du gure etsai galgarriak bere lakioz, lokatze galduz, ta pausu gaistoz. Eroaren eran nenbillela, sartu izandu naz ni zenbait aldiz aragiaren lokatze galdu zikingarrian; era bereko zenbait ibillera

makurretan arkitu nau ni nere etsai gogor amurra-
tuak, eta ongi loturik iutzi nau bekatuaren lakio sendo-
rrez edo lazoz; eta askotan autsi ditut nik neronek,
nere naiez, nere animako ezur guziak, sarturik orreta-
rako oben gaistoen malkortegian ta amil-lekuan; edo
nik neronek nere kulpaz, eta gogo gaistoari atsegin
egiteagatik galdu dut nere anima, nork daki zenbat
bider edo zenbat bekatuarekin! Baña ezagaturik noiz-
bait-noizbait nere ibillera galdu au, ta onetatik atera
ditudan kalteak, idiki ditut nere begiak, eta ekusi dut
nondik dabillen nere gidari on Jesus maitagarria; ta
artu dut, ibillera galdu au utzirik, beraren ondotik
zuzen ibiltzeko asmoa.

Uzten ditut bada nik gogoz ta biotzez, oraindaño-
koan galdurik ekarri nauten nere bide gastoak! Ez dut
gaurero ekusi ere nai bekatuarekin biderik batere.
Beude aldebat, eta nigandik urruti, edo bebiltza nai
duten eran gañerako ero galduak! Orien eran len ibi-
lliaz dut nik damu; ta ziñez alere! Ez ditut berriz ez
bazkatu nai, oraindañokoan bezala, nere aztura ta
naikunde gaistoak! Ez diot eman nai, ez bati ere gai-
tzerako biderik txikiena, edo ongi ez dagokan ekuste-
korik bat ere! Asmo au lenagotik ez artuaz dut orain
damu ta urriki!

Nere jostatze txarrak, galerazi nauzuten, oraindaño noko nere erakeriak, utz nazazue gaurgero baketan, ta asaldatu gabe! Zuek neretzat izandu zarazte Herodes Jesusendako bezala, edo etsai gaisto guztiz galgariak! Zuen igesi ibilli bear dut nik, bai, bizi nazaño, ta autsi ta urratu bear ditut gaitzerako nere oitura makturak! Obe nukean nik nere lan au egin izandu banu lenago, ta lenago ere, edo iges egin izandu banu nik, orien eskuetara eraman nauten nere bide galgarrietatik, Jesus maitagarriak bere iges egite zuzenarekin erakutsi zidan bezala!

A, nere Jesus maitagarria! gaurdanik asiko naz egiten, bai segurki len bein ere, bear zen eran beintzat, egin ez dudana! Len au egin bagez nago ni gaur nagoen bezala, ta bekatuz, ekusten dezun bezain galdu-betea! Ez al zait bizitza guzian aituko niri gaur arturikako nere asmo ongille zuzen au! Ez nuke nai beintzat, Jesus maitagarria. Artuaz beraz ere zuri eskerrak; bada zuk ijit-arterako zere ibillera gogor nekezkoarekin erakutsi ezpazenit orain nik artu dudan asmorako bide au, artzeko egoin zen egungo egunean ere, aspaldi guzian edo oraindaño denboran egondu den bezala! Artzen bezala, bada, lagun zakizkit, nere Jaungoiko maitagarria, asmo artuak diona zuzen egi-

ten; bai, ta orain ziñez ta damuz erraten ere: *Nere Jesukristo, etc.*

XXIX.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN IJIT-ARTEKO NEKEAK

ESTO IBI USQUE DUM DICAM TIBI. Math. 2. 15.

A.

Jesusen Ejiptoko bearra, ta ango bere bearrarekin erakusten diguna

Aita Eternoak adirazi zuenarekin atera zuten Jesus Nazaretko itxetik, eta eraman zuten Ejiptora, otoitz-gai azkenekoan ekusi dugun bezala. Joan zen ijit-artera, naimen edo borondate oso-osoarekin: ta egondu zen an zenbait urtez; ta egondu bazen ere anitz nekeren artean, egondu zen nekerik ekusi ezpalu bezala, ta atera-nai bat erakusten etzuela. Jesusen ango egoera au zer den badaki, dakienak an Jesusek eraman ta ekusi izandu zuen neke-kezka, ta naigabe guzia. Nola-ere-bait au guk ekusi bearko dugu, ezagutuko badugu Jesusi kostatu zitzaiona guri erakustea, enoiatu gabe nekeak eramaten, Jaunak nai duen arte guzian.

Ejipton erbesteturik, egin zituen Jesusek zenbait urte: ta urte orietan izandu zituen Jesusek bi neke-modu ongi gogorak: bata zen bearra, ta bestea bere barreneko naigabea.

Ongi gogorra izandu zen, bai, beinik bein Jesusen Ejiptoko bearra. Goiztar erregeak eskeñi zioten urretik, edo etzuen artu Jesusen Amak batere, edo banatu zuen laster artu zuena beartsu zenbaiten artean; bada, andik anitz luzatu gabe elizara zenean, Jesusen Presentazioan, eraman zuen beartsu ta gabe bizi ziranen ofrenda; ta oberen bat eraman izan al balu, etzen, ez, orduan labur geldituko bere Jaungoikoarekin.

Jesusen Presentazioan gabe arkitzen ziran Jesusen Ama ta san Jose, andik laster, edo fite atera ziran beren itxetik ijit artera joateko; ta atera ziran, zerbait billatzeko lekurik etzutela, edo artarako astirik gabe. Zer izain zuten bada, Jesusi emateko, utsik bezala Ejipton sartu ziranak?

Non sartu zirala uste dezu Jesusen Ama ta san Jose, Ejipton Jesusekin sartu ziranean? Jaungoikoaren berririk (bear zenik beintzat) etzen erresuma edo erreinuan.

Emalle on anitz arkitu oi dira orrelako lekuetan, edo bazterretan? Nola billa zezakeen, nolerebait au

bizitzeko bear zutena? Lanez, ta irabaziz, beren errian bezala.

Eta beren errian, erriko lau-irabazi guziekin, beartsu ziranak, ez ote ziran bear geiagorekin arkitu izandu, erbestetuen eran, andik urruti ta Ejipton bizitu ziran denborat? Errazu deritzazuna, edo gauzak adirazten dutena: ta asma zazu gero, baldin badakizu, nolakoak izandu ote ziran Ejipton Jesusen etxea, etxe-ko gauzak, eta bizitza guzia.

Zuk eta nik dakiguna da, beartsu jaio zela Jesus, bizitu zela non ere nai; ta, gabearen ta bearrearen billan ez sartzera ijit-artean, etzela, ez, Ejipton sartuko Jesus maitagarria: bada ibilli baliz Jesus ondasun billan, bazoaken, bera ekustera, berari agurrak egitera, ta ondasunak ekartzera etorri zitzaizkan goiztar erregeetara; ta izain zuen, oriek emanik, nai adiña edo bear zuena ta anitz geiago.

Sartzen da bada Jesus Ejipton berariazko gabearen, bearraren, ta nekearen billan; ta arkitzen du, nai bezalako bearra ta gabea; ta bear-gabe, munduaren kontrako bide bat guri erakusteko bear bezalakoa.

Zer bide da munduaren bide kontrako, edo galgarrri au?

Au da, aisa bizitzea; gorputzari eskatzen dituen asetze, lo, ta kontentu guziak ematea; ta beartasun ta gabe guzietatik iges egiteko, jauregi edo etxe galantak egitea; ardantze ta masti, alor ta bazter al diranak erostea; ta soñekoz, ta gauz-on ederrez nork bere burua ta tokiak apaintzea. Au da, mundu eroak daraman bidea. Bide galgarri au guri utzirazi naiez, ta guk ar dezagun beste bide bear bezalako bat, edo berak Ejipton artu zuenaren erakoa, etzuen Jesusek beretzat an artu nai izandu, ezpazen bearra, gabea, ta biak dakarten nekea; eta orietatik izandu zuen an Jesusek ekusi dugun adiña.

A, gure Jesus maitagarria, ta zuk gugatik Ejipton ekusten dezuna! Bai? Bada oraindik ekusiko dugu geiago ere. Zer ote? Bere baitan an Jesusek ekusi zuena; edo ekusten zituen gauza gaistoak ematen zioten bere biotzeko naigabea.

B.
Jesusen Ejiptoko naigabeak;
eta naigabe oriek erakusten
digutena

Ejipton sartu zenetik, ekusi zuen Jesusek lendanik ongi aski ziekiena, edo ekusi zuen ijitoen itsutasuna, edo ibillera zentzugabeko galduak. Ekusi zuen, ijiptarrak ematen ziotela sulezeko galgarriari, Jaungoikoari baizik eman bear etzaion onra ta adorazionea; ta ekusi zituen, orretarako zituzten idolo zikiñak; edo ekusi zuen ijitoak beren Jaungoikotzat artzen zutela edozein tipula, edozein egazti, suge, ta gauza zikin; ta gauza txar oni egiten ziotela Jaungoikoari zor zaiona; ta, ezpaliz baño geiago etziotela begiratzen ere beren Jaungoikoari. Ekusten dezu gauza zein arrigarria Jesus maitearendako Jesusek Ejipton ekusten zuena?

Bein bakarrik, edo aldi beingo batean au ekustea gauza gogorra zen, dakusazun bezala, gure Jesus onarendako; zen alabaña, bere Aitaren onra etsai txar galduaren oñetan ekustea; ta ekustea etsai bera, ijitoen gogoz, Aita Eternoaren, Seme beraren ta Espiritu Santuaren zeruko Tronuraño igana edo goititua.

Au berau ekusten zuen, an sartu zenetik atera arteko denboran, edo urte guzietan; ta ekusten zuen urte orietako egun guzietan ere, ta eguneko ordu ta puntuoro. Bada bein au ekustea ain gauza gogorra bada, anbat aldiz ta ain maiz au berau ekustea zer izan zela uste dezu gure Jesus maitagarriarendako?

Eta zer izain zen bidenabar Jesus berak ekustea, ekusten zituen naigabezko beste zenbait, eta anitz gauza ere? Bada, ori ekustean, ekusten zituen Jesus maitagarriak ortik zetozen sorginkeriak, gezurrezko juramentuak, ostutze ta ebaste galgarriak, elkar ezin-ekusiak, aragizko bekatuak, eta gañerako gogoeta galduak eta loikeriak.

Oriek bada, lenekin batean, bere begietan edo gogoan zeduzkala bizi zen Jesusek, zer penak, zer kez-
kak, zer naigabeak izain zituen nai-ta-ez bere animan, edo bere biotz maitari-minberean? Guztiz andiak, guz-
tiz arrigarriak, eta kanpoko bearragandik zetozkionak
baño agitz eta agitz gogorragoak!

Eta, guziak alkar artzen zutenean, zertarako zuten gure Jesusen biotza? Zer-nolakoak izain ziran biotz maitari onen orduko penak, kez-
kak eta nekeak? Asma beza, nai duen edozeinek, al duena; baño geien asma-
tzen duenak ere, nai adin urtez ta urtez asmatzen egonagatik, aitortuko du, nai ta ez, azkenerako, asma-
ziorik andienak asm-al baño agitz eta agitz andiagoak zirala orduko Jesusen naigabe-pena-nekeak.

Ala ere atererazi ote zioten *ai!* bat bazen ere, gure Jesus maiteari? Idaroki ote zioten den kejarik txikiena ere, orrenbat neketan iutzi zuen bere Aitagana? Esk-

razi ote zioten bere Aita maitagarriari, atera zezala lenbaitlen orrenbat naigabe-pena-nekeren artetik, edo Ejipto zikin, galdu, gaistotik?

Ez, ez: eta berebat gertatuko zen, eun urtez ta geiagotan iraun balute Jesusen ango nekeak eta penak; bada guzia zeraman gure Jesusek, guri erakusteko guk egin bearra, neke zenbaten artean, Jaungoiko berak uzten gaituen aldietan; ta erakuste onek, ona izateko, eskatzen zuen ori guzia.

Ez arren zuk galdu, bekatari txarrak, zere Jesusen erakuste nekezko au! Zaude kontuan; zaude zai, ta zaude erne, zure onerako diran neke oriek datozeneko: ta, etortzen diranean, egizu laster ta zuzen, aldi onetan Jesusek zuri erakusten dizuna.

Gutiena zuk uste dezunean, asaldatuko zaitzu zere aidea, zere auzokoa, edo nor edo nor. Errietan emain dizu batak, obenik bage; bertzeak emain dizu alkekizuna, ateratzen dizkitzula zere uts lenagokoak, edo bein ere zuk egin ez dituzun gauzak. Onek galera-ziko dizu irabazbidea; ark ukatuko dizu zor dizuna, edo egiñen du, nork daki zer, zerea ez itzultzeagatik, eta, balizake, artzea, uste etzenuenagandik ere, zenbait txarkeri, bidegabe ta esker gaisto.

Orrelakorik ez den aldietan ere, izain dezu agian zerbaiten bearra, izango dezu zere eritasuna, edo buruko miña. Orrelakorik ez den zenbait aldiz nekaturko zaituzte zere zorra, zere auziak, edo etxeko kalteak; batetik ekarriko dizute berri txar bat, bestetik bestea: ta bakarrik egonagatik zu, etzara, beti beintzat, egoin nekerik gabe: bada batzuetan nastuko dirazure umoreak, eta umore nastuak illunduko dizute zere barren guzia; ta bestetan gogorako zaitzu lenagoko zere naigaberen bat, edo beste; ta orduan egiñak bailira bezain bortizki sutan ezarriko dizue zere biotza, len kenduak ziran zure naigabeak. Eta besterik ez denean, izain dezu, bai, dituzun gauzetatik zerbait galtzeko, edo egiteko daudenak makur egiteko beldurren bat edo beste.

Nekezko aldi oriek irabazbideak dira? ta, zenbat ere aldi bakoitzeko zure nekeak andigoak gertatzen diran, anbat irabazbide obean arkitzen zara zu. Orduan zuk irabazteko, irabaz ala, edo aldian datorren irabazgai guzia, ez dezu, baizik ontzat artzea gai orrekin datozkitzun orduko nekeak; eta era orretan zuk oriek artuko dituzu, artu ezkerro, enoiatu gabe, ta, igortzen dizkitzun zere Jaungoikoaren izenean.

Oriek zuk era onetan artzeko, begira egiezu ekusi ditugun Jesusen Ejiptoko nekeei, edo zuk, neketan arkitzen zaranetan, begira egiozu bere andien artean asaldu gabe ta Aita Eternoari begira zegoen Jesus maitagarriari. Zenbait aldiz zuk era onetan Jesusi begiratzten badiozu, beratuko zaitzu, bai, zere biotza, ta, zere neke guzien artean ere, errain diozu zuk zere Jesus maitagarriari.

A! nere Jesus maitagarria, aur jaioberria zu, edo urte gutikoa; ta alere orrenbat neketan zu, orren bear-tsu zu, ta orrenbat kezka ta naigaberekin zu! Norgatik au, nere Jesus maitagarria, edo zeri dagokala? Baña badakit, bai, Jesus, maitagarria; badakit, bai, norgatik zen, ta zeri zegokala au guzia; bada badakit, guzia zela nere amoreakgatik; eta niri erakusi-naiez, aldi orrelakoetan nik neronek egin bear dudana, edo bada- kit guzia zela niri enoiatu gabe, ta irabazi andiekin arrerazi naiez, izaten ditudan neke ta kezka guziak!

Au dakidan ezkeru bada, nere Jaungoiko maitaga- rria, nigatik dagitela nai dutena munduko nere etsaiak, eta gañerako guziak: gaurgero artu nai ditut nik, zure izenean, ta Jesusen eran, orien txarkeri guziak, eta, txarkeriak ekarri ditzakeen naigabeak; eta, nork-nai eginagatik niri munduko txarkeririk

andienak, itz egin uste diot nik etsaiari ez bezala; ta prest egon uste dut nik, al dudan on guzia orri ordezt egiteko. Ori da, Jesus maitagarria, or zuk niri gaur Ejipton erakusten didazun zerurako ibillbidea: ori da zuk nigatik bein, berriz, ta askotan egin izandu dezuna; ta ori nik ere gaurgero zugatik, edo zure izenean egin uste dudana.

Bai, nere Jesus maitagarria, bai; zure ondoren ibilli nai dut nik, bizi nazaño. Zureen eran, egin nai ditut nik nere gauza guziak. Zuk zere nekeak nigatik bezala, zugatik artu nai ditut nik ere nere neke-pena ta nairgabe guziak. Egin asmo dudan lan on au zuzen egiteko, bear dut nik zure laguntza ta grazia. Eskatzen dizut, Ejiptoko zere bideetan, zere lanetan, ta zere neke guzietan lagundu zizun zere Ama maitegatik; eta biekin ibilli zen, zure Amaren Esposo san Josegatik. Ez ukatu au niri, nere Jesus maitagarria, ez arren,ez!

Evangelizare pauperibus misit me.

Luc. 4. 18.

Nere Aitak igorri ninduen ni, edo bidaldu ninduen, bearrean arkitzen diranei erakutsi onez laguntzera (erran zuen geroko batean gure Jesus maitagarriak; eta itzik atera gabe, au bera dio orain Ejipton ere). Bidaldu ninduen, bai, gabe daudenei beren beartsu bizi dirañ, emeki artu, ta ongi eramaten erakustera: ta erakutsi diet nik beren egiteko au, aldi onetan nik egin dudanarekin; bada guztiz beartsu arkitzen nintzan ni ijitarteko bide nekezkoan nenbillen egunetan; baita Ejipton egondu nintzan denbora guzian ere: ta alere ara nintzan ni, ta an bertan egondu nintzan, nere Aitari atsegin-egitea besterik gogoan ez nuela, ta batere kejarik bage; ta ekusten nituen neke, lan, ta naigabe guzien artean egondu nintzan ni, atsegin-kontentuz beterik egondu banintz bezain sosegu andi osoarekin; banekien alabaña ori zela nere Aitak orduan nigandik eskatzen zuena: ta era au bera da, geroztik nik eraman izandu dudana.

Ori bera da, zu ta ni, bekatari txar biokgandik Aita berak eskatzen duena, gu ere Jesusen eran beartsu ta gabe arkitzen garan aldietan; bada eskatzen du emekitxo guk, isiltxorik guk, eta itzik atera gabe, geren gabe bear au jasotzea.

Egin ote dugu au zuk eta nik, biok, geren orainda-
ñoiko denboretan? Artu ote ditugu guk geren bearrak
eta gabea, gure on utserako ziran gauzak bezala?
Oroitzen giñan gu aldi orietan, jaio zenetik eta Ejipto-
ko bere denbora guzian, Jesusek erakutsi izandu zigu-
naz? Andiak dira, ala guk egin izandu badugu, egin
ditugun irabaziak; eta egunen batean emain diozkagu
geren Jaungoiko maitagarriari, nork daki zenbat esker,
orien alde, edo zeren eman izandu zizkigun, orrenbat
gure onetarako ziran beartasuna ta nekezko irabazbi-
dea.

Ez al dezu, zuk beintzat, bekataria, galdu izandu
orrelako aldietatik batere? Ai ene! Ez galdu nik aldi
orietatik batere? Eta izandu ote da batere, nik galdu
izandu ez dudanik? Ondasundunak, aisa bizi ziranak,
eta nai adin atsegin ta gauza zituztenak ziran, nere
gogoan, zorioneko jendeak; eta bearrean, ta gabeare-
kin bizi ziranak ziran nere uste galduan, Zoritxarreko-
ak, eta urrikarrizko jendeak; eta, orien artean arkitzen
nintzanean ni ere, kezka zen, marmaria zen, ta naiga-
bea zen nigan arkitzen zen on guzia!

Orain ezagutzen dut nik aldi orietako nere zentzu-
gabea, ta nere eskergabeko erakeria! Damuturik nago
gaur, lenegotik ez ezagutuaz, aldi orietarako Jesusek,

Ejiptoko bere denboran, erakutsi izandu zidana; ta gaurgero zuzen egin naiez nago, era bereko aldi guzietan, Jesus berak erakusten didana, ta niri neroni ain ongi dagokidana. A, banegi nik au guzia; ta banegi, batere uts egin bage! Lagun zakizkit egiten, erakusten bezala, nere Jesus on-maitagarria; bai arren, bai!

In laboribus á inventute mea.

Psalm. 87. 16.

Ez nitzan ni etorri, ez, dio Jesus maitagarriak; ez nintzan ni atsegin ta gustoz beterik emen bizitzera: nekezko bizitz on bat egitera etorria naz ni zerutik lurrera; ta bide nekezkoa danik nere aurtasunetik emen daramadan bidea. Bide au berau artu bear dute nere ondoren dabiltzanak, nerekin gero nere zeruan sartu nai badute. Eta anitz eskatzen etzaie, ez, eskatzen zaienean ar dezatela, Zerura nai dutenak, nere neke gogorrez nik, eta anitz izerdirekin zabaldu die-dan au bezalako bide bat? Artzen badute ere, ta ill arte guzian zuzen ibilliagatik, nik egiña baño gutiago, ta agitz gutxiago eginen dute beren ibillera guziare-

kin; ta orien ibillerako nekerik andienak ere arin labur-
rak izan dira, neke orrekin irabazten dituzten atsegin-
kontentu, ta betiko gloriaren aldean. *2. Cor. 4. 17.*

Ala ere bizi nai dezu zuk, bekatari txar galdua,
arin, aisa, ta batere nekatu gabe? Utzi nai diozu zuk
Jesus maitagarriari bere nekezko bide latz au ta sartu
nai dezu zuk zere gogarako bide galgarri zabaletan?
Ez baldinbere? Ez, nere Jesus maitagarria, ez! Zure
bide zuzenez ibilli nai dut nik, bizi nazaño, ta beti-beti
zurekin batean egiten ditudala, zure Ama maitaga-
rriak eta san Josek egin zituzten gauzak, edo ibilli nai
dut nik, nekeren bat datorkidanean, zure, ta orien
bien neke gogorreki begira-begira negoela. Zuri begira-
tzearekin zere bidean, ta Egitoko zere neke gogorre-
tan, arinduko ziran nai-ta-ez zure Amaren, ta san Jose-
ren nekeak; eta badut uste, arinduko dirala nereak
ere, orien eran nik ere zuri begiratzearekin; ta, arin-
tzen ezpadira ere, nik jaso-al baño andiagoak izain ez
dira nere nekeak; eta guziak eraman uste ditut zure
graziarekin batean. Indazu zerorrek, eramate orreta-
rako nik bear adiñako grazia. Bai, nere Jaungoiko mai-
tagarria: bai arren, bai!

*Ne avertas faciem tuam a puero tuo,
quoniam tributor.*

Psalm. 68. 13.

Ejiptoko bere neke, kezka, ta naigabe guzien artean errain zion Jesus maitagarriak bere Aita Eterno-ari, Dabidek aren izenean lenagotik adirazia zedukana: Jauna, errain zion, ekusten dezu aspaldi guzian emen nik Ejipton daramadana. Emengo bekatuak erdiratzen didate nere biotz minbere au, edo damuz ta illuntasunez betetzen didate gau, ta egunoro ere, milla ta milloi aldiz! Zuk nai dezu, nere Aita maitagarria, nagoen ni deus aditzen etzaion aurtxo bat bezala, emengo idolo-kontu, emengo zikinkeriak, eta ibille-ra gaisto guziak ekusten ditudala; eta ala nago: baña ekusten dezu nola ta zenbat naigaberekin arkitzen nazan ni; ta guzia daramadala zuri ongi naiez, ta zeren zu nik maite-maite zaitudan! Ez da deus nik daramadan guzia, zure izenean nik eraman nai dudaren aldean. Nik orain berriro dagikedana da, zuk nai dezun guzia, ta zuk nai adiña denboraz emeki ta zuzen egiteko prest egotea. Ala nago ni, bai, ta egoin naz, beti, nere Aita maitagarria; baña begira egiozu

zuk ere nere aurtasunari, ta lagun egiozu dagikezunak bezala.

Era onetako zerbait erraten dut nik ere; Jaun berak ni neketan nadukan denboretan? Eguraldiak, etxekoak, edo beste zenbaitek egiten didaten aldietan naigabereren bat, edo beste, bere eskuan muñ egiten diot nik nere Jaungoikoari, zeren nadukan bere Semea Ejipton bezala, penen artean, ta nere pazienziarekin irabazi andiak egiteko bidean? Erraten diot nik aldi orietan prest nagoela ni ere, berak nai duen gañerako guziguzirako; ta geiago ta geiago baliz ere, ontzat artzeko nagoela beraren izenean, ta ori ala artzeak ekarriko dizkidan ondasun andiakgatik?

Zorioneko-ta-onekoa ni, orretan egotera! Baña ez naz ni, ez, askotan beintzat, orretan egondu! Naigabe bat ekusi orduko asaldatzen nintzan ni, eroa bezala, ta ez nuen eraman nai nere Jaunaren izenean, den gauzarik txikiena ere; ta, edozein gauza txar egiten bazidaten, egiten nion egilleari sugearena, edo al nuena; bada egiten nion, izurriz, ortzez ta lamez etzenean, gogoz, ta naiez ordeña, edo zer edo zer txarkeri; ta, zenbat andiagoa zen, ortzezko, edo naiezko nere txarkeria, anbat andiagoak ziran orduko nere atsegin-kontentuak.

A! nere zenzugabe galdu-galgarria! Ori da Jesusek Ejipton, ta bere biziko neke guzien artetik niri erakutsia? Orretarako sartu nintzan ni nere naiez nere Jesusen Lege garbi nekagarrian? Orretarako aditu ditunik, aditu ditudan sermoiak? Orretarako ziran lagunerran onak, eta libruz ikasi ditudan gauzak? Nere erogia! nere galgarria! Gisa berean egin uste ditut gaurgeroko nere gauzak edo egitekoak? Gaitz aldera, ta makur artzeko nago nere Jaungoikoak onez niri igortzen dizkidan otz-beroak, kezkek, eta nekeak? Ez baldinbere! Gañerakoan egin du nereak; eta galdu naz ni beti-ta-betiko!

Nere Jesus maitagarria! Neketan, ta neketan bizitu zaran nere Jesus maitea; lagun zakizkit arren zuk, zerorrek erakutsi didazun eran nere gauzak egiten. Lagun zakizkit, arren, neketan arkitzen nazanean, nere biotz au nere Jaunagana goititzen, isiltxorik eta emeki guzia daramadala, eraman dezadan zure bidea, ta igan nadin egunen batean, zuk idiki didazun zere zerura. Lenagotik au ez eginaz dut damu, ta ziñez alere; ta orregatik diot orain itzez ta biotzez: *Nere Jesukristo, etc.*

XXX.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN BAZKOA

A.

Jesusen berezko elizaratzea; ta guraso-umeei an ark orduan erakutsia

Ejiptotik itzuli, ta zerbait azi artean, itxean bizitu zen Jesus maitagarria: ta bizitu zen, zena bezela, edo ezinobeki, ta adin artako gauzak berak egiten zuenarekin guztiz ederki erakusten zizkigula. Baña zerbait anditu zeneko, asi zen egiten andituxe diranak, edo, zer egiten duten dakiten aurrak egin ar dutena; bada, bere itxea utzirik, joan izandu zen bere Aita Jaungoikoa bere etxe berezian, edo bere Jerusalengo elizan billatzera: ta, ara zeneko, asi zen an berari zegozkan, ta Aita Jaungoiko berak nai zituen, gauzak egiten; ta egin zituen guziak, egin bear ziran eran, ta ezinobe-kiago.

Benik bein bada billatu zuen Jesusek, bear bezala, bere Aita Jaungoikoa, edo billatu zuen alik lenena, edo

adiñetan sartu orduko, ta elizara berez joan ziteken bezain laster, bada joan zen ara amabi urte zitueneko; ta etzen erraz lenago Jesus elizaraño joatea; bada Jerusalemen arkitzen zen, Jesusek billatu bear zuen eliza; ta Jesus bizi zen andik urruti, Nazaret zeritzan Galileako erri batean. Orra bada lenbiziko Jesusek gaur aur gazteei erakusten dien, ta oriek ere egin bear duten gauza; lenbaitlen bakoitzak bere Jauna billatzea; bere Egilleari bezala, bere agurrak eta zor diozkan gañerako gauzak egiteko.

Baña etzen Jesus aldi onetan bakarrik joan bere itxetik Jerusalemgo elizaraño; joan izandu zen bere Amarekin ta san Joserekin batean. Etziran gidari, bide-erakusle, ta lagun onak, bere bide onetan Jesusek izandu zituenak? Bai segurki; bada oituak zeuden bata ta bestea, san Jose ta Jesusen Ama birjina, Jerusalemgo eliza-bidera, ta arako egunik ez uts egitera.

Orra bada, adiñetara diran aurrak egin bear duten bigarren gauza; beren guraso onen ondoren ibiltzea, beren Jaunaganatzen diran lendabiziko egunetik. Ori da orain Jesusek erakusten dien bigarren gauza; ta ori, emen bizitz on batera ta gero eternidade guziko atsegin-kontentuetara daraman bidea.

Joan zen bada Jesus Jerusalem, arako garaiera zeneko; ta joan zen ara bere gurasoekin batean. Baña zein egunez? Joan ziteken egunik onenean; joan zen alabaña Lege zarreko Bazkoetan; ta Bazkoak ziran urte guziko egunik andienak. Bazituzten israeldarrak urteoro irur Bazko-aldi; bakoitza, Jaungoiko berak berezi zien egitekorako. Jesusen oraingo Bazko au zen, Jaunari eskerrak emateko, zeren atera zituen israeldarrak beren nagusi gaisto ijito gogorren atzaparretatik, irur-eun urtez ta geiagoz an, orien menean anitz neke, kezka ta naigabe ekusi ezker. Eta Jesusek ere bazituen zer eman Jaungoiko maitagarriari, era bereko bere eskerrak; bada Jesus ere, anitz denbora etzela, atera zuen Ait-Eternoak Ejipto bereko erreinu gaistotik eta ijitartetik.

Beren ijitartetik ateratze onen izenean, bada, edo beren ateratze onetan Jaungoikoak egin zien ontartearen eskerrak ematera, Bazkoz joan bearrak ziran Jerusalemgo elizara, araño joan zitezken israeltar gizaki guziak; bada beste Bazko bi, edo Fest andietan bezala, etzuen erdisten batek ere Bazko onetan, ez etortzeko eskurik, edo dispensarik.

Nai zuten israeldarrak, eramaten zituzten berekin Jerusalemgo elizara, orduko erdi zorituak arkitzen ziran

garagar-gari sortak, balak, edo moltxoak. Artzen zuen, artarako zen eliz-gizonak, moltxo, bal, edo sorta guzietatik bat, bere Jaunarendako (gañerakoak eliz-gizonentzat ziran). Sort edo bal ori Jaunari eskeñi edo ofrezitu ondoan, kiskiltzen zituen, edo su aldean idortzen zituen gari-buruetako bii, edo ale ezeak, edo erdi zorituak; ateratzen zituen gero beren azal, edo buruetatik ale berak; austen edo lertzen zituen guziak; eta, ematen zuten, iriñari ezartzen zion gañetik inzenso ta olio zati bat, eta erretzen zuen gero guzia Jaunaren izenean, ta beraren begietan.

Lan au guzia eliz-gizonaren lana zen, edo egitekoa: gañerakoen egitekoa zen Jerusalemene bizitzea, edo Bazkoetako zazpi egunak an igarotzea; astiz ekusteko beren Jaunari zor ziotena; zorren alde zer-bait egitea; ordu jakinetan bazen ere elizaratzea; ta, Ejiptoko egun latz-miñak gogoan arturik, an egotea; ta orretarako legamirik, orrantzik edo orantzik bageko ogia baizik ez jatea, an arkitzen ziran egunetan.

Jesusek egin zuen an au guzia, zegokan eran, ta Bazkoak Bazko ziranetik egin zen ederkiena: bada elizara zen beinik bein bere adi-untzan, ta garai onean, edo egunik galdu bage. Elizara zen bear zen eran, edo guztiz ederki ta zuzen; edo elizara zen Jaungoiko-gizo-

na bezala, ta ezinobekiago, edo ibiltzez, gogoz, ta naiez elizara zen Jesus, zena bezala, ta besterik ezin zidoaken eran.

Ala da, Jesus maitagarria, ala da, bai segurki! Guk ezin uka dezakegu, israeldarrak eta munduko guziak elkar artuagatik, ezin dagikegula guk zure eran, ta zuk bezain ongi ta zuzen, munduan den gauzarik txikiena ere; zu alabaña gizona zara, bai; baña gizon-Jaungoikoa, edo Jaungoiko-gizon guzia dakizuna; Jaungoiko-gizon, nai dezun guzi-guzirako bear den esku guziarekin arkitzen zarana; ta Jaungoiko-gizon, utsik bat ere ezin dagikezuna; ta gu guziok bekatari txar, utsez beteak gara; ta, zuk guri erakusten laguntzen ezpadi-guzu, nola betazal bat goititu ere ez dakigun bekatariak.

Zorionekoak gu geren gauzak egiten baditugu, zureak bezain onak ez izan arren, zureei begira gagoztela, ta orien eran; bada, guk ala gure gauzak egitera, aterako dira zureen erakoak; eta, gureak izan dezakeen gauzarik onena da, zureen idurikoak ateratzea. Ala egiteko, ekusi nai ditut nik aldi onetako beste zure gauzak ere.

Egun onetako gari berrien, ta gariarekin eliz-gizonak egiten zituen gauzetan agertzen digu guri gure

Jaungoikoak ispillu garbi eder batean bezala, gure Jesus; baita Jesusek, gaur asi, ta gero gure Bazkoz bukatu zuen gauz andi bat ere bada Jaungoikoak ematen dio Jesusi, Zakariasen ezpañez, gariaren izena.

Orduko Bazkoan gari berria zen oraindik, eta gari zoritzen asia baizik ez, gure Jesus maitagarria, edo gizatasunaren adin betera bagekoa zen orduan gure Jesus maitagarria. Denbora berean eliz-gizona zen, edo Sazerdotea gure Jesus; ta Jerusalengo elizara zeneko, eskeñi edo ofrezitu zion Jesusek Ait-Eternoari bere gari-sort edo bal au; edo ofrezitu zion orduan, garitan bezala, bere gorputza, gero bere denboran, juduen ta jentil gogorren suan idorturik, eta orien beren tormentuz iriñ eginik, eta bere otoitzen inzensoa ta amore andiaren olio gañetik ematen ziola, gurutzeko Aldarean erririk uzteko, len israeldarrei Ait-Eterno berak egin zienaren alde, eta oriek, eta bera iji-tartetik bezala, munduko guziak beren etsaiaren atzapar gaistoetatik, eta bekatuaren azpitik atera zitzan.

Ekusi zazu zer ofrenda? Ekusi zazu non arki ziteken, Jesus aur gaztearen balioko gari berririk? Ekusi zazu, ote zen Jesusek bezain ederki Aitari ofrenda eramaman zezoken apaizik? Ekusi zazu, batek ezezik, orduan ziran ta izandurikako Israeldar guziak ere egin

zitzakeen au, ta egun artako beste gauzak, Jesusek bezain zuzen ta laster? Eta bidenabar ikasi zazu, Jaungoikoari dagozkan gauzak egiten.

Jesusek Jerusalemenean egin zituen, au ezezik, gañerako beste gauzak ere, israeldar guziak baño agitz obeki ta astiroago; bada Israeldarrak egiten zituzten gizonen eran, ta zazpi egunez, beren Bazkoko gauzak; eta Jesusek egin izandu zituen, Jaungoiko-gizonak bezala, ta gañerakoak baño egun geiagoz; bada, gañerakoak Jerusalemendik atera ezker, ta oriekin batean bere Ama ta san Jose andik joan ondoan, Jerusalemenean gelditu zen Jesus bere Aita Eterno maitagarriarekin; ta gelditu zen an, ez Ama ta ez san Jose oartzen zirala; bada etziran oartu urrengo arratseraño.

Egun guzian ez oartu ez bata, ez bestea, berekin etzutela Jesus? Orren guti nai zioten Jesus maitagarriari bere Ama Birjinak eta san Josek? Etzen orregatik. Zergatik bada? zeren joan ziran Jesusen Ama ta san Jose bide banaz, edo berez; bada, Bedak dionaz, bidean zebiltzanean israeldar gizonak, eta bazter aietako edo Lege zarreko andreak, andreak zebiltzan aldebat eta gizonak beste: ta aurak bazoazkeen, naiz gizon artean, ta naiz andreen bidez, ta oriekin batean. Orregatik bada san Josek uste zuen, bere Amarekin

zela Jesus; eta Jesusen Amak, uste zuen san Joserekin zijoala: ta, orien obenik gabeko bien ustekabeaz baliatu zen Jesus, egin zuen gauz au egiteko, edo Jerusalemen gelditzeko: ta gelditu zen an, gañerakoak joan ta, bere Aitari eskerrak ematen, irur egunez beintzat, ta ango bere gelditze onekin erakutsi zien guraso guziei zein kontuz ta zein erne ibilli bear duten beren umeak zaitzen, galdu nai ezpadituzte ume berak egun-ta-betiko, edo sekula guzirako.

Eta zer nai ote zuen Jesusek adirazi, bere onenbat esker emate, ta onen luzaro Jerusalemen egote onekin? Zer? Ezin ziñezago egin ziola Aita Eternoari bere buruaren ofrenda; ta Jaungoikagana zen ezkerro, Jaunaren gauzetan baizik etzitukela eraman nai bere egunak eta ordu guziak; eta, maite bazuen ere bere Ama birjina, maiteago zuela bere Aita Jaungoikoa; ta Jaungoikoagatik utziko zituela noiznai munduko gauza guziak. Eta bidenabar adirazi zigun, Jaunarenak izan nai dutenak, edo beren Jaungoikoa maite dutenak, egin bear dutela beste onenbeste.

Adiraztearen ederra! Ageri da, bai, norena den; edo ez dela, dirudien bezalako batena, edo mutiltxo aur utsarena! Ez, Jesus maitea, ez: zurea da; Jaungoiko-gizon jakintsu ezinobearena da zure gaurko adiraz-

te, ta elizan gelditzea; ta orregatik da, zure Aitak bear bezala, ta ezin geiagoraño estimatu zizun gelditzea, ta eskerrak ematea! Egin baneza gaurgero nik, onetan zuk gaur adirazten ta erakusten didazun guzi-guzia!

B.

Jesusek berezkiro elizan egiña, ta guri erakutsia

Ez ote zuen Jesusek irur egun orietan elizan egin izandu, bere Aitari eskerrak ematea beste gauzarik? Bai noski ta, gañerako elizaratzen ziranak egin oi zituzten otoitz eta gauz onak ere. Egund orietan elizan egoin zen beti, edo beintzat geienezan gure Jesus maitagaria; ta bakarrik an arkitzen zenezan, edo bereis an egiten zituenezan bere gauzak, itz egiñen zuen bere Aita Eternoarekin; ta agertuko zion ezin-geiagoraño-koa zela zuen damua ta pena, zeren ain guti begiratzeten zioten gizonak, edo zeren gizonak eta munduko jendeak egiten ziozkaten anbat txarkeri ta bidegabe; ta, oriek galerazteagatik, eta, berari zor zaion onra emateagatik, prest arkitzen zela edozein gauz egite-

ko; baita zuen odola gurutze batean iltzez josirik, eta nekez beterik arkitzen zela, isurtzeko ere.

Au guzia, ta beste era bereko anitz gauz on ere, egiñen zituen gure Jesusek egun orietan; baña, gañerakoan artean, egin izandu zuen bat, adin artan egin zezaken onena.

Zer ote zen gauz andi au? Ango Doktoreak, edo elizako Erakusleak zioten guzia kontuz aditzea; ta oriei berei, jakin bear ziran gauzak guztiz ederki gald-egitea.

Irur egunen buruan orretan arkitu zuten Jesus maitagaria bere Amak eta san Josek; bada arkitu zuten, dio san Lukas ebanjelariak, elizan jarririk Doktore jakintsuen artean, orien itzak astiz aditzen, bere galdeak oriei egiten; ta, egiten ziozkaten galdetzeei zuzen, ederki, ta zenak bezala, eranzuten; ta, arrituten eran, ta atsegin-kontentuz erdi liluratuak, zeduzkala Doktore guziak.

Orra Jesusek egin izandu zuena, berez, edo bere oñez bere Jaunagana zenean, ta Jerusalemen bakarrik arkitu zen irur egunetan. Lanaren ekustekoa; ta erakustearen ederra!

Erakutsi zien, bai, Jesusek gazteei, Jerusalengo bere egiteko lan eder onekin, oartzen diranean, edo

zenuen ezkerrean egin bear dutena. Ori da, biotzez Jauna billatzea, ta zeren bekatu etorkiaren Ejipto gaistotik bere bataioz atera zituen eskerrak ematea, ta, gañerako guzia baño geiago beren Jauna maitatzea ta onestea; ta, oneste ta maitatze onek eskatzen duen eran gauza guziak geroz egitea; nola egiten diran, Jesusi bere gaurko lanean ongi begiratzuz, lenik ikasten dutela. Zorioneko umeak; eta ume Jesusen idurikoak, lan au zuzen egiten duten umeak!

Egin ote zenuen zuk au zere lendariziko asieratik? Edo maitatu ote zenuen zuk ordutik zere Jaungoika maitagarria? Ez ote zenuen galdu zuk zenbait denbora, orretan asi ziñaneko? Bein maitatzen asi ziñanetik maitatu dezu beti zuk zere Jaungoikoa; ta maitatu dezu ziñez, ta bear bezala? Zere Jauna maitatzeagatik, eta Jaungoikoari dagozkan gauzak zuzen egin naiez, utzi ote dituzu zuk zere gurasoak, eta atsegin egiten zizuten beste gauzak? Elizara ote zara zu, al zenuen aldi guzietan? Entzan ote dituzu zuk, entzun al adiña meza ta sermoi; baita elizan aditzen diran gañerako gauzak ere? Ikasi ote zenituen zuk, garai onez ta bere denboran, ikasi bear diran gauza guziak?

A! nere Jesus maitagarria; ta zein guti! Banuen nik, bai, bear etziran gauzetarako, nai adiña aditze ta

adimentu; ta, adimenturik ezpanu bezala bizitu nintzan ni nere gaztetasunean, edo aur denboran, nere Jaunaren gauzei era orretan begiratzeko! Banekien nik orduan, bai, bear etziran gauzak maitatzen; ta maitatzen ez nuen nik, bear zen denboratik beintzat, nere Jaun on maitagarria!

Noiz elizara nintzan ni nere gazte denboran? Adiñetan sartu orduko? edo nere Jaun ona ezagutzen asi nintzanetik? Nerez, edo, bear bezala beintzat, ez: ez eta geroago ta geroago ere: bada, ni elizara joanagatik noiz-edo-noiz nerez, edo zeren bidaltzen ninduten, ara joan oi nintzan ni, etxe eder bat ekustera bezala: ta, an guti bat egon ezkerro, aspertzen nintzan ni nere elizako egoeraz; ta laster nik elizako aldiak egiten nituen; ta, an ni zenbait denbor-apur egoten nintzane-tan ere, izan oi zen ezinbestez, ta bortxaz bezala.

Eta zer egin oi nuen nik, elizan nengoen geienez beintzat? Nik egin oi nuena zen geldirik ez egotea; bazterretara, ta sartu atera zebiltzanei begiratzea, nere gogo guzia elizaz kanpoan, ta nere mii txar galdu au erausitan, ta berriketan an erabiltzea; Mezak gaizki enzutea (enzuten banuen batere); predikuaz, sermoiaz, edo doktrinaz kasorik ez egitea; ta, noiz andik aterako nintzan, asmatzen egotea!

Denbora artako nere on guzia zen jostaketa, jan-
edana, alferkeria, loa, ta gogoak ematen zidan edo-
zein gauza txar txarki egitea. Zenbat eta zenbat egin
ote nituen nik, alkekizun utsa, ta lots andi bat baizik
ez dakartenak? Zenbat, eta zenbat egin nituen nik
nere gaitzerako ziranak? Zenbat, nere anim-au guztiz
loitzen zutenak? Eta zenbat eta zenbat gerozko nere
obenen sustrai, ta asiera gaisto izandu diranak? Eta ez
ote datoz, nere adiñ artako asiera beretik, oraingo
nere utsak eta txarkeri guziak ere?

Zer asiera gure Jesus maitagarriaren asiera; ta zer
asiera nerea! Orain badere, asi banendi ni bear den
erako damuz urratzen, Jesus nereak bere aur denbo-
ratik agertu, ta erakutsi zizkidan gauzak zuzen egite-
ko! Billa baneza nik (eta ziñez maitatzeko) nere Jaun
andi guztiz maitagarria! Utz banintza nik nere alegin
guziarekin, ori eragozten didaten nere egiteko ta lan
txar guziak! Elizan nik gaurgero eraman banintza
gauz onetan, nere Jaunaren itzetan, ta gero nik egin
bear ditudan gauzak ikasten, zenbait ordu edo denbo-
ra zati?

Orretara-naia nago ni gaur, nere Jesus maitaga-
rria; ta, lenago etorri gabeaz, ongi damutua! Betor,
arren, lenago nere uts guzien barkamentua, ta nere

nai oñ, zuk zerorrek emanikako onek eskatzen duen zure laguntza ta grazia. Eskatzen dizut, zere lenbiziko Bazkoz erakutsi zenidanagatik, eta, niri erakutsi naiez, orduan zuk egin zenuenaren izenean. Ez ukatu au niri, nere Jesus maitagarria: ez arren, ez!

*Obtulerunt mente promptissima
atque devota primitas Domino.*

Exod. 35. 21.

Israeldarrei, Ejiptotik atera, ta beren bazter aldera zijoazenean, adirazi zien Moisesek, Jaunari, beraren manuz, egin bear ziotela tabernakulo edo eliza-modu berri bat, eta, ura egiteko ta aren gauzak zuzentzeko, ekar zezala nai zuenak nai zuena.

Au aditu orduko ango andreak, gizonak, eta ziranak ekarri zituzten, zituzten gauzarik onenak; eta ekarri zituzten biotzez, ta nai arrigarriarekin, ta eman ziozkaten orretarako, ta beren Jaunarentzat. Prest ote zaude zu, beraren izenean eskatzen zaitzuna zere Jaungoikoari bertatik emateko? Emain ote diozu zuk orain gogoz, biotzez, ta nai osoarekin?

Ori, bada; adi zazu zuk, zure Jaungoikoak orain adirazi nai dizuna. Etortzeko nago ni, dio Jesus maitagarriak, zu komuniatzen zaran aldietan edo egunetan; ta orduan zuk zerorrek izan bear dezu nere eliza, ta nere egon-leku. Baña nola arkitzen ote zara zu nere etorraldi andi orietan, artzeko ni zuk, niri dagokidan eran? Biotz eta anima garbiekin arkitzen zara zu, ta den txikien autsik ere bage? Arkitzen ote zara zu zeruko birtutez ta doaiez ongi apaindua, ta nik nai bezala? Asmo zuzenak ote dira, zure gogoan gau ta egun arkitzen diran asmoan? Agur andiak, amoriozko eskerrak, eta birtutezko gauzak ote dira zuk, etortzen zaitzunean, zere Jesus maitagarriari eskeñi uste diozkatzun presentak? Present galant-onak dira, zuk dituzun presentak, baldin zuk er-orretako presentak badituzu.

Bai, Jesus maitagarria; baña nondik nik gauz eder andi, ta present oriek, zuk zerorrek niri oriek ez ematera, nik eskatuz zuri, ta zu nitaz urrikaltzen zarala? Eskatzen dizkitzut bada, ta ziñez alere, izan dezadan nik, zuri zerekin prestatu nere barren txar eliza txiki erdi-galdu au, komunione santuan zu niganatzen zaran aldietarako!

Lan au, edo nere eskatze umil ziñezkoa lendabizitik, eta gero, ardura ta maiz ez egiñaz dut damu ta

urriki. Ez al zait berriz era bereko utsegiterik agituko, edo gertatuko? Ez arren, Jesus maitea, ez: ta gerta ez dedin, ta bear den eran artzeko zu nik niganatzen zaran guzietan, indazu orain dudan asmoan beti irau-teko bear dudan zure laguntza ta grazia; baita, eskatuko dizudan beste guzi-guzia ere. Bai arren, Jesus maitea, bai!

*Bonum est viro cum portaverit
jugum ab adolescentia.*

Thren. 3. 27.

Zorioneko umeak, Jesusen eran goizdanik, edo beren gaztetasunetik, beren Jauna billatzen dutenak! Oriek egiten dute, zuzen dabiltzanak egiten dutena; ta, ori zeren egiten duten, irabazten dute emen bertan nork jakin zenbat ondasun ta Jaunaren amore; ta gerorako Jaun beraren esku indartsua, edo grazia ta laguntza. Laguntz onekin aisa garaitzen dira, bai, etsai gais-toen alegin guziak; guztiz garbiro, ta bear den eran gordetzen dira biotz-animak; eta zuzen egiten dira, egin bear diran lanak eta gauzak.

Zorioneko goiztarretatik, edo Jauna goiz aski ta gaztedanik billatzen dutenetatik ote zara zu, nere anima? Orietatik zu izatera, bukaera ona izan oi dute-netatik zara; bada, gaztetan arturikako bidean oi dabill gaztea, zartzen denean ere, Espiritu Santuak erraten digunaz; edo ongi ta zuzen ibilli oi da zar-denboran, baita bere sasoi onean ere aurdanik, eta gaste-tan bere Jaunaganatzen bada, Jaun berak nai bezala, edo guztiz, ziñez, ta osoro.

Utsak egiten dituzu zuk, nere anima; makur zabil-tza zu, ta bekatuz bekatu, zere gazte denboratik atera ziñan ezkeru? Beldur naz bada, datozen zure malur oriek zure gaztetasun zoratu galgarritik, edo zeren garaiez itzuli etziñan zu zere Jaunagana, ta gaztetan ereiñ zenuen, orain zere animan biltzen dezun oitura gaistoen bii galdua. Ala delarik, izain dezu zuk neke ta lan, datozen egunetan; bada lur ona da gure biotza, sustrai gaistoak artzeko; ta ez da laster garbitzen, sustrai, erro, edo zein zikiñez ingurutua ta betea dagoen, zurea bezalako, biotz bat.

Neka zaitetz bada zenbait denboraz orain zere sus-trai galgarri oriek ateratzen, nai badezu bizi gero aisa, ta gauz on anitz egiten dituzula: ta, zenbat ere laste-rrago ateratzen dituzun zuk zere sustrai galgarri oriek,

eta zere animako aztura gaistoak, anbat lenago sartuko zara zere bakezko bizitzan, ta zeruko ondasun andien irabazbidean.

Garbitu bear dituzu orain, garbiak ezpadaude, damuz ta urrikiz zere biotz-animak; eta egin bear dituzu, utzi zenituen gaztetasuneko gauz onen ordañak, eta gañerako zure oraingo adiñari dagozkanak. Egin ditzakezu, Jaunak laguntzen dizula; ta lagunduko dizu, eskatu ezkeru, ta zu zerori baldin artaratzen bazara. Iguzu, gure Jaun maitagarria, lan on onetarako bear dugun zure laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

*Cur detestatus sum disciplinam et
inreptionibus non acquievit
cor meum?... penè fui in omni malo.*

Prov. 5. 12.

Zergatik zen, gaztetasuneko nere gogorkeria? Zergatik nik ez nituen zuzen egiten, orduko nere gauzak? Ongi naiez erraten zizkidaten au, ura, ta nik dakizkidan beste gauzak; baña etziran gauz oriek nere gogo arin galduari atsegina egiten ziotenak, eta ez-aditu egiten nien guziei, ta aurrera ninjoan, edo aitzi-

ña nenbillen ni nere bide loi galdu galgarrietan, ta gaizkitik gaizkira, bein ere, guztiz beintzat, gelditu gabe. Eta zertan gelditu dira orain arteko nere gogorrerak, orain arteko nere mukerkeriak?

Ekusia zegoen! anitz oben-kulpetan, edo, nork daki zenbat bekatutan ta gaistakeritan! Nere Jaunaren Legeko mandamentu zuzenak urratzea, ta anitz lekutan nere anima nik neronek loiturik uztea izandu da gerozko nere egitekoa, edo lan andia! Bai noski, bai; erran dezakegu zuk, eta nik, bekatari txar galdu biok; ona zertara gaituzten geren lenagoko gogorkeria, eta gure gaztetasuneko asiera gaistoak! Ez da batere, edo guztiz guti dira, guk egin ez ditugun gaizkiak, eta lanbide gaistoak! eta, batzuek beintzat, egin izandu ditugu bein ezezik berriz, askotan, ta, nork jakin zenbat aldiz, ta zenbat eratarat!

Au da, gure Jesus maiteak bere aurtasunetik zuri ta niri erakutsi izandu zigun ibillera? Au gure Jesusek bere aurtasunean, ta gerozko bere denboran, egin izandu zuena? Ez, baizik goiz aski bere Jauna billatzea, bere Jauna maitatzea, ta, Jaun berak nai zuena, goizarrats, orduoro, puntutik puntura, ta ill arte guziguzian zuzen egitea. Au da guri Jesusek erakutsi ziguna bere aurtasunetik, eta ill arteko bere denbora oso-

osoro; ta au da guk ez len, ta ez gero, bear bezala beintzat, egin izandu duguna! Eta guk, au egin lekuan, egin izandu ditugu, nork daki zenbat lan gaisto ta gaistakeri?

Eta alere etzaiku damuz lertzen geren biotz txar galdu au? Ez ditugu guk negarrez urratzen geren urrats eta pausu galduak? Ez ditugu guk artu uste, gaurdanik badere, urrats edo pausu berriak, lenik ikasten dugula nondik asi ta nondik ibilli?

Naiez gaude beintzat, gure Jaungoiko-aur Jesus maitagarria. Adirazi zaguzu nondik asi, ta, zuk zero-rrek nai dezuna; bada, uste dugun zure laguntzarekin batean, prest arkitzen gara gu edozein gauzetarako; ta, dagigun guk ariñago ta obeki zuk adirazten diguzun guzia, ta guri dagokiguna, kendu bear diguzu geren bekatu izugarrien kargatzar astun au. Ori eskatzen dizugu, itzez ta biotzez erraten dizugula: *Nere Jesukristo, etc.*

XXXI.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN UMILTASUN UMILLA, TA BERE ETXEKO ERAKUSTEA

A.

*El descendit cum eis, et venit Nazareth:
et erat subditus illis.*

Luc. 2. 51.

Ogeita amar urtetaraño egin, ta erakutsi zuen gure Jesusek besteren eskupekoak egin bear dutena. Ongi, ta zegokan eran arkitzen zen Jesus Jerusalengo elizan, Ama Birjinak eta san Josek an arkitu zutenean; ta, bere gogoz, pozik egoin zen an, andik atera gabe bizi zen artean; Jerusalengo eliza zen alabaña Lege zarreko erakus-lekua, ofrendategia, ta Jaunaren etxea; ta orregatik zen Jaunkoiko gizonari, edo Jesus maitagarriari, ongien-ongien zegokan tokia. Baña igan zen Jesus Jerusalem, an egitera bere Aitak nai zuena; ta, au egin orduko, prest zegoen, non-nai ta zernai

egiteko; ta asi zen egiten Aita berak adirazi zionetik. Nola ote? Adi zazu.

Irur egunen buruan arkitzen dute Jesus Jerusalemgo elizan bere Ama maitagarriak eta san Josek, eta Amak erraten dio: Semea, nola egin diguzu egin dezun au? Ona, zure Aita ta ni zure billan ibilli gara, dolorez beteak, edo non arkitzen ziñan ere ez genekiela. Gurekin ez bizi naiez, edo zeri dagokala, gelditu ziñan emen, etxerako bidea guk artu genuenean? *Zertako zen zuek nere billan ibiltzea*, erantzuten dio Jesussek bere Ama maitagarriari; *etzenekien zuek, nik ari bear dudala nere Aitari dagozkan gauzetan?* Eta, au erran orduko, ezagaturik Aita Eternoak beragandik orduan nai zuena, uzten du bereala Jerusalemgo eliza; uzten du Jerusalem ere: ta artzen du ekarri zuen bidea, ta itzultzen da biek in bere Nazaretko errira, ta itxera.

Zer kontentua Jesusen Amarena, osasunarekin ta Doktoreen artean arkitu zuenean bere Seme Jesus maitagarria! Eta zer kontentua, arekin batean artu zuenean, beren etxera zeraman, Nazaretko bidea!

Zer jolasak, Ama Semeak eta san Josek bidean erabilliko zituzten jolasak! Gald-egiñen zion Amak Semeari, Jerusalem, bakarrik egin zituen egunetan ekusi zuena, edo non egon oi zen geienean? Non egu-

naz? Non gabaz? Jan zuen zer bait, edo edan, egun orietan? Nork emanik, eta zer? Gald-egiñen zion auzak; ta galdetuko ziozkan bideak zekartzien beste gauzak ere; ta Jesus maitagarriak eman zion galde-tzen ziozkan gauza guzien berri, zuzen bear bezala-koa; ta errain ziezten bidenabar, bien bideko nekeak arintzeko, ezinobeak ziran beste anitz gauza ere; ta ibilliko jiran irurak beren bide guzian bidez ongien-ongien dabiltzanak baño milla bider ongiago ta agitz obeki.

Erriratzen dira gero niora baztertu bage, ta sartzen dira beren etxean; ta sartzen dira andik atera ziranetik itzuli artean egin zituzten gauzak, zuzen egin zituztelako atsegina ta kontentuz beteak.

Amabi urtetakoa zen orduan, ekusi dugun bezala, gure Jesus maitagarria. Bizitu zen Jesus, ordurañoeko urte guzietan, deus etzekien aurraren eran, edo guti aditzen zitzaion gazte bat bailiz bezala: ta, gero predikatzen asi zen artean, edo ogeita hamar urtetaraño, ez dakigu zer gauzak ziran Jesusek egin zituenak; bada, dakigun guzia da, egin zuela bere Amak eta san Josek nai zutena; ta aritu zela, bere Ait-orde san Joseren egitekoan, edo zurgintzan. *Mark. 6. 3.*

Zurgintzan Jesus, Aita Eternoaren Seme bakar Jaungoiko-gizona! Langille beartsu san Joseren ikasle, aprendiz, edo lagun umil egiñik Jesus; ta, erraten dion edozein gauza bertatik egiten duela, naiz gaitza dela, ta naiz luzea! Gauza guzien Jaun ta Jabe Jesus alokairuan bezala, edo irabazian goizetik arratseraño, ogi puska bat bestela biltzen ez dakienaren eran! Zergatik ote, edo zeri dagokala?

Guri ongi naiez, Jesusek umeak, eta guri erakusteagatik geren orduetan guk gerok egin bear duguna. Alferkeria ta nagitasuna dira, egun guzirako guk nai genitukeen lanak eta egitekoak; eta, zerbait egiten dugunean ere, egin nai genuke guk, geren gogo gais-toak edo gaizerako makurtasunak adirazi oi diguna. Emendik etorri oi dira gure kalteak eta etxetako nasteak. Naste oriek guri gal-erazteagatik bada, ta gu gerok azkenean galduak izan ez gaitezen, egin du Jesusek aldi luze onetan egin duena; ta aritu da ogei-ta amar urtetaraño langille beartsuaren lanetan.

Amabi urte zituenetik, baita lenagotik ere, asi ziteken Jesus bera nor zen munduari adirazten; ta egin zitzaken bidenabar gero egin zituen ekusteko guziak, eta milagro andiak: baita egin zituenak baño geiago ta geiago, ta agitz andiagoak ere; baña, gu ez genbiltzan

geren gogara (naiz zela gauz onetan), besteren pean arkitzen giñan denboran utzi zituen Jesusek oriek guziok, eta egin zuen bere Amak eta san Josek nai zutena, naiz txikia zela, ta naiz andia; naiz ondrazkoa izan zedilla, ta naiz lotsagarria: ta egin zuen guziguzia biotz osoarekin, nai zuela, ta bat ere trikatu gabe.

Zer errain zuen biotzez Jesusen Ama birjinak, ekusten zuenean Jesus zerrarekin, aizkoran, olak mol-datzen ta eskuetan zekarren egitekoak eskatzen zituen gañerako lanetan? Jaungoiko-gizon bat onelako lanetan (errian zuen, arriturik bezala, ta non arkitzen zen etzekienaren eran)? Bekatuen arrigarriak! bada zuekgatik da Jaungoiko-gizon onen lan umil au guzia! Artu zaituzte Jesusek bere gain, mundukoen bekatu galgarriak; eta zuen alde bere bizi-odolak eman artean, bizi nai du, Adani Jaungoikoak bota zion maldizio-pean: bada maldizioak zion, *neke izerdiekin billatu bearko dezu zuk zere jan-edana*; ta ori da Jesusek egi-ten duena, ta ni ezin geiagoraño arritzen naben ekuskaria!

Gisa berean arrituko zen san Jose; ta, Jesusek galdegiten zionean zer nai zuen egin zezan, edo zerbait orrelako, geldituko zen mututurik bezala, edo adirazi-

ko zion umilki ta lotsaz, ta alkez, zer dion ez dakienaren eran: ta, Jesus gauzak egiten asi orduko, begiratu-ko zion san Josek (an aren aldean arkitzen zenean) Ama birjinari, ta onek ari, arrituen eran; bilduko zituzten gero beren begiak, eta asiko zen bakoitza bere egitekoan, edo, eskuetan zekarren bere lana egiten; baña zenbat deboziorekin, zenbat umiltasunekin, ta zer-nola! Nork adirazi?

Zer ote zuen Jesusek bere gogoan, Amak edo san Josek berezirikako gauzaren bat egiten ari zenean? Zer izain zuen? Bere Aita, ta gu! Bere Aita, bai, ari adirazteko zergatik zen aren lan ura, ta lan artako aren nekea; edo adiraziko zion guzia zela Aita berari zion amoreagatik.

Eta gu ere ordu berean bere gogoan ginduen, bai, gure Jesus maitagarriak; bada egiten zituen Jesusek bere lan guziak gure onerako, ta guri erakusteagatik nola egiten diran gauzak, zuzen egiteko, ta gauzak egitean Jaungoiko maiteari atsegin egiten zaiola. Ori zen, Jesusek aldi orietan, ta edozein orduz bere gogoa zerabillena. Lurreko bere lanak eta egiteko guziak etzioten, ez, Jesusi eragotzi bein ere gogoeta eder-zuzen au: ta bi gauz oriek egiten zituen batetan Jesu-

sek, Makabeoen izena zuten soldaduak baño agitz obeki.

Soldadu oriek, Eskritura santak dionaz, eskuz pelean zebiltzan, ta biotzez Jaunarekin ziardukatela; ta era orretan garaitu zituzten bere etsaiak; eta Jesusek ere, gisa berean bere lanak egitearekin garaitu zituen, ezinobeki, bere etsai guziak; eta bidenabar erakutsi zigun guri nola garaitzen diran alferkeria, arrotasuna, ta bere buruzko gogoeta.

B.

Denbora berean egiten du Jesusek ikasle onak egin bear dutena

*Jesus proliciebat sapientia et aetate,
et gratia apud Deum et homines.*

Ibid. v. 52.

Baña nola egiten ote zituen Jesusek orduko bere gauzak? Guziak era batean ta Maisuak bezala? Ez, baik ikasten dagoenaren eran, ta egunoro iduri obekoa. Orietan asi zeneko, baita lendabiziko puntutik ere, bazekien Jesusek azkenean adiña, ta alere aldian

etzuen agertzen gorputzari, edo bere adiñari, zegokan jakindea besterik; eta orregatik, jaioberrian, ezer ez dakien jaioberria zirudien, aurtasunean aurra, ta adi-noro adin artakoa. Orregatik bada, Jesusek egiten zituen gauzetatik edozeñek, lenagokoak baño ohea zirudien; ta zirudien, gauzak eginaz bezala, egiten ikasiz zijoala gure Jesus maitagarria.

Jesusen ikaste iduri au etzen ikaste utsa, ez; irabazi andizko egitekoa zen, ta Aita Eternoari ezin geiagorañoako atsegin bat egiten zion egitekoa; bada, gizon egin zenetik ill arte guzian Jesusek egin zituen gauzetatik txikiena ere, ezinobea zen, ta irabaz al guzia irabazten zuen gauza; zen alabaña Jaungoikoaren lana ta gauza; zen Jaungoikoari zegokan irabazia; ta orregatik zen irabazi ezin-geiagorañoakoa: ta, alere aurtasuneko Jesusen gauzak edozein aurren gauzak ziruditen; gatzetasunekoak, edozein gaztek egiten zituenak bezalakoak; eta, gero egin zituenak adin artako gizonak egiten zituztenen idurikoak.

Zergatik au onela, gure Jesus maitagarria? Niri nereak mundukoen begietatik alegiñean gordetzen erakusteagatik; edo erakusteagatik, egin ditzakedan nere gauzarik onenak ere deus ez bat bezala dirala, nik nere Jaunari zor diodanaren aldean; ta, au ezagu-

turik, saia nadin ni egunoro, ta aldian obeki, egitera egiten ditudanak; eta egitera zeren Jaunari zor zaizkan, ta beraren amoreakgatik. Ala egiten baditut nik nere gauzak, egunoro aziko dira nere irabaziak, eta Jaunari egiñen diodan atsegin-kontentua; ta andi ederra izain da oriekgatik nik bere denboran nere Jaun beragandik artuko dudan betiko gloria.

Ekusten dezu zuk, aldi onetan Jesusek guri erakutsi digula guri ongi naiez, ta zeren maite gaituen gu? Erakuste onen erakoak ote dira, edo oni dagozkanak, oraindañoko gure ibillerak, edo guk oraindañokoan egin izandu ditugun gauza guziak? Elizan egondu gara gu geren Jaunarekin, Jaunak artarako berezi dizkigun orduetan, ta al genuen guzian? Ori da, gaur Jesusek lenbizikorik guri erakutsi diguna, bera Jerusalengo elizaratzearekin. Elizaratzen ote ziñan zu, ezinbestez baizik? Eta, aratzen ziñanean ere, nola ote zeunden zuan? Zerorrek dakizu.

Elizaz kanpoan, zere etxean, ta zure lan guzietan zurekin, edo zure gogoan, ote zen beti gure Jesusen Ama, Jesusekin izandu zen bezala? Noizean bein baderre egin ote diozu zuk egunoro agur umillen bat edo beste? Errezatu ote diozkatzu zuk zere *Abe-Mariak* orduoro, etxetik ateratzean, jan-orduetan, goiz-arra-

tsetan ta beste zenbait aldiz, aldian eskatzen zeniola, eskutartean zenekartzen gauzak zuzen egiteko grazia?

Egin izandu ote dituzu zuk zere gauzak ume umillaren eran, ta zure gurasoak, zu baño zarragokoak, edo zure eskudunak nai bezala? Orrela egin izandu zituen Jesusek bereak; eta orregatik zuzen, ta gure Jaunaren begietara zitezkeen eran. Etzenuen zuk zere barrenean naigaberik edo mukerkeririk, eragiten zizutenean zuk nai etzenuen lana, edo uztea naiagoko zenuen gauzaren bat? Ori da Jesusek erakutsi zizuna, bere lan txiki ondra-gabekoetan ari zen aldian; bada ari zen andienetan bezala gustoz, ta biotz leun umillarekin.

Lanean ari zifñanean zu, gogoan zenuen beti zuk gure Jaungoikoa? Egiten zenituen zuk zere gauzak, Jaungoikoari atsegin egiteagatik, eta zeren nai zuen zure Jaungoikoak orduan zuk oriek egitea? Egiten zenituen, gogoan zenuela nola egiten zituen zure Jesusek bereak, emen bizitu zen denbora guzian? Oroitzen zifñan zu, oriek egiten ari zifñanean, begira zegozkitzula, edo zure umeak, edo zere itxekoak, edo beste zenbait; eta ikas zezakela oriek zure lan egite-tik, ongi edo gaizki beren lanak egiten; oroitze onek

eragin ziezazun zuzen ta bear bezala egiten zenuen zere lana edo gauza?

Egunoro zenbiltzan zu zentzu geiagorekin zere lanetan, zere jolasetan, ta gañerako zere gauzetan? Egunoro ziñan zu ohea ta birtutezkoagoa? Geroagoa, ta maizago konfesatzen ziñan zu? Geroago ta debozio ta lan on geiago egiten zenituen zuk? Eta, zenbat eta urteetan sartuagoa zu anbat ekuskari on edo exenplo geiago ematen zenien zuk zurekin bizi ziranei, edo ekusten zinduztenei? Ala bada, egin dezu zuk aldi onetan Jesusek erakutsi diguna: ta, orrela bazabiltza ill artean, beraren eskutik artuko dezu zuk beraren gisako egilleari dagokan gloria.

A! nere Jesus maitagarria; baña nik ez egin ori; ez eta laurdenik ere! orduak joan dira; baita egun osoak ere, Jesusen Amaz ni bein ere oroitu gabe! Eta, oroi-tuagatik ni noiz edo noiz, nola edo zer eran oroitzen nintzan? Gañerakoan etxeokoekiko mukerkeria, ta gogoak ematen zidana, edo ezer-ez egitea, izandu da, maiz aski beintzat, nere lan andi ta egiteko guzia! Lanera ninjoan ni, ta lanean nenbillen uztarpeko idia baño geiago nere Jaunaz oroitzen ez nintzala! Eta, ondu bearrean, urteoro nituen nik oben ta kulpa geia-

go; ta eman diet, ekusi nautenei, ekusketa gaistoa ta gaitzerako bide galgarriak!

Utziko al dut oraindaño koan ekarri dudan nere bizi-modu edo ibillera galdu au! Ta artuko al dut beste erako bat, edo zuk, nere Jesus maitagarriak, gaur era-kusten didazuna? Naiez nago; baña oitura gaistoz ingurutua! Oitur-orient atzaparretatik aterako banaz ni, bearko dut, bai, zure laguntza ta grazia! Eskatzen dizut nere Jesus, nere nai ta uste guzi-guziarekin; ta, lenago lan au egin bagez ongi damaturik! eta eskatzen dizut gaurko zere amoriozko erakuste ederragatik! Indazu bada, Jesus maitea; bai arren, bai!

*Nunc ergo, fidi mi, ausculata sermones meos,
et ne recedas á verbis oris mei.*

Prov. 5. 7.

Aditzen? dio gaur gure Jesus maitagarriak; aditzen dezu, nere semetxoa? Ez dezazula gaur aditu bage utzi, adiraztera noan gauza guzietatik bat ere. Aditu dezu, nere Ama birjinak Jerusalengo elizan arkitu nin-duenean, nik egin izandu nuena. Berarekin batean, ta san Joserekin atera nintzan ni Jerusalengo elizatik;

eta, andik itxeraño bide guzian ez nituen utzi nik bein ere ez bata, ta ez bestea: beti bien aldean ibilli nintzan ni, ta biak nai bezala. Egizu au berau zuk ere, galdu nai ezpadezu zere zerurako bide zuzena. Zabilta beti nere Amarekin, edo au gogoan dezula, ta onen gogora. Beraz balia zaitetz; baita onen Esposo maite, santu andi, nere ait-orde san Josez ere. Ez dizut ukatuko, ez, oriek eskatzen didaten gauzarik; eta, zuzen egitera zuk, nik orain adirazi dizudan au, erditsiko dizute biak, bide guzian ogi ibiltzeko, zuk bear dezuna ta geiago ere: egin uste dezu?

Bai, nere Jesus maitagarria, bai; ta pozik alere! Non arkituko ditut nik zure Ama ta san Jose bezalako Bitartekoak? Non lagun obeak? Baña oriek artu naiko ote naute berengana, edo beren kontura ni? Badakizu zuk, Jesus maitagarria, zein txar-galdua nintzan ni leneko nere urteetan; baita nola arkitzen den ere gaur nere biotz au, edo nere anima; ta beldur izan naiteke, izan nadin ni gero ere lenagokoa, ta ardi txar ta bildots beti!

Ez begiratu zuk, nere Jesusen Ama, ez zuk ere, san Jose, onen esposo maitagarria, oraindañoko nere txar-kerietara: begira egiezu oraingo nere asmoei ta ondunaiari; ta ar nazazue zeren kontura, ibilli nadin bizi

nazaño zuekin batean, edo zuzen ta bear den eran. Jesus maiteak dirala, zuen eskuz, au egiteko bere graziaren indar ta laguntz andi bat. Bai arren, bai!

Stetit itaque sol in medio Coeli...

Obediente Domino voci hominis.

Josue 10. 13.

Josue pelean zebillen batean, illuntzera zijoan ark nai baño len, ta bere etsaiak nai bezala eskura gabe. Au ekustean, itzultzen da bere Jaunagana, ta ots egiten dio eguzkiari: *Ago bertan, eguzkia, ta lagun egiek Gabaondarrei*, nik orien etsai gaistoak galdu artean: ta egiten du Jaungoikoak Josuek manatzen duena, ta geldierazten du bere eguzkia. Gauz arrigarria! Geldirik eguzkia, zeren gizon batek agintzen dion geldi dedila! Bai; baña agitz arrigarriagoa da guk gaur ekusten duguna!

Zer da guk gaur ekusten duguna? Jaungoiko bera egiten eguzkiaren egin au; baita agiz geiago ere: bada ekusten dugu Jesus, len amabi urtez, ta gero beste emezortziz manatzen zaion guzia egiten, bein ezezik, eun aldiz, milletan, eta zenbatetan nai duten beraren

Amak, eta san Josek. Eta zer dirala, uste dezu, manatzen, ta agintzen zaizkan gauzak? Argizko, ta oorezko eder andiren batzuek? Ez, baizik zugarotz-etxe batekoak. Au bai, au dela nornai arritzeko lana?

Alketuko naiz ni gaurgero, edo lotsarik erakutsi uste dut nik, agintzen zaidana edo manatzen didatena zuzen egiteko? Ez, bururik baldin badut, edo adimenturik nik izatera. Ez, oroitzen banaz ni nere Jesusen ibillerez ta Jesusen gauzez. Oroituko naz, nere Jesus maitagarria; bai, oroituko naz, oraindanoan ez bezala, ta maiz alere; eta, zure izenean egiñen ditut nik zuk nai dituzun, ta zure ordekoak manatzen dizkidaten gauza guziak, naiz lotsagarriak izan, ta naiz nekezkoak. Eta eskergabe txar galdu bat nintzake ni gaurdanik beti nik au ez egitera!

*Et mater ejus coservat omnia verba
haec in corde suo.*

Luc. 3. 5.

Egiten banu nik Jesusen Amarena, Jesusen Amaren idurikoa nintzake ni; ta onen Seme maitagarriaren erakoa. Ez ote lizake au, munduan diran gauza guzien

artean ongien legokidana, ta nik bearren-bearrean dudana? Ez ote naz, bada, nere onagatik badere, artarra saiatuko? Orren gogor deritzat nik lan au egiteari? Ekus dezagun zer den, edo nolakoa.

Zer ote zen Jesusen Amak Jesusen aurtasunetik egiten zuena? Jesusi begiratzea; Jesusen itzak aditzea; ta, aditzen ta ekusten zuena bere gogoan beti kontuz erabiltzea. Baña zertarako Arenen eran bere gauzak egiteko. Ekusten zuen Jesusen Amak gaur ta bigar, ta beti, bere Semearena. Ekusten zuen zein zuzenak ziran, ta zein bear bezalakoak, Jesusen gauza guziak; itzak ezin leunagoak, eta denbora berean ezin ederkiago ta ezin zuzenago atera zitezkeenak. Ibillerak, egitekoak, eta lanak guztiz onak, eta bakoitza bere garaiekoa.

Bein bat ekusi ezkerro, gogoan zedukan beti Jesusen Ama maitagarriak; eta beti zegoen ari begira aren erakoak, egitera zijoanean, zuzen egiteko. Jesusen gauza bat ekusi orduko, sartzen zen Amaren biotzerano; ekusi naiez nondik zetorren ura; zeri zegokana zen, edo zertako ta zergatik egiña.

Ekusten zuen Ama birjinak, bere Seme Jesusen gauza bakoitza zela, betiko Aita bereari atsegin egiteagatik, eta gure onerako; eta, au ekusi orduko,

artzen zuen Amak, gisa berean bere gauza guziak egiteko asmoa; edo egiten zituen gure Jaungoikoaren ooretan, ta gure guzien onagatik, edo gure amorez, eta guri ongi naiez: ta egiten zituen zuzen, ta utsik egiten etzuela.

Orra nik, ongi izatekotz, gaurgero, ta beti egin bear dudana. Orra, gaur niri nere Jesusen Amak erakusten didan egitekoa. Egiñen ote dut nik ere, bizi nazaño, ark niri erakutsi bezala? Oberik ezin dagiket, den luzaroena bizitzen banaz ere. Ala nik au egitera, zorioneko umea ni, Jesusen Amaren idurikoa ni, Jesusen Biotzekoa ni; ta beti glorian bizi bearra! Lenagotik onetan ez asiaz dut damu; ta ziñez alere. Gisa berean dut damu, onetan asi gabez egin ditudan nere bekatuez: ta, Jaunak didan orien barkamentua, erratera noa itzez ta biotzez: *Nere Jesukristo, etc.*

IRURGARREN LIBRUA

ITZEZKO JESUSEN ERAKUSTEA

Coepit Jesus facere, et docere.

Act. 11.

Jangoiko gizona bazen ere, besteren pean bizitu zen Jesus ogeita amar urteraraño. Urte orietan egin zuenarekin, ezin ederkiago erakutsi edo agertu zigun Jesusek guri guziori digun amore bazterrik gabekoa; ta denbora berean agertu, edo erakutsi zigun besteren pean bizi diranak, era orretan arkitzen diraño, egin bear dutena.

Bere gain ibilli zen Jesus gerozko bere bizitza guzian; ta lenaren aldean laburra bazen ere Jesusen gerozko bizi-denbora (etzuen iraun alabaña irur urtez baizik), lena bezain andia zen Jesusen orduko guganako amore; ta denbor-orretan izandu zigun bere amoreak arrerazi ziozkan gure onerako milla neke ta pena; ta azkenean gurutze bateko erioz ezin gogorragoa.

Zigun amorearen erakoa zen Jesus beraren orduko erakustea: ta bere azkeneko urte orietan predikuz,

itzez, ta anitz aldetara erakutsi izandu zuen, len lanez ta isil-isiltxorik erakutsi zuena. Ori erakusteko denbora berean, erakutsi zizkigun beste anitz gauz ere; ta besteen artean, zerua irabazteko, ta arako irabazi andiak egiteko, jakin bear dugun guzi-guzia. Orretarako Jesusek egin, ta erran zituen gauzetatik bat edo beste ekustera goaz oraingo Libruan; ta lenbiziko aldian, lenbizitik egin zuena, edo Jesusen Bataioa, Garizuma, ta Pelea.

XXXII.garren OTOITZ-GAIA

A.

Bearrik bage artzen du Jesusek bere bataioa: ta artzen du, bear ditugun, animako geren garbierak guri eragiteagatik

Jesus maitagarriak, bere gain jarri baño len, eskatuko zion orretarako bere Ama maiteari bere baimena, edo lizenzia; ta baimen au Amari eskatzean, errain zion guztiz umilki ta era ezinobeagoan.

Gogo osoz, biotzez, ta zuzen-zuzen egin dut nik, dakizun bezala, nere Ama maitagarria, igaro diran ogeita amar urteetan, zuk nai izandu dezun guzia, ta nere Ait-orde san Josek adirazten zidan edozein lan edo gauza. Era berean, ta nere poz andiarekin egiñen nuke nik zernai, zure menetik atera gabe bizi nazaño, ala nai izatera betiko nere Aita maitagarriak: baño badakizu zuk zerorrek, nere Ama maite ezin maiteagoa, nor den nere Aita betiko au, edo zein den Aita

Eternoa: ta badakizu, nere Aita onek nai duena dela lenena, ta nik niola ere ezin iutzi dezakedana. Ezin dagiket nik nere Aita onek nai duena, emen beti zurekin arkitzen nazala ni. Etorri da bada nere Aitak nigan-dik, ni nere gain nabillela, nai dituen gauzetan ni aste-ko denbora; ta oriek egitera noa, batere luzatu gabe; baña noa, zuk zerrorek nai dezula; nai dezu zuk alaba-ña, Aita Eterno nere Aita maiteak nai duena.

Au bere seme maite Jesusi aditzean, beratuko zen (nork daki zenbat?) Birjin-Amaren biotz guztiz maita-ria; ta geldituko ziran, negarra zeriela Ama beraren bi begiak; bada bazekien nor zen, ta zein maitagarria zen, bere Seme Jaungoiko-gizon Jesus au; ta, berari zegokanaz, maite zuen ezin geiagoraño bere Seme Jesus, ta nior ere nai etzuken gauza zen, egun batez ere Jesus bage ta bakarrik gelditzea.

Baña, bere naia baño, naiago zuen Ama birjinak, Aita-Semeak nai zutena; ta itzez, edo al bezala, ta guztiz umilki, emain zion Jesus maitagarriari bere bai-mena, ta geldituko zen illun aski bere bakartasunean; ta geldituko zen, etorkizunaren begira ta lenbaitlen bere seme Jesus nonerebait ekusteko nai andiarekin.

Baimen au artu orduko, artzen du Jesusek, san Joan Bautista arkitzen zen tokirako bidea; ta egiten du

an gugatik, edo guri erakusteko, egin zezaken gauzarik onena, ta bere bizi modu berriaren asierarik ederrrena.

San Joan Bautista zebillen, Jordan deritzan ugalde edo ibai baten bazterrean. An, Misionista egiñik, erakusten ari oi zen, billatzen zuten soldaduei ta gañerako bekatariei, zerura igan nai dutenak egin bear dutena. An oriei erakusten zien beren bataioa edo animen garbiera; baita, berriz beren animak ez loitzeko egin bear zutena ere, erakusten zien elkarri ongi begiratzea, ta Jaunaren gauzak zuzen egiteko bidea.

Artzen du bada Jesus maitagarriak, bere Amaren etxetik atera zeneko, san Joan Bautistaganako bidea; ta ura zegoen tokira orduko, sartzen da zuzen san Joan beraren sermoiak aditzen zituzten bekatarien artean, orietatik bat bailiz bezala, ta aren erranak adituz zentzutzen ziranen eran, egiten du bekataririk andienak egin oi zutena, ta eskatzen dio san Joan Bautistari, bataia dezala ura ere ibai artako urarekin, ta prestatzen da bertan bere bataiora.

Nora zoaz, Jesus maitagarria; nora zoaz zu ta zertara orren goiz ta laster? Zaude, zaude guti bat, eta begira zazu zer egiteko den, orain zu zere gain artzera zoazen zere egiteko ori! Obenez loituak dauden

bekatarien egitekoa da zuk orain egin nai dezuna, edo orain zuk artu nai dezun san Joanen Bataioa, ta noiz ezkerro loitua zu, edo bekatuduna? Zaude bada, zaude geldirik, Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria, ta utzazu or orko bataioa, bataio bearrean arkitzen diran loitu galduendako.

A, baña! Ezetz dio Jesus maitagarriak; bekatuz loiturik arkitzen diranen eran ibaiera nai duela dio, ta san Joanen bataiora.

Baña zeri dagokala ori, gure Jesus maitagarria? Guri obeki eragiteagatik, itzez gero erakutsi uste diguna: guk, au onela ekusi ondoan, ar dezagun gogo osoz, alkerik gabe, ta bear den umiltasunarekin, geren bekatuen bataioa, edo animako garbiera; guri eragiteagatik geren bekatuen konfesione zuzena, edo konfesariaren oñetako geren aitormena; baña aitormen egiazkoa, aitormen damuzkoa, ta bear bezalakoa.

Bazekien, bai, Jesus maitagarriak norañokoa den gure antuste arroa, ta soberbi edo antuste onegatik, anitzek beintzat izain zutela anitz alke ta neke, beren konfesariari beren oben-kulpak eta gaizki egiñak aitortzeko edo zuzen errateko: ta aldi orietako beren alke-neke galgarri au oriei arindu naiez, sartzen da gaur gure Jesus maitagarria bekataritzar andien

artean; ta, san Joanen predikuak eskura balu bezala, eskatzen du bekatarien ura ta bataioa.

San Joanek etzuen aldi artaraño ekusi beiñere gure Jesus maitagarria; ta alere ezagutu zuen, ekusi orduko. Eta ekusi zuenean, Jesusek eskatzen ziona, arritu zen guzia; ta, non arkitzen den ez dakienaren eran, erraten dio: Jauna, zuk ni bataiatu bear, ta zu gaur nere eskuetako bataioa artzera? Etzara zu zere Aita eternoa palakatzera, ta munduko bekatuak kentzera zatozen bildots garbi Jaungoiko-gizona? Etzara zu, egunen batean mundu guzia biltzeko zauden Jaun ta Juez zuzen, ezin-zuzenagoa? Zu etzara, egun artan gaisto guziak on guzien artetik atererazi ondoan, dagokanari dagokana eman bearra zaran, edo on guziei beren betiko gloria, ta gaistoei dagoten betiko neke suak emateko zauden gure Jaungoikoa? eta etzara zu mundura bataio berri bat, eta bataio graziaz, birtutez, ta karidadez beterik arkitzen dena zerekin dakartzun Salbatzallea? Ta alere, urezko nere bataiora zatoz zu?

Baietz eranzuten dio san Joan Bautistari Jesus maitagarriak. Eta ezaguturik Santuak zertako, edo zergatik zen Jesusen orduko bataioa edo bataioratzea,

bataiatzen du, bekatarien idurian bazegoen ere, bere Jaungoiko-gizona bezala.

Au zer ote da, gure Jesus onegia! gu bezain bekatari txar galdu batzuekgatik artuko zenuen zuk, bataio ori bezalako lan bat; eta lan, zere buruaren ain desondragarria? Zor dizugun amorearen andia! Nork oni, ta nola, nolerebait eranzun! Guk orretarako dagikeguna da, zere lan onekin zuk eragin nai diguzun guzia alik zuzenen-zuzenena egitea, edo garbiro ta zuzen, ta denbora berean damuz ta negarrez beterik arkitzen garala geren kulpak aitortzea, konfesatzen garan aldietan; baita, beste edozein denboretan ere. Ala diguzula zuk, guk orretarako bearko dugun zure laguntza ta grazia.

B.

Onra, ta gloria da gure Jaunaren izeneko umillerak dakarrena

Bataiatu zeneko, atera zen gure Jesus maitagarria Jordan deritzan ibaetik, eta asi zen egiten ongi ta umilki konfesatzen diranak, eta Jaunaren eskutik edozein ondasun artzen dutenak, egin bear duten gauz

eder ta guztiz zuzen bat; bada asi izandu zen otoitz egiten, Jaunari zegozkan eskerrak emateko (*Luk. 3. 23.*): ta eman izandu ziozkan ezin-umilkiago, ta biotz eskerdunagoarekin; ta orregatik an bertan izandu zuen, izandu den onrarik andiena.

Zer ondra? Zerutik lurrerañokoa, ta Aitak, eta Espiritu Santuak an bertan emana: bada, ekusirik gure Jaungoikoak Jesusen orduko umiltasun ezin geiagorañokoa; ta, ekusirik artara zela gure Jesus, guri bekatariei obeki erakusteagatik guk ere geren aldietan, egin bear duguna; ta artara zela Jesus, edo Jesus maitagarria sartu izandu zela Jordango ibaiean bataio eske, bekatuz bete bat bailiz bezala; ta, bataiatu ta andik atera orduko, bere Jaungoiko maiteak barkatu baliozka bezala, nork daki zenbat bekatu ta kulpa, asi zela belaunikaturik otoitz egiten, ta bere Jaunari eskerrak ematen ta ematen, bere-bereala an bertan agertu zuen Jaungoiko berak nor zen, ain umil ta eskerdun ekusten zuten Jesus maitagarria.

Nola uste dezu? Idiki ziran bat-batean gañeko zeruak: agertu zen an ordu berean argitasun eder guztizko bat; eta, arekin batean, uso idurian Espiritu Santua; jatsi zen au, ta gelditu zen Jesusen buru gañean. Denbora berean ots egin zuen Aita Eternoak,

eta zero beretik eman, edo adirazi zuen lurrean adi ziteken eran.

Orra, or orren umil arkitzen den bataiatu berri Jesus ori-orise da nere Seme maitagarria; orise da Trinidadeko bigarren Persona; ta Person, mundu galdua salbatu naiez, gizon egiñik or arkitzen dena. Ez du orrek egin, ez, bekaturik beñere, ta ezin egin ere dezake. Beti maitatu dut nik ori, ta orrek maitatu nau ni beti; ta orrek beti egin dit niri atsegin ta kontentu; ta egiñen ere dit bizi den artean, nork daki zenbat aldiz ta aldi egiñen dit ezin-geiagorañokoa.

Orra, Jesusen Bataioa: orra, orretan Jesusek agertu zigun umiltasuna ta eginbidea: ta orra, bere bataio ta otoitz umillagatik, Jesusek izandu zuen irabazia ta pagua!

Askotan begiratu diozu zuk Jesusen umiltasun ezin-andiago eder oni? Askotan Jesusen orduko otoitzari? Zere lanetan asitzean, asitzen ziñan zu zere bataiotik, edo bekatuen damuz zere biotza garbitzetik? Garbitzen zenuen biotza, zere Jaunari otoitz egiteko?

Etzenuen zuk zenbait aldiz deretxik edo asti andirik konfesatzera joateko, ala da; badakit ori, baña nork eragozten zizun zuri zere Jaunaren oñetako zere obe-

nen damuzko aitormena? Nork orren barkamentua gogoz, ta umilki, zuk zere Jaun onari maiz eskatzea? Ta nork, ori zuk erditsi ondoan, zere eskerrak Jaun berari, bear zen eran ematea? Zenbat aldiz gisa onetan asi izandu zara zu zere egitekoetan? Gutitanoski, edo beñere! Ori da, Jesusek bere bataioarekin, ta onen ondorengo otoitzarekin, zuri erakutsi zizuna?

Maiz sartu ote zara zu, ta, astia zenuen aldioro, zere konfesioko ibaiean? Aldioro, ta beti aratzen ziñan zu, zere gaizki guzien urrikiz ta damuz biotza beterik zenedukala? Aratzen ziñan zu alkerik gabe, edo zere lots guzia lenik garaitzen zenuela?

Beti an aitortu dezu zuk, zaran diñako bekataria zarala zu? Beti erran izandu dituzu zuk zere oben kulpak, gertatu ziran eran, edo non ta nola, ta zer eran gertatu ziran agertzen zenuela? Ez dezu gorde bein ere, agertzeko zen gauzarik, edo gauzen saiets edo alde gaistoetatik bat ere? Zuzen agertu dituzu zuk, egin ta eragin dituzan gaistakeriak? Ori guzia zuri eragiteagatik, zen gaurko Jesusen bataioa: ta bidenabar zuri arrerazteko, aitormen-gai berririk ez egiteko asmoa, ta bekatu berririk ez egiteko grazia.

A! baña, ta zenbat aldiz urbildu naz ni, bataiatzeko zegoen, edo bere absoluzioz garbitu bear ninduen,

nere Aita konfesariaren oñetara, zertara nindoan ara, ta an nola nere gauzak erran ongi ta zuzen asmatu gabe? Zenbat aldiz nik, asmatu nituenak ere, edo nere gogora ekarri nituenak, erran oi nituen erdizka bezala; edo alde guzietatik, eta bear zen eran, agertzen ez nituela?

Zergatik uste dezu? Zeren garaitu ninduen ni nere nagitasunak, nere antustekak, edo nere naikunde makurrak!

Eta aldi orretan, nola ateratzen nintzan ni nere konfesioko ibaietik? Andiak baiziran, an ni sartu nintzanean, edo orduko nere kulpak, andiangoekin, edo, an sartzean baño agitz loituagoa, ta konfesio gaisto, ta sakrilejio bat nere gain nuela.

Nere eran ibilli zara zu ere, bekatari txar galdua, edo askotan artu dituzu zuk ere zere gain edo zere animan, nereen erako sakrilejioztarren karg-astun galgarriak. Edo konfesatzen ziñan bear bezala, ta egiten zenituela zerurako irabazi andiak? Konfesatzen ziñanetan adirazten zizun zere Jaungoikoak, barkatuak gelditzen zirala ordurañoko zure oben kulpa guziak; eta emain zizula, bere orduetan, oben etorkizunak galerazteko, ta gauz on anitz egiteko, bere laguntza ta grazia?

Ala bada, sakrilejio, edo konfesio gaistoko bekaturik aldi orietan zere gain artu ez dezulako siñu onarekin arkitzen zara zu. Baña, era orretako siñurik gabe dago, konfesatu ta ondoan bere barreneko illuntasuna, gauzerako makurrera ta erortze berriak eta berriak bere baitan arkitzen dituen!

Eta oriek dira, nere Jaungoiko maitea, askotan beintzat nik neregan arkitu ditudanak! Eta zorigaistokoa ni, ta guztiz doakabea, era berrian ta bear bezala, gaurgero sartzen ezpanaz ni nere konfesioetako ibaian, edo ugaldean! Bada, onela ez sartzera ni, ez dit nere Jaungoikoak ill ondoan idikiko, Jesusi bezala, bere zerua; ez dit emain, ez, bere Seme maitearen izena; ta izen naigarri onen orde, emain dit bere etsai zikin galduaren izena; ta emain dit azkenean gaistoen pagua, edo betiko sulezea!

Ez arren, nere Jaungoiko maitagarria, ez! Gaurgero egin nai dut nik (eta zuzen alere), Jesusek erakutsi didan Bataioa, edo konfesatze zuzeneko garbiera. Konfesatzen nazanetan garaituko ditut nik, bai, nere alke-lotsa guziak. Aitortuko ditut nik, egin nituen bekatu guziak: eta aitortuko ditut, egin nituen eran; aitortuko ditut, damu andiarekin, ta berriz alakorik ez egiteko asmoan; eta, erditsi ondoan nik orien barka-

mentua, ta uste dudan zure grazia, eman dizkitzut, bai, esker umillak, eta maitatuko zaitut nik zu ziñez, bizi nazaño. Ala gerta dedilla, nere Jaungoiko maitagarria! Bai arren, bai!

*Magna potentia Dei solius et
ab hominibus honoratur.*

Eccl. 3. 21.

Ez du Jaungoikoak, ez, ezeren bearrik bein ere. Berak berez, ta lagunik bage, badagike nai duena. Jaungoikoak adiña, ezin dagike munduan denek baka-
rrik; ez eta munduko guziak, elkar artuagatik ere. Ala ere atsegin egiten dio gure Jaungoikoari lurrekoen gauza txikitxo batek.

Zer gauza ote da gauza txiki-atsegingarri au? Ez dakizu? Umiltasuna.

Bai; umillak dira, Jaunari atsegin andi bat egiten diotenak: umillak dira, Jaungoikoak bere aldean ekusi nai dituenak, umillak dira, gure Jaungoikoak bere zerutik ondasunez betetzen dituenak; eta, au guzia guri adirazteko, Jaun berak egiten diozka Jesus maitagarriari (ta egiten diozka bere bataioko umiltasun

andiagatik), aditu dezun bezalako ontarte ta fabore andiak.

Zenbat eta zenbat egiñen lizkitzuen zuri ere, zuk maiz egitera umiltasunezko zere gauzak! Eta, zentzurik zuk izatera, besterik badagikezu? Oben-kulpak, eta utsak eta utsak baizik, badira, zuk askotan egin oi dituzun gauzak? Eta zer da oriek eskatzen dutena? Zer? Baizik, zu beti umill bizitzea, ta damuz beterik, Jaunaren begietan zu beti egotea?

Gauz on zenbait egiñagatik zuk, egiten dezu bat ere, uts-bagekorik? Eta onenak ere, nolakoak izain lirake, zere Jaun berak ez lagnutzerazuri?

Ezagu zazu, bada, zerez zarana, ta dagikezuna! Ezagu zazu izandu zarana, ta zuri zere Jaungoikoak egin dizuna; ta ekusiko dezu arrotzeko bidetan arkitzen zaran, edo non!

A, nere Jesus maitagarria! ta zeri dagokala arrotu ni, edo antustetu! Erotu bear dut nik orretarako, edo txoil galdu bear dut nik nere buru au, edo dudan adimentua; bada umil-bideak, eta umil-bideak baizik ekusten ez dituzte nere begiak, sortu nintzanetik orain arteko nere egunetan, ta nere gauzetan, nere egunei ta gauzei begira-begira egonagatik ni, nai adiña denboraz, ta nai bezain luzaro! Pozik umilduko naz ni, bai

segurki, nere Jaun on maitagarria, dakidan ezkerogure umiltasunak zuri ematen dizun atsegin-kontentua; ta guri irabazten dizkikun zure eskuko ondasunak! Lenagoko nere denboretan umilki, ta bear zen eran ez bizituaz dut damu ta urriki; ta ziñez alaere. Indazu zuk zerorrek, ala bizitzeko bear dudan indar ta laguntza guzia: bai arren, bai!

*Humilium, et mansuetorum
semper tibi placuit oratio.*

Judith. 9. 19.

Beti bat zara zu, gure Jaungoiko maitagarria (erran dezaket nik orain, len Juditek bezala); beti bat zara zu, ta beti zara zu, umillen otoitzak aditzen dituzun gure Jaungoikoa, ta laguntzalle ezin indarsuagoa. Olofernes infernukoak, zuk ori ari utzi ezkerogure, ingurutu ditzake, bere lagun ta gure etsai galdu galgarri gaistoekin, indar gutizko gure anima gaisoak, baña zer dira aren ta bere lagun guzien indarra, eta zer orien alegin guziak, zu baldin bazaude, zauden bezala, nere alde ta niri laguntzeko? Pits bat adiña, ta ar-ere gutiago: zu zara alabaña gauz eginen, ta eginkizunen Jauna ta

Jabea: zu sulezeko guziak, keñu batekin ta aisago ere an ondatu zenituen: ta zu, geroztik an berean oriek erretzen daduzkatzuna.

Angoak bezala dira munduko guziak ere; ta ez da guzien artean bat, zuk nai ez dezula, betazal bat goratu dezakenik. Zurekin ongi datozenak dira, zugandik erdisten dutenak nai adiña, edo bear duten edozein gauza ta grazia. Zure gogara dabiltzanak dira zuri atsegin egiten dizutenak, eta zure laguntza dutenak.

Au dakidana bezala, natorkizu ni gaur, nere Jesus maitagarria. Emen natorkizu, al dudan erarik umillen umillenean; ta natorkizu, zure graziaren ibaieko urarekin nere anima gaiso au ongi bataiatu, edo garbitu naiez. Baditut, bai, nik nere utsen loiak, baditut obena, baditut kulpak, eta anitz alere! Oriek dira ni gaur geienik ingurutzen nauten etsaiak; oriek orain ni geien-geiena beldurtzen nautenak! Autse egizkitzu, dagikezunak bezala, nere Jesus maitagarria, ta ken itzazu orien loi guziak nere anima zikin-galdu gaistotik. Au egiten dezun eguna, egun eder eskergarria da ni bezalako bekatariarentzat; eta da, nere biziak diranen artean, beñere nik nere gogotik utzi bear ez dudan eguna! Ez dut utziko, ez, nere Jaungoiko maittea, ta egizu orain eskatzen dizudana. Bai arren, bai!

*Quanto magnus es, humilia te in omnibus,
et coram Deo invenies gratiam.*

Eccl. 3. 2.

Munduan den andiena izanagatik zu, munduan den jakintsuena, munduan den zuzenena; ta, ekusten bazenu ere zu zarala munduan den geiena duen gizona, umill-umill bizi bearra ziñake zu, nai bazenu zere zoriona ta zeruko grazia; ta izanik zu zaran bezalakoa, edo zaran bezain esku gutizkoa, ta jakiunde laburrekoa; ta izanik zu, zaran bezala, zerez, edo Jaunak laguntzen ez dizula, ezer ezin dagikezuna, nola bizi bearra zara zu? Arrotasunez ta antustez betea? Zere Jaungoiko egilleari begiratu ere bage, ta zerezko Jaun andi bat baziña bezala?

Ori egiten duten arrotzarrak arkitzen dute beren irabazia, arkitzen dute beren umillera, ta arkitzen dute Jaun bat, berak bear bezalekoa, edo berei dagozten neke-penen emallea; bada Jaungoikoak ematen die makur dabilzan arroi, dagokiena, edo ematen die damu gaistoko bukaera; ta ematen die betiko alkekizuna, betiko sua, ta beti-betiko negarra.

Bai, Jesusen umeak, bai; au da lurreko arrotzar galduak beren antusteko erakeri guziekin irabazten dutena! Alferrik da berdin! gogor arkitzen dute beren azken denboran beren Jaungoiko altsu zuzen ezin-zuzenagoa; ta oriek eta munduko guziak egiñagatik, edo orduan, edo edozein orduz beren alegiña, ezin garai dezakee, ez, beren Jaungoikoaren beso indartua.

Au nik, urrikiz beterik, aitortzen dut gaur; ta aitortu bearko dute beti ta beti (lertuko badira ere), leneko beren arrotasunakgatik, orain sulezean arkitzen diranak; baña beren oraingo aitormen orrek ez ditu, ez, andik aterako: an lertzen egon bearrak dira, Jaungoikoa Jaungoiko den artean edo sekula guzian, ta an egon bearrak dira leneko beren antuste ta arrotasun ero galduakgatik. Umilki bizi diranak dira, neke au bein ere beren gain artzen ez dutenak, eta onen ordeztzen dutenak gure Jaungoikoaren grazia, ta betiko atsegin-kontentua.

Nai dezu au artu zuk ere, bekatuz bekatu ibilli izandu zaran nere anima txarra? Nai dezu zuk, dizun zuri zere Jaungoiko maitagarriak emen, ekusten ez den barrengo garbiera, ta bere laguntza ta grazia? Zoazkio bada, ori guzia umilki eskatzera; ta eska zaio-

zu, alik umilkiena, ta begi-gogoak lurrean daramatzkitzula. Ala bazoaz zu zere Jaungoikoaren oñetara, izain dezu, bai, zuk nai dezuna. Zoazi bada orain bertatik eta batere luzatu bage; ta, zenbat umilkiago joaten zaran zu, anbat obekiago egiñen dezu zuk zere egitekoa, ta anbat errazkiago erditsiko dezu zuk zere Jaungoiko maitagarriagandik, ari zuk eskatzen diozun edozein gauza.

Baña nola nentorke ni, nere Jesus maitagarria, era onetan ez etortzera? Izanik ni, dakizun bezala, bekatuz beti betea burutik oñetaraño, ta nere bizitza guzian, edo beintzat geienez! Izanik ni, nazan bezala, anbat aldiz zu aserretu zaituen zure etsai galgarri amurratua; ta izanik ni, zure ontasun andiagatik ez izatera, gaur sulezean erretzen arkitzen nintzan bekataria! Izanik, bada, ni era onetakoa, nola nentorke gaur zure begi ekusle-ederretara, ezpazen damuz, umiltasunez, ta nekez ongi erdiratua. Ona bada ni, ona non nazun gaur, nere Jesus maitagarria, zure oñetan damuz erdiratu, ta alik umillena! Ta ona non natorren zure laguntzaren, zure graziaren, ta nere oraindaraño utsen barkamentu-eske, itzez ta biotzez erraten dizudala: *Nere Jesukristo, etc.*

XXXIII.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN BARUR-OTOITZAK,

EDO PELEAK

Izaten dira munduan lapurrak, bidez dabiltzan gaisoei dakarten ondasuna kendu ondoan, beren bizia ere kendu oi dietenak. Lapur gaistoak dira, era orretako lapurrak! Baña ez dira oriek, ez, mundu onetartzen diran lapurrik gaistoenak: lapur gaistoagoak (eta agitz alere) dira, gure animaren bideratzen diran lapurrak; kentzen dituzte alabaña lapur oriek ondasun ta bizitza gorputzarenak ez bezalakoak; bada, kentzera ezkerro, kentzen dituzte graziaren zeruko bizitza, ta anima gaisoaren irabaz-ondasunak.

Urkabez, katez, presondegiz, edo nolerebait eskuratzen dira munduko lapurrak; eta animako lapurrak eskuratzen dira Jesusek gaur agertzen digun bidez ta eran. Nola bada, edo zereran? Ongi prestatuz animak, eta armak artuz garai onez, ta bear den adiuntzan.

Animako lapurrak, eta bere etsai galgarri guziak garaitzeko, etzuen prestatze bearrik batere gure Jesus maitagarriak; zen alabaña, nai adiña arma-esku, ta indar bere baitan arkitzen zuen Jaungoiko-gizon ezin

altsuagoa: ta alere, guri eragin naiez guk egin bearra, prestatu zen Jesus, edo egin izandu zuen armen ta indarren bear arkitu baliz, egin zezakena; ta, au egin artean, etzen atera lapur-etsaien peleara.

Animako gure lapur-etsaiak dira atsegin-gurak eta ondra-gurak, edo atsegin txarren, ondra galduen, ta ondasun galgarrien naikunde makurrak dakazten, edo ekarri oi dituzten tentu gaistoak, edo naikunde ta tentu orrekin gerra egiten diguten mundu galdua, aragi gaistatua, ta sulezeko galgarria. Ekusi dezagun orain orien iruren kontra gure Jesusek egin izandu zuena; ta guk ere, oriek berak garaitzeko, lan onen asitzetik beraren bukaeraraño egin bearko duguna.

A.

**Bere baruz erakusten du, Jesusek,
nola garaitzen den jan-edan gura,
edo jan-edaneren nai gaistoa**

Si filius Dei es, dic ut lapides isti panes fiant

Math. 4. 3.

San Joan Bautistak Jesus bataiatu orduko, Espiritu Santuak adirazi zion Jesus berari etorkizuna, edo adirazi zion izain zituela bai, ta laster alere, edo anitz luzatu gabe, sulezeko bere etsai galgarri gaistoarekin bere tentupeleak, eta adirazi zion sar zedilla, artarako prestatzera bezala, Espiritu Santu berak berezi edo agertu zion bazter artako eremu batera.

Au ari Espiritu Santuak adiraz orduko, artzen du Jesusek bere eremurako bidea. Sartzen da Jesus an batere trikatu gabe, ta badago bere baso edo eremu onetan, berrogei egunez beintzat.

Irur tenta-modu, edo pelea ziran, sulezeko bere lapur-etsaiak Jesus maitagarriari aldi onetan eman bear ziozkanak, eta, guzia zekienak bezala, egin zuen Jesusek egun orietan egin zezaken prestatzerik onena, ta aldian aldiko tentaerak eskatzen zutena.

Zein izandu ote zen lenbiziko Jesusen pelea, edo etsai-tentua?

Jan-edanik, edo aragiaren aldetik zetorren bat.

Eta ori garaitzeko, edo guri ori garaitzen erakusteko, zer izandu zen gure Jesus maitagarriak egin izandu zuena?

Barur luze garbi batekin, edo berrogei egunez bokadu bat artu gabe, ta ur-tantarik ere edaten etzuela, bere gorputza nekatzea.

Orra Jesusek egin izandu zuena, bere lenbiziko peleara baño len: ta orra nondik asi bearrak diran, edo nola presta ditezkeen bekatari gaisoak, beren etsaiak aragiaren aldetik egiñen diezten peleetan ongi gelditzeko.

Aragi gaistoak bizi nai luke jan-edanez aserik, eta asetasunak eskatzen dituen atsegin guziak egiten zaizkala: ta beren buruaren, edo aragiaren nai galdu au garaitu nai dutenak, egin bear dute benik bein Jesusek bere Eremuan egin izandu zuen lenbiziko gauza, edo alde artatik al dutena.

Al dutena, diot; bada berrogei egunez barutzea Jesusen eran, edo deus bat ere egun orietan artzen ez dutela, ori da lurrekoak, Jaunaren milagrorik bage, ezin dagikeen gauza. Baña era onetako barurak guk ezin egin edo atereagatik, egin edo atera ditzakegu geren gisakoak; eta, ezin kenduagatik guk geren buruari, anitz egunez beintzat, bere jan-edana, egunoro ta eguneko otordu, edo otrontze guzietan ken dezokegu zer edo zer; eta denbora berean neka dezakegu guk silizioz, loa laburtuz, belaunikaturik idukiz, edo

beste zenbait aldetara, edo era orietako bertze zerbait nekerekin: ta ori da oraingo bere barur andiarekin guri geren Jesusek erakusten diguna.

Au egiten duenak, prestatzen du bere anima bere etsaiaren kontra; ta, era onetan prestatzen den onekin bere pelean asiagatik lapur-etsaia; ta, asiagatik etsai galgarri au, lenik bere laguntzat artzen dituela, bear ez diran jan-edanak, atsedete eskergabekoak, alferkeri andiak, nagitasunak, eta atsegin loi-zikin-galduak, aisa arengandik aienatuko du, bai, bere lagunekin batean Jesus maitagarriak, len aienatu izandu zuen bezala. Nola ote? ots emazu; goazen ekustera.

Gosetu zen Jesus, ta agitz alere, bere berrogei eguneko barur au bukatu orduko; ta, an orduan agitzen edo gertatzen zena ezagaturik, agertzen zaio Jesus maitagarriari sulezeko lapur-etsaia; ta asitzen zaio pelean bezala, edo tentatzen, ta erraten dio: *Jaungoikoaren Semea bazara zu, errazu egin ditezela ogi orrako arri oriek*; erraten balio bezala: atozea; ta etzara zu, Aita Eternoaren Seme bakar Jaungoikogizona? Ez dituzu zuk nai dituzun gauzak egiteko bear dituzun esku ta indar guziak? Zertan zaude, bada, or orrela gosez iltzen? Orra non dituzun or arri batzuek: erraiezu: *arriak, ogi biur zaitetze; ori zuk erran ordu-*

ko, bertan oriek ogi egiñen dira, ta izain dezu orduan zuk zere gosea garaitzeko diña ogi; baita anitz geiago ere. Egizu bada; jan ezazu, ta etzaitezela gosez ta bearrez ill.

Orra non lapur-etsaiak eragin nai zikeon Jesus maitagarriari bear etzen bidezko jate txar-galdu errebes bat. Baña oitua zegoen gure Jesus ona egunak egunen ondo barutzera; ta prestaturik arkitzen zen, Jaunak nai etzuela, ez jateko bokadu bat ere; ta arkitzen zen, ala jan baño len bere bizia milletan uzteko asmoan; ta bere golpe edo ukaldian galerazteko, eranzun zion Eskrituraz bere etsai galdu-galgarriari; ta bidenabar adirazi zion gizona ez dela gorputz-utsa; bai duela gizonak bere anima ere; ta, gizonaren gorputzak bezain bear duela beraren animak bere janaria; gorputzarena baño len dela animarena, eta animaren janaria dela Jaungoikoaren itza, ta Jaunak diona zuzen egitea: ta au da (zion, edo adirazi zuen Jesus maitagarriak) au da orain ta beti nik egin nai dudana; ez zuk, etsai galgarri orrek, eragin nai didazun kontrako jatea. Au erran, edo adirazi orduko, garaitzen du Jesusek bere etsaia, ta uzten du mututurik bezala, edo itz bat ezin atera zezaken eran.

Oitzen bazara zu, ekusi ditugun baruretara, edo Jesusen barur luzeak adirazten dizkiguten nekeetara, aisa zuk utziko dituzu, bai, zure anima galtzeko diran jan-edanak, eta aragiaren atsegin txar ta plazer galduak; ez daude alabaña, ez, zillegi ez diran gauzak artzeko, zillegi diranak ere berariaz, ta bere Jaunagatik uzten dituztenak. Artzen ezpedituzu, bada, zuk oriek, zere etsai galgarriak zuri arrerazi naiagatik, garaituko dezu zuk zere etsaia Jesusen eran, ta aienatuko dezu zuk zere aldetik, eta bidalduko dezu ordu gaistoan bere sulezera.

Ala garaitu, aienatu, ta bidaldu ote dezu zuk, tentatu zaituen aldi guzietan? Ez dezu zuk bein ere jan izandu, ez, eta edan ere, ordu jakinetan baizik; eta orduan ere ez jaten, ta ez edaten zenuen bear zenuena baño batere geiago? Zure gogoak ez ote du noiz edo noiz jan izandu, edo bere naiez erabilli, bear etzen oroitzapen galgarriren bat edo beste? Ezagutu orduko, aienatu ote dituzu zuk oroitzapen era oriek, sulezeko sugeak bezala?

Zure begiak edan ez ote dute bein ere, bear etzen edaririk; edo ez ote dira begira egondu etsaiak ekarri oi dituen, ta burua gogorazio gaistoz, ta biotza naikun-

de lizunez betetzen duten aurpegi-ederretara, edo beste zerbaite orrelako gauzetara?

Zuk zere eskuz ez artu, ta ez ukitu izandu dezu besteren gauzarik, edo gogo galdura atsegin txar lizunen bat ekarri oi duenik? Ala bada, ongi peleatu zara zu, ta bazabilzke Jesusen soldadu onen artean; bada, era orrelakoetan bezala, garai dezakezu zuk zere etsaia, gañerako bere pelea ta tentuetan ere. Orretarako begira egiezu Jesusek izandu zituenei, ta ark orientan egin zuenari: ta lenenik orain ekusi bear dugun bigarren aldikoari.

B.
Baztertuz otoitz egitera,
erakuste du Jesusek,
antuste-tentuak garaitzen

Si filius Dei es, mitte te deorsum.

Ibid. v. 6.

Sulezeko etsai lapur galgarriak, ekusi zuenean etzuela Jesus onagandik atera deus ere bere lenbiziko pelean, edo jan-edanaren ta aragiaren atsegin-kon-

tentuan, eman zion arro-tentu lausengari bat; eta sartu zen Jesus maitagarriarekin bere bigarren pelean.

Orretarako, atera zuen Jesus basotik edo bere eremutik; eraman zuen Jerusalemgo errira, ta eliza gañera; ta, an erran zion Jesus maitagarriari: *Jaungoikoaren Semea bazara zu, salta zaitez or-bera; bada letraz ezarria dago: manatu zien bere Aingeruei zai zaitzate-la, ta artuko zaituzte emen erortzean beren eskuetan, oñean miñik ar ez dezazun zuk.*

Erran nai du: gosez iltzeko bezala zaude zu, edo ekusten dezun bezain indar gutirekin arkitzen zara zu gaur, ta ez dezu zer nekatu emendik lurrerañoeko eskaleretan: baldin Aita Eternoaren Seme bakar, gizonakgatik gizon egiña, bazara zu, egizu zauden lekutik lurrerañoeko salto bat, eta arako zara batere kalterik gabe, ta nekatzen etzarala; bada zure Ait-Eternoak bidalduko dizkitzu bere-bereala bere Aingeruak Eskriturak dionaz; ta Aingeruak eramain zaituzte emendik lurreraño beren eskuetan, azkazal batean ere miñik artzen ez dezula.

Zeri zegokala etsaiaren aldi artako anbat arazo, ta izketa? Antustez ta arroeraz Jesus garaitu naiez, edo nor zen Jesus ezagutzeagatik. Nai zuken etsai-galgarriak, bearrik ez izan arren, edo premiarik gabe, zebi-

Ilen Jesus aize gañean, txori bat bezala, ala Jesus ekusten zutenak estima zezaten; ta beraren ondoren geroz ibilliz, ta milla laudariorekin txora zezaten Jesus, ta zoratzen ezpazuten, ta bere saltotik kaltear gelditzen ezpazen, berak ezagutzeko nor edo zein ote zen gure maitagarria; etzekien alabaña etsaitzar lapur galduak nor zen Jesus, Jaungoiko-gizona zelako gogan-bearra bazuen ere.

Baña etsaiak barrundatzen zuena zen Jesus; ta, zenak bezala, garaitu zuen orain ere Jesusek bere etsaia, ta utzi zuen len bezain uts eta otz. Zer bidez, uste dezu?

Den zuzenenaz, edo Eskritura Santaz; ta erraten ziola: *Eskribitua dago, ez dezu tentatuko zere Jaun Jaungoikoa*; edo gaizki, ta garai gaistoan artu dituzu zuk, nere etsaitzarra, zere Jaunaren Eskriturako itzak; Eskriturak diona da, ez dedilla sartu batere, sartu bear ez duen egiteko txarretan, ta galbideetan, zuk orain ni sarrerazi nai nindukezun bezala; bada, zere gogo galduari atsegin egin naiez, eragin nai zeniket niri esker-gabeko lan gaisto bat; nai zenuke alabaña zuri nik, edo nere arrotasunari atsegin egiteagatik, billa nitzan eskergabeko bideak, edo bear ez diran Jaunaren milagroak, eta Aingeruen laguntzak. Jaunaren Aingeruak

ez daude orrelako lanetarako; oriek daude, ezinbesteko nekeetan arkitzen diranei laguntzeko.

Au erran orduko ixilerazi zuen Jesusek etsaia; ta bigarren aldian utzi izandu zuen lotsaz ta alkez zena betea, ta ongi mututua.

Non prestatu ote zen Jesus bere bigarren lan au onen ederki egiteko?- Espiritu Santuak berezi, edo erakutsi izandu zion remuan.

Zer egin zuen an Jesusek orretarako?- Umilleraz bete bere biotza, ta anima guzia.

Egokia zen, bai, orretarako basoko Jesusen bizitza; baita baso edo eremu bera ere. Jesusen ango bizitza zen, gau ta egun berrogei egunez barutzea; astiz, maiz, nai adiñetan, ta garbiro ekustea antuste arroaren itsuskeria, ta umillera onaren maitagarritasuna; ta, orretan zegoeño, Jesusek basoan edo bere eremuan izandu zituen lagunak ziran, bakartasuna, ta zenzu-gabeko zenbait ganadu: *eratque cum bestiis*. Marc. 1. 13.

Orra Jesusek guri aldi onetan erakusten diguna. Orra Jesusek guri agurtzen digun arrotasunaren garai-bidea: lagun artetik iges egitea, geren bakartasunean zeruko gogarki onak artzea, edo gure Jaungoikoaren dei meak aditzeko, erne ta kontuz egotea; ta Jaungoi-

ko berak bere deiez, edo bere gogargiekin adirazten diguna astiz, ta kontuz ekustea; ta bidenabar ekustea, gizonen lausengak dakarten ezer-eza, ta umiltasunaren irabazia; ezar-ez artaz, ta umiltasun garbiaren irabiaz oroitzen garala, garai dezagun guk geren etsaia bere tentu guziekin batean; ta azkenik ekustea anitz aldetarakoak dirala gure etsaiaren tentuak, edo egiten dizkigun bekaturako bideak.

Bein, ta berriz, ta askotan zuk garaitzen badezu ere, ez da, ez, tentuz edo zu tentatzez aseko zure lapur-etsaia: asmatuko ditu, bai, galgarri gaistoak tentu ta tentu berriak, eta zukanako da berriz ere; ta, besterik ezin duenean, tentatuko zaitu, aisa garaitzen dezulako, ta santua, santa, edo ona zaralako asmo arroarekin; ta aldi orrelakoetan oartua, edo ongi prestatua ez egotera zu, aisa ta erraz garaituko zaitu; ta kenduko dizu zere leneko irabazia.

Garaitu ote dezu zuk beti, edo bere tentu-aldi guzietan sulezeko zere lapur-etsaia?

A! ez noski, ta erdietan ere!

Baña prestatzen ziñan zu peleara baño len, artan sartzeko? Zure lagun ariñak sartzan ziranean, edo beren dantzan, edo joko-modu galgarriren batean, edo beste edozein gal-bidetan, ibiltzen ziñan zu ere

orien ondoren? Ibiltzen ziñan zu ere orien gañerako lan galgarrietan, ero txar zenbaiten apainketa galdu arroetan, edo zere burua agertu naiez, edo nondik eta nola ekusiko zenuen zere galgarri au edo ura?

Bazenituen zuk zere jai-igandetan ordu bereziak, aste guziko zere utsak zuzentzeko, egiteko, zeneduzkan gauzak egiten ikasteko; ta guziak, ikasi bezain zuzen, egiteko? Egiteko onelakoak askotan ta anitz nekatu izandu zaituzte zu? Edo, oriek aldebat utzirik, ibilli izandu zara zu, gogo ariñak agertzen dizkitzun beste zenbait errazagoetan?

Ala dabillena, arro ibilli oi da, ta antustez betea, edo arkitu naiez bene buruaren ager-bideak, eta lurreko erakeriak; eta onela dabillena ez dabil, ez, bear bezala prestatua bere etsai galgarri gogorra garaitzeko; aisa liluratzen dute era orretakoa bere etsai galgariaren itxura-penak, aisa sarrerazten dute, perellez beteak arkitzen diran, ta sulezera eraman oi duten, bideetan; ta bide beretan gelditu oi da, bekatuz loitunaasi garaitua!

Ala gelditu izandu zara zu bein, berriz, edo aldiren batzuetan? Ez ote zara bada noiz edo noiz zentzatu bearra? Orrela zabiltzan artean, galdurik arkitzen zara zu; ta zure lapur-etsaiak eskutik loturik zaduzka. Non

gelditu uste dezu, bada, gaugero zu era orretan bazabiltza? Lapur-etsai orren etxean? Sulezean? Betiko neke-damu gogorretan?

Ez arren, ez! Ez dezazula eman pausu berririk zere etsai galgarri orren ondoren! Ken zaitez, (eta lenbaitlen) zere etsai amurratu orren aldamenetik. Ez da gaugero zer begiratu gizon eroen erran arinetara. Utzi bear dituzu zere alegiñean mundo arrotzar galgarri au ta onen asmo, gogoeta, ibillera galdu guziak.

Egizu zuk gaurdanik sartzera zere biotzeko basoan, eremuan, edo bakartasunean; ta adi zazu zuk kontuz or zere Jaungoiko maitagarriak adirazi nai dizuna. Orduan ark zuri adirazten dizkitzun gauzak zuk egin ezkeru, ez diozu zuk munduho erakeriei begiratuko ere; ta azkenean zuk zere etsai galgarria aisa ta erraz garaituko dezu.

Ori da zuzen zuk orain egitea, len zuri Jesusek adirazi izandu dizuna; ta ori zu, berarekin bat-egiñik, emen bizeitza, emendik atera ondoan berarekin bizi-tzen asitzeko, atsegin-kontentuz beterikako ta sekulako bizeitza zorionekoan.

Bizitzaren billagarria! ta nor ez da saiatuko zuzen zu, ta gaurdanik irabaztera! Ni beintzat bai, nere Jau-

nagandik uste dudan grazi indartsu onak laguntzen didala.

C.

Lurreko gauzen ezer-eza agertuz, erakusten digu gaur Jesusek geren ondasun gurak garaitzen

Haec omnia tibi dabo, si cadens adoraveris me.

Ibidem v. 9.

Bein ta berriz guk geren sulezeko lapur-etsaia garaituagatik, ez dugu geren baitan batere ezer fiatu; bada berriz ta berriz ere geren gain izain dugu guk, gutien uste dugunean, etsai amurratua; ta aldioro etorriko da arma-tentu berriekin; ta, ark gu azkenean garaitu ezkeru, galduak dira lenagoko gure irabaziak, edo merezimentu guziak; eta gu gerok ere galduak gara, Jaungoikoa Jaungoiko den arterako, edo eternidade guzi-guzirako.

Orren kaltear ez gelditzeko, ongi prestatuak, eta alik erneena bizi bearrak gara gu, bizi garaño. Ekusi ditugun beste bere erakusteen gain, ori ere erakutsi

zigun guri geren Jesus maitagarriak aldi onetako bere peleetan. Nola, ta zer bidez uste dezu? Goazen ekustera.

Bein, ta birretan Jesusek garaituagatik, garaitu zuen ta ekusi dugun bezala, sulezeko lapur-etsai amurratua, etzuen etsaiak etsi, ez, Jesus garaitzeaz. Ateratzen du etsai berak Jerusalendik Jesus maitagarria, an nai zuenik ezin eragin ziola ekusi ondoan; ta badarama mendi-gain guztiz goitu batera.

Mendi artatik agertzen diozka Jesusi, dezakenak bezala (Jaunak ari bere lan ori egiten utzi ezker) munduan arkitzen ziran gauzarik ekustekoenak. Ager-tzen diozka, munduko Erresumak, edo Erreinu ta bazter guziak. Agertzen diozka Erreinu guzietako edertasunak, indarrak, eta ondasunak: eta agertzen diozka, ez bereziak eta banaka bezala, baizik, S. Lukasek dionaz, *in momento tempiris*, batetan, ta guzien edertasunarekin bein-beingoan bere begietan Jesus maitagarriari ematen diola, liluratuari bezala bazen ere, eragin naiz eskergabeko lan galdu galgarri bat.

Zer lan modu ote zen, lan galdu etsai gaistoak Jesus maitagarriari eragin nai zikeon au?

Etsai beraren itzak diotena. Ekusten dezu zuk au guzia (erraten dio etsaiak Jesus maitagarriari)? Bada

guzi au emain dizut zeretzat edo nai dezunerako, belaunikatzen bazara zu niri, zere Jaunari bezala, agur egitezo.

Anitz zen, bai, bere etsai-lapurrak Jesus maitagarriri aldi onetan eskeintzen ziona; ta etziran gaistoak, ez, eskeintzen ziozkan gauzak, begi arin bat liluratze-ko, ta lurreko gauza-zale baten gogo txar galdua naitzake makurrez betetzeko; bada eskeintzen ziozkan munduaren laur zatietan arkitzen diran erri, erreinu, urre, zillar, perla, diamante, oial-eder, jende, ta ondasun guziak; eta eskeintzen ziozkan buru-belaunen erabiltze bakar bategatik, besterik bage: Baña eskeintzen ziozkan, aren eskeintze-eskatze, ta gogo gaistoak eza gutzen zituen Jaungoiko-gizonari, ta aizetan gelditu ziran etsai galgarriaren eskeintza ta asmo guziak.

Nola bada? Zeren erantzun zion Jesus maitagarririak, ongi bizi den edozein gizonek era bereko aldie-tan erantzun bear duen gauz eder bat.

Zer ote? *Oa ortik, Satanas, eskribitua zegok; adoratu duk ik ere Jaungoiko Jauna, ta ura baizik ez duk serbitzatuko.* Erran nai du, oa ortik, sulezeko satanas gaistoa. Zeri dagokala iri nik, edo den txikienak ere, belaunikaturik agur egitea? Ez dakik ik zer dion Eskritura santuak, egiteko onen gain itz egiten duenean?

Ez dio Eskritura santak argi-argiro; agur egiozu itzez, belaunez, biotzez, buruz, ta alde guzietara? (nori?) Zere Jaun, ta Jabe bakar Jaungoiko maitagarriari, ez besteri? Ez dio Eskritura berak bidenabar; egizu zuk, zere Jaungoiko oni atsegin egiteagatik, egin bear dezun guzi-guzia; ta ez dagizula bein ere Jaun onen atsekaberako den gauzarik txikiena?

Zertan abil, bada, galgarri gaistoa, niri eragin naiez zein dagikedana, ta bein ere nik egiñen ez dudana? Ez diat nik ondasun bearrik, eta, zerbaiten bearran banengo ere, ire eskutatik artu baño len bear ta gabe geldituko nindukek beti, edo nere bizi guzian. Oa bada, oa ere tokira, etsai amurratua. Oa, oa, sutan beti-ta-beti lertzen ta erretzen egotera; berdin ez diat nik egiñen, tentatzalle gezurti gaistoa, ire erranik batere.

Au Jesus maitagarriagandik aditu orduko, kendu zen andik etsaitzar gaistoa, ta joan zen manatu zitzaion, tokira, Jesus maitagarriak garaitu zuelako alkez ta damuz erdi-urratua.

Ekusten dezu zein prest arkitzen zen gure Jesus maitagarria, non nai, ta edozein orduz bere etsai amurratua garaitzeko?

Non prestatu ote zen Jesus, ta nola ura onen aisa garaitzeko?

Ekusi dugun eran ta tokian, edo eremuko bere bakartasunean, ta ango otoitz soseguzkoarekin. An ekusi zituen gure Jesus maitagarriak, nai bezain astiz, ongi, ta maiz, lendabizitik ederki zekizkien gauza guziak, eta besteen artean, nolakoak diran gure Jauna maitatzetik datozen ondasunak; baita lurreko ondasunen aurkeriak ere: ta bere bi ekuste orrekin geldituzen Jesus len zegoenean, edo egin bear etzuela bere Aitaren naia ta borondatea baizik, ez eta mundu guziagatik ere: ta egin zuen zuzen ta beti, ekusi dugun bezala, bere gain arturikako egiteko au.

Egiten ote dezu zuk ere beste orrenbeste, edo egiten ote dezu zuk Jesus maitagarriaren egiteko andi zuzen onek adirazten dizun zere egitekoa? Ez ote dituzu kentzen zuk bein ere zere Jaunagandik zere begiak? Beti-beti ote zaude zu, zere asmo-gogo guziak zeruan daduzkatzula, ta lurreko gauzei, bear den eran ta ezinbestez baizik, begiratzen ez diezula?

Ezagutuak ote daduzkatzu zuk lurreko gauza guzien ezer-eza ta naspilla? Ote dakusazu zuk zer lanak diran, lurreko naspillak eta gauz oriek eragin oi dituzten lanak? Ote dakizu zuk, bear bezala beintzat,

zer egiten ote duten, edo zenbat arazo ta egitekotan sartuak arkitzen diran, ondasun orien ondoren dabil-tzan biltzalle ansiatuak, ondasun orien maitatzalle andiak, eta ondasun berak gogo ariñari ematen diena, egiten dutenak? Zenbat bidegabe egin oi ditezte era orretan bizi diranak? Zenbat dollorkeri? ta zenbat eta zenbat oben ta kulpa?

Eta zer ote da ori guzia, edo zer ote da era onetan dabil-tzan gizonen eran ibiltzea?

Zer izan diteke, baizik agur andiak eta eskumuñ umillak etsai galgarriari pozik guk, eta geren naiez egitea, edo guk geren etsai madarikatu gaistoari atse-gin egiteagatik geren buruak galdurik erabiltzea.

Au ekusten dezu zuk, ta alere zuk biotzez, ta nai izandu dituzun bezain guztiz, naiko dituzu zuri niola ere ez dagozkitzun ondasunak? Bide galduz, edo zuzen ez datozkitzun ondasunak? Egiteko txar galduz, ta eun arazoz betetzen zaituzten ondasunak, zere Jaun on maitagarriaganako gogo zuzen onak galeraz-ten dizkitzuten ta anitz aldetara zikintzen zaituzten ondasunak? Zure erokeria!

Zuk ez dakizu berez, zer ondasunak diran emen arkitzen diran ondasunak; eta zer ondasunak, beti-betirako zuk eta nik, eta mundu guzian arkitzen gara-

nok, billatu bear genitukeen ondasunak? Mundu onetako ondasun andi-txiki guziak fite guk, edo ill orduko emen bertan utzi bearko ditugun ondasunak dira. Emen beti, bizi garaño (ongi gu beti bizitzera), ta gero bukaerarik ez duen zeruko eternidade guzian guri laguntzeko dauden ondasunak dira, gure Jaungoiko maitagarriak ematen dituen ondasunak; baña ageri ez diran, ta siñiste garbi onez baizik emen ekusten ez diran ondasunak dira; ta orregatik dira; emen agerian arkitzen diran lurreko gauza txarrak adiña ansiarekin billatu oi ez diran ondasunak.

Izan etzaitezen zu ere, egiteko andi-ondasundun onetan munduko anitz bertze eroren erakoa, artu zazu, beti ez izan arren, noizean bein badere, zerbait asti ta leku. Idiki izkitzu ordu, edo ar-aldi orietan zere animako begi ekusleak; eta ekusiko dezu nor den, ta zer asmotan dabillena den, lurreko atsegin-kontentu ta gauza galgarriekin zuri zere begi ariñak eta gogo txarra arrapatu nai dizkitzun etsaitzar galgarria. Eku-siko dezu, zertako den etsai onen egitekoa, eta nora daramaten onen tentaera ta pelea guziak.

Au ongi, ta bear den eran, ekusi ondoan, goratzen badituzu zuk zere begiak, ekusiko dezu zer gauza den ongi bizitzea, zer gauza den emen ziñez ta zuzen zuk

zere Jauna maitatzea, ta atsegin-kontentuz beterik beti ta beti zeruan egotea. Lenak eta ori zuk ongi, ta bear den eran, ekusi ezkeru, saiatuko zara zu, bai, Jesusen ondoko peleak egitera; ta Jesus beraren eran zuk ere zere etsaia garaituz, bear ez diran lurreko ta aragiaren gauzak utziz, ta zere Jauna zuk ziñez maitatzen, onesten, ta serbitzatzen dezula, zeruko ondasun garbi-ederrak irabaztera. Zorionekoa zu, orretan bazabiltza ill arteko zere denbora guzian, edo bizi zaraño! Indazu zuk, nere Erakusle on Jesus maitagarria, orretarako bear den zure laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

Sedebit solitarias, et tacebit, et levabit super se.

Thren. 3. 28.

Billatuko du bere bakartasuna: eseriko, edo jarriko da berez, edo lagunik arkitzen ez den tokian, ta, an isilik dagoenean, gogoan artuko ditu artu bear dituen gauzak, eta aterako da, ango bere egoeratik len ez bezalakoa, ta eskuz ta indarrez dena betea; dio Jeremias Profetak.

Nor ote? Jesusen eran dabillen edozein anima.

Zer ibillera da, aldi onetako Jesusen ibillera? Umilleraz, bakartasunez, baruz, ta begiratze zuzenez baso batean, edo eremuan, bere etsai galgarriaren kontra, bear zen eran prestatzea.

Era berean prestatu zara zu ere noiz edo bein? Bakartzen zara zu, lagun artean zeundezkeen aldiren batzuetan? Sartzen zara zu elizan, edo zere gelan, gogorazio ero, ta ezertako ez diran oroitzapen guziak utzirik, astiz ekustera, zuri ongien dagozkizun gauzak, eta ekustera nola garaitzen diran aragi galduaren tentuak, eta sulezetik datozen peletak?

Egiten dezu gero zuk, an ezagutzen dezuna? Barutzen zara? Laburtzen dituzu zere jan-edanak? Zaitzen dituzu zuk zere begiak, eta zere animaren gañerako leioak, orietatik sar ez dakizun atsegin lizunik, edo zere Jaunaren grazia kenduko dizun etsai gogor gais-to galgarririk?

A, nere Jesus maitagarria, ta zein guti! Bear etziran anitz gauzaren zale, ta gura nintzan ni geienean! Zaletu ezkerro ni, saiatzen nintzan nonbait billatzera gura nuena, nere billaeran Jaunaren debekuari anitz begiratu gale! Nik neronek zabaltzen niozkan nere begietatik sartzen zen askotan nere biotzeraño nere etsaia: ta sartzen zen, ekuste txarrez jauntzirik beza-

la, ta bere sartu aldietan niri kentzera nik nuen grazia, ta nere animako irabazi guzia!

Etziran beti bide batekoak, ez, onen sartuerak. Batzuetan sartzen zen, ekusi dugun eran, nere begietatik, eta bertze zenbait aldiz nere eztaeratik; eta, emendik sartzen zen aldietan, sartzen zen nere geiegizko jan-edanekin batean.

Nere barrenera sartzen zen aldietan uzten ninduen ni nere etsai galgarri amurratuak, erretzen ta sutan bezala, edo gaitzerako makurtasunez ta tirrikaziaz nintzan au betea; ta utzi oi ninduen, bera garaitzeko ziran gauzak egiteko gogorik bage; ta gero egiten zuen nitaz nai zuena, edo eragiten zizkidan nork daki zenbat oben, txarkeri, ta kulpa!

Ez naz ni, ez, nere Jesus maitagarria, ez naz izandu mendiko txori arrotz igeska dabiltzan gordeetatik, edo ez naz izandu ni, etsai galgarriak ezarri oi dituen lakioetatik eta bekatu tokitik igesi dabiltzan animetatik bat! Aurren begietan beren kabiak egiten dituzten txorien, ta ekartzen diezten lakioetako bazkaren ondoren dabiltzan txori-txarrak bezalakoa izandu naz ni; edo izandu naz ni nere etsaiak arrapa nintzaken okasio txar, ta toki galduetan nenbillen anima. Orregatik arrapatu ninduen ni goiz aski nere etsaiak, eta

geroz, zenbait denboraz beintzat, erabilli nau, aurrak ariz txoria bezala, bekatuz lotua ta bekatuz bekatu!

Ez ote narabill orain ere era berean? Ala banarabill, atera nazazu aren atzaparretatik, nere Jesus erakusle maitagarria, eta eraman nazazu zere mendira: eraman nazazu etsairik ez den tokira, edo zere Gloria-ra. Bai arren, bai!

Bona est oratio cum jejunio.

Tob. 12. 8.

Rafael zeritzan aingeruaren eskuz, egin ziozkan gure Jaungoikoak Tobias onari nork daki zenbat ontarte; ta, eskerdun ona izan naiez, galdegin zion Tobias-ek Aingeru berari: zer egin dezaket nik, zuzen ibiltzeko; edo, nere Jaun ongillearen bidetik ateratzen ez nazala, nere egunak bukatzeko? Barur-otoitzak laguntzat artu, eranzun zion Tobiasi Aingeru santuak.

Bai, lagun oriek arturik dabillen animak, ekusten ditu etsaiaren urrats galdu, ta pausu gaistoak; eta, oriek aldebat utzirik, ar dezake aisa artu bear den aldetik, eta badabilke zuzen, arin, ta erori ere gabe. Otoitzez, edo zeruko begiratzez begiak garbitzen

dituenak, ekusten ditu antuste arroak dituen amiltegi guziak; eta, andik erortzeko beldurrez, artzen du umiltasunaren beitiko bidea.

Zertako dira (dio era orretako animak) zertako dira anditasunez, bere buruzko asmoz, ta aizezko gogorazioz beterik ibiltzeak? Eroaren lanak eragiteko, ta kea bezain erraz banatzen diran ta zerurako pits bat balio ez duten gauzetarako! Oriek dira niri nere etsaiak eragin nai dizkidanak, ondra bideak egiteko, ta leku andiak arrerazi, edo billarazi nai dizkidanean: ta zenbait aldiz eragin ere derezkit. Zenbat aldiz? Txoraturik bezala, ta txorien-ondoren dabillen aurraren eran, erabilli naben guzietan!

Eragiñen ote derezkit berriz ere? Ez, baruzko trabekin, ta nekezko kabestruz lotzen baditut nik nere gogo txar ariña, ta aragi galgarri-gaistoa. Ez, noizean bein begiratzen badiet nik, bein umiltasunezko bide apal zuzenari; ta gero, arrokerizko bide galduak duen bukaera izugarriari.

Dagigun bada, nere anima gaisoa, begiratze bata ta bestea, Jesusek egin izandu zituenen eran, aren ondoren guk ere geren etsaia garaitzeko, arrotasunezko tentuz ta kez itsutu nai gaituenean. Guk au ala egiten baldin badugu, eskerdun onak izain gara gu, ta

Tobias onaren zeruko lagunak beti, ta sekulan. Ala gaerta dedilla, nere Jesus maitagarria: bai, arren, bai!

Non potestis Deo servire, et Mammonae.

Math. 6. 24.

Ezin diteken gauza da, dio Jesus maitagarriak, guk geren Jaunari atsegin egitea, ta denbora berean atsegin egitea guk geren etsai gaisto, diruz, ondasunez, ta lurreko gauzekin liluratu, edo nastu nai gaituenari. Lurreko gauzei geiegi darraikionak aldebat uzten du bere Jauna, ta Jaunaren legea; ta, lege au utziezkero ez da Jaunari atsegin egiterik, ez da Jauna serbitzatzerik. Ez aren galgarria!

Zere janak, zere edanak, edo zere soñekoak oraindañokoan eragin ote dizkitzu zuri era onetako zenbait ibillera? Ibilleren txarrak! Ereintzen dute txoriak? Jorratzen dituzte gariak? Aritzen dira trillan? Sartzen dituzte aleak ganbaran, edo biltegian? Bein ere. Eta alere ez ditu Jaungoikoak bazkatzen txoriak? Ematen ez die bear adiña? Bai: ta uda, ta negu ere.

Begira egiezu lurreko loreei ere. Nekatzen dira loreak nioiz? Iruiten dute, beren buruak jaunzteko?

Sekulan! Eta alere arkitzen ez dira loreak Salomon baño ederkiago jauntziak, Salomon izanagatik munduko gizonik jakintsuena, aberatsena, ta apaindurak eta edertasuna geienik billatu zituena?

Zer bada? dio Jesus maitagarriak, au guzia erran ondoan: Zer? Ongi dabillen edozein ez du Jaungoikoak, txoriak eta loreak baño maiteago? Zer? Txori-loekin egiten duena egiñen ez ote du, bere erara egiñikako gizonarekin? Maitatzen badu (ta ziñez) gizon-berak bere Jaungoikoa, Jaungoikoak utziko du gizona gabe, ta bearrez betea? Ez segurki, ta mundu guziagatik ere! Ez da, ez, dio azkenean: ez da zer kezkatu lurreko gauzakgatik. Zeren aldetik alegiña zuek egin ezkerro, emain du nere Aitak, batetik edo bestetik, egillearen bearrak eskatzen duena.

A, nere Jesus maitagarria! au nik len ezagutzera, ez nuen galduko, ez, lurreko gauzetan galdu dudan adiña denbora! Bereziko nituen nik nere denborazatiak, nere Jauna maitatzeko, ta nere Jaunari atsegin egiteagatik! Ori egin lekuan, egin ditut nik, nork daki zenbat lan txar ta kulpa! Berririk egiñen ez dudalako itzarekin, eskatzen dizut orain orien barkamentua itzez, ta biotzez esaten dizudala: *Nere Jesukristo, etc.*

XXXIV.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN LEGEA, ETA LEGEKO NEKEAK

Ez da aski, bideko lapurrak edo bere etsai galgariak batek garaitzea, zeruan sartzeko. Zerurako denak, ibilli bear du bere bidez, ta neke andiarekin alaere. Bai, dio Jesus maitagarriak, bai Gurutzezko bidea da nik daramadan bidea; ta, gurutzea soñean duela etorri bear ko du nere ondoren nerekin batean zerura nai duenak. *Math. 16. 24.*

Zer bide ote da Jesusen zerurako bide au? Jesus berak agertu zigun bere legea. Eta bideko gurutzea? Lege berak dakarren nekea. Gure Legeko neke au, bada; ta, neke onekin egiten diran irabaziak, dira oraingo otoitz-gaiean, ta urrengo zenbaitetan, ekusi bear ditugun gauzak.

A.

**Agertzen digu gure
Jesus maitagarriak**

bere Lege berria, ta Legeko ibilera

Bein baño geiagotan ere agertu zituen Jesus maitagarriak gure Legeari zegozkan anitz gauza; baña beingo batean, bildu zituen guziak bi gauzetara.

Jauna (galdegin zion batek bein), ta zer da gure Legeko gauzarik andiena, edo bearren den gauza?

Jesusek erantzun zion gauz onen gain, galdegi-llak eta guk guziok jakin, ta egin bear dugun guzi-guzia, erraten ziola: Ori: bearren-bearren den gauza, ta lenbiziko lekuan zuk egin bear dezuna, da zere Jaungoikoa gogoz, biotzez, ta alde guzitara guztiz zinki maitatzea. Onen idurikoa da (erran zion bertan, ta oni zitxekola), zuk egin bear dezun bigarren gauza; ta orise da, zere buruari bezala, zuk zere lagun urkoari edo beste edozeini begiratzea: ta bi gauz orietara biltzen dizkitzut nik nere Profetak adirazi dizutena ta, zure Jaunaren Legeak dion guzi-guzia: *In his duobus mandatis universa Lex pendet, et Prophetarum*. Math. 22. 40.

Erakustearen laburra, Jesusen aldi onetako erakuste au! Ala da; baña, zein ere laburra den, orretan or arkituko dezu, zuk eta nik, biok, eta munduko guziok, egin bear duguna; ta, ori guk egin ezkeru, egi-ten dugu gure Jaunaren Lege guziak, eta Jaun beraren Profetak adirazten digutena; bada Profetak diotena, ta

gure Legeak eskatzen duen guzia da, guk, gure Jaungoikoari, gure lagun urkoari edo proximoari, ta gere anima gaisoari dagozten gauzak zuzen egitea; ta ori guzia egiñik uzten du bere Jaungoiko maitagarria ziñez onesten duenak, baldin denbora berean, bere buruari bezain garbiro ta zuzen, begiratzen badie lagun-urkoaren, edo besteren gauzei.

Baña, aisa ta erraz egiten diran gauzak dirala uste dezu zuk, gure Jesusek gaur adirazi dizkigun gauz oriek biok? Ez orren aisa, ez! Badituzte, bai, gauz oriek beren lan-egitekoak, eta neke gogorrak. Neke gogor oriek dira, zeruko bidean dabiltzanen gurutzea egiten duten nekeak eta gauzak.

Zerurako gure gurutze au, guri geren Jesusek arerazten digun gurutzea da; ta gabiltzan gu, edo ibilli gaitezen geren gurutze au arturik eta soñean daramagula, artzen du Jesusek berak berea, ta bere gurutze onekin dabilela, erakusten digu guri geren ibillera edo ibill-bidea, ta erakusten digu berak berearekin nekeluze-gogor arrigarriak daramatziela.

Bai, Aita maitea, bai, erran izandu zion bere Ait Eternoari gure Jesus maitagarriak (gizatasuna artu, ta bizitzen asi orduko) bai Ait Eternoa, bai: badakit nik, eta ongi alere, zer gauza ta lana den lenbiziko lekuan

zuk orain nigandik nai dezun lana ta gauza. Gauz au da, nik zu ziñez, egiñal guzian, ta ezin zuzenago maitatzea; ta, ala nik zu maitatzen zaitudalako siñutan edo señalean, zuk nai dezun guzia bertatik asi nik, eta ill arte guzi-guzian, bear den eran egitea. Orretan nago ni, bai, nere Aita maitagarria; ta orretarako, ona non dadukan nik nere biotzaren erdi-erdian zure Lege onak diona; ta emen dadukat Lege onek dion eran ta denboran nik egiteko dion guzia, ta zuk nigandik nai dezuna.

Nik badakit, bai, nere Aita Eternoa, (erraten dio Jesusek berak, aditu dugun au bukatu orduko); nik badakit, bai, ta ongi alere, zertara natorren ni, nere gizatasun au arturik mundura natorrenean. Mundura nator ni, munduko galduak zuzentzera; mundura nator ni, mundukoen zorrak ateratzera; ta mundura nator, munduko gizon-galduen ta zure artean bakeak eragitera: ta denbora berean nator, alde zai duten munduko gauzei gure zerurako bide zuzen garbi bat arreraztera; itzez nik, eta lanez lenik agertzen diedala bide bereko sar-bidea, ta bidezko ibillera on zuzena.

Au guzia, bada, beste anitz gauzaren artean, egitera nator ni, nere Aita ezin-maiteagoa, ta nator, guzi-guzia pozez beterik, eta atsegin andiarekin egitera;

maite zaitut ala bada zu, zuk zerorrek dakizun bezala, ta, zuri dizudan amore andiagatik, maite ditut, eta agitz urrikari, zuk ongi naiez egiñak diran munduko galdu gaisoak, eta ori da orain nigandik nere biotzeko amore bazter-bagekoak eskatzen duena. Orra gure Jesusek lendabizitik ziona; ta orra zuzen-zuzen, ta uts egin bage gero Jesusek egin izandu zuena!

Bada zenbat bere nekerekin egin izandu ote zuen gure Jesusek au guzia, ta guri erakustea geren Legeko ibillera zuzena?- Ez da erraz, ez, au guk nola-ere-bait gaur ezagutzea. Au guri erakusteko ziran, jaio zenetik bere gain asi arteko Jesusen neke guziak; eta ekusi dugu, zein anitz izandu ziran oriek, zein andiak eta zein arrigarriak!

Etziran izandu, ez, batere laburragoak, gerozko irur urteetan Jesusek eraman zituen gos-egarriak, neke-izerdiak, eta biotzeko ai-ak eta kezkek: ez eta, aditu zituen baldankeriak, itz itsusiak, eta blasfemiak ere! ta orien artean ibilli zen Jesus, Lege berri bat erakusten, illak biztutzen, eriak sendatzen, ta eun milla ontarte ta fabore guziei egiten, esker gaistoak, istak, eta irriak baizik orien alde, geienetatik beintzat, artzen etzuela; ta azkenean artu izandu zuen, bere

ondasunez bete zituen eskuetatik, ar zezakeen tratu-rik gogorrena, ta eriotzarik bide-bagekoena!

Eta zergatik au guzia, ta Jesusen gañerako lanak eta gauzak? Adirazi dugunagatik, edo, bere Aitari zion amore andiagatik, eta guri guziori ongi naiez.

Bai, dio san Joan ebanjelariak; bai, beti maitatu izandu zituen gure Jesusek munduko gaisoak; baita bere Pasioneko tranzerik gogorreanean ere, ta bere ill arte guzian; ta maitatu zituen, bere Aitari zion amore andiagatik.

Eta, bai, dio Jesus berak ere; bai, ezagu dezan mundu guziak, zein maite dudan nik nere Aita Eternoa, ta onen amoreak niri eragiten didana, ots, emazue (erraten die bere Apostolu maiteei ostegun santu arratsez), ta goazen emendik.

Nora, uste dezu? Jetsemaniko baratzera. Zertara ote? Aratzen denetik illotza gelditu arteko denbora guzian, odolezko izerdiz, neke gogorrez, ta era askotako penaz ta tormentuz beterik bizitzera.

Bizitzaren arrigarria, ta amorearen andia, Jesusek bere Aitari dion amorea, ta amore onegatik daraman bizitza! bada Jesusen biotz onetako penak eta nekeak, neke ta pena, guk adirazi alak baño agitz eta agitz andiagoak eta arrigarriagoak izandu ziran; ziran ala-

baña, sulezeko etsaiak, eta munduko gaistoak asmatu al zituzten nekerik gogorren-gogorrenak; eta ziran neke-pena, beren gogoratze utsarekin Jesus maitagarri-Jaungoiko-gizona odolezko izerditara, ta eriotzeko tranzeraño eraman izandu zutenak; eta neke-pena, milla tormentu gogorren buruan bizia galdurik, eta odolik bage, gure Jesus utzi zutenak! Eta guzi-guziak eraman zituen gure Jesusek, bere Ait-Eternoaren ta gure amoreagatik; eta gure Legeko ibilera guri erakutsi naiez, edo guri arrerazteagatik geren Legeko neke-penak, eta lagun-urkoen, ta geren Jaunaren amorea. Ekusten dezu zer bizitza, gure Jesus maitagarriari, bere Aitaganako, eta guri ere izandu zigun amore bazter-bagekoak arrerazi izandu zion bizitza!

Eta au onela den ezkerro, den bezala, nork ez ditu artuko Jesus beraren izenean, ta onen amore andiari erantzuteagatik, onen andiak ezpadere, al dituen neke ta pena guziak? Artu bear genituke, bai, ongi izatekotz, gure Erakusle on, nere Jesus maitagarria! Baña oraindaño koan beintzat, oriek ezezik, orien laurdenak ere artu izandu ez ditugu guk era orretan ta zure amore andiari erantzun naiez; ta, artu, edo eraman ditugunak ere, eraman izandu ditugu bortxaz bezala, ta zukanako amore andirik artan agertu bage. Beste-

rik izain al da datozen denboretan? Nai nuke beintzat, Jaungoiko maitagarria, zuk zerorrek artan laguntzen didazula, nere Jesus maitagarria. Ala gerta dedilla, bada; bai, arren, bai!

B.

Gorputzaren nekagarria da gure Jaunaren Legeko ibillera zuzena

Gaiztaturik utzi ginduzen gu, ta gaitz aldera guztiz makurtuak, lenbiziko gizon Adanen bekatu loi-galgarriak. Orregatik neke andizko lana da gu geren zeruko bidean zuzen ibiltzea. Au guk argiro ekusteko, aski dugu geren ibiller oni zerbait konturekin begiratzea, naiz begira dakiola gorputz nekakor gaisoaren aldetik, naiz animarenetik. Egin dezagun orain geren lenbiziko begiraldia gorputzarenetik, eta ekus ditzagun Jaungoikoaren Legeko ibillera zuzenak edozein gizonen gorputzari arrerazten diozkan nekeak.

Betor, nai badu, mundua mundu denetik mundura den gizonik sendorrena, ta osasunarik onena duena; betor, ta bizi bedi munduan den bazterrik edo lekurik

onenean, ta nai adiña ondasun ta munduko gauza beti berekin dituela; ta alaere ez da biziko, ez, naigaberik ez duela, ta nekerik gabe.

Bazabilzke, bada, nai dezun bezala, ta bazoazke gogoak ematen dizun aldeetara edo tokira, baña, nekez beterik bizi bearra zara zu, dio Tomas Kenpis deritzan gizon andi jakintsu birtutezkoak. Egin deza-kezu zuk zere gogoak ematen dizun guzia; zuzen ditzaketzu zuk zere gauzak, ongien-ongien deritzazun eran; izain dezu ala ere, bai, neke ta neke. Itzul zaitez, itzultzeko gogoia datorkizunean, gañeko aldera; itzul zaitez gero azpiko aldera; edo bein zoaz kanpora, sar zaitez zere barrunbera, ta egizu aldian zere alegiña, zere buruari atsegin egiteagatik; eta ala ere bazter guzietan arkituko dezu zuk zere nekea, ta zere gurutzea; ta non-nai bearko dezu zuk zere nekezko umiltasuna ta bakea, bizi nai badezu asaldaziorik gabe, ta irabazten dezula zere zeruko gloria. *lib. I. c. 22.*

Bai egiazki, bai! ta, siñes dezazun aditzen dezun au, begira egiozu goizetik arratseraño, ta zere bizitza guzian zuk daramazunari: baña begira egiozu saiets guzietatik, eta beinik bein zere gorputzaren eritasunen aldetik.

Ill-bearra den gorpuzezkoak gara gu geren pekatu etorki, edo orijinalagatik; eta ez da besterik bear, dio san Agustinek, jaio giñanetik minkorrek eta eriak izateko gu guziok.

Jaio orduko, negar ta negar ari da aurrik sendorre-na; ta ordu beretik bere burua ederki nekatzen duela dago aur gaisoa. Ez dira bukatzen, ez, beraren jaioberrian, aurraren orduko negar-marraskak; negar ta marraska dago gerozko illetan ta illetan ere, edo gau egun, ta beti, edo beintzat anitz aldartez ta denboraz. Aur beraren negarrak gogorrakoak dira ortz-agiñen atera-orduetan: ta len, ta gero, negarrez adirazten du aur-gaisoak zer duen ezpada ere, bai duela miñen bat edo beste. Eta ez da au, san Agustinek dion bezala, jaiotzen deneko, bat eritzen abiatzea edo astea?

Eta ez dirau, mundura datorrenaren eritasun onek, beraren bizitzak adiña? Non arkituko dezu zuk zer edo zer gorputzez, emen bizi den denboran, ez daramanik? Ez dautza guziak sukarrez erretzen, edo tabardilluz erdi lertuak, ez. Ez dabilta guziak, ez eta laurdenak ere, erdi ustelduak, edo oñak ezin jaso dituztela. Ez dabilta besorik gabe, ta zurezko oñarekin; ez eta begiak galdurik edo arrastan ere. Baña zenbat gizon, edo emasteki arkituko dituzu zuk, noiz edo

noiz zerbait ez dutenik? Zenbat; beren aldarte gaistokak ez dituztenak? Zenbat, zenbait aldiz beintzat, gaizkitzen ez diranak? Zenbat, buruko, ortzetako, agiñetako, edo begietako miñik gabekoak? Zenbat, eztarrian, sabelean, eskuan, edo non-edonon miñen bat, gaitzen bat, edo zerbait izan oi ez dutena? Bada, buruko mintxo bat ere ez dutela erran oi dutenak, berak eritasun andirik bage bizigatik, izaten ez dira zer edo zer ekusi gabe: ta orregatik erran diteke Senekak diona; *eritasuna da gure bizitza. (zein nekezkoa!) Haec vita est morbus perpetuus.* Ep. 76.

Ala ere, ez da eritasuna guri geren gorputzaren aldetik datorkigun nekerik andiena: andiagoak dira beste zenbait izan oi ditugun gure neke, eta, orientean, gauzen bearra ta gabea.

Guzien-guziena dutenak berak ere ez dute, beti beintzat, ez, berak nai adiña; ta zenbait aldiz, bear duten, edo nai lukeen zer edo zer gabe, dira; ta aldi orietan, nai lukeena erditsi naiez, billatzen dituzte berak ez diñakoak ere.

Orrenbat ez dutenak, zorpean dautza geiengan, edo arrastan bezala dabilta; ta, beren bearra estali naiez, jan-edan laburrak egiten dituztela, ta, ori estaltzeko, irabazi zerbait egin naiez sartzen badira jokoan,

tratuan edo egitekoren batzuetan, buruak autsirik doaz askotan beren itxera, edo kaltear, ta len baño ere agitz gutiagorekin, ta beren gorputz nekatia ongi nekaturik daramatela.

Gañerakoak, gau ta egun ongi beren buruak nekatugatik, doi-doia biltzen dute bear dutena; ta geienak soñean eskas dabilta geienean, ta zorrak ezin atereak, umeei bide onik ezin emanak, bear dutena ezin arkituak, eta milla izerdik eta kezkak egunoro urratzen dituztela. Orregatik zion *Diogenes* zeritzan gizon jakintsuak: *ez da, ez eritasun txikia gauzen bearra, ta gabea*; edo ori neke arrigarria da.

Baditu gorputzak beste nekeak ere; ta, oraindaño-koak bezain gogorrak. Orietatik dira eguraldien, lagun-urkoen, edo beste zenbait gauzen aldetik artu oi dituenak. Otzak batzuetan, ta beroak zenbait aldiz, ematen diozka urtean gorputz nekatiari nork daki zenbat neke ta naigabe; ta, bear bada, eriotzeko orduraño-ko daraman eritasuna. Lagun urkoak, edo auzokoak, etxeakoak edo erbestekoak, eragiten diozkate gutatik bakoitzari nai ez litukeen zenbait gauza ta neke; ta guzia da gorputz-ezur minbereen gain.

Oriek ezezik, gañerako gauzak ere gorputz nekakorraren kontra edo gain izaten dira. Batetik bertzera

dabillenean, ezpadabill geldi, kontuz, ta erne, urratzen du bein bere soñekoa, bein burua, odoltzen diozka oñak bere beatztopak, eta eskua kanibetak edo nabalak; eta ez du saietsik, ez du burutik oñetaraño lekurik, miñ ar ez dezakenik. Eta zenbat dira, gorputz minbereak artzen dituenak, eta zenbat orien artu-aldiak?

Orra gorputzaren aldetik bati datorkion gurutzetia, edo neke gogorra. Neke-zati astun pisua; ta, gogoz artzen ezpada, ta gure Jaungoiko maitagarriaren izenean, agitz pisuagoa ta agitz astunagoa! Eta, nolakoa nai dela, ontzat artu bear dute, ta Jesusen amoreakgatik, Jaunaren legean zuzen ibilli nai dute-nak.

Zorionekoak gu geren neke guzien artean bagabil-tza Jesusi begira, ta Jesusen eran guziak eraman naiez; ta, ala eramateko Jesus berari bere laguntza eskatzen diogula; bada, ori guk zuzen ta beti egitera, aisago eraman ditugu geren nekeak; eta eraman ditugu, zerurako irabazi andiak egiten ditugula.

Nere eskuan dago, ori guzia bear den eran gaur bertatik nik egitea: bada norinai erakusten dio Jesus maitagarriak, nola eraman dezaken, anitz nekatu gabe, bere gurutze zati au, edo bere gorputzaren

aldetik datozkian neke guziak; eta, ongi eskatu ezke-
ro, ematen dio Jesusek, den errumesenari, den txarre-
nari, ta edozein-edozeini ere, oriek bear den eran era-
mateko bear duen laguntza ta grazia. Indazu arren niri
ere, nere Jaungoiko maitagarria, ta saiatuko naz ala
nik nereak eramatera. Indazu bada, bai arren, bai!

C.

Animaren nekagarria da gure Jaunaren Legeko ibillera zuzena

Baditu, bai, animak ere, zeruko bere ibillera zuzenean bere neka-moduak; eta neka-modu gorputzare-nak bezain gogorrak, baita agitz eta agitz gogorrago-ak ere. Neka-modu orietatik zenbait anima nekakor gaisoari kanpotik sartu oi zaizkan neka-moduak dira; beste zenbait bere baitatik edo barrendik datozkionak dira; eta guziak dira, anima guzia ongi naigabetzen duten nekamoduak, artzalle gaisoak guziak ez artzera artu bear diran aldetik, bidez, ta eran.

Anitz aldetarakoak dira anima gaisoari kanpotik sartzen zaizkan nekeak. Nekatzen dute anima, ta

penatzen dute beinik bein gorputzaren miñak, gorputzaren eritasunak eta oñazeak berak; arkitzen da alabaña gorputzarekin bat egiña anima gaisoa; ta arkitzen da, den guzia gorputz guzian; baita gorputzaren edozein parte, zati edo lekutan ere; ta, an arkitzen ezpaliz anima, illa legoke, ta oñazerik ezin ar lezaken eran, gorputzaren edozein zati, alde, ta leku.

Eskua badabil batetik bestera; emendik ara igitzen badira oñak, belaunak, begiak, betazalak, eta gorputz guzia, guzien barrenean arkitzen den animak bizturik, eta beraren erabilliz darabiltzanak dira; ta orregatik animari zor diote guziak beren ibillera ta beren bizitza.

Gorputzaren zati bakoitzari ongi naiez dago, zati bakoitzarekin bat egiñik arkitzen den anima; ta guzien ona nondik erditsiko duen dabill gau, ta egun, den guzia; ta ongi dabiltzanean, ta nekerik gabe, gorputzaren aragi-ezurak, zain-muñak, eta gañerako gauzak, aisa ta pozez beterik arkitzen da anima; baña orietatik edozein neketan ekusi orduko, nekatzen da den guzia, ta artzen du bere gain animak gorputzak daraman nekea, miña, edo oñaze-aldia.

Gisa berean artzen ditu bere gain animak, edo nekatzen dute anima, gosetik, egarritik, gabetik, otzetik, berotik, elementatik, edo edozein beste gauzeta-

tik gorputz nekakorrari datozkion lan gaistoak edo naigabeak; bada bizten duenetik, eriotzak biak banatu artean, guztiz maite du animak gorputza, gorputzarekin bat egiñik dago, diogun bezala, ta ezin ekusi du, naigabetu ta penatu gabe, gorputzaren naigaberik edo penarik txikiena ere. Orregatik bada, animari sartzen zaizkan kanpoko nekeetatik dira, gorputzak izan oi dituen neke guziak.

Neke oriek ezezik, sartzen zaizka anima gaisoari beste anitz ere: ta sartzen zaizka, sartzean beintzat, batere gorputza naigabetu bage; bada berri gaistoak ez diote kalterik egiten gorputzari, gorputzaren bearritik animara sartzen diranean; ta alere, sartu orduko damuz beterik uzten dute berri gaistoak anima gaiso damukorra.

Aditzen badu batek ill zaiola maite zuen bere aita, bere semea, edo bere aidea, ez du miñik artzen berri oni sar-tokia ematen dion bere bearrian; baña naigabezko berri au barrenera orduko, illuntzen zaio bere biotza, ta gelditzen da animan tristuraz, ta naigabez ongi-ongi betea.

Berebat gertatzen zaio, aditzen duenean ezurak autsirik datzala beraren beia, idia, edo itxekoren bat, edo beste. Orobat agitzen zaio, ikasi ezkerro izotzak,

arriak, aizeak, edo agorrak eraman diozkala bere zelai-alorretako, bere sagardietako, bere baratzeko, edo ardantzeetako ta mastietako gauzak; baita aditzen duenean ere lapurrak eraman dituztela gorderik zeduzkan diruak; itsasoan ondatu dirala Indietatik uste zituen ondasunak, galdu duela zekarren auzia edo pleittoa, umearen ezkontza, edo aidearen ondra; erre zaiola etxe guzia itxeko bere gauza guziekin; ustu zaiola kupela oartukabeen, edo galdu duela an zeduzkan edari guzia; ill zaizkala onenbat edo anbat ardi, bei, edo ganadu; edo gertatu zaiola bertze edozein kalte ta malur. Berri orietatik bat, edo beste, aski da aldian anima kezka ta naigabez beterik gelditzeko.

Ala ere, urrutitik datozen berriak dira berri oriek: eta, orrelakoak baño geiago nekatzen dute anima nekaorra bertan ekusten ta aditzen dituen naigabezko gauzak.

Egiten badizu batek, begira zagozkiola, ista, ta burla, edo begiratze zorrotz edo gogorren bat, berebereala naigabetzen zaitzu zere barrena, edo zere anima; ta naigabetzen zaitzu, urrutitik egin dizula aditzen bazenu baño agitz geiago.

Agertzen badizu nork edo nork zere odoleko zikintasuna, lenagoko zere txarkeria, zere ebastea, zere

lan gaistoa, edo ibiltze lizuna, zere gabea, zere zorra, zere gezurtikeria, edo beste zere zer edo zer, alketzen zara, zaran guzia; gelditzen zara mindurik bezala, ta sutan dadukazula zere barrena edo anima; ta, Jaungoikoak daki noiz kentzen den orduko zure ezinegona ta mindura latz-gogorra.

Orra zenbat penatzen duten anima gaisoa, gorpuzaren nekeak, kanpoko berriak, eta egiten zaizkan, edo erraten diozkat, beste txarkeriak. Baña ez dira oriek, ez, animaren neke guziak; baditu geiago ta geiago ere; ta, ez batere oriek baño ariñagoak.

Orietatik zenbait bere gogo arin nasiak arrerazten diozka anima nekakorrari. Gogoak ematen badio zerbait billatzea, ez du onik animak ura non-ere-bait arkitu artean; ta, arkitzen ezpadu, naigabez betezen zaio bere biotza, ta bere gogotik ezin iutziz dabill orduko bere illuntasuna.

Jartzen bazaio bein bere gogoan anima gaisoari, irri egin naiez dabiltzkiola zenbait, egin diotela bidegabe au edo bertzeren bat; kendu diotela, berez bezala zetorkion egitekoa, gauza edo onra, edo, nondik galduko duten, dabiltzkiola au edo ura, edo besteren batzuek, alakorik ez izan arren, damuz, tristuraz, ta bendekurako asmoz betetzen zaio bere burua; ta nork

daki nola dabillen asko denboraz; ta, bere barrena palakatu naiagatik, ezin burutuz ibilli oi da gau-egun, ta anitz aldartez.

Gogoratzen zaionean etorkizuna, umeen aziera, edo ezkon-bidea, zorren premia, irabazbidearen laburtasuna, zordunekiko jardukitzea, gau-ta-egun nekatu bearra, edo betiko lan-izerdi-neke ta arrasta, nai-ta-ez kezkaz betetzen zaio bere anima.

Bada zer izain da oroitzen denean bat leneko bere ibilleraz, leneko bere urrats edo pausu galduez, bekatu zikiñez, ta oriei dagoten sulezeaz? Ai ene! errain du orduan animak (eta egiaz alaere): ai nere eroegia! Ona zertan nadukan zentzugabeko nere bizitzak! Irriz, ta farraz galdu izandu ditut nik nere Jauna, ta Jaunaren grazia; ta galdu izandu ditut nork daki zenbatetan! Egin dut, bai, nere gauza galduak bildu naiez, zer edo zer! Baña bildu ditut nik bein ere! Barkatuak arkitzen ote dira oraindano nere txarkeriak eta oben-kulpa? Ez ote naz oriekgatik ni erre, ta kiskildu-bearra beti ta beti sulezean?

Onelako beldurrak, eta adirazi ditugun gogorazioetatik datozen kezkak, gañerako nekeekin batean, ekusi zazu zer nekeak diran, edo zein arrigarriak anima nekakor minbere gaisoarendako!

Ala ere, ez dira dituen guziak; baditu alabaña anima bekatariak beste nekeak eta nekeak ere: ta neke, Legeak dion eran ibiltzeko, emeki berak eraman bearrak. Orietatik batzuek bekatuen zorretatik datozenak dira, ta beste zenbait bekatu beren aztura gais-toetatik datozenak.

Bere bekatuak anima bekatariak konfesatuagatik, eta ongi konfesatu arren, barkatu ez oi diozka Jaungoikoak bekatuekin batean, bekatu beren zor guziak. Eta bere bekatu barkatuen zor oriek atera bear ditu animak ilduraz, konfesio berriz, nekez, baruz, negar andiak egiñez, mezaz, edo lan nekagarri zenbait egi-ten dituela: ta, ala ez ateratzera animak, bere gorputzean bizi den artean, erretzen, ta erretzen egon be-rra da Purgatorioko su arrigarrian, zorrei dagoten den-bora guzian: ta, naiz bataz, ta naiz besteaz oroitze utsak ere nekatzen du, dakusazun bezala, anima gaisoa.

Baña emengo nekez ta lanez atereagatik anima bekatariak bere bekatuen zorrak, ez ditu bukatzen bere neke guziak.

Erdoiturik bezala uzten dute bekatuak anima, ta aztura gaistoz zikindua, edo gauz onetarako erdi tra-batua bezala, ta, aztura oriek kendu artean, neke

geiago du animak bere gauz onetan: ta, aztura berak kentzea neke andia da anima gaisoarentzat: ez dira alabaña aztura gaistoak sugearen gañeko larrua bezalako soñekoak (alakoak izatera, beingoan utz litzake animak, sugeak arritar-tean bere larru zarra bezain aisa); Adanen bekatutik beren sustraiak dakazten elorri gaistoak dira animaren makurrerak eta aztura gaistoak; eta elorri, anima ongi artua edo inguratua dadukatenak. Ekasi zazu bada zenbat kostatzen zaion animari, oriek kendu, ta garbirik gelditzea; ta zenbat, adirazi ditugun neke ta naigabe guzia eramatea!

Bada, guziak daramatziela, bere Jauna maitatuz; ta onesten duela, bere burua bezala, lagun-urkoa; ta, gauz oriek guziak eskatzen dituzten nekeak bere gain artzen dituela, ibilli bear du animak, zuzen ibiltzeko, bere Jaunaren Legeko bidean. Eta ekusten dezu, zein andiak diran orrelako nekeak! Oriek dira bada, ta orrelakoak, zerura nai duten anima gaistoak eraman bear dituzten nekeak; eta neke oriek, gorputzaren nekeekin batean, dira Jesusen ondoren dabiltzanak eraman bear duten gurutzea egiten duten nekeak. Neke ta gurutze berez gogorak; baña, Jesusen amorez ta beraren ondoren eramaten dituztenendako anitz arintzen diran neke-gurutzeak. Zabiltza bada, ori zuk zere

soñean daramazula, ta ekusiko dezu zein egia den orain aditzen dezun au.

Ala ibilli ote naz ni nere oraindaño denboran? Ez ote dut urratu nik bein ere nere Jaunaren Legea, nere buru au, era orretako neketan ez ekusteagatik? Txarkeriari txarkeriz erantzuteagatik? nere gogo galduari atsegin gaistoren bat egin naiez? edo neronek dakidan beste bideren batetik? Ala bada, aurtiki dut nik, eta bota nere gurutze ona; utzi izandu dut nik zeruko nere bidea, ta Jesusen igesi ibilli izandu naz ni, eskergabe galdu galgarriaren eran!

Zaude bada, nere anima, zaude zauden lekuan; itzul zaitetz lenbaitlen Jesus maitagarriaren nekezko, edo gurutzezko bidera; ta artu zazu bide au, berriz ez uzteko, ta bideko lauak Jaunaren gogora, ta beraren Legeak dion eran egiteko asmoan. Bai, arren, bai!

*Ingrediatur putredo in ossibus meis,
et subter me scateat,
ut requiescam in die tribulationis,
ut ascendam rrie.tiraua in (lie tribulationis,
ut ascendant ad populum accinctum nostrum.*

Habac. 3. 16.

Ezagaturik Abakuk Profetak gure Jaunaren izeneko nekeen ondasuna, betor, zion, betor, nai badu, eritasunik andiena; betor aldarterik gaistoena, ta sar bekit ezur-muñetaraño, ta geldi bitez nere ezur-aragi-muñak materia, ta usteltasuna dariela; ta geldi bitez denbora berean ar egiñak nere gorputz guziko zañ-aragiak. Gis-orretan ekusten baditut nik nere zañ-aragiak, eta nere buru guzia, laster aski nik goratuko ditut, bai, nere bi begiak; eta eskatuko diot, onenbat neketan nadukan nere Jaungoiko maitagarriari, bere laguntza ta grazia; ta, nik nere Jaungoikoaren laguntza-graziak erditsi ezkeru, ais-aski jasoko ditut, bai, nere neke-gurutzeak, ais-aski eramain ditut nik nere miñak, nere oñazeak, nere usai gaistoak; eta nere neke guziak; eta, era orretan arkitzen nazanean ni, izan uste dut nik nere atsedeterik onena; ta, emen geroz niri nai dena agitu, edo gertatuagatik, azkenean igan uste dut nik gure lagun onen, ta gure Jaungoikoak nai duena zuzen egiteko prestaturik arkitzen diran zeruko Aingeruen artera; an, kezkarik gabe ta atsegin garbiz beterik eternidade guzian, nai bezain ongi, ta agitz ongiago, bizitzera.

Orra, Jesusen ondoren ibiltzea zer den dakitenen mintzoa ta itzketa: baña itzketa ta mintzo, munduko eroak aditzen ez dutena.

Aditzen ote dugu, zuk eta nik biok, bada ere? Ote dakigu guk, gure, gorputzaren eritasunak, gure begietako miñak, gure oñen beaztopak, eta gañerako gure gaitzak dirala, gu zentzarazteko, gu zeruko geren bidean sarrerazteko, edo, an sartuak arkitzen bagara gu, geren arrotasunak utzirik, ibilli gaitezen umil-umilki, guztiz bizi, gure Jesusen eran, ta Jaungoiko maitagarriak nai dituen gauzak baizik egiten ez dugula? Eta bagenekien guk, era orretan dabilzanak dirala zeruko Aingeruen lagun egiñik gelditu bear dutenak, eta zerubereko atsegin-kontentuz beti-beti aserik biziko diranak?

Nik ez dakit nekien, edo ez, orrelakorik! Orain nik dakidan guzia, ta ekusten dudana, da bizitu nazala ni, gauz au jakin ezpanu bezala, lasai, ta nere eritasun ta neke guzietatik, edo zenbaitetik beintzat, izurri utsa ta kalteak baizik ateratzen ez nituela!

Eroaren ibillera, ta nekeak artzea, oraindañoko nere nekatze ta ibiltze galdua! Ez ote dut utzi bear gaurgeroko nere denboretan? Ez ote dut artuko Abakuk Profetaren ibillera, ta nere Jesusen bidea? Bai bal-

dinbere! Nai nuke beintzat zuk, nere Jesus maitagariak, laguntzen didazula! Lagun zakizkit bada, ta sendorki ala ere: bai arren,bai!

*Per multas tribulationes
oportet nos intrare in regnum Dei.*
Act. 14. 21.

Eritasunik bage gorputza dagonean ere, izain oi ditu biotzak bere premiak, bere kezka, eta bere nairgabe-moduak. Erbestetua edo desterratua, ez da nekerik bage bere erriratzen. Paradisutik erbestetu ginduen gu Adanen bekatuak; eta ez gara gu Paradisurako, edo ez gara zerurako, nekatzen ez garala! Gure leneko bekatuak eskatzen dute kezka ta nekea; ta egunoroko gure zor berriei badagote beren neke ta kezka-modu berria. Nekez beterik bada, ta bide gogorretatik, igan bear dugu guk zeruko atsegin-kontentu tokira.

Nekatzen zaituzte zu, nere anima, tentuz etsaiak, txarkeriz mundukoak, eta zere gogoetak naikunde errebes makurrekin? Ori da bada zure zorrei zor zaiona; ta ori, zeruko bidean dabillenari gertatu oi zaiona:

bada gertatu zitzaion Jaungoiko-gizon Kristo Jaunari ere.

Bai, dio S. Pablok; nekez beterik dago zeruko bidea; ta emendik baizik ezin zerurako da bat ere. Bai, zion Dabidek ere, Jaunaren Legea zuzen bizi diranen nekeak eta kezkek, kezka neke gogorrek dira. Estutasunaren, gabearen, ta premiaren suak erretzen ginduela batzuetan, ta beste zenbait aldiz txarkerien, naigabeen, ta kalte arrigarrien urean erdi itoak ibilligara, Jaunari atsekaberik ez egin naiez. Orra san Pablok eta Dabidek diotena.

Eta zer ote dio gure Jesus maitagarriak? Estrata mearra dela, dio, zeruko bidea. Bai, ta sasiz, arantzez, urrats edo pausu gogorrez ere dena betea! Poliki gabiltzala bada, ta gure Jaunaren izenean artzen ditugula emengo geren odoltzeak, emengo miñak, eta emengo gaitzak, igan bear dugu guk, igatekotan gu gure Jesus dagoen tokira, edo igan bear dugu guk, emeki ta pazienzian artzen ditugula gure etsaien alde-tik datozkigun nekeak.

Orretan nago ni, nere Jesus maitagarria! baña lagun zakizkit bortizki zuk nere etsai galgarri gaistoak garaitzen, ta, jaso bear ditudan neke guziak eramaten. Bai arren, bai!

Attendite, et videte, si est dolor, sicut meus.

Thren. 1. 11.

Jesus maiteak, gure Maisu egiñik, erraten digu bere bizitza guzian, ta lenago baño agitz argiroago azken aldian, edo gurutze batean iltzatu zuten ezkerro, odola zeriola, illtzeko zegoen puntuan: Begira, erraten digu: begira, nere ondoren etorri naiez arkitzen zaraztenak: begira niri; ta begira burutik oñetaraño: ta begira bein, ta berriz, ta geiagotan ere; ta begina niri aldian, astiz baño ere astizago. Gis-onetan begiratzen badidazue niri zuek, arkituko nazue zauri ta llaga egiñik burutik oñetaraño, nazan guzi-guzi au; arkituko dituzue batetik bestera burdiñez zulatuak, eta odol bizizko iturri egiñak nere oñ-eskuak: eta arkituko dituzue arantzez urratuak nere bi loak, nere kopeta, ta inguru guzian nere burua!

Ekusten dezu, zuk, anima nerea, zein andiak ziran, zein gogorak ziran, eta zein arrigarriak, Jesusen aldi onetako nekeak eta oñaze biziak? Ekusi uste dezu orien erakorik, orien idurikorik, edo orien parerik?

Nola arkitzen ote da gure Jesus orien artean? Nola ote darama gure Jesusek, oriek egiten dioten gurutze nekagarria?

Naiez ta gogoz; guztiz emeki ta bere Aitaren amo-reakgatik, eta gure onerako; ta bidenabar bere eramate ederrarekin erakusten digula nola guk eraman bear ditugun geren neke-gurutzeak, edo gorputzaren aldetik eta animan izan oi ditugun neke ta naigabe guziak.

Egin uste dezu bada zuk, nere anima, Jesusek aldi onetan erakusten dizun ta, ongi izatekotz, zuk egin bear dezun zere lan on au guzia?

Baietz uste dut, Jesus berak laguntzen didala: ta arin baño ariñago ibilli naiez nere lan au egiten, ta nere Legeko bide nekagarri zuzen onetan, utzi naiez nago nere oben-kulpa guzien kargatzar astuna; ta orretarako, ta bertatik ken diezadan, dagikenak beza-la, alik zinkiena erratera noakio nere Jesus maitagarriari: *Nere Jesukristo, etc.*

XXXV.garren OTOITZ-GAIA

LEGE-BIDERARO JESUSEN DEIAK:

ETA BIDEKO ONDASUNAK

A.

**Legeko nekeak guri arrerazi naiez,
egiten dizkigu guri gure Jesusek
anitz amoriozko deitze**

Ez da erraz, ongi beintzat, guk ezagutzea zenbat eta zenbat egiten duen gure Jesus maitagarriak, guri nekezko geren gurutze au arrerazi naiez, gu geren gurutzearekin aren ondoren gabiltzala, ta Lege gureak guri bereisten dizkigun gauzak egiten ditugula, bere zeruan gero sarrerazteko. Onetarako egin ginduzen gu gure Jaungoikoak Bataio-errian. Onetarako eman izandu zizkigun, ta ematen dizkigu gaur ere, erakusle onak, bide zuzenak, eta Elizako Sakramentu guziak. Onetarako egiñak dira, oraindañokoan Jesus berak egin dizkigun ontarte ta fabore guziak; baita lurraren ondotik azken zeruaren erpinerañoko gauza guziak ere.

Ez da au (zenbat ere den), gure Jesusek onetarako egin izandu zuen gauza guzia: egunoro, ta noiznai gure Jesus bere lan onetan ari da, edo egiteko berean dabil gau-egun, ta beti; ta bein batetik, gero bertzetik, eta askotan anitz aldetatik, deiez ta deiez dagokigu, bide au guri arrerazi naiez.

Oar zaitetz ezperen, ta ezagutuko dezu, bai, orain aditzen didazun egi au.

Oar zaitetz orretarako, goizetik arratseraño, ta urte guzian gertatzen zaitzunera.

Atozea, Predikariak erraten duenean, edo konfesariak adirazten dizunean zure onerako den, ta animaren zauriak ukitzen dituen gauzatxoa, ez dezu izan oi zere barrengo oñaze-modu bat? Atozea, libru onen bat irakurtzen ari zaranean, edo ango gauz onak aditzean, izan oi ez dezu zuk zere biotzaren dardararen bat edo beste? Atozea, ezagunaren illberria aditu orduko, lotzen etzaitzu zuri zere ikara modua, edo beldur iduria? Atozea, gauzaren bat gaizki egin, edo gertatu ondoan, etzaitzu zere biotza zerbait naigabetzen? Atozea, begitarte illun bat ekusi orduko, edo ezustezko itzen batzuek aditzen dituzunean, ez da tristatzen ta nasten zure barren guzia? Etzaude zu orduan damuz beterik, eta zaputz bezala? Eta zer dirala uste dezu,

aldi orietako zure illuntasun ta tristura guziak? Guziak dira zure Jesusen deiak: guziekin deitzen dizu, bai, zuri zere Jesusek, berak daraman bidera ta zeruko guru-tzepera.

Orrelako gauzarik ez den orduetan ere ez dago ez isillik gure Jesus maitagarria. Zere mezakoetan, zere otoitzak edo eskaerak egiten ari zaranean, ta gauz onen bat (dena dela) zuk zere gogoan artu orduko, an da bertan zure Jaunaren deia ta adiraztea. Adirazten dizu aldian, aldi artan zuri ongien dagokizuna, edo, ongi izateko zuk orduan egin bear dezuna.

Zere jostatze moduetan, edo zere atseginetan zabiltzanean ere, ez dago, ez, zure Jaungoikoa geldirik, eta zuri itz egin gabe. Itz egiten dizu, bai, zere isillaldietan, edo zu geldirik eta soseguz zauden instante zenbaitez ere; ta orduan zuk zere Jaungoikoari ez-aditu egiñagatik, illuntzen dizu Jaungoiko maitagarriak zere biotza, edo an bertan, edo andik atera ondoan; ta ezagun-erazten dizu orduko zere gaizkia edo erakeria.

Bakarrik arkitzen zaranean, naiz gabaz dela, ta naiz egunaz; zere egitekoren bat esku tartean dakartzun aldietan; ta an, emen edo nonnai zabiltzan denboran, an dezu zuk, edo zerekin dezu, zere Jaungoiko

maitagarria, ta an bertan itz egiten dizu adi dezakezun eran.

Aldi orietan zere gogoan arrerazten dizu, bein bizi-tzaren laburtasuna, bizitza laburraren ondotik dato-rreren erioa, ta biei aldetik darraiken kontu arrigarriak; zenbait aldiz zere ibillera zentzugabekoa, ta oni dago-kan betiko sulezea; beste askotan zuk zere Jaunari zor diozun amore andia, ta, gaizki ibilliz, galtzen dezun zeruko gloria; ta bertze aldietan era bereko zer edo zer, ta aldi orietako gogorazio guziak, eta oriekin ibilli oi diran nai onak, zuk zere Jaungoiko maiteari zor dioz-katzun urrikarizko deiak dira.

Ez-aditu zuk bein, berriz, ta nork daki zenbat aldiz egiñagatik, ez da isiltzen, ez, zure Jaungoiko maitaga-rria, zere burua zuk, eta zere anima, guztiz galdu artean.

Gure Jaungoikoaren ona, ta maitagarria! Ni bezain gauza txar baten ondoren, ta onenbat bidez nere bizi-tza guzian nere Jaun andial Niri deiez, nere bear bailiz bezala, nere Jaungoiko altsu ezin-aberatsagoa! Niri deiez gau ta egun, ta eguneko ordu guzietan! niri deiez, eragiteagatik niri nik nai-ta-ez egin bear duda-na, ni betiko kaltear ez gelditzeko! Eta niri deiez, atse-gin-kontentuz beterik bizi nadin ni, nere Jaungoikoa

Jaungoiko den arteko denboran, edo beti; ta beti, ta eternidade guzi-guzian! Eta alere ez diot nik nere Jaungoikoari erantzun bear, oraindañokoan ez bezala ta bertatik, edo batere trikatu gabe? Eskergabe txarra nintzake ni, ta agitz alere, ala nik ez egitera, edo nik laster, ongi, ta zuzen ez ari erantzutera!

B. Ona, ondragarria, ta soseguzko bidea da gure Legeko bidea

Lurreko errege aberats andi-onak artzen dituzten bideak, bide onak izan oi dira; ta bide, kezkarik gutiena eman oi dutenak. Orrelakoetatik da gure Legeko bidea (zein ere dirudien latza, ta nekezkoa); ta denbora berean da, anitz ondasun dituen bide bat: eta orregatik da bide ongi maitagarria.

Bai, benik bein errege-bidea da gure Legeko bidea, da alabaña, erregeen Errege, Jaungoiko-gizon Jesus maitagarriak beretzat arturikako bidea: ala dio Jesus berak, dionean: etzenekiten, nekezko bidez zebillela, ta ibilli bear zuela Jesus maitagarriak; eta,

neketan ill ondoan, igan bear zuela Jesusek zerura? Eta erregeen bideak bide onak badira, erregeen Erregearen bidea zer-nolakoa izan da? Nai ta ez guztiz ona, ta ondrazkoa!

Erregeen aldean dabiltzan gizonak ez dute, erregeen eran, ta erregeen bidez ibiltzea baño naiago duten gauzarik batere; ta ez da ondra geiago dakarrenik ere. Orregatik bada, besterik ezpaliz ere, nai andiarekin ta gogo osoz artu, ta eraman bear zenuke zuk, guztiz nekezkoa dirudien bide onetako zere gurutze au, edo ontzat zuk, eta zere Jaungoiko maitagarriaren amorez artzen zenituela, pozik eraman bear zenituke Jaun berak igortzen dizkitzun, edo lurrekoen eskutik etorri oi diran neke-kezkak, eta naigabe guziak: ori da alabaña Jesusen bidez zu, Jesusen ondoren, ta Jesus, errege guzien erregeren eran ibiltzea: ta ori, zabiltzken ongiena, eta ederkiena zu ibiltzea: ta bidenabar ibiltzea zu, ibilli zaitezken kezkarik gutienarekin.

Nola ori? (diozu zuk, zeruko gauzen berri andirik ez dezun bekatari txarrak)? Nola da ori? Ori orrela da, baldin zuk ezpadakizu, zeren Jesus maitagarriaren bidea bakar-bakarrik den, orrenbat ondasun ta nekeen aringarri dakarren bidea; bada gañerako bide

guzietan arkitzen dira Jesusen bide onetan arkitzen ez diran naigabeak eta kezakak; eta arkitzen dira kezka ta naigabe arintzallerik bagekoak. Eta bide orietatik edozein artzen duena gaizki dabil, ta kontrako bidez; ta kontrako bidez edo gaizki dabillenari gertatzen zaio, zuk zerorrek dakizun bezala, aldapako bidea gogor iritiziz iutzi, ta azpiko satitik artzen duenari gertatu oi zaiona, edo atsedetez beterik arkitzen den bide bat ez artu naiez, urraturik dena, ta dena odolturik, laster edo fite gelditzea.

Ez da ala? Ezin uka dezakezu; bada era onetako bidezkoari sasia, sartu orduko, itsasten zaio buruko illetik adarren bat edo beste. Ura kentzera doanean, zulatzen du eskuan, an arkitzen den arantza zorrotzak; eta onen igesi badarama, jotzen du bere esku berarekin, edo ari laguntzera daraman bestearekin, an arkitzen den elorri punta, edo nasten ta odolitzen zaizka biak ango lar-elorri ta adar artean, ta gelditzen da, den guzia oñazez betea, ta bide ta toki ain gaistoan sartu delako, damu andiarekin; ta ekusirik etorkizuna, ta gaistoagoa izain dela aitziañatzea, edo geiago ibiltzea, uzten du, artu duen sasiko bide zelaia, ta artzen du aldapakoa; ta badoa aldapaz zuzen, anbat

nekatu gabe, ta noizean bein atsedeten duela, bere lekura edo bere atsegin tokira.

Ori bera gertatzen zaio gaizki dabilleniari, edo bekatariari; bada bein bekatariak bere begiak idiki ezker, ekusteko non ta nola dabillen, ez-ongi, edo gaizki dabillenean, ekusten du emengo atsegin-kontentu guziak, eta emengo oben-kulpak, eta ibillera makurrak, arantzak dirala ta bide gaistoko larrak; ekusten du alabaña, zulatzen diotela, ukitu orduko bere biotz minbera; beretzen diotela ai-ez ta kezka; ta uzten dutela bera, den guzi-guzia, aitzina badoa, gaizki ill ta galduko delako beldur andiarekin.

Bere beldur au berritzen ta anditzen zaio maiz aski, ta askotan ere, edo bere Jaungoikoak, bere eritasunarekin, bere bearrarekin, bere naigabeekin, edo beste edozein bidez, bere biotzean kroskadak ematen diozkan aldietan, ta orduan ark ongi begiratzera, laster ekusiko du, ta klaroki alere, Jesusen bidea dela, era orretako beldurrik ez dakarren bidea; ta bide, zenbait nekeren artean, anitz atsegin dakartziena. Au ekusi ondoan, bururik badu, utziko du bekatariak bere bekatuen sasi gaistoko bidea, ta artuko du Jesus maitagarriarena, edo zerura zuzen daramana. Ori da Dabidek ere, berak dionaz, egin izandu zuena.

Bai, dio Dabidek, bai: gaizki egin nuen nik, eta bekatu arrigarria, nere gogo gaistoari atsegin egitea-gatik, bertzeren emazte bat artu nuenean; baita nere gaizki au estali naiez, onen senarra illerazi nuenean ere; baña artu dut, bai segurki, bi aldi orietako nere irabazia, edo orduko nere gaizkiari zegokan kezka-nekea: bada ez gau ta ez egun uzten nau baketan nere Jaunaren eskuak: eta nere Jaunaren esku onek eman izandu dizkidan krokaldiekin, ta Jaun beraren esku berak nere bizkarrera ekarri dituen nekeekin sartu zait niri nere biotzaren ondoraño nere bekatu bien arantza zorrotza, ta ez dut atsedete onik izandu, arantz au damuz ta urrikiz nere biotzetik atera dudan artean. Ekusirik alabaña ez nuela nai nuen nere atsedete onerako au beste biderik, itzuli nintzan ni noiz-bait nere Jaungoiko maitagarriagana: agertu nion Jaungoiko berari nere neke guzia, ta oben-kulpa; aitor-tu nion, arganako bide zuzen au utzi, ta nere atsegin loien ta bekatu zikiñen sasian sartzetik ziralta orduko nere kezkak, nere naigabeak, eta nere barreneko oñaze guziak. Eskatu nion zin-ziñez, ta, al nuen indar guziarekin, urrikaltia bezala, urrikal zekidala, ta nere ibillera ero galduez urrikaldurik, atera nintzala lenbaitlen nere lar arterik, edo bekatupetik, eta sar nintzala

bere Legeko bide zuzen garbi ondasunduenean: ta, denak bezala, aditu ninduen ni nere Jaungoiko maitagarriak; kendu zizkidan urratzen ninduten nere bekatu galduen larrak; artu nau azkenean bere aldera, ta aienatu ditu nere leneko kezka ta naigabe guziak.

Orra len Dabidi gertaturikako gauza; ta orra norinai, edozein denboraz, gertatzeko dagoen gauza, leneko bere bekatuen bide gaistoak utzirik, bekatariak artzera, erregeen Errege Jesus maitearena: au da alabaña gure Jaunaganako bidea: au da zerura zuzen daraman bidea; ta au da, bere neke guzien artean, bakezko atsedeteak eta aldarte onak dituen bidea. Eta orregatik da, nere Jesus maitagarria, nik zure amorez arturik dadukadana, ta ill arte guzian, utzi bage, eraman uste dudan bidea. Indazu zerorrek, orretarako bear dudan zure laguntza, ta grazia guzia. Bai, arren, bai!

C.

**Ondasun, ta atsegin andizko
bidea da gure Legeko bidea**

Jesusek guri agerturikako Legeak baditu, bai, bere nekeak; baña neke, ekusi degun bezala, gure Jaungoikoak atsegin garbiz arintzen dituenak; eta neke, denbora berean, ondasun anitz agertzen dizkigutenak; eta ondasun, aisa irabaz ditzakegunak. Goazen orain orietatik zenbait badere ekustera.

Gure Legeko nekeen lenbiko ondasuna da, leneko gure gaizkien zorrak urratzea, ta bidenabar zerurako irabazi andiak egitea. Nola ote? Geren zorren alde, ta umilki, guk artzen ditugula gertatzen zaizkigun bidegabeak, eta orietatik datozen lanak eta nekeak. Aski du orretarako, Jose zeritzan Ejiptoko Bisoreiaren anaiak, egin zutena egitea. Oriek beren gaztetasun arroan, gogo gaistoari atsegin egiteagatik, edo aren peera ta menera etortzeko beldurrez, bakarrik ekusi zuten batean, saldu izandu zien beren anaia Jose au, saldu-erosian zebiltzan Ismaelita batzuei, eraman zezaten orien begiak ekusi etzezaken tokiren batera. Andik denboraren buruan, arkitu ziran Josefu anaia berak estutasun ta neke guztiz arrigarriko batean. Ordu berean oroitzen dira obenbageko bere anaiari egiñikako bidegabeaz, ta ezaguturik andik zutela zuten beren neke au, erran izandu zuten umiltasun andiarekin: bai, ongi egin zaiku, bai! Neke au etorri

zaiku, guk len geren anaiari egin genion bidegabeagatik; eta artzen dute aren alde, ta beren Jaungoiko maitagarriaren izenean. Ongi: ta zer gertatzen zaie azkenean? Nekerik bage, ta atsegin gelditzea; bada barkatu zien anaia Josek, zein ere arrigarria zen, beren saltze gaisto ta gaizki guzia; ta bidaldu edo igorri zituen beren Aitagana, begitarte onez ta ondasunez beteak.

Zuk ere, gaizkiren bat egiten dezun aldioro, saltzen dezu zere Anai, Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria. Oroi zaitez bada, neketan arkitzen zaranean, aldi orietako zere saltze gaistoaz; ta ezaguturik argatik dirala orduko zure nekeak, errazu, Joseen anaien eran: Ongi irabaziak neduzkan nik, bai, daramazkidan oraingo nere nekeak! Ongi eskergabea izandu naz ni, bai, oraindañoko denboretan nere Anai Jesus maitagarriarekin! Egin diozkat nik, bai, oraindañokoan nere Jesus maitagarriari, nik neronek dakidan adiña txareri ta bidegabe! Orregatik dira oraingo nere nekeak! Izan ditezela, bada, nere zorrak ateratzeko, ta nere oben guzien alde! Zein ere andiak diran, aldi onetako nere nekeak, ez dira, ez, nere zorren diñakoak! Geiago ta geiago nekatzen banindu ere, ez ninduke nekatuko, ez, nere Jaun on maitagarriak, bear den laurdenik ere.

Jaun au onenbatekin, ta geiago bage, kontent den ezkeru, kontent naz ni ere: ta ojala kitatu banendi ni onen gutirekin, ta nere Jaun andiak, nik au jasotzeagatik, gora baleza, nigan duen bere artzeko guzien eskua! Egiñen al du, denak bezala, ta niri dagokidan baño agitz obeki! Ala gertatu oi da; bada, zorrak bar-katzean, eman oi ditu gure Jaun emalle maitagarriak bere grazia, bere laguntza, ta zeruko doaien zati andiak; eta gero, emeki ta beraren amoreakgatik nekeak eramate orri dagokan glori guzia.

Konfesio zuzenarekin batek bere zorrak atereagatik, edo bekatupetik atera ondoan, erdoiturik bezala, ta onerako nagitasunez beterik, edo zinkinkeriak dituen arrearen eran, gelditzen da bekatariaren anima. Suak, sua baldin bada bear den erakoa, kendu oi ditu urrearen zinkinkeriak; eta zeruko bideko nekeak ere kendu oi ditu animaren erdoiak, edo onerako nagitasunak; eta ori da gure Legeko nekeen bigarren ondasuna.

Bai, dio san Agustinek (*in Ps. 60.*): bai, mundua da animaren sutegia; anima da, garbitu bear den urrea; eritasunak, bearrak, eta naigabeak dira orretarako sua ta garra; ta Jaungoiko bera da zillargillea, edo su orretan anima sartzen duena.

Urrea sutegian daduka zillargilleak, urrearen zikin-keriak suz kendu artean; ta ni banago nere suan, nere gurutzepean edo nekeen artean, nere Jaungoikoak nai duela ta nere onerako nago; bada nago, Jaungoiko beraren amoreakgatik, edo aren izenean, daramadala nere neke ta naigabe guzia, oitu nadin birtutezko gauzetara, ta ken ditzadan nere animatik bekatuaren erdoiak, edo nere animak dituen onerako nagitasunak edo moteltasun gaistoak, eta geldi dedin nere anima, Portugalko urrerik garbi-ederrena baño ere agitz garbiagoa ta ederragoa; ta denbora berean geldi dedin, gauz onak egiteko guztiz, ta ongi prestatua. Eta orra, gure Jaungoikoaren izenean arturikako nekeetatik datorren irurgarren ondasuna.

Laurgarrena da, bekatu gaistoak gaitzerako dakazten griñak eta makurtasunak eskuratzea. Zaldi gazte biziak, berez, aisa, ta gaizki dabillenean, egiten ditu egin bear ez diran anitz lasterka ta salto; ta denbora berean oitzen da trotara, edo ibillera nekagarri batere; baño zigorpean, esproñekin, ta frenoz buru-aoak arturik, zaldun indartsu batek zenbait egunez badarabil, aisa dator eskura, bai; ez du bizitasunik erakusten, zaldunak artaratzen ez duenean; ta, lene-

ko trotak eta ibillera makurrak utzirik, artzen du beste leun, arin, eder guztizko bat.

Berebat gertatzen zaio eritasunez, malurrez, nairgabez, esker gaiztoz, kezka, ta nekez Jaungoikoak ezitzen duen emazteki edo gizon bekatariari. Orregatik dio Espiritu Santuak, eritasun andiak (eta orobat egin oi du edozein beste neke gogorskotek ere) eskura dakar anima; ta ez dio geroz ibiltzen utzi nai, aragi bero-indartsuak eragin oi ziozkan urratsetan, edo pausu ta bide makurretan.

Nekeak dakarten bostgarren ondasuna da animaren umiltasuna. Nekeak beldurtzen dute, neketan dabillen edozein anima, ta beartzen dute beren Jaunaren lagunza umilki billatzera; gertatzen zaio, alabaña, neketan dabillen animari, bidezko edozeini gertatu oi zaiona. Bide zabalean, edo lorezko baratze batean badabil bat, aisa dabil, ta besteren bearrik ez duela; baña oartukabean, edo berariaz sartzen bada lar artean, ta sasi gaistoetan, baldin asitzen bada aldapa gaiztoz, edo malkortegi gogorren batean, erne ibilli oi da ta beldur andiarekin; ta, al badu, eskatzen duela norbaiten laguntza ta eskua.

Ori bera da gertatu oi zaiona, zerurat, edo zerurontz dabillen edozeñ gizoni. Ondasundun arkitzen

denean gizonen bat, denbora berean arkitzen bada osasunarekin ta berak nai bezala, ez du, ez, anitz autsi oi bere burua, erne ta biziro zeruko bidean ibiltzeagatik; baña Jaungoikoak bere bidea mintzen dionean, edo nekez, gurutzez, ta kezkaz betetzen badio bere biotza, bertan ernetzen da, bere Jaunagana begiak goititzeko, ta erdisten du zuzen ta biziro eskatzen duela ango laguntza ta grazia.

Bai: dio Espiritu Santuak; naigabezko orduetan, ta nekerik geiena den denboran agertzen du gure Jaungoikoak bere guganako urrikaltasuna, bere guganako miserikordia; ta agortian odei onak urez bezala, betetzen du bere graziaz ta laguntzaz, neketan dabillen anima.

Jaungoikoaren izeneko nekeen seigarren ondasuna da etsaien kontra ziñez ta bortizki lanak eragitea. Mariñelak ekusten badute urez betetzen asirik beren ontzia, artzen dute bonba, ta badarabilte gau ta egun, ta ez dute uzten bein ere, nekez erdi-lertuak egonagatik.

Zergatik ote? Zeren dakusten, bonbaz ez ateratze-ra ol artetik sartzten zaien ur gazia, galduak dirala guziak, eta laster ondatuak beren ondasunekin, ta ontzi guziarekin, itsasoaren urpean.

Gisa berean, tentuz ingurutua dagoen animak badakusa non dabillen, ta zer eran; edo badakusa, bere tentu gaistoak ez garaitzera, ta estutzen duten bere nekeak artzen ezpaditu emeki, ta bere Jaun onaren izenean, beteko zaiola ur galgarriz, edo bekatu zikiñez, bere anima, ta azkenean ondatuko dela den guzia, sulezeko itsaso arrigarrian; ta, an ondatu nai ezpadu, egin bear du alegiña etsaien kontra, ta orientu gaistoak garaitzeko, baita nekeen gurutzea alik zuzenena erabiltzeagatik ere. Eta, ori egiten dugula, orra non nekeak eragiten diguten egin bear duguna.

Baña, nola eragiten ote digute geren lan on ori? Irabazi andiekin. Bai, dio san Agustinek (*ser. 29.*), Kristo Jaunaren gurutzea, ta guk gerok daramaguna, ondasun andiak dakazten gurutzeak dira. Bai, ondasun andiak dakazten gurutzeak; bada gure Jaunaren adiskideak, edo ongi bizi diranak, Jaun beraren izenean egin oi dituzten, gauza txiki-errazak ere balio andizko gauzak badira, diran bezala, ta sekulako glori zatiren bat irabazten dutenak, zenbat irabazizko gauzak izain dira, era bereko gauz andiak eta gaitzak?

Eta zenbat ondasun irabaziko dute bizitza guziko neke andi onak? Nork au adirazi? Orra bada zer irabazbideaden, gure Legeko nekeen bide au! Eta nork

ez du artu naiko, ikasi ezkeron nora daraman, ta zein aberatszalle ondasunduna den? Nork ez ditu pozik eramain Jesusen ondoren, onekin batean, ta sekulako pagu ta pagu, onen andiatatik, emengo nekerik gogorrenak ere?

Baña itxozu: badute oraindik ondasun geiago ere emengo gure gurutzeak, eta Jaunaren Legeko nekeak. Badakizu zer? Birtuteen aziera, ta animaren azken-apaintza.

Eskerrak zor diozkagu guk, eta esker andiak, gure Jaungoiko maitagarriari, (erraten digu Santiagok) Jaungoiko berak neketan gaduzkanean, ta gurutzez jauntziak; bada irauten badigu oriek erauntzi gabe, ta Jaun beraren izenean daramazkigula, agitz anditzen ta edertzen da gure pazientzia; ta pazientiak ongi laguntzen die birtute guziei beren bearra, ta egiteko zuzena zuzen, ta bear den eran egiten; ta, birtuteak ori egin ezkeron, egiñen gara gure Jaungoikoak nai duen erakoak, edo utsik bageko gauzak; eta geldituko gara birtutez agitz apainduak.

Orretarako egiten du gurekin gure Jaungoikoak, santugilleak arriarekin, zurarekin, urrearekin, edo zillarrarekin egin oi dutena. Egiñen badu santugilleak urrezko edo beste edozein gaiezko santuren bat, edo

Santuaren imajina, eman bear diozka gaiari, nork daki zenbat golpe; erabili bear du urrea, edo gaia batetik bestera; ta, ematen diozkan tundekin, bizia baliz gaia, kenduko lioke eun aldiz, ta agitz geiagotan ere, bere bizia.

Gai ori imajinarako baño agitz baldanagoak gara gu birtutera; ta, moldatuko bagaitu gu gure Jaungoikoak, egin bear dizkigunai ez genituken anitz gauza; ta eman bear dizkigu anitz ukaldi, edo golpe-modu ta neke: ta alere moldatu gabe geldituko gara gu, guk oriek ontzat ez artzera.

Gu birtutetsu egiñik gelditzeko ez da aski, ez, Jaungoikoaren eskutik datozen nekeak guk bein, ta berriz ontzat artzea; artu bear ko ditugu, bizi garano; ez gara alabaña gu zura ta zillarra bezalakoak; bada zur- zillarrak gelditzen dira beti, bein arturikako moldurarekin; baña gu gaitzera makurtuak gara geren aurtasunetik; eta, gure Jaungoikoak gu bein moldatuegatik, moldura berriak eta berriak bear ditugu guk, lenak ez galtzeko: ta zenbat ere geiago ditugun, anbat obeago gu, anbat santuago. Eta orra Jaungoigoaren izeneko nekeak dakarten zazpigarren ondasuna; edo orra non nekeak diran, ongi daramatziena birtuteen

edertzez, ta santutasunez beterik uzten duten gauzak.

Ekusten dezu zenbat diran, Jesusen ondoren dabiltzanak beren nekeetatik atera ditzakeen ondasunak?

Baña zuk usteko dezu neke oriek, beren ondasun guziekin ere, neke latz gogorak dirala? Uts egiten dezu zuk, uste orretan baldin bazaude. Jesusen ondotik dabiltzanen nekeak, neke ondasundunak ezezik, atsegin andiak dakazten nekeak dira; baita, beste mundurako bezala, emen bertarako ere.

Ala diote, gauz onen berria dutenak. *A! ta zein andia den (dio Dabidek) gure Jaungoiko maitagarriak, beraren beldur diran animendako gorderik daduzkan atsegin-kontentuak!*

Nere Jaunaren izeneko nere neke ta naigabe guzietan atsegin utsez bete tait, dio san Pablok, nere biotz au guzia, ta pozak eragin ere dio gañez. Era berean mintzatzan dira gauza beraren berria duten gañerakoak.

Au onela den ezkerro, den bezala, aditu orduko nik nere Jesusen itzak, edo Jesusek diona, erraten digunean: *Nai duenak etorri nere ondoren, auts beza bere gogoeta gaistoa, ar beza bere gurutzea, ta bebil ni nabillen eran, nork ez dio erran bear bere-bereala*

itzez ta biotzez, ona non nazun ni, nere Jesus maitagarria. Eraman nazazu ni, zuk zerorrek nai dezun bidez ta tokitik. Den nekezkoena izanagatik au, ez nau, ez, izutuko batere, nekeen erakoak diran ezkeru zure atsegin-kontentuak, eta, aditu dudan bezalakoak, era onetan dabillen edozeinek egiten dituen gerorako irabaziak. Ar nazazu gaurdanik ni zere aldean, nere Jesus maitagarria, ta lagun zakizkit bide guzian ekusiko ditugun pausu gogorretan. Ori diozu zuk ere, nere erako bekataria? Bai? Bada zorionekoa zu, zuk diozun guzia zuzen egitera!

*Regnum coelorum vim patitur,
et violenti rapiunt illud.*

Matth. 11. 12.

Ez dut ukatzen (dio Jesus maitagarriak) ez dut ukatzen nik, ez, nekezko lana dela zeruko bide zuzena artu duten onen ibillera, ta emendik, nere ondoren dabiltzanak dakarten gurutzea. Ez dira, alabaña, zerura nai dutenak zerurako, beren aztura ta kostunbre gaistoak galduz, gogoeta makurrak garaituz, pasione sutuak eskura ekarriz, eta anitz gauz on beren buruei

eragiñez zuzen dabiltzanak baizik, eta era onetan beti bat emen ibiltzea, edo era onetako ibillera batek eskatzen dituen gauzak egitea, nekezko lana ta gurutze gogorra da, dakusazun bezala. Baña era orretan nekatzen diranak, eta nere Legeko bide onean irauten dutenak dira zorioneko nere umeak, eta nik nere alde-
ra, denbora datorren orduko, artuko ditudan umeak. Ongi nekatzen diran nere umeak, ez dute bide onetan deus galduko, ez, nere izeneko beren neke guziakgatik ere. Beren lan-nekeen alde emain diet nik, bai, dezakedanak bezala, mundu guziak baño geiago balio duen gauza ta irabazia; bada emain diet, eternidade guzian irauteko dagoen zeru nereko Erreinua.

Au eman naiez, bada, (dio Jesus maitagarriak), au eman naiez deitzen zaituztek nik nere zeruko bide nekagarrira, ta zeren gurutzepera, edo zeren Legeko gauzak zuzen egitera. Eta alaere ez dezue zuek nere ondoren ibilli nai? Zuen zenzugabeak! Zuen eroegiak!

Orie; dio oraindik gure Jesus maitagarriak: orie; nere bide onetako nekeak izutzen bazaituzte zuek, edo nekez, kezkaz, ta illuntasunez beteak bizi bearko dezutela baderitzazue zuek, nere Legeko lanetan edo egitekoetan sartu ezkeru, ez denak izutzen zaituzte: artu zazue zeren gain zeren egiteko au, ta ekusiko

dezue; ta noiz, edo noiz, zeren biotzak illuntzen bazaizkitzue, atozte nigana, ordurik galtzen ez dezutela; ager zazue, gertatzen zaitzuen; eska zazue nere laguntza ta grazia, ta izain dezue bear dezentena, ta geldituko zarazte arintasunez ta pozez beteak: *Venite ad me omnes, qui laboratis et onerati estis, et ego reficiam vos. Ibid. v. 28.* Ongi da bada, gure Jesus maitagarria; ongi da; ta, ori orrela den ezker, zukanako gara gu, ta pozik alere. Iguzu zerorrek orretarako ere bear dugun zure laguntz ori, ta zure grazia. Bai arren, bai!

*Iugum enim meum suave est,
et onus meum leve.*

Matth. 21. 30.

Siñes nazazue, bai, dio Jesus maitagarriak; siñis nazazue, biotz beratx umill manso ongille batekin arkitzen nazan Jaungoiko-gizona naz ni, ta zuzena, ona, ta bear bezalakoa ez den biderik ezin ar dezakedan Jaungoiko-gizona. Nik, nere ondoren dabiltzanak neketan ta penaz beteak ekusi ezker, ez dakit egoten oriei erakutsi bage ibillerarik errazena; ez eta

lagundu gabe ere beren gurutze-nekeak eta kezkek eramaten. Orregatik, era orretan, edo nere ondoren dabiltzanen gurutzea, biren artean dakargun gurutzea ta uztarria da; ta uztarri ta gurutze, gogo onez ta nere izenean artzen dutenentzat guztiz leun-ariña, ta guztiz ondragarria; ekusten dezu, alabaña, nerekin dabillela era orretan dabillena, ta anitz bere ondorekin dabillela nerekin dabillen edozein, nolainai au orduan ibilliagatik.

Au onela den ezkerro, den bezala, nere Jesus maitagarria, ero-eroegia nintzake ni, bertatik nik ez artzera zuk erakusten didazun nekezko zure bide au, ta nik pozik, edo beintzat gogo osoz, ez eramatera bide onetako nekeen gurutzea ta zure Legeak eskatzen dituen gauza guziak, izan ditezela oriek berez, edo latzak, edo gogorrak, edo edozein erakoak. Lenago ni nere lan onetan, bear zen eran ez asiaz dut orain damu ta pena; ta ziñez alere. Indazu zuk zerrorrek, nere Jesus maitagarria, damu au galdu gabe, ta oraingo nere asmo on onetan irauten dudala, nere egunak bukatze-ko grazia. Bai arren, bai!

*Id, quod in praesenti est momentaneum
et leve tribulationis... aeternum gloriae
pondus operatur in nobis.*

2. Cor. 4. 17.

Ez da zer izutu, dio san Pablok, emengo geren nekeakgatik. Emengo gure neke gogor ta gurutze guziak, gurutze ta neke laburrak dira; bada, geienaz ere, gure bizitzak adiña, ez geiago, iraunen dutenak dira. Eta zer da, geien-geiena irauten duenaren bizitza ere? goizean agertzen den, ta arratserako igarturik arkitzen dugun lorearen erakoa. Orra bada norañokoa ak diran gure nekerik andienak ere!

Eta norañokoa ote da, neke oriek dakarten ondatsuna? Eternidade guzi-guzirakoa: beti, ta beti iraunen duen zeruko Gloria.

Glori au zuri emateko dago zure Jaungoikoa, Jaungoikoaren izenean zuk emen artzera emengo zere neke zati guziak, edo zati oriek emen egiten dizuten zere gurutzea.

Ez ote zara bada bertatik au artzera saiatuko? Mariñelez ta merkatariz betetzen dira beti, batetik bestera dabiltzan ontziak, naiz atera ditezela urteoro amar millataraño.

Mariñelak izaten dituzte, beren ontzietan dabil-tzan denboran, gau ta egun agitz illunak; eta, orieta-tik anitzek beintzat, itsasoan izan oi dute beren bukaera, zeren itotzen diran beren ontziarekin, edo zeren garbitzen dituen onzi berean beren erioak edo eritasunak.- Baña zergatik ote dira mariñel-merkate-rien orrenbat perell-neke ta gal-bide?- Ogi zati bat ira-bazi naiez, eta zuk, irabaz dezakezula, ta orrenbat neke ta laurdenik ere gabe, eternidade guzi-guziko atsegin-kontentua, ta zere Jaungoikoaren zeruko glo-ria, geldirik egon naiko dezu, ta nekatzen etzarala zere Jaunaren gauzetan?

Soldadu gaisoak ez dute begiratzen, nora darama-tzien beren manatzalleak, naiz eraman ditzala milla ta milla tiroren artera; ta, igesiari ez emateagatik, utziko dituzte beren buruak etsaien atzaparretan, edo galdi-tuko dira an bertan erdi-lertuak, illotzak, edo besorik bage.

Zergatik au onela? Soñeko zuri-tzar, urdin, edo ori bategatik, eta gosez iltzeko beldurrez bezala.

Eta eternidadeko gose-egarritik iges egiteko, ta sekulako atsegin-kontentu guziak irabazteagatik, era-main ez dituzu zuk, zere Jaungoikoak laguntzen dizu-

la, aisa ta emeki eraman ditezkeen bizitza labur bateko zenbait neke ta gurutze?

Nekatzen da langille gaisoa goizetik arratseraño. Gaur egiten du lan bat, bigar bestea; ta biak ongi nekagarriak. Maneatzen du, artarako garaia datorrenean, bere lur gogorra; betetzen du au, aren bearrez dagoenean, galziñez edo karez; ta gañerakoan al duen ongarri guziarekin. Era onetan bere lurra prestatu ondoan, egiten ditu langille berak bere erreintzak, bere jorrak, eta bere gañerako lanak.

Au guzia zertako? Gari zati bat, edo zenbait ale bildu naiez; ta askotan, ereiñ zuenik ere biltzen ez duela.

Eta, laurdenik kostatu gabe, egin ditzakezula zuk, urtearen buruan ezezik, egunoro ere biltze arrigarriak, eta langille guzien gariak, eta Indietako bazterretan arkitzen diran ondasunak baño geiago balio duten irabaziak, sartu naiko ez dezu zuk zere egiteko orretan, jakiñik ere, dakizun bezala, nor dagoen zuri laguntzeko, edo Jesusek lagundu nai dizula, ori guzia bear den eran zuk bukatu artean?

Baldin bazeneki zuk, ez dizula manatuko lurreko erregek ezin dagikezunik; lagunduko dikezula, zu bein erregeren gauzetan asi ezkeru, baita asitzen ere; ta

zuk aren gauz oriek egin orduko eman likezula errege berak, ezin asm-al adiñako pagua edo ondasuna, etziñake zu bertan, ta pozik alere, erregeren gauzak egiten abiatuko?

Badakizu zuk au guzia zere Jesus maitagarriagandik; eta alere ez dezu zuk artu nai Jesusek ematen dizun zere gurutzea, edo Jesusen izeneko zerbait neke ta kezka; ez eta (Jesusi orretan atsegin egiten diozula) eternidadeko ondasunak irabazteagatik ere? Ongi nonbait liluratua zaduzkate lurreko zere erakeriak eta gauza txarrak!

Idiki izkitzu orain badere zere begiak, eta artu zazu lenago au ez egiñaz, ta orregatik egin dituzun uts arrigarrien damu ziñezko bat; eta, berriz bat ez egiteko asmoarekin, errazu itzez ta biotzez: *Nere Jesukristo, etc.*

XXXVI.garren OTOITZ-GAIA

GURE LEGEKO NEKEAK BEAR BEZALA

DARAMAZTENEN DOATASUNAK

Bidez dabiltzan gizonak, ez dabilta guziak era batean. Batzuek, besteak baño ariñago dabilta, ta kezka ta naigabe gutiagorekin: ta neke ta naigabe gutiago dutenak, eta ariñago dabiltzan gizonak dira, bidezkorik onenak.

Berebat gertatzen zaie gure Legez dabiltzanei. Orietatik batzuek arin, ta aisa dabilta edo erraz aski daramazte gure Legeko neke guziak; baño ez dira geienak, ez, orren aisa dabiltzanak; geienak dira Lege bereko bidean anitz aldiz beintzat beatztopaka, edo erorka, ta bekatz bezatu dabiltzanak; eta noizbait oriek pekatura bage ibilliagatik, illunsko dabilta. Zeruko eztitasunik bage dabilta, ta txikietatik zenbat uts (eta maizkote alere) egiten dituztela dabilta.

Era onetan dabiltzanak ez dute, ez, ateratzen lenagoak adiña ondasun ta irabazte beren Legeko nekeetatik; eta ez dira, ez, ongi dabiltzanean ere, oriek bezain zorionekoak eta doatsuak; oriek dira alabaña lenbizikorik, eta barrenena sartu oi diranak,

Mendiko bere predikuan Jesus maitagarriak berezi zituen doatsuen artean.

Badakizu zuk zein ote diran, zorioneko doatsu oriek? Baldin ezpadakizu, orain ikasiko dezu Jesus maitagarri beragandik. Zorionekoak, dio Jesus maitagarriak, gogoz beartsu bizi diranak: Zorioneko doatsuak, manso asaldatzen ez diranak: Zorionekoak, bear den erako negartiak: Zorionekoak, zuzentasunaren edo Justiziaren gos-egarri diranak: Zorionekoak, bearrean daudenez urrikaltzen diranak: Zorionekoak, biotz garbiak dituztenak: Zorionekoak, bakean bizi diranak: eta Zorionekoak beren bizitza zuzen onagatik, neketan bizi diranak.

Orra zein diran zorioneko doatsu, beren Legeko nekeak bear den eran daramaztela, ondasun anitz zerurako biltzen dituztenak. Orietatik bat izan zaitezzen zu ere, baldin ezpazara oraindaño koan, ekusi bear dezu aztiz ta kontuz, Zorioneko doatsu bakoitzak egiten duena; edo ekusi bear dezu, ori oriei eragiteko, Jesus maitagarriak egin izandu zuena.

A.

LENBIZIKO DOATASUNA:

JAUNAREN AMOREZKO BEARRA

*Beati pauperis spiritu, quoniam
ipsorum et regnum coelorum.*

Matth. 5.3.

Doatsuak, eta zorionekoak dira gogozko beartsuak; bada oriena da zeruko gloria

Zein ote dira Jesusen ondoren dabiltzan zorioneko beartsu oriek? Ezer ez duten errumesak? Eskean dabiltzan beartsuak? Gaizki jauntziak arkitzen diranak? Eta jan-edan txarrak egin oi dituztenak?

Ez beintzat guziak.

Zein bada?

Beren bearra, ta gabe guzia Jaungoiko maitagarriaren izenean emeki daramatenak. Zorioneko doatsuak dira aberasteko naikunderik ez dutenak, bide gaistoz beintzat, eta zillegi ez diran irabaziekin: ta, ezagutu ezkeru, beren onerako ez dagozkiela lurreko ondasunak, ondasun gabe ta beartsu bizi nai dutenak; eta nai dutenak au, beren Jaurgoikoari atsegin egitea-gatik, eta zeruan sartu naiez.

Onela beartsu diranak gogozko beartsuak dira, Jesus beartsuaren ondoren dabiltzan zorioneko beartsuak dira: zerua irabazten duten beartsuak dira; ta beartsu doatsuak, eta zorioneko Jesusen umeak. Ala dio san Bernardok: *Non paupertas virtus, sed paupertatis amor.*

Zorioneko beartsu orietatik ote zara zu ere? Zere gabearekin, zere bearrarekin ongi arkitzen ote zara zu, bear ori, ta izan oi dezun gabea zuri zere Jaungoikoak bidaltzen dizkitzun aldietan? Zure Jaungoikoak betiko zuri emanagatik bear au edo besteren bat, artuko ote zenuke zuk, bere eskuan apa ta muñ zere Jaungoiko, orien emalleari, egiten zeniola? Ala bada, Jesusen ondoren dabiltzan zorioneko doatsu beartsuetatik zara zu; ta zuk orretan irautera, zurea da era orretako beartsuendako Jaungoikoak dadukan betiko atsegin-kontentua, ta zeruko gloria.

Baña bear utsetan, gabez beterik, eta arrastan bezala biziagatik zu, bizi zaraño, ala arkitzen zaran denboran atsekabetan bezala bazabiltza zu, gogoaren bortxan bazabiltza, edo, baldin bazabiltza zu, zere Jaungoikoaz oroitu ere gabe edo Jaungoikoaren ize-nean artzen ez dituzula zuk zere neke-gurutzeak, bortxazko beartsua zara zu, ez zorionekoa.

Begirozu bada: guztiz gaizki zabilta, orrela baza-bilta; ta, nekatzen zaran ezkeru, neka zaitez, arren, zere onerako, ta zorioneko beartsuen doatasunak erdisten dituzula; ta, zere Jaungoikoaren izenean zere neke ta naigabe guziak artuz, zeruko atsegin-kontentu andiak irabazten dituzula. Era orretan nekatzen dira, munduan zituzten gauzak edo gauzen usteak aldebat utzirik, munduz kanpoan, edo Relijioren batean, bear den eran bizi diranak. Oriek dira gogozko beartsu guztiz doatsuak, eta zeruko bidean Jesusen ondoren arin dabilzanak.

1. Ala da, diuzu. Baña ondasundunak? Aberatsak? bear den guziarekin, ta bear dutena baño geiago ta geiagorekin arkitzen diranak? Badabilzke oriek ere Jesusen ondoren, ta gogozko beartsu-doatsuen artean?- Nai badute, bai; ta arin alere.

Nola bada?- Prestatuz batzuetan dituzten ondasu-netatik, eskatzen dieztenei; ta, bear denean, eman ez gabeari onen bearrak eta premiak ori eskatzen denean; ta gañerakoan egiten dutela, dutenarekin, egin bear duten gastua ta egitekoa, bai, baña ez besterik; eta, beren ondasun guzien artean arkitzen dirala, ondasun bat ezpalute bezain biotz garbi soseguzkoe-

kin; ta Jaunak ala nai duela, duten guzia, edo guzitik edozein zati, uzteko asmoan.

Baña erraz ote da ondasundunak gauz au egitea? Ezetz, dio Jesus maitagarriak; bada dio: Ai aberatsak! Emen dituzue zuek zeren atsegiñak, zeren Jaunagandik urruntzen zaituztenak, eta atsegin, zeruko atsegin garbi ederren galgarriak!

Zergatik ote, Jesus maitagarria?– Nik errain dizut ori, Jesusen orde. Aisa bizitzen dira lurreko ondasundun aberatsak. Izaten dituzten diru, ta dituzten ondasunekin erraz arkitzen dituzte lurreko aberatsak, beren sabelak betetzeko, beren gogo gaistoak asperetzeko, ta, berak nai dituzken gauza guziak egiteko, bideak eta era makurrak.

Aurdanik aberatsak geiegi oitzen dira ibillera guztiz eme batera, edo beren soñeko gauzetan; beren oñekoetan, beren jan-edanetan, lotaratzen diranean, ta gañerako beren gauza guzietan, beren buruei atsegin ta gusto egitera.

Ordutik aberatsak, eta gerozko denboretan ere beren ezpañetara begira-begira daduzkee etxeko guziak ezezik, beren errietako ta bazterretako bearitsuak, edo gabe arkitzen diranak ere; ta, zernai aberatsak oriei adirazi orduko, edo oriek guziak, edo guzie-

tatik zenbait beintzat, prestegi arkitzen dira, aberatsak adirazten diena bertan egiteko. Eta, oriek ala ori au ez egitera, an dira, bai, ta batere luzatu gabe, aberatsen eskanbillak, aberatsen errietak, aberatsen ordu gaistoak, eta meatxuak; baita, zenbait aldiz beintzat, aberatsen eskukak ere: ta alere muker gelditzen dira aberats galduak; eta denbora luzeetan beren begietara begiratu ere ezin dakikeen eran.

Atzo baño gaur, edo egunoro arkitzen dira gogorago egiñak aberats galduak. Berak baño geiagorik ekusi nai ez dute Lurreko ondasundun aberatsak. Berena gora, berena bera dabilta beti aberats berak. Berenarekin atera naiez dabiltzan aldietan aberatsak, au ez galtzeagatik, galdu oi dituzte beren animak eta beren Jaungoiko maitagarria.

Aberats beren muker-erak eta, aserraldiak, aseraldi-muker luzeak dira. Onra ta antustea dira aberatsen biotzak geienik erretzen dituzten ikatz eta egur sutuak edo irazakiak.

Galdurik utzi dituzten neskatx eroen edo emakume gaisoen negarrekin; berena orien eskuetatik ezin atera duten beartsuen kezkarrekin, ta beren egia ezin adirazi dutenen atsekabearekin asetzen dira, nekatzten ez diran alfer aberatsak.

Era bereko aberatsak dira, gauz onak egitez, aditzez, ta ekustez lenen-lenenik aspertzen diranak, eta gauza berez, ez bein, irri ere egiten dutenak.

Oriek berak dira, urte anitzez, edo denbora luzee-tan golderik, aitzurrik, eta laiaren edo arearen ortz bat ekusi ez duten alorrak, edo zelaiak bezala; bada lur oriek osiñez, belar gaistoz, larrez, sasiz, ta arantzez betetzen diran bezala, bete oi dira bekatuz, mukerta-sunez, ta aztura gaistoz aberats alferrak.

Alor galduetan sartu oi dira zezenak, sartu oi dira ganadu beltzak, baita oriek bezain ortz gaistoak dituz-ten beste zenbait ere, ta aberats alferren gogo zaba-letan ere sartu oi dira oroitzapen lizunak, naikunde loiak, arrotasun eroak, eta bendekurako suak; eta oriek egiten dute aberatsen barrenetan, esirik bageko alor ereñietan ganadu gaistoak egin oi dutena; bada galdu oi dituzte ganadu galgarriak alorretako maizak, ogiak, sagarrak, arbiak, illarrak, edo, orien ordeez, an arkitzen diran era edozeinetako gauzak; eta berebat egiten dute aberatsen animetako frut-on, leneko merezimentu, ta irabazigai berri guziekin, aberats beren barreneratzen diran tentu, tirrikazio, sugar, ta etsai gaistoak.

Bai, dio san Pablok, bai, ondasunen zale diranak, izan oi diran bezala aberats-alferrak, beren etsai isteri galgarriaren lakiora doaz, ta etsai beraren esku indartsuetara, kate gogorretara, ta presondegi beltz illun madarikatura. A, ta zein guti-guti diran, dio san Bernardok, Apostoluak agertzen digun lazo, edo lakio galgarri au, urratzen duten aberatsak!

Zer aberats ote dira, ondasunen bazka duen lakio madarikatu au urratzen duten, edo artara urbiltzen ez diran zorioneko aberatsak?

Oriek dira, ondasunen artean biziagatik, zuzen, ongi, ta garbiro bizi diranak. Oriek dira ongi aziak, obeki eziak, eta beren Jaun onaren gauzak bear den aduintzan, bear den eran, ta guztiz kontuz egiten dituzten aberatsak. Oriek dira, nori berea bere denboran ematen diotenak. Oriek dira eliza gizonei, ta gañerako artan dabiltzan guziei, gauzak zuzentzen laguntzeko, noiznai ta beti prest arkizen diranak. Oriek dira, egiten zaizten bidegabeei begiratzen ere ez dienak; eta orien Jaungoikoak ala nai izatera, dituzten ondasunak utziko lituzkenak, eta edozein gauza Jaungoiko beragatik egiñen lukeenak.

Era onetako aberatsak dira, ondasunezko lakio galgarrietan erortzen ez diran aberatsak; bada, izatez

ta ondasunez ongi diranak izan arren, naiez ta gogoz beartsu utsen eran dira; ta orregatik dira zerua irabazten duten gogozko beartsuak, eta Jesusen ondoren dabiltzan gabe doatsu zorionekoak.

2. Ekus dezagun orain nola ibilli izandu ote zen gure Jesus maitagarria, gogozko beartsu ondasundunei, ta gañerako guziei, zorioneko beartasun onetarako bidea agertu zienean.

Ibilli zen Jesus (baldin ezpadakizu) munduan izandu den beartsurik beartsuena baño agitz bearrago; ta ala ibilli zen, berak berariaz arturikako beartasunarekin: bazituken alabaña Jesus maitagarriak, nai izatera, nai adiña ondasun ta gauza; ta guziak utzirik artu izandu zituen, artu zitzaken txarrenak eta beartasunez beteak; bada artu zituen, dakigun bezala, Amaberats baten lekuan, Ama guztiz beartsu bat. Eta era berekoak izandu ziran Jesusen etxea, Jesusen jaitegia, ta Jesusek, jaioberrian, artu izandu zituen gauza guziak.

Jesusek bere gaztetasunean, ta ogeita amar urte-tarañoko denboran jan-edan izandu zuen bere eskuz, bere nekez, ta izerdiz irabazten zuena. Predikatzen ibilli zen gerozko irur urteetan, artu oi zuen ongi naiez

ematen ziotena; ta gañerakoan garagar-ogia zen Jesusen janaria.

Denbora onetan etzuen Jesus maitagarriak nora bildu lo egitera; ta, txoriak eta aiseriak ere baño gutiago zuela, bizitu zen Jesus munduko bere denboran: ta, gurutze batean josirik utzi zutenean judu gogorak, etzioten soñeko pits bat ere utzi gure Jesus maitagarriari. Eta ori zen Jesus maitagarriak beretzat beti nai izandu zuena; bada bere naiez ta gogoz lendabizitik utziak zeduzkan Jesusek, bere soñekoak ezezik, munduan arkitzen ziran, ta Jaungoiko berak zegizkeen gañerako gauza guziak ere; ta, bearrez artu izandu zituen txarrak ere, artu zituen ezinbestez, ta bidena-bar guri erakusteagatik nola artu guk, artu bear ditugun geren bearrak, gabeak, eta premiak.

Orain badakit nik, bai, nere Jesus maitagarria, nola dabiltzan zure ondoren dabiltzan beartsu doatsuak, naiz aberatsak izan, ta naiz ondasungabeak. Guziak dabilta alabaña, zuri begira, ta gogoz beintzat, uzten dituztela zure Legeko bidea galerazten duten lurreko gauzak. Ez dute nai oriek bein ere, zurekin ibiltzeko, ongi dagokiena, ta zuk zerorrek nai dezuna, bai, ta besterik bat ere: ta dituzten ondasunak edo gauza txarrak dituzte, zuk nai dezuna zuzen egiteko.

Orretaratzen diran Lurreko guziak, munduan naiz bearsu utsak izan, naiz aberatsak, doatsuak dira, ta zorionekoak: bada berekin dute san Pablok dionaz, beren Jaunaren Erreinua edo zuzentasuna, bakea, ta Espiritu Santuaren atsegin garbia; baita zeruko gloria-ren ustea ta eskua ere, edo arako deretxa.

Ez ote naz saiatuko ni ere, au guzia dakidan ezke-ro, zorioneko doatsu oriekin batean zure ondoren ibil-tzera, nere Jesus maitagarria? Nere gogoan, orainda-ño denboran bezain sartuak egon bear ote dute, zure Legeak debekatzen dituen atsegin loiak, emengo ira-bazi txarrak, eta gañerako lurrean arkitzen diran gauza galgarriak?

Ez arren, Jesus maitagarria, ez! Ustu nai dut nik (eta bertatik alaere) nere biotz txar au, era orretako ezer-ez, edo gauza galgarri guzietatik, zure amorez dena gero beterik uzteko. Ori da, bai, orain ta beti niri dagokidana.

Emengo gauza txar guziak emen aitu bearrak dira, ta lenik nik oriek, nere gogotik ez uztera, ustelduko didate nere biotz au, ta galduko naute sekula guzira-ko.

Bidoaz bada, ta bidoaz lenbaitlen, nai duten leku-ra. Ez diet nik, ez gaurgnero nere gogoan tokikirik

eman-uste. Zuk izan bear dezu, bai, gaurogero, zuk, ez bestek, nere Jesus maitagarria, nere biotz onen, ta nere nai guziaren Jaun ta jabe uts bakar-bakarra. Zu bazaitut nik, bizi nazaño, etzait ezer, ez, mundu guziko bearra ta gabe guzia nere gain edozein orduz etorriagatik.

Zuk laguntzen didazula, (ta lagunduko didazu, nik ziñez zuri eskatu ezker), pozik eramain dut nik, ori guzia, baita geiago ta geiago baliz ere; ta, zenbat ere gogozago ori nik daramadan, anbat doatsuagoa ni, anbat zorionekoa ni; ta egunen batean atsegin-kontentu geiagoz betea! Indazu bada, indazu zuk, nere Jesus maitagarria, onenbat doatasunerako bear dudan gabea, bidea, ta zure laguntza: Bai, arren, bai!

*Pauper sum ego, et in laboribus
á juventute mea etc.*

Ps. 87. 16.

Beartsu bizi naz ni, dakizun bezala (erraten dio gaur Jesus maitari onak bere Aita maitagarriari; ta erraten dio, guri erakutsi naiez nola itz egin guk Aita berari, beartsu gu, ta gabe arkitzen garan aldietan):

beartsu bizi naz ni, nere Aita maitagarria, ta nekepe gogorretan, jaio nintzan ezkeru.

Jaungoiko-gizona naz ni, dakizun bezala, ta, guztiz zuk maite nazun, zure Seme lenbiziko bakarra; ta alere ona non arkitzen nazan ni nekez ta bearrez ongi urratu-makurtua, ta erdi-auts egiña.

Ezpaneki nik, dakidan bezain ongi, zein maite nazun zuk ni; ta nik ezpaneki nor zaran zu, usteko nuke nik, begitan arturik nadukazula zuk, eta arkitzen zarala zu niganako iraz ta suz betea, ta asmatzen bide zaudela zu, nondik obeki ta gogorkiango galdu dezakezun nere bizitza.

Baña badakit, bai, Aita maitagarria, badakit, nondik datorren au guzia, edo badakit guzia datorkidala, niri didazun zere ongi naietik; eta orregatik artzen dut nik ere zure izenean, zuri atsegin egiteagatik, nai oso arekin ta guztiz emeki; ta berebat egiñen nuke, gaurdanik asi, ta nere azken-orduraño, dena baño andi-agoa ta andiagoa baliz ere zuk ematen didazun nekezko, ta bearrezko nere gurutze au.

Orra Jesusek, Dabiden ezpañez aldi onetan erraten edo adirazten duena; ta orra zuk ere zere nekebearretan zere Jaungoikoari erran dezokezuna. Zuk ori ziñez zere Jaungoikoari erraten badiozu, segurki mai-

tatuko zaitu zu zere Jaungoiko berak; eta maitatuko zaitu, zuk ez uste adiña; lagunduko dizu bidenabar indar andiarekin, ta zu bertatik izain zara Jesus maitagarriaren zorioneko lagun beartsu doatsu bat. Ala gerta dedilla; bai arren bai!

*Dominus dedit, Dominus abstulit;
sicut Domino placuit, ita factum est:
sit nomem Domini benedictum.*

Iob. 1. 20.

Gogoz batek, eta bere Jaunaren izenean daraman beartasuna da, san Ambrosiok dionaz, birtute guziena ama ta sustraia, *parens, generatioque virtutum*, Baze-nekien au zuk, beartsu gaisoa, nekepean ta izerdia zeriozula bizi ziñanean, ta alere zere burua, ta zere gain zenituenak sustentatzeko diña, ezin bilduz zenbiltzanean? Au zuk jakitera, eta artara zu oartu izandu baziña, egiñen etzenituen, ez, egin dituzun utsak; eta nekatu ondoan zu, billatzen zenuen gauza gabe, ta beartsu arkitzen ziñanean, egiñen zenuen zuk Job Santuak egin oi zuena.

Ondradun aberats andi bat izandu zen bere denboran Job, gizon santua; baña, gutien uste zuenean, gabe gelditu zen, ta edozein beartsu bezain beartsu. Asaldatu zen orregatik Job Santua?- Batere. Betazal bat zimurtu gabe, ta belaunikaturik, agur andi bat bere Jaunari egiten ziola, erran izandu zuen (zer uste dezu?): len Jaungoikoak emanak ziran, orain Jaungoiko berak kendu dizkidan nere ume ta ondasun guziak! Zezakenak bezala, egin du gaur nerekin egin izandu duena; ta egin du gogo zuena, bai, baña denbora berean niri orain ongien dagokidana: bedeika dakiola bada bere izena, nerekin egin duenagatik!

Orra Job Santuak, zituen gauza guziak galduak ekustean, erran izandu zuena: ta orra, zorioneko beartsu guziak, era bereko aldietan, gogoz bada ere, esan bear dutena.

Errazu bada zuk ere, beartsu bekataria; edo, bearrak eta gabeak estutzen zaituztenetan, oroi zaitetz zu ere Job onak, bere estutasun edo nekaldi arrigarrian egin izandu zuenaz; ta, ezaguturik, ala Jaungoikoak naiez datozkitzula zere gabe-bearrak eta neke guziak, eta orien artean zu arkitzen zaranean, zure Jaungoikoak zugandik nai duena dela, zuk oriek Jaungoiko bera-

gatik, eta Jesusek zure onerako eraman zituen alde artzea: artu izkitzu era orretan, ta alik emekiena.

Ordu orietan ori zuk zuzen egitera, egiten dezu ederki len Job onak egin izandu zuena, zere Jesus maigarriaren ondotik zabilta, ta bearti doatsu onetatik zara, ta zorionean jaioa. Zere Jaungoiko maiteak dizula, era orretan zuk zere neke-modu guziak eramateko bear dezun beraren laguntza ta grazia: bai arren, bai!

*Facilius est, camelum foramem acus transire,
quam divitem entrare in regnum coelorum.*

Matt. 19. 14.

Gaitz da, ta guztiz gaitz, dio Kristo Jaunak, gizon aberats, edo aisa bizi den bat, zeruko Erreinu andi eder onean sartzea, ta gamelu bat jost-orrazaren begi, edo zirritu txikitik igarotzea bezain gaitz, edo gaitzago.

Gamelua, eun milla zatitan zeetu, urratu, edo zatikatu ta baizik, ezin sar diteke orrazaren begi txar txikian; ta gizon ondasundun aberatsak, zeruan sartuko bada, eman bearko ditu dituen gauzak, Jaungoiko maiteak nai duen gauzetarako, edo zatika, edo nole-

rebait; edo Jaungoiko berak ori argandik nai ez due-
nean, bizi beariko du, deus ezpalu bezain garbiro,
umill, ta mear. Ala ez izatera, arrotuko da den guzia;
lodituko da arazoz, obenez, ta zikinkeriz; ta ezin sar-
tuko da zeruko ate mear, garbi estu-estutik; eroriko
da sulezeko putzu arrigarrian, ta an erreko da Jaungoi-
koa Jaungoiko den artean, edo eternidade guzi-
guzian.

Erretze zorigaistokoa era onetako ondasundun
gaistoaren erretzea! Zorigaistoko ibillera, bide maku-
rrez ondasunen billan dabillenaren ibillera!

Ibilli ote naz ni ere noiz edo noiz, era onetako
pauzu, ta urrats galdu-galgarrietan? Eragin ote didate
niri ere, nik neronek nituen gauzak, egin bear ez
nuken lanen bat edo beste? Ongi oartzen banaz, eku-
siko dut dena, den bezala.

Eta ondasun-zaleak erortegi limuri gaistoetan bal-
din badabiltza, edo tentazioz tentazio, ta lakioz lakio,
san Pablok dionaz, ta lenago ere guk aditu dugun
bezala, ondasundun aberatsak non ibilliko dira? Ekus-
ten dezu.

Gal ez gaitezen bada gu ere geren bideetan, gaur-
gero ibilli beariko dugu guk kontuz, edo ongi oartuak,
eta guztiz emeki: utzi beariko ditugu gogoz badere,

bear ez ditugun lurreko gauzak, eta gauz oriek eragin oi dituzten obenak edo kulpak. Lenago ori ez eginaz; ta, orren lekuan eginikako nere oben-kulpez, dut damu ta urriki, ta orain, berriz alakorik ez egiteko asmoan, itzez ta biotzez erratera noa: *Nere Jesukristo, etc.*

XXXVII.garren OTOITZ-GAIA

BIGARREN DOATASUNA:

MANSOTASUN UMILLA

Beati mites, quoniam ipsi possidebunt terram.

Ibid. c. 4.

**Doatsuak, eta zorionekoak
asaldatzen ez diran mansoak:
oriek dira alabaña
lurraren jaunak eta jabeak**

1. Bigarren doatasun au guti galerazteko, ta Jesu-sen ondoren ez gabiltzan gu, bizi garaño, gogortzen digu geren etsaiak, eta astuntzen digu al duen eran, ta bere indar-modu guziarekin, gure Legeko nekeak ezartzen diguten geren gurutzea. Billatzen ditu, bere lan gaisto au lasterrago eragin naiez, al dituen tentatzaileak; eta, oriekin bera bat egiñik, ematen digu, nork daki zenbait aldetatik sua ta gerra; ta zenbaiten itzez batzuetan, bertzeetan beste zenbaiten txarkiz, ta, al duen guzian al duen eran, asaldatzen gaitu galgarri gaistoak, bein gañez eragiteagatik gure animako

emetasunari edo pazienziari, gero guk ar ditzagun, uzteko obeak diran lurreko asmoak; zenbait aldiz guri idarokitzeagatik, bear ez diran itzak edo jolasak; eta beti, eragiteagatik, nork daki zenbat txarkeri ta lan gaisto, oben, ta kulpa.

Baña eragiten ote digu etsai madarikatuak bere tentaldi onekin berak nai duena?- Askotan beintzat, bai; ta gure malur andiarekin alere! bada anitz dira aldi orietan itzez, asmoz, edo nolerebait asaldatzen diranak, eta etsai gaistoak nai duena egiten dutenak.

Eta ez ote naz ni ere orietatik bat? Nai ez nuken gauzaren bat aditu, edo ekusi orduko, ez ote naz asaldatzen ni noiz edo noiz? Ez ote naz ni aldi orietan zerbait erretzen? Ez ote ditut nik asmatzen noizbait zenbait gogoetan lizun, naikunde makur, ta desir gaisto?

Ez ote zait, zenbait aldartez, eskergabeko eran berotzen niri nere mii galdu au, al ditudan txarkeriak, edo al ditudanetatik zenbait badere norbaiti, edo maldizioren batzuek, eta marmariak egiteko?

Kontent gelditu ote naz ni onenbatekin, edo zenbait gogorazio uts, edo itzketa txarrekin? Ez ote diot nik nere etsai galgarriaren tentaldi gaistoetan gaizkirik egin izandu oni, ari, edo besteren bati? Ez ote diot nik ukatu izandu niori eskatzen zidan gauza, edo zor

nion agur ta itz egite gure Legekoa? Ez ote dut nik au, edo ura, auzitan sarrerazi bendekuz, eta zerbait bade-re gasterazteagatik?

Eta zer ote da au guzia?– Zer, baizik Jesusen ondoren dabiltzan doatsu mansoen bidetik atera ondoan, aldebat aurtikitzea nik, edo botatzea nere Legeko gurutze ona, ta nere etsai galgarri gaistoak nai dituzten gauzak egitea?– Zer, baizik, Kain gogor ta Lamek bendekari gaistoen lagun egiñik, ni geroztik gelditzea; oriekin len egin izandu zuena, dagien egunen batez nerekin ere nere Jaungoiko zuzenak, eta, orien eran, gal nazan ni ere beti ta betirako? Ori da, alabaña, ni bezalako doakabeen ibillerari dagokan bukaera!

2. Onen bukaera gaistotik gu, ta munduko beste guziak atera naiez, deitzen digu guri gure Jesus maitagarriak, doakunde garbia dakarren, bere ume umill mansoen bidera; ta, bide onetan, gure Maisu egiñik, erakusten digu guk geren etsaiaren, ta lagun gaistoen tentaldietan egin bear duguna.

Zer erakuste ote da, gure Jesusen erakuste onen eder ondasundun au? Au da baketan gu, ta elkar ones-ten dugula, emen emeki bizitzea. Ala bizitu zen Jesus maitagarria, jaio zen egunetik ill arteko bere denbora guzian.

Bere tentatzalleak eta etsai gaistoak gutitan utzi zioten geldirik, eta baketan, gure Jesus maitagarriari; baña orien ibillerak, orien arazo, ta tentu guziak etzuten asaldatu bein ere gure Jesusen mansotasuna, bakea, ta aldarte bear bezalako.

Garrotxez mindurikako zezenak bezala, ingurutzten zuten Jesus bere etsai amurratu gaistoak; eta alere, iltzera daramaten ardi bat bezain ixil, mutu, ta manso zegoen Jesus maitagarria, orien adar, atzapar, orro, ta izurri guzien artean! Aserreturik bazter guziak ondatu naiez dabillen itsasoaren ubeldeak edo bagak bezain gazi andiak ziran bere etsai galgarrien eskutik Jesusek izandu zituen nekeak, eta bere Pasioneke oñaze izerdi-tormentuak; eta alere orien guzien azpian zegoen gure Jesus maitagarria, alakorik ekusi ezpalu bezain umil, manso, ta sosegu osoarekin.

Eta, ala bera egotea guti bailiz bezala, orduko bere neke-bear-naigabe, ta tormentu guzien artetik, ots egiten digu guri gure Jesus maitagarriak, eta erra-ten digu guziori: Nigandik ikasi bear dezutena, nere umeak, ez da, ez,itsuak argitzea, makurrak zuzentzea, eriak sendatzea, ta gañerako nik egin izandu ditudan gauz andiak egitea, baizik zuek ere nere eran gogoz tabiotzez mansoak eta umillak izatea. Au da,

bai, nigandik, eta nere Eskolan ta Legean nere ume onak ikasi bear dutena; ta au berau da, niri atsegiñik andiena egiten didan gauza ta birtutea. Au egiten dutenak ederki dakarte, nere eran, beren gurutzea. Au egiten dutenak dira nere ondoren, ta nik erakutsi didan bezala, dabiltzanak; eta au egiten dutenak dira zorioneko ume doatsuak, eta lurraren jabe-onak. Aditzen dezu?

3. Baña zer lur ote da gure Jaungoiko maitagarriak, umil-mansoei, beren mansotasun birtutetsuagatik ematen dien lur eder au? au da beinik bein manso umill-beren baitan arkitzen den biotza.

Nola jabetzen dira Jesusen ume umill-mansoak beren baitako, eta berekin duten beren biotzaz? Eskuratzen dituztela onen naikunde, desir ta aztur guziak.

Eta zertako da beren biotz au era onetan oriek eskuratzea? Ondasun andiak ateratzeko, ta zeruko irabaziak irabazien gain beren bizitzan beti biltzeko.

Zer ote da oriek orretarako egiten dutena? Garbitzen dituzte beinik bein beren biotz-barrenak, pasione gaistoetatik atera ziran arantza gogor ta belar galdue-tatik. Maneatzen dute gero beren lur au ilduraz, nekez, mortifikazionez, otoiz onez, ta al duten beste zenbait eraz.- Beren lan on au bukatu orduko, erein-

tzen dituzte birtuteen biak eta ale galantak. Gorde-
tzen dituzte onen loreak eta buruak bekatuaren izo-
tzetatik, lagun gaistoen ortzetatik, eta sulezeko
etsaien atzapar galgarrietatik; eta Eguzki eder, Jesus
maitagarriaren amorearen beroarekin, Sakramentue-
tatik ateratzen duten graziaren ezatasunarekin, ta
beren otoitzetako jorrarekin zoritzen diranean, biltzen
dituzte, ta gordetzen beren animako ganbaretan eter-
nidade guziko gloriaren gai onak bezala.

Beren biotzen lur au ezezik, badute Jesusen ume
manso umill-doatsuak beste lurrik ere. Umil-manso
doatsuen bigarren lurra da, oriekin bizi diranen biotza,
naia, naimendua edo borondatea.

Bai; manso umillak beren begitarte onarekin bes-
teen bidegabei, ta txarkeriei ongiz eranzutearekin, ta
norinai al duten ona egiten diela, irabazten dituzte
gañerako guzien biotzak, eta naimendu guzia.

Bai, dio Espiritu Santuak, bai, Jesusen eskolan
umiltasuna ikasi duten biotzak ez dute obenik bat ere,
ez eta txarkeririk ere; ta beren ibillera zuzenarekin
egiten dute nai dutena gañerakoen naimenduaz edo
borondateaz; ta orien ta beren biotzez jabeturik geldi-
tzen dira; ta denbora berean jabetzeko daude (onetan
irauten dutela) zeruko gloriatz ere; bada Jaungoikoa

bizi da manso-umillen biotzetan, ta oriek dira Jaungoikoak zerura daramatzienak; eta beti ondasunez beteak daduzkanak.

Zorionean jaioa ni, aratzen banaz ni ere, arako nere denbora datorkidanetik; eta, eratzen banaz ni, irabazi onez ta Jaunaren ondasunez ongi apaindu betea! Bada ni aratzen nazanetik, atzenduko dira emengo nere nekeak, emen nik, obenik bage, ekusten ditudan bidegabeak, eta txarkeri guziak; ez da alabaña atsegin, ta kontentua besterik arkitzen an. An, ara ezkerro, guziak dira bat, edo guziak dira elkarren adiskide ta maitatzalle onak. Aratzen diran doatsu guziak artzeko daude emengo beren nekeen, ta Jaunaren izenean umilki eraman zituzten txarkeri guzien irabazia edo pagu ederra, ta atsegin-glori ezin eztitsuagoa.

An ez da, ez, emengo negarren damurik batere. Emengo gure gurutzeak, emengo gure negarrak, emengo gure izerdi-nekeak, izain dira an poz andiz gure biotzak beteko dituzten gauzak, edo bete-gaiak. Eta emen bertan ere ezin arki dezakegu guk era orretako gauzak, bear bezala, ta gure Jaunaren izenean umilki artzea bezalako gauzarik batere; bada oriek orrela artzeak artzalle berak betetzen ditu beren Jaun maitagarriaren amore onez, ta zeruko graziaz, ta bide-

nabar egiten ditu beren buruen jaun, ta lagunen biotzen jabe. Ekusten dezu zer jabekundea, ta zer doatasuna den au! ta zein billagarria?

Au, bada, au berau da, bendekari txar asaldatuak beren naiez galtzen dutena; bada gure Jaungoiko bakezko mansuak amorez, ta graziaz bizi nai ez du, orienak arkitzen diran bezain biotz erre-nasi sutuetan; ta Jaungoikoaren amorerik, eta graziarik bageko biotzak, biotz eta lur zikin galduak dira: zerurako onak diran ondasunik ez dakarten biotz-lurrak dira; ta, ondasun orien lekuan, doakeri andiak eta malur gais-toak, edo oben-kulpak dakazten biotz-lurrak.

Era onetako biotzak dituzten galduei zer eran begiratzen ote die gure Jaungoiko zuzen maitagarriak? Eta zer ote da oriei egin oi diena?

Begiratze amoriozkorik ez dagote era orretakoei; ta alere, onez urrikaldurik, zentzarazi naiez dabill gure Jaungoiko maitagarria, ta deitzen die, bein gogargiz, bein predikariz, bein kezka, bein alde batetik, bein bestetik; baña, alere zentzutzen ezpadira, deitzen ditu bere Tribunalera; artzen ditu an ezin gogorkiago; ta andik azkenean aurtikitzen ditu sulezeko etsai erre arrituen artera, an su ta gar egiñik, lertzen egotera, Jaungoiko bera Jaungoiko den artean, edo sekula guzi-

guzian. Bizitzaren gaistoa! Bukaeraren txarra! Egoeraren arrigarria!

Ez Jesus maitagarria, ez arren neretzat, ez orrelakorik! Nere buru-biotzez jabeturik, eta ondasun andiak irabazten ditudala, ibilli nai dut nik, bizi nazaño. Il nadin artean ongi nai dut nik etorri lagun guziekin. Emeki artuko ditut nik, eta zuk zerorrek nai dezun eran, gaurgeroko nere nekeak eta munduko guzien bidegabeak, artan niri zuk laguntzen didazula, nere Jaungoiko maitagarria.- Oraindaño koan beti nik au ez egiñaz dut damu, ta ziñez alere; bada zeren au egiten ez nuen nik, galtzear nituen nere biotzaren bake-ondasunekin batean, zure emengo laguntza ta nere sekulako gloria. Orain, zuk emanik dudan asmoan buka ditzadala nik nere egunak, orien ondoren gero sartzeko ni zure gurutzearen maitatzaile manso doatsuen artean, ta atsegin-kontentuz beterik dagoen zure zeruan. Bai arren, nere Jaungoiko maitagarria, bai!

*Melius est humiliari cum mitibus,
quam dividere spolia eum superbis.*

Prov. 16. 16.

Obe da, bai (dio Espiritu Santuak); obe da, bakezko umillekin umill bizitzea, arrotzar aberatsen ondasun zatiak artzea baño.

Zer dela, deritzazu, arrotasunezko ondasunak eragin oi dutena?- Eragin oi dituzte Jesus umillaren legeak debekatzen dituen anitz gauza.

Eta, umilki ta manso bizi diranak, zertan ote dabil-tza?- Umillen lanetan, ta Jesusi atsegina egiten dioten gauzetan.

Baña zer on, edo ondasun ote dakarte umillen lanak, umillen egitekoak, edo gauzak?- Oriek dakazte, emen berak bizi diran arteko bakea, ta eternidade guzi-guzirako gloria.

Eta arrotzar galduen egitekoak zertan bukatzen dira?- Eternidade bereko erretze, neke, ta pena gogorretan!

Ekusten dezu? Eta ez da obe, ondasundun arrotzar galduen lagun baño, umil on zerurako daudenen lagun izatea?

Bai, nere Jaungoiko maitagarria, bai segurki: ta orregatik artu nai dut nik (eta luzatu gabe) umillon mansu orien bidea, ta nere Jesusen legeko gurutzea. Gurutze onekin nik orain ibilli nai dut nere Jesus neka-

tuaren ondoren, atsegin-kontentuz beterikako Jesus berarekin egoteko gero beraren aldean, edo zeruko glorian. Ala gerta dedilla, nere Jesus umil manso mai-tagarria: bai arren, bai!

*Cum malediceretur, non maledicebat;
cum pateretur, non cominabatur,
tradebat autem, judicanti se injuste.*

1. Petr. 2. 23.

Zertako bataiatu ziñan zu, baldin badakizu, bekatari txarra?– Jesusen eran emen bizitzeko.

Nola bizitu zen Jesus, emen jend-artean bizitu zen denboran?– Guztiz zuzen, isil, umil, ta manso.

Etzuen Jesusek aditu bein ere, etzegokan itzen bat, edo beste?– Bai, ta maldizione arrigarriak ere.

Zer egin oi zuen gure Jesusek aldi orietan?– Ez-aditu, ta ez erantzun.

Eta ez ote zioten Jesus berari egin izandu bein ere bidegaberik? Ez ote zuten penatu noizbait Jesus mai-tagarria bere etsaiak?– Bai, ta askotan, ta anitz aldiz ere.

Zer egin oi zuen Jesusek aldi orietan? Itz gogorrez, errierta mindariz, edo txarkeriz bete bere gaizkigillak?– Ez, egiaki!

Zer bada?– San Pedrok diona; isiltxorik, eta guztiz emeki eraman, egiten zioten edozein gaistakeri; ta bere burua geldirik iutzi, asmatu, ta egin nai ziozkaten bidegabe ta neke modu guzieren artean.

Orra bada bataiatu garan guziok gure Jesus umil mansoaren eskolan ikasi bear duguna. Orra guk ere era bereko aldietan egin bear duguna. Au egiten dutenak, Jesus maitagarriaren zorioneko ume umil mansoak dira; ta ume, beren biotzen jabeak; eta zeruko lur onaz, edo atsegina gloriáz, egunen batez jabetuko diranak.

Saia gaitezen bada gu ere, orrenbat doatasun irabazteagatik, eta geren Jaungoikoari atsegina egiteko, alik emekiena, ta gure Jesus maitagarriaren eran, bizitzera.

Bai, Jesus maitea, bai (ta pozik alere), zuk zerorrek onetan laguntzen diguzula. Lagun zakizkigu bada dagikezunak bezala; ta lagun zakizkigu indar andiarekin. Bai arren, bai!

*Desine ab ira, et derelinque furorem,
noli aemulari, ut maligneris;
quoniam qui malignantur, exterminabuntur.*
Psal. 36. 7.

Utz bitez aldebat irak, eta suak, dio Dabidek. Zertako da, dio, aserretzea bat, eta eroen eran ibiltzea? Beude bada erakeriak, beude aserretzeak, aurren, ta eroen, edo zezenen arterako.

Ez dakite aurrak, ez dakite eroak, ez eta zezenak ere zertan diarduten, aserreturik dabiltzanean; eta orregatilk obenik ez da orien era orretako ibiltzean; baña adimentua duten gizon-andreak (eta kristioak badira, agiz obeki) ekus dezakee zein gauza txar itsusia den aurren, eroen, ta zezenen eran, edo erriertan, ta sua ta garra ta itz gaistoak darieztela, ibiltzea. Ez da, ez, era onetakoa gure Jesus maitagarriak erakusten digun ibillera. Zerura daraman umiltasuna galera-tzen duen ibiller eroa da; ta ibiller sulezera zuzen-zuzen daramana.

Ez, ez, dio, Dabidek dionarekin batean, san Pedro Apostoluak: ez dagizula zuk, ez, era orretako txarkeririk. Bendekuz egiten diran gauzak dira, era orretako gauza txar oriek; eta, bendekuz dabillena galdua

dabill, edo galdu bearra da len edo gero; ta galdu bearra beti-betirako.

Eta zer? Emen ez artzeagatik zuk, zere Jaun onaren izenean ta zure onerako, naigabe zenbait, naigabez beterik bizi nai dezu zuk beti-beti, ta sekula guzian?

Aizeak daraman itz gaisto bati erantzuteagatik, gogo gaistoak nai duen eran, nai dezu zuk galdu emengo doatasuna ta bakea, ta bake doatsu onekin batean zere Jaunaren eternidade bateko gloria? Zenzu gabetu zara zu? Galdu dezu zuk zere ezagumentua, edo zer gertatu zaitzu?

Ai ene! gerta zekikedan malurrik andiena! Nere barreneko suak, nere irain txar galduak, nere kolerak, galerazi dizkidate nere Jaunaren grazia, nere zeruko bidea, ta nere irabazia; ta denbora berean eragin dizkidate, egin nitzaken gauzarik gaistoena, edo kulpak eta bekatuak!

Iltzen banaz ni, oriek nik neregandik kendu baño len, nora bearra naz ni?– Sulezera! an beti ta beti erretzen ta urratzen egotera?– Zorigaistoan jaioa ni, orren neke arrigarritik ez iges egitera!

Baña nola nik andik iges egin dagiket?– Jesusen Legeko bideratzen nazala.

Nola ni bide orretara naiteke?- Damuz, ta negarrez, ta urrikiz.

Ona bada ni, nere Jaungoiko maitagarria; ona ni, oraindañoko nere erakeriekin egin ditudan utsakgatik damuz ta urrikiz ongi betea; ta ona bidenabar ni, berriz era bereko, edo beste uts-egiterik ez egiteko asmoan onek laguntzen didazula, nere asmo onek eskatzen dituen gauzak egiten. Damu dut, bai, nere Jaun on maitagarria, orain arteko nere oben-kulpekin zu aserretuaz; ta oben-kulpa berririk egiñen ez dudalako, ta umil-manso bizitzeko itzarekin, eskatzen dizut egiñen barkamentua, itzez ta biotzez esaten dizula: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

XXXVIII.garren OTOITZ-GAIA

IRUGARREN DOATASUNA:

NEGAR ATSEGINDUNA

Beati qui lugent: quoniam ipsi consolabuntur.

Matth. 5. 5.

Zorionekoak negarrez daudenak; oriek izain dituzte atsegin andiak

1. Zer negarti ote dira Jesus maitagarriak gaur agertzen dizkigun zorioneko negarti oriek? Munduko negarti guziak?- Ez ori.

Zein bada?- Bear den bidez dabilzan penatuak, eta zeruko beren gurutzepean negar egiten dutenak.

Era orretan negar egiten ote dute, beren desondraz, beren kalteren batez, eta beren bearraz edo gabez, negar egiten dutenak?- Ez, orretara baizik oriek begiratzen ezpadute.

Zergatik ez?- Zeren orien negar oriek, lurreko negarrak diran, ta gure Jaungoikoa urrikal-erazten ez duten negarrak. Atsegin andiak irabazten dituzten negarrak, eta negarti berak zorioneratzen dituzten

negarrak dira, gure Jaungoiko maitagarriari begira dauden negarrak; oriek dira alabaña Jesusen ondoren dabiltzanen gurutzepeko negarrak.

Bide onetaz, ta zeruko gurutzepean dabiltzan guzien negarrak ote dira bide batezkoak, eta era bereko negarrak?

Ez: irur bidezko, ta erako negarrak dira, aldi onetako doatsu zorionekoen negarrak; eta orietatik ere batzuek besteak baño berez geiago balio duten negarrak dira.

Baña zer bide-modu dira, zorioneko negar orien bideak? Oriek dira *Damua, urrikaltasuna, ta ongi naia*, edo *amorea*. Irurak dira zerurako bide onak; eta iruretatik edozeñez dabillenaren negarrak zorioneko negarrak dira, atsegin-kontentu on garbiak irabazten dituztenen negarrak dira; ta, jorradarik galdu gabe, bein bata, ta bein bertzea, ar ditezkeen negarrak.

Orietatik batez edo bestez gabiltzan beti, ta zuzen ibiltzeko, goazen guziak banaka ekustera: ta ekus dezagun bein zorioneko negarbide damuzkoa, edo zein ote diran ortik dabiltzan zorioneko negarti doatsuak.

Zorioneko negarti, damuz negar egiten dutenak dira, beren obenak edo kulpak begitan ongi ta ziñez

artzen dituztenak, eta beren kalteen gain negar garbi-
ro egiten dutenak. Oriek dira, ongi damaturik, ekusten
dutenak beren obenez edo kulpaz galdu dutela beren
Jaungoikoak emanik zuten zeruko grazia, ta graziaren
edertasuna, ta biekin batean, galdu dituztela Jaungoi-
ko beraren amorea, zerurako eskua ta deretxa, ta
sekulako gloria; ta denbora berean ekusten dutenak
gutziz aserretu dutela beren Jaungoiko ongille maita-
garria, ta irabazi dutela beti, ta beti sulezean galdurik,
eta neketan erre-lertuak egoteko gaia; ta gai au ez
urratzera, edo bere gain ezartzera, gure bekatarien,
ta, guk aserreturik dadukagun bere Aita eternoaren
arteko bakeak egitea Jaungoiko-gizon Jesus maitaga-
rriak, galduak garala gu, edo zerutik betiko erbestatu-
rik, sulezean beti ta beti erretzen egon bearrak.

Onenbat beren kalte, ta Jesusen neke ekusi ondo-
an negarrez daudenak, dira bada, zorioneko damuz
negar egiten duten negarti doatsuak; eta bidenabar
dira, gerorako atsegin andiak irabazten dituzten len-
dabiziko negartiak.

Zorioneko atsegin orien zale bazara zu, egizu zuk
ere negar ta negar, biotzez badere, oraindañoko zere
oben kulpez, edo zuk zere oben kulp-oriekin zere Jaun-
goiko maitagarriari egin diozun atsekabeagatik, eta

oben-kulpa berekin zuk zere animan arrerazi diozun kalte arrigarriagatik; baña egizu negar, negar denboran artzen dezula zuk, oben-kulpa berriak, mundu onetan arkitzen zaraño, ez egiteko asmoa, ta, oben-kulpa berriren batera makur zentzakeen sartu-atera, itzketa, jostatze, edo era orretako beste edozein gauzetatik iges egiteko asmoa.

A! nere Jesus maitagarria! pozik egiñen dut nik nere alegiña, damuzko negar ondasundun oriek lenbailen erdisteagatik, eta negar oriek eskatzen dituzten asmoak orain bertan artzeagatik. Lenagotik orretan ez asiaz dut damu, ta ziñez alere; bada, au lenagotik nik egitera, lenago utziko nituen nik, geroztik egin ditudan obenak eta kulpak.

Urra al banintza nik, oraindañoko nere denboran egin izandu ditudan guziak! Urra al banintza nik diran guziak, edo negarrez, edo odolez badere! Odola bear baliz orretarako, bertatik emain nuke nik nere zañetan arkitzen den guzi au, zuk ala nai izatera.

Baña obea da onetarako, Jesus maitagarria, zuk isuri zenuena; ta orrekin urratu bear dituzu diranak, edo jautu, ta garbitu bear didazu nere anima oraindañokoan nik egin ditudan oben-kulpa guzien loi galdutik; eta, berriz loitara ez nadin ni, eman bear didazu

zuk zere eskua ta laguntza; ta eraman bear gaituzu damuzko bide negarti on eder onetatik. Ez dugu gutiango uste zure piedadetik! Ez Jesus maitagarria, ez.

2. Era onetako damuak idarokitzen dituen negarrak negar onak dira, ekusi dugun bezala; baña obeak dira urrikarrizko bigarren negarrak.

Beren obenak damuzko negarrez ongi kenduagatik, ez dira zenbait on negarrez asetzen; negar ta negar daude geroz ta geroz ere, ta beren bizitza guzian.

Zergatik ote dira orien kezka negarrak?– Negar oriek dira, gañerako bekatari gaisoak beren obenaz dituzten damu ta kalte arrigarriakgatik, eta zeren bekatari berak, beren oben-kulpekin naigabetzen duten beren Jaungoiko guztiz maitagarria. Eta orregatik dira urrikarrizko negarrak.

Beren Jaungoiko maitagarria maite dutenak, ez lukee nai, niork legion Jaungoikoari bidegaberik batera; ez eta, bere bidegabeakgatik, nior gal ledin ere. Eta ekusten dutenean galduak arkitzen dirala, bekatupean arkitzen diran guziak eta beren bekatuakgatik agitz aserretua dadukatela beren Jaungoiko zuzen maitagarria, beren kargape gaistotik atera naiez bekatari gaisoak, eta bidenabar orien Jaun aserretua

palakatzeagatik, asitzen dira negar ta negar begiz ta biotzez, edo biotz ez badere; ta eskatzen diote beren Jaungoiko, gaistoen txarkeriz aserretuari, ez duela zer bere aserretzalleei begiratu; begira dezola bere pres-tutasunari; ta ekusirik, ekusten duen bezala, bere gaistagiñen ezer-eza, erakus diezatela beren bekatu beltz arrigarrien itsustasuna; uki dizala graziaz (baña bortizki) beren biotzetan, damu dakien gaizki egiñaz, ta eska, ta erdits dezaten beren ordurañoeko gaistake-rien barkamentua, ta gaizki ibilliz, galdu zituzten Jaun-goiko beraren grazia ta beren zeruko bidea.

Onetan ari diranen negarrak, lagun-urkoei, edo proximoari ongi naiez isurtzen diran negarrak dira; ta negar, bekatuen damuzko negarrekin garbituak arki-tzen diran begietatik datozenak, edo ongi naiezko negarrak; eta orregatik dira, urrikarizko negarrak; eta, damuzko negarren gain, zerbait on dakarten nega-rrak.

Zorioneko negartia ni, negar egiten badut nik ere, nereakgatik ezezik, besteren bekatuakgatik ere, edo beste bekatariak Jaungoikoari egiten dioten atseka-been alde; bada era orretako nere negarrak urrundu-ko naute ni bekatu berrietatik; arinduko naute ni nere zeruko bidean, biziro ta erraz ibiltzeko, ta egunoro ira-

baziko derezkidate atsegin-kontentu garbi andiak, eta glori zati berriak au ez galtzeagatik badere, saiatuko al naz ni era onetan ere negar egitera, ta nere urrikarizko gurutzearekin Jesusi jarraikitza!

3. Damuzko ta urrikarizko negarrak baño ere agitz obeak dira irurgarren negarti doatsu, zeruko bidean dabilzanen negarrak; dira alabaña, geiago ta geiago gure Jaungoikoa maitatu naiezko negarrak, edo dira negar amorezkoak; eta Jaungoikoaren amorea da birtute guzian artean oberena.

Ekusirik bada anima garbi birtutezkoak, emen bizi diran artean, beren loak, beren nekeak, beren laneagin-bearrak, eta beren beste anitz gauzak kentzen dietela, bear bezala, beren Jauna maitatzea; ta ezaguturik maitatze era onetakoaren ondasuna ta balioa, asitzen dira negar ta negar, emendik atera naiez; ta eskatzen diote bein, berriz, ta askotan ere beren Jaungoiko maitagarriari, urra ditzala lenbaitlen emengo orien bizitza txarraren kateak, eta eraman ditzala maitatze utsaren tokira, edo bere zerura; maitatu nai dutela Jaun bera gau ta egun, ta eternidade guzian ere; ta maitatu nai dutela, beren maitatzetik bein ere gelditu gabe: ezin dagikeela au, nai bezala beintzat, usteldu bearra den beren gorputzetik atera artean: ta

atera ditzala lenbaitlen, ta trikatu gabe. Eta, au erditsi artean, guzia da negar, nai, ta suspirio, orien bizitza.

A zer negarrak, lan onetan ari danaren negarrak! A zein urrats eta pausu arin-luzeak, Jesusen ondoren era onetan dabiltzanen urrats-pausuak! Zein ederki daramaten beren negarrezko nekeen gurutzea, era onetako asmoetan dabiltzan animak! Zein atsegin goi-soak, noizean bein beren biotzetan Jesusek oriei sartzen diezten atsegiñak!

Noiz izan bear ote ditut nik ere negar era berekoak? Baña izain ote ditut nik oriek bein ere? Bein ere, oraindañokoan baño gogotikago maitatzen ezpaditut nik nere atsekabeak, nere desondrak, nere ildurak, eta nekeak! Bein ere, uzten ezpaditut nik lurreko nere asmoak, lurreko nere itzketa makurrak, jostatze lizunak, erortokiak eta pekatuak!

Oraindañokoan bezala, utsez uts nabillen bitartean, kezka utsak, eta naigabeak arkituko ditut nik nere biotz txar galgarri onetan. Eta zorionekoa ni, nere neke-naigabe oriek idikik-erazten badituzte nere begiak; ekusisik nik orduan badere oraindañoko nere ibillera gaistoak, atera nadin ni nere kontrako bideetatik, eta sar nadin ni bein nere bekatuen damuzko bide zuzenean, gero urrikarizko obean, ta azkenean nere

Jaunaren amorezko onenean. Jaun berak didala, artarako bear dudan bere argia, indarra, ta laguntza. Bai arren, bai!

*Vae vobis, qui ridetis nunc;
quia lugebitis, et flebitis.*

Luc. 6. 25.

Zorigaistoan jaioak, dio Jesus maitagarriak, emen lurrean irriz ta kontentuz bizi diranak; bada negar ta negar egon bearrak dira eternidade guziko denboran. Orien emengo far-irriak; orien emengo atsegin txar lizun galduak, kezkek, ta naigabeak, emen bertan ere nastu oi diran gauzak dira; ta ala nastuak ez izan arren, orien azken atseginari darraiko betiko dolua, betiko negarra, ta tormenta.

Gaistoen emengo irriak agerrerazten ditu orien ortzak: eta orien ortz berak karraskadaka, ta elkarren etsai egiñik egon bearrak dira sulezeko pena gogorretan. Emen atsegin adiña, ta anitz eta anitz neke ta negar geiago eraman bearrak diran sulezean emengo arrotzar arin-eroak.

Beren gogora, ta irri-atsegin anitzen artean bizi uste zuten oriek anitz denboraz; baña, uste ez duten egun batean artuko ditu beren eriotzak; eta artuko dituzte oni darraizkon sekulako goseak, sekulako negarrak, eta sekulako suak; eta artuko dituzte, berriz ez uzteko beren atzapar gaistoen artetik.

Egun beltz illun, egun arrigarria, onenbat negar penazko eguna! Etzaitzatela, ez arren, ekusi, ez egun ta ez sekulan nere begiak! Zu ez ekusteagatik, pozik egoin nintzake ni negar ta negar, edo nere kulpen damuz beterik, bizi nazaño! Betorkit emen edozein gurutze ta neke gogor: ta, pozik ni, nere neke gurutze guziekin ibilliko naz Jesusen ondoren gaurdanik asi, ta nere azken-orduraño, ala badere niri didan nere Jaungoiko maitagarriak, gañerako orretan dabiltzanei eman oi dien doatasuna ta gloria. Didala bada: bai arren, bai!

Videns civitatem, flevit super illam, dicens, etc.

Luc. 19. 24.

Etzuen gure Jesusen maitagarriak farrarik, edo irri-rik egin beñ ere, guk dakigunaz beintzat, dio san Basi-

liok, jaiio zenetik ill arteko bere denbora guzian; baña badakigu guk, egin izandu zuela negar askotan, anitz aldetara ere; ta bein beintzat urrikariz, Jerusalemi begira zegokala, ta denbora berean erraten zuela: Ai, nere erri maitea, ta ai! ezagutzen bazenu zuk, aragiz jauntzirik emen orain agertzen zaitzun zere Jaungoiko au, etzeniteke zuk onekin egiñen, ez, egin uste dituzun bidegabe, lan gogor, ta txarkeri gaistoak!

Itsutu zara zerez, edo zuk zerorrek nai dezula, ni bezain argi eder au ez ekusteko; ta ez dituzu zuk zere begiak idikiko, Erromako jendeak etorri ditezen artean, zure dorreak, eta zure itxeak, eta bazterrak ingurutzera, ta estutzera, ta urratzera!

Urratuko dizkitzute, bai, diran guziak; eta urratuko dizkitzute, arri bat arri gain uzten ez dizutela; ta era orretan oriek orrela urratu orduko, illen derezkitzute millaka, ta eun millaka ere, or orduan arkituko diran zure umeak! Orra Jesusen orduko itzak, eta urrikarrizko negarrak.

Baña norgatik, edo noren gain ote ziran, Jesusen orduko negar-itzak? Ez ote ziran nigatik, edo nere gain ere! Ez ote naz ni, nere Jesusez azturik bizitu den Jerusalem bat, edo anima? Eta nola bizi ote naz ni egungo

egun berean ere? Aisa, kezkarik gabe, ta etorkizunaren beldurrik ez dudala?

Era onetan ni nagoela, niganatzen badira nere eriotza, nere etsaiak, eta nere kontu galgarriak, zertan edo non gelditu bearra ote naz ni? Zer gerta ere, goazen, nere anima, goazen gure Jesus maitagarriari eskumuñ bear bezalakoak, eta agur andiak egitera.

Bai, nere Jesus maitagartia, bai, ta pozik ere. Atsegin dut nik, bai, zu orrela orain ekustez! Negarrez zaude zu, nere Jesus maitagarria; negarrez zaude zu, ta denbora berean zaude niri begira!

Egizu negar, bai; badezu zergatik; bada zere gain artuak daduzkatzu nere bekatu guziak; eta bekatu oriek eskatzen dituzte, zureak bezalako negar eder batzuek!

Egizu negar, bai, nere Jesus maitagarria, oraindaño noko nere erakeriez, ta nere oben-kulpa guziez. Zu negarrez ekustek biguinduko du agian nere biotz, arri bat baño gogorrago au, ta arreraziko dio, orien bear bezalako damu-urrikia.

Ala gerta dedilla, Jesus maitagarria, ta gerta dedilla bidenabar, ni negar ta negar nere, ta munduko bekatu guziez beti bizitzea, bizitzeko gero ni zurekin

batean, zure Erresuman, edo Erreinuan; ta bizitzeko an, atsegin-kontentuz bete-betea: bai arren, bai!

*Fuerunt mihi lacrimae meae panes die ac nocte,
dum dicitur mihi quotidie, ubi est Deus tuas?*

Ps. 41. 4.

Neketan nabill ni goiz-arrats, eta egun guzietan; ta, era onetan ni ekusten nautenak diote, dio Dabidek, non ote dabil, non arkitzen ote da, edo zer egiten ari ote da zure Jaungoikoa? Au nik aditze onek lurreko nere neke gogorak, eta, nere Jaungoikoa ekustera, ezin ni bertatik edo lenbaitlen iganak, erdiratzen dida-te niri nere biotz au guzia; ta denbora berean uzten naute ni, deus bat egiteko gogorik ez dudala; ta bitarte guzian nik egiten dudan jan-edana da negar ta negar egitea, ta Jaun onaren billan ibiltzea; ta ibiltzea, nere Jaun on au ezin arkituz, berand-etsirik bezala.

Ai! zion Dabidek berak bertze batez, ta ai ene zion! ta zein luze-gogor nekezkoa den emengo nere bizitza! Erbestaturik, edo desterraturik arkitzen naz ni emen, lurreko nere bizitza negarti nekagarrian! Nere Jaungoikoaren zerua da nere erria, edo nere bizi-tokia!

Andik urruti bizi naz ni aspaldi guzian! Anitz galgarri gaistoren artean bizi naz ni ta nekez, nazan au, betarik anbat denboraz! Baña, ditudan guzien artean nere nekerik andiena da bertatik nik ezin ekusia nere Jaungoiko maitagarria! Noiz artean iraun bear ote dute, bada, emengo nere nekeak, emengo nere bizitzak, eta nere Jaungoikoa nik begiz begi ezin ekusi onek?

Onela itz egiten zuen Dabidek, negarrez begiak ederki beteak zeduzkatziela. Gisa berean ziardukaten beste Santuak, eta gañerako Jaunaren ziñezko maitatzalleak, emen bizi ziraño.

Ez naz arritzen, bazekiten alabaña oriek guziak, zein bizitza txarra den emengo gure bizitza, ta zein on-eder-maitagarria zerukoa!

Baneki au berau nik ere, berebat naiko nuke; ta, ara artean, beti-beti egoin nintzake negar ta negar, onen eran, ni ere.

A! zorioneko negar goisoak! Naiago zinduzket nik zuek, munduko far-irri, ta atsegin guziak baño! Zuek zarazte alabaña Jesusen ondasunak; eta ondasun, Indietako perlak eta urre zillarrak baño agitz geiago balio dezutenak! Nor zuez jabetu liteken, edo bertatik, edo beintzat anitz luzatu gabe!

Nor?- Edozein, baldin berak bertatik begitan artu nai baditu lurreko atsegin lizunak.

Bai?- Ona bada ni, orretarako prest, zeruko negar ondasundun oriekgatik. Ona ni ongi damaturik, lenago begitan ez artuaz gauza, nere animaren galgarri guziak, itzez, ta biotzez erraten dudala *nere Jesukris-to, etc.*

XXXIX.garren OTOITZ-GAIA

LAURGARREN DOATASUNA: ZUZENTASUNAREN GOS-EGARRIA

*Beati qui esuriunt, et sitiunt justitiam,
quoniam ipsi saturabuntur.*

Math. 5. 6.

Zorionekoak justiziaren gos-egarriz, ta ansiaz daudenak; bada aseak izan bear dute oriek guziak

1. Zer dela deritzazu zuk, zeruko justizi, Jaungoiko-aren laugarren doai onen ekarle au? Eta zein dirala justizi onen gose-egarri diranak?

Justizi au da zeruko zuzentasuna ta birtutea; ta justizi onez ase nai dutenak dira zuzen ibilli nai duten guziak, eta birtutez birtute dabilzanak. Eta era one-tan ibilli nai dutenei (baldin ziñez au oriek nai badute) eman oi die beren Jaungoiko maitagarriak beren jan-

edana; ta jan-edan onekin asetzen dira, berak nai bezala.

Baña janari on onen billan dabiltzanak gurutzepean dabilta, ta Jesusen ondoren; ta sartu nai badezu zuk ere orien artean, atoz, nor diran oriek, eta nola dabiltzan ekustera.

Zorioneko gose, ta egarri onelakoz beterik daudenetatik dira benikbein beren Jaunarekiko, ta elkarren arteko zuzentasuna billatzen dutenak; edo egiten dutenak, beren Jaunak bere Legean manatzen diena, naiz Jaungoiko berari dagokana dela oriek egiten dutena, naiz dela lagun-urkoari dagokan egitekoa.

Zorioneko orietatik izain zara zu ere, zu ere zere Jaunaren gauzetan, ta lagun guziekin zuzen bazabilta, edo zuk ere zuzen egiten badituzu zere Jaunaren gauzak, baita gañerakoak ere. Eta, ala egiten badituzu zuk oriek, zuri emain dizkitzu, bai, zere Jaungoiko maitagarriak, zure gose-egarri onak eskatzen dituzten ondasunak; eta aseko zara zu ere zeruko justiziaren edo zuzentasunaren goseti onak ase oi diran bezala.

Goseti on-ase orietatik beretatik dira, egunez egun, edo atzo baño gaur, obeki beren gauzak egin naiez arkitzen diranak; eta, alere beldur diranak, ongien-ongiena, beren ustez egiten dituztenak ere,

utsez beteak arkitzen dirala, edo ez beintzat bear den eran egiñak.

Ekusi zazu orain zuk, onenbat konturekin, ta onen zuzen egin dituzun zuk zere gauzak; eta alere iduritzen zaitzun ez dezula zuk bat bakarra egiten ongi, zuzen, ta bear den eran, ta orregatik egunoro arkitzen zarala zu birtute ta zuzentasun agitz gutiagorekin. Orretan bazaude zu, ta leneko zere utsak atera naiez, zorioneko bigarren goseti ta egartietatik zara, ta beren gurutze onarekin Jesusen ondoren zuzen dabil-tzanetatik.

Irurgarren gos-egarti doatsu onetatik dira, nai lukeenak, berak ezezik, gañerako guziak ere legiten beti, ta bein ere uts egiten ez dutela, beren Jaunaren legeak manatzen ta agertzen diena.

Orietatik zara zu ere, itzez zuk, erakutsiz zuk, eman ez, exenploz, ta, al dezun aldetik laguntzen badiezu zuk, ori bera egiten zurekin dabilzane, ta ekusten zaituzten guziei; ta, zuk au egiten badezu, etzara zu sartuko an, ez, bakarrik, eta lagunik bage, zere zeruan zu sartzen zaranean: ta, an sartu ondoan, esker onak artuko dituzu, bai, zere lan on ta irabazi andiakgatik ezezik, zuk ondu zenituen, edo zugatik ondu ziran lagunakgatik ere.

Laurgarren gosegarti doatsu onetatik dira, Jaungoikoak eskatzen diena baño geiago ta geiago ere egin nai dutenak, edo, astelegunetan ere, al dituzten mezak enzuten ari diranak; maiz, eta kontuz konfesatzen diranak garbiro; ederki, ta umiltasunez beterik aldareko Jaun andia artzen dutenak; eta, egun orietan, ta al duten beste guzietan ere elizara, Jaun au anekustera, agur andiak an oni egitera, urbiltzen diranak; eta era bereko, edo beste deboziozko gauzetatik, egin bage, batere, al dukeela, uzten ez dutenak.

Egiten dezu zuk ere au guzia? Egiten dezu zuk egiteko onen laurdenik ere? Ez? Zure galgarri alfer nagia! Egunen batean damutuko zaitzu, garai onez zu ez artaratzera; edo zuk, ori guzia ezpadere, zerurako bear den adiña ez egitera.

Badira, gose onez, ta egarriz beteak dauden beste zenbait ere. Oriek dira, lurra bere gauzekin beren oinpera ekarri dutenak. Oriek dira lenbaitlen Jaungoikoaren zeruko maiera, edo ango atsegin-kontentuetara igan nai lukeenak; eta beren arako igate au erditsinaiez, ta bertatik, eta beti beren Jaungoiko berari atsegin egiteagatik, egunoro beren gauzak obeki egiten dituztenak.

2. Zorioneko gos-egarriak dira, ekusi ditugun bost jende modu oriek dituztenak. Naita ez neke andiak dakazte, era orietan dabiltzan jendeen gos-egarriak; baña dakazte neke, Jesus maitagarriak agitz arintzen dituenak.

Nola arintzen dituela deritzazu zuk, gure Jesus maitagarriak, zorioneko gos-egarrri oriek dakazten nekeak?

Arintzen ditu, beinik bein, argiro erakutsiz, nola ar ditezkeen, artu edo eraman bearrak diran aldietan.

Arintzen ditu, bai, Jesus maitagarriak, justiziaren gos-egarrizko neke onak, Jesusek berak erakusten digunarekin; bada arintzen dira nekeak, oriek nola eraman, norbait erakusten ari denean; ta bere lan, edo erakuste on onetan aritu zen Jesus, jaio zen ordu-tik azkeneko bere asnaserañoko denboran; bada bere denbora guzian egin zituen Jesus maitagarriak bere gauzak, naiz errazak izan, ta naiz nekezkoak, deuse-tan ere uts egiten etzuela, ta denbora berean eraman zituen ezin-emekiago, berak baizik ezin eraman zitza-keen nekeak eta penak: eta, au guzia zen guri erakus-tea nola guk eraman, era bereko geren nekeak.

Bai; gure erakusle eder Jesus maitagarria jaio zen, dakizun bezala, otzez, ikaraz, bere biotzeko naigabez,

ta bearrez betea. Odoltu zuten andik laster edo zortzigarren eguneko, bere Zirkunzisioko kanibetarekin. Eraman zuten negu-erdian mendiz mendi, ijit-artera. Andik itzuli orduko, edo bere aur denboran, Jerusalemen ibilli zen Jesus zenbait egunez galduaren eran; ta bere predikako azken-urteetaraño neke ta izerdi bizitu zen beti Jesus maitagarria.

Bere predikuko denboran agertu zuen Jesus maitagarriak, bizitz on baterako guztiz ederra den lege berri bat; baña lege, eskribak eta fariseotzarrak ezin ekusi zutena; ta orregatik artu zuten begitan Jesus gizatzar oriek; asmatu zituzten, Jesus galerazteko, nork daki zenbat gezur ta gauza; ta milla ista, irri, tormentu, ta nekeren buruan, eman zioten Jesusi gurutzeko eriotz guztiz arrigarri bat.

Orra, bada, zenbat den, gure Jesusek, bere Aita Jaungoikoak nai duena zuzen egiteagatik, izandu zuen gos-egarria ta gurutze nekagarria; eta orra bidenabar guri Jesus berak erakutsi izandu ziguna, beraren ize-neko gos-egarriak gurutze astunak, edo nekaldiak agertzen diran orduetarako. Zorionean jaioak gu, guk ordu orietan egitera, Jesusen erakuste eder oni ta guri geroi dagokiguna!

Aisago guri geren lan au eragin naiez, nola egiten den erakutsi ezezik, egite berean ere laguntzen digu guri gure Jesus maitagarriak; eta laguntzen digu, idiak idiari uztarrian adiña, ta agitz geiago; ta orregatik uztarri leuna da, dio berak (eta ezin esan dezake Jesusek egia baizik), eta neke ariña, nere ondoren dabil-tzan gos-egartiak artzen duten neke-uztarria.

Ote dakizu zuk nola leuntzen ta arintzen digun guri gure Jesusek geren legeko uztarri edo neke au!

Leuntzen ta arintzen digu benikbein graziaren indar andiak ematen dizkigula, indar oriekin batean guk errazki ta aisa daramagun au, aur batek ere eraman oi duen bezala, aurrari dagokan edozein gauza, gauz au daramanean, ez bakarrik, baizik gizon indartsuren batekin batean.

Bigarren lekuan leuntzen ta arintzen digu guri gure Jesus maitagarriak geren legeko neke-uztarri au, zeruko ondasunez, irabaziz, ta merezimentuz betetzen gaituela gu geren animetan.

Irugarren lekuan leuntzen ta arintzen digu guri uztarri bera, animako poz ederrak eta atsegin andiak noizean bein ematen dizkigula.

Laurgarren lekuan leuntzen digu, deitzen gaituela bere Komunioko maiera, an emateko guri, guk artu al

adiña grazia, kontentu, ta gusto. Eta aldi orietan, ta beste zenbaitez ere, adirazten die Jesus maitagarriak beraren itz emea aditu nai dutenei, bere zerurako dadukatziela, gloriáz aserik eta nekerik gabe, an, bera bera den arteari, edo sekula guzi-guzian idukitzeko, era orretan, edo Jesus beraren eran emen oriek bizi-tzera, bizi diraño.

Ez dezu ekusten zein ederki aseak uzten dituen gure Jesusek, beren gurutzearekin ta zeruko justiziarren gos-egarriekin aren ondoren dabiltzanak? Ez dute, ez, era orretako asetzerik emengo beren nagusietatik, itsasoan dabiltzan mariñelak, lurreko soldaduak, alorretako langilleak, etxeetako nekazariak, eta besteren pean dabiltzan gañerako gizon-emakumeak; bada, andiena duenak ere bizi den denborakoa du, ta lurrekoa, emengo bere ase-era, edo asetza; ta orregatik du atsekabez, ta kezkaz beterikako asetza; baña, Jesusek bereei ematen den ase-era, edo asetze garbia da, nai-gaberik bageko asetzea da, ta beti ta betiko asetzea.

Ote zenekien zuk au, oraindañoko zere denboretan?– Ongi beintzat, ez segurki! bada zuk au lenagotik ongi jakitera, egin izandu dezunetik beste bizitza egiñen zenuen; bai; ibilli zaranetik, beste gisaz ibilliko ziñan zu; ibilliko ziñan alabaña, zere gogoia geroko

gauzetan ongi sartua zenerabilela, ta, bere gogoala dadukanak egin oi dituen eran zere gauzak egiten zenituela.

Orain badere idikitatzu zuk zere begiak. Begira egiozu, bere gurutzearekin aitzinean doakizun zere Jesus maitagarri, ta ekusiko dezu, bere Aitaren gauzak ongi egin naiez, ta munduko guziak zuzenerazteagatik, goseak dabilela Jesus ta egarriz, edo nekez ta nekez betea.

Jesusen eran nekatzen denak, noizean bein badere, baditu, bai, bere animako atsegin andiak, eta oriek baño ere andiagoak dira gerorako berak uste dituenak; bada geroko justiziazko gosegarti onaren atsegin oriek iraun bear dute beti ta beti: baña ez, orain oriek dituenaren nekeak eta gos-egarriak; emengo gos-egarri ta neke guziak laster bukatu bearrak dira alabaña; bada, luzenaz ere, bukatuko dira emengo gure bizitzarekin batean.

Egizu bada gaurgero zuk aldi onetan zuri zere Jesusek erakusten dizuna. Zabilta beti zere burua ontzen ta ontzen, ta lan orretan lagun egiezu, al dezun lagun-urko guziei, baldin nai badezu zuk eman dakizun emen atsegin andi-garbi-eder bat; eta gero eter-

nidade guzian bukatzen ez den, ta agitz andi-ederra-
goa den zeruko gloria.

Zorionekoa ni, ni orretan ibiltzera! Ibilli naiez
nago, bai; ta ibilli nai dut, bizi nazaño. Jesus maitaga-
rriak didala, nere oraingo asmo au galtzen ez dudala,
nere egunak bukatzeko grazia. Bai arren, bai!

Anima esuriens etiam amarum pro dulci sumet.

Prov. 37. 7.

Bere burua ondu-naiez dabillen anima, Jesus neka-
tuari begira dagokan anima da, edo nekez beterik, eta
bere gurutzepean Jesus ekusten duen anima, ta nai-
ekuste onekin, ta era onetan dabillen anima, nolana
izutzen ez den anima da; ekusten du alabaña onelako
animak, nor den Jesus nekatu maitagarria, ta norgatik
den Jesusen ibillera; edo ekusten du Jesus maitagarria
dela Jaungoiko-gizon ezin andiagoa; ta Jaungoiko-
gizon, gure anima gaisoen amorez milla neketan sar-
turik arkitzen dena; ta bere Jaungoiko-gizona era one-
tan ekusi ezkeru, zer anima ez da saiatuko, al duen
eran erantzutera, onen amore ezin andiagoari; ta
Jaungoiko-gizon berak daraman bidez berari jarraitki-

tzera, naiz dela, den gogorrena, Jaungoiko, gizonak daraman bidea?

Orregatik dio Espiritu Santuak, ondu naiez, ta bere Jaunaren ondoren dabillen animak ez duela mintasunik arkitzen, gauzarik miñenetan ere, edo egiten duela laster, ta trikatu gabe, edozein gauza, naiz dela den gogorrena, bere Jaunak nai duela au ezagutu ezkerro.

Orrela egiten ote dituzu zuk ere zere gauza guziak? Eta egiten ote dituzu bein, ta berriz, ta beti?— Ez egiaki, nere Jaungoiko maitagarria! Ez eta erdietan ere! Orregatik nabil ni, nabillen eran, edo ondu gabe, ta utsez uts.

Eta orain zertan gelditzen gara gu, nere anima? Ondu naiean? Jesusi zuzen, ta gelditu gale jarraiki naiean? Bai? Baña begira: beste gisaz ibilli bearko dugu guk, ala izatekotz.

Badakit, bai au guzia, nere Jaungoiko maitagarria; ta alere nai ditut egin (ta kontuz, ta beti), nere ibillera berri on onek eskatzen dituen gauza guziak; eta, oriek era orretan egiteagatik, egin uste dut nik nere Jesusek nai duena. Ala didala berak (eta emain dit nik ziñez eskatu ezkerro) orretarako bear den bere laguntz andia, ta anitz grazia: bai arren, bai!

Sicut vestimentum, sic comedet eos vermis...
Salus autem mea in sempiternum erit,
et justitia mea in generationum.

Isai. 51. 8.

Emen goserik ekusten ez dutenak; emen nai adiña jan ta edan egiten dituztenak: emen aisa, ta aserik bizi diranak: emen gogoak ematen diona egin oi dutenak, eta neketan dabillen Jesusi begiratzen ere ez diotenak, nola bizi bear ote dute urrengo bizitzan, ta eternidadean?

A gaisoak! Beren barreneko errak, edo ar ozkari amurratuak, emengo ar txarrak soñekoa urratu oi duten bezala, beren biotzak urratzen-ta-urratzen diez-tela! A gaisoak! kezka ta kezka beteak, sutan erreak, eta neke ta pena baizik ez dirala! Bizitzaren galgarri madarikatual Zoaz, ordu gaistoan, nai dezun lekura, edo sekulan nere begiak ekusiko etzaituzten tokira.

Eta zuzentasuna, edo zeruko justizia, ta gure Jau-naren legeak diona billatzen ta egiten dutenak, emen

nola bizitzen ote dira?– Birtutez aseak, eta gerorako irabazi andiak, eta guztiz ekuskariak, egiten dituztela.

Eta gero, edo emendik atera ondoan, zertan gelditu bearrak ote dira era orretan bizi diranak?– Zorioneko doatasunean, edo atsegin utsezko, ta gloriuz betetikak bizitzan, ta eternidade guziko laurdario ta benedizione ezinobeetan. Au da Jaungoikoak berak bere profeta Isaiasen ezpañez, orain adirazi digun egia.

Bukaeraren, ta egoeraren gaistoa, gaistoen bukaera, ta, adirazi zaikun sekulako orien egoera! Eta bizitzaren ederra, ta eternidadeko doatasunaren zorionekoa, zuzen dabiltzanen bizitza, ta orientako Jaungoikoak gorderik dadukan sekulako doatasuna, ta beti-betiko gloria!

Badut orain, bai, badut nik ere zuen bien, bear den erako berria; ta eroegia nintzake ni, nik bertatik ez artzera azkenekoen, edo, bear bezala dabiltzanen bizitza, bidea, ta gos-egarria.

Artu nai dut, bai; ta ziñez ta gogoz alere, nere Jesus maitagarria! Naiago ditut nik gaurgero zure legeko gos-egarri nekagarriak, mundu eroaren asetze ta atsegin guziak baño. Zuk emana da bai segurki, orain nik nere baitan arkitzen dudan ongi bizi nai au

ere; ta gal ez dezadan beste, lenago zuk emanikako zenbait bezala, eman bear didazu anitz laguntza ta grazia! Bai arren, Jesus maitea, bai!

Vae vobis, qui saturati estis; quia esurietis.

Luc. 6. 25.

Ai! emen ongi aseak, aisa, ta zeren gogara bizi zaraztenak; bada egunen batean, (ta anitz luzatu gabe) bukatuko da zuen emengo aisatasuna, ta jan-edana; ta asiko da bukaerarik bageko zuen gos-egarri amurratua. Orra orain Jesus maitagarriak guri agertzen digun egi izugarria! Zergatik au onela, baldin badakizu? Zeren lurreko janari meez, ta atsegin gustoz asetzen diranak, ostikoz ematen dioten beren Jaungoikoaren zeruko eztiari, edo, ango atsegin andiak irabazten dituen bizitza zuzenari: *Anima saturata calcabit favum* (Prov. 27. 7.); ta, ori egin ezker, zer itxedan dezake bere aldia datorkionean? Jesus maiteak diona, edo betiko gos-egarria, betiko nekea, ta beti-betiko sulezea, ta besterik ez.

Orain an datza, bai, bere mai mee batean len ongi asetzen zen Ebanjelioko Aberatsa. Milla urte ta geiago

da ango sutartean, duen egarriarekin ezin burutuz dagoela; ta, zenbat ere billatu duen, ezin arkitu izan-
du du ur tanta bat, bere egarri amurragarri au iltzeko;
ta ez du arkituko ere aren billan ibilliagatik Jaungoikoa
Jaungoiko den artean, edo sekulako eternidade guzi-
guzian. A zer egarria, orain daramana! ta sekula
guzian aberatstzar jal-edale onek eraman bearra.

Jakin balu aberats onek, onetan gelditu bearko
zutela orduko aren jan-edan galant-ederrak, ez ote
zituen utziko denboraz, oriekgatik gero ez aratzeaga-
tik, ara zen bezala? Orietan galdu zituen ondasunak
emain ez ote ziezten, bearrean arkitzen ziran goseti
gaisoei?

Ori orduan, edo denboraz, ez-egiañaz du orain duen
adiña damu; ta izain ere du eternidade guzian, edo
beti-ta-beti. Baña aren oraingo damu au damu alferra
da, ta damu damutzen denaren galgarria, edo pena-
tzallea!

Aberatsak bada, ta aisa bizi zarazten jendeak, edo
jan-edanaz, ta sabela betetzeaz kontu andia dezuten
gizonak, begira ongi, ta begira zeren buruei! Ekusi
zazute nora bearrak ote zarazten, ta zer egitera, era
orretan bizi bazarazte gaurgeroko zeren egunetan.

Zuen eran dabiltzan gizonak ez dabilta, ez segurki, Jesusek guri bere ibillerarekin agertu zigun zerurako bidez, ta arako gauz onak egiten dituztela. Justizia-ren gos-egarria da gure Jesusek agertu zigun bideko janaria.

Nekeak, ildurak, eta gurutzeak dira bide onetako lagun ederrak. Gure Jaunaren gauzak zuzen egitea; nori berea bere orduz ematea, ta goizetik arratseraño-ko gauza guzietan ongi, zuzen, ta bear den eran ibiltzea, da emengo ibiller-onen lana ta egitekoa. Egiteko zuzen, edo lan au egiñaz, lagun oriekin ongi zatozela, ta Jesus maitagarriaren eran ibiltzen zarala, sartu bear ko dezuz zuk gos-egarririk ez den tokian, edo zeruko glorian.

Ongi da, bada, nere Jesus maitagarria, ongi da; sekulako neke izugarriak baño naiago ditut nik zure legeak dituen emengo gos-egarri ta gurutze guziak.

Emengo nekeak, eta emengo gurutze guziak, atsegin andizko neke-gurutzeak dira, zure izenean, ta zuk laguntzen dezula, artzen diranean. Era orretan artu nai nituke nik gaur, nere Jaungoiko maitagarria. Indazu orretarako zere laguntza ta grazia; baita, lenago lan au egin bagez, egin ditudan uts eta bekatu guzien barkamentua ere. Orain au erditsi naiez, erra-

tera noa nere gogo, ta nai guziarekin: *Nere Jesukristo, etc.*

XL.garren OTOITZ-GAIA

BOSTGARREN DOATASUNA:

URRIKALTASUNA

*Beati misericordes, quoniam
ipsi misericordiam consequentur.*

Matth. 5. 7.

Zorionekoak urrikaltiak; bada oriei urrikalduko zaie beren Jaungoiko maitagarria

Urrikaltasuna da lagun-urkoari, edo proximoari begira dagokan gauza, ta birtutea. Gauz edo birtute onek bi aldetatik begiratzen dio lagun-urkoari, edo proximoari; bada begiratzen dio, al duen ongi guzia egin naiez; ta ongi egin dagoike lagun urkoari bi alde-tara.

Badakizu zein alde diran bi alde oriek?- Oriek dira anima, ta gorputza. Gorputz aldetik alabaña, edo animaren aldetik dira lagun-urkoaren bearrak eta premia guziak; eta oriek dituenaz urrikaltzeko bat, aski da

bearrean dagoen lagun-urkoari bere bi alde orietatik begiratzea. Asi gaitezen gorputz aldeko begiratzetik

A.

Gorputzaren aldetik proximoari edo lagun urkoari datozkan premiak eta bearrak dira, edo beraren bizi-tzakoak, edo berari, bere illondoan darraizkonak.

Lagun-urkoaren illondoko bearrak ez dira, ez, bear andiak; bada, illaren gorputza ortzitu ezkerro, bukatu dira onek bear dituen gauza guziak: eta ill bat ortzitzea da, orrenbat arazo ta neke ez dakarren, ta nori bereak egin oi dioten gauza edo egitekoa.

Gorputzaren bizitzako bearrak, bear andiangoak dira; bada dira gos-egarriak, soñeko gabea, etxegabea, edo, bear den beste zenbait gauzaren bearra ta gabea, ta, gauz orien bearra edo gabea duenari zerbait ematea, da, al dutenak egin bear dutena, baldin nai badute gerta dakien zorioneko urrikalti-emalle onetatik izatea.

Baña zorioneko emalle-onetatik izateko, ez da aski, ez, nolanai batek beartsu gaisoari bear duen

gauza ematea; eman bear dio ematen diona, Tobias zarrak bere seme Tobiasi adirazi zion eran.

Adi zazu (erran zion bein Tobiasek bere semeari) adi zazu, nere semea, orain nik zuri erran nai dizudan gauzatxo bat. Iltzen garanean, ortzitu bear dituzu nere gorputz au, ta nere emazte ta zure ama maitearena. Bizi zaitez zu, gure ordu au etorri artean, baita gero ta gero ere, utsik bein ere egiten ez dezula, ta zere Jaungoiko maitagarriaren legea zuzen gordetzen dezula.

Bai, nere semea, bai; bi gauz oriek zuk zuzen-zuzen egitera, beartua zaude zu, zu zeren zaran gure semea, ta zeren zaran Jaungoiko maitagarriaren lege-zuzenean ongi azia.

Oriek ezezik, egizkitzu zuk, nere semea, lagun-urkoekin urrikarizko, al dituzun guziak ere; ta, besteen artean, emaiezu bearrean arkitzen diran gaisoei, eman dezakezuna; ta emaiezu, orietatik bat ere bage uzten ez dezula, ta eman aldian emazu, anitzekin arkitzen zaranean anitz; eta, gutirekin arkitzen bazara, aldi artan eman dezakezuna: ta emazu beti, ematen dezun guzia, biotz osoz, ta artzen duenaren bearraz urrikaldurik.

Orra gizon santu ark bere semeari aldi artan erran izandu, edo adirazi ziona; ta orra zuri ere zere Jaungoikak gaur, Tobias beraren ezpañez, adirazten dizun egitekoa. Baña ote dakizu zuk zer erran nai duen Tobias zarraren itzkuntz eder onek?

Erran nai ditu irur gauza: lendabizikoa da, zerbait zu ematera zoazen aldian, ez dezazula begiratu adiskidea den edo ez-adiskidea, bearren arkitzen den lagun-urkoa: begira dezazula, arindu nai dezun artzaille nekatu gaisoaren bearrera; ta eman dezazula, eman bear dezana aren bear au arintzeagatik, eta norena den (etsaiaren bearra denean ere) begiratu bage.- Bigarrena da: ematen asi ezkeru, eman dezazula zere esku biak ongi-ongi zabaldurik, eta laburkeririk bage.- Tobiasen izkuntz ederrak adirazten duen irurgarren gauza da, ematen asi ezkeru, egin dezazula zuk zere ematea, zure Jaungoiko maitagarriak ontzat artuko dizun eran, edo arpegi ta biotz on garbiarekin, ta urrikarizko eskuekin.

Irur gauz oriek egiten dituztenak, zerbait ematen duten aldi guzietan izain dute, bai, Tobias gazteari bere aitak an adirazi zion ondasuna; edo izain dituzte beren alde Jaungoiko maitagarriaren amoriozko begiak (*ita enim fiet, ut neque á te avertatur facies*

Domini. Tobias 4. 7.) baita Jaungoiko beraren urrikaltasuna, piedadea, ta miserikordia ere: *miseriordiam consequentur*.

Ote zenekien zuk, orain artean onelakorik? Zure oraindañoiko ibillerak eta lan guziak ezetz diote; bada bearrean arkitzen den gaisoari ematen zaiona, gauza galduren bat bailiz bezala, ertsi, edo giltzatu izandu dituzu zuk zere kutxak, zere faldrikerak, zere sakelak, eta zere eskuak; eta bere gabea, edo bere bearrarekin utzi izandu dituzu zuk bearrean arkitzen ziran guziak, oriek etziranean zure gogarakoak: edo zure adiskideak.

Eta zerbait eman badezu, era orretako aldiren batean edo bestean, eman izandu dezu erdizka bezala, edo aldian guti, aldian berandu, edo bein, ta berriz, ta geiagotan ukatu ezker, ta ez bein ere arpegi onarekin, nai onez, ta amoriozko eskuz.

A gogor txarra! Eta naiko zenuen zuk, egin zezaten zurekin besteak beste orrenbeste, zu arkitzera oriek aldi orietan bezain beartsu ta gabe? A zere galgarri galduegia! galdu dezu zuk aldi orietako zere laburtasunarekin zere Jaungoikoaren urrikaltasuna, ta, nork daki, zenbat Jaungoiko beraren ondasun, laguntza, ta grazia!

Etzen, ez, orrela kaltear gelditu Tobias gaztea, era bereko ez-dun beartsu gaisoekin ziarduen aldietan. Eskerrak ark orduan ez egiñari, zuk egin oi dituzun laburtasunetatik bat ere.

Urrikaltasuna gogoan bere aita Tobiasek sartu zionean, bear andian arkitzen ziran aita-semeak, eta etxeko guziak, eta, jaten zuten ogi zatia ere, izerdiz ta beren nekearekin irabazten zutela; baña geroz, beren urrikarrizko lan onakgatik, izandu zituzten bazter ta ondasun andiak.

Tobias aitak ekusi zuen itxeko laugarren aldia, edo jenerazioa; ta semeak bostgarrena; eta berak, beren umeak, eta alde guziak bizitu ziran santuak bezala, Jaungoikoak eskatzen zuen eran, ta ezagutzen zituzten guzien gogara. Ala dio Eskritura santak (Tob. 14). Orra, gorputz aldetik den besteren gabeaz, bear den eran urrikaltzen diranen emengo ona, ta ontasuna! Baña ez guzia.

Zorioneko urrikaltiak urrikaltzen dira lagun-urkoen animako bearrak ere. Animaren bearrak, gorputzaren bearrak baño agitz andiagoak dira; ta dira animako itsutasunetik, edo animak jakin bear dituen gauzak ez ezagutzetik, gaitzerako bere makurtasunetik, ekuste ta aditze gaistoetatik, eta, perill edo bide orietatik

edozeinetan arkitzen den animaz urrikaltzea, da anima bera bere perill ta bide gaisto orietatik ateratzea, orietatik urruntzea, ta zeruko bidean zuzen ta biziro erabil-eraztea, edo bide orretan ibiltzen laguntzea. Ori egiten dute, egiten dutenak Tobias berak bere semeari, ta onen umeei, agindu edo manatu ziena.

Adi zazue (erraten die, Tobiasek, zartu, ta beste mundurako abian zegoela); adi zazue, nere semeak, zeren aitak, zuei ongi naiez, orain erraten dizutena: serbi zazue zerok zuzen ta ziñez zeren Jaungoiko maitagarria. Zaudezte beti alik ernena Jaungoiko berak adirazi nai dizuten guzia zuzen aditzeko; ta egizue bertatik, eta luzatu gabe, adirazten dizutena, beraren gogarakoak eta onak zuek izateko. Baña begira; ez da aski, ez, zuek zerok onak izatea, edo zuek ori guzia zuzen egitea; eginerazi bear diezue ori bera zeren umeei ere: manatu bear diezue dabiltzala erne ta zuzen zeruko beren bidean, ta Jaunaren gauzetan; ta bideak dakarrenean, egin dezatela oriek ere, al duten on guzia.

Manatu bear diezue, ez dezatela bein ere iutzi beren gogotik beren Jaungoiko maitagarria, oroi ditezen beti oni zor diotenaz; ta oroitze onek beartu ditzan

beti, edo maiz beintzat, biotzez badere, Jaungoiko berari agurrak egitera, ta, berei dagozten gauz onetara, era onetako beren bizitzarekin, ta birtutez birtute dabiltzala, egin ditzaten irabazi andiak, eta oriekin igan ditezen bere denboran beren zerura.

Orretarako, nere umeak, atera bear dezue zuek lenbaitlen, Ninibe deritzan erri gaisto onetatik, emen galdu etzaitzten, galtzeko dauden emengo erritar gaizto galgarri guziekin batean. *Cap. 14.*

Orra, erioa bere begietan zedukala, ta egiak errateko den ordurik onenean, Tobias zar onak bere ondorengoei adirazi ziena; ta orra besteren animak urrikari dituzten onak egin bear dutena, anima oriek bearren arkitzen diran aldietan: toki ez-onetatik lenbaitlen orrelakoak keneraztea: begiz ta gogoz lurrean sarturik dabiltzanean, arreraztea beren Jaungoiko maitagarriaren ontasuna, ta oni zor dioten ontarte ta fabore guzia; ongi-ongi ezagaturik beren zor andi au, erantzun dezoten oni, al duten eran, ta alik ere ongien-ongiena.

Au ezezik urrikalti onak egin bear dute geiago ere anima beartsu gaisoekin; bada denbora beroan oriei agertu bear die beren Jaungoikoaren zorrotztasuna ta indardia, edo, gaistoak galdurik uzteko, ta sulezean

erretzen ta urratzen beti ta beti ta beti oriek idukitze-ko gure Jaungoikoak duen ezinbesteko eskua, onak eskuratzen ezpaditu orien gaistakeriak, eskura ditzan onenbat neke gogorren beldurrak; eta nolerebait mugi ditezen gaistoak, egitera beren onerako egin bear dutena.

Orretan aritu ote zara zu zere etxekoekin, zure auzokoekin, zure kontura zeuden guziekin, ta zuzendu zenitzakeen gañerako animekin?

Zein guti! Ez naz arritzen orretaz, ez: bada zuk zere animaz ere izan izandu dezu, dakizun bezain kontu laburra ta ezer-eza; ta, askotan beintzat, ibilli zara zu loiez loi, edo gaizkiz gaizki, ta bekatuz bekatu. Eta zertan ote zabilta gaur ere?

Nola arkitzen ote zara zu gaur, eta zer eratan? Zer kontuak emain zeniozke zuk orain, orain zu zere Jaungoikoak deitzera bere Tribunalera?

Urrikal zaitetz bada orain badere zere buru gaiso-az! Zuzen itkitzu, geiago luzatu bage, ta bertan gaurdanik, Jaungoiko berari emateko zauden zere kontuak. Artu zazu, artu bear dezun zere zeruko bide zuzena. Zabilta geroz ibilli bear dezun eran; ta zerori ondu ondoan, urrikalduko zara gañerakoen animez ere; ta

etzara izanen, ez, zeruan bakarrik sartuko zaran anima.

Ala gerta dakizula gure Jaungoiko urrakalti maitearen amarez, ta beragandik uste dezun laguntzaz baliatzen zarala. Bai, arren, bai!

*Panem tuum cum esurientibus et sitientibus
comede, et vestimentis tuis nudos tege.*

Tob. 4. 17.

Gosez, ta egarriz arkitzen diran gaisoei eman bear diezu zuk zerbait beti, zere maierako egin zenuen ogi onetik, eta, prestatzen dezun edaritik; bada ez da ongi dirudien gauza, zure erako batek anitz izatea, eta besteren batzuek bear dutenik ere ez. Guziendako zabalitzen du gure Jaungoiko maitagarriak bere eskua, eskua zabaltzen asi ezker. Gozez ta egarriz arkitzen diranak, Jaungoiko maitagarriaren umeak dira, zu ta ni biok bezala; ta orregatik elkarren senideak, edo aurrideak gara, Aita maitearen ume guziok; eta ekusten dezu, gure Jaungoiko maitagarriak bezain Aita edo Guraso onak ez duela ontzat artuko sekulan senideen elkarren arteko gogortasuna, edo senide ondasundu-

nak, ez duten gasoei eman bagez, oriek gosez, egarriz, bearrez iltzen uztea.

Begitan ar etzaitzan bada zu zere Jaungoiko Aita maitagarriak; eta galdurik utz etzaitzan eternidade guzirako, oriekiko zere gogortasunak, emazu dezunetik al dezuna, ta arin zazu zere aurrideen, ta Jaungoiko beraren umeen, bearra ta gabea. Orra bein Job santuak bere semeari adirazi izandu ziona. Eta orra, duten guziekin itz egiten duen gauza.

Beren buruak, beren umeak, beren zorrak estaltzeko diña ez dutenak, otzikara ibilli oi dira, ta edozein soñeko zakar, erdi-urratu, edo zarturen billan bezala. Dutenen eskuetatik uste dute zerbait orrelako gaisoak. Badezu zuk oriei emateko, zerori gabe gelditzen etzarala? Eta zer? Alere ez-ekusi egin uste diezu beartsu gaisoei?

Aldatuko dira egunen batean, dio Jesusek, zuen aldiak. Graziatzko, ta birtutezko soñekorik bage, ta gosez ta egarriz egoin zara zu emendik atera ondoan. Orduan arkituko dezu zuk Jesus, bere beartsu onak eskoi aldetik daduzkala; ta, zu an, ekustean begi zorrotzez begiratzen dizula, errain dizu: Onako nere beartsu oien gosez, egarriaz, ta gabeaz etziñan urrikaldu zu batere; ta, beartsu gaisoez urrikaltzen ez

diranak, ez dira nere ume onak; ez dira nere ezagunak; ez dira nere zerurakoak. Zoaz, zoaz ortik zere tokira: zoaz gogor galduen artera. Zoaz, bearrez, nekez, suz, ta kez beterik beti ta beti bizitzera. Au da zuk Jesusen aotik aditu bearra; au zuri len edo gero, ta anitz luzatu bage, gertatuko zaitzun damugarria, bage ta bearrean daudenei gaurgero zuk ez laguntzera, oraindañokoan ez bezala.

*Discite quid est: misericordiam volo,
et non sacrificium.*

Matth. 9. 13.

Badira munduan, bai, bearrean dagoen gaisoari ardit bat eman nai ez diotenak, eta denbora berean elizak, eta aldareak, eta orrelako gauz andiak, beren diruz egiten ari diranak. Ai eroak! A, zentzugabeak! Urrikaltasuna da, gure Jaungoiko urrikalti maitagarriak nai duena, ta ez zuen arrotasuna ta antustea.

Antustez, arrotasunez, ta zuen izenak gero gizartean iraun dezaten, ustutzen dituzute zuek zeren diruzorroak, eta zeren diruarekin an zarazte zuek, zuen antustek asmatzen dituen egiteko ta lan andi orie-

tan. Zuen lan egiteko guziak, beartsu gaisoetz denbora berean urrikaltzen ezpazarazte zuek, sareak dira; ta sare, armiarmak egin oi dituen sare zirtzillen erakokak, edo antuste arroaren aize-aldiak urratzen dituenak.

Nai badezue bada zuek, iraun dezaten luzaro zuen gañerako lanak, edo egin uste dituzuen gauz onak, egizkitzue lendanik urrikaltasunaren zimendu sendokak; edo emaezue bein bearrean arkitzen diranei, orien gabeak eskatzen duena, ta gero egizue nai dezuten on guzia.

Beste gauz onak ere nai ditu, bai, gure Jaungoiko maitagarriak, egiten badira oriek urrikaltasunak eskatzen dituen guziak egin ezkerok. Zorionekoak zuek, batak eta besteak zuzen egitera. Iguzu zuk, gure Jesus maitagarria, ala guziak guk egiteko bear dugun zure laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

*Estote ergo misericordes,
sicut et Pater vester misericors est.*

Luc. 6. 36.

Urrikalti onak dirudite beren emate batzuetan munduko zenbait emalle-txarrek ere; baña orien emate guziak, lapur galgarri gaistoen emate galduak dira; bada ematen dutena ematen dute, ematen diena baño agitz geiago artzalle gaisoei kendu naiez, edo artzalle gaisoak beren pean beti, ta beren menean idukitzeagatik. Jentilak, turko galduak, juduak, eta lurreko gaistoenak ere era orretan urrikaltzen dira beartsu gaisoiez; baña orien era orretako urrikaltze guzia, eskergabeko urrikaltzea da, ta beste mundurako deus bat balio ez duen urrikaltzea.

Ez, dio Tesos maitagarriak, ez da ori, ez, nik eskatzen dudan eran beartsu gaisoiez urrikaltzea: nik eskatzen dudan urrikaltzea, ongi naizko edo emate garbizko urrikaltzea da, ta zuen Aita urrikaltiaren urrikaltzea dirudien urrikaltzea, edo beartsuari ematen zaizkan gauzak, doairik bezala, ta artzallearen bearra arindu naiez ematea.

Bai; gure Aita eterno urrikalti-maitagarriak ez daki ukatzen beartsu-eskatzalleari, aren bearrak eskatzen dituen ta ongi dagozkan gauzetatik batere; ta, ematen diozkan guziak ematen diozka beraren onerako, edo beartsu bera, bear den eran edo ongi ekusi naiez: ta ukatzen badio zer edo zer, ukatzen dio, zeren aldi

artan ez dagokan ark bere Jaungoikoari eskatzen dion
emaera edo gauza; ta denbora berean ematen dio,
eskatu duen gauzaren ordeña, ta, ark orduan eska-
tzen duen gauza baño agitz obekiago dagokan gauza.

Au ezezik, geiago ta geiago ere egiten du gurekin
gure Aita urrikalti-maitagarriak; bada guk ari ez eska-
tuagatik gure bearrak eta gabeak eskatzen duen
laguntza ta grazia, ematen digu beti gure bearrak
bear adiña; ta gu, ark emanikako grazia ta laguntza
onarekin ateratzen ezpagara geren bear-premien, ta
gabe guzien artetik, eta bidenabar guk egiten ezpadu-
gu, zerurako bear den ondasun irabazia, guk ori ez
egin naiez izain da, ez guk izan bagez, ez, artarako
bear den esku indartsu, edo indar guzia.

Lan on au guri eragin naiez, ematen digu Jaun urri-
kalti berak, edo geren buruak galtzeko beldurtasuna,
edo zeruko ondasun andi-ederrak irabazi-naia, edo,
berak, artarako ona dela dakien gogoeta moduren
bat, edo bertze. Eta, nolanai gu gero ibilliagatik, ez
gaitu bakarrik iusten gure Jaungoiko maitagarriak
geren bide galgarri galduetan; an da beti, an gurekin
prest, bere laguntza ta esku indarsua guri noiznai
emateko; ta gu gerok geren naiez galdu arte guzian
urrikari izain gaitu gu gure Jaungoiko maitagarriak eta

doairik eman dizkigu, guk geren buruak ontzeko bear ditugun gauza guziak.

A gure Jaungoiko urrikalti guztiz maitagarria! Beti-beti bat zu; ta beti gure urrikari, ta ongille ezin andia-goia, guk gerok, geren naiez geren buruak ez galtzera! Noiz ezagutuko dugu guk zuri zere urrikaltasun ezino-beago onegatik zor dizugun ongi naia, ta amore bazterrik bagekoa! ta noiz baliatzen asiko gara gu zure urrikaltasun ta miserikordiari zor diogun laguntz onaz ta graziaz? Noiz utziko ote ditugu guk, oraindañoko geren aurkeriak? Noiz geren bide makur-galgarriak? Noiz zeruko gauzetarako geren nagitasuna? Eta noiz asi bearrak ote gara gu, geren lagun-urko bearsu gaisoei al dugun eran laguntzen, ta eskua ematen? Izan dedilla gaur beretik, batere luzatu bage, nere Jaun on maitagarria. Eskatzen dizut, zere urrikaltasun bazter-bagekoagatik; eta oraindañokoan, ori egin bagez, egin ditudan bekatu guzien damuz beterik, erraten dizudala: *Nere Jesukristo, etc.*

XLI.garren OTOITZ-GAIA

SEIGARREN DOATASUNA:

BIOTZAREN GARBITASUN ZUZENA

*Beati mundo corde,
quoniam ipsi Deum videbunt.*
Math. 7. 8.

**Zorionekoak biotz
garbizkoak; bada
oriek dira Jaungoikoa
ekusi bear dutenak**

Zertako egiñak ote gara gu, edo zertako jaioak, mundu onetan arkitzen garanok?- Geren Jaungoiko ezinobe-maitagarria zinki ta zuzen onesteko. Au da, bai, au, orain mundu onetan arkitzen garanon egitekoa; ta egiteko berberera etorriko dira jaiokizun arkitzen diran, ta gure ondoren etortzeko dauden andi ta txiki guziak.- Egiteko zuzen-onesgarri au guri guzoi eragin naiez da, gure Jaungoiko berak guri emanikako

lege ta manu guzi-guzia: *finis autem praecepti est charitas*. Tim. 1. 5.

Baña zein ote dira gure guzien artean, egiteko eder amoriozko au ongi ta zuzen; edo, bear den eran, egiten dutenak?– Oriek dira, batean ere uts-egin bage, egiten dituztenak, gure Jaungoikoaren lege berak bereisten dizkigun gauz andi ta txiki guziak.– Zorioneko egille zuzenak, era orretan gauz oriek egiten dituzten jendeak; bada egunen batez oriek mundu galgarri au emen uzten dutela, igan bearrak dira atsegin-kontentuz beterik arkitzen den Jaungoiko gurearen jauregira, ta zeruko doatsu guzien artera, ta orien eran, an Jaungoiko berari arpegiz arpegi begira egotera. Ori da, bai, guri gure Jesus maitagarriak, seigarren doatasuna agertu zigunean, agindu izandu zigun ondasuna.

Doatasun maitagarri ondasundun onek eskatzen ditu, bertze zenbaiten artean irur gauza. Lenbizikoa da, bekatuaren *loirik bageko anima bat*; bigarrena, oroitzapen onez beterikako *adimentua*; ta irurgarrena, naikunde onak eta asmo zuzenak dituen, *biotza*, edo *naimentua*.

Bai, lenbiziko lekuan doatasun onek eskatzen duen gauza da *anima garbi bekatu-gabeko bat*. Bada garbirik arkitzen ez den animak ez du maitatzen bere Jaungoiko maitagarria.

Eta aisa ta erraz erdisten den gauza ote da animen garbier au? Ez, anitzek uste duten baño neke ta arazo, edo egiteko geiago dakarren lana da, zorioneko doatasun onek eskatzen duen garbiera. Zergatik uste dezu?- Zeren gure anima gaisoak, Adanek ordu gaistoan egiñikako bekatuarekin gelditu ziran guztiz loituak, eta denbora berean bekatu gaistoen lokatzeetara, ta bide lizunetara guztiz makurtuak.

Gure anima gaisoen makurrera au azitzen ta anditzen da, guk, geren naiez, egiten ditugun bekatu berriekin; ta zenbat eta geiago ta andiagoak gertatzen diran gure bekatu gaistoak, anbat andiagoak da gure animen gaitzerako makurrera, ta anbat errazkiago sartzan zaizte anima gaisoei oroitzapen lizunak, gogoeta txarrak, eta naikunde galgarri-loituak: eta oriek guziak beren baitatik aienatzea, ta animak berak beren makurrerak zuzenduz ibiltzea, ta garbiak beti bizitzea, anitz neke, ta egiteko dakarren lan andia edo gurutzea da; aienatze ori alabaña, ta bere betiko gar-

biera erdisten dute anima gaisoak, igeska ta igeska dabiltzala begiratze arinetatik, aditze eroetatik, itzke-ta lizunetatik, eta lapin galgarri gaisto guzietatik; eta bidenabar ongi oartuak, erne, ta kontuz dabiltzala beren pausu, ta egiteko guzietan.

Eta au guzia zuk ongi-ongi ekustera, ekusiko dezu, bai segurki ongi, andia edo ez, anima gaisoak beren biotzak ongi garbitzea; ta garbiro beti, ta beren Jaungoikoa ziñez maitatzeko, bear den eran beti bizitzea. Zorionekoa ni, onenbat nekerekin badere, garbiera eder au nik noizbait erdistera!

2. Doatasun ekuste billagarri onek eskatzen duen bigarren gauza da, anima garbiak beren *adimentua oroitzapen onez*, ta, beren Jaungoikoagana zuzenduko dituzten pensamentuz beterik, idukitzea; oroitzapen onak alabaña, ta pensamentu, edo gogorazio bear bezalakoak dira gure biotzari, onetsi edo maitatu bear dituen gauzak agertzen diezten izarrak, edo Jaungoikoaren argiak, ibilli dedin, amorez dabillenean, zuzen-zuzen, ta batere uts egiten ez duela.

Oroi zaitetz, bada, noizean bein badere, nere anima, beldurrezko zenbait etorkizunez; ta, besteen artean, oroi zaitetz batzuetan, asmo-galdu-galgarriari, gogoeta zikiñari, ta, edozein lan txar lizun loiri dago-

kan gauza dela sulezeko erretzea, ta lertze arrigarria; ta ekusiko dezu, era orretako etorkizunaren beldurrak zein aisa kentzen dizkitzun oroitzapen ta gogorazio txar orietako naia, ta gogoia.

Oroi zaitez beste batzuetan bertze bidezko etorkizunez ere, edo oroi zaitez, ongi bizi diran anima garbien ondasun andiez, edo beren Jaungoiko maitagarriak oriei ematen diezten birtuteez, irabazbidez, ta atsegin garbiez; ta, ori guzia zuk kontuz ekusi ezkeru, zu saiatuko zara, bai, laster aski zere baitatik aienatzera edozein oroitzapen loi, naiz dela den txikiena.

Oroi zaitez orren ondoren, anima garbi on birtutesuak baizik, ezin sar ditezkeela Aingeruen artera, zeruko gloriara, ta Jaunari an atsegin ta kontentuz beterik begira ta begira beti, eternidade guzi-guzian egotera; ta, ekusiko dezu, nola era orietako oroitzapen garbietatik datorkizun ongi ta zuzen bizitzeko, ta bizitza garbi on batek eskatzen dituen gauza guziak zuzen egiteko, gogoia.

Beste zenbait aldiz oroi zaitezke zuk zere Jaungoiko maitagarriari zor diozun bazterbageko amoreaz: oroi zaitezke Jaungoiko beraren maitagarritasunaz; oroi zaitezke Jaungoiko berak zugatik egin izandu dituen anbat ondasunez, gauzaz, ta ontartez; ta zuk

maiz, usu, edo anitz aldiz izaten badituzu era orietako oroitzapen onak, izain dezu, bai, zorioneko Jaungoikoaren ekuste garbiak bear duten bigarren gauza, edo oroitzapen, pensamentu, ta gogorazio bear bezalako apaindurikako adimentua. Ala geldi dedilla nere au ere, nik gero noizbait arkitzeko, zorioneko Jaungoikoaren ekuste garbi orien artean zerbait leku. Bai arren, bai!

3. Zorioneko ekuste orien doaiasunak eskatzen duen irurgarren gauza da, tolesturik ez duen *biotz on zuzen*, bere Jaungoikoaren maitari bat: maita dezan maiz eta zin-zinki bere Jaungoiko maitagarria; ta maita ditzan, bere Jaungoiko berari atsegin egiteagatik, bere lagun-urkoak edo proximoak ere; ta maita ditzan, berak bera maita lezaten naiko luken bidez ta eran.

Ekusten dezu zenbat egiteko dakarren, ta zein gurutze ona bizitza guzian daraman, bere bi gauzamodu oriek egiten dituen edozein animak! egiten ditu alabaña, bi gauz oriek egiteko, bere Jaungoikoaren lege guziak manatzen diozkan egiteko ta lan guziguziak; eta guzi-guziak egiten ditu bere Jaungoiko berari atsegin ta gusto egiteagatik, eta bere lagun

urkoari begitan eman dezaken gauzarik txikiena ere egiten ez duela.

Erne ibilli bearco dezu, bada, ta kontuz, bai, goize-tik arratseraño au guzia, uts egin bage, zuk, eta zuzen-zuzen egiteko.

Au egiteko zuk, lenik billatu bearco dituzu otoitz-gai onetan ekusi ditugun anima garbi bekatu bageko bat, oroitzapen on zuzenez apaindurikako adimentua; ta biotz, gaitzerako makurtasunak utzirik, edozein gauz on egiteko ta bere Jauna ziñez maitatzeko, ederki prestaturikako bat. Irur gauz oriek billaturik, zuzen egiten dituenak, ekusi ditugun bertze biak, egiten du ekusten ari garan doatasunak eskatzen duen guzia.

Zorioneko umea ni ere, nik era orretan oriek egite-ra, emen bizi nazaño, bada ala nik oriek egitera, nik ekusiko ta maitatuko dut beti-beti, zorioneko biotz garbidun guzien artetik nere Jaungoiko ekuskari ezin maitagarriagoa. Ala gerta dedilla. Bai arren, bai!

4. Au guzia guk egiñagatik, egiñen ez dugu bein ere, guri gure Jesus maitagarriak, itzez ezezik egitez ere, erakutsi bageko gauzarik batere.

Bada Jesus maitagarriak, bizitu zen denbora guzian beti-beti iduki izandu zuen ezin garbiroago bere biotz eder guztiz maitaria; etzuen alabaña egin

bein ere uts andi edo txikirik batere, ta ezin egin ere zezaken, Jaungoiko-gizona zen Jesus maitagarriak. Eta orra non bere egitez guri gure Jesusek erakutsi izandu zigun, doatasun onek eskatzen duen lenbiziko gauza.

Era berean erakutsi zigun bigarrena; bada etzi-tuen Jesusek kendu beiñere bere Aitagandik bere animako begiak. Orain dadukan bezain gogoan ta bistan iduki zuen beti bere Aita eternoa gure Jesus maitagarriak.

Ekusten zituen Jesusek, bai, lurreko jendeak; baita berak egiten zituen, ta besteri eragiten ziozkan gauzak ere; baña bere begiak bein ere kendu gabe bere Jaunagandik; eta gertatzen zitzaion Jesus maitagarriari, mariñel on bati bere onzian dabillen denboran gertatu oi zaiona.

Badabil mariñela bein sokerara, bein maiera, bein onara, bein alde artara: baña, edo dabilela batetik bestera bere onzian mariñela, edo egon dedilla geldirik, eta nai duen bezala, bein ere gelditu bage dabill, onziak daraman bide guzian. Era onetan bada (baña milla, ta milloi bider ederkiago) ibilli zen Jesus, emen bizitu zen egun guzietan, bada puntu ta puntuoro, ta beti-ta-beti bere Aita maitagarriagana zijoan Jesus, beste edozein gauzetan ari zen denboretan ere.

Erakustearen ederra, aldi onetako Jesusen erakustea! Ikasten badugu guk ere; ta guk, ikasten dugun auzo emen egitera, zorioneko ekuste onen bidea daramagu, ta Jesusen ondoren dabilzanetatik gara.

Au da, au guk ikasi bear dugun ibillera; ta au guri guztiz ongi dagokigun gauza.

Au, ta lenago guk ekusi dugun gauza ezezik, erakusten digu guri gure Jesus erakuste on maitagarriak, bide onetan dabilzanak egiten duten irurgarren gauza ere; bada erakusten digu Jaungoikoagana begira dagoen biotz garbi-zuzen batekin gauza guziak egitea; zeren Jesusek egin izandu zituen bere bizitza guzi-guzian ezin zuzenago, ezin ederkiago, ta ezinobeki bere gauza guziak; bere gauza guzietan billatu izandu zuen Jesus maitagarriak bere Aita Jaungoikoari atsegin egitea; ta egin ere zion bein ere uts egin bage; ta bare gauza guzietan Jesusek billatu zuen bere Aitaren onra ta guru ona: ta billatu zuen, Jaungoiko-gizonak bezala, ta billa ziteken ederkien ederkiena.

A, erakusle egille on, Maisu eder Jesus maitagarria! ta zein aisa ikas dezakegun guk gerok nai dugula, nola ta nondik ibilli, zuzen ibiltzeko, zure ondoren. Ez dugu orretarako guk, zuri bein, ta berriz, ta maiz

begiratzea baizik; bada zu bat zara beti: zu beti zabil-
tza bide batez; ta beti zabil-tza ezin zuzenago!

Itsuak bezala ibilli gara gu oraindañoko geren den-
boran, ta gutitan ibilli gara, zuri begiratzen genizula.
Ala atera dira orain arteko gure ibillerak! Urte anitzen
buruan, bataiatu ondoan baño agitz eta agitz urrutia-
go geunden gu, nai genuen zure zerutik; eta geun-
den geren obenez, edo geren bekatu zikiñakgatik,
sulezeko atarian, ta sutan erretzen daudenen artera
erortzeko puntuan! ta an erori bagiña? Galduak gu
sekula guzirako!

Eskerrak zuri Jesus maitagarria, gu an aspaldi asko
ez eroriaz! Eta eskerrak zuri gurekin gerok egin dezu-
naz ere; bada urrikaldurik zu, gu bezein errumes
galdu txar errebezez, idekerazi dizkigutzu guri geren
begiak, ekus genezan guk non genbiltzan, ta zenbat
amiltegiren, ta galtzeko perillea artean, perill oriek
izutzen ginduztela bazen ere artu genezan geren gaiz-
kien dam-urrikia, ta gaurgero zure ondoren ongi,
zuzen, ta biziro ibiltzeko gogoia, pozik guk artu dugun
bezala. Onetan iraun dezagula guk, gu gerok illik gel-
ditu arte guzi-guzian. Bai arren, Jesus maitea, bai!

*Non intrabit in eam aliquod coinquinatum,
aut abominationem faciens.*

Apoc. 21. 27.

Zeru eder, Jerusalem santa, arkitzen da, dio san Joan Ebanjelariak, sartze-toki, edo bere atari guziak Aingeruz gordeak edo ingurutuak daduzkala. Jerusalem artako edertasuna ezin ederragoa da: ta ango argia ezin andiagoa, ezin buka ditekena, ta Jaungoiko berarena bezalako.

Jerusalem artan sartzen diranak illen ez dira bein ere: ez dute negar-biderik ekusiko, bein an sartu ezkerro; ez eta kezkarik, karrisirik, edo beste neke modurik ere: nekeak bukatzen dira, an bein sartzen diranentzat emengo beren bizitzarekin. Au ez da, atsegin-kontentua, Jauna bein berak, eta gero elkar maitatzea, ta betiko gloria-ta-gloria besterik. Emen ez bezalakoak dira ango, edo zeruko gauza guziak; eta guziak dira ezinobeak.

Ongi da; baña norenak ote dira gauz orren naigarrri eder oriek? Edo zein ote dira, zorioneko doatsu, gauz oriez betiko jabetzera, zeru orretan sartzeko dauden oriek? Emen aisa, emen beren gogora, ta, nai duten eran bizi diranak? Emen atsegin andiz, ta kon-

tentu luzez beterik beti arkitzen diranak? Emen, berak bizi diraño, beren gogoak ematen diezten gauzak baik, egiten ez dituztenak?

Ez, ez: dio san Joan Ebanjelariak; oriek zikiñak dira, dio, ta gauz ez-onak egiten dituztenak; era orretako gizon andreak zeru garbi artan ezin sar ditezken jendeak dira.

Zenetatik ote dira, bada, arako diran jendeak?

Negarti garbi onetatik. Bai; damuz, ta negarrez beren biotzak garbitzen dituztenak dira, arako diran emazteki-gizonak. Oriei, bai, oriei an sartzean, garbituko diezte Jaungoiko maitagarriak beren begietako negar guziak, eta, beren ordurañoako negar garbiakgatik emain diezte eternidade guziko atsegin-kontentutak.

Zorioneko negar-damu-garbiak, orrenbat ondasun ta atsegin irabazten dezuten damu-negarrak! Nereak gaurgero zuek izatera, nere, doatsu zorionekoa ni! Lenago nik zuek artu bagetik dira, nere oraindañoako negar-bide galgarriak eta bekatu zikin guziak. Oriek nik nere barrendik bein aienatzera, edo aienatu ezkerro, ez dute berriz, ez, sar-bide berririk emen arkituko. Zorigaistoan ez nien nik lenago ta lenago ere, len zutena galerazi! Nik len ori oriei galerazi banie, gaur

ez nintzan arkitzen ni, arkitzen nazan eran, edo arkitzen nazan bezain garbitu-bearra; ta gaur arkitzen nintzan ni nere Jaungoiko maitagarriaren gogo biontzean ongi-ongi sartua! Sar banendi gaurdanik bade-re! Eta sar banendi, sekulan, edo bein ere andik ez ateratzeko! Ala gerta dedilla: bai arren, bai!

*In timore Domini esto tota die;
quia habebis spem in novissimo.*

Prov. 23. 17.

Artu zazu zuk, emen bizi zaran arteko, ongi dago-kizun, ta gerorako uste onez beteko zaituen bide zuzen ondasundun bat.

Zer bide da, etorkizun onez beterik dagoen, ta emen bertatik ere onen ongi dagokigun, bide zuzen au? Bide au ote da lurreko ondasunez, ta urre-zillarrez beterik arkitzen den bideren bat?– Ez bada, ez: zeru-rako bidea da zorioneko bide au; ta, zerura igateko, ez dira lagunak onenak diru-ondasunak; astunak dira alabaña, edo guztiz pisuak.

Zer bada? Bide ori ote da jan-edan galantezko bideren bat?– Ez ta ori ere: arin ibilli bear du alabaña,

zerurako bidean dabillen edozein gizonek; eta era orretan ezin dabilke sabela bete, ta alferkeri nagian gau-egun arkitzen den gizona, edo sabel betetik datozen lan loietan ibilli oi dena.

Ote da bide on ori aragiaren atsegin-kontentuz beterik dagoen bidea? Ez eta ori ere.- Zergatik ote? Zeren atsegin-kontentu txar oriek usteltzen duten orien ondoren dabillen edozein, ta zeren orri kendu oi dioten zeruko gauzak ekusteko bear luken argi guzia, edo argi beraren puska ta zati anitz; ta, argirik bage, edo argi gutirekin dabillen bat ibilli oi den, ondatzera doan ontzi urratuan lo datzan marillenen eran.

Zer bide da, bada, zerura zuzen daraman gure Jaunaren bide on ori?- Ori da, dio Espiritu Santuak, egun guzian ikara bat, eta bere Jaunaren beldurrez beterik egotea. Era orretarako beldurtiak dira zeruko bidean biziro dabiltzanak. Oriek dira, bide orretatik atera nai dituenaren txistuari, edo oiuari ez aditu egiten diotenak; eta etsaiaren sareetan, edo tentuetan sartu nai ez dutenak. Oriek dira beren Jaunari emateko dauden kontuak alik ongiena zuzendurik daramaztenak. Oriek dira Jaun berak nai dituen present onak berekin daramaztenak, edo al dituzten lan on guziak egin oi dituztenak: eta orregatik dira, beren kontu guziak ongi

eman ondoan, zeruan sartu uste dutenak; eta sartuko diranak ango atsegin ta kontentu guzien jaun ta jabe izatera. Zorionekoak era onetako beldurrez beteak arkitzen diranak; bada oriek dira, uts egin bage, ta guztiz segurki erditsiko dutenak beren Jaunaren zerua, ta zeru bereko atsegin-kontentu-gloria. Saia banendi ni ere, orien eran emen bizitzera, orien bide beraz gero sartzeko orien beren artera. Nere Jaungoiko maitagarriak didada ibillera oriek eskatzen duten laguntza ta grazia; bai arren, bai!

*Quis ascendet in montem Domini,
aut quis stabit in loco sancto ejus?
Innocens manibus, et mundo corde.*

Ps. 23, 3.

Zein ote da, gure Jaungoikoaren mendira igateko prest arkitzen den zorioneko anima? Zein ote da, Jaungoiko beraren toki eder, zeru garbi-garbian beti egon bearra? Zeru, eternidade guzian Aingeru guzien lagun izateko dagoen anima? Zein zeruko Santu-santekin batean gure Jaungoiko maitagarriari begira-begira, ta

gloriaz beterik egon ditekena? Zein? baizik, eskuz ta biotzez garbiro dabillen gizona, dio Dabidek.

Baña zein ote da gizon ebille garbi biotz onezko au? Au da (baldin ezpadakizu) bati ere bere gauzarik kentzen ez diona. Au da berak, eta besteren gauza guziak, bear den eran zuzentzen dituen; edo berari ez dagokanik artzen ez duena, ez eta ukatzen ere, besteri dagozkanetatik batere. Au da goizetik arratse-rañoko bere gauzak, baita bizitza guzikoak ere, alik ongiena egin oi dituen; ta utsen bat zerbaitetan egin orduko, damuz ta urrikiz, ta aldatuz, zuzendu oi duena. Au da uts egiteko biderik bati ere eman nai ez likeona; au, al duen ona edozeni egiten diana: au, norinaibide zuzenetan, edo gauz onak zuzen egiten laguntzeko, prest dagoena.

Zerurako dagoen au da, eskuz bezain garbiro ta zuzen biotzez dabillen gizona. Au da bere amore onez Jaunaren amore bazter-bagekoari eranzun oi diona: au da, gogoeta ta asmo txar, zuzen ez dabilzanak, lenbaitlen bere baitatik edo beregandik kendu oi dituen gizona; ta, au da bera gorputzez lurean egonagatik, bere gogoz, biotzez ta naiez beti, edo maiz beintzat, zeruan sarturik arkitzen dena; ta au, arako ustean, bere gauza guziak bear den eran egiten, eragiten, ta

zuentzen dituen. Orra nolakoa den zerurako dagoen anima.

Era orretakoak ote gara zu ta ni, biok? Anima orienak bezain zuzenak eta garbiak ote dira gure bien asmoak, gure itzak, gure lanak, eta beste gure egiteko lan ta neke guziak?

Ez beintzat nereak, ez! Emengo gogoetak, eta asmo txar arin galduak arrastatu naute ni, ta eragin izandu dizkidate (nork daki) zenbat lan gaisto, oben, ta kulpa. Eta zer dakit nik, urratu ote ditudan, bear den eran beintzat, damuz, naigabez, ta ziñezko urrikiz orien kate astun pisu-arrigarriak! Edo zer dakit nik, barkatu ote dizkidan, nitaz urrikaldurik, nere Jaungoiko maitagarriak, beraren kontra nik egiñikako utsak, obenak, eta kulpa guziak?

Eta ark oriek niri barkatu badizkit ere, zer dakit nik, zer eran ta nola biziko nazan ni, datozen denboretan!

Baña zer egin uste dezu zuk orain, orain bezala?

Nik orain egin uste dudanada ziñezko damuz, ta Jaungoiko berak eskalzen den urrikiz, nere leneko zor guziak ateratzea; ta emendik aitzina, al dukedan bizitzarik onen bat egitea. Eta zorionekoa ni, nik au egitera, orain nik uste dudan eran, ta irauten dudala orain-

go nere asmoan arte guzian, edo bizi nazaño! Zer gerta ere, asi nadin ni, orain dagikedanetik, eta eska dezodan nere Jaungoiko maitagarriari leneko nere usten, ta bekatu guzien barkamentua, itzez, ta biotzez erraten diodala: *Nere Jesukristo, etc.*

XLII.garren OTOITZ-GAIA

ZAZPIGARREN DOATASUNA:

BAKEDIA

Beati pacifici: quoniam filii Dei vocabuntur.

ibid, c. 9.

Doatsuak, eta zorionekoak baketiak, bada oriei eman zaie Jaungoikoaren umeen izena

A.

Jaungoikoaren umeen izena izen andia da, anitz balio duen izena da, ta neke andiekin irabazten denean ere, aisa ta merke aski irabazten den izena. Ala irabazten dute berak anditu ondoan, Jaunaren manuak zuzen-zuzen, ta bear den eran, egiten dituztenak; eta besteen artean, baketiak.

Aur bataiatuberriak ere badute Jaungoikoaren umeen izena; baña orien izen ori, Jaungoiko berak doiarik ematen dien izena da; ez izen oriek berak irabazia. Guk orain billatzen dugun, ta ekustera goazen Jaungoikoaren umeen izen au, adiñetara diran bataiatuen izena da, ta izen, oriek beren lan onekin irabazia.

Jaungoikoaren umeen izen au irabaziko dutenak, garaitu bearko dituzte beren etsaiak; gerra da alabaña, Job Santuak dionaz, lurreko gure guzien bizitza; ta Apostoluak dio, ger onetan garaitzen ezpadituzte, edo galduak ezpadarabilzte, ta azkenian bazala, beren etsaiak, ez dutela iñola ere irabaziko gizonak Jaungoikoaren ume, zeruaren irabazleen izen au, ta izen onen ondotik datorren zeruko gloria.

Irabaz ditzagun, bada, guk, izen on eder au, ta izen berari darraikon beti-betiko zeruko gloria, saia gaitezen izen onek eskatzen dituen gauzak egitera, ta gerra bizira; ta ekus dezagun zer gerra den gerramodu au; ta nola egiten diran ger onetan, etsaiak garaiturik, izen andi au irabazteko egiten diran egitekoak.

Laur etsai-aldi dira Jaungoikoaren umeen izena erditsiko dutenak garaitu bearko dituzten etsaiak;

berekikoak batzuek, edo beti-beti berekin dituztenak; eta gañerako guziak *kanpokoak*.

Anima bakoitzak berekin dituen etsaiak dira, bere gorputza beinik bein, edo bere zain-ezur-aragi, bekatu etorkitik dena nasia; ta, aragi beraren nasieratik datozen galtzerako makurtasuna ta tirrikazioa. Anima beraren berekiko etsaiak dira, tirrikazioz suturikako pasioneetatik datozen azturak. Etsai oriek dira, anima gaisoak, beren gorputzetan arkitzen diran denboran, bat-batean ez izan arren, gutika-gutika badere garaitu ta eskura ekarri bear dituzten etsaiak; eragiten diela, niola ere berak nai ez lukeena, baña adimentuak, edo buru onezko ekuste garbiak agertzen diena, ta gure Jaungoiko maitagarriak bere Lege, ezin-zuzenagoan agintzen edo manatzen diena. Ori oriei eragiten dienak (naiz eragin dakiela bortxaz bezala, edo beren gogo gaistoaren, edo makurreraren kontra) egiten dute alde onetatik egin bear dutena; garaitzen dituzten beren lenbiko etsaiak; eta Jaungoikoaren ume baketien izenaren ondoren ongi ta zuzen dabil-tzanetatik dira.

Izen au irabazi-naiez dabiltzan animen etsai bigarrenak dira, beren lagun artetik otortzen zaizten, edo letozkien, naigabeak eta txarkeriak.

Badakizue zuek zer egin etsai-era oriek aisa garaitzeko? Bai: san Pablok guziori argiro aski adirazten diguna.

Baña zer adirazten digu guri geren Apostoluak, etsai oriek guk aisa garaitzeko? Aserre gaudenean, bakeak egitea; baketan arkitzen garan denboran bati ere erriertarako biderik ez ematea; naigaberako biderik ez oni, ez ari, ta ez besteri ezartzea: norbaitek guri ematen digunean, ez dagokigun bazterren batetik, eta, uste ez genuen txarkeriarekin, ezpaliz baño geiago, orri ez-begiratzea; gertatzen zaizkigun, besteren utsegite ta bidegabe guziak, geren Jaunaren izenean, ta gure onerako datozen ondasunak bezala pozik artzea, oriek egiten dizkigutenei, ta nori ere nai begi onez begiratzea; ta egin al ditugun on guziak guziei egitea. Au egiten dutenak aisa garaitzen dituzte beren bigarren etsaiak, eta Jaungoikoaren bakezko umeen izen ederrak erdisten dabilta. Ala ote zabilta zu ere? Bai? Bada ez da zer gelditu, ta erditsiko dezu zuk ere Jaungoikoaren ume baketiaren izen billagarria.

Izen au guri galerazi nai diguten irurgarren etsaiak ere geren lagunak aldetik datozkigunak dira; bada dira lagunak erriertak, lagunak aser-aldiak, lagunak elkar ezin-ekusiak, lagunak auziak, lagunak bende-

kuak, lagunen txarkeriak, oriek ematen dituzten erran-bideak, eta orien beren makur-ibillerak.

Oriek guziak, eta era bereko beste gaistakeriak ere zure etsaiak dira.

Badakizu zergatik? Zeren kendu oi duten lagun urkoen arteko bakea, ta grazia; ta zeren zuri ere, beren alegiñean, kentzen derozkitzuten zeruko bideko zere lagunak, eta Jesusen bidetik aterarik, eraman nai zaituzten sulezeko gaistoen bide zabal loi galgarrieta-ra.

Zer egin ote genezake guk, etsai-galgarri oriek garaitzeko, ta geren senide gaisoak, edo geren bideko lagunak zeruko bidera zuzen-erazteko, ta gure Jesus maitagarriaren aldera erakartzeko?

Oriei berei, elkar ongi artzen ez dutenean, non dabiltzan, ta nora doazen argiro ta zuzen adiraztea: ta bidenabar adiraztea, galduak dirala, beren Jaunaren amoreakgatik, eta Jesusek egin zuena egin naiez, elkarri barkatzen ezpadiote, elkarri egiten dioten edozein uts, txarkeri, gaizki, ta bidegabe; ta au adirazten diezun denbora berean, zuk oriei berei adiraztea, orain adirazi zaien ori egiten dutenean, barkatzen dieztela Jesusek beren obenak, beren kulpak, eta beren bekatu guziak; ori oriek egiten badute Jesus

beraren amore onez, ta elkarri ere Jaungoiko beragatik ongi naiez; ta adiraztea, oriek guziak barkatu ondolan, Jaungoiko berak ematen diela zeruko bere grazia, ta andik aitzina berak zuzen ibiltzera, zeru bereko bere gloria.

Au guzia zuk oriei adirazten diezula, ta zere palakuz edo nolerebait elkarganutzen badituzu zuk zere lagun urkoak, edo len aserre zebiltzana, garaituko dituzu zuk zere irurgarren etsaiak; eta, berebat egiten dezula zuk azkeneko zere etsaiekin ere, anima baketietatik zara zu, edo Jaungoiko maitagarriaren zorioneko ume bakenen izenekoetatik. Ez ote dezu zuk izan nai orietatik bat? Saia zaitez, bada, len agertu ditugunekin batean, etsai txar oriek ere lenbaitlen lertuak uztera.

Gure laurgarren ta azkeneko etsai txar oriek dira anima gaistoen txarkeriak, eta gure Jaungoikoa guztiz aserretzen duten orien bekatuak; eta oriek dira gure etsairik gaistoenak; dira alabaña, guk, geren buruak, eta mundu guzia baño geiago ta geiago maitatu bear dugun gure Jaungoikoaren kontra, beren naiez, edo anima berak nai dutela, dabiltzan etsaiak.

Nola garaitzen dira gure etsai orren galgarri oriek? Garaitzen dira, bekatariei berei guk lagunduz beren

kulpen barkamentua erdisten, orren aserretua dadukaten beren Jaungoikoagandik.

Baña nola laguntzen zaie orretan oriei?- Laguntzen zaie eskatuz, ta erakutsiz.

Eskatuz, bai, beinik bein. Nori ote? Jaungoiko maitagarriari. Zer? Urrikal dakiela bekatari gaisoei, zein ere diran beraren etsai gaistoak, ematen diela beren gaizki guzien ziñezko urrikimentua, ta ordu beretik ontzeko gogoan lan berean laguntzen zaie bekatari berei, erakutsiz ere, edo agertuz, bein beren bekatu zikin-galduen itsustasuna, ta oriei dagoten beti-betiko sulezea; gero bekatu berak kentzen diezten Jaungoikoaren graziaren edertasuna, ta zeruko gloria, denbora berean erakusten zaiela, beren bekatupe-loi-galdutik beren buruak ateratzeko, ta Jaungoikoaren grazi eder au irabazteko egin bear dutena; baita egin bear dutena ere, berriz berrira ez-bekaturatzeko; ta, irabazbide garbi zuzenez dabiltzala, zeruko merezimentu andiak egiteko.

Au egiten dutenak, edo era onetan bekatari gaisoei agertzen dieztenak oriek ikasi, edo jakin bear dituzten gauzak, zorioneko baketiak dira, ta Jaungoikoaren umeen izen ederra erditsi edo irabazi dutenak; egiten dute, alabaña, gure Jesus maitagarriak manatu zien

gerra ta etsai-pelea; baita gure Jesus berak, ori nola egiten den guri erakusteagatik, bere bizitza guzian egin izandu zuena ere.

Zer lan-modu ote zen Jesusek bere bizitza guzian egin izandu zuen lan erakuste zuzen ori? Lan modu ori izandu zen, beinik bein Jesusek ez egitea beiñere bere Aita Jaungoiko maitagarriak nai zituen gauzak baizik; eta egin, ta eraman izandu zituen orretarako, bere gorputz minbere ona anitz aldiz, ta bortizki nekatu ziotenak.

Lan modu berean aritu zen bidenabar gure Jesus maitagarria, munduan zeni bidegaberik egiten etziola; ta denbora berean egin izandu zituen mundu beraren, edo munduko guzien onerako ziran gauza guziak. Lan-modu berean aritu zen gure Jesus maitagarria, bende-kuz bezala, zerutik sua ekarrerazirik bazterrak erre nai zituzten Apostuluak palakatzen aritu zenean: baita munduko guzien artean, bakea sarrerazteko bideak itzez, ta lanez egiten aritu zenean ere: ta, orretan aritu zen bere bizitza guzi-guzian. Lan modu berean aritu zen Jesus munduko bekatu guziak urratu naiez, ta munduko guziak bere Aita maitagarriaren adiskidetasunera ta bere zerura zuzentzeagatik, eraman zitue-nean ere milla neke ta pena, ta gurutze batean, iltzez

Josirik, eman zuenean bere bizia, ta bere zañetan arkitzen zitzaion odol guzi-guzia.

Orra Jesusek, guk geren etsaiak garaitzeko, bake-tan gu beti bizitzeko, ta Jaungoikoaren ume onen izena guk irabazteko, itzez, lanez, ta nekez egin izandu zigun erakustea.

Baña egin izandu dut nik, oraindañoko nere denboran, Jesusek niri bere bizitzan agertu zidan lan eder au? Egin izandu dut nik, bein ere uts bat nik egiten ez nuela? Ez ote dut nik egin bein ere, nere aragi gaistokak nai zituen bidegabeetatik batere? Eskura ote dut nik beti-beti; ito, ta garaitu ote ditut aldi guzietan nere aragi sutuak izan oi zituen naikunde makurrak, eta gogoeta lizun guziak? Ez ote naz ni aserretu bein ere, nork-nai niri edozein txarkeri egiñagatik? Egin ote diet nik nerekin zebiltzan guziei, al nuen on ta ontarte guzia; ta bati ere bidegaberik egiten ez niola?

Elkarren eskura ote ditut nik, len elkar ezin ekusi zutenak; zuzendu ote ditut nik gaizki ta makur zebiltzanak? Urratu ote ditut nik orien bekaturako bideak? Palakatu ote dut nik, nere alegin guzian, aserre zegoen nere Jaungoiko maitagarria? Eta ongi ta zuzen ote nabil ni nere Jaunaren Legean, ta munduko guzien begietan? Zorioneko baketi doatsua ni, ni ala izatera;

ta ni Jaungoikoaren umeen izen onesgarria dutenetatik bat!

A! baña ez izandu ni oraindañoko nere bizitzan, era orretan beren lanak, edo gerrak egin izandu dituztenetatik bat! Nik askotan, ta askotan uts egin izandu nere lanik txikienetan ere! Nik, nere etsaiak garaitu bearrean, oriek ni askotan beintzat garaitu ta urratu izandu! Eta gaur berean ere nola arkitzen ote naz ni? Etsai beren mene galgarrian? Orien eskupean? Edo nola ote?

A, nere Jesus maita-maitagarria! lagun zakizkit arren, oriek garaitzen gaur, ta beti? Egin uste dut nik ere lan orretan, al dukedan guzi-guzia. Ori lenago ez egiñaz, ta zure ume onaren izena irabazi gabeaz dut orain damu ta urriki; ta ziñez alere. Indazu, arren zuk, damu onetan nik, eta nere pelean nere azken-asnase-raño irauteko grazia. Bai, Jesus maitea, bai, arren, bai!

*Nolite conformari huic saeculo,
sed reformamini in novitate sensus vestri.*

Ad Rom. 12. 2.

Ez da zer bizi, ez (dio san Pablok), mundu eroak nai duen eran. Munda eroak nai du, gabiltzan gu guziok onen gogara, ta aragiaren naikundez naikunde: baña era orretako ibillera ero ori debekatua daduka Jesusek bere Legeko mandamentu garbietan; ta ezin ar dezake, zeruko bide zuzenez ibilli nai dutenak.

Bide zuzen onez zerura nai dutenak, garbitu bear-ko dituzte beren begiak, beren bearriak, beren esku-oñak, ezpain-miiak, eta burutik oñetaraño-ko beren gauza guziak; edo egin bear-ko ez dute, beren gorputzeko zatirik txikienaz ere, egin bear ez den gauzarik batere: ta beren pasione makurrak, beren aztura gais-toak, edo gaitzerako bere tirrikazioak, gaizkiren bat oriei eragin nai dietenian, artu bear-ko dituzte dagoz-ten bezala, edo aldian eman beat-ko die aldarte gogor-ren bat edo beste; eta iutzi bear-ko dituzte eskura ekarriak, edo beren oinpean lertuak bezala.

Ori ezezik, egin bear-ko dute geiago ta geiago ere; bada egin bear-ko dute, bizitza berri on batek eskatzen duen edozein gauza: ta ibilli bear-ko dute gau, egun, ta beti ezin-kontuzago, edo kontuz ta erne; asaldatzen bazaizte ere barreneko beren etsaiak, eta aragiaren lagunak, galerazi ez dezoten animako beren bakea, ta egiñik dadukaten beren irabazia. Ori da, orain san

Pabloz gure Jaungoiko maitagarriak guri guziori erakusten diguna; ta ori berbera guk, ongi izatekotz, egin bearko duguna. Dagigun bada gure Jaunak laguntzen digula. Bai arren, bai!

Noli vinci á malo, sed vince in bono malum.

Ibid. v. 21.

Gaistoak gaistoarena du bere gogoan, gaistorik arkitzen den artean; ta gaisto galgarria ibilli oi da bere gaista denboran, onaren ona ezin eramanez, ta on gaisoari gaitzerako bideak ezartzen diozkala. Egiten diozka gaistoak on gaisoari bere bidegabeak; egiten diozka txarkeriak ere txarkerien gain; ta on gaisoari gaizkirik geiena egiten dion eguna da gaistoarendako, izan oi duen egunik andiena. Orra gaistoaren lana, ta egiteko guzia.

Eta onarena? Eta baketiarena? Edo Jesusen umearena?– Onen egitekoa da, Apostolu san Pablok dionaz, gaistoaren lan galduak eta bide makurrak urratzea; baña urratzea, ez bide galduz, lan gaistoz, bendekaz, ta bide bagez, baizik onez ta ondasunez; edo onaren lana da, gaistagiñari ongi egitea; gaistoaren itz gogor-

galduen itz on leunekin erantzutea, ta begitarte garbi on zuzenez gaisto beraren begiratze gordin-gogor zimel galduen. Ori da, bai, onak gaistoa ongiz garaitzea: ori onaren egitekoa; ta ori bera, bere bizitza guzian gure Jesus maitagarriak itzez ta lanez guri erakutsia.

Zorionekoak gu, ta Jesusen ume doatsuak, ori guk, emen bizitzen garan artean, zuzen egitera! Ori da, nik beintzat, nere Jesusek niri laguntzen didala, gaurdanik egin uste dudana egitekoa. Lagun zakizkit, bada, Jesus maitagarria, beti nik au ongi egiten: bai arren, bai!

*Providentes bona, non tantum coram Deo,
sed etiam coram omnibus hominibus.*

Ibid. v. 17.

Zorioneko bakean bizi diran Jesusen ume doatsuak, ongi artuak daduzke beren neurri guziak: eta egiten dituzte beren gauzak, gure Jaungoikoari dagozkan bezala, ta giz-artearen ere ongi iduriko duten eran.

Baketi berak ongi datoz beti beren lagun guziekin; ta, oriek ekusi orduko berea lagunaren artean naigaberen bat edo beste, edo ez-da-bai-daren batzuek, Ain-

geruen eran, dabilitza bakea sorrerazi naiez orien artean; ta au oriek erdisten ezpadate, ez onik izaten dute, ta ez ondasunik beren biotzetan. Anbat nai diete zorioneko baketi onak beren lagun-urkoei! Ain ongi derizte oriek gure Lege garbian bizi diranen bakeari, ta oriek elkar ongi ekusi-naiari.

Onela ote deritzat nik ere ori berari? Anitz alditan lagundu ote diet nik, bake on au billatzen, bake bera galdu zutenei? Eta, ori nik egin lekuan, ez ote diet nik zenbaiti beintzat galerazi len berak zutena; orretarako agertzen nieztela gaistakeriz nik, batzuen utsak bes-teei, edo zenbaiti erraten niela oriek jakin ere bear etzuken zeredo zer? A! bakearen galgarti-txar dollorra ni, era orretako gauzatik egin izandu badut nik bein ere!

Berriz ez dagidan nik, edo berriz bati ere nik ase-rre-bide berririk ez emateko, zentzuz ta ongi oarturik bizi bearra naz ni, ta egin bear ko dut nik alegiña nere lagun guzien artean bake on bat sarrerazteko, oriek eta nik, guziok, elkar ongi artzen dugula, maita deza-gun, bizi garaño, geren Jaungoiko maitagarria. Ala gerta dedilla, zuk bortizki gure lan onetan, guri lagun-duz, gure Jaungoiko guztiz ongillea. Bai arren, bai!

*Solitudine non pigri: spiritu serventes;
Domino servientes.*
Ibid. v. 11.

Orie, Jesusen ume-baketi onak, irauteko zuek zeren bide on orretan, utzi bearke dezue zeren alferkeria edo nagitasuna, ta erne ibilli bearke dezue zeren gauzetan, dio san Pablok. Baña begira; era orretan zuek ibiltzeko, biziro egin uste dezuten zuen ibillerak begiratu bearke dio, (ta zuzen alere) zuen Jaungoiko maitagarriari; edo, zuek biziro egin uste dituzuen zeren gauzetan billatu bearke dezue zeren Jaungoiko maitagarria. Zuek zeren Jaunari atsegin egitea, zeren Jauna bera serbitzatzea; ta ziñez maitatzea da zuen ta munduko guzien egitekoa.

Baña begira beren Jaun au maite dutenak, egiten ez dute bein ere, egin bear ez duten gauzarik txikiena ere; ta beren alegin guzian eragozten dituzte lagunurkoen oben guziak, utsak, eta kulpak. Orretan beti bazabiltza, zu, zuk maite dezu zere Jaungoiko maitagarria; ta zorioneko anima baketietatik zara zu, ta Jaunaren ume onen izeneko.

Baña beti lan eder orretan ari izandu ote zara zu? Ziñez, ta gogoz utzi ote dituzu zuk zere oraindañoako obenak, eta kulpa guziak? Eragozten ote dituzu, eragotzi alean, besteren oben kulpak ere? Ez ote diezu zuk noiz edo noiz zerbait bake ematen Jesusen etsai gaistoei, bekatuei, edo bekatuaren bideei? Zerorrek alde onetan ezin dagikezuna, egiten ote dezu, egin dezaken norbaitez zu zerori baliatzen zarala? Etxean, karrikan, bidean, lanean, ta non-nai ote zaude beti zu, oben-kulpa orien kontra, ta oriek galerazten?

Ai ene, ta zein guti! Ez dut nik, ez orretara oraindañoakoan orrenbat begiratu izandu! Ariñegi nik, ta ais-asko artu izandu ditut, nere Jaungoiko maite-maitagarriari zegozkan gauzak, eta nere anima gaisoarenak ere! Ni baño lenagoko eroen eran bizitzen nintzan ni, ta aisa beti, ta nere gogara! Ez dut nik nere oraindañoako denboran kasorik egin izandu besteren bekatuez: ta nereak ere ez didate, ez, atsekabe andirik eman izandu.

Nola bizitu naz bada ni, nere sortu-ordutik egungo eguneraño? Ero txar-galdu bat bezala! Ala da, bai, nere Jesus maitagarria! ala da! Barkatu, arren! nere orain arteko erakeria ta ibillera galdua, bada au barkatzen badidazu zuk, eta zuk laguntzen didazula, saia-

tuko naz, gaugero zuk nai dezun eran bizitzera. Orretan lenago ni ez asiaz dut damu; ta orregatik diot orain: *Nere Jesukristo, etc.*

XLIII.garren OTOITZ-GAIA

ZORTZIGARREN DOATASUNA:

BIDE ONEZKO NEKEA

*Beati qui persecutionem patiuntur propter justitiam,
quoniam ipsorum est regnum coelorum.*

Matth. 5. 10

**Zorionekoak bide onezko
neketan dabiltzanak:
bada oriena da zeruko gloria**

A.

Ez dira bide onezko nekeak, lurreko neke guziak: bekatuz bekatu dabiltzanak ere badituzte, lurrean bizi diraño, beren nekeak: bada nekez irabazten edo erdis- ten dituzte (askotan beintzat) lapurrak berak ere bes- teren diruak, edo ebasten dituzten beste gauzak: aintz nekeren buruan, ta, dituzten diruetatik zerbait zati galtzen dutela, izan oi dituzte aragizko loikerietan dabiltzan zikiñak, beren atsegin lizunak; eta, gañera-

ko gaizkitan dabiltzanak ere, edo beren gaistakeriak egin baño len, edo orien egite berean, edo gaistakeriak egin ezkeru, izaten dituzte beren naigabeak; eta zenbait aldiz anitz neke gogor ta pena; baño orien naigabeak, eta orien neke-penak ez dira, ez, orain ekusten gabiltzan zorioneko naigabe-neke-penak.

Badira, bai, gure mundo nekadi galdu onetan beste neke-moduak ere; eta orietatik zenbait berez onak. Orietatik dira beren bekatuakgatik, len gaizki bizitu diranei etortzen zaiztenak, baldin oriek beren bekatuen alde, ongi, ta garbiro artzen badituzte baño neke oriek ere neke onak, eta neke, zeruaren irabazleak izan arren, ez dira, ez, bidegabeko nekeak; ez eta oraingo aldian guk billatzen ditugun zorioneko doatsu onen bide onezko nekeak ere; bada orain guk billatzen ditugun nekeak dira ongi bizi diranen nekeak; eta neke, onak orietarako biderik ematen ez dutela, izaten dituztenak, eta eme-emeki eraman oi dituztenak: *si beneficientes patienter sustinetis, haec est gratia apud Deum.* Ep. 1. Petr. 2. 20.

Zorioneko neke oriek ez dira guziak, ez, bide batezko nekeak; izaten dira irur bidetatik batez datozen nekeak; bada etortzen dira, ontzat artzen dituen zorioneko doatsuagana, edo zeren au dabillen bere

Legeko gauza guziak, batean ere uts egiten ez duela, ta bear den eran, eginnaiez; edo zeren dabillen zuzenerazi naiez gaizki ta makur ibiltzen diranak, edo zeren egin nai dituen, bure Legeko gauzekin batean, beste anitz ere; ta egin nai duen ori guzia, ona baño ohea izateagatik, edo Jesusen ondoren ta eran ibilli naiez.

Zuri bakan, edo maiz etortzen zaizkitzun nekeak etortzen bazaizkitzu era onetako gauzaztatik, bide onez datozkitzun nekeak dituzu; ta, zuk ongi oriek, eta bear den eran artzera, zorioneko doatsu nekatia zara; ta doatsu-nekati, zere onezko nekeekin erreinu bat irabazten dezuna; ta ori irabazten dezuna, gure Jesus maitagarriak nai duen bidez ta eran; ori da alabaña justiziazko bidez, edo bide zuzen-zuzenez, ta onezko neke garbiekin gure Jaungoikoaren zeruko Erreinuaz zuk irabaztea; ta Erreinu ori bera, bide berez, ta era berean irabazi izandu zuen gure Jesus maitagarriak ere.

Ori da, bai, dio san Pablo Apostoluak; ori da, ori, ez besterik, ongi bizi nai dutenak eraman bear duten bidea ta ibillera: *omnes, qui pie volunt vivere in Christo Jesu, persecutionem patientur.* 2. Tim. 3. 12.

Zaude bada zu, zaude beti orretan; ta egizu zuk zere egitekoa jakiteko eder zuzen au dakizunak bezala; edo bizi zaitez zu, bati ere gaitzik egiten ez diozula, txarkeriz betetzen bazaituzte ere zurekin bizi diranak. Ez da zer zu aserretu zure esiak edo sasiak urratu, ta besteren ganaduak zure baratzean, zure zelaietan, edo zure alorrean sartzen diranean: eta zure itxean, zure ganaduetan, edo beste zure gauzaren batean bidegaberen bat ekusten dezunean ere.

Gezurrez, ebatsiz, edo nolainai zere gauzaren bat kentzen dizutenean; edo zuri zere gauzak galerazi naiez dabiltzala oartzen zaran aldietan, gora zazu zuk zere burua zere Jaungoikoagana; ta, ezaguturik (orduan zuk ezagutuko dezun bezala), neketan bizi bearak dirala, ongi ta zuzen bizi nai dutenak, eta ala bizitu izandu zela gure Jesus maitagarria ere, errazu, itzez nai badezu, edo biotzez badere, aldi orietarako Job santuak, era bereko aldi batean erakutsi izandu ziguna; edo errazu: nere Jaungoiko ongille maitagarriak emana da, edozein gauza, ta nik dudan guziguzia, ta ezin niri niork kenduko dit, den zatirik txikienik ere, nere Jaungoiko berak artarako eskurik ematen ez diola, edo ari ori egiten ez iuztera. Kentzen badidate, bada, noizbait niri zerbait, edo galtzen baditut nik

gauzaren batzuek, kentze, ta galtze oriek izain dira, aldi artan niri dagozkidan gauzak: agi dedilla bada, edo gerta dedilla, nere onerako dela, nere Jaungoiko maitagarri berak dakien guzia.

Au zuk erran ondoan egiten badezu dagokizuna, edo egiten badituzu zuk zere gauzak bide onez, ta asaldatzen etzarala, zu izain zara, bai, bide onezko neketan dabiltzan zorioneko zeruaren irabazleetatik bat.

Ekusten badezu noizbait zuk, zu geldi-geldi egonagatik, eta bati ere gaitzik egin gabe, ez daudela geldirik, ez, zurekin jarduki nai dutenak: ekusten badezu zuk eskeka dagokizula emendik bata, ta andik bestea, bati ere zuk ezer zor ez izan arren: ekusten badituzu zuk, lagun onen biderik bageko auzia edo pleitoa, ta beste aren marmarioa: ekusten badezu zuk, gizon batek batetik, eta besteak bestetik ematen dizkitzula anitz naigabe, neke ta pena, ta guzien artean laburtzen dutela zure osasuna, baita ondasuna ere, sar zaitetz zu naiez ta gogoz zere biotzeraño; ta, an ezaguturik begira dagokizula zuri zere Jaungoiko ekusle maitagarria, errazu alik emekiena: A Jauna; ta zer dakit nik zer den niri aldi onetan ongien dagokidana! Aisa bizitzera ni, ta naigaberik batere bage, agian galdua

nintzake ni! Zuk badakusazu, bai, orain nik darama-
dan gurutze-neke-kezka guzia! Zuk ala nai ez izatera,
ez nuke nik era onetako nekerik orain eramain: baña
zuk, nere Jaungoiko maitea, ala nai dezun ezkeru, nai
dut nik neronek ere; ta, eraman dezadan nik au, zuk
zerorrek nai dezun eran, eskatzen dizut nik orretarako
bearko dudan laguntza, ta grazi guzi-guzia.

Au zuk egin ondoan asitzen badira (bati ere zuk
artarako biderik eman bage) bata zuri begitan ematen
egin ez dituzun txarkeriekin, bestea zuri asmatzen
zuri bein ere gogora etzaizkitzun erakeriak; erraten
au, zu zarala zaran ez bezalakoa; ura, ez dakizula zuk
non dezun zere burua; eta beste anitz, gogo gaiztoak
eman al diña asmazio, ta gezur: Onela edo beste edo-
zein bidez urratzen dizutenean zuri zere ondra, izen
ona, ta opinioea, errazu zuk eme-emeki zere baitan,
ta zere Jaungoiko maitagarriaz oroitzen zarala: ez dut
nik oraindanoan, ez, era onetako gauzarik egin
izandu; egia da: baña nori eskerrak? Egin ez nitzake
nik, oriek guziak baño agiz gaistoagoak eta gaistoago-
ak ere: Eta nerez ni ez nago beti, edo geienean bein-
tzat, artarako prest, eta prestegi ere?- Zertarako ote
da bada, oriek nik egintzat aditzea? Egin ez ditzadan
nik bein ere; ta, ez egiteko presta nadin ni, emen ber-

tatik nik nere Jaun maitagarriari bere grazia ta laguntzak eskatzen diozkadala. Eskatzen dizkitzut, bai, nere Jaungoiko maitagarria; ta eskatzen dizkilzut umill-umilki, ta guztiz ziñez. Ez dagidala nik, nere Jaungoiko maitagarria, gauz orrelakorik bein ere, ta darausala mundu eroak, nai duena.

A, zer mintzoera, era onetako mintzoera! A zein itzkuntz ederra, era onetan mintzatzen diranen itzkuntza! Au ote da, nik nere oraindañoko denboran erabili izandu dudan mintzoera, edo itzkuntza? Au ala dela, justiziazko, zuzentasunezko, edo bide on-onezko nekeak daramazten zorioneko doatsuetatik, beren gurutze onarekin Jesusen ondoren dabiltzanetatik, eta zerua ederki, ta anitz ondasunekin irabazten dutene-tatik bat izandu naz ni; ta, era bereko, datozen aldie-tan, au berau nik egiten dudala, irabazten dut nik beti-betiko nere Jaunaren zeru bera; ta irabazten dut nik au, nere Jesus maitagarriak irabazi izandu zuen era berean; bada Jesusek au irabazi izandu zuen, anitz neke-modu arrerazten ziozkatela, ez zeren egiten zituen gaitz, edo gaizkiren batzuek, baizik bere bizitza zuzenagatik, eta zeren egiten zuen beraren Aita eter-noak nai zuena; ta ala ere berak artzen zituela guziak, ezin emekiago, ta pazientzia ezinobean.

Au guzia badaki onela dela, dakienak zer eran arkitu oi zen gure Jesus maitagarria emen munduan bizitu zen denboran; eta dakienak, Jesusek emen ekusi, aditu, ta eraman izandu zuena bere erritar eskergabeetatik, fariseo gaisto ta judu gogorretatik, eta beste jende-modu guzietatik, Pilatosen manuz gurutze batean josirik illa iutzi zuten artean.

Baña gure Jesusen eran, ta adirazi ditugun bezala, artu ote dituzu beti zuk zere onezko edo justiziazko neke guziak? Ez ote diezu zuk gaitzik egin bein ere; ez ote diezu zuk erantzun zerbait, gaizkiren bat egin izandu dizutenei?

Ontzat beti artu ote dituzu zuk, eta zere Jaun onaren izenean, lagun onak zuri egin dizkitzuten txarkeri guziak? Gaisto guzien bidegabei begiratu ote diezu zuk beti, zere Jaunaren eskutik zetozkitzun irabazbideei bezala? Eskerrak beti ematen ote zeniozkan zuk zere Jaungoiko maitagarriari, era onetako bere irabazbide guziakgatik?

Ez ez, nere Jaungoiko maitagarria, ez, askotan beintzat, ez! bada agitz mindurik uzten ninduten ni, aintz aldiz beintzat, noizean bein izan oi nituen nere, era orretarako nekeak; eta aldi orietan ibilli oi nintzan ni, tiratu dioten arriaren ondoren ortzka dabillen zakur

sutua bezala; ta denbora berean erraten nuela, nekatu ninduenagatik, nork daki zer; oroitu bearrean ni, nere nekeak niri nere onerako bidaltzen zizkidan nere Jaungoiko maitagarriaz!

A nere eroegia! A! ta zein andiak ziran, aldi orieta-tik edozeñetan nik galdu izandu ditudan ondasunak! Baldin baneduzka orain nik oriek guziak, zein aberatsa ni gaur, ta zein zorioneko neke-eramallea! Orain nik dagikedana da, leneko utsez damuturik, uts berririk ez egiteko asmo on bat artzea.

Artzen dut bada, bai, gaur bertatik; eta pozik alere; ta, lenago au ez artuaz ongi damuturik arkitzen naz ni gaur. Nere Jaungoiko maitagarriak didala niri, oraingo nere asmo on onetan irauteko, ta, artu bear diran gaurgeroko nere neke guziak artzeko; ta bidena-bar irabazi andiak egiteko grazia. Bai arren, bai!

*Oportet contristari (vos) in variis tentationibus,
ut probatio vestrae fidei, multo praetiosior auro
quod per ignem probatur) inveniatur.*

1. Petr. 1. 6.

Ezin zerurako dira, garbi-garbiak arkitzen ez diran animak. An sartuko diran animak, ara baño len iutzi bear dituzte beren oben-pitsak, eta loikeririk txikiena ere. Oben-loi-pits oriek iuzten dituzten anima ez-garbiak kezken, naigabeen, tentuen, ta era bereko anitz nekeren arri tartean; bada, san Pedrok dionaz, animak garbitzen dira urrearen eran; ta urrea ez da garbitzen, sutan urtuz ta urtuz baizik.

Eta nik, oben txikien pitsak ezezik, bekatu andien loikeriak ere nere animan sartu izandu ditudanak; nik, obenez oben, ta kulpaz kulpa nenbillela, aztura gais-toen lokarri zikiñez nere anima loturik dadukadanak, zenbat nekeren su, zenbat naigaberen egur, ta zenbat urrikiren ta damuren ur bearko dut, nere au ongi garbitzeko? Au nork adiraz! Gogaratzekak berak ikara iutzi lezake, ni bezain zentzu gutizkoa ez den edozein anima!

Baña anitz ikaratu ote naute ni oraindañokoan, nere ez garbierak, edo nere anima gaiso onetako zikintasunak? Zorionekoa ni, orrelako zerbait ikararia sartu izandu balitzait niri, nere lenbiziko bekatura nintzanetik! Ez nuen agian bekatu berririk egiñen nik, onek bein ni beldurtu ezkeru; ta gaurkotz nere animatik kenduak zeuden nere bekatu txar onen zorrak, eta

loi-pits guziak; eta geroz nik artuko nituen nekeak izain ziran justiziazko, bide onezko, ta anitz irabazizko nekeak.

Baña ez naz, ez, ikaratu ni, ori ikustez ezezik, bekatu berriak eta berriak egiñagatik ere: ta arkitzen naz ni gaur kulpaz, zorrez, ta loiez ongi betea! Jaungoikoak didala berririk ez egiteko, ta lenen atzaparretatik, eta orien zarretatik datozen loikerietatik, edo itsustasunetatik lenbaitlen irteteko grazia: bai arren, bai!

*Conjungere Deo, et sustine,
ut crescat in novissimo vita tua.*

Eccl. 2. 3.

Zuk zerez, eta zere Jaunak laguntzen ez dizula, ezin dagikezu gauzarik batere; baña zuri ere Jaunak lagundu ezkerro, badagikezu zuk edozein gauza, ta, zerorrek nai dezun guzi-guzia; bada indar gutikoa izanagatik zure besoa, indar guziak dituen da zure Jaungoikoarena; ta bien artean bada, edozein gauzetarako bear den guzi-guzia.

Zabiltza bada zu beti bat egiñik zere Jaungoikoarekin, ta aziko dira zure indarrak, edozein gauz on egiteko, ta Jaunaren Lege onak ekarri oi dituen neke guziak eramateko; ta oriek zuk ontzat artzera, zere Jaun beraren indarraz baliatzen zarala, egiñen dituzu zuk emen bizi zaraño, zeruko irabazi anitz eta agitz andiak; eta erditsiko dituzu gero zero berean atsegin-kontentu andiak, eta Jaungoiko beraren gloria. Ala erraten dizu Jaungoiko berak Eskritura santaz.

Ongi: baña artu naiko nazu zuk zugana ni, nere Jaungoiko maitagarria? Eman naiko ote derezkidatzu zuk niri zere indar andiak eta laguntza? Lagundu naiko ote didazu zuk niri nere neke onak eramaten, ta nere lan zuzen oriek egiten?

Ni bat zurekin egin ezkerro, bai, nere Jaungoiko maitagarria, bai; edo bai, nik zuzen egitera nere gauzak, edo nik, zuk nai dezun eran egitera, zuk zerorrek erraten, manatzen, ta adirazten dizkidatzun guziak.

Nai dezu zuk au, nere anima, zere Jaunaren laguntza indartsu zorioneko onegatik?

Bai, nai dut, bai, nere nai on onetan ere nere Jaungoiko berak laguntzen didala. Prest nago, bai, nere Jaungoiko maitagarria, zuk nai dezun guzia zuzen egiteko. Ori guzia bertatik egiten asi-naiez nago; ta orre-

tarako zure begira nago, edo zure laguntz-indartsua-
ren begira ta uste. Eskatzen dizut nik alik zinkiena; ta
ez au, ez gaur zuk niri ukatu, nere Jaungoiko maitaga-
rria; ez arren, ez!

Vae, cum benedixerint vobis omnes homines!

Luc. 6. 26.

A gaisoak, gaistoen lausengaz beterik bizi zarazte-
nak! Gaistoen eran zuek ez bizitzera, ez likezue oriek,
ez, begiratuko ere, edo oriek zuei begiratzekotan, liza-
ke begitan zuek artzeko, ta istaz, ta irriz, ta asm-al
adina gaistakeriz zuek zikintzeko. Zikintzen ezpazai-
tuzte; ta, zikindu bearrean, elkarren ezagunen ta adis-
kideen gisan mintzaten badizue, gaisoak zuek! bada
orien erakoak bide zarazte zuek ere, edo oriek bezain
gaistoak; dakizuen bezala, zorigaistokoak dira; galdu
bearrak dira, ta erre bearrak dira beti ta beti, ta Jaun-
goikoa Jaungoiko den artean!

A nere Jesus maitagarria! Ez dut nik nai, ez, gais-
toen lausenga galduen zatirik batere! Dabidek bein
ziona (Ps. 140) diot orain nik, eta errain dut beti, bizi
nazaño: Izan bitez (niri zaidanagatik) gaistoak, diran

aberatsenak, diran andienak, eta diran esku-emalleanak; ez dut nai nik orietatik batekin ere joan etorririk; ez dut sartu nai nik orien jolas eroetan; iges egin nai dut nik orien bideetatik; bada orien bide guziak beteak arkitzen dira beatztopez, eror-tokiz, lakioz, edo lazoz; ta, era orretako bidez dabiltzan animak erortzez erortze dabilta; ta, diran guziak loituak, beltztuak, eta galduak.

Zorigaistoan nenbillen ni lenagoko nere denboretan, bide galgarri orietako nere atsegina txar galduen ondoren; bada orien ondoren nenbillela ni gelditu nintzan, anima zikindu orien eran; ta baditut nik oraindik, bai noski, orduko nere erortzeetako karramistak, eta kalteak ere!

Daraustela bada nai dutena, nere gauz ta ibillera berrien gain lenagoko nere lagun gaistoak; ez dut berriz, ez, nik orien artera itzuli uste. Berriz aratzen banintz ni, berriz ere oriek galduko nindukee ni beren egiteko ta ibillera zikin galgarri gaistoekin, ta azkenean eramain nindukee beren betiko sulezera.

Ez dut nik nai, ez, erretzen egon an oriekin batean; ez eta bakarrik ere. Zerura nai dut nik, Aingeru guzien, ta ango onen lagun izatera. Arako banaz ni, sartu bearko dut, bai, bein ta berriz ezezik, askotan ta

askotan ere lurreko gaistoan maldiziozko, ta milla nekezko gurutze-pean: baña ara nai dut nik, onela badere; ta orretarako nai dut nik, pausuren batean nik uts egin orduko, ta bear ez den gauzaren bat egitera noan denbora berean, itzez, ojuz, ta alde guzietara izu nazaten onak, eta nere Jaungoiko maitagarriak orretarako daduzkan gizon guziak; eta orduan nik orietara aserretu lekuan, eskerrak eskerren gain emain dieztet beren mintzoera ta itz egite gogorragatik.

Nere Jesus maitagarria! Zere gurutze-pean nigatik zabilzan nere Jaungoiko-gizon ezin onagoa! zurea da, bai, edo zuk emana, nere barren onetan nik arkitzen dudan oraingo nere asmoa: ta zure ondoren ibilli-naia! Eskerrak zuri ondasun onegatik ere, gañerako guziak-gatik bezala! Indazu arren, beste anitz bezala, au ez galtzeko bear dudan zure laguntza ta grazia. Eta ariñoago ibilli nadin ni, ta biziroago zure gurutze bidean, ta zu bein ere nere begietatik galtzen etzaitzudala, kendu bear didazu oraindañoiko nere utsen, nere obenen, ta kulpa guzien karga guzia. Ori eskatzen dizut, damuz ta urrikiz beterik erraten dudala: *Nere Jesukris-to, etc.*

XLIV.garren OTOITZ-GAIA

BEKATUAN DAUDENAK EGIN BEAR DUTENA, BEREN DOATASUNA ETA ZERUA IRABAZTEKO

Bere legea, legeko doatasunak, eta zerurako bide zuzen au agertu zituenean, guziendako agertu zituen gure Jesus maitagarriak: *Dicebat autem ad omnes.* Luc. 9. 23.

Baña zer? Zerura ditezke bekatu-pean arkitzen diran gaisoak ere?– Bai, berak nai dutela.

Nola ordea?– Beren gurutzearekin; ta zeruko doatasunak irabazten dituztela.

Baña nola ori oriek egin dezakee, eri badautza gaisoak, edo bekatzuz illak?– Lenik erdisten dutela zeruko graziaren biztuera, edo bizitza.– Lenik erdisten dutela zeruko graziaren biztuera, edo bizitza.

A, baño nola ill batzuek ardits dezakee beren bizitza?– Nork berea orretarako egiten duela.

Batzuek baño besteak illagoak dautza, edo batzuek besteak baño bekatari andiangoak dira edo gaistoagoak; eta gaistoena ez dira bizten, edo ez dira gaistoena gañerako bekatariak bezain erraz beren

bekatupetik ateratzen. Baña guziak aterako dira, beren aldetik egin ezkeru egin dezakeena.

Badira bekatariak, oarkabean bezala bekaturatzen diranak; badira bekatariak, pasionez bekaturatzen diranak; baita oituraz bekaturatzen diranak ere. Orienez biztea, edo bekatutik irtetea, da oraingoan ta urrengo bi otoitz-gaieran ekusi bear duguna, ekusiz bidenabar Jesusen irur milagro edo irur illen biztutze; zeren, aldi orietan gertatuak agertzen duen, irur bekatari aldieta-tik bakoitzak egin bear duena, bere Jaunaren grazia erditsi, ta Jesusen ondoren bere gurutzearekin zuzen ibiltzeko.

A.

Aur illberri baten biztea; ta indar guztiko bekatarien graziaraztea

Bekatarietatik batzuek bekaturatzen dira, oartukabean bezala, edo zeren ezagutzen ez dituzten, ongi beintzat eta biziro, bekatuaren itsustasuna, beren Jaunari beren bekatuekin ematen dioten aser-bidea, beren bekatuarekin galtzen duten zerua, bekatuari

dagokan betiko sulezea, edo beste zerbait orrelako gauza ta egia: edo bekaturatzen dira zeren, len au guzia ezagutu bazuten ere, bekaturako tentua etortzen zaienean, orrenbat oartzen ez diran era orretako gauzetara, ta aisa garaitzen dituen, indar gutizkoak bezala, beren etsai amurratuak.

Era onetako bekatarriak dira, bekataririk ez gaistoenak, eta urrikalgarrienak: eta orregatik dira, bekatarri gañerakoak baño errazago Jesusen grazia erdits dezakenak. Au guri adirazi zigun gure Jesus maitagarriak, ill berri baten biztuera errazarekin, edo errazki berak egiñarekin.

Gure Jesus maitagarriari, predikatzen arkitzen zen batean, joaten zaio Jairo zeritzan gizon andi, Sinagogako Nagusi bat; eta, au bertan belaunikaturik, erraten dio; Jauna, oraintxe il da amabi urteko nere alabato bat; atoz arren, zere eskuz ura ukitzera, ta bertan bizturik uztera.

Jaikitzen da, luzatu gabe, Jesus, zegoen tokitik, eta badoa neskatx illaren aitarekin onen etxaldera. Illaren itxean sartu orduko, arkitzen ditu anitz, doluz ta negarez ara joanak. Badoa guzien artetik illaren gelara. Artzen du an eskutik aur illa, ta erraten dio: Jaiki zaitetz, aurra. Eta au Jesusek erran orduko, jaikitzen da

bizirik aurra; ta badabill, eritu ere ezpaliz bezain sendo ta zuzen. Manatzen du Jesusek, eman dakiola jatera; ta arritzen dira au guzia ekusten dutenak.

Ekusten dezu zuk, zein aisa, ta erraz itzulerazten duen Jesusek aur illaren gorputzera, andik atera zen anima; ta nola uzten duen aur illa bizturik, eta eritasunik gabe, begiak iste-idikitze batean bezala?

Eta au egitan dakienak ez ote du jakiñen nola bere graziaren bizitza itzul-erazi, ura bere naiez ta bekatuz galdu izandu zuen animara, ta nola anima bera iutzi batere bekatu-rik gabe, ta zeruko graziaren bizitza ederrarekin?

Aitor zazu, bada, orain zuk, au ekusi ta badere, bai dakiela gure Jesus maitagarriak, bekatuz illak arkitzen diran animak bizten; ta aisa alere; ta biztuko dituela biztu nai dutenak, beraren ondoren gero, ta beren gurutzearekin, edo gure legeko gauzak zuzen egiten dituztela, bertatik asitzeko.

Aitortzen dut, bai, nik au guzia, nere Jesus maitagarria; ta aitortzen dut nere atsegin andiarekin alere. Eta nik au onela ezagutu ondoan eskatzen dizudana da, ez nazazula bekatuz berriz iltzen iutzi: ta, berriz ill ez nadin ni, bete nazazula zuk zere graziaren indarrez ta laguntzaz.

Baña zergatik biztu ote zuen Jesusek onen laster ta aisa aur neskatz ill berri au? Itz bi aditu orduko aur beraren aitagandik, badoa Jesus illa biztera; ta gorputz illaren alderatzen deneko, artzen du eskutik; eta, jaiki dedilla errate batekin, itzultzen dio bere bizitza ta osasun osoa. Zergatik au, edo zeri dagokala?– Guri adirazteko zein errazki ta laster urrikaltzen den Jesus maitagarria bekatari gaisoez, bekatari berak bekatu-ratzen diranean, ez Jaungoikoari gaizki naiez, ez eta pasionez edo aztura gaistoz ere, baizik oartukabean bezala, ta indar guti izanez beren etsaiak garaitzeko, edo zeren diran zeruko biderako, ta beren etsaiak garaitzeko, indar gutikoak, eta agitzen edo gertatzen zaien zerura daraman mendiko bidean, ta beren etsai-tentuekin, Jairoren alaba aurrari, bere oatzean izandu zuen eritasunarekin gertatu izandu zitzaiona, edo umore gaistoz, edo oikura galgarriz beteak ez egon arren, eritasun txar, edo tentu-aldi ez andian, indar gutikoak bezala, bekatuaren ortzetan illak gelditzea, aur ura bere eritasunarenetan bezala.

Orrela bekatu-ratzen diran animak zer egin bear ote dute, beren bekatuaren atzaparretatik lenbaitlen atera, ta zeruko graziaren bizitza ta osasuna erdiste-ko?– Beren bekatu- orduko mandatari onak, eta

bekatutik atera-nai beroak igortzea edo bidaltzea Jesus onagana, ta Jesus maitagarriari negarrez ta umilki eskatzea: ta al badu, Jairok bezala, belaunikaturik. Zer ote? datorkiola, arren, eskua ematera, ta bekatuaren atzapar gaistoetatik bere anima ero-galdua ateratzera, ta indarrez ta argiz beterik uztera, utzi oi duen bezala konfesio damutsu on zuzen garbi batean; baña bidaldu bere nai, gogo on, ta desir oriek, gerozkoan ongi bizitzeko itarekin; ta, agertzen zaizkan etsai ta tentu galduak garaitzeko asmoan; oriek garaituz, ta bear diran gauzak egiñez dabillen bere bidean, bein ere berriz bekatura bage.

Baña zer gauzak ote dira, oarmen, ta indar gutizko bekatariak egin bear dituen gauzak, bekatutik bein jaiki ezker ez berriz bekatutzeko?

Aur gazte biztuak egin zituenak bezelako bi. Zein dira aur ark egin izandu zituenak?- Ibiltzea, ta jatea. Bai: oartze andirik ez dezun bekataria, ibilli bear dezuzuk zere gauzak egiterakoan, sulezeko etsaiaren, mundu eroaren, ta zere aragiaren deiei, txistuei, ta tentuei ez-aditu egiten diezula; zeren, ori guzia era orretan egin lekuan alferkerian arkitzen baziña zu, ta Jesus maitagarriaren ta zere buruaren etsai galgarriekin zenerdukala, nola oriek diran anitz dakitenak,

atsegin txar galgarriak zuri eskeñiz aisa liluratuko edo engañatuko zinduzke, aurrak goisoz, intxaurrez, madariz, edo nolanai engañatuko oi diran bezala. Orra aur biztuak eginikako, ta zuk ere egin bear dezun lenbiziko gauza: kontuz ta zuzen ibiltzea.

Aur berak egin zuen, ta zuk ere egin bear dezun bigarren gauza da jatea, edo ongi komuniatzea.- Indar gutizkoa zara zerez, dakizun bezala, ta artu bealko dezu zuk noizean bein Komunione santuko janari indartsua; bestela azpirako zaituzte zere irur etsai galgarriak, edo orietatik batak edo besteak; eta kenduko dizute zeruko graziaren bizitza, edo zerurako illa bezala utziko zaituzte oben-kulpen ezpata zorrotz-galgarriarekin.

Orra bada, oarmen ta indar gutizko bekatariak egin bear dutena, Jesusen ondoren beren gurutzearekin zuzen ibiltzeko. Erortzen badira noizbait gaisoak, eta zikintzen badituzte beren animak berak eginikako bekatu gaistoen loi galduan, garbitu bear dituzte lenbaitlen Konfesione bateko iturrian; ta, era orretan biztu, ta garbitu ondoan, igan bear dute Komunione santuko maiera; mai berera bear dute andik aitziaña noizean bein badere, aldian andik indar berriak ateratzeko: ta jan bear dute bereala Komunioko maiean;

ibilli bear dute gero, gelditu gabe, beren gauzetan: baña ibilli bear dute ongi oarturik, toki loitietan ta pausu gaistoetan oñik ez ezartzeko.

Au guzia egiten duten pekatarietara pozik ematen die bai, Jesus maitagarriak, berak ongi bizitzeko bear duten grazia ta laguntza; ta eramaten ditu gero berekin batean bere zeruraño, arako orien ordua etorri orduko; eta eramaten ditu graziaz, doaiez, ta birtutez ongi beteak.

Era onetako bekatarietatik izandu ote zara zu ere, adizten nazun anima?– Bekaturatzen nintzanean beintzat, bai: bai, nere damurako!

Eta egiten ote zenuen zuk gero, era orretako bekatariak egin bear dutena? Edo aur ero baten eran bekaturatzen ziñanean zu, damutzen ote zekizun zuri andik laster, ta konfesatzen ote ziñan zu, batere luzatu gabe.– Ai ene, ta zein guti! Nere gaizki-egiñak bereberealakoan erretzen ninduen zerbait ni, ta illuntzen zidan nere biotz txar minbere au; baña aurrarenak ziruditen orduko nere erretze ta illuntze guziak; bada andik laster nere aurkerietan nenbillen ni, ta, gaizkirik egin ezpanu bezain arin ta aisa; ta gero ere nenbillen ni, batzuetan, nerekin zebiltzan lagunak gaistatzen, ta gutiengan gaizkiz gaizki, bekatuz bekatu, ta txarkeriz

txarkeri: ta egunoro nenbillen ni, naigabe ta min gutiagorekin; ta egunoro nuen nik nere biotz au ez minbereagoa.

Andik zetorren gero, nik egunetik egunera luzatzea nere oben-kulpen aitormen ona, edo nere konfesionea. Eta, noizbait ni konfesatuagatik, nola konfesatzen nintzan? Erdizka noski, edo nere lotsa txarrak, edo alke galduak garaiturik, edo nere gaizkien kontuak zuzen atera gabez, nere gaizki berak, edo bekatuak osoro agertzen ez nituela; edo, oriek nik an osoro, ta egin nituen eran agertuagatik, oriek uzteko, ta ontzeko asmorik gabe: ta orregatik konfesatzen nintzan ni gaizki; ta gelditzen nintzan, konfesatu ere ezpanitz baño agitz gaizkiago, ta biotz txar galduagoarekin, ta gaistoagoarekin.

A nere galdu txar galgarria! ta a nere zentzuga-bea! Lenbiziko bekatura nintzanean ni, ta bekaturlata laster konfesatu banintz ni; ta ni konfesatzera bearzen eran, emain zizkidan niri nere Jesus maitagarriak bere esku indartsu ederra, ta bere laguntza; aterako ninduen ni nere bekatu gaistoen atzaparretatik, eta utziko ninduen ongi sendatua, ta lenago nere animan nuen osasunarekin ta graziarekin; ta, len nuena baño ere andiagoarekin: baña ez nuen nik orrelakorik egin

nai izandu; ta gelditu nintzan ni Jaungoiko berak dakien bezala!

Orain badere ar banitza nik, artu bear diran neurriak! Asi banendi ni nere gauzak zuzentzen! Eska baneza nik, eskatu bear dudan eran, nere Jaunaren eskua, nere Jaunaren laguntza ta grazia!

Nere lanean asiko naz ni, gaurdanik badere, ori nik orain egitera: ta, egiten ezpadut, galdua naz ni beti ta betirako! Ez arren era orretako galtzerik! Ez, nere Jesus maitagarria, ez!

*Confrigentur rami inconsummati,
et fructus illorum inutiles.*

Sap. 4. 5.

Autsiko ditu Jaungoikoak adarrak, sendortu gabe, ta orien frutak loretakoak bezala, ta ezer-eztarakoak! Ori bera gertatzen zaie, edo ori baño ere gauza bat agitz gaistoagoa, aurdanik gaizki dabiltzan bekatari gaisoei, orduan oriek beren Jaungoikoak emendik kentzera, edo oriek era orretan dabiltzan denboran, illak gelditzera: bekatari oriek alabaña dira, era orretan bizi diraño, gure Jesus aien-eder-onaren adar berri-

gaistoak; eta aien, mats onen ordez, izurrizko fruta galduak edo oben-kulpak dakaztenak; eta, ordu artan oriek autsiak gertatzera, edo beren gaista-denboran oriek mundutik ateratzera, erretzen ta lertzen oriek betiko sulezean egon bearrak dira.

Ill banitz ni ere nere adar denboran, edo adin artako bertze gaistagin anitz bezala, gaur non arkitzen nintzan ni, ta zer lekutan? gaur nola nengoen ni; ta nola egon bearra nintzan ni, nere Jaungoiko maitagarria Jaungoiko den artean, edo datorren sekula guziguzian?– Orain guk adirazi dugun toki gaistoan, ta era gaistogoan.

Egoeraren zorigaistokoa!– Ez ninduen ni orduan Jaungoiko maitagarriak autsi, ta atera bere aien arte-tik, eta mundu onetako ardantzeetatik: ez ninduen orduan ni bota, ez, ala niri bazegokidan ere, damu arrigarrizko bere sulezera.

Baña atera ote ninduen ni, orduko nere bekatu galgarrien atzapar gaistoetatik? Itzuli ote zidan niri, nere bekatu berak nik konfesatu nituen aldian, bere graziaren bizitza ta nere anima gaisoaren osasuna? Bizitz eta osasun onekin arkitzen ote naz ni egungo egunetan ere?– Ez bata dakit, eta ez bestea!

Zer ote da bada nik orain dudan, nere jakite guzia?– Nik orain dakidan guzia da, nere Jaungoiko maitagarriak ez barkatzera niri nere aurtasuneko ta gerozko nere bekatuak, ni nazala adar edo egur igartu, betiko sulezean erretzen ta erretzen egoteko dagoen bat! A zer egoera! Zein damuzkoa! Zein zorigaistokoa! Etzaitzatela, ez, ekusi bein ere nere begiak! Ez arren, nere Jaungoiko maitagarria, ez!

*Exibit homo ad opus suum, et ad operationem,
suam usque ad vesperam.*

Ps. 103. 23.

Ez da, ez, gizona (dio Dabidek), nagi egoteko ta, alferkerian bizi dela, bere egunak bukatzeko jaioa. Jaungoikoak egin izandu ditu gauza guziak; eta egin du bakoitza bere egitekorako, edo bere lanerako; ta badu gizonak ere bere lana edo bere egitekoa: ta beraren bizitza guzirako da gizonaren lan edo egiteko au.

Geren oinpean dakargun lur au Jaungoikoak egiña da, ogi-ardoak emateko; ta egaztiak, laur-oñekoak, eta gizonak bear dituen gañerako gauza guziak baz-

katzeko. Jaungoiko berak egiñak dira ur-itsasokoak; eta egiñak dira, arraiak azitzeko, ta, ontziz dabiltzan gizonei ibil-bidea emateko. Jaungoiko berak egiña da aizea ere; ta egiña, bere bizkar sendorrean odeiak batetik bestera eramateko, ta orien urarekin bazterrak ezatzeko. Jaungoiko berak egiña da sua ere; ta egiña, otza garaitzeko, ta gizonak bear dituen erre-egost-etarako; ta Jaungoikoak egin zituen ordu beretik asi zen bakoitza, ta geroztik ari da, bein ere gelditu gabe, bere Egilleak emanikako bere lanean, edo egitekoan.

Bada zergatik ez du ari bear gizon egiñak ere, Egille berak emanik duen lanean edo egitekoan? Gizonaren egiteko au da, dakizun bezala, Jaungoiko maitagarriak bere mandamentuetan berezi diozkan gauzak zuzen egitea. Ongi: baña gizon egiñak egiten ezpadi-tu oriek nagiz, alferrez, gaiztakeriz, edo edozein beste bidez, zer gertatuko zaio?– Tentazioz eritzea: bekatuz iltzea, ta betiko galtzea.

Nagitasunaren galgarria! Ez, Jesus maitea, ez; ez diot nik ez, gaurgero nagitasun-galgarri oni nere baitan lekurik egin uste. Ibilli uste dut nik, gelditu gabe, ongi nekatuko banaz ere, zure ondoren, ta ibilli nai dut nik, egiten ditudala nigandik zuk eskatzen dituzun

gauzak; ori da, alabaña, zure eskuetatik atera diran gauza guzi-guziak, berak egiten dutenarekin niri era-kusten didaten gauza; ta oriek guziak baño ederkiago zuk zerorrek niri, nere Jaungoiko maitagarriak beti-beti erakutsia; eta ori bera da orain ta beti niri dago-kidana. Indazu zuk orretan nik beti aritzeko bearko dudan zure eskua ta laguntza. Bai arren, Jaungoiko maitagarria, bai!

*Ideo inter vos multi infirmi, et imbecilles,
et dormiunt multi.*

1. Cor. 11. 30.

Zuen artean anitz arkitzen dira eri, dio san Pablok; anitz arkitzen dira indar gutirekin: ta anitz illak, edo Jaungoikoaren grazia gabe.

Zergatik ote?- Zeren ez dituzten egiten beren jan-edanak beren aldietan, edo bear den eran; ta zeren ez diran komuniatzen bear den orduetan, edo bear den bezala.

Jaten abiatu ote ziñan zu, bekatari txarra, edo urbildu ote ziñan zu zere komunionekeo maiera adiñetan sartu orduko; ta urbildu ote ziñan zu, ara baño len

zere legeko gauzak ikasi ezkerro, gauz onak egiten asi ondoan, ta ongi-ongi konfesatu, ta bereala? Maiz gerozko komunioneke mai berera zara zu, ta beti zu mai orretara zara ongi prestaturik, eta bear zen eran?

Ai ene! Ori nik egitera, edo nik ori guzia egin izandu banu, ez nintzan erituko ni, eritu nazan bezanbategan! Ez nintzan, indarrik ez nuela ta bekatuz illotza geldituko, gelditu nazan bezala! Ala gelditu naz ni, bai; ta gelditu naz, bein ezezik, askotan ere! Etzen nornai arritzeko, niri gertaturikako gauza! Goseak nengoen ni, anitz orduz beintzat, eta indarrik gabe; prestatua zegoen nerentzat nere Komunioneke maia! Bazen an, nik nere indarrak artzeko bear nuena; baita anitz eta anitz geiago ere: baña ara ez urbiltzeagatik ni, edo zeren gaizki urbiltzen nintzan urbiltzen nintzantetan, niri gertatu zait etikaz dagoenari gertatu oi zaiona.

Etikazko gaitza duten gizonak jaten ta edaten dute beren orduetan; baña beren jan-edan guziekin oriek egiten dutena da, beren sukarra edo kalenturak egunoro ta beti bazkatzea; ta zenbat ere geiago bazkatzeten dituzten, edo zenbat eta geiagotan jaten duten oriek, anbat lenago beren buruak bukatzen dituzte, edo anbat lenago illak gelditzen dira.

Gaitzez, bekatuz, ta gosez iltzeko dauden animak ez billatzera, beren etsai galgarrien tentuak aienatzeko bearko dituzten indarrak; edo anima oriek, ori egin lekuan, alfer ta nagi gelditzera, gosez ta bearrez ill bearrak dira.

Etsaien tentu oriek aienatzeko indarrak atera ditezke Komunionekeo maitetik, adiuntz edo garai onean mai orretaratzera komuniatzen diran animak; baña aratzen ezpadira etikan sartu artean, edo alferkeriz beren buruak galdu arteraño, izurri galgarria ta eriotz gaistoa izain da anima beren komunionekeo jatea.

Onelakoak izandu ote dira nere oraindañoko mai bereko jateak, edo orain arteko nere komuniatzeak? Ori da nik neronek nere bizitzan, bestetara begiratu bage, ekus dezakedan gauza, edo ekuskaria. Ongi bizi banaz ni, edo biziro ta zuzen egiten baditut nik nere gauzak, ongi komuniatzen nazalako siñua da; Komunietik indar onak ateratzen ditudalako señailea da. Baña gaizki komuniatzen nazalako señailea, komuniatu ondoan arkitzen banaz ni len bezain nagi nere gauz onetarako. Onela arkitzen ote naz ni? Beldur naz baietz! Baña denbora berean arkitzen naz ni, nere

arkiera gaistoaz ongi damaturik; eta erraten dudala:
Nere Jesukristo Jauna, etc.

XLV.garren OTOITZ-GAIA

GAZTE ILL-OBIRA ZERAMATEN BATEN BIZTEA; TA PASIONEZKO BEKATARIAREN GRAZIARATZEA

A.

Nain-go erriratzean, batzen du Jesus maitagarriak, ortzitzera zeramaten ill gazte, alargun baten seme bakar bat. Negarrez zijoan, anitz jenderen artean seme illaren ama, alargun ongi naigabetu au: ta, artaz urrikaldurik, erraten dio Jesus maitagarriak. Zaude: ez dagizula negarrik batere.

Urbiltzen da gero Jesus andetara; ukitzen ditu andak; eta gelditzen dira, beren andetan mutil illaren gorputza zeramatenak. Olduan erraten dio Jesusek ill berari: A mutil: jaiki adi! Jartzen da bertan, illik zegoen mutilla; ta asitzen da izketan: ta ematen dio Jesusek bizturikako semea bere amari; ta ekusten duten guziak arritzen dira. *Luc. 7. II.*

Arritzekoa zen, bai, ekusi zutena; ta Jaungoikoaren gauza: bada, Jaungoikoak baizik, ezin biztu dezake illik dagoen bat.

Baña ez ote da au bezain gauz arrigarria, ill onen bizteak adirazi nai diguna; edo animen bizte, maiz aski geroztik Jesusek egin oi duena; egiten badu ere estalpean bezala, ta iñor anitz oartzen etzaiola?– Bai, ta arrigarriagoa ere; bada, gorputzak baño agitz geiako balio du animak: eta, gorputzarena baño animaren biztea gauz agitz andiagoa da: ta, andiagoa ere baño andiagoa, egungo mutillaren bizteak adirazten duen animako biztea.

Zer bizte-modu da, bada, ill onen bizteak adirazten digun animen biztea?– Pasionez, edo naikunde gaistoak garaitu gabez, bekaturatzen den animaren biztea. Onela bekaturatzen diranak, bekatari gaistoak dira; ta, oartukabean, ta indargabez bezala, betakuratzen diranak baño agitz gaistoagoak.

Au zuk ezagutzeko, ez dezu ekustea besterik bein, nola zegoen len Jesusek biztu zuen amabi urteko aur illa, ta nola oraingo mutill au; ta gero Jesusek, ura bizteko egin zuena; ta nola orain biztu duen au.

Amabi urteko aur ill berria, ill zen gela berean arkitzen zen oraindik, Jesus maitagarria ara zenean: baña

mutil au, ill ondoan, illen soñekoz jauntzirik, etxetik atera, ta zeramaten zenbait gizonek bere obira edo sepulturara, guztiz etsirik illaren bizteaz; ta zeramaten, bizte beraren igesi bezala. Ekusten dezu?

Ekusi zazu bada orain Jesusek au bizteko, ta leneko aurrak biztean egin izandu zuena.- Aur ill berri au bizteko, etzuen Jesusek egin izandu, eskutik artu, ta itz bi erratea beste gauzarik, baña mutil lenago illa bizteko, begiratu zion lenik negarrez zetorren onen amari: ta, amaren negarraz urrikaldurik, artu zuen Jesusek onen seme illa bizteko asmoa. Urbiltzen da gero seme beraren gorputz illagana: esk-ukaldiz edo golpez geldirazten ditu ura obira zeramatenak: agintzen edo manatzen dio ill berari jaiki dedilla bertan bizirik: bizten da au; ta, bere andetan jarririk edo eseririk, asten da itzketan; ta era onetan, edo biztua, ta osasun oso-osoa itzultzen dio Jesusek, negarrez zegoen bere amari.

Ekusten dezu zein labur erraza izandu zen lenbiziko biztea, ta zein luzea, ta zenbat arazotakoa bigarrena.- Aur ill berria bezain erraz, ta laster biztu zezaken Jesusek mutil au ere; baña etzuen ala biztu nai izandu.

Zergatik, uste dezu?- Guri adirazi naiez, zenbat ere gaistoagoa den bekataria, anbat au geiago neka-

tzen dela bere animaren biztean, edo anbat nekezago erdisten duela onek Jesus onagandik bere bekatuen barkamentua ta zeruko grazia.

Zergatik au?– Zeren trabatuagoa dagoen bera; ta aserreago dadukan bere Jaungoikoa.

Bai: zenbat ere gaistoagoa bekatari bat, anbat trabatuagoa, bere Jauna billatzeko: bada bekatuen kate geiagorekin, ta agitz andiagoeekin loturik arkitzen da bekatari gaistoagoa: ta bidenabar arkitzen da, gaistakeri andiagoak egiñik bere Jaungoikoari; ta orregatik arkitzen da, beste bekatariak baño agitz aserreago dadukala bere Jaungoiko maitagarria. Eta, dakusazun bezala, kate andiak urratzea, txiki batzuek urratzea baño neke geiago dakarren lana ta egitekoa da; ta, aserreago dagoen Jaun bat palakatzea, orren aserre ez dagoen bat palakatzea baño, zer-egin geiagorekin arkitzen den egitekoa da.

Egiteko andi gogor onekin arkitzen dira, pasione biziak, eta naikunde asaldatuak dituzten bekatari gaisoak. Au guri adirazteko da, mutil illa obira zeramatenekin gure Jesusek egin izandu zuena.

Ill au bere obira zaramaten gizonak geldirazi zituen gure Jesusek, illa bizteko: ta bekatuz illa dagoenak, eta pasione bizi, ta naikunde galduen atzaparre-

tan arkitzen denak, biztuko bada, edo erditsiko badu bere Jaunaren grazi ona edo bizitza, ta bere bekatuen barkamentua, gogortu bearko du, gaitzerako bere makurtasunen edo pasione galduen kontra; ta oriek ark ez geldiratzeraz, bekatuaren obirako da azkenean, ta ondatuko da gero betiko bere sulezean.

Anima gaiso bat, obi beltz-sutu izugarri onetara daramaten lagunak, edo pasione galgarriak, zer pasione dira?– Oriek dira: luxuria edo aragiaren naikunde lizuna; antustea, arrotasuna, edo guzien gain ibillinaia: kutizia, edo edozein bidez aberastu-naia; ta ira edo bendekua, ta bati ere deus bat ez-barkatu-naia. Oriek dira, bekatu berrien obira ta sulezeraz anima bekataria daramaten lagun gaistoak, edo pasioneak. Pasiene oriek geldirazi artean, ez dio Jesusek emain bekatupean arkitzen den anima gaisoari bere grazia-zen zeruko bizitza.

Nola geldirazten ote dira laur lagun gaisto, edo pasione sutu oriek?– Guri gure Jesus maitagarriak laguntzen digula.

Baña nola guk lagun-eraziko diogu, geren bekatuz aserretua dadukagun gure Jesus maitagarriari?– Naingo mutil illaren amak bezala, edo negarrez, suspirioz, ta naiez.

Bekatzuzill-erazi zaituzte zu zere pasione sutuak, edo zure aragiaren, zeren ondraren, zere ondasunen, edo zere bendeku makurren naikunde galduak? Bekatu galdu beeren bide gaistoz zaramazte zu berriz ta berriz ere zere naikunde berak: eta zaramazte zu, sulezeko obi-beltz sutu arrigarrian lenbaitlen ortzirazi naiez? A gaisoa!

Nai dezu galdu zuk, edo naiko dezu gaur berean urraturik iutzi, bekatu gaistoetarako zere bide galgarri au? Nai dezu zuk denbora berean irabazi zere oben kulpen barkamentua, edo barkazioa? Nai dezu zuk zeruko graziaren bizitza, ta zere Jaungoiko maitagarriaren umetasuna? Sartu nai dezu zuk orain badere zeruko bide zuzen garbi-ondasundunean, emendik berriz atera gabe, zabiltzala zuzen-zuzen, gure Jesus ibilli zen eran, Jesus berarekin gero beraren glorian atsegin-kontentuz beterik bizitzeko?

Nai dut bai; ta ziñez alere!

Bai? Baña ongi damaturik arkitzen zara zu zere leneko gaizki egiñaz?– Bai, bai: ta era orretako lan bat egin baño len nere biotz au lertu balitzait naiago nukela!

Urrikal zaitut, bada, leneko zere damu-bideaz, edo zeren erori ziñan len zere lan gaisto bekatu galgarrie-

tan: baña atsegin andi bat artzen dut orain, era orretan zu, ta orren ziñez damuturik, ekustean; bada badut uste biztuko dizun zere anima, orretarañoko lan orretan lagundu dizun zere Jaungoiko maitagarriak; edo zinki uste dut barka-damuz ta urrikiz beterik, bere barkamentua galdegiteko, edo, bear zen eran eskatzeko, atera oi zituen Jaungoiko maitagarriak beren emengo bizitzatik, eta bestean ematen oi zien bere irabazia. Baña ezagutzen zutenei zergatik zen ta zertarako beren Jaunaren zeatze ta penatze au; ta, au ezagutu ondoan, beren gaizki guziez ongi damuturik, eta ontzeko asmoan eskatzen ziotenei gaizki beren barkamentua, urrikaltzen zitzaien beren Jaungoiko urrikaltia; ta atera oi zituen beren nekepetik eta bear artetik; eta eraman oi zituen, bere umeen bizitzara, ta ibiltze aisazkora. Ala dio Dabidek; eta, zer zion zekien gizona zen Dabid errege santua.

Eta zuk, nere anima, zer ote diozu?- Zer erran dezaket nik, bekatari txar, nork-daki zenbatetan nere Jaun maitagarria aserreturik dadukadan galduak! Nik orain erran dezakedana da, nere Jaunaren oraindaño-ko zeatzeak, eta nere gain etorri diran neke guziak, deus ez-bat bezala dirala nere gaistakeriei begiratzen bazaie; ta ill, ta sulezean ondatu banindu ere (ta

aspaldi dela), etzuela nere Jaungoiko maitagarriak egiñen, ez bein, berriz, ta askotan ere nik ongi irabazi nedukana baizik.

Baña, Dabidek adiratzen duen bezain urrikaltia den ezkerro, (den bezala) nere Jaungoiko maitagarria, nik orain diodana da, gaurdanik nik, eta bertan eskatzen diodala Jaungoiko berari; ta eskatzen diodala nere biotzeko indar guziarekin, leneko nere uts guzien barkamentua, ta gaurgero ontzen ta ontzen aritzeko, bearko dudan Jaungoiko beraren eskua, grazia, ta laguntza; ta eskatzen diodala, ukatuko ez didalako uste osoan. Ala gerta dedilla, nere Jaungoiko maitea, bai, arren, bai!

*Si praestes animae tuae concupiscentias ejus,
faciet te in gaudium inimicis tuis.*
Eccli. 18. 31.

Zere buruari egiten badiozkatzu zuk, zure buruai: edo aragi galgarriak naiko dituen atsegin loiak; baldiu bazabiltza zu, datozen denboretan, zere nai makurren bidez, ta zure pasione galgarriak eskatzen duten eran, egiñen dituzu zuk, zure etsaiak nai dituzten anitz

gauza ta uts; atsegin andiak emain dieztezu zuk zere etsaiei; ta galduko zaituzte zu etsai gaistagin berak. Siñes dezakezu, bai, orain zuk aditzen didazun au; bada guzia da, Espiritu Santuak guri Eskrituraz aspaldi adirazia.

Aragiaren naikundez naikunde bazabiltza zu, laburtuko dituzu zuk zerorrek zere bizitzako egunak, galduko dezu zuk zere osasuna, ustelduko zara zu, ta ortzituko zaituzte, zuk uste baño len, suzko ta sufrezko obi arrigarrian.

Gauza guzien gañeraño igan oi den olio a egosten da zartanean, eltzean, edo era orretako ontziren batean, erretzen ezpada kriselluan, elizako lanparan, edo argi egiteko den beste gauzaren batean: ta emen garaitzen ezpadezu zuk zere antustea ta arrotasun ariña, zere ondrak-naia, ta zere beti-ta-beti igan-nai galdu-galgarria, orrek berak ondatuko zaitu zu suleze-ko putzu izugarrian; ta erretzen, ta egosten idukiko zaitu an eternidade ta sekula guzian.

Diruzalea zara zu, ta ondasunen ondoren zabiltzan gizon estekatua; ta, orien ondoren zabiltzanean, nondik zabiltzan zu orrenbat begiratzen ez dezuna? Zere saldu-erosietan zeri begiratzen diozu zuk? Zere irabaziari, bai; baño ez, dakartzun tratuaeren berdintasuna-

ri? Ala bada, zere ondasunak zu, ta zere irabaziak itsu-
tua zaduzka, nora zoazen zu, edo zein toki izugarritz
zoazen, ez ekusteko; gortua zaduzka (ta agitz alere)
adi ez dezazun zuk zere Jaunak erraten dizun gauz
onik batere; ta orregatik erio gaistoaren atzaparretan
zaduzka zu.

Sutu galduren bat ote zara zu? Naigabe bat zere
Jaunagatik emeki artzen ez dakizun gizona ote zara
zu? Iraz, ta bendekuz beterik ote zabilta zu, sangaka
dagoen txakur txar ero bat bezala? Illen zaituzte bada
zu azkenean zere bekatuak; eta eramain zaituzte kez,
ta garrez, beterik dagoen obira; ta an egon bearko
dezu zuk beti-ta-beti zere eskuz zuk zerorrek zere
miia, ta zere errai guziak urratzen dituzula.

Orra nora zoazen zu, zere pasione gaistoan, ta
zere naikunde galduen soñean zabiltzan anima! Beka-
tuz illa zaude zu zere Jaunaren begietan; ta, sulezeko
obi galduan gelditu nai ezpadezu zuk, geldi zaitetz
emen bertan gaur, ta beti, zere Jesusen deiak aditze-
ko. Egizu zuk ziñez negar, oraindañoko zere erakeriez.
Eskura izkitzu zere pasione asaldatu galgarriak. Jaiki
zaitetz lenbaitlen zere bekatuaren oatzetik; eta zoaz,
zere ama on, Eliza billagarrira; an negar damuzko, ta
Konfesione zuzeneko ur ederrez zere burua, bear den

eran garbitzera, gero zuzen egiteko, gure Jaungoiko maitagarriak manatzen dituen gauza guziak, gurutzepan, ta nekez beterik ibilliko bazara ere, emen biziko zaran zere denboran. Jesus orretan zuri laguntzeko dago; ta lagunduko dizu, bai, zuk ala nai dezula, zere azken-orduraño. Ala gerta dedilla bada; bai arren, bai!

*Dereliquerunt legem meam, quam dedi eis;
et non audierunt vocem meam, et non ambulaverunt
in ea,
et abierunt post pravitatem cordis.
Ier. 9. 13.*

Begiratzen die Jesusek bere bidera deitu dienei; ta, ekusirik anitzek egiten dutena, erraten du Jeremia-sen itzekin: ez-aditu egin diote oriek guziak nere deia-ri; ez dute ibilli nai izandu, ez, oriek nere bide zuzenez, ta ni noan lekutik. Autsi dituzte oriek nere Legeko kate guziak. Iges egin dute oriek, gogoak eman dien alde gaistoetara; ta an dabilta gaizkiz gaizki, ta bekatuz bekatu. Zer dagiket bada nik, nik au ekusi ondoan?

Zer dakit bada nik, nere Jesus maitagarria! Anitz da, bai, orien erakeriak eskatzen duena; ill dituzte ala-

baña, beren bekatuz, beren anima gaisoak! Naikunde makurren, ta pasione bizi galgarrien soñean doaz oriek, berak nai duten aldera!

Zure itzak, nere Jesus maitagarria, itz meak dira; ta, adi ez ditzaten gure anima gaisoak, ojuz ta ojuz daude gure pasione galgarriak; soñuz soñu daramazte, beren alegin guzian, gure anima gaisoak, edo daramazte marmarioz marmario, jan-edanez jan-edan, aserretzez aserretze, antustez antuzte, ta loiez loi! Eta ez daude, ez, zure itzak aditzeko, orien ojuak, orien eskanbillak, eta ibillera makurrak galerazten dituzten animak; eta gutiago daude, negarrez ongi beren buruak garbitzeko!

Zuk dagikezuna da, gure Jesus maitagarria, era onetako animale aserretzen dizuten zere Aitari begira zaudela, zuk zere leneko negarrak oni agertzea; oriekgatik badere urrikal dakien, bere laguntz onarekin oriek zentzarazteko, ta atera ditzan, beren bekatuen lo ta bide gaistoetatik!

Bai arren! egizu zuk orrenbeste, nere Jesus maitagarria. Ager egiozkatzu zere Aita berari, leneko zere negarrak; eta ager egiozkatzu, anima oriekgatik ezezik, ni bekatari txar onegatik ere: bada, zuk ori egitera, badut uste emain didan niri ere, oraindaño

laguntzak baño laguntza andiagoren bat, ta laguntz onekin batean asiko nazala ni ere negarrez, oraindaño-ko nere bekatuakgatik; eta erditsiko dudala orien barkamentua, ta berriz berririk ez egiteko grazia!

Au orain nik zure Aitagandik erdistera, artuko dut zure nekezko ta gurutzezko bide zuzena, edo, zure Lege santa kontuz gordezko asmoa. Au ar dezadan orain nik uts egin bage, indazu bein nere oraindaño-ko uts eta bekatu guzien ziñezko damu bat, errateko gero nik bear den eran: *Nere Jesukristo, etc.*

XLVI.garren OTOITZ-GAIA

ILL-ORTZITU, USTELTZEN ASIAREN BIZTEA; TA AZTURA GAIZTOKO BEKATARIEN GRAZIARATZEA

A.

Oartukabeen bezala, ta indar andirik izan gabez bekatuzatzea ere gauza gaistoa da; bada beartuak arkitzen gara guziok, zertan gabiltzan gu gerok, ongi ekustera; ta, gure Jaungoiko maitagarriak emanik ditugun indar guziez baliatzen garala badere, gauza gaistorik ez egitera: bagaudeke alabaña gu, gauza gaistorik egiten ez dugula, geren Jaungoikoaren eskuaz ta laguntzaz baliatzen garala: ta prest dago beti gure Jaungoikoa, noiznai ta non-nai guri laguntzeko: ta guk, geren Jaungoikoarekin batean dagikeguna ez egin naiez, gaizkiren bat egiten badugu, egiten dugu gauz esker-gabe guztizko gaisto bat.

Gure gauza gaisto au baño gaistoagoa da, zertan gabiltzan gu guk gerok ezagutzen dugula, gaitzerako geren makurtasunak eta naikunde galduak ez eskura-

tzeagatik, gu bekaturatzea: da alabaña, gaizki egiten dugulako ezagumentu geiagorekin guk geren Jaungoiko maitagarria guztiz naigabetzea, aserretzea, edo ofenditzea.

Baña bigarrenerako gure bekaturatze au baño ere, bekaturatze agitz gaistoagoa da bekatz bekatu bat ibiltzea, gaitzera oiturik bat bizitzea, ta egunoroko, edo maiz batek egiten dituen bere bekatuekin, bere pasione gaistoei sua ta bazka ematea; ta gero, lotan bezala, bere bekatu gaistoen oatze galduan astiz ego-tea.

Ala ere, ez da zuzenbiderik ez duen bekaturatzea, era onetako bekaturatze au; ta biztu nai badute, era onetako bekatz ill diran animak ere biztuko ditu, lenagoko bi bekatari-erak bezala, gure Jesus maitagarriak; eta artuko ditu, berak daraman gurutzezko bere bide zuzen garbira. Au ala dela guk ezagutzeko, aski da, Jesusek berak egiñikako irurgarren bizte-modu bat ekustea.

Maria Magdalenak, eta, Marta zeritzan onen aizpak gatzigatzen diote bein Jesus maitagarriari, eri aikitzen dela, ta guztiz gaizki, bien anaia Lazaro.

Artzen du Jesusek, oriek arkitzen ziran erritik agitz urruti, aizpa bien mandatu au; ta ala ere ez da berea-

la bideratzen: ez eta aratzen ere, Lazaro ill, ta ortzitu, ta laur egun igaro artean. Jesus aratzean, ateratzen zaio bidera Marta, ta erraten dio: A Jauna, garai onez etortzera zu, ta emen arkitzera, etzen illtzen, ez, nere anaia Lazaro; baña badakit nik, ez dizula zere Aitak ukatuko zuri, eskatzen diozun gauzarik bat ere; edo badakit, bai, ez dela berandu, gauden ordu berean ere, nik nai nuenerako, edo nik nere anaia bizirik, edo zuk bizturik, ekusteko.

Au Jesusi esan, ta bere-bereala deitzen dio bere aizpa Maria Magdalenari: ta onek ere, Jesus ekusi orduko, an bertan belaunikaturik, esaten dio: Jauna, zu emen izatera, bizirik egoin zen gaur nere anaia Lazaro.- Au errate berean, ta geroz ta geroz ere, negar ta negar zegoen Maria Madalena; ta, ura ala ekusteaz negarrez zeuden, dolura etorririk, an arkitzen ziran jendeak ere.

Oriek onela negarrez ekustean, nasten da Jesusen barren guzia; asitzen da, orroz bezala, bere Animian; ta galdetzen die, non sartu duten Lazaro illaren gorputza.- Erakusten diote onen obia; ta, ara urbildu orduko, abiatzen da negarrez Jesus maitagarria: berritzen zaizka barreneko bere orroak edo deadarrak, eta ika-

rariak; eta manatzen du, ken dezotela Lazaroren gorputz illari gañeko bere arria.

Au aditzen duenean illaren arreba Martak, erraten dio Jesusi: Jauna, laur egun da or datzala, ta usteldurik dago, ta nai-ta-ez usai gaistoarekin nere anaia Lazaro.- Alere ken-erazten du Jesusek obi arria; goititzen ditu gero bere Aitagana bere begiak: ematen diozka Aita berari esker andiak, zeren beti egiten duen berak eskatzen dion guzi-guzia.- Beititzen ditu gero begiak gorputz illagana; ta erraten dio indar andiarekin, ta ojuka: Atoz ona, Lazaro. Eta bertan ateratzen da bizirik Lazaro; baña ateratzen da, esku-oñak lotuak, eta arpegi guzia ill-oialez estalirik dakartziela. Erraten die Jesusek, berekin zitunei: ken bekiozta bere lokarriak, trabarik gabe dabillen Lazaro: ta egiten dute oriek Jesus maitagarriak manatzen diena; ta badabill berez Lazaro ta badoa Jesus berarekin mai batean jatera.

Ekusten dezu nola zegoen Lazaro, Jesus argana zenean? Ekusten dituzu Jesusen arazoak, Jesusen ibillerak, Jesusen lanak, Jesusen negarrak, orroak, deiak, eta gañerako gauzak, Lazaro ill-ortzitua bizteko? Au guzia zergatik ote da, edo zertarako?- Au guzia da gure Jesusek guri adirazi naiez, zein gauza gaitza den,

bekatuko obian usteltzen datzan gizon edo emazteki bat, andik aterarik graziako bizitzara itzultzea.

Zer bekatari ote da, gisa onetan usteltzen dagoen, bekataria?- Gaizkiz gaizki, loiez loi, ta galduz galdu dabillen edozein anima. Onela dabiltzan bekatariak ere minbereak izandu ziran lendabizian, ta guztiz izukorrak; eta, bekatu larri bat egin orduko, arritzen ziran guziak. Bekatuetara oitzen asi ziranetik etziran anbat izutzen. Andik fite ta laster asetzen ziran bekatuz, urez egartiak bezala; ta, bekatuak bekatuen gain egiñagatik, etziran gero anitz ansiatzen. Azkenean azpian artu zituen beren bekatuen obi-arritzar andi batek, edo Jaunaganako biotzaren gogortasunak: ta asi ziran an usteltzen, ta beren bizitza galduaren usai gaistoa banatzen, ekusten zituztenen kalte andiarekin.

Zenbat usteltzar onelako arkitzen ote dira egungo egunean ere gure errietan! Eta ez ote naz ni ere ustelgaldu orietatik bat? Nola bizitu izandu ote nintzan ni, gaztetxo nintzaneko nere denboran? Nola geroiseago? Nola anditu ta? ta nola geroz? ta nola egungo egunetan?

Anitz izutzen ote naute ni gaur, len ikaraz uzten ninduten nere oben-kulpak eta gaistakeriak? Beldur-

tzen ote naute ni gaur sulezeko neke gogorrek, egunen batean adiña, ta laurdenik ere?

Konfesariaren itzak, edo predikari onaren erranak dardaraz beterik, eta ikara iuzten ote dute nere biotza, edo iuzten ote dute, noizbait len iutzi oi zuten eran? Edo orien erran ta meatxu guziak aditu ta ere, gelditzen ote naz ni, alakorik aditu ezpanu bezain otz; edo, aditzen nituen gauzak nion ere ukitzen ezpanindute bezain sosegu andiarekin?

Au onela bada, nere galduegia! Gogortu dira geroz nere erraiak birtuterako! Azpian naduka geroz ni nere bekatu galgarrien obi-arriak! Loturik nadukate geroz ni nere aztura gaistoak! Itsutuak daude geroz, ta oia-
lez estaliak nere adimentuko begiak! Eta au onela dela, ez dut nik ekusten, ta ez dut ekusi ere nai, non nabillen ni, ta non arkitzen nazan ni; ez eta ni nora noan ere!

Usai gaistozko usteltasunak dira gerozko nere utsak; eta dira, nerekin dabiltzan anima gaisoen galgarriak! Ez naz ni anima gaiso oriez urrikaltzen; ez eta nereaz ere!

Ni nora bearra naz bada, edo zertarako jaioa? Nabillen eran ni ibiltzeko; ta beste biderik nik ez artzera, eternidade guziko sulezerako jaio naz ni!

Bukaeraren zorigaistozkoa!

Au nai ez duen animak egin bearoko ditu, Lazaro illa bizteko, Jesus maitagarriak egin izandu zituen gauzen iduriko, edo aintzurako gauzak. Jesus maitagarriak ura bizeko, eginikako gauzak zer gauzak dira? Oriek dira ondo-naiak: Jaunaganako mandatuak: eta bitartekoen negar onak.

Ez ditu Jaungoikoak ostikoz ateratzen; ez, bekatuaren loi-petik, beren bekatuen loiean gogoz, ta nai dutela, dautzan gaistoak. Andik atera; ta ondu nai dutenei ematen die Jesusek bere esku indartsua ta laguntza. Ondu-naia da, bada, onduko den bekatariaren asiera.

Baña ondu-nai, bear bezalako bizi bat, nekez izaten du obenez ta gaistakeriz usteltzen dagoen bekatariak, bitarteko zenbaitek erdisten ezpadiote au bere Jaun maitagarriagandik; eta billatu bearoko ditu, alik onenak, onduko den bekatari txar galduak, edo eskatu bearoko die bear bezala bizi diranei, lagun-egin dezotela beren Jaunarekiko, beren otoitz eta negar onekin, ta erditsi dezotela beren Jaun beragandik onez-damu, edo kontrizione bizi bero bat; onekin batean, ta beren Jaunaren graziarekin bizturik gelditzeko, edo onez-damu onen orde z erditsi dezotela izu-

damua, edo atrizioea; ta onekin batean aitortentzua garbita Konfesioa zuzen bat egiteko zoria.

Bitarteko berezirik ez duenak eska dezoke au, bere Jaungoiko maitagarriari, Eliza guzian arkitzen diran onen otoitzak eta negarrak agertzen diozkala: bada onak negar egiten dute ta otoitz, gaistoen alde, ta eskatzen diote beren Jaungoikoari urrikal dakiela lenbaitlen, ta atera ditzala beren bekatupetik, eta erio gaistoaren usteltasunetik. Ori adirazten digu Martak eta Madalenak Jesusi igorri zioten mandatuak, beren anaia Lazaro miñez agitz gaizkiturik ekusi zutenean; baita Lazaro ill ondoko, beraren arreba bien negarrak ere.

Bekatari txarra, bada, naiz izan zaitezela zu mundu guzian arkitzen den gizonik galduena, zuk erakutsi ezkerok zere Jaungoiko maitagarriari ondu nai zizkizko bero bat, ori zuk erakusten badiozu, ongi bizi diran guzien otoitzak eta negarrak zere alde artzen dituzula, zereganako dezu zuk, bai, zere Jesus maitagarria, ta zere alde izain dituzu zuk Jesusen begiak, Jesusen negarrak, eta Jesusen eskuak, edo Jesusen laguntza indartsu andia.

Bein, berriz-ta-berriz ere, eskatu ezkerok zuk au Jesus maitagarriari eskatzen diozula zuk au bear den

garai onean, adiuntzan, ta eran, zukanako da, bai, Jesus maitagarria; kenduko dizu zere gañetik, lertzen zaduzkan bekatu gaistoen obiko arria: denbora berean itzuliko dizu, zere bekatuz zuk galdurikako graziaren bizitza, ta emain dizu nork kendu zuri, zere bekatu galgarriak utzi dizkitzuten aztura gaistoen lokarri sendorrak; bada emain dizkitzu, artarako diran konfesariak eta bertze lagun onak; eta utziko zaitu, aisa ta arin zabilzken eran, zuk birtutez birtute, ta zeruko bidez ibilli nai izatera.

Au onela den ezkerro, den bezala, nere Jesus maitagarria, atoz arren, atoz, zuk au guzia, edo nere bearrak eskatzen duena bertan egitera: ta atoz, nigatik ez izan arren, zeren au eskatzen dizuten Elizako zere ume on serbitzari garbiak.- Atoz bada, atoz ekustera, nola nadukaten ni nere bekatu galduak. Zein loitu-usteldua, barkatu ezpazenituen zuk, nitaz urrikaldurik: eta, baldin barkatuak badaude ere, zein makurtua ni bekatu beretara, ta leneko nere usteltasunetara.- Begi onez begiratzen badidazu zuk niri gaur, nere Jesus maitagarria, urrikalduko zara bai, nere oraingo egoera txar galduaz: ain txar-galdu izugarrian nago ni gaur!- Zure begiratze on au irabazi-naiez, artzen dut nik gaur emen bertatik, len zu nik aserreraiz, edo

oraindako guzian nik egin ditudan nere bekatu guziaz, al dudan damurik andiena.- Zorigaistoan egin dut nik orietatik bat ere, bada egin ezpanu, gaur ez nintzan arkitzen ni, arkitzen nazan bezain aztura gais-toz, ta kostunbre loituz galdua; ta ez nintzan arkitzen ni, ez, nere oben-kulpen obian, ta bekatuz erdi-ustel-dua!

Atoz, bada, atoz nigana, nere Jesus maitagarria; ta atoz zere ojuz, ta oju andiz badere, emendik ni lenbaitlen ateraztera; niri nere bekatuen usteltasun loi au barrendik kentzera; ni zere graziaz ta zeruko indarrez beterik uztera: niri nere begietatik mundu eroaren oialtxar galduak keneraztera, ekus dezadan nik orduan garbi-garbiro oraindoko nere ibiliera guztiz galdua, baita zuk eraman dezun bide zuzena, ta bide onen bukaera ona ere; leneko nere gal-bidea utzirik nik, eta nere naiez ta gogo osoz gaurdanik artzen dudala (ta bein ere ez uzteko) zure bide zuzen onesgarri au, asi nadin ni zure ondoren, nere Legeko gauzen gurutzeta nere soñean daramadala; sarzeco gero ni zurekin batean, edo zure eran zure zorioneko Erresuma orretan. Ala gerta dedilla, Jesus maitagarria: bai arren, bai!

Jacta super Dominum curam tuam, et ipse te enutriet:

non dabit in aeternum fluctuationem justo.

Ps. 54. 23.

Ongi bizi zara zu (galdetzen dizu Dabidek), eta alere zere burua galtzeko beldurrez zaude? Ikarazten zara zu zere etsai amurratu gaistoen ojuak aditzean, ta illuntzen zaitzu zuri orduan zere biotza? Dardaraz ote dago zure barren ori, ta kezka den guzia beterik, jakin gabez nondik artu, erio gaistoaren edo bekatuaren atzaparretan ez erortzeko?

A! nork lituken (diozu noski), onen begietatik, uso baten eran iges egiteko, biziro eraman nintzaken egoak eta luma ariñak! Iges egiñen nuke nik, bai, badakit nik neronek noraño! Nere amorez idikirik arkitzen den Jesusen biotzeraño; ta au atsedenen nuke neronek nai adiña, galtzeko beldurrik batere bage!

Ekusten dezu zuk zere gal-bidea edozein tokitan, ta non ere nai? Galerazi nai zaituzte zu gaizki dabil-tzan lagunak, beren lan makur-galgarriekin, beren itz eroekin, beren isteekin, beren jan-edan luzeegiekin, ta al duten alde guzietara? Orretan berean dabil suleze-

ko gure etsai galgarri madarikatua? ta orretan dabil-
tza zure pasione, ta aztura gaistoak ere? Eta orregatik
arkitzen zara zu agitz eri, edo guztiz tentatua, ta beka-
tuz iltzeko beldur ta beldur.- Beldurtzeko gauza da,
bai, zu zauden tranzean edozein arkitzea. Baña beldur
zaitez zu (dio Dabidek berak) bekatuz, edo, bekatuan
illen etzaralako ustea galtzen ez dezula. Ager egiozka-
tzu zuk zere Jesus maitagarriari zere beldurrak eta
kezka guziak. Galde egiozu zer egin bear dezun zuk,
zere etsaiak garaitzeko. Ots egiozu maiz, edo ardura,
datorkizula, arren! nola zuk zere gauzak egin erakus-
tera, ta egiten laguntzera: ta, zuk au guzia zuzen egi-
tera, aterako zaitu, bai, zu zere Jesus maitagarriak
sekulako erio gaistoaren ortzetatik; eta eramain zaitu
berekin batean bere zeruko Santu ta Santen artera.
Ala gerta dakidala, nere Jesus maitagarria: bai arren,
bai!

*Iustificationes tuas custodiam,
non me derelinquas usquequaque.*

Ps. 118. 8.

Garaitu zaitu noizbat zu zere etsai amurratu galgarriak? Garaitu zaituzte zu zere gaitzerako makurre-rak eta pasione sutuak? Ill ote zara zu zere bekatuz, ta galdu ote dituzu zuk zere Jaungoikoaren arpegi ederra ekusteko eskua edo deretxa, zere Jaungoikoaren eskutik zuk arturikako onak, ondasunak, eta grazia?

A gaisoa! ta zure galgarria! bada galdu dezu orretan, munduko izate ta ondasun guziak baño agitz geiago balio duen ondasun bat.- Baña ez orregatik etsi, ez; ondasun ori bera zuk arki dezakezu, zuzen ta kontuz billatzera. Arki-bidea da santa Martak, eta santa Maria Madalenak beren anaiaren bizitza billatzeko artu zutena, edo Jesus maitagarriaren oñetartzea. Billa zazu Jesusen oñetan; ta billa zazu negarrez, edo galdu dezulako damuz, ta ziñezko urrukiz. Era orretan zu negarrez ekusten bazaitu gure Jesus maitagarriak bere oñetan; edo ekusten bazaitu zu, egin dituzun bekatuen gain ziñez damuturik; eta bekatu berririk ez egiteko asmoan, urrikalduko zaitzu batere luzatu gabe; emain dizu bere grazi onaren bizitza (ones-damuarekin zu orduan arkitzen bazara), edo lagunduko dizu, grazi beraren bizitza erdisteko, egin bearko dituzun zere gauzak egiten; ta oriek zuk egin orduko zerekin izain dezu zuk billatzen dezun bizitza.

Dakigun ezkerro bada onen arkibidea, ots, nere anima; goazen laster, negar ta negar, edo damuz biotza beterik, Jesusen oñetara; ta asi gakiozkan erraten an, Lazaroren arrebak bezala: A! Jauna, emen arkitu bazina zu nere tenta-aldietan, ez ninduen, ez, garaituko ni nere etsaiak: ez nuen galduko, ez, zure grazia-
ren bizitza, ta ez ninduen bekatuz illen, ez, nere etsaiak, ill naben bezala!- Baña zer ote diot nik, edo zer ote darausat nere oraingo itz onzikerian? Deitu nion nik nere Jesus maitagarriari, Jesus maitagarria nerekin arkitzeko nere tent-aldietan? Ez dago beti Jesus maitagarria prest, deitzen dion edozeiñi non-nai laguntzeko, baldin deitzen badio, bere animako gauzetan lagun-egitera?- Lagundu ezpadit bada niri nere Jesus maitagarriak nere tent-aldietan, lagundu didan baño geiago, nik ori ari eskatu gabez izandu zen; ta, ill banaz, neronek eginikako bekatuz, nere naiez ill naz ni, ta nere kulpaz.

Ala da, bai, nere Jaungoiko maitagarria. Baña ongi damaturik nago ni gaur; ta orrelako lanik berriz ez egi-teko asmoan. Indazu nere asmo on berean irauteko, nik bear dudan zere laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

*Quid quaeris, et quid vis discere á nobis?
parati sumus mori magis,
quam patrias Dei leges praevaricari.*
2. Machab. 7. 2.

Zeren billan zabilta orrenbat egiteko, ta arazorekin? erran izandu zion errege Antiokori, bere amarekin ill erazi zituen zazpi anaietatik batak. Jakin naiez bazabiltza zu, zertan arkitzen garan gu, zazpi anaiok, emen zuk ekusten dezun geren ama maitearekin, ez dezu zuk batere zer nekatu egiteko onen gain, edo gauz au ikasten: bertatik adiraziko dizut nik, den guzia guzien izenean.- Prest gaude gu ama seme guziok geren biziak noiznai emateko, gure Lege zuzenak debekatzeten duen gauzarik ez egiteagatik. Siñis nazazu; ta ez dezazula bururik autsi, guri geren asmo ta gogo au galerazi naiez. Au galdu baño len utziko ditugu guk geren larru-ezurak, oin-eskuak, eta geren zañetan dugun odol guzia.- Orduan ark atera zuen bere itz onetan egondu zen gizon gazte au bere azken-asnase-raño, errege gaistoak ken-erazi baziozkan ere, bein bere miia, andik laster buruko larrua, ta gero eskuak eta oñak; eta ill arte guzian iduki bazuen ere guti bana, edo geldi-geldi frisitzen, artarako zen zartagin

batean. Eta au berau egin zuten beren torment arri-geietan aren sei senideak, baita guzien amak ere.

Asmo berean arkitzen zifian zu, oraindanoko zere urte ta denboretan? Gutiagogatik ere autsi ez ote dituzu zuk zere Lege garbia, ta zere Jaunaren mandamentuak?- Zere buruari atsegin txar bat egiteagatik, ez ote dezu zuk bein, ta berriz, ta askotan ta askotan ere, loiturik iutzi zere Legeko seigarren mandamentua?- Bendekuz zuk, besterenaren kupidez zuk, eta zuk dakizun adifia bidez, ez ote dituzu autsi ta urratu zuk Lege bereko beste mandamentuak ere?- Eta bidena-bar ez ote zara bete zu oitura gaistoz ta kostunbrez? Lotuen eran ez ote daude geroz, gauz onetarako, zure oin-eskuak, edo zure ezaguera ta zure naimendua, edo borondatea? Bekatuz illik arkitzen bazara zu; ta zu gaur arkitzera bizitza galdu baten obian ortzitua, edo lurtatua bezala, non geldituko da zure anima, bekatari txar gaisoa, zu ill ondoan? Au lenik zuri Jesusek ez biztera, eternidade guziko sulezean!

Nere arreb-onak; garbiro bizi zarazten anima bataiatuak, nitaz ongi urrikaldurik, ots egiozue Jesus maitagarriari nere alde; ta eska zaiozue al dezuten indar guziarekin, urrikal dakidala niri ere bere ontasunagatik: asi dakidala oju ta oju, ta ez ditzala bere

ojuak iutzi, ni bizturik eta ongi iratzaririk iutzi artean: ta bidenabar ken ditzazkidala nere aztura galduen lokarri galgarriak; ibilli nadin ni geroko nere denboran nere gauzen egiten, ta nere Legeko bide zuzenetik oñik ateragabe.

Pozik ibilliko naz ni, artara ezkeru, era onetan, ta nere Jaungoikoaren gogara; ta orain orretan nagoelako siñu bat ematera noa, ojuz ta biotzez erraten dudala: *Nere Jesukristo, etc.*

XLVII.garren OTOITZ-GAIA

MAIZKO OTOIZAK

Erakutsi dizkigu gure Jesusek, oraindañoko zenbait otoizgaietan ekusi dugun bezala, zein den zerura nai dutenak artu bear duten Legea, ta zein Lege onetako ibillera; baita zer neke-gurutze diran ere ibillera bereko gurutze-nekeak; eta zein andiak diran gurutze-neke berekin irabazten diran doatasunak, eta graziak; eta erakutsi dizkigu onenbat ikaskari eder, itzez ezetik, neketan bera ta gurutze-pean ibilliz ere; ta berak lenik egiten duela, guri gero eragin nai diguna.

Baña zenbat ere den guk oraindañokoan ekusi dugun gure Jesusen itzezko ta lanezko erakuste au, ez da, ez, ekuskari txikiagoa, urrengo Libruan guk Jesus beragandik ikasi bear duguna, ekusiko dugun bezala ekusi ondoan, bein Jesusek, neketan gabiltzaneko, iutzi digun atsedentoki bat; ta atsedentoki, anitz lekutan arki dezakeguna, baita geren baitan ere; ta toki geren neketarako, ta etsaiak garaitzeko indar andiak dakauziena: ta gero, era onetako nekeen igesi dabiltzanen kalteak. Goazen orain lenbizikora.

A.

Gure legeko nekeetan, dabilenaren atsedentoki ta indar-bide guztiz ona da elizan otoitz egitea

Gu gerez beti gaitzera makurtuak arkitzen gara. Gaitz berera bulkatzen gaituzte gu geren etsaiak; eta etsai bortitzak dira gure etsai oriek; eta elkar arturik dabitzan etsaiak dira; ta ala dabilta, guri zeruko geren grazia galerazi naiez; ta orretarako, bekatuak bekatuen gain guri eragin naiez dabilta.

Guk, oriek nai dutenik ez egiteko, billatu bearko ditugu indar andiak. Gure Jaungoiko maitagarriarenak dira lan onetarako diran indarrak; eta, Jaungoiko berak erranik daduka emain dizkigula, guk ari oriek ongi ta maiz, edo bear den eran, eskatu ezkerok: *petite, et dabiur vobis*. (Mat. 7. 7.)

Orregatik bada, bekatutik atera den animak, baldin iraun nai badu bere Jaungoikoaren grazian, ta berriz bekatu gabe; ta eraman nai baditu bere Legeko neke guziak, eta Jesusen ondoren dabilzanak dararmaten gurutze nekezkoa, egin bearko du, oriek ere

egiten duten gauzatxo bat, edo egin bearko du bere Jaungoikoari ongi; ta maiz otoitz egitea. Ori da Jesusen ondoren dabiltzanen atsedeen-tokia, ta indar andiz beterik arkitzen den lekua.

Baña zer ote da, batek bere Jaungoikoari ongi ta bear den eran, otoitz egitea?- Ori da orrek bere Jaungoikoari, dagokan eran mintzatzea, eskatzen diola, bera serbitzatzeko, ta eskallearen onerako den gauzaren bat edo beste, lendabizitik adirazi genuen bezala.

Mintzo-eskaera on onetarako billatu bearko dezu zuk, al dezun tokirik onena; ta, al dezunean, zere errikoa edo beste edozein eliza: au da alabaña Jaungoikoren munduko jauregia, edo palazioa; ta au, bere zeruko ondasun andiak eta graziak emateko, Jaungoiko berak berezi duen tokia.

Non-nai eman ditzake, bai, gure Jaungoikoak bere ondasun oriek, eta ematen ere ditu maiz aski, ta egunoro, oriek guk an eskatu ezkeru, eska ditezkeen bezala, baña, al ditekenean, naiago du eska dakiozkan bere eman-tokian, bere jauregian, edo bere elizan.

Orobat gertatzen zaie lurreko erregei ere; bada oriek ere beste edozein lekutan baño naiago dute,

eska dakien, eman nai dutena, beren tokian edo beren jauregian, edo beren palazio berean.

Elizaratzen zaranean zu, zere Jaunari zuk an zere otoitz on oriek egitera, sar zaitez elizan, ta zaude an, errege andien gelan sartu, ta egon oi diran gizonen eran, erregeetara zerbaiten eske sartzen diranetan.

Nola doazela, uste dezu zuk, eta zer moduz, edo eran, an egon oi diran gizon oriek?- Ara doaz oriek, beinik bein ongi jaunziak, eta guztiz garbiak. An sartzen dira oriek agur andiekin; ta, zertara doazen ongi oartuak; eta an daude oriek, an dauden denbora guzian, umill-umill; ta an berean egiten dituzte beren eskaerak alik ongiena; ta, beren eskaerak baizik, gogoan artzen ez dituztela.

Zere elizako sartze-egote oriek egin nai badituzu zuk, era orretan, edo bear bezala, zoaz zu ara, gisa berean, edo biotz bear bezalakoarekin, edo lenik zuk zere biotza garbitzen dezula (bekatuz loiturik arkitzen denean) onez-damuz edo kontrizionez badere.

Zoaz bada beinik bein biotz garbi-garbiarekin, ta biotz bera graziaz, umiltasunez, ta zere Jaungoikoari eskatzera zoazen ondasuna, Jaungoiko beragandik erdisteko uste osoz beterik, edo jauntzi apaindurik, daramazula: ta, gero elizan sartzen zaranean, ta, an

arkitzen zaran denbora guzian, zaude zu, non arkitzen zaran dakizuna bezala: edo zaude uill-umillki zere Jaungoikoari begira, edo zere Jaungoikoagandik gogoia bein ere kentzen ez dezula.

Au guzia guri erakusteko ziran, bere txiki-zitutik, edo txiki-danetik ill arteko, Jesusen elizaratze guziak, eta Jesus beraren ango egoerak; baita eliza berean Jesusek egiten zituen gauzak ere, ta beste guzien artean bat.

Zer gauza ote zen Jesusen elizako gauza berezigarria au?– Au zen eliza zaitzea. Jerusalemgo elizara igan zenetatik batean ekusi zuen Jesusek eliz-gizonak etziran jendeak, edo Lebit edo Apez etziranak, otoitz egitera zijoazenak gelditu oi ziran tokian, saltzen zeudela barrengo Aldarerako bear ziran ardiak, beiak eta usoak; eta beren diru zeak edo txikiak maigañean zeduzkatela, andiak trukatzeko, aldarerako gauzen erosleei: ta au an ekustean, aserretzen da Jesus maitagarria; egiten du sokazko azote bat; eta ateratzen ditu azot-ukaldika ango ardi ta bei guziak, beren saltzalle guziekin batean: botatzen ditu batera ta bestera, ango diru-mai guziak: eta uso saltzalleei erraten die: atera emendik uso oriek; ta ez dagizuela berriz

sekulan kontratazioko, edo saldu-erosteetako etxe, nere Aitaren etxe au. *Ioan. 2, á v. 14.*

Bere Pasioneko egunak baño lentxeago arkitzen ditu berriz Jesus maitagarriak leku ta gisa berean saltzall-erosle, ta trukalari berak, edo beste zenbait, eta egiten du orduan ere (baña azoterik bage) leneko aldian egin izandu zuena; ta, bere lan au egin ondoan, erraten die artan ari ziranei: nere itxea otoitz itxea da mundu guziarendako, eta zuek zeren egiteko oriekin egin didazue lapur etxe. Eta geroz etzion bati ere utzi nai andik kargerian ibiltzen.

Ekasten dezu, bein, ta berriz ere Jesusek Jerusalemgo elizan egin izandu zuena? Ezin ote legike gaur zurekin ere gure Jesus maitagarriak, aldi orietan jerusalendar oriekin egin izandu zuena?

Atozea ezperen: etzaude zu anitz aldiz beintzat, elizan egonagatik, eta otoitz egiten dagoenaren eran, andik urruti daduzkatzula zere asmo guzia, ta zere gogoetak? Edo etzaude zu elizan, zere gogoz ta pen-samentuz zaitzen, saltzen, ta erosten ardiak, beiak, edo lurreko zer edo zer? Etzaude zu elizan, andik usoak bazkatzen bezala, edo bear ez diran gauzei begira, ta oroitzapen lizun-loi anitz zere gogoan darabiltzkizula? Edo, elizan zu gorputzez egonagatik,

asmoz, gogoz ta buruz etzaude zu, askotan beintzat, diru kontuetan, saldu-erosietan, eun milla eskanbilletan, kargerri loietan, eta, nork daki zenbat erakeritan? Eta gisa onetan zu elizan egotea otoiz egitea da?

Ez, baizik eliza loitzea; eliza nastea, eliza zuk zere gogoeta ta oroitzapen lapurrez betetzea; ta elizan zuk, ongiak ongien gain egiteko dagoen zure Jaungoikoa otoitz onez palakatu bearrean, aserreturik uztea.

Nai badezu bada, dizun zuri zure Jaungoiko maitagarriak, bekatu berririk ez egiteko, ta zere nekeen gurutze onarekin zuzen ibiltzeko, bear dezun indar guzia ta laguntza, sar zaitez zu zere Jaungoikoaren jauregian, edo elizan ongi prestatu apaindua; ta egizkitzu zuk ango egitekoak, guztiz umilki, ongi oarturik, eta, an arkitzen zaran aldian, norekin diardukazun dakizunak bezala. Zuk ori era orretan egitera, eliza izain da (izan dedilla au zure errikoa, edo edozein beste tokitakoa), zure atsedentoki, ta irabazbide guztiz egokia; bada zure Jaungoiko maitagarriak bere graziarekin, ta esku onarekin leunduko ditu zure neke gurutze guziak; eta denbora berean emain dizkitzu anitz ondasun, ta ontarte.

B.

Era bareko bidea, nork berak bere baitan edo barrenean otoitz egitea

Elizara ezin zoazken aldietarako egizu zuk zere biotz berean gogozko eliza txiki, ta aldaretxo bat; eta or aldare orretan egizu gero, elizan egiñen zenuken otoitza; ta egizu or zuk zere otoitz ori, san Pablok adirazten dizun eran, onek erraten dizunean: nai dut nik, gizonak otoitz dagiten bazter ta toki guzietan, beren Jaunagana esku garbiak goitituz, irañik bageko biotzarekin, ta asaldaziorik batere artzen ez dutela. 1. Tim. 2.

Garbi zazu bada zuk orretarako zere biotz txargaldu ori. Ken egizkitzu zuk zere biotz beretik lurreko naikunde loi-makur-beroak edo, bear ez diran, zere naikunde guziak. Apain zazu zuk zere biotz bera umiltasunez, uste biziz, edo esperantzaz, ta zere Jauna zuk maitatu-nai andi-zuzenez.

Sar zaitez gero zu, gogozko zere oñ ariñez ta bidez, zere biotzeko eliza txiki orretan; ta, agur andiak or egiñik, or bertan arkitzen den zure Jaungoiko ongi-

Ille maitagarriari, asi zaitez eskatzen: ta eska zaiozu nai dezuna.

Ala egiten zuen, beste anitzen artean, Senako santa Katalinak; bada bere gogoz egin zuen Santa onek bere biotz berean aldaretxo bat bere santo Kristoarekin; ta lurreko bertze edozein egitekotan oñez ta eskuz ibilliagatik, naiez ta gogoz an arkitzen zen beti bere Jaungoikoarekin; ta an egiten zituen, elizan egin zitzaken otoitzak eta gauzak; eta era orretako bere otoitzekin erditsi zituen, bere burua santasunez beterik uzteko, bear zituen zeruko indarrak eta gauza guziak; baita zeru bereko birtute ta ondasun andiak ere.

Baña zenbat aldiz egunoro, ta zer orduz sartu bear ote du batek bere Jaunaren elizan, edo bere biotzekoan, an arkitzen dituen indar andiekin ongi bizitzeko, ta bekatu berririk egiten ez duela, irabazi andiak egiteko? Edo zenbatetan otoitz egin dezake batek goizetik arratseraño, bear den eran, ta orrenbat irabazirekin bizitzeko?

Era orretan biziko da, bai, ark ori, san Pablok erakusten duen adiñetan, ta zuzen, egiten duela. Ez dezazuela (dio san Pablok): ez dezazuela zuek zeren

gogotik iutzi zeren Jaunari zuek zeren otoitzak egitea: *Sine intermissione orale*. (1. Thesal. 5. 17.)

Ala egiten du, bai (ta ederki alare), itsasoz onzia zuzen darabilenak egin oi duena egin ezkerro. Ez da, ez, era orretan onzia darabilen Pilotoa, lotarako, Nort-izarrari bein begiratu bage, ta izar ark adirazten dion eran ontzia zuzendu artean. Lotatik jaiki orduko begiratzen dio berriz izar berari; ta izarrak agertzen dion bide zuzenez ezpadoa daraman ontzia, bide artaratzten du, trikatu gabe, edo denborarik galtzen ez duela; ta gero egun guzia darama, noizean bein ontzi-izarrei begira, aize gaistoak, edo ubeldeak galerazi ez dezoten onzi berari, eramán bear duen bere bidea. Baña bere begiratze, ta kontu artze oriek ez diote Piloto berari kendu oi bere jan-edanak, bere loak, eta gañerako bere gauza guziak, bear den eran egitea.

Egin ditzaketzu, bada, zuk ere zere gauzak, zere Jauna zuk bein ere zere gogotik uzten ez dezula, edo zere Jaunari zuk, egin bear diozun aldietan, otoitza egiten diozula: ta, ala zuk ori beti egitera, egiten dezu zuk, zuri Apostoluz zere Jaungoikoak adirazi dizun otoitza: ta ori zuk egiñen dezu, egin ezkerro zuzen ta kontuz goiz-arratsetako zere otoitzak, jan-orduetarakoak, eta elizara zaitezken aldietakoak: eta noizean

bein egunaz zu, ta iratzarririk arkitzen zaran gabazko orduetan ere, sartzen bazara zere biotzeko aldareraño, edo, arkitzen zaran tokitik, zere Jaunagana zuk zere gogo asmoak goititzen dituzula, ematen badiozkatzu, laburki badere, egin dizkitzun guzien eskerrak; eskatzen badiozu zuk bidenabar. Bein, leneko zere utsen barkamentua, berriz bere laguntza, zere gauzak zuzen egiteko; gero bere beldur santua, uts berrietatik eta orien bide galduetatik iges egiteko; batzuetan bere amore maitagarria; besteetan bera bere zeruan ekusi-naia; ta orrelako zer edo zer: baña utzi bage bein ere Jesusen Amaren egunoroko Errosarioa, zere Meza-entzutea; ta egunoro, edo al dezunetan, libru onetan zerbait irakurtzea, emen arkituko dituzun gauz onak egiteko asmoan.

Egin ote dezu zuk ori guzia oraindañoko zere denboran?- Egin ote dezu zuk onen laurdanik ere?- Ez egiaki, diozu, ori egin bageak ematen dizun damu andiarekin!

Orregatik egin dituzu zuk, zuk zerorrek dakizun adiña uts, eta bekatu.- Galzez galdua dago mundua, dio Jeremias profetak (*cap. 12. 11.*), zeren ez den mundu berean bere bearrari, bear den eran ta adiña, begiratu nai dionik; eta, bere bearra ekusten ez due-

nak ez dio, ez, bere Jaungoikoari eskatzen, bearretik ateratzeko, bear oi den laguntza ta grazia; ta, bear duena billatzen ez duena bearti gelditzen da beti, bera gero gosez ill artean.

Au gertatu zait niri, bekatura nazan guzietan; ta gertatu zait, bai, nik ongi begiratu gabez nere gabera, edo nere bearretara.

Etsaiez inguratua nenbillen ni gau, ta egun, ta beti. Nere aztura, ta pasione galduak elkar arturik zebiltzan, ta nere etsaiekin bat egiñak; eta, oriek garaitzeko, nik naita-ez bear nuen laguntza bein ta berriz nere Jaun maitagarriari eskatu bearrean, nerau sartzen nintzan ni nere galbideetan, ta nere etsai amurratuaren atzaparretan; ta gelditzen nintzan geroztik ni, nere oñetatik bururaño koan nazan au, oben-kulpaz erdiratua.

Eta sendatu ote naz ni, orduko nere erdiratze gais-to, ta eritasunetatik? Barkatuak ote daude oraindaño-ko nere utsak, eta bekatu guziak? Egin bear ote dut nik uts, edo kulpa berririk gaurgero bein ere?- Nere eskuan dago orrelakorik batere bage beti ni bizitzea. Ez dut orretarako bear nik, kontuz ibiltzea, ta ongi ta maiz nik nere Jaunari otoitz egitea besterik. Badakit orain, bai, au nola ta zer eran egiten den. Egin naiga-

bez betetzen baditut nik nere uts galgarrien neurriak, ondatuko naz ni betiko sulezean, ta galdua naz ni an, eternidade guzi-guzirako. Ala ni an azkenean galdurik gelditzera, nere zorigaistoan jaioa!

*Zelus domus tuae comedit me, et opprobria
exprobrantium tibi ceciderunt super me.*

Ps. 68. 10.

Zure etxea, zure eliza, zure jauregia ekusi nai nukean nik, zegokan eran, ta jende umil, begiratu-garbiz zena betea, baña zer gertatu da? (dio Jesus maitagarriak, bere Aita eternoarekin itz egiten duela) Kontatuak dira, ta ongi ezagunak, era orretan onaratzen diranak! Gañerakoak datoz, edo zertara datozen ez dakitela, edo ausardiz beteak, eta Etx-Jaunen eran; ta, emen zenbait denboraz egon, ta ondoan emendik doaz, emen zuri, nere Aita maitea, deus eskatu gabe; ta, berak bear dituzten gauza guziekin arkitzen balira bezein buru zuzenarekin, ta gogor, ta tieso: ta orregatik onara etortzen diranean, datoz beren gaitzerako bezala, ta atsekabe galantez zu ta ni biok ongi beteak

uztera; bada datoz, gogoz, begiz, biotzez, ta miiz nork daki zenbat txarkeri emen bertan egitera.

Egin dut, dio Jesus maitagarriak; egin dut nik zuk, nere betiko Aitak, dakizun adiña, oriek zentzarazi naiez, ta oriei erakusteagatik zertarako den zure itxeratzea, edo zertara etorri-bearrak diran zure itxera edo elizara etortzen diran aldietan: baña ez aditu egiten didate niri oriek; eta onara etorri oi dira oriek, eroen eran, ta beren buruen galtzera bezala; bada orien emengo eskaerak eta otoitzak izaten dira, emen bertako bekatu berriz beren buruak loitzea.

A, era orretan onara datozenen etortze galgarriak! Uzten ezpazaituzte zuek elizaratzen diranak; eta, zuen lekuan, artzen ezpedituzte elizaratze obeak, emendik aienatuak izain dira etorle berak, berak ori gutien uste dutenean; ta, orain oriek beren Salbatzailearen gaiñera bota dituzten, era orretako ta gañerako oben-kulpak, orduan artu bearko dituzte berak beren gain, orien astuntasun nekagarriarekin lerturik bizitzeko eternidade guzi-guzian, ta sekulan!

Ez arren, nere Jaungoiko maitagarria, ez! Gaurdanik egin nai ditut nik, zuk zerorrek nai dezun eran, nere elizaratze guziak, eta nere ango otoitzak. Indazu zuk orretarako zere eskua ta laguntza! bai arren, bai!

Si Patrem invocatis eum, qui sine acceptione personarum judicat secundum uniuscujusque opus, in timore incolatus vestri tempore conversamini.

1. Petr. 1. 17.

Aitaren izena ematen diozue zuek zeren Jaungoikoari, ta ongi egiten dezue, dio san Pedrok; baña begira (dio berak), begira: ez die Jaungoikoak mintzatzen diranen itzei begiratzen, begiratzen dio oriek berak egiten dutenari; ta egiten dutenean, duten barreneko begiratzeari.

Orregatik bada, alferrik ibilliko zara zu andik onara, ta nai dezun bezala; baldin ezpazabiltza zu, ibilli bear den bidez ta eran, galdua zara zu egun ta sekula guzirako; bada gure Jaungoiko zuzen maitagarriak ez du, ez, gure ezpañetara begiratuko: ezpañak batetik, eta biotza beste bidez, dabiltzan aldietan: ta itzez ta biotzez zuzen dabiltzanak dira, gure Jaungoikoaren begitarte ona, ta zerurako sententzia erdisten duten ibilleak.

Zerutik urruti arkitzen ote zara zu? Andik erbestatu ote zaituzte, ta desterratu zere oraindañoko oben-

kulpak? Ara naiez arkitzen zara, ala ere zu? Baña ara ezin zoazke zu, zere Jaungoiko maitagarriak zuri laguntzen ez dizula. Eta nai ote dezu zuk zere Jaungoikoaren laguntza? Bai?

Bada emain dizu (ta gogo osoz alere), zuk ori ongi, ta ongi, ta mugaz zere Jaungoikoari eskatu ezkeru.

Ote dakizu zuk, zer eraz egiten den, mugazko eskaera zuzen au?– Egiten da bada errumes beartsu baten eran, itz egiten zaiola, edo gure Jaungoiko maitagarriari eskatuz ziñez, umilki, ta garairik uts egin bage, erditsi uste duguna.– Lurreko umil-beldurtiak dira, beren Jauna lenenik urrikarazten dutenak. Oriei, bai, gure Jaungoiko maitagarriak ematen die, nai osoz, ta luzatu gabe, berak eskatzen diotena.

Zorioneko ibille zuzena ni, ni orien eran ibiltzera emen bizi nazaño! Ni era orretan beti emen ibiltzera, ni izain naz nere Jaunaren ume maiteetatik bat; eta, nik nere Jaun oni eskatu ezkeru, bere ume on oriek eskatzen dioten eran, bere esku indartsuaren laguntza ta grazia, izain dut nik au, bein ere uts egin bage; ta izain dut gero bere denboran sekulako gloria. Ala gerta dedilla, nere Jaungoiko maitagarria: bai arren, bai!

*Deus meus misit angelum suum,
conclisit ora leonum et non nocucrunt mihi.*

Dan. 6. 22.

Gutziz maite zuen Daniel zeritzan profeta errege Dariok; eta orregatik egin ere zuen, bere erreinuko irur gizon andienetatik bat.- Danielen on au ezin eramenez, Babilonako beste gizon andiak, egin izandu zieten, beren ustez, amilltegi edo galbide bat guztiz egokia.- Bazekiten gizon errebes oriek, oitua zegoela Daniel profeta goitz-arratsetako ta egunezko bertze zenbait otoitzetara; ta tranpiaz atera zioten errege Dariori, ogeita amar egunez, Errege berari baizik, otoitzik ez egiteko manua; ta manu au austen zuena bota zedilla, an Babilonian gosez arkitzen ziran leoi izugarri batzuen lezera.

Aditu zituen Danielek Erregeren manu au, ta au austen zuenak ekusi bearko zuen pena; baña, aditu ezpalitu baño geiago, etzuten izutu Profeta; ta urren-go egunean (geiago luzatu bage) egin zituen Danielek, len bezain astiz ta kontuz, bere otoitz guziak: eta orregatik aurtiki zuten leoi goseti gogorren artera, izan zedin an orien bazka ta janari.

Baña zer gertatzen da?– Otoitz onarena. Igortzen du bertan gure Jaungoiko maitagarriak bere Aingeru indartsu onetatik bat; eta lotzen ditu onek ango leoien muturrak: eta an dago Daniel leoien artean, bertze anbeste bildotsen artean arkitzen baliz bezain ongi ta seguru; ta ateratzen da gero, ater-ordua etorri zenean, ara aurtiki edo bota zutenean bezain oso, ta osasun onarekin.– Banatzen du errege Dariok Danieli aldi onetan gertatuaren berria, ta gure Jaunaren izena; ta gelditzen da Daniel leneko bere lekuan, ta erregek, len-ere baño agitz geiago nai diola.

Nai dezu izan zuk ere leku eder bat, gure Errege andi, Jaungoikoaren zeruko Erreinuan? Nai dezu zuk, gaitzik ez dagizuten sulezeko leoiak, lurreko gaistoak, eta zere pasione biziak!

Egizkitzu, bada, egunoroko artuak daduzkatzun zere otoitzak, eta zuri dagozkitzun gañerako gauzak. Ez da zer utzi guzietatik bat bera bein ere, zure etsaiak ori, zure egitekoak, zure lagun gaistoak, edo zerk edo zerk eragotzi naiagatik.

Zabiltza zu zuzen-zuzen zere Jaungoikoarekin, ta zere begietatik bein ere zere Jesus maitagarria galdu bage. Egizkitzu zuk, alik eta konturik onenean, zure Jaungoikoari dagozkan gauzak, eta, edozein neketan

ekusiagatik gero zuk zere burua, ez da batere zer bel-
durtu.

Gure Jaun ezinobea da, ta gure Jabe ezin- maitaga-
rriagoa, gure Jaungoikoa; ta, era onetako Jaun eta
Jabe batek ezezik, ez daki, den txikienak ere galzera
iuzten, bere lan guziak ongi egiten diozkan bere serbit-
tzaria.

Gure Jaun au, gure Jaun ta Jabe ezezik, gure Egille
ere da; bada Jaungoikoaren eskukoak gara gu guziok,
eta berak egiñak; eta nork-nai maite ditu, berak egiñi-
kako bere gauzak, gauz onak diranean oriek, eta bear
bezalakoak. Denbora berean gure Aita ezin-maitallea-
goa da gure Jaungoiko egille au; ta edozein aitag
maite baditu bere umeak, dituen bezala, zenbat mai-
tatuko ez ditu era onetako Aita batek bere ume onak?

Ezin geiagorañokoa da gure Jaun onen eskua, edo,
asm-al ditezkeen gauza guziak dagizkiena da Jaun
and-egille maitari onen aala ta eskua; ta bere esku
guziarekin laguntzeko dago Jaun au bere umei, bere
gauzei; ta bere serbitzariet, oriek eskatu ezkeru umil-
ki, ta bear den eran, bere laguntza.

Ona bada ni, nere Jaungoiko egille-on-indartsu-
maitatzallea, ona ni prest, zuk nai dezun guzi-guzia
egiteko.- Etsaiez inguratua nago ni, ta oriek garaitze-

ko indarren ta indarren eske. Ez emen dakizkitzu ukatzen zuk, ziñez ta ongi eskatzen dizkitzunari. Ziñez eskatzen dizkitzuk, bada, nik, eta beartsu-errumesak bezala, edo ezaguturik nere bearra, nere ezer-eza, ta zure izate ezinobea.- Zure bearrean nago ni, ta egoin ere naz, bizi nazaño: ta, au dakidan ezkerro, dakidan bezala, beti-ta beti, edo alik maizena eskatuko dizut nik zuri zere laguntza; ta eskatuko dizut, emain dida-zulako ustean.

Au lenagotik ez egiñaz, ta orregatik egin ditudan utsez, dut nik orain damu; ta damu au zuri nik, eta mundu guziari adirazi naiez, erratera noa, al dudan zintasan guzi-guziarekin: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

XLVIII.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN ONDOREN GURUTZEAREKIN

IBILLI NAI EZ DUTENEN KALTEA

On utsez, ta amorioz ezin eragin diguna guri, eragin nai liguke gure Jesus maitagarriak, lenik beldurtzen gaituela, ta izutuz badere, ta orretarako erakutsi zizkigun, bere Legeko bidean zuzen dabiltzanen doatasunak, eta ondasunak bezala, Lege beretik urrunduz galzen diranen kalte arrigarriak ere. Kalte oriei ere egin bear diegu guk beren begiraldia, aldi onetako otoitz-gai onetan; baña ekusi ondoan zein diran, orien pera beren naiez doazen kaltear gaisoak.

A.

Zein diran Jesusen legeko bidetik, edo gurutzetik iges egiten dutenak

Gure Kristo Jaunaren deiak aditu orduko, egiten dizkigu bere deiak gure etsai gaistoak ere; ta bidena-bar egiten du gure etsai amurratu berak bere alegiña, Jesusen ondotik kendu, ta bere aldera gu guziok era-

man naiez: ta, argana bagoaz gu, dio, emain dizkigu-
la antz atsegin ta gusto, antz ontarte on, onra ta esti-
mazio; baita irabazbide berriak ere; bizi gaitezen gu
geroz erraz, aisa, ta nai dugun eran.

Bere dei oni, ta eskaintze gaistoari indar geiago
eman naiez, ematen dizkigu gure etsai amurratuak
milla su ta tirrikazio; eramaten gaitu bere perell ta
bide galgarrietara, ta, armez ta lakioz beterik dautzan
bere tokietara; ta, an atsegin txar ta irabazi galduen
edadiarekin, nastu oi die antzi beren burua, egin
dezoten ez-aditu, bear den bide ta nekerako, Jesusek
egiten dien dei eme-eder-onari.

Badakizu zuk, zein ote diran itsu-gor-galdu oriek?-
Oriek dira beinik bein, Jesusen ondoren ibilli nai lukee-
nak, baña batere nekatu gabe. Oriek dira zerura nai
lukeenak, baña bide gogorrik ekusi gabe. Oriek dira
beren Jesus maitatu nai lukeenak, baña gogotik, edo
biotzez utzi gabe lurreko beren atsegin txar-galga-
rriak: eta oriek dira, zeruko bidez ibilli nai dutenak;
baña su-lezerakotik beren oñak atera gabe: ta era
orretako zerura-naia, ara ez-naia diña da; edo, zentzu-
gabeko eriazen naia bezalako naia.

Zentzurik ez duen eriak ere sendatu nai duela dio:
baña erraten bazaio, orretarako urratu bear diotela

bere besoko zaña, ta andik atera gaistaturik an arkitzen den odol-zatia; kendu bear diotela usteltzen asi zaion aragi-zatia; atera bear zaiola agin bat, ezur puska bat, eman bear zaiola edari miñ bat; edo egin bear duela, nai ez lukeen gauzaren bat edo beste, ez duela nai, dio, orrelakorik; baizik sendatu. Eroaren itz-keta!

Eta norena da zurea?- Sendatu nai dezula diozu zuk ere: baña odoltu gabe, edo itzultzen ez diozula zuk nori berea: ondu nai dezula, diozu zuk, eta garbiero bizi; baña kentzen ez dituzula jostatze lizunak, jan-edan galduak, bear ez diran sartu-ateriak eta luza-bideak.- Sendatu nai dezula diozu zuk ere; baña nekatu gabe, zere oroitzapen galduak zere gogo-biotzeta-tik iuzten ez dituzula; ta zere aragiaren naikunde loiak ilduraz, nekez, ta mortifikazioz ito edo lertu gabe.- Zerura nai dezula diozu zuk, baña aisa, ta gurutzerik gabe, edo Jesus maitagarriak egin, ta erakutsi zizkitzun gauzak egiten ez dituzula.

Zer nai da, bada, zure nai txar galgarri au?- Eri nagiaarena!- Zer erantzute da zure erantzute-modu au, Jesusek zuri deitzen dizuenean zeruko bere bidera, ta zere nekezko gurutzearekin aren ondoren ibiltzera?- Ezin txarragoal Ez-aditu egin adiñakoa!

Onen gaitzki ez izan arren, ez-aditu egiten diote Jesus maitagarriari beste anitzek ere. Badakizu zein diran oriek?- Oriek dira, zerua irabazteko gauz onak egiten dituztenak: baña ez bear diran adiña, bear diran aldietan, edo bear bezala.

Adirazten die beren Jaungoikoak, edo berez, edo konfesariz, edo predikatzaldez, edo libruz, edo nolere-bait, zerurako egin bear dutena; baita noiz ta nola egiñ ere: baña ez dute oriek zuzen egiten, beintzat beren Jaungoikoak adirazten dien guzia; ta orregatik ez dira sendatzen, edo sendortzen bear bezala, gero Jesusi darraizkola, birtutezko aldapak iganez, zeruan sartzeko.

Badira eriak, ziñez sendatu nai dutenak, era orre-tarako gauz anitz on egiñagatk, len bezain eri geldit-zen diranak. Badakizu zergatik?- Zeren dabiltzan eri oriek beren buruz; ta, onak izanagatik, artzen dituzten auts, edari ta gañerako gauzak ez diran oriek, orien gaitzari dagozkanak; eta orregatik diran auts-edari, indarren galgarriak, ez emalleak.

Jesusek utzi zizkigun guri geren senda-bideak, eta aldioroko gauzak; baña anima eriak ez dira, oriek bereisteko, onak: egiteko ori utzi zien Jesusek animen medikuei, ta konfesari aditu-inei.- Sendatu nai due-

nak, eta osasunan bizi, bizi deño; ta nai duenak ibilli gero Jesusen ondoren, billatu bearko du mediku orientatik bat, eta ikasi bearko du mediku beragandik zer gauzak utzi, gaitzik egin ez dezaioten, ta zer egin goizetik arratseraño, asteko egunetan, illoro, ta urte guziguzian; ta, ikasten badu argandik egin bear duena, ta egiten badu gero ikasten duena, izain du osasuna, bai, baita bear den adiña indar ere, bere nekezko gurutze ona jasotzeko; ta, ura soñean duela, ta berari dagozkan gauz onak eginaz, ibilliko da geroz Jesusen ondoren, ta sartuko da, beraren Jaungoikoak orrelakoei prestatu zien tokian, edo zeruko glorian.

Baña zenbat ote dira, ori egiten dutenak? Zenbat ote, orretan beren buruak beti, (ta zuzen) erabilli oi dituztenak? Erran dezatela munduko geienen ibillerak, eta erran dezala geienak egin oi duten bizitzamoduak.

Zeñetatik ote zara zu, au aditzen dezun bekataria? Gure Jaunak nai duena, ta beren konfesari onak adirazten diena baizik egiten ez dutenetatik, eta ori ere zuzen-zuzen egin naiez, orretarako egin bear diran gauzak egiteko, prest arkitzen diranetatik? Edo ote zara zu, Jesusen gurutzearen igesi dabiltzan alfernagietatik, edo ote zara zu, Jesusen gurutze au alde-

bat utzirik, aisa, lasai, ta beren gogora dabiltzan itsuetatik? Edo, ote zara zu, gure Lege garbi zuzenak dakazkien gauzak eta nekeak bein artu, bein utzi, ibilli oi diranetatik, eta, orregatik, dabiltzanetatik ez ongi, ta ez bear bezala? Azkeneko orietatik zu izatera, zure galdua! Ai zure kaltearra! Zenbateraño ote? Goazen ekustera.

B.

Zein kaltearrak diran, Jesusen guretzea, edo beren Legeko bidea eramanez ez dutenak?

Nolerebait ezagutzeko guk gure Legeko gurutzearen igesi dabillenaren kalteak, ekus dezagun orain begiraldi batez, len luzaro ta astiz adirazi dugun guzia; edo ekus dezagun zenbat nai dien gure Jesus maitagarriak, beraren ondoren, beren gurutze au, edo gure Legeko nekea soñean dutela dabiltzanei. Nai duenak (dio Jesusek. *Matk. 16, 25. etc.*) bere burua sulezeko bidetik atera, ta bere Jaunaren bidera, edo zerukora eramanez, ez dezala izan emen bere buru bera batere

kupide; auts bitza bertatik bere naikunde makur guziak; utz bitza alik lenena, leneko bere pausu ari-ñak: eta ar bitza biotz onarekin, ta Jesusen izenean, lurrekoen txarkeriak, gogortasunak eta esker gaistokak; eta ar bitza gisa berean bere kezakak, bere eritasunak, bere gabeak, bearrak, eta beste edozein uts, eta tristura; baita al dituen, edo konfesari jakintsuak bereisten diozkan, ildurak eta mortifikazioneak ere.

Ori egitera batek, artan ari dela, galduko balu ere bere bizitza, bukatuko ditu ongi ta zuzen bere nekeak, iges egin du betiko nekeetatik, eta izain du gero bere denboran sekulako bere bizitza ta gloria.

Orra Jesusek zuri eskaintzen dizun ondasuna, berak daramanaren gisako gurutze bat zuri arrerazi nai dizunean. Eskañiaren naigarria! Bizitza labur bateko zenbait neke txikigatik, beti-betiko atsegin-kontentua; ta atsegin-kontentu, nekerik ez duena!

Ekus dezagun orain, zer kalteak diran, bere Jesusen gurutze au aldebat utzirik, bere gogora dabillena-ren kalteak.

Era onetan dabillenak galtzen ditu beinik bein, orain adirazi ditugun ondasun guziak; eta denbora berean artzen ditu bere gain beti-betiko suak, beti-betiko *ai*-a! beti-betiko naigabeak, beti-betiko

damuak, eta beti-betiko sulezea!- Orra zer kalteak, Jesusen gurutzearen igesi ta beren gogara dabiltzanen kalteak.

Onen kaltepe arrigarritik atera naiez gu gure Jesus maitagarriak, edo an sartuak gu ez ekusteagatik, erraten digu, beregana deitzen gaituen aldi guzietan: Atozea zu, nere anima, ta zertako du batek mundu guziguzia ere, bere atsegin ta kontentu guziekin; bere urre-zillar ta ondasunekin, bere manu, ondra ta esku guziarekin, galtzen badu azkenean, (galduko duen bezala) au guzi-guzia eta, onekin batean, graziaren ondasun ta zeruko atsegin-kontentu-gloria: ta, galtze au bere obenez egiten duenean, erosten badu sekulako lertzea ta sekulako su-lezea? Asma diteke kalte au baño kalte andiagorik? Au da bada sulezean datzan edozeñena: ta au berau, etsai galgarriaren bidetik kentzen ez den edozein mundukorena!

A, sulezeko gaiso-negarti erre-nekatuak; eta zer egin ote ziran zuen emengo atsedete gaistoak, eta lenagoko zuen nagitasun alferrak? Zer egin ote ziran zuen edari beroak, zuen atsegin lizunak, zuen gusto loiak, eta zuen ibiltze galdu-makurrak? Non arkitzen ote dira orain zuen ondasuna? Non zuen irabaziak? Non gañerako, zuen lur gañeko gauzak?- Eta zer egin

ote ziran emen zuek zenituzten agur andiak, eta oorezko esku-muñak, eta begitarte onak? Zer zuen antuste arrotzarra? Zer zuen bendeku irakiña? Eta zer zuek geienik emen maitatzen zenuten arako gauza txar galgarri ura!- Aitu zen au; ta aitu ziran zuendako, zuek emen izandu zenituzten andi ta txiki guziak; eta guzi-guziak aitu ziran beti-ta-betirako!

Baña bein ere galduko ez diranak dira, zuen orko negar erreak, zuen orko karrasi ta orro amurratuak, eta zuen orko erretze, urratze, ta lertze zorigaistokoa. Ez da au ala? Zer diozue? Baietz? Egia diozue. Bai: ala da: ezin uka daiteke.

Ongi da, bada, nere anima: ta zuk au dakizun ezkerro, ez ote dituzu utzi uste zere oraindañoko erakeriak, eta bide galduak? Izan bear ote dezu zuk, emen bizi zaraño, zorigaistoko negarti orien erakoa, ill ondoan gero zu izateko, orien beren lagun erre-urratu madarikatua; ta ala izateko beti-ta-beti, ta sekula guzian? Beti zu ala izatera, alkekizun onak eta nekeak ekusteko jaioa zara zu, ta zorigaisto-gaistoko umea!

Bai, dio Jesus maitagarriak, bai, etorriko da egun bat (ori da azken-juiziokoa), bekatari gaisoendako ongi lotsagarria. Egun artan agertuko naz ni dio, nik nere Aita eternoagandik dudan esku ta indar guziare-

kin: ta agertuko naz, nazan au, Aingeruz inguratua.- Egun artan agertuko diet nik munduko guziei, nik bakoizagatik nere bizitza guzian, edo nik, jaio nintzanetik ill arteko nere denboran eraman izandu nuen gurutze gogorra, ta neke-tormentu guzia; baita zein ta zein diran ere nere ondoren ibilli izandu nai etzutenak, aisa beti, ta beren gora bizitzeagatik.- Denbora berean agertuko ditut nik gaisto guzien lan galduak, eta asmo makur guziak; eta agertuko ditut, an arkitzen diran Aingeru guziak, an arkitzen diran sulezeko etsai amurratuak, eta gañerako ango onak eta gaistopak egin dezoten ista ta ista; orien irri-istak eta erran ariñak aditzean, geldi ditezen gaistopak lotsaz ta alkez erdi-illak, eta sekulako damuz ta urrikiz beteak, eta lots-aldi au eman ondoan, aurtikiko ditut nik gaisto guziak, beren etsai galduekin batean beren sulezera, eternidade guzi-guzian urratzen, erretzen, ta lertzen an egotera.

Orra zein kaltearrak, beren gurutze onarekin Jesusen ondoren ez ibiltzeagatik, bekatzuz bekatu dabilzanak. Orien lagun gaistoa nai ote dut izan nik ere, bizi nazaño, oriek bezain kaltear izateko gero sulezeko sekula guzian? Edo lagun egin nai ote diot nik nere Jesus maitagarriari, emengo bere nekezko bidean,

Jesus berarekin atsegin ta kontentuz beterik bizitzeko gero beraren eternidade guziko glorian?

Baldin arkitzen ezpanaz ni nere burutik irauzia, pozik artu bear dut nik, Jesusek niri erakutsi izandu zidan zerurako bide zuzen garbi au, bide au baliz ere, den baño agitz-eta-agitz latzagoa, luzeagoa, ta gogorragoa.

Ala da, bai, nere Jesus maitagarria! Ero batek baizik, ezin ar dezake gaistoak daramaten, ta nik ere eraman izandu dudan, bide galgarria! Eroaren pausuak dira, bide orretan oriek eta nik oraindañoko denboran eman izandu ditugunak. Emanak, emateko baleude gaur, emankizun geldituko lirake, bai segurki, nere aldetik beintzat, eun milla milloi urtez bizizo banintz ere ni emengo lur gañean, ta edozein tokitan: ori da beintzat oraingo nere asmoa!

Indazu zuk, nere Jesus maite-maitagarria, asmo berean nere egunak bukatzeko grazia: indazu bidena-bar oraindañoko nere utsen barkamentua; ta, zugandik niri datorkidan nere gurutze au arin eramateko, eskatzen dizudan zere laguntza ta grazia: bai arren, bai!

*Impius, cum in profundum
venerit peccatorum, contemnit;
sed sequitur eum ignominia, et opprobrium.*
Prov. 18. 3.

Egin detzokala bekatariari gure Jaungoiko maitagarriak, nai adiña oju ta dei; baña bekatari txarra, bere bekatuen ondoraño bezala sarturik arkitzen denean, ez-aditu egiten dio bere Jaungoikoari, dio Eskritura Santak.

Aditu dituzu zuk, nere anima, bein ezezik, berrizta-berriz, ta askotan ta askotan ere, zere Jaungoikoaren dei onak eta barreneko ojuak: baña igitu zara zu orregatik, eta artu izandu ete dezu zuk zere Jaungoiko beraganako bidea? Zeer? Izutzen zaituzte zu zere Jau-naren bideko gurutze-nekeak? Edo arkitzen ote zara zu anitz bekatuen itsaso ta osin arrigarrian, ta nagitasunez galdu-ustelduak?– Ala zu gaur arkitzera, edo azkenean zu era txar orretaratzen bazara, sulezerako zara zu bere denboran; ta aratzen zaran ordu beretik istaz, ta irriz lertuko zaituzte zu ango zere lagun gais-toak; eta beteko dezu zuk sekulako damuz ta urrikiz zere biotza; baña orduko zure damu-urrikiak urriki-

damu ustelak izain dira; ta eskergabeko damu-urrikiak!

Izutzen zaituzte zu zere Jaunaren Legeko nekeak, edo erne ta kontuz bizi bearrak? Ori da alfer-nagien beldurra; ta beldur, gosetiz betea.- Bai egiazki! Biotz txarresko jendeak gose ta gose dabilta, bizi diraño. Ez dute oriek, ez, nekatu nai beren Jaunaren lanetan; ez dute sartu nai, ez, oriek, zuzen beintzat, edo bear den adiña, beren zeruko egitekoetan; ta orregatik ez dute irabazten, ez, berak bear duten zeruko janaria, edo Jaunaren grazia; ta, bere Jaunaren grazi au ez duen animak ez du, ez, ekusiko bein ere betiko bearra ta bere gosea besterik. Eskritura Santak diona da, aditzen dezun au guzia: *Pigrum dejicit timor: animae autem effeminatorum esurient.* Prov. 18. 8.

Gos-egarriak ezezik, baditu alfer-nagiak beste anitz nekeera ere; bada ondrarik bage dabil, ta alkez ta lotsaz betea, era orretan dabillen denboran: ez dakar alabaña alkekizuna ta lotsa galgarri bat besterik, era orretako ibillera nagi-alfer makur-galduak.

Eta nere oraindañoko ibillerak, zer eratako ibillerak izandu ote dira?- Zuk zerorrek dakizun bezain txar galduak, nere Jaungoiko guztiz maitaria; ta utsez ta bekatuz beteak, eta guztiz lotsagarriak!- Itsutu naute

ni, bai; ta ongi-ongi ale-re, nere oben-kulpa galgarriak; eta, ala ez izatera, ezin bizi nindekean ni, bizitu nazan bezain gaizki, nere oraindañoko denboran!

Galdu nai ote dut, bada, nik nere buru au, ta bizi bear dut nik emen nazaño, begitan nadukatela ni nere Jaungoiko maitagarriak, eta Jaungoiko beraren alde arkitzen diran on guziak?

Ez nere Jaungoiko maitea, ez! Utzi nai dut nik, eta bertatik alaere, nere oraindañoko nagitasuna, artzeko gero nik, zugana daraman nere Legeko bide zuzena. Indazu zuk, orretarako bear den argia, laguntza, ta grazia. Bai arren, Jaungoiko maitea, bai!

Desideria occidunt pigrum.

Prov. 19. 24.

Gos-egarriak eta desondra ez dira nagiaren neke guziak. Nagiak egin nai luke, bere Jaungoiko maitagarriak manatzen dion egiteko ta lan guzia; baña bat ere nekatu gabe. Ondu nai luke, bai, baña uzten ez dituela bere zenbait atsegin, gauza, ta jostatze galdu; edo ondu nai luke, bai, baña gaistakeriz gaistakeri dabillela; ta onduko denak egin bear dituen gauzetan batere

bururik austen ez duela; ta, era onetan dabillen artean, urratzen diote biotza bere ondu-nai-ez naiak, eta denbora bereko bere nai galduak.

Bere ondu nai zuzenen batzuek agertzen diozkatenekeen igesi dabil bere nagitasunak galdua dadukan bekataria; ta zenbat ere geiago iges egiten duen, bere lenbiziko nai zuzenetatik, anbat geiago nekatzen ta urratzen du bekatariak bere burua.

Bai, dio Espiritu Santuak, bai: aranzez beteak daude nagi-alferraren bide guziak; bada guzietan arkitzen ditu alfer-nagiak bere kezkek eta naigabe beltz illun gogorak; bere bidea galdurik dabill alabaña, ta utsez uts, ta bekatu nekatzalleen sasiz sasi.

Alferrik ibilliko zara, bada, zabiltzan bezala, edo zabiltzan bidez, aisatasunen ondoren, ta lasaitasunen billan; bada bide txar orretaz, edo alfer ta nagi dabil len gaisoak, ez du sosegu onik arkitzen bein ere, noizean bein arkituagatik zerbait ezti-aintzura, edo atsegin iduri; bada zeruko bidez ez datozenak, izurritz beteak dira, ta guztiz naigabetiak; atsegin-bidea, Jaungoikoaren gauzetan erne, ta zuzen dabillenen bidea da, bakar-bakarrik: *Iter pigrorum quasi sepes spinarum: Via justorum absque offensiculo*. Prov. 15. 19.

A, nere Jesus maitagarria! ta zenbat nekeren arte-
tik aterako nuen nik nere buru au, lenagotik nik eza-
gutzera orain aditzen dudan egia! Utziko ditut nik, bai;
ta pozik alere, nere oraindañoko nagitasunak! Erne
biziko naz ni gaurgero, bai, zure dei leun-meak aditze-
ko: ta an izain nazu ni zuk, zuk niri txistu mee edo dei-
tzetxo bat egin orduko; ta an izain nazu, zuk zerorrek
nai dezun guzi-guzia zuzen egiteko, ta nere gurutzea-
rekin ni zure ondoren arin ibiltzeko! Zurea da, bai,
oraingo nere asmo on au ere; ta, bein ere nik au gal-
ez dezadan, indazu zuk zere esku indartsua, zere gra-
zia, zere laguntza. Bai arren, Jesus maitea, bai!

Iniquitas calcanei mei circumdabit me.

Ps. 48. 6.

Banabilke, bai, dio Dabidek, bizi nazaño ni, nere
gogara; banabilke, bai, ni, nik neronek nai bezala, ta
nere Legeko gurutzea ta bizitza garbia aldebat utzirik:
egin ditzaket nik bitartean, bai, nere gogo gaistoak
eskatzen dituen gauza guziak, eta nere aragi loikor
onek eskatzen dituen lizunkeriak; baña egunen
batean ageriko da nere lan au guzia, ta ekusiko dut

nik, eta ekusiko naute munduko guzi-guziak ere, nere bekatu galduen sare gaistoan burutik oñetaraño ongi bildua ta lotua. A zer ekusgarria!

Emen banabil ni ondasun-bidez; emen ibiltzera ni atsegin-bidez, ta nere Jaunaren bidetik urrun, Jaun beraren igesi banenbil bezala, egiñen ditut nik, bai, nere gogoeta galduak nai dituzten zenbait gauza, ta bekatu: baña ez naz ni, ez, beti emen bizi bearra: agertu bear dut nik egunen batean (ta egun au, nik uste dudan baño agitz alderago dago), guztiz gogorra den kontu-artzalle Jaungoiko baten begietan. Zer kez-kak, orduko nere kez-kak! Zer urrikiak, zer damuak! baña damu, ta urriki guztiz berankorrak!

Orduan nik naiagatik, ezin dagiket nik, nik neronek naiko dudarik; ezin palaka dezaket nik, nik nere bizi-tzan aserretua dadukadan nere Jaungoiko maitagarria: *Non dabit Deo placationem*. Etzait orduan niri baliatuko, nere nolere-baiteko Jaun au palakatu-naia, edo nere Jesus maitagarriak nigatik, eta bere Aita palakatzeko, egin izandu zuena: *praetium Redemptionis*; eta ortu beretik asiko da betiko nere naigabea, betiko nere pena, betiko nere sua, nere erretzea, nere urratzea, nere *ai*-a! ta karrasi madarikatua: *et laborabit in aeternum*.

Baña nai badut nik orain bertatik zentzatu (dio Dabidek berak), eta artu nai badut nik, artu bear den Jesusen gurutzezko bidea, edo nere Jaunaren Legekoa, ez dut ekusiko nik era onetako ekuskaririk; lagun-duko dit niri nere Jaungoiko maitagarriak nere bizitzan; ta nere bizitz au nik ongi bukatzen dudala, libratuko nau ni nere Jaungoiko berak geroko nere neke guzietatik, *redimet animam meam de manu inferi*; ta eramain ere nau ni, atsegin utsak baizik ez dituen bere gloriara.

Aditzen dezu? Bai? Eta zer bide da orain zuk artu bear dezuna? Mundu eroarena? Aragi gaistoarena? Zere etsai galgarriak erakusten dizutena?

Ez, ez, nere Jesus maitagarria! Ez orrelakorik, ez! Zure bide zuzena da, gaurgero nik eraman nai dudana: naiz dela, den guzia, gurutzez ta nekez egiña. Zurea nai dut izan nik nere bizitza guzian, ta betiko eternidadean.- Lenago asmo on au ez-artuaz dut damu, ta zinki alere; ta, au artu gabez egin ditudan txarkeri guzian damuz beterik arkitzen naz ni gaur; ta txarkeri orien barkamentua erditsi naiez diot orain nik itzez, ta biotzez: *nere Jesukristo, etc.*

LAURGARREN LIBRUA

JESUSEN NEKE GOGORRAK, ETA ERIOTZA

Oraindañokoan guk ekusi ditugun gauzak ongi-asko adirazten digute andia dela, bai, ta bazterrik bagekoa, gure Jesusen ontasuna, ta Jesus beraren guganako ongi naia edo amorea: baña gure Jesusen ontasun au bera, ta Jesusen guri ongi nai-amore au obeki baizik Jesusek agertzen ez digu guri bere Pasioneko egun nekagarrietan, edo egun orietan, gure onerako berak egin, ekusi, ta eraman izandu zuenarekin.

Orregatik bada, ta guri geroi, beraganako eskerbide berri on bat agertzeko, egin bear dieztegu zenbait begiraldi, ta astizko ekuste Jesus nekatu-maitagarriaren Pasione santako gauzei ere; oriek ongi ta kontuz ekusiz, ezagu dezagun oraindañoko guzian baño ere agitz obeki, guk Jesus berari diogun zor andiaren zatiren bat edo beste; ta orduko gure ezaguera onek eraman gaitzan, Jesusen amore andi oni geren amorez nolerebait erantzutera. Asi gaitezen Judas galduaren esker-gabetasun arrigarriaren ekustetik.

XLIX.garren OTOITZ-GAIA

A.

Saltzen die Judasek ezer-ez batean Jesusen etsaiei Jesus maitagarria

Saltzen du Judasek Jesus? Saltzen die Judasek Jesus, Jesusen etsaiei? Eta saltzen die ezer-ez batean Judasek Jesus Jesusen etsaiei? Gauza arrigarria!

Nor ote da Judas Jesusen saltzalle gaisto arrigarriau? Nor ote da, Judas gaistoak orren aisa saldu izandu zuen Jesus maitagarria? Eta nor ote dira Jesusen etsai Jesus beraren erosle oriek?

Judas da Jesusen amabi Apostoluetatik bat.- Zein ote dira Jesusen Apostolu oriek? Oriek dira, batiatu diran guzien arteko Santurik andienak, eta, Elizako tokirik onen-onenean arkitzen diran gizonak.- Nork eman ote zion Judasi Jesusen Apostoluen arteko toki au? Jesus maitagarriak. Eta zergatik ote? Bere nai utsez, ta batere zor etziola.

Ongi zordun uzten du Jesusek Judas onenbat ondasunekin, ta onen toki ta leku eder andiarekin! Belauni-

katurik, eta arrastan dabilla ere, bera bizi den artean ez luke Judasek egiñen Jesus onari zor dion laurdenik ere.

Zer egin ote zuen Judasek bere zor andi onen alde?- Zeer? Aditzen dezuna; ta munduan den gizonik txarrenagandik ongille batek usteko etzuen eskerga-bekeria: bere ongille andi Jaungoiko-gizon Jesus saltzea! Ekusten dezu?

Nor ote da gure Jesus maitagarria? Jesus da, baldin zuk au ezpadakizu, Aita eternoaren Seme bakar-Jainko-gizona. Jesus da, zeruan ta lurrean arkitzen diran gauza guzien jauna ta jabea. Jesus da, mundu galdua erosi, edo zuzendu naiez, lurrera, gizon egiñik, etorri zen Jaungoikoa, ta orretarako, milla nekeren buruan, bere odola ta bizia gurutze batean eman izandu zituena. Jesus da zerurako bide bat mundu berari egin izandu dion Jaungoiko-gizona, ta zerura ziñez nai duten guziei arako bide au zabaldu diena. Jesus da, bere graziazko ondasunez munduko guziak bete nai dituen gizon-Jaungoikoa, ta Jesus da, eternidade bateko gloria igan nai dutenei eskua luzatzen diena.

Eta Jaungoiko-gizon, onen ongille au da Judasek onen aisa saldu izandu duena.- Au berau: ez besterik; eta Jaungoiko-gizon, onen ongille au, saldu du Juda-

sek, ekusi dugun ontarte ain andia beraren eskutik artu ezkerro.

Eta nori saldu dio Jaungoiko-gizon on ongille Jesus au Judas eskergabeak?- Jesusen etsairik gogorren-galduen-gaistoenei.- Zein ote dira Jesusen etsai oriek?- Oriek dira juduen arteko Apez-Nagusiak, eta Sazerdoterik andienak. Apez oriek ziran, Jesus ezin ekusi zuten gizon amurratuen erako batzuek. Oriek ziran, Jesus begitan arturik zedukaten gizon galduak; eta oriek ziran, Jesus galtzeko bideen billan zebiltzan gizonak.

Baña zergatik ote, edo zeri zegokala?- Zeren ongi nai zien: besterik bage. Zeren agertzen zien zeruko bide zuzena, ta Lege berri ondasundun, guztiz eder bat. Zeren debekatzen ta eragozten ziezten ongi etziran zenbait gauza, ta egiteko: ta zeren adirazten zien berak, nai ta ez egin bear zutena, emen onak izateko, ta gero Jesus beraren zeruan sartzeko.

Ote zuen Judasek Jesusen etsai orien zerbait berri?- Baita anitz ere: bada bazekien arazo andietan zebiltzala, Jesus ill erazi naiez; eta, ori zekienak bezala, billatzen ditu Jesusen etsai berak; eta, agerturik noski, Jesusen etziran anitz gauza; ta, besteen artean, Jesus zela usantza zarren galtzalle gaisto bat; Jesus

zela Moisesen Legeari begiratzeko ez zion gizon bat; Jesus zela ezteiez eztei, ta jale-edale andien artean, zebillen gizona; ta Jesus zela, bear ez ziran anitz gastu, galtze, ta gauza egiten ta eragiten, edo ontzat ematen zituen bat; eta, orregatik asperturik arkitzen zela bera ere (errain zien gero) Jesusekin egotez ta ibiltzez; eta, ikasirik zertan zebiltzan berak, an zetorkiela Jesus saltzera, ta erosle berei bidenabar erratera beren eskurako zuela, bere iguala egin ta laster, edo berak nai zutenean.- Ekusi dezue zuk oraindik onelakorik? Usteko zenuen zuk, gerta ere zitekela, au bezain gauz arrigarririk?

Zertan gelditu ote ziran Jesusen etsai-Apezak eta Judas? Zer iguala egin ote zuten elkarren artean? Edo zer eman ote zioten judu-Apaizak Judasi, Judasek berei saldu zien Jesus onagatik?- Berak nai zutena. Etzien, ori berbera baizik, eskatu Judasek, Jesus oriei saltzean; bada orduan ark oriei erran izandu zen: zer eman nai didazue zuek, nik zuei Jesus salduz emateko? Eta, oriek erantzun orduko, emain ziozkatela, denbora artako, ogeita hamar diru, iguala egiñik gelditu zen, Judas saltzallearen ta orien artean: ta joan zen Judas, Jesus bere etsai erosleen ekuratzeko, aldarte on baten billara.

Ezin egin zezaken Judasek, egin zuena baño iguala txarragorik: bada orrenbat eman bear zuen, korradu bat ere ez gutiago, juduen arteko edozeiñek, esklabo, edo kautibo ill bategatik ere (Exod. 21.): ta kautiboak, edo esklaboak ziran, bizi ziranean ere, juduen ta israeldarren arteko gizonik ezer-ezenak.

A Judas, Judas! denboraren batez ongi maitatzen zenuen, bada, zuk ere, zere ongille-on-Jesus maitagarria! Zer egin zaio, bada, geroz Jesus maitagarriari, Jesus maitagarria zuk orren ziñez, biziro, ta gogorki begitan artzeko?

Aztu, edo atzendu zaitzu zuri zenbat zor diozun zuk zere Jesus maitagarriari, Jesusek bere Apostolutako artu izandu zinduenetik? Kendu ote dizu Jesusek geroz, orduan zuri Jesusek emanikako lekua, edo leku andi orrek dakarren eskua? Egin ote dizu Jesusek zuri bidegaberen bat edo beste?- Zertan zabilta, bada, orren makur, ta zertan zere buruaren orrenbat arazo galgarriarekin? Zuk Jesusi zor diozun adiña zor zionak salduko zuen, bada, Jaungoiko-gizon-Jesus maitagarria? Eta, saltzekotan ere, salduko zenien Jesus, beraren eroslerik gaistoenei, ta judu gogor galgarriei? eta salduko zenien ezer-ez batean?

Zergatik etzenion saldu (saltzekotan) bere Ama, beraren ongi maitariari, santa Maria Madalenari, edo ongi nai zion besteren bati? Orietatik edozeiñek emain zizun zuri Jesus maitagarriagatik Juduak eman dizuten adiña, ta anitz geiago; baita zuen guzi-guzia ere. Izan zu, bada, zaran bezain diru-zalea, ta alere galtzen dezu zuk galdu dezun adiña diru ta irabazi! Ongi non-bait itsutu zaituzte zu zere oben-kulpak, edo gaizki galgarriak; eta ongi alere!

B.

Ezer-ez batetik asi zen Judasen itsuera, ta lan gaisto au

Judasen ondotik dabillen gaistoa da bekataria; ta aren ondora nai ez duen anima gaisoak, ekusi bear dn, nondik asi zen Judasen sal-bide galgarri madarika-tua; bada garbiri, zuzen, ta bear den eran ibilli nai duen animak ez du sartuko, ez, oñik bein ere bere buruaren gal-bidean, alakoa dela bide bat bein berak ongi ezagutzera.

Asi zen bada (baldin ezpadakizu) Judas galduaren gal-bide gaisto au utsegite zenbait txikitatik, eta guti-

ka-gutika ebaste gaistora oitzetik. Igortzen ziozkaten Jesus maitagarriari, edo ematen ziozkaten, ongi nai ziotenak, Jesusek berak, eta beraren Apostoluak bear zituzten gauzak; eta, besteen artean, zerbait diru.

Diru au beintzat (eta agian Jesusen gañerako gauzekin batean) Judasen eskuetan zebillen; ta au ekusiz ark, eta batetik bestera bete esku tartean zerabillela, diru-zaletu zen Judas betiko galdua; ta asi zen Jesusen dirutik gordetzen, gogoak ematen zion bere gauzeta-rako; ta egin zen lapur gaisto, ta ebasle galgarri. Ioan. 12. 6.

Gaistoarena! Onela gaistatu zenetik Judas, etzion Judasek ongi begiratzen gure Jesus maitagarriari. Aldian geiago erretzen zuten Judas Jesusen itzak, Jesusek ziardukanean beintzat ebaste gaistoan gain, edo kontra: ta Jesusen itz onak aditu, ta bere lapurreriak utzi, ta ondu bearrean, egunoro zen Judas ebasleago, naiez ta gogoz beintzat; egunoro zen gaistoagoa, ta egunoro begiratzen zion Jesusi Judasek gaizki baño gaizkiago; ta orregatik, eta gure Jaungoikoak artarako bear zen eskua ematen ziola, sartu zen Satanas Judasen biotzeraño, ta arrerazi zion Satanasek Judasi, Jesus maitagarria arras galerazteko asmoa: ta saldu-razi zion Jesus judu gogorrei, ekusi dugun bezain

merke ta diru gutitan; ta, zenbat ere diruzalea zen Judas galdua, naiago izandu zuen Judasek, zerbait gal-tzen zuela bazen ere, galdurik ekusi Jesus, ezen ez bere Amaren, Maria Madalenaren, edo, diru anitz emain zion, edozein besteren baitan edo mene onean.

Orra nola daraman, sulezeko gure etsai amurra-tuak, gutika gaistatuz, ta itsutuz, gaizki dabillen anima.- Gutiren bat arreraziko zion lendabizian etsaiak Judasi Jesusen gauzetatik. Urrengo al-dian zer-bait geiseago. Andik laster, ta fite bekatu andi bat egi-teko diña. Gero sartuko zion bere gogoan, geiago ta geiago izan-nai bat, naiz zela nai zen bidez ta eran; ta bere geiago izan-nai onegatik salerazi zion azkeneko, ta salerazi zion ezer-ez batean bezala bere ongille Maisu-Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria; ta salerazi zion milla ta milla neketarako, ta eriotz ezin-gogorra-go baterako.

Gauz arrigarria! Zuzen erabiltzera Judasek Jesusen gauzak; eta Judasek garaitu izandu balitu, garai zitza-ken bezala, bere diru-zalea ta diruaren naikunde makurrak, Judas arkitzen zen egun, ta beti zerukoeta-tik bat egiña; ta Jesusen Apostolu maiteen artean glo-riaz betea; ta, zeren ori Judasek egin izandu etzuen, egin zituen Judasek, egin ditezkeen gauzarik gaistoe-

nak edo gaistoenetatik anitz eta asko: ta arkitzen da gaur Judas; ta arkituko da Judas, Jaungoikoa Jaungoiko den denbora guzian, edo beti ta beti, ta bukaerarik ez duen eternidadean, guk guziok dakigun tokian, edo beti-betiko sulezean.

Judasen urratsak, edo pausu galduak ote daramazkitzu zuk ere? Diru-gurak ondasun-naiak, edo zerk edo zerk makurtzen ote dizu zuri ere, Judasi bezala, zere gogoa, zere biotza, ta zere anima?

Begira zazu, bada nola ta non zabiltzan; begira zazu nora zoazen zu, ta non gelditzen diran, zu zabiltzan eran, ta Judasen ondoren dabiltzan animak! Gelditzen dira, zorigaistoan jaiorikako ibille gaisto Judas gelditu zen tokian, edo eternidade guziko sulezean.

Orra nora daraman bere guti banakako ebaste galduak, eta besteren diru-naiak Judasi airerazi zion bere bide makurrak! bide makur berez zu ere bazabiltza, zuk ematen dezun pauso oro, edo bekatu egin aldi guzietan egiten dezu (zer uste dezu?) Judasen lan berbera, edo zuk ere zere Jesus saltzea.

Bai: dio san Pablok, bai, saltzen du Jesus gaistagin edozeiñek, gaizki larriren bat egin-aldietan.- Zergatik ote? Gaizkiak dakarren atsegina txar galduakgatik.- Nori saltzen dio bere Jesus gaistagin burugabekoak?-

Atsegin txar au nai duen, pasione galgarriari.- Zertako? Nai duen guzi-guzirako. Bada bekatari txarrak, bekatuan arkitzen duenagatik galtzen du, berez, betiko bere Jesus, ta uzten du Jesus bere pasione asaldatuen atzaparretan, Jesusez dagiten oriek berak nai dutena; ta saia ditezen, san Pablok dionaz, beren gurutze gogorrean Jesus bera bekatuz jostera: *Rursum sibimetipsis crucifigentes Filium Dei*. Hebr. 6. 6.

Eta au guzia nekiela nik, ibilli izandu naz ni nenbilen eran? Au guzia nekiela; egin izandu ditut nik, onen saltze gaistoak? Au guzia nekiela, egin izandu ditut nik, egin ditudan adiña gaizki ta bekatu?- Gaizki neritzan nik Judas saltzalle gaistoaren igualari, edo ogeita amar dirutan Judasek Jesus salzeari; ta alere saldu dut nik neronek Jesus bera, agitz gutiagotan; bada saldu dut nik Jesus bera atsegin zikin, asmo lizun, ebaste galdu, nai galgarri, edo beste zerbait orrelakotan: ta saldu dut nik nere Jesus, bein ezezik, orrelako gauzaren bat egin izandu dudan aldi guzietan?

Eta ez naz alere ni nerekin aserretzen? Ez naz arritzen ni nere Jesusen egoeraz? Bada Jesus, nik ura onela salduta ere, dago, gaizki bat nik egin ezpanio bezain ixill ta geldi: ta denbora berean, niri nere obenkulpa guziak, nere salduera galduak, eta gañerako

nere erakeriak barkatu-naiez, eta ori guzia nerekin egiteko, nere naiaren ta damuaren begira dago!

Ekusi zazu bada damutzen zaitzun zere Jesusen damuzko saltzeaz, eta gañerako zere gaizki guziez: eta ekusi zazu, nai dezun zuk zere Jesus onagandik orien guzien barkamentua?

Inglorius erit inter vivos.

Isai. 52. 14.

Ona non ekusten dugun Isaiasek urrutitik erakusi ziguna, erran zuenean *onrarik gabe arkituko da giz-artean*: bada ala ekusten dugu guk gure Jesus; eta ala baño ere agitz gaizkiago ekusten dugu; ekusten dugu alabaña, den guzia desondratua; ta gaistagin arrigarri bati bezala, bizia kendu dezoten, ezer-ez batean bere etsai amurratuei saldua!

Baña norgatik ote dira gure Jesusen onenbat desondra, edo noren onerako?– Zure ta nere bion onerako, zuk eta nik biok ala nai izatera; baita mundu guziaren onerako ere, munduko guziak ori nai dutela.– Onetarako egin zen gizon, ta ibilli zen Jesus giz-artean, lurreko bere bizitza guzian. Onetarako ziran Judasek

Jesus saltzea; ta Jesusek ekusi zituen gañerako bidegabe ta neke-tormentu guziak.

Zer bada? ta, nere onerako etorria dela Jesus, gal-tzen dut nik nere Jesus maitagarria, ta saltzen dut Judas galgarriaren eran?- Emen ondasunez, ta zeruan ondraz ni bete-naiez nere Jesus; eta ni nere naiez Jesusen desondraritzar bat egiñik, nere bekatuetako denbora guzian? Au ezagutu dut nik; eta ala ere, ezait damuz lertzen niri nere biotz txar galdu au? Ez diot nik negarrez eskatzen nere Jesus maitagarriari nere oraindaño-ko erakerien, nere oraindaño-ko eskergabetasunen, ta nere oben guzen barkamentua?

Ongi bearturik arkitzen naz ni, bein, berriz, ta nere ill-arte guzian, ori nik maiz egitera. Indazu zuk zero-
rrek, nere Jesus maitagarria, lan orretan asteko anitz laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

*Si fortior eo (forti armato) superveniens viceris eum,
universa arma ejus auferet,
in quibus considerabat.*

Luc. 11. 22.

Armaz beterik dagoen indartsu batek, etxe bat zaitzen duenean, zaitzallearen pean arkitzen dira etxeko gauzak: baña bera baño indartsuagoren batek ura garaitu ezkeru, kentzen diozka bere arma guziak, eta uzten du andik aienatua.

Zu zara, bai, gure Jesus maitagarria, au guri agertu diguzun erakuslea. Armaz ta tentuz garaitu gaitu geren etsaiak. Aspaldi da, jabetu zela gure etsai sendor, gure garalle madarikatua, gure biotzaz ta gure pasione guziez. Guziak egondu dira gero etsai beraren pean, ta berak eragiten diela berak nai adiña gaistakeri.

Ala da, bai, nere Jesus maitagarria; ta etsai berak, gaistakeri berriren batzuek eragin ditzazkidan belduzrez nago, ekusirik oraindañoko nere ezer-eza ta indar labur gutia. Zuk nai bazenu, nere Jesus maitagarria, aisa aiena zenezake etsai nere galgarri au emengo bazterretatik; bada, au ta onen lagun guziak baño, milletan ta milletan ere indartsuagoa zara zu; zu zara alabaña, zerorrek nai dezun guzi-guzia dagikezun Jaungoiko-gizona.

Atoz bada, Jesus maitagarria, atoz arren; ta atera nazazu ni nere etsai galgarri onen petik, eta eskutarretik, etalagun zakizkit gerozko nere denbora guzian,

nere pasione sutuak eskuratzen. Zuk au nerekin, nitaz urrikaldurik, ez egitera, egiñen dute nitaz nere etsai galgarriak, eta pasione berak, gogoak ematen diena; ta salduko zaitut nik zu berriz ta berriz ere, edo bekaturatzen nazan guzietan: ta ekusten dezu zein gauza itsusia den au, ta zein izugarria.

Ez dedilla era onetako asmorik berriz sar nere gogo arin, ta biotz txar galdu galgarri onetan! Aiena ditezela biotz beretik, zorigaistoan len emen sartu ziranak ere.

Ala gertatuko da, bai, nere Jesus maitagarria, zuk, nitaz urrikaldurik, barkatzen badituzu nere oraindaño-ko oben kulpa guziak. Ori eskatzen dizut nik gaur damuz ta negarrez, ta zugandik anbat erditsiko dudalako uste osoan. Ala gerta dedilla, bai arren, Jesus maitagarria, bai!

Decorum pretium, quo appetiatus sum ab his.

Zachar 11. 13.

Orra, gizonak; orra zenbat ematen duten juduak Jesus onagatik! Ogeita amar diru txar; geiago ez, korradu bat ere! ta pagu ori, orren pagu txarra izanik

ere, pagu ona deritza Jesusen saltzalle, Judas itsu txar galduak; eta pagu txar ori artzeagatik, artzen ditu Judasek, nork daki zenbat ibillera ta arazo!

Pagu ederra; ta agitz alere, Jaungoikoari eskerrak! dio Zakarias Profetak, arriturik bezala, juduen ta Judasen ausardi itsu zikiñaz, ta iguala zirtzillaz. Eta ederki dio; izanik alabaña (zen bezala) gure Jesus maitagarria, Aita eternoaren seme bakar Jaingoiko-gizon ezin paga ditekena; ta alere ekustea, Zakarias santuak, profeten begiz ekusi zuen eran Jesus ezer-ez zirtzil batean Judasek judu gogorrei saldua, Zakariasen erako profeta jakintsu santu bat ezezik, nornai arritze-koa den gauza itsusi-izugarria da.

Atozea, zu ere, nere gisako bekatari txarra; atozea zu ere, Judasen iduriko Jesusen saltzallea; ta ez dezu saldu izandu zuk ere berriz, ta berriz, ta askotan, ta anitz aldiz zere Jesus bera ogeita amar zillarrezko diru baño agitz gutiagoan ere? Ez dezu saldu izandu zuk zere Jesus maitagarria laur errealetan, edo anitz andiagoa etzen irabazi zikiñen batean? Ez dezu saldu izandu zuk zere Jesus maitagarria kezka ta damua baidarik utzi ez dizun atsegin txar-loi batean? Saldu izandu ez dezu zuk Jesus maitagarri bera bendekatu-nai sutu batean; edo debekatua zegoen jan-edan txar, edo era

orretako beste gauza zirtzil batean edo bertzean? Paga txar-galdu zirtzilla bazen bada, Judasek Jesusen bere saltzetik aterarikako diruzko pagua, zer pagu da zuk zere Jesus beraren saltzeetatik atera izandu dezun pagu txarra? Guztiz ederra! Guztiz andia! Bai segurki!

A, gure, geren buruen galgarriak! Saltze orietan galdu izandu dugu guk; eta galdu izandu dugu, ezer ez bat ordañez artu naiez, gure Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria!

Baña ez dugu, ez, guk ori bakarrik galdu izandu: galdu izandu ditugu guk geren saltze orietan geren buruak, geren animak, geren zerurako deretxa, ta gure Jaungoiko maitagarriaren grazia! Galtzearen izugarria!

Gure Jesusek erosi ginduen gu, gure onerako; ta erosi ginduen bere odol-isurtze, bere neke, ta ill arteko bere pena guziekin; bazekien, bai, zer egiten zuen gure Jesus maitagarriak, onenbat nekerekin gu erosten ari zenean; ta orretan Jesusek ekusia ekusi, ta emana emanik ere, kontent arkitzen zen bere gauz erosiarekin.

Ekusten dezu zuk zein tratu txar-galdua zen zuk egiten zenuen tratua, zere gogo zikiñari atsegin egi-teagatik, saltzen zenuenean zuk zere Jesus maitaga-

rria; ta Jesus maitagarriak, anbat neke-pena ta odol-
isurtzerekin, erosi zuen zure anima?

Egiteko baleude, gaurgero egiñen zenituke zuk
orren tratu gaistoak? Galtzeko baleude gaur, galduko
zenituke zuk, mundu guziagatik ere, zere Jesus maita-
garria ta zere anima?

Ez nere Jaungoiko maitea, ez! Eta bertatik nik,
nere naiez ta gogoz, urratzen ditut oraindañoko nere
tratu galgarriak. Ez dute balio bear, ez: ez nekien ala-
baña nik zer egiten nuen, oriek nik itsu-itsuan bezala
egin izandu nituenean. Gaizki egiñak dira guziak; eta
damuz urratu bearrak eta, oriek guziak orain urratu
naiez esatera noa itzez ta biotz osoz, zuk orretan niri
gaur laguntzen didazula: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

L.garren OTOITZ-GAIA

OSTEGUN SANTU ARRATSEKO AFALTEGIAN JESUSEK JUDASEKIN EGIN IZANDU ZUENA

A.

Afaltzen du Jesusek Judasekin; erraten dio zentzarazteko diña: baña alferrik

Israeldarrak egondu ziran anitz urtez ijitoen pean, ijitar beren bazterretan, edo Ejiptoko erresuman, ta, egondu ziran baño urte geiagoz ere an egon bearrak ziran, Jaungoiko maitagarriak, israeldar beerez urrikaldurik, andik oriek ez ateratzera, nork-daki zenbat gauz arrigarri artarako an berean, ta andik israldarren bazterrerako bidean.

Beren andik ateratze, ta era onetarako ateratze onegatik; anitz zor zioten israeldar gaistoak beren Jaungoikoari; ta beren orduko zor andi au beren gogotik joan etzekien, iutzi izandu zien Jaungoiko maitagarriak israeldarrei berei Bazkoa zeritzan, ta zazpi egunez irauten zuen, fest andi bat.

Fest onen lenbiziko arratsean jan bear zuten etxe bakoitzeko israeldarrak umerri, edo bildots erre bat, letxuga miñekin, ta legamirik edo orantzik bage egiñikako ogiarekin, ta etxe bakoitzekoak aski ezpaziran ura bukatzeko, eraman bear zituzten auzoko etxeetatik, umerri bera jateko ta bukatzeko, bearko ziran lagunak.

Era onetan Bazkoko fest au egiteko, bazituen Jesus maitagarriak Fest au etorri zenean, bear adiña jale ta lagun; bazituen alabaña amabi Apostolu, bere saltzalle gaisto Judas galduarekin batean; ta gutiago ere aski izan oi dira, umerri bat bukatzeko.

Bere azkeneko urtean sartu zen Jesus maitagarria Jerusalemene bere Apostolu maiteekin batean, bildots edo umerri au jatera, ta jan zuten eren aitean, artarako an Jerusalemene Jesusek berezi zuen etxe batean.

Jan orduz etorri orduko, prestatu ziran guziak, Legeak zion eran maiera urbiltzeko. Jan bear zuten bildots beraren odolez busti zuten etxeoko sar-tokia. Erre zuten gero bildots bera, edo umerria: artu zituzten beren oñetakoak: lotu zituzten, edo gerri, edo gerrin-zira bildu zituzten beren soñekoak, bidez dabilzanan eran.

Artzen du gero bakoitzak eskuan bere bideko bakulloa. Badaude zutik guziak, maiaren inguruan; ta, ala daudela, jaten dute prisaka edo biziro beren ume-
rria, len adirazi ditugun beste gauzekin batean; ta jaten dute guzia, bidez abiatzeko dauden gizonen eran.

Jesusek, eta Jesusen Apostoluak jan izandu zuten bildots au, Jesus maitagarriaren imajina zen; ta, jaten zegoen bildotsa ekustean, naita ez gogoratzen zekion Jesus maitagarriari, andik denbora gutira bere buruan ekusteko zegoen neke ta pena guzia.

Bildots au (errain zuen, bai, Jesus maitagarriak orduan berekiko): Bildots au illik arkitzen da emen gure mai gañean; ta, illa ezezik, larruturik arkitzen da, den guzia; ta gerren edo burruntzi batean sarturik errea.- Eta oni gaur gertatua da, bigarko nere gauzen aintzura, traza, edo imajina; bada ni ere bigarko egu-
nean ekusiko naute begiratu nai didaten guziak, bein soñekorik bage, ta azot-ukaldiz, ta golpez nazan au guztiz larrutua, ta, nere baitan arkitzen den odol guzia dariedala; gero gurutzeko maian zabal-zabal ezarria, ta iltzez josi-urratua; ta len ta gero naigabez, nekez, ta tormentuz errea; ta azkeneko illotza, ta lurraren sabe-
lerako ederki prestatua.

Bildots au errain zuen berriz ere era berean (edo bere gogoan) gure Jesus maitagarriak; bildots au lenbaitlen bukatu naiez daude nere Apostoluak; eta, ala bukatzeko, jaten ta jaten ari dira guztiz biziro, batere gelditu bage. Eta emendik laster, ta fite asiko dira nere billan, niri gaizki nai didaten judu gogorrak; eta laster aski, edo amasei orduren buruko, bukatu idu-kiko dute orain ni erratera noan au guzia: artuko naute preso Jetsemaniko baratzean; egiñen dituzte, ni beren eskura orduko, beren batzarreak; emain didate niri beren auziera edo pleitu-modua: bukatuko dute nere auzi guzia edo prozesoa; emain didate eriotzeko nere sententzia; eramain naute beren azkeneko batzarretik, eta sentenzi au nere gain daramadala, jentilen Erromako juez Pilatosgana; adiraziko diote Pilatos juezari berak nai dutena; ezagutuko du Pilatosek judu gogorren niganako tirria; baita nere oben-gabea ere; ta alere, zerbait gerta dakion beldurrez, errain du Pilatosek oriek nai dutena: ta emain du judu berak nere gain emanikako sententzia berbera; ta, buru guzi au arantzez beterik daramadala, ta nere gorputz au odol agitz gutirekin, ta oñak nekez darabiltzidala, gurutze pisu bat nere soñean edo solbardan dudala, igorriko nau Pilatosek Kalbarioko mendira, ta an illeraziko nau

lapur biren artean, orien lagun gaisto bat bainintz bezala.

Au guzia gogoan zerabilhela, noizean bein begiratu-tuko zion Jesusek Judasi; ta nola zekien Jesusek, Jesus ezer-ez batean orduko saldurik zedukala Judasek, ta gau artan berean judu gogor berei arreraziko ziela preso; ta Judas beraren eskutik asiko zirala onenbat naste ta pena, izain zituen, bai, Jesusek bere biotz maitagarrian anitz urrikaltasun, kezka, ta naigabe.

A nere Jesus maitagarria; ta, zein latz-miñak izain ziran, zure biotz minbere urrikaltiarendako era onetako zure ekusteak, eta gogora-penak! Baña alere jaten zenituen zuk, edo artzen zenituen gogo osoz, ta nai andiarekin; ta artzen zuk, eta jaten zenituen, ni zere ondoren zere zeruko maiera eraman naiez. Zuri zor dizudan nai-amorearen andia!

Zenbat ere latzak ziran, orain guk ekusi ditugun Jesusen naigabe ta neke guziak, Jesus beraren aldi artako neke, ta naigaberik andiena izandu zen bere Apostolu Judas beti-betirako galdurik ekusteak ordu berean ematen ziona: ta Judas sutuaren galtze au galerazi naiez, ta Judasi urrik-erazteagatik, orduraño-ko bere pekatu itsusi eskergabeko zikiñez, Judas bera-ri arrerazteko gero, ontzeko asmoa, erran izandu zion

itz guztiz eme-leunez, ta alkekizunik batere ematen etziola: Au lana, nere Apostolu maiteak! Siñistuko zenukee? Zuetatik batek narama ni gaur nere etsaien esku galgarrietara, etsai berak eraman nazaten ni gero gurutzeko erioz gogor batera.

Au aditzean, agitz illundu ziran Apostolu guzien biotzak; begiratu zion batak besteari, ta bakoitzak bere barrenari, ezagutu naiez bera ote zen, edo zein saltzalle gaisto galgarri au.

Judas ez besteak ezin arkitu zuten saltze galdu errebes onen arrastorik; eta nork bere burua kezkatik atera naiez, asi ziran guziak Jesusi galdegiten, ote naz, Jauna, ni, gizatxar galdu zure saltzalle ori?

Etzuen Jesusek zein zen saltzalle au agertu nai izandu, alkekizun geiegi ez eman-naiez Judasi; ta begitan ar ez zezaten Judas gañerako bere lagun Apostoluak: baña Judas berari adirazi zion Jesus maitagarriak, bai zekizkiela, bai, aren bide galgarriak; eta, onetarako, ta geienak beintzat beren kezkatik atera naiez, erran izandu zuen klaro-klaroki: Ni galdu nai naben saltzalle gaisto au ta ni, plater batean jaten ari gara orain (janen zuten irurka, edo launaka plater batetik Jesusek, eta Jesusen Apostoluak).

Egia da (erran zuen an bertan Jesusek): onen eskuz banoa ere ni nere eriotzara, ez noa ni ara, oni atsegina au egiteagatik: nere Aita eternoak nai duena egiteagatik noa ni orain nere eriotzaren ortz gogorretara; bada nere Aita eternoak nai du ill nadin ni munduko bekatuen alde, ta guzien onerako; ta ori bera da, nik orain nai dudana. Baña zorigaistoan jaioa nere saltzalle kolkodun gaistoa, bada onek sekulako neke-negarretara darama bide orrez bere buru gaisoa.

Orduan Judasek, edo au guzia Jesusi aditzean, bere burua nolerebait garbitu naiez, Jauna (erran izandu zion Jesus maitagarriari) eta ote naz ni, zuk adirazten dezun zure saltzalle ori? Eta Jesusek eranzun zion, berak baizik aditzen etzuela: Zerorrek diozu.

Eta alere, zein urrikari zuen Judas, Judasi adirazteko; ta an bertan, Judas beretu naiez, artu zuen berea-las Jesusek ogi zati bat maitetik, eta plater-salsan busti, ta eman izandu zion Jesus berak bere eskuz Judasi.

Eta au guzia Jesusek Judasekin egin ta ere, etzen beratu Judas?– Batere: ta beratu bearrean, len baño ere agitz gogorrago gelditu zen Judas, ta barrendik su ta su Satanasek ematen ziola, lenbaitlen Apez juduen eskuetan utz-erazteko bere Maisu Jesus, onen emeki tratatzen zuena.

Orra bekatuz bekatu dabillenarena! Orra lendabizitik bere Jaunaren deiaz kasorik egin gabe, ta gogo gaistoak nai duen eran ibilli oi denarena! gogortzez gogortze igatea, ta Jaunaren deia ta deiak ez-aditu egitea.

Ez al da izandu era berekoa, nere oraindañoko ibillera? Izain ez al da beintzat etorkizuna? Ez baldinbere, Jaungoiko maitagarria.

B.

Garbitzen diozka Judasi Jesussek bere oñak.

Garbitu nai dio bere biotza ere: baña ez du Judasek nai Jesusen garbierarik

Judasez etsi ote zuen Jesus maitagarriak oraingo aldi onetan egin izandu zuenarekin? Ez ote zuen zer-bait geiago egin izandu Jesus maitagarriak Judas esku-ratzeko, edo Judasen gogortasuna beratzeko?

Egin zuen, baita anitz alere; bada Jesussek, Judasen onerako egin zituen beste anitz gauzaren artean, egin izandu zuen bat, nornai arritzeko diñakoa. Jaikitzen da

Jesus bere maietik; kentzen ditu gañeko bere soñekoak; lotzen du bere gerrian, edo gerrintzian esku-oidal bat; artzen du, bear den urarekin, bere pazia; ta asitzen da garbitzen banaka bere Apostolu guziei beren oñak; eta idortzen diezte bere gerriko trapuarekin beren oñak berak.

An arkitzen zen orduan, Jesusen beste Apostolu guziekin, Judas ere; ta oni ere garbitzen ta idortzen diozka Jesusek bere oñak, besteei bezala.

Nork lekiken, Jesusek ordu artan, edo bere oñ lizunak garbitu bitartean, Judas bere saltzalleari biotzez biotz adirazia! Anitz gauz on-eder errain ziozkan, bai seguru ere, guru Jesus maitagarriak, bere lan umill-on au egin bitartean; ta, orien artean, errain zion: *A Judas, Judas*, nik nere Apostolu maitetako artu ditudan amabiatatik bata! Zergatik niri zuk orain orren gaizki nai didazu? Zergatik artu nazu ni zuk begitan, artu nazun eran ta bezala? Zergatik zaude nigana zu, zauden bezain gorrotu amurratuarekin?

Ekusten dezu zuk ni-baitan, edo nigan, zere kontrako gauzarik bat ere? Egin izandu dizut nik zuri bein ere, den bidegaberik txikiena? Oartu ziñan zu noizbait, egiten nizula nik zuri, bear etzen begitarterik? Zeri dagokala bada orrenbat zure ibillera makur, arazo

galdu, ta egiteko gaisto? Eta zeri dagokala zuk ni saltzen nazun eran saltzea, ta galerazi nai nazun eran galerazi naia?

A Judas, Judas, berriz ta berriz ere! Etzaude zu, ez, zere lagun, emengo nere Apostolu on oriek bezala! Artzera doaz zure lagun on oriek, beren lendabiziko komunionea; ta oriek, ongi ta garbiro ori artzeko, ez dute bear beren oñak garbitzea, edo beren bekatu txikien loi-pitsak kentzea besterik; bada bekatu larrien loi galduetatik urrun arkitzen dira, edo bekatu andietatik bat ere bage daude: baña bekatu larri berez ongi loiturik arkitzen zara zu; ta nik orain zuri zere oñak bezala, zuk zere biotz-anima oriek damuz ta urrikiz, edo, urriki-damu onekin erdisten den graziaren ur ederrez ez garbitzera, etzaude zu ez ongi, orien erako komunione on bat egiteko; ez eta nere zerurako ere.

Zure oñak garbitzen ari naz ni, zuk zerorrek orain ekusten dezun bezala: ta, zure oñak bezain gogo osoz, betez, ta oso-beteagoarekin ere garbitu naiez nago ni zure biotz-barrenak, eta zure anima guzi-guzia ere; ta, bertatik nik au garbituko nikezu zuri, zu zere gaizki guzien damuz beterik ekustera, ta ori ziñez zuk nai izatera.

Baña, zuk ori ez egin nai erdizka ta laurdenka ere!
ta oso-osoro, ta anitz luzatzen ez dezula, egin nai zuk
zere barren sutu orretan sartu zaitzun Satanas mada-
rikatuak orain eragin nai dizun txarkeria, ta ni zuk
nere etsai galgarri gogorre saldurik uztea.

Ez dezu zuk ekusten, Judas, ortik datorkizun, zere
gal-bidea? Eta alere naiago dezu zuk, zere gogo gal-
duak nai duena emen egiteagatik, Satanasen betiko
lagun sutan izatea, ezen ez, ongi dagokizun zerbait
orain egitea, ta gero nerekin nere zeru berean betiko
sartzea?

A Judas, zere buru gaiso orren galgarri, zorigaisto-
an jaioa!

Au Jesusek Judas gogortuari errate berean, eroriko
ziran agian Jesusen zenbait negar malko; ta eroriko
ziran Judasen oñetara.

Baña bere negar oriekin, bere esku leunez eme-
meki igortziz bere oñak, eta beste eun aldetara era-
kutsi bazion ere Jesus maitagarriak bere apostolu
Judasi zein ziñez nai zuen aren ez-galtzea; bere asmo
ta gaizki gaistoan gogortu zen Judas, ta ez-aditu egin
izandu zion Jesus maitagarriaren mintzoera ezinobe-
ri.

Ekusten dezu norañokoa den Jesus maitagarriaren ongi naia; ta norañokoa denbora berean Judas itsu galduaren gogortasuna? Egin zezaken Jesus maitagarriak ekusten dezun au baño geiago, Judas beratzeko? ta egon ziteken Judas, egondu zen baño gogorrago?

Jesus maitagarriari egin ziozkan Judasek, gizonak egin ditzaken bidegaberik andienetatik ez guti; ta, ongiak eta agur andiak egin baliozka bezain ongi, begiratzen dio Jesus maitagarriak Judasi.- Judas gogor gaistagiñari ez dio Jesus maitagarriak egin izandu sekulan, munduan den gaizkirik txikiena ere: ta Jesus maitagarria bere bizitza guzian gaizkika Judasi aritu balitzaio bezain muker ta gaisto, arkitzen da Judas Jesus onaganako.

Au zer ote da, nere Jesus maita-maitagarria? Zer izan diteke, nik neronek dakidan gauza baizik? Au da, bada, guri gure Jesusek argiro aski agertzea, zein onberatx urrikalti maitagarria den, gaizkiz ta gaizkiz betetzen dutenean ere, gure Jesus guztiz ongigillea.

Eta zer ote da Judas saltzalle gogorrarena?- Zer izan diteke! Dena bezain gauz itsusi ezin gaistagoa; edo gauza bat guztiz egokia, norinai ederki adirazteko zein gaitz den anima bat bere Jaunaganatzea, bere

pasione gaistoen eskuetan ta Satanasen ondoren ibilli ezkerro!

Ala ibilli ote zara zu ere, zenbait denboraz beintzat? Begira bada: ez dakizula zuri ere, Judasi gertatua gerta: ta nai ezpadezu, au zuri gertatzea, atera zaitez lenbaitlen oraindañoko zere bide gaistoetatik. Aiena zazu zuk zere aldaka guzietatik Satanas madarikatua, bere atsegin txar gezurti-labur-loiekin batean.- Naigabez bete bear dituzu zuk zere pasione galgarriak, edo ez diezu zuk geroz geiago, egiten utzi bear bere gogo edo makurrera gaistoak eskatzen dienik.- Denbora berean zuk zere gaizki guzien damuzko negarrez, ta Jesusen urarekin, garbi zazu zere biotza ta barren guzi-guzia.

Ori guzia zuk egitera, galduko dezu zuk, bai, Judasen bidea, edo bekaturakoa ta artuko dezu Apostolue-na, edo zerurakoa: ta igain zara zu garbiro, Apostolu beren eran, emen komunioneke maiera, ta gero zeruko atsegin-kontentu guzien artera. Ala gerta dedilla: bai arren, bai!

*Turbatus est spiritu, et protestatus est,
et dixit: amen amen dico vobis;
quia unus ex vobis trade me.*

Ioan. 13. 21.

Jaungoikoa da, bai, gure Jesus maitagarria; ta Jaungoiko-gizon guztiz minbera, ta nekakorra: ta orregatik, Judasen saltzea, ta aren saltzetik uste zituen neke gogorak, eta gurutzeko eriotza, gauza izugarriak ziran Jesus maitagarriarendako.

Neke-gurutze oriek Jesusen gain erortzeko zeuden, ekusi dugun afal ondotik, eta ostegun Santu arrats beretik. Au guzia bazekien, bai, gure Jesus maitagarriak; eta etorkizun onen gogorazioak, eta Judas galgarria an bertan edo bere aldamenean ekustek, nastu izandu zion Jesus maitagarriari bere barren guzia; ta idaroki zion, Apostolu guziak aditzen zutela; «bai, bai; ta, dakidanak bezala diot nik; zuetatik batek nere etsaien eskuetara narama ni»: ta Jesusek au erran zuen eran erratearekin, arrituak gelditu ziran, Judasez, beste Apostolu guziak. Ain naigabetua zedukan Judas saltzalleak gure Jesus maitagarria; ta anba-teko bere naigabe au agertu zuen Jesus maitagarriak, Judas bere saltzalle bera zentzarazi naiez.

Ongi da, Jesus maitagarria, ongi: baña zerk nastu ote zizun zuri geienik zere oraingo naigabealdian, zere barren nekakor minbere ori? Judasek saltzen zinduela-ko oroitzapenak, eta ark orretan egiten zuen bekatu izugarriak?

Bai noskiro, bai! Ez da beintzat, bekatuak baño geiago begitan zuri ematen dizun gauzarik bat ere. Baña Judasekin batean etzaitu saltzen zu, nere Jesus maitagarria, gaizki dabillen edozein bekatarik ere?

Bai, egiazki; ta gogoz ala ere! ta orregatik, nere bekatu galgarriekin nastu nituen nik ere, ta nekez ta naigabez agitz bete nituen, Ostegun santu arratsez zure biotz barren guziak; bada zuk arrats artan berean ekusi ninduzun ni, gerozko nere bekatu galgarriagatik, zure saltzalle ta Judasen lagun egiña!

Eta nere azken-ordurako gogortu bearra ote naz ni ere Judas gaisto galgarriaren eran? Zure begiratze onak ez ote nau beratuko ni, nere Jesus maitagarria? ta ez ote nau beteko ni damuz ta urrikiz, ta, nere bekatu zikiñak eskatzen dituzten ziñezko negarrez?

Nai nuke nik beintzat, nere Jaungoiko maitagarria. Ala gerta dedilla bada, nigatik ezpadere, zure biotz beratx, eta zure urrikaltasun andiagatik. Bai arren, bai!

Scio, ubi habitas: ubi sedes est Satanae.

Apoc. 2. 13.

Jesusen saltzalle galgarri Judasek bere lan gaisto guziak egin, ta opione onean nai zuen egon bere lagun-
nen edo Apostolu guzien artean; baita Jesus maitaga-
rriarekin ere: ta orregatik, bere lan gaistoak bere
erara ezarri ondoan, sartu zen Judas guzien artean, ta
jaten aritu zen Jesusen maiean.

Orduan Jesusek Judas bera zuzendu naiez, agertu
zion Judasi, Judasek bere biotz berean zedukan izurria,
edo zerabillen asmo madarikatua: ta, berari ongi
naiez agertzen ziolako siñutan, eman izandu zion Jesu-
sek Judasi, Jesus bera jaten ari zen plater berberetik,
besteri ez bezala, bokadu on ongi naiezko bat; eta,
ura ari ematean, erran izandu zion Jesusek Judasi
(baña Judasek berak baizik aditzen etzuela): *a Judas,
Judas!* badakit, bai, nik zertan zabilzan zu, ta zenbait
arazo galdu, ta egiteko galgarritan! Badakit nik, bai,
non bizi oi zaran zu zere biotzez ta gogoz aspaldiko
denboretan. Ez nere aldean, ez! Ez nere Apostoluekin,
ez! Satanasen etxean bizi zara zu denbora orietan,

edo Satanask beraren langile gaistoa arkitzen diran bazterretan.- Begira zazu arren, era ta toki orrelakoan arkitzen denaren etorkizunera, edo bukaerara.- Zureak bezalako etxe, ta lan, ta lagun oriek zuek ez uztera, zere gain izan bear dituzue zuek (eta anitz luzatu gabe) nere justiziazko ezpata zuzen zorrotz bat, eta zere kondenazioa.- Alere utzi nai ez dituzue zuek zere etxe galgarri, ta Satanasken lan oriek? A zorigaistoa jaioa zue, edo jaio ezpaziña obe zenuken gizon betibetiko galdu-bearra!

Orra ordu artan Judasi Jesusek adirazia; ta noiznai, ta beti Jesus berak bekatariari adirazi nai diona.

Ongi: ta zer lanak ote dira nik, bekataria izanik ere ni, nere ustez zerurako nagan umeak, an gero ni sartzeko egiten ditudan lanak? Nere Jaunaren lanak, edo Satanasken etxeko lanak?

Atozea zue, nere anima, ontzat artzen dezu zuek, zere Jaunaren alde erran oi zaitzun edozein gauza? Zuzen-zuzen zuek, eta batere uts egin bage, egin oi dituzue zere Jaunaren Legeko gauza guziak? Zere gogargiari begira zaude beti zue, edo zure Jaungoiko maitagarriak zer nai ote duen aditu naiez zaude zue, ta zere Jaungoiko beraren gogara, ta lenbaitlen, aditzen dezun guzia zuzen egiteko asmoan? Zere Jaunaren

lanetan zabilta zu, ta Jesusen Apostolu on garbien eran?

A baña; ori zuk egin lekuan, egiten badituzu, Satanask galduak zuri berezten dizkitzun lanak edo bekatuak, Satanasken etxetiarra zara zu; ta lan oriek zuk ez uztera, Judasken laguna zara zu, ta Jesus maitagarriaren saltzalle, sekulako galdu bearra. Ala izatera zu, zu ere, Judask galgarriaren eran zorigaistoan jaioa!

*Si inimicus meus maledixisset mihi,
sustinuissem utique:... tu vero...
qui simul mecum dulces capiebas cibos.*
Ps. 54. 13.

Zertan zabilta zu, nere apostolu Judask, errain zion bere biotzera Jesus maitagarriak, bere oñak garbitzen ziozkan denbora berean: zertan zabilta zu, zabiltzan eran? ta, zeri dagokala, dira, zure oraindañoako ibillera nastu-makurrak?– Egin banizkitzu nik zuri gaizki zenbait, edo bidegaberen batzuek, e! errain nuen orduan nik neronek eman izandu diot Judask bere lan txar orietarako zerbait esku ta bide; ta nik neronek dut, Judask egiten dituen oben-kulpetan zerbait oben ta

kulpa: baña badakizu zuk zerorrek, Judas, ongirik baik, ez dizudala egin izandu nik bein ere.

Zertan zabilta, bada, zabiltzan eran, edo, ni saldurik, ni galdu naiez, ta orrenbat asmo gogor galdu zere buru orretan darabiltzkitzula?– Ori nerekin egiten balute nere etsairen batzuek, beren etsaitasunerako nik oriei emanikako zerbait naigaberen alde ta ordeztu, orien ordu gaistoakgatik, ixillik egoin nintzake orduan ni: baña nola nai dezu zuk, Judas, nagoen ixillik ni, ta nik zuri nere naigabeak agertu gabe, ekusten zaitudanean nik zu, len nere adiskide maitea len nik nere ongiz ta ondasunez guztiz betea; len nik nere Apostolutako ta munduaren onerako berezia, orain nere esai gogor, nere saltzalle, nere galgarri amurratu bat egiña?

Au da, Judas zuk niri orain ematen didazun erantzutea ta pagua? Au da, anbat aldiz len ta orain araitian, nerekin mai batean ta plater batetik apaldu duen gizonaren lana, ta egitekoa?– Ez dezu utzi bear, orain badere, zere lan gaisto galgarri au? Au ez uzteagatik, utzi nai dituzu zuk nere Apostolu baten lan guziak; eta utzi nai dezu zuk zere anima bera Satanasen eskuetan, ta sulezerako markaren pean?– Urrikal zakiozka zere buruari, besteri ezpada ere, ta ez dagizula zuk

gaur, ez eta sekulan ere, orain gogoan darabiltzkitzun gauza gaistoetatik bat ere.

Au guzia, ta beste gauz eder anitz geiago adiraziko ziozkan aldi artan Jesusek Judasi. Baña etzen orregatik Judas trukatu, edo mudatu batere; gelditu zen Judas, leneko bere gogortasunean; ta egin izandu zuen Judasek bere lan egiteko galgarri gaistoa.

Atozea, ta ez dezu zuk ere egin izandu bein, ta berriz, ta askotan ere, gure Jesusek nai etzuen lana ta ibillera?– Atozea, ta zenbat aldiz adirazi dizu zuri Jesusek berak, edo berez edo bere gogargiz, edo libru onez edo Predikariz, edo alde onetara edo bestera, utz dezazula zuk zerorrek dakizun sartu-aterrea, danza txarra, egote zikiña, joko galgarria, itzketa gaistoa, edo zer edo zer?

Baña zer egin diozu zuk aldi orietan zere Jesus adirazle on maitagarriari?– Ez-aditu, ta aitzina tira!– A zu Judasen lagun gaisto galgarria! A zu Jesusen etsai gogor amurratua! ta a zu zere buruaren galgarri galdua!

Ai nere Jesus maitagarria! era onetan nabill ni, ta ero bat bezala, zertan nabillen ta nora noan oartu gabe! Iristen banau ni, nere sulezeko etsai madarika-

tuak? Galdua ni geroz sekula guzirako! Ez, ez! Ai! *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

Li.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN ODOL-IZERDIA; TA NONDIK ZEN ONELAKO JESUSEN IZERTZEA?

A.

Jetsemaniko baratzean illuntzen da Jesusen biotza odolezko izerditarano

Ostegun Santu arratsean egin zituen Jesusek, azkeneko bere afaltegian adirazi ditugun gauza guziak; baita beste zenbait ere; eta, bat beintzat, guztiz andia. (Gelditzen da au urrengo Librurako).

Arrats artako bere gauzak bukatu zituen Jesusek, bere Aitari eskerrak luzaro ematearekin.

Eskerrak emate au egin ondoan, ateratzen da Jesus maitagarria bere afaltegitik; baita Jerusalemgo erritik ere; ta badoa zuzen-zuzen bere amaika Aposto-luekin Jetsemaniko baratzera: Judas, amabigarrena, joana zen orduko Jesusen etsaietara, Jesus nola oriek an artu ta loturik ekarri Jerusalem, judu Jesusen eros-le galduei adiraztera.

Jerusalendik atera, ta laster, edo bereala arkitzen zen Jetsemani zeritzan leku-aran, edo balle bat, eta leku zelai edo balle berean ortu, edo baratze-moduren bat.

Emengo Baratze onetan sartu zen Jesus arrats artan, len askotan bezala, otoitz egitera.- An sartu, ta laster, edo ango sartegitik anitz urrundu bage, utzi zituen, irur-ez, beste bere Apostoluak; ta irurei, irurekin zerbait geiseago barrendurik arkitu zenean, erran izandu zien, bere barreneko lasaitasunen baten billan dabillenaren eran, agitz illundu zait nere biotz au, ta nere barren ta anima guzia. Iltzeko dagoenaren tristurekin arkitzen naz ni, arkitzen garan tokian ta denporan! Zaudete zuek emen bertan; ni barrenaiseago oraziora edo otoiz egitera noa: baña begira, bitartean erne ta kontuz otoitz egiten egon bear dezue zuek ere.

Au irurei Jesusek erran ondoan, sartzen da Jesus andik zerbait barrenago; ta, an umilki belaunikaturik, eta bere buruarekin lurra ukitzen duela, asten da Jesus otoi ta otoi bere Aita maitagarriari; ta eskatzen dio, baldin al badedi, ken dezola bere biotzeko tristura ta illuntasuna; baita orien ondoren berak uste zuen bere Pasioneko neke arrigarria ere.

Orren andia zen, bada, orduko Jesusen tristura ta illuntasuna?– Orren andia; ta ezin andiagoa.– Au zuk zerorrek ere aitortuko dezu, bai, aditu ezkerro bein, non ta nola zegoen ordu artan Jesus maitagarria; ta gero orduan, Jesusek egiñak egiñik ere, Jesus berari gertaturikakoa.

Lur otzean zegoen ordu artan Jesus maitagarria: ordu artan zegoen Jesus otoitz egiten; ta, belaun-eskuak, eta arpegi guzia lurrean zeduzkala zegoen Jesus maitagarria.– Ostegun Santu gauerdiko denbor otza zen, Jesusen aldi artako otoitz-ordua. Tellaturik eta estalkirik etzuen Baratze bat zen Jesusen orduko otoitz-tegia. Bein, ta berriz, ta irutan ere aritu zen Jesus bere Aita maitagarriari otoitz egiten; ta aldian egin izandu zion denbor anitzez, astiz, ta guztiz luzaro; ta alere, otzez ikara egon bear zuela zirudienean, arkitzen zen Jesus maitagarria burutik oñetaraño izerdi-uts egiña; ta, zarion izerdiarekin, lur guzia bustitzen zuela.

Baña zer izerdirekin, uste dezu? Gañerakoen izerdiaren aintzurako, edo iduriko izerdiren batekin?– Ez, baizik odolezko izerdi arrigarriarekin: ta lurreraño tantaka zerion odolezko izerdiarekin.

Au zuk ekusi ezkeru, errazki ezagu dezakezu zer tristurak ziran, ta zer illuntasunak, Jesusen biotzak aldi artan ekusi zituen tristur-illunak.

Eta ez ote ziozkan Aita eterno maitagarriak arindu izandu bere Seme maite bakar Jesus odolez izerdituari bere biotzeko tristura illunak, onenbat otoitz eta otoitz, onen luze-onak Jesusi ekusi ta bazen ere?-Zerbait, bai, artarako berariaz igortzen ziola bere Aingeruetatik bat; eta, aldi artan Aita eternoak au ez-egitera, an bertan ill bearra zen noski Jesus maitagarria.

Baña Aingeru onak egin bazuen ere guztiz ederki bere lan au, edo Aita eternoak emanikako egitekoa, Aingeruaren arintza guziarekin ere, agitz gogor-pisu-arrigarriak gelditu ziran Jesusen orduko neke-penak, eta tristura illunak: eta orien pean illik ez gelditzeaz gure Jesus maitagarria, Aita eternoaren laguntz onari eskerrak, eta Jesusek berak guri zigun bazterrik bageko bere amoreari; bada Jesusen amoreagatik, eta bere Aitaren milagroez ez izatera, orduko bere tristurak, illuntasunak, odol-izerdiak, eta biotzeko nekeak illotza utziko zuten Jesus maitagarria Jetsemaniko baratzean: ain andiak ziran oriek, eta ain izugarriak!

B.

Nondik zen Jesusen odol-izerdi au?

Nondik zirala uste dezu zuk, Jetsemaniko baratzean Jesusek izandu zituen neke gogorrak?– Bere gogoan zeduzkan gauz izugarri zenbaitetatik.– Zer gauzak ote ziran ordu artan Jesusek bere gogoan zeduzkan gauzak?– Gogoan zeduzkan, Jesus maitagarriak, mundua mundu zenetik ordu artarañoko gaizkiak eta bekatu guziak; baita munduko gaistoak, ordu beretik asi, ta mundu beraren azkeneko punturaño egiñen zituzten guziak ere; ta orien artean zureak eta nereak.

Guzi-guziak ekusten zituen, bai, guk gerok argi andi bat ekusten dugun bezain garbiro ta klaroki; ta anbat, eta anbat, eta kont-al baño kasi geiago izan arren oriek, guzi-guziak ekusten zituen Jesus maitagarriak, banaka bezala; ta denbora berean ekusten zuela norañekoa den bakoitzaren itsustasuna, makurrera, ta malizia.– Eta nola bekatu bakoitzaren itsustasun au kasi bazter bagekoa den, ez da erraz guk ezagutzea nolakoa, ta norañokoa den orien guzien itsustasun, arrigarria baño arrigarriago au: ta au guzia zen ordu

artan Jesusek lenbiziko lekuan bere gogoan, edo animako bere begietan, zedukan gauza.

Baña nola ote zedukan gure bekatu salla orren kargerari izugarri au gure Jesus maitagarriak?- Au guzia zedukan gure Jesusek bere gain artua; Jesus alabaña egin zen gizon, bere Pasione Santako neke guziekin, ta gurutze bateko eriotz gogorrarekin, Aita eternoari emateko gure bekatu guziak eskatzen zuten pagua ta satisfazionea.- Kargaren arrigarria onenbat bekatuk, eta bekatu, onen izugarri latzak, Jesusi egiten ziotena! Orra bada nolakoa, Jesusek Jetsemaniko Baratzean ekusi zituen gauzetatik bata.

Bigarren zen, Jesus beraren neke-tormentuen ta eriotz gogor-miñaren oroitzapena.- Oroitu zen Jesus Jetsemaniko bere otoitz nekagarrian bere buruaren gau artako arrapatzeaz. Oroitu zen sokaz loturik bera juduak arrastan ta ostikoka batetik bestera eramateaz. Oroitu zen judu berak eta jentil arroak arrats berean berari egiñen ziozkaten ista, irri, zaplada, illeriraka, karkaisez arpegi-begien zikintze, ta gañerako txarkeri guziez. Oroitu zen Jesus bere etsai berak, eta oriei laguntzen zieten jentilak utziko ziotela bere buru guzia arantzezko koro arrigarri batez zena josia, ta bere loetatik, eta buru bereko inguru guzitik odola

zeriola.- Oroitu zen Jesus Jertsemaniko otoitz arrigarri berean bigaramun goizean artzeko zegoela bere etsai beretatik milla ta anbat azot-ukaldi edo golpe gogor; baita gurutze batean illik gelditu arteko bere neke-pena, ta agonia guziez ere: oroitzapen oriek, jakinik Jesusek berak (zekien bezala) zein minberea zen zuen gorputza, nai-ta-ez agitz illundu zioten Jesus maitagarriari bere biotz on-maitari nekakorra.

Irurgarren gauza, Jesusen biotz nekakor maitari au agitz illundu zuena zen, israeldarren berariazko galtzea.- Ekusi zuen an gure Jesus maitagarriak, judu gogorren artean bera, gizon egiñik, agertu bazen ere; ta judu gogor berei irur urtez bere Lege garbi zuzena itzez, predikuz, ta milagroez erakutsi ondoan, zenbait bakotx atera, ta gañerako judu guziak etziotela begiratzen ere; edo begiratzen zioten guziak begiratzen ziotela, bera beti begitan arturik idukitzeko: eta guzien artean gizonik jakintsuenak, eta gauzak errazkiena ezagu zitzakeenak zirala, Jesus berari ez-ekusi ta ez-aditu egiten ziotenak; eta oriek zirala, zeren Jesusek gauzak agertu ziezten, Jesus geienik begitan artu zutenak; eta gizatzar eskergabe orien artean arkitzen zela Judas, Jesus beraren Apostolua ere; ta

Apostolu, israeldarretatik batek ere baño anitz geiago Jesusi zor ziona.

Ekusirik bada gure Jesus maitagarriak, aldi ain nekagarrian, au guzia; ta ekusirik denbora berean, israeldarren artekoa zela, Jesusek berak berekin zuen odol guzia, ta alere israeldarrak izan bear zutela lene-nik, eta amurratukiena, bera-bere Legearekin galerazi naiko zutenak, eta urrengo eguerdirako gurutze batean josirik, eta andik irur ordurako illik utziko zuten gizonak, zer tristurak, eta zer illuntasunak, izan bear etzituen aldi artan Jesusen Biotz guztiz minbere-maitagarriak?

Laurgarren gauza, Jesusen Jetsemaniko illuntasun ta tristura berera anitz eta anitz lagundu izandu zuena zen, mundukoen, Jesus beraganako, esker-eza ta oztasuna.- Ekusten zuen Jesusek, bere Jetsemaniko otoitzean, bera mundu guziaren onerako iltzeko zegoela; ta iltzeko, asm-al adiña baño neke geiagoren artean; ta alere munduko gizonen zatirik andienak, ezpaliz baño geiago etziola Jesusi begiratuko ere: bada Turkoak, Jentilak, eta Juduak bataiatuak baño agitz eta agitz geiago dira; ta oriek ez dira Jesusen Legekoak, edo Jesusi begiratzen dioten gizonak.- Ekusten zegoen Jesus, bataiatuetatik ere geienak, edo

beintzat anitz eta asko biziko zirala zismaz ta erejiaz galduak.- Ekusten zuen, gure Legekoetatik ere anitz-eta-anitz biziko zirala erejeak, jentillak, eta turkoak ere baño agitz gaizkiago: ta, orren gaistoak ez izan arren, beste bataiatu anitz, eta asko, ibilliko zirala gaistakerien artean, ta beren bekatuz ongi loituak.- Ekusten zuen, Jesusek bidenabar, beraren orduko tristura-neke-eriotzaz etzutela egiñen kaso andirik, geienean beintzat, geienak.- Ekusten zuen, utzi zigun Aldareko Sakramentuarekin berebat egiñen zutela oriek guziak, eta beste anitzek ere.

Eta (ori baño ere, gaistoago dena) ekusten zuen Sakramentu onekin erejeak eta beste anitz gizon gais-tok egiñen zituztela gauza arrigarri-itsusi-lizunak; eta, komuniatuko ziran gizaki, ta emakumeetatik anitzek artuko zutela Sakramentu au, Judasen biotza bezalako biotz galduekin, edo zeren joain ziran Konfessorearen oñetara ontzeko asmorik galbe, edo zeren garbiro agertuko ez zituzten beren aitormenean edo Konfesionean beren bekatuak, edo bekatuaren erak; eta orregatik artuko zutela Jesus bera beren Komunionean guztiz gaizki, ta beren Komunione gaistoakgatik, sekulako sutara noizbait berak aurtikitzeko eskua Jesusi ematen ziotela.- Ekusten zuen Jesusek orduko

bere otoitz denboran, bekatu larrietatik kendurik bizi diranetan ere, arkituko zirala (ta ez guti) urbilduko ziranak beren oztasunarekin, edo amore andirik bage, beren amoreakgatik sakramentaturik arkitzen den Jaungoiko beragana.- Eta onenbat ekusten dezu, naizta ez anitz illundu bear zutela Jesus maitagarriaren Biotz minbere maitaria.

Au guzia ekusten zuen denbora berean, ekusten zituen Jesus maitagarriak bere Ama maitearen barre-neko illuntasunak, eta biotzeko nekeak (zein andiak oriek, eta zein arrigarriak!): eta bere Amaren neke oriek, bere guziak baño ere agitz geiago illuntzen zioten Jesus maitagarriari bere Biotza; maite zuen alabaña ezin geiagoraño bere Ama maitagarria, ta bazekien beraren Seme Jesusek, Seme beraren urrikariz izain zirala Amaren orduko neke-pena guziak.

Ordu berean ekusi zituen Jesus maitagarriak beraren Apostoluen, beraren Martiren, Santu Konfesarien, ta gañerako on guzien neke, tormentu, ta bidegabeko pena guziak; eta, nola oriek eraman bear zituzten Jesus berari ongi naiez, Jesus beraren amoreagatik, eta beraren Legea zuzen baño ere zuzenago gorde naiez, orrenbat neke ta pena: ta au guzia Jesusek ekustean, orien guzienganako urrikaltasunez, ta neke-

penaz beterik, gelditu zen Jesusen Biotz maitari-maitagarria.

Orra Jetsemaniko bere otoitz denboran Jesusen gogora ziran gauza nekagarri illunetatik zenbait. Guziak artu zioten Jesusi bere Biotza, dolareko ardatzak olpeko sagarrak edo matsak artu oi dituen eran; ta, ardo orde, edo ur lekuan, atera zioten odolezko izerdia ta izerdia.

A tristurak, tristur-arrigarriak, onenbateraño gure Jesus maitagarriaren Biotza illundu zenuzten tristurak! A tristurak, nere oben kulpa gaistoak nere Jesusi arrezaziaz!- Bai: nere oben-kulpak Jesusi arrezaziaz ziran, Jetsemaniko bere otoitz denboran Jesusek izandu zituen tristurak; bada ni nere oben-kulpa guziekin orduan arkitu nintzan an, nere Jesus maitagarriaren gogoan, edo beraren Animako begietan; ta arkitu nintzan ni an, ni besterik an arkitu ezpaliz bezain agerian; ta, ezin klarokiago ni nere txarkeri guziekin nere Jesusek ekusten ninduela: ta orduko bere ekuste onek ematen ziozkan Jesus maitagarriari, nere oben-kulpei, nere esker gabetasunari, ta nere arganako molde kabeari zegozkan tristura guziak: eta neke pena ta tristura ezin-andiagoak Jesusi emateko, aski zen, ta sobera, nere oben-kulpa guzietatik bat.

Baña guziagatik ere itxedan dezaket nik, ez nabe-
la Jesusek aldebat utziko ni; ta baliatuko zaizkidala
nere zorren alde, orduko Jesusen tristurak berak. Ala
gertatuko da, leneko gaizkiez ni ongi damaturik, ori
nik berari ziñez eskatzera. Gerta dedilla bada, nere
Jesus maitagarria; bai arren, bai!

*Circumdederunt me vituli multi: tauri pingues
obsederunt me, aperuerunt super me os suum,
sicut leo rapiens et rugiens.*

Ps. 21. 13.

Zer kezkek, zer ai-ak, zer naigabeak leoi aserre
baten atzaparretan arkitzen den gizonaren naigabeak,
ai-ak, eta kezkek! Era berekoak izandu ziran, ta agitz
latzagoak eta arrigarriagoak, gure Jesus maitagarriak
bere Biotzean izandu zituenak Jetsemaniko bere
azken-otoitz denboran.

Nola-ere-bait bere neke gogor, naigabe illun, ta ai
oriek guri adirazi naiez erraten digu Dabidek, Jesusen
ordez ta lekuan: Ingurutu naute ni bazter guzietatik,
nork-daki zenbat zekorrek, edo zezenkok. Zezen sutu
gizenak ere beren erdian arturik nadukate ni; ta, nik

iges egin naiagatik ere, iges egiteko biderik bage nadukate ni oriek.- Ez dira oriek kontent, ez, nolana niri nere bizi au kentzearekin. Beren abak edo aoak ongi zabaldurik datoz oriek nigana; ta, egiten dituzten orroz, bazterrak urratzen dituztela; ta, era orretan datoz bizirik ni, edo, al duten eran iritsi naiez; ta datoz, leoi jale aserretu orrolariaren eran.

Zein ote dira zezen ta zekor oriek? Zein, baizik zu ta ni, biok; eta gu bien erako bekatari txar-gaistoak? Guk guziok geren gaizki galgarriekin; guk geren oben kulpekin; ta, guk gerok egin oi ditugun, geren bidegabe ta txarkeri guziekin, ingurutu izandu genuen Jetsemaniko bere otoiz-denboran gure Jesusen Biotz minbere maitaria; ta guk gerok, orduko judu gogor ta jentil gaistoekin batean, eman izandu geniozkan Biotz minbere maitari oni, egin ditugun bekatu adiña nekukaldi, golpe, ta naigabe: ta geren onenbateko naigabe arrigarriekin odol-izerditan utzi izandu genuen guk geren Jesus, bere burutik oñetarañoko guzi-guzian; ta, bera ezezik, bere peko lur guzia bustitzeko diña odol zeriola.- A gure galduak gu, guk geren Jesus maitagarriagandik ez erdistera, gure bekatu gogorak Jesus berari atera zioten odol-izerdiaren laguntza! bada ori

guk ez erdistera, galduak gara gu sekula guzi-guzirako!

Ez arren, Jesus maitagarria! ez datorrela gure gain orrenbat malur, ez: Zuk bein zere izerdi odolezkoarekin garbitu ezkeru gure anima bekatuz loitu gaisoak, ez ditugu loituko guk berriz geren gaizkiz ta kulpaz; ta zuri zor bezala, eskerrak emanaz guk, eta garbiro maitatuz zu, gure Jesus maitagarria, egiñen dugu guk ongi bukatzera geren egunak, zeruan gero gu zu maitatzen egoteko beti ta beti, edo eternidade guziguzian. Ala gerta dedilla, gure Jesus maitagarria, bai arren, bai!

*Sicut aqua effusus sum, et dispersa sunt
omnia ossa mea: factum est cor meum
tamquam cera liquescens in medio ventris mei.*
Ps. 21. 15.

Nere gorputzeko ezur guziak (dio Dabiden ezpañez gure Jesus maitagarriak): nere gorputzeko ezur guziak elkar utziak dirudite, ta, niri laguntzeko, indarrik batere bage arkitzen diran ezurak: bada nere azken-arrats onetan, nazan guzi au nago ni agoniez,

ta agoniez bete-betea; ta, illtzeko dagoen gizon baten eran. Denbora berean arkitzen naz gaur ni, sull edo gurbil bat urratu, ta, banatzen ta galtzen den ura bezala: edo bere ibillera ta osasuna galdurik dagoen baten eran; bada arkitzen naz gaur ni guztiz triste, ta illun, ta ikaraz, zer egin ezpaneki bezala.

Eta alere, ez da au, ez, oraingo nere lanik gogorre-na: gogorragoa da nere Biotzaren aldetik datorkidana. Su baten bazterrean arkitzen den argizagia dirudi gaur nere Biotzak; bada, suaren bazterrean argizagia bezala, urtuz doakit niri nere Biotz guzia, ta izerditan ateratzen zait an arkitzen den nere odola: ta ni gaur, nere Jaungoikotasunaz ez baliatzera, nere biotzeko ta barrengo zerbait odol geldirazteko, azotatzen edo zeatzen nauten aldirako, ta lantzaz nere bular au urratzen didateneko, bertan illa geldituko nintzake ni emen, Jetsemaniko baratzean.- Orra, dagoeneko ere, zertara naben ni, nik munduari diodan ongi naiak eta gizon amoreak! Orra zenbaterañokea den, oriek niri nere izerdi odolezkoagatik didaten zor arrigarria!- Orien zorraz oroitzeak, edo orien zorrakgatik nik gaur daramadan ta emendik asi, ta ni illik gelditu artean, nik eraman bear ditudan nekeen oroitzapenak, eta, guzien gain, gizonen niganako eskergabetasunak one-

tara ditu gaur nere gorputz-animak, eta nere biotz guztiz maitari au!

Guri ongi naiak, eta gure amoreak orretara zaituzte zu, gure Jesus maitagarria? Eta zeer? etzenekien zuk, zere gizatasuna gure artean artu zenueneko, gu bezain bekatari txar galdu batzuetatik itxedan zitekena? Bada zertako egin ziñan zu gizon, ta zertako sartu ziñan onenbat arazo, onenbat neke, ta onenbat tristura, illuntasun ta agonia zekarren egiteko gogor onetan?

Guri ongi egiteagatik, nere erako bekatari txarra! Beti-betiko gu gal ez gindezen, ta gu, anbat berak gugatik egin ta bazen ere, zentzarazi naiez!

Eun milla milloi aldiz bedeika dedilla zure ontasun maitagarria, zure guganako urrikaltasuna, zure ongi naia ta amorea, gure Jesus, orren nekatu-odoltua!- Zure amore oni nola-ere-bait erantzuteagatik badere, saia banendi ni, lengo nere ibillera gaisto galgarriak utzirik, bizitz-on bat artzera!

Nai nuke bada, nik bertatik nere lan onetan asi, nere Jesus maitagarria! Indazu zuk arren, orretarako, bear den zere laguntza ta grazia: bai arren, bai!

*Vide, Domine, afflictionem meam,
quoniam erectus est inimicus.*

Threm. 1. 9.

Begira, Jauna, begira, erraten dio Jesusek bere betiko Aita maitagarriari, len Jeremiasek Jesus beraren izenean erranik zedukan bezala. Begira, Jauna, begira non ta nola nagoen ni, orain zurekin emen Jese manin itz egiten ari nazanean!- Bein ta berriz agertu dizkitzut nik, nere oraingo tranze, ta egoera guztiz arrigarriak: eta ona non natorkitzun orain irurgarren aldi an, ori bera egitera; ta, len eskatu dud an gauza bera berriz eskatzera.- Estutu nau ni oraingo aldi an; ta estutu nau, ezin geiagoraño, nere etsai galdu amurru tuak: bada nekez ta naigabez nere bizi au galerazteko puntu-puntu an naduka!

Orretara baño len anitz da, ta guztiz gogorra, etsai berak judu gogorren eskuz neretzat prestaturik dadukan neke-tormentuzko Pasionea. Pasione nekagarri onen oroitzapenak berak, ez dakit zertara duen gaur nere Biotza: ta Pasione nekagarriaren oroitzapen utsak au egiten duenean, zer ez dagikee Pasione bereko neke tormentuak berak?

Orietan ni sartu baño len, bada, ezin geiagoraño maite nazan nere Aita maitagarria, baldin badaiteke, ken ezadazu zuk nere kaliz latz, edo edari miñ au; ta indazu beste bideren bat, munduko gaistoen zorrak nik ateratzeko.- Badakikezu zuk denbora berean atera ditzakedala nik, bertze eun milla aldetara, nere gain nik artuak daduzkadan mundukoen zorrak; bada badakizu zuk aski dela, zor oriek nik ateratzeko, nere negar malko edo suspirio bat edo beste edozein nere gauza edo lan.

Baña nik au orain naiagatik, baldin artuak badaude neurri guziak, eta nai badezu zuk, nere Aita maitagarria, nik ar dezadan nere Pasioneko edari latz au, edain dut nik zure izenean, tantarik uzten ez dudala; ta emain dut nik, nere gain artuak daduzkadan munduko zorren alde, gurutze batean iltzez josirik, ala zuk nai izatera, nere odol, asnase, ta bizi guzia: Anbat da, nik zuri nai dizudana nere Aita maitagarria; ta anbat nik munduari diodan amorea! *Verumtamen non mea voluntas, sed tua fiat.* Luc. 22. 42.

Ekusten dezu, bere neke-pean, ta odolezko izerdi guzien artean, gure Jesusek diona? Erran lezake Jesusek orrelakorik, ezin andiagoa ez izatera guri Jesusek digun nai-amorea!- Bere bizitza maitagarria baño

maiteago gaitu gu gure Jesusek; bada, gu gal ez gaitezen, pozik galduko duela dio Jesusek bere bizitza; ta galduko duela, dio, milla nekeren artean, ta lapurren eran, arantzez beterik eta gurutze batean iltzez josten dutela!

Galdu nai dezu zuk, Jesus maitagarria, orrenbat balio duen zere bizitza; ta galdu nai dezu, lenik zuk zere gorputz minbere orretan artzen dituzula orrenbat neke ta pena; ta nai dezu galdu, gu bezain gauza errebes-galdu-txarragatik?- Zer da, nigan zuk ekusten dezuna, siñes litekeana baño andiagoa dirudien zure niganako nai orretarako?- Zer izain da, baizik nigan arkitzen den, edo nik nerekin dudan nere Jaunaren imajina ta aintzura, edo iduria; baña iduri, edo aintzura, nik neronek nere gaistakeriz ta bekatuz, guztiz galdurik dadukadana!- Orrenbat balio du, bada, nere Jaunaren aintzurak, iduriak, edo imajinak? Eta ala ere bekatuz zikindu dut nik, eta galdu edo urratu bein, ta berriz, ta anbat eta anbat aldiz ere?

Zuk au niri garbitu naiez, ta nere onerako da, nere Jesus maitagarria, zuk orain orrenbat nekerekin nai dezuna? Eta ez dut nik ere egin uste nere alegiña, nere anima onen loikeriak neregandik kentzeko, ta nere biotz au ongi garbitu ondoan, nola-ere-bait nere

amorez gero erantzuteko, zor dizudan zere biotzeko amore andiegiari?

Bai baldinbere, nere Jesus maitagarria! Orretan asi naiez nago ni, ta lenago au ez egiñaz ongi damuturik; eta, ala delako siñutan, erratera noa zure laguntzarekin batean: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

LII.garren OTOITZ-GAIA

**JUDASEK BATETIK, ETA
BESTETIK GANERAKO APOSTOLUAK
JETSEMANIN EGIN IZANDU ZUTENA**

A.

Sartzen da Judas Jetsemaniko baratzean, Jesus preso arreraztera

Etzuen Judasek galdu denborarik Jesusen afalategitik atera, ta Jesus bera preso arrerazi artean; bada, beste Apostoluak Jetsemaniko Baratzean lo zeutzan denboran, erne aski ta arin ibilli zen Judas, artarako onak ziran lagunak billatzen: ta bere lan gaistoa lenbaitlen bukatu naiez, Jetsemaniko Baratze berean arkitzen zen Judas, an Jesusek bere otoitzak egin, ta adirazi nai ziena bere Apostoluei, lotatik oriek atererazi ondoan, adirazi orduko; ta an arkitzen zen, ogei ta amar diruak artu naiez, bere itzez agindu zuena lanez egitera, edo Jesus preso arreraztera etorria.- Bere lan gaisto au zuzenago egiteagatik, Jesusek Ostegun santu arratseko gauzak Jerusalem bukatu, ta

Jetsemaniko otoitzak egin orduko, bildu zituen Judasek eun soldadu, ta geiago; ta, oriek aski ezpalira bezala, bat preso artu ta loturik noranai eramateko, Apez-nagusiak eta Fariseotzar Jesusen galgarriak eman ziozkaten, Judas berari, beren pekoetatik, nai zituen adiña gizon; ta oriekin, ta bildu zituen soldaduekin batean, an zituen Judasek Apez Nagusi beeratik beste zenbait ere; baita Elizako kargudunetatik ere, ezdakit zenbat: eta guziak zijoazen, beren lanerako era egokian, edo bakoitza zijoan, berari zegozkan armekin; ta, an ziran guzien artean baziran bear adiña argi ta farol.

Orien guzien Nagusi, ta Kapitan egiñik, atera zen Jerusalendik Judas Jesusen billara, ta loturik eta preso Jesus eramatera.- Bazekien Judasek, bai, non arkituko zuen billatzen zuen Jesus maitagarria. Bazekien, oi zuen lekuan ta otoitz egiten arkitzen zela garai artan, Judas beraren ta gure Maisu Jesus maitagarria. Baña gorde zekion beldurrez bezala, argiz ta argiz beterik zijoan Judas; ta berekin zituen gizon kargudun, Apez Nagusi, soldadu jentil, ta gañerako guziei erraten ziela: Begira; zuetatik zenbaitek ez dute ezagutuko, orain guk preso artu bear dugun au; Ezagutzen dut nik, eta badakizkit bai, aren ibillerak eta mañak. Nik neronek adiraziko dizutet, artu-ordua etortzen dene-

ko, zein den ura. Ez dezue zuek orretarako, niri begiratzea baizik. Nik ura ikusi orduko, arganako naz ni, ta egiñen diot adiskide onak egin oi dutena; bere arpegian nik ura ezpañez ukitzea.- Nik era onetan ukitzen dudana da zuek orain billatzen dezutena. Artu zazue zuek ura bertan preso; ta ekartzue kontuz, ta ongi loturik; eta begira zer egiten dezuten.

Ekusten dezu zuk, nere anima, zein erne dabillen gaur Judas, Jesus galdu naiez? Afaldu, ta lotara lekuan, gau otz-illuna bazen ere Ostegun santu gau ura, kalez kale dabil Judas, ta etxez etxe, bildu artean berak, bere Maisu Jesus maitagarria loturik ekartzeko daraman soldadeska ta jendea.- Bere gizagirotan oriek eta soldaduak bildu zituenetik, Jesus Jetsemaniko baratzean arkitu artean, ez da gelditzen batere Judas. Batean bidea erakusten dabil berekin dituen jendeei, bestean bere jendagirotan berak egin bear dutena.- Noizean bein buru-begiak luzatzen ditu, non arkitzen den Jesus ekusteko; ta Jesus ekusi edo arkitu artean, ez onik du Judasek, eta ez sosegurik batere.

Ekusten dezu Judasen ibillera erne galgarri au?

Eta Apostoluena? Lo, ta lo egitea!- Erraten die Jesusek Apostoluei Jetsemaniko baratzean orduko, begira dutela: daudela kontuz ta erne, ta otoitz egiten

diotela beren Jaungoikoari, nai ezpadute gerta dakien uste ez dutena, ta kalteren bat.- Uzten ditu Jesusek orretan, ta badoa bera barrenago, bakarrik an otoitz egitera.- Bere otoitz au egin ondoan, itzultzen da Jesus Apostolu beretara; ta arkitzen ditu lo-ta-lo: ta orietatik bati, besteak aditzen zutela: zer, Pedro (erraten dio baña guztiz emeki, ta zenak bezela) ori da zure niganako amorea, eta zuk niri nai didazun guzia? Dakizun eran orain ni, ta tristuraz, nazan au, guztiz betea! Eskatu nik zuri, ta zure lagunei, iratzarriak eta otoitz onean nere eran, oriek eta zu emen egoteko; ta ala ere, ordu bat baño len loak garaituak oriek eta zu? Aldebat bada zuen loak; eta erne, ta kontuz otoitz-eta-otoitz guziok, nai ezpadezue zuek garai zaitzaten zeren etsaiak.

Au oriei esan ondoan, badoa Jesus bera berriz otoitz egitera: ta, bere bigarren otoitz au egin, ta andik itzultzean, arkitzen ditu Apostolu berak, len bezain bortizki beren loak garaituak; eta berak berriro Jesusek iratzartzean, gelditzen dira lotsaz ta alkez guztiz beteak: eta guziagatik ere berebat gertatzen zaie irurgarren aldian.- Au zer da, gure Jesus maitagarria? Zer izain da? Lurreko gauzena!- Bai egiaki! Erne dabilta, ta kontuz, Lurrekoak lurreko bere gauzen

ondoren! Gau ta egun, ta astez, ta urtez dabilta, ibiltzez aspertu bage, Lurrekoak lurreko ondasun txarrari edo irabaziari oñez, eskuz, ta gogoz beti darraizkola.- Asmatzen dituzte, nork-daki zenbat bida-giro, irabaztegi, ta egiteko, ondasun oriek beren eskuranaiez.- Galtzen dituzte gabak, eta dutena, gogo gais-toari bein edo berriz atsegin egiteagatik; eta askotan ibilli oi dira asmari gaisoak zoratuen eran ta, bururik ez dutenak baizik, ezin legizkeen jan-edanetan, jostatze lizunetan, joko galgarrietan, ta era orretako beste gauzetan.- Baña beren animakoetan?- Lo ta lo; prisa, ta prisa, ezinbestez, bakan, ta ezin gaizkiago.

Orietatik zara zu ere? Erran dezatela berandutik berandurako, edo ontzerik bageko zure konfesionek: eta, zertan zauden ez dakizulako, zure meza-enzuteak, errosarioak, eta gañerako gauzak! Eta, oriek zuk ekusi ondoan, ekusi zazu noren eran zabiltzan zu: Apostoluen eran, edo Judasenean?

Bere arazo ernetasun, ta ibillerekin arkitu zuen laster Judasek Jesus maitagarria; ta Judasek Jesus ekusi orduko, argana zen Judas, batere alkerik gabe, ta eraman ziozkan Jesusi, lenago berak berekin zitueni adirazi zien bezala, bere besoak lepora, ta ezpain zikiñak arpegira.

Baña, bazekien Jesus maitagarriak, zertarako ziran adiskidetasuneko Judasen sinu-gezurtiak; eta, hura zentzarazi naiez: Judas, erran izandu zion: Judas, ta zuk ni ezpainka? Judas, ta apaka ni eraman nai nazu-zu zuk nere etsai judu gogor galduen atzaparretara? Judas, Judas, aldiren batez, ta denbora luzean ere, ongi nai zenidan nere Apostolua, nork sartu du zure gogoan zure niganako gorrotu, ta aserretasun orren andi amurratua?- Niganago aserrez zere biotza zuk erretzen dadukazu; ta emen zatozkit orain, adiskide onaren eran, preso ni arrerazi, ta lenbaitlen niri nere bizi au galeraztera.- Gortu zara zu, nere itz onak zuk ez aditzeko! Ez diozu zuk begiratu nai zere zuzenbideari! Ez dezu zuk nigana nai, ni galerazteko bideak egitera baizik! Baña alferrik zabilta zu, ta sekulako zere buruaren kalte arrigarrien billan.- Artuko naute, bai, ni preso, orain zurekin datozen armadunak eta jenda-giro-gaistoak, eta eramain naute, bai, eriotz gogor baten atzaparretara; baña nik neronek nai dudala, ta nik nere Aita maitagarriaren naia orretan egiteagatik da nik lan txar ori, zuri ta oriei, egiten uztea: bada nik neronek au nai ezpanu, ez zu, ta ez oriek, eta ez munduko guzietatik bat urbil liteke, ez

orain, ta ez gero, ta ez bein ere, ni arkitzen nazan tokira. Ots emazu: goazen ekustera.

Itzultzen da Jesus, an itz bitan Judasi erran, edo adirazi ondoan, Judasekin zetozen soldadu ta gizon guzietara; ta erraten die guziei: Nor billatzen dezue zuek?- Erantzuten diote, Nazaretko Jesus.- Erraten die Jesusek: Ni naz ori: ta, au aditzean, badoaz guziak atzeko aldera; erortzen dira, zer gertatzen zaien ez dakitela, ta an dantza guziak, illotzen eran: ta, Jesusek nai izatera, etziran jaikiko zeutzan tokitik, azken jui-zioko eguneraño.- Eta oriek orrela zeduzkan denboran, nork eragotziko zion Jesus maitagarriari, Jetsemaniko baratzetik ateratzea, ta nai zuen tokian sartzea? Gelditu bazen, bada, gure Jesus, zegoen tokian, ta artu bazuten preso Judas gaistoak berekin zituen gizonak, Jesusek berak nai zuela izandu zen, ta ez Judasen gogoz, ta bortxaz.

Era berean erazagotz lezake Jesus maitagarriak, zuk ura zere ezpañez, zere gogoz, edo zere eskuz zere pasione gaistoan atzaparretaratzea, zere bekatuz zuk ura aratzen dezun aldietan: bada ez luke Jesusek orretarako, zure eskuak, zure ezpañak, edo zure biotz ori igarreraztea baizik, batere beartuko: ta on guzia Jesusek balegike ordu, ta puntuoro, edo berak nai duen

aldi guzietan.- Uzten du bada, ori guzia egiteko, zuri ez kendu naiez, zuk zere gauzak zere naiez egiteko eskua; esku onez zu baliatzen zarala, irabaz ditzazun anitz atsegin, kontentu, ta gloria.

Baña begira, bekatari txarra! au zuk egin bearrean, egiten badituzu egin bear ez dituzun gauzaren batzuek, edo arrerazten badiezu zuk Jesus, preso bezala, zere pasione gaistoei, egiñen dezu zuk, bai, zerorrek nai dezuna; aspertuko dezu zuk zenbait denboraz zere gogo txarra; irabaziko dezu zuk zerbait diru: zertan, edo artan autsiko dezu zuk zere Jaunaren Lege zuzen-garbia; ta sarreraziko dezu zuk Jesus maitagarria, lan txar ori eragiten dizun zere pasione sutuaren atzaparretan: baña, orretan zu gelditzera, geldituko zara zu Judasen eran: ta beldur naz, izan dezazun zuk ere Judas beraren bukaera, edo arenaren erako, ta gero aren aldamenean beti-betiko sulezea.

B
Jesus utzirik,
iges egiten dute Apostoluak

Gure Jesusek agertu ondoan, berak nai ez izatera etzela, ez, judu galduen eskuetarako, iutzi zien Judasi, Judasen lagunei, ta orien artean zetozen soldadu guziei, jaikitzen zeutzan tokitik.- Jaiki orduko galdetu zien berriz ere noren billan etorri ziran, anbat argi, anbat arma, ta anbat arazorekin? Erantzun zioten, lendabizian erran zutena, edo Nazaretko Jesus billatzen zutela.- Agertzen die Jesusek zein den bera, edo bera dela berak billatzen dutena; ta ematen die, bear duten indar ta esku guzia, nai bezala, bera loturik preso eramateko; baña erraten diela: Ori; ni biliatzen banauzue zuek, utzi geldirik nerekin daudenei, guziak doazen berak nai duten lekura: *Si ergo me quaeritis, sinite hos abire.* Ioan. 18. 8.

Oriei au Jesusek erran orduko, badoaz, zakur amurratuen eran Jesusi itsastera: itsasten zaizka, (ta bate-tan) al duten guziak; eta gelditzen da Jesus maitagarria orien beren eskuetan loturik, eta preso.

Zer gertatzen dela deritzazu zuk, era onetan Jesus gelditzen denean?- S. Markos Ebanjelariak adirazi digun, ta nornai arriturik uzteko den gauza bat: Jesus ekusi orduko bere etsaien eskuetan, arekin an arkitzen ziran guziak igesiari ematea; *Tunc discipuli ejus, relinquentes eum, omnes fugerunt.* Cap. 14. 50.-

Ekusten dezu gizonaren ezer-eza, ta txarkeria? Anbat denboraz Jesus maitagarriarekin bizitu diran gizonak: munduko beste guziak utzi, ta bere Apostolutako Jesus-ek artu dituen gizonak: Jesusek berak berei agertu dien Lege berriaren alde anbat eta anbat mirakullu ekusi dituzten gizonak: oraingo ekuskari andi au berau ekusi bearko zutela, Jesus beraren aotik aditu zuten gizonak: gau artan berean Jesus onarekin apaldu zuten gizonak: bere afal ondoan bere eskuz Jesus-ek berak beren oñak garbitu ziezten gizonak; afaltegi berean Jesus beragandik komuniatu ziran ta Apez egiñak gelditu ziran gizonak, eta, nork daki zenbat beste ontarte Jesusi zor diozkaten gizonak, egin zezakeen egin zutena? Utzi zezakeen Jesus, utzi zuten eran, berak beren igesiari emateko? Egin zezakeen, era orretako gizonak, egin zutena baño geiago, Jesus izan baliz ere gizon arrotzen bat, edo gaizkiren batzuek egin izandurikako gizonen bat?

Gauz arrigarria da, bai, gañerako Jesusen Apostoluak arrats artan egin izandu zutena; baño arrigarriagoa da, gauza au bera San Pedrok ere, egin zuen bezala, egitea; bada San Pedrok ere iges egin zuen Jesus onagandik, beste guzien eran (*Omnes fugerunt*), Jetsemanira baño lentxeago erran bazion ere bere

Jesus maitagarriari: Jauna, nerekin datozen beste guziak zu utziagatik, etzaitut nik utziko bein ere, ez segurki. Eta San Pedroren lan txar au ekusi ezkerro, nor ez da, bere Jaungoikoa galtzeko beldurrez ikara geldituko? San Pedro Apostoluak, eta gañerako Apostoluen erako gizonak, ongi komuniatu ondoan, komuniatu ziran bezala Ostegun santu arrats artan, au egin dutenean, zer gaistakeri da, guk bezain gauz-ezer-ez txar galkarriak egin ez dezakeguna, gu geren etsai sutu amurratuak zerbait tentatzera?

Au nik badakit gaur, eta nik, onelakorik ezpaneki bezain arin ta txoratu ibilliko naz ni gaizbidez gaizbide, ta nonnai atera-sartu! Au badakit nik gaur, eta jakin onen gañean ibilliagatik ni, gaurgeroko nere denboran ez ote naz ni, aratzen nazan baño maizago nere komunioneke maierako?– Goseak banabil ni, ta etsai indartsu amurratuen artean, nabillen bezala, izanik ni nerez indar gutizkoa, aisa aski eragiñen didate niri oriek berak nai dutena; ta, berak nai bezain erraz galeraziko didate niri nere Jesus maitagarria.– Ori da niri oriek oraindañokoan maiz aski, ta usuro eragin didaten lana ta egitekoa; ta bertze bideren bat bertatik nik ez artzera, beldur naz ni maizagotan, ta errazago eragin dezadaten niri urtearen, illaren, edo astea-

ren buruan; baita egunoro ere; bada egunoro arkituko naz ni indar ta gogo gutiagorekin nere gauz onetarako; ta nere etsai indartsuak nere gain indar edo esku geiago dutela.

Gabiltzan, bada, nere anima, gaurgero beti, ongi oartuak; gabiltzan beti zuzen-zuzen, ta gabiltzan geren Jaungoikoaren beldurtasunez ongi prestatuak, Jesusen ondotik ken ez gaitzan gu geren etsaiak, Judasen zorigaistozko lanetan gero erabiltzeko gu.

*Conturbatus sum á voce inimici,
et á tribulatione peccatoris.*

Ps. 54. 4.

Jerusalendik atera, ta Jetsemaniko baratzean belaunikatu orduko, ekusi zituen gure Jesus maitagarriak anitz gauza ta nekagiro, ta orien artean, andik asi, ta bere ill orduraño bera penaturik utzi bear zutenak; baita bere etsai gaistoen erausiak ere.

Belaunikaturik zegoen toki beretik ekusi zuen Jesus maitagarriak bere Apostolu galdu Judas, baita Judasek, berekin zekazkienei erraten ziela ere: Zuek orain preso artu, ta ekarri bear dezuten gizona da len-

bizikorik nik zuen begietan ezpañez bere arpegian ukitu bear dudana: nik au egin orduko, aren gain zuek guziok itsatsi laster, ta lotu, ta kontuz ekarri au zuek Jerusalengo Juezetara.- Au ekustean Jesusek, ekusi zuen eran, edo bere animaren begiz au Jesusek ekustean, gertatuko zitzaion Jesus maitagarriari Dabidek diona; ta errain zion bere betiko Aita eternoari: nastu nau ni, nazan au guzia, aldi onetako nere etsai galgarriaren, edo Judasen itzkerak! Judas galgarria emen niri ap ematera, edo muñ egitera? Satanask berekin duen Judas, egin dituen gauza gaistoak egin ta ere, alkeri gabe onara nigana?- Zeruko Aingeru guziak arrituak arkitzen dira, ekusi nautenetik ni, orain ni arkitzen nazan eran: ta Judas, deus ez bat bailiz bezala, beraren oraindañoko ibillera madarikatua, nigana naiez, ni apaz, ta palakuz, ero bat bainintz bezala ni preso artzera?- Gauz arrigarria, nere Aita maitea; ta, zuk zerorrek dakusazun bezala, nere Pasioneko kaliza edo edaria agitz ta agitz mindurik uzten didana! Baña edari, bere mindura guziarekin pozik, edo gogoz ta biotzez ni artzeko negoena, zuri orretan zerbait atsegin egiteagatik!- Atozea zu, bekatari txarra; ta ez ote zenion zuk ere zerbait mindu, zere komunione galdue-tako apaedo musu loituekin? Ez ote zara zu urbildu

izandu bein ere komunioneke maiera, zuk zere bekatuak konfesariaren oñetan ongi klaratu gabe, edo zer edo zer gorde-estali, edo nastu ondoan?- Ez ote zara zu, komuniatu, ta gero gelditu, Judas bere ostegun santuko komunione, edo afalondoan bezala, edo len bezain otz, gogor, ta gaisto zere Jaun maitagarriarekiko?- Eta ez ote da ori zuk ezpañez, miiz, ta bularrez Jesus ukitu ondoan, Jesus uztea bere etsai amurratuen, edo zere aztura ta pasione makurren atzaparretan? A Jesusen saltzalle galdu, Judasen lagun gaistoa, langiro galdu au egiten duen anima!

*Considerabam ad dexteram, et videbam,
et non erat qui cognosceret me.*

Ps. 141. 5.

Denbora zen judu-tzar gogor gaistoak zebiltzala Jesusen ondoren, ta nondik Jesusi kenduko zioten, zuen odol ta bizitza guzia; baña juduen ibillerak ibillera alferrak ziran, orretarako ordua zetorren artean. Ordua zen Ostegun santu arratsa, Jesusek berak bereei lenagotik adirazia zedukan bezala. Ordu au etorri orduko, utzi zuten Jesus berekin zeduzkan bere

lagun guziak; eta batetan arkitu zen Jesus maitagarria lagunik bat ere bage; ta bere etsai gogor amurratuen atzaparretan. Begiratu zuen kontuz Jesusek alde guzietara, ta etzuen ekusi nion ezagunik bat ere!- Jesusen Apostolu maiteak, orain utziko zenuten zuek, eta, loturik dadukaten gizatar gaistoen eskuetan, zeren Maisu on Jesus maitagarria? Zer kontu emain diozue zuek zeren Jesus maitagarriaz Jesusen Ama maitariari?- Seme maitagarriagatik ezpazen ere, Amaren izenean etzinen geldituko zuek zeren Jesus onarekin? Guti nonbait nai diozue zuek, zeren ongille andi Jesus maitariari, ta guti urrikari dezute zuek, nekez, ta naigabez beterik arkitzen den Jesusen Birjin Ama Andrea?- Ez da, ez, gizon prestuena zuek orain egin dezutena, edo Jesus onagandik, iges egin dezuten eran zuek iges egitea. Ez da, ez, eskerdun onena; ez eta, begiratze onak dituzten gizonena ere, zuek aldi onetan Ama-Semeekin egin izandu dezutena!

Egia diozu, anima bekataria: ta, nolakoaren iges egitea ote da zuk egin oi dezuna, zere Jaunaren Legeko manuren bat austen dezunean? Apostolu gaisoak Jesus utzirik, iges egin bazuten, anitz soldaduk eta armazko jendek izaturik, igesi joan izandu ziran: baña zuk iges egiten dezu, Jesus beragandik zere pasione

txar loitu zikin, edo suturen bati atsegin egiteagatik; gaizki bat bati errateagatik; begi zuri-gordin-zorrotze-kin norbaiti begiratzeagatik; itz bat Jesusen izenean ez eraman naiez: norbaiten gauza txar bat arrapatzeaga- tik; gaitzera makurtzen zaituen jostatzea, jolasa, edo aldamera ez utzi naiez: ta askotan begiratze arin gal- garri bat ez uzteagatik!

Era onetan Jesus uztea, Jesusen Amari ongi naia da?– Ez, baizik bere bakartasunean Ama-Semeak utzi, ta nork bere pasione lapurti galduekin iges egitea. A zer ibillera! A zein eskertia!

Orate, ne intretis in tentationem.

Marc. 32. 41.

Nondik etorri ote zen, Apostolu onak ain laster Jesus utzi, ta iges egitea?– Jesusen erran bat ez egite- tik. Erran zien Jesusek bere Apostoluei egon zitezela erne otoitz egiten; ta beren Jaunari bere laguntzat eskatzen, zer-gerta ere: baña beren buruez geiegi fidatzen Apostoluak! Ez uste Apostoluak etorkitzun zela, andik laster etorririk ekusi zutena! Lotan egondu Apostoluak otoitzeko denboran! Tentuak arrapatu

Apostoluak erdi lo, ta armarik gabe bezala, ta orrekin aisa garaitu!

Eta zergatik garaitu ote zaitu zu ere zere etsaiak, garaitu zaituen adiñetan, ta garaitu zaituen bezain aisa ta erraz?

Zeren egin ez oi zenuen zuk ere Jesusen erran au berau! Zeren eskatzen etzenion zuk zere Jaungoikoari, eskatu bear zenion aldi guzietan, edo eskatu bear zitzaion eran ta ziñez, bere laguntza ta grazia! Zeren lotan bezala zenbiltzan zu zere Jaunaren gauzetan, orietan zu zenbiltzanean ere! ta zeren zu zerori sartu oi ziñan aisola-kabea, ta, beldurrik bage bezala, zere etsaiaren atzaparretan, zere bide-malkorretan, ta edozein okasionetan! A ni nere buruaren galgarri eroa!

Egia diozu: ala da, bai.

Nai dezu zuk, nere anima, gaurdanik badere Jesusen aldean sarturik gelditu? Nai dezu zuk zere Jesus onarekin ill, ta bizi, edo bizi nai dezu zuk zere Jaunaren grazia bein ere galtzen ez dezula?– Zaude, bada, zere Jaun au galtzeko beldur andiarekin. Zaude beti zu, zere Jauna gogotik uzten ez dezula. Zaude zu zere Jaunari itsatsirik bezala, edo noizean bein bere laguntzaren eske ta eske.– Iges egizu zuk, oraindañoko zere

bide galgarrietatik, edo okasione txarretatik.- Ez dezazula zuk iutzi zere goiz-arratsetako otoitza: ez eta egunaz egin oi dituzun gauz onetatik bat ere. Eta eska zaiozu zuk orain zere Jaungoiko maitagarriari leneko zere bekatu guzien barkamentua, damuz ta negarrez erraten diozula: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

LIII.garrren OTOITZ-GAIA

JETSEMANITIK JERUSALENA,

TA KAIFASEN ETXEKO APEZ-BATZARREAN,

TA GERO JESUSI GERTATUA

A.

Loturik, eta ezin-gogorkiago daramate judu gogorak Jesus Jetsemanitik Jerusalem

Gure Jesus maitagarria beti zen bat; eta beti ongi-
lle guztiz maitagarria. San Pedrok, bere Maisu Jesusen
aldamenetik iges egin baño len, tiratu zion ezpata
batez bere burua, Jesus lotzera zetozen gizatxar gal-
duetatik batari; ta burua saietsegitik artu, edo uts
egin, ta kendu izandu zion alde artako bere bearria.-
Au ekusi orduko geldirazi zuen Jesus maitagarriak san
Pedro: artu izandu zuen san Pedrok ezpataz kenduri-
kako bearria; ta an bertan ezarri zion milagro z bere
toki berean, galdu zuen gizatxar berari.

Jesusek au egin orduko, itz egin zien, lan au ekus-
tean, an arrituen eran arkitzen ziran guziei; ta berez-

kiena Apez-Nagusi, ta Kargudunei; erraten ziela: Ongi; ta zer ote da, zuek orain ordu ta garai onetan, orrenbat soldadurekin ta jenderekin onara zakazten egitekoa? Gaistagin andiren baten billan etorriko zarazte zuek? Norbaitek egin bide ditu Jerusalemene lapurreria-ren batzuek, zenbait eriotza, edo beste zenbait bidegabe?– Nere billan zatozte zuek guziok, eta ni arrapatu ta loturik eraman naiez? Ez ninduzuen ekusten zuek ni egunoro, edo maiz aski beintzat, zuen artean, ta zeren Eliza berean ere? Esku-utsean nenbillen ni beti, ta armarik gabe, zuek zerok dakizuen bezala: ta ez nizuen nik zuei, ez eta ni aditzen ninduten guzietatik bati-ere, zerurako bide garbia erakustea, beste gaizkirik egiten.

Baña alere zuek niri gaizki nai bazenidaten; eta nai baninduzuen zuek artu ni preso, nola ez ninduzuen artu izandu, ta loturik eraman, zeren gogoak ematen zizuten presondegira? Orduan au zuek egitera, etzenuten zer ibilli zabilzten bezala gau illun onelakoan armaz, argiz, otzez, ta sustoz beteak.– Ez ninduzuen zuek orduan ni artu izandu, ez zuek naigabez, ez, baidarik zeren nik uzten ez nizuen zuei lan txar ori egiten; ta gaur ere ni gabe zuek itzuliko ziñazkee zeren etxee-tara, ni zuek emen arkitu nazuten eran arkituagatik,

nik neronek zuei nerau artzen ta lotzen ez iuztera.- Etorri da, bai, zuen lan txar galdu itsusi onen egin-ordua; ematen dizuet nik, zuek ori orain egiteko bear dezuten eskua, ta nere baimena. Bazatozkee bada orain bertatik nigana, ni preso artzera, ta ni zuek zerok nai dezuten eran erabiltzera.

Au Jesus onagandik aditu orduko an ziran, Jesus berarekin, zakur amurratuen eran, juduak berak, eta juduak zekazten soldaduak.- Batetan anbat, edo guzietatik anitz, Jesus onaganatzean, botako zuten Jesus, ta erabilliko zuten batzuek oinpean, besteak ostikoka ta itxura guztiz txarrean, arganatzen ziran guziak; eta guzien artean, an arkitzen ziran Kargudunak, eta Elizagizon Nagusiak; oriek ziran beintzat, Jesus maitagarria geienik begitan arturik zedukate-nak.

Orretarako, edo beren lan itsusi gaistoan beste guziei sutuz, edo, berak dagiten eran oriei laguntzera sulezetik atereak, arkitzen ziran Jesusen ta gure etsai amurratu galgarriak; bada bazuten oriek ere ordu, edo aldi artan, orretarako bear zuten eskua ta baimena: *haec est hora vestra, et potestas tenebrarum.*- Luk. 22. 53. A nere Jesus maitagarria! Ezagun da, bai, arkitzen dirala gaur sulezeko galdu-galgarriak zure bai-

men oso-osoarekin, eragin-al guzia zure gain eragiteko judu galgarriei; bada, ori ala ez izatera, ezin asi ziteken, asi den eran, edo asi den bezain biziro, lazki, ta gogor zure Pasionen santako lana ta neke arrigarria!

Asieraren erakoa baldin izaten bada zure neke latz, edo lan gogor onen ibillera ta bukaera, neke-lan ona dago, bai, zure begira!

Nork arrerazten ote dizu au zuri, nere Jaungoiko maitagarria?- Nik, nik nere oben-kulpa gaisto galgarriekin.

Baña zergatik artzen ote dezu zuk, Jesus maitagarria, onenbat neke ta egiteko?- Niri ongi naiez; nere zorrak ateratzeagatik; eta niri, nola nik gero nere gauzak egin, erakusteko.-Jaungoiko-gizonaren gauzak! eta nik zuri, nere Jesus maitagarria, eternidade guziguzian zorko dizudan ontartea ta ondasuna!

Agitz gaizki zerabilten Jesus juduak beren lenbiziko itsats-aldian; baño etziran asetzen, ez, judu gogorak bere aldi artako ibillera gaistoez; ta nolerebait ase naiez, ta, gaizki baño gaizki geiago Jesus maitagarriari egiteagatik, zutiraziko zuten Jesus tiraka, ta makil-ukaldika: ta, beren eskuetatik Jesusek iges egin zezan beldurrez bezala, edo alkekizun ta lotsa geiago Jesus maitagarriari arrerazi naiez, lotu izandu zuten an

bertan beren gogora Jesus (eskuetatik noski baita bere lepotik ere): *ligaverunt eum*. Ioan. 18. 12.

Loturik gaur, lotu guzien askatzalle indartsu Jesus maitagarria! Loturik gaur Jesus, Linboko ateen ta Zeruko guzien idikitzailea!

Baña nork loturik?– Judu gogor Jesus beraren etsai galduak, eta zuk, eta nik!

Zerekin ote, edo nolako lokarriekin?– Zuk eta nik biok beintzat, geren bekatu zikiñen lokarri gaistoe-kin.– A lokarritzar galdu, nere galgarriak; eta zorigais- toan guretzat agertu ziñazten lokarriak! Ill bagiña zu ta ni, biok, bataiatu gu, ta lokarritzar orien egiten asi ere bage!

Era onetan Jesus maitagarria lotu orduko, artzen dute an arkitzen ziran juduetatik batzuek Jesusen lepoko soka, ta besteak Jesus bera bere illeetatik, bere besoetatik, besteak bere lokarrietatik, edo bere soñekoetatik; eta, gañerako guziak ingurutzen dutela, artzen dute guziak Jerusalemik Jetsemaniraño era- man izandu zuten bide bera; ta itzultzen dira Jerusale- na.

Nola ote zoaz zu, gure Jesus maitagarria, orrenbat etsaien, ta etsai orren gogorren artean?– Nola doake? Ezin gaizkiago: nekez, ta penaz, den guzia bete-

betea! Gogorregiak ziran Jesus preso zeramaten judu galduak; eta geiegi begitan arturik zedukaten gure Jesus maitagarria aspaldiko denboretan, gutien-gutien ere oriek Jesusez urrikaltzeko: ta orregatik eramain zuten juduak Jesus maitagarria ille-tiraka, esk-ukaldi-ka, jaiki-erori, ta erdi-arrastan bezala: ori da alabaña, gabaz, loturik, eta prisaka dabillenari dagokan ibillera; ta prisaka, edo erdi-lasterka eramain zuten, bai, bere etsai gogorrak Jesus maitagarria.

Baña nora, ta zertara ote daramate judu gogorrak gure Jesus maitagarria?– Gaizki nai dioten zenbait Juez gaistoren pera; ta, oriek asmatzen dituzten nekepenak artzera.

Ote daki au guzia gure Jesus maitagarriak?– Garbi-garbi, ta guztiz klaroki.

Eta alere badoa Jesus orrenbat judu gogorren artean?– Bai, ta gogoz alere, ta nai andiarekin: ara darama alabaña Jesus maitagarria guri ongi naiak; eta Jesus maitagarriaren guganako ongi nai au ezin-andi-agoa da.

Jesus! ta guk zuri zor dizuguna! Orain badere asten bagiña gu geren zorrera andi oni nolerebait erantzuten!

B.

Kaifasen etxeko Apez-batzarrea; ta an batek Jesusi emanikako esk-ukaldi arrigarria

Lasterka, edo prisaka, ta ibillera gogor andiarekin eramain zuten Jesus bere etsaiak, bein Anas zeritzan Eliza-gizon andiaren etxera, eta gero, urte artako Apez-Nagusi Kaifas-enera: ta emen iduki zuten Jesus maitagarria urrengo goizeraño.

Gau-erdia zen, guti gorabera, judu etsaiak Jetsemaniko baratzetik Jesus ekarri, ta Jerusalem, ta Apez-Nagusiaren etxera ziraneko; ta ordu berean an arkitzen ziran, dio san Markos Ebanjelariak, Apez guziak, Eskribak, edo gizon jakintsuak, eta Legeko gauzen berria zuten Zarrak: *Et conveberunt omnes Sacerdotes, et Scribae, et Seniores.* Marc. 14. 53.

Apez Jaunak! Gizon adituak! arriturik bezala gelditzen naz ni gaur, orain nik ekusten, edo aditzen dudarekin! Zuetatik geienak, edo beintzat anitz, adiñ andietako gizonak dira. Izain dira, bai, zuen artean erisiko ta erdi-gaizki dabiltzan zenbait, gutien gutienean. Gau otza da gaurko gau au. Gauerdia da dago-

eneko ere, edo izain da beintzat, gure Jesus zuen batzarrera orduko.- Nora zoazte, bada zuek orain, aduintza edo garai onetan, zeren etxeetatik?- Geren Legeko Aita-santu, edo Apez-nagusiagana.- Zertara?- Batzarre txar bat, edo Konzilio giro gaisto bat, an beraren etxean egitera?- Noiz bukatuko da zuen Konzilio txar, eta batzarre nasgarri galdu ori? Eta noiz gero, ori bukatu, ta zuek zeren etxeetarako zarazte? Ez dituzue zuek zeren buruak kupideago? Nonbait lan andia da zuek esku tartean dakartzuen oraingo lana ta egitekoa!- Nola-ere! Jaungoiko-gizon-Jesus maitagarria galerazi-naia!

Orra zertara doazen, orrenbat era orretako gizon andiren ibillera galgarri, arazo nasi edo nastu, ta egiteko!- Zorionekoak gizon oriek berak, egunen batez oriek egitera, oraingo beren egiteko txar onez ongi damaturik, bertze orrenbertze, Jesus bera palakatzeagatik; beraren gogara gero bere gauzak egiten dituztela, beren gloria ta zerua irabazteko: bada, oriek orretan asi orduko, urrikalduko zaie berei Jesus maitagarria, ta an bertan emain die beren zerua zuzen irabazteko bearko duten laguntza ta grazia.

Eta, ori bera zuk ere egitera, berebat gertatuko zaitzu zuri ere zere Jesus maitagarriarekin; bada, zu

len izandu bazara ere orien gisan ibilli zaran anima txarra, edo Jesusen Lege zuzena austen ta urratzen ibilli oi ziñana, zere leneko gaizkiez zuri damutu orduko, zere alde arkituko dezu zuk zere Jaungoiko maitagarria.

Jaungoiko Jesus maitagarria au galerazteko billatzen zuten Apez-nagusiak, eta beren Batzarreko beste guziak, zerbait aitzaki.- Baña gaitz zen, edo ezin gerta ziteken gauza zen, oriek orretarako ongi zirudien gauzarik arkitzea; etzuen alabaña Jesus maitagarriak egin izandu bein ere, ongiak ongien gain, ta ontarte andiak egitea beste gauzarik.- Ala ere asi ziran zenbait gauza txar, naspilla, edo batzarre galgarri onetan berak asmatu zutena erraten; baña, erraten zituzten gauzak, oriek berak asmatuakako gezurak ziran; eta gezur, elkarri etzegozkanak, edo elkar galtzen zutenak.

Au ekusi orduko, ezagutu zuen Apez-Nagusiak, berak nai zuenik etzuela emendik aterako; ta artzen du berak berez beste bide bat.- Galdetzen dio Jesus maitagarriari, zer Lege den Jerusalemen ta Jerusalengo bazterretan erakutsirik utzi duen Legea?

Bazekien, bai, Jesus maitagarriak, zertarako zen Apez-Nagusiaren galdetze tolestatu au: baita bere

eranzuera zuzenak Jesusi berari ekarrik) zion neke-
desondra ere: baña prest zegoen gure Jesus, gure
onerako bear zen guzi-guzirako; ta erantzun zion Apez
Nagusi galduari: Ez naz ni, ez, zokoz zoko dabiltzan
gizatxar orietatik.- Elizan, agerian, judu guziak biltzen
ziran lekuetan, ta, nai zuten guziak aditzen nindutela,
erakutsi dut nik erakutsi dudan nere Lege berria; ta,
jakin nai badezu zuk zer Lege den nere Lege au, gald-
egiezu zuk zerorrek, aditu nautenei; ta oriek errain
dizute zuri, orain zuk niri galdetzen didazuna.

Ekusten dezu zer den, orain Jesusek Apez-Nagu-
siari erantzuten diona? Bai? Bada ori ari Jesusek erran
orduko, an arkitzen ziran mutil edo ministro lausenga-
rietatik batek, goititu zuen bere besotzarra; ta, zuen
indar guziarekin eman izandu zion Jesus maitagarriari
bere arpegian eskukaldi gogor arrigarri bat; au ark
ematean Jesusi berari erraten ziola; Orrela mintzatzan
zakiozka zu, ta era orretan erantzuten diozu zuk, Moi-
sesen Legeko Apez Nagusiari?

Gau onaren begira zaude zu, Jesus maitagarria,
orain zu sartu zaran etxe onetako sartze berean egin
zaitzun ezkerro gisa ontako agur bat, edo ongi etorria!

Itzultzen da bertan Jesus, baña batere berotu edo
asaldatu gabe, gizatxar okabilkari onegana; ta erraten

dio: Atozea: ta, bear ez den itzen bat aditu didazu zuk niri, oraingo nere itz egin-aldian? Lotsagabetu nakio ni, zure Legeko Apez Nagusiari? Edo zer du nere oraingo erantzuerak, emen arkitzen diranen artean ez agertzeko? Eta, ager ditekena baldin bada au, edo, nik ezpadiot erantzun izandu zure Legeko Apez-Nagusia-ri, bear ez bezala, zergatik da era onetan orain niri zuk eman didazun ukaldia?

Jesusek au ari erran orduko, egin bear zuen Apez-Nagusiak, aldi artan berari zegokana; ta gutiengan, igorri bear zuen gizatxar ura presondegiko zokorik illunenera.- Baña etzegoen orretarako, ez, Apez-Nagusia; etzegoen, ez, Jesus maitagarriari, gaizki kentzen zioten ondra ta oorea itzulerazteko. Jesusek zuen ondra guzia, bere odol guziarekin batean lenbaitlen kendu-naiez zebillen Apez-Nagusia; ta ez-ekusi egiten zien orretarako etziran gauza guziei, naiz izan zitezela, ziran bidegaberik andienak; eta orrekin gelditu zen Jesus maitagarria aldi artako bere desondrarekin; ta desondra, Apez-Nagusia, ta Jerusalengo Apezzen Batzarre edo Konzilio guzia begira zegozkala, artu izandu zuenarekin.

Etzen, ez, orregatik mindu batere gure Jesus maitagarria Apaiz-Nagusia-gana. Bazekien, bai, Jesusek,

nondik zetorkion gaizatxar aren esk-ukaldia; edo bazekien gure bekatuen aldetik zetorkiola: ta, bekatu beren alde, prest arkitzen zen gure Jesus maitagarria, bere arpegian ezezik, gorputz guzian ere onez artzeko eman nai ziozkaten ondra-ez ta neke guziak.

Erran ziona Jesusek gizatxar-ukalkariari etzen izandu, ez, artu zuen bere ondra-ezagatik: izandu zen au gure Lege zuzen-garbi-onaren alde, ta norbaiti iduri etzekion, ez zuela bere Legeaz kontu ona eman izandu Jesus maitagarriak, kontu ori eskatu zionean Lege zarreko Apez Nagusiak.

Siñisten dut nik au, bai, nere Jesus maitagarria; bada orain ere zuk isill-isill daramazkitzu, ta itzik ere atera gabe, nik, eta nere erako bekatari txar-galduak, ematen dizkitzugun zere arpegiko gure oben-kulpen ukaldiak, edo guk, zu zerori begira zagozkgigula egiten dizkitzugun bidegabeak eta txarkeri guziak.

Baña ez ditezela, ez arren! Jesus maitagarria, orretan gelditu zure oraingo isillerak eta ematasun leunak; edo, nik oraindañoko nere txarkeriez bear den eran damaturik, bizitz on bat artu gabez, ez nazazula ni zuk zere tribunalean, leoi baten erako orroz ikaraturik iutzi. Ez, (berriz ere diot) ez arren, ez, Jesus maitagairia, ez!

*Dixit Dominos ad Satan;
ecce in manu tua est (Job):
verumtamen animam illius serva.*
Job. 2. 6.

Job Santua galdu naiez zebillen bein gure etsai galdu amurratua. Ezin egin zezoken ezer etsaiak Job Santuari, bere Jaungoikoak artan iuzten etziola: ta gure Jaungoiko maitagarriak mundukoak ekus zezaten norañokoa den, Jaungoiko berak laguntzen diela, gizonak dakikeena: To, erraten dio etsai amurratuari; To, ez diok bizia zer kendu ik Job nere serbitzariari, baña gañerakoan emok nai duen edo dekan gisan ta erara; ta ekusiko duk nor den Job; ta Job onak nigatik egiten duena.

Jesus, ta zer eskua Jaungoikoak gaur etsai amurratuari ematen diona! Ta zer langarria, etsai gaistoak aldi onetan Job onaren gain egin dezaken lan-era!

Bai! Bada etsai galduaren aldi artako lan txar guziak, eta, egin zituen eginalak, ezer-ez bat bezala dira, Jesus maitagarriak gaurdanik bere gain arturik daduzkan lan gogorren eta neke izugarrien aldean:

artuak daduzka alabada, judu gogorak egin ala, ta, sulezeko etsai batek ezezik, ango guziak eragin ditza-keenak ere; bada oriei guziei eman izandu zien gure Jesus maitagarriak, beren lan au egiteko, ta bere bizia Jesusek utzi artean, eraman zitzaken neke guziak arrerazteko eskua ta baimena; ta etsai amurratuak, artarako zuten beren eskuz baliatu ziran, bali-alean, ta ezin geiagoraño.

Au zer da, gure Jesus maitagarria! Zere etsai amurratu galduei emain zenien zuk zere gain ta kontra onenbat esku, ta era onetako baimena? Orren guti nai diozu zuk zere buruari, Jesus maitagarria? Orren gutxi balio du, zu zaran bezalako Jaungoiko-gizon batek?

Baña, a nere eroegia! Ez da orregatik, ez, orain guk ekusten dugun au! Bere Aita palakatzeagatik, eta zu ta ni gal ez gaitezen da, gure Jesusek aldi onetan egiten ta iuzten duena. Au guzia, agitz egi guri, edo geiegi, naiez bezala, da. Ezin geiagoraño maite du Jesusek bere Aita maitagarria: ta elkar ongi artzen dugula, edo elkarren maitatzalle onak egiñik, ekusi nai ginduzke bere Aita maitagarria ta gu, naiz dela milla bere nekeren buruan, ta bere bizia emanik bade-re, ta lan orretarako, da Jesusen etsaiak duten aldi onetako esku guzia.

Ekusten dezu? Eta noiz zuk pagatu Jesusi, zor diotzun onenbateko bere amorea? Ongi beintzat, bein ere: Ain andia da alabaña Jesus maitagarriaren amorea; ta ain bazterrik gabekoa gure Jesusen guganako amore au!

*Funes peccatorum circumplexi sunt me,
legen tuam non sum oblitus.*

Ps. 118. 61.

Bekatuen sokaz loturik arkitzen naz ni gaur, erran zezaken Jesusek Ostegun santu au erdian, ta errain zion bere Aita maitagarriari, itzez ezpazen ere, gogoz ta biotzez.

Bai, nere Aita maitea, bai, errain zion: nere etsaiak asiak dira, nitaz egiten beren gogo gaistoak adirazten diena! Egin dituzte, nigana etorri orduko beren bekatuzko soka luzeak: luzatu dituzte soka berak, orien ondoren mundu onetara etorriko diranen gaistakeriekin: ta emen etorri dira, ni loturik artu, ta Jerusalengo kalez kale, ta Juezez Juez erabilli ondean, lenbaitlen, gaistagiñen eran, ta lapur galgarri biren artean ni ille-raztera. Ori da, bai, orien oraingo asmoa; ori orien

oraingo egitekoa!- Baña nere asmo-egitekoa da zuk nai dezuna, nere Aita maitagarria, zuzen egitea: ta, ori nik orain egiteagatik, pozik utziko diet nik nere etsaiei, berak nai dutena nitaz egiten.- Sansonek bezain aisa ta agitz aisago ere, urra nitzake nik nere etsai guzien lokarri guziak; eta banindoake ni, nik neronek nai dudan tokira. Baña zuk nai dezuna nik egin naiez, nere Aita maitagarria, lotu-geldirik nago ni; ta ni noa, nere etsai lokarridunen bidez, zuk zerorrek nai dezun lanera, edo, nere neke-eriotzekin, sulezeko etsaien kateak urratzera; ta noa, bekatari gaisoen ta zure artean bake onak oriei eragitera; bekatari berak ori nai dutela.

Eta nai ote dezu zuk, nere anima, zure Jesusek, bera loturik dagoela, auts ditzan zure bekatu galduen lokarri sendorrak? Nai ote dezu zuk, dagitzan Jesusek zure, ta zuk aserre dadukazun bere Aitaren arteko bakeak?

A nere Jesus maitagarria ta zer naiko dut nik, ori nik nai ez izatera? Nai dut bai, nere Jesus maitea, ta ziñez alere.- Egizu zuk orrenbat, nik zuri zor dizudan zere amore andiagatik; eta ori zuk gaur nerekin egite-
ra, ematen dizut itz osoa, ez dudala nik berriz bekatu berrien sokak edo lokarriak egiten ari bear. Len ni

orretan aritu izanduaz dut orain damu ta urriki; ta eskatzen dizut, len nik zugandik artu ditudan anbat ontarteren gain oraingo au ere; edo nik nere bekatuen sokaz zu lotu zaitudalako damu andi bat, eta ziñezko urriki; ta eskatzen dizut au, ukatuko ez didazulako ustean. Ez ukatu, bada, nere Jesus maitagarria: ez arren, ez!

*Protector noster, aspice, Deus,
et respice faciem Christi tui.*

Ps. 83. 10.

Aita Eternoa! ta zertan zaude zu Ostegun santu gau onetan, ekusiak ekusirik ere, Jesusen alde deus bat egiten ez dezula? Ekusi dezu zuk Jesus maitagarriari judu gogorrak gau onetan egiten diotena? Ekusi dezu zuk Jesus maitagarriari, Jetsemaniko baratzetik asi, ta Jerusalengo Eliza-gizon andiaren etxerañokoan judu gogorrak arrerazi dioten pena ta naigabea, ta alere ez diozu zuk eskurik ematen, edo iuzten dezu zuk bere naigabe ta neke guzien artean!

Baña (a nere Jesus maitagarria!), etxe orretaraño-koak deus ez bat bezala dirudite, etxe berean zuk

arkitzen dezun bidegabe txar guztiz itsusi baten aldean.- Erantzuten diozu zuk Eliz-gizon andi onen galdetze bati Jaungoiko-gizonak bezala, edo ezin-zuzenago, ezin-ederkiago, ta ezinobeki: ta alere, itzketan ez dakien gizatxar motel-alkegabeko baten eran eranzun bazenio bezain gaizki, ta gaizkiago, zarabilzte zu orko gizon andi guzien begietan: bada, or arkitzen diran gizon andietara batere begiratu gabe, urbiltzen zaitzu, zuk ari era orretan erantzutean, an bertan arkitzen diranetatik gizatxar, edo mutil lotsarik gabeko bat: eta ematen dizu bere eman-alean zaplada gogor arrigarri bat zere arpegi Jaungoiko-gizonarenean.

Ez dezu zuk ekusten au guzia, Jesusen maitari on, ta Aita maitagarria? Begira; begira egiozu ongi ta kontuz Jesusen arpegiari! Ageri zaio, bai, nola eman dioten oraingo esk-ukaldi guztiz arrigarri au, ta zein alde-tan! Ekusten dezu? Bada, zein ere andia den gizatxar onen oraingo esk-ukaldia, esk-ukaldiak arrerazi dion gaitza, ta miña, ta oñaze guzia baño, agitz eta agitz andiagoa da, Jesusek aldi onetan dakusan alkekizuna, ta bere barreneko naigabea: ekusten du alabaña ondra-ez ezin andiagoa au, Jerusalengo Konzilioko gizon andiak begira dagozkala, ta orien plazer ta atsegin andiarekin.- Eta alere etzara ateratzen zu, gure

Aita eternoa, zere Seme on-eder Jaungoiko-gizon Jesus matiagarriaren alde? Eta alere uzten diozu zuk, Aita eternoa, dagoela Jesus, daraman adiña lotsarekin, ta bere etsaien atzaparretan?- Gauz arrigarria! Bai izandu bada bat, zeru-lurrak zuk zerorrek egin zenituen ezkerozko denboretan!

Nork onenbat gogortu ote zituen Jesusen etsaiak? Nork eman ote zion anbat indar gizatzar aren esku zikin-beltz-itsusiarri?- Nork, baizik zure ta nere, galgarrion, bekatuak! Au onela ez izatera, edo Jesusek artu ezpalu bere gain gure bekatutzar galduen zor guzia, nola utziko zuen Aita eternoak bere Seme Jesus gizatzar okabilkari aren eskupean, ta judu gogorren gogara?

Ez dut bada nik, ez, zer keisatu nik, nere naiez egin ditudan nere bekatu zikiñez baizik. Oriek dira alabaña oraingo bere nekaldi andi-alketsu au Jesusi arre-razi diotenak; eta zorionekoa ni, sekula guzian oriek berak nekarazten ezpanaute ni, lurraren erdiko sule-zean! Ez naute nekatuko an ez, nik ziñez ta bear den eran eskatu ezkeron nere Jesus maitagarriari, nik nere bekatu oriekin eman diodan alkekizunaren, ta nere biziko txarkeri guzien barkamentua; bada, au norinai ark emateko, ez du Jesusek ori besterik eskatzen; ta

ziñez, ta bear den eran eskatuko diot nik, era berean itzez ta biotzez erran ezkerro: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

LIV.garren OTOITZ-GAIA
JESUSEN GAIN EMAN ZEN, LENBIZIKO
SENTENZIA; TA SENTENZIARI DITXEZKON
JESUS BERAREN NEKE ANDIAK

A.

Ezin makurragoa zen
juduak Jesusen gain eman
izandu zuten lenbiziko sentenzia

Kaifas Apez Nagusiak, eta gañerakoak, etzuten arkitu beren testigu zirtzill-gezurtien itzetan, Jesus ille-razteko biderik batere.

Bide au idiro naiez, izandu zen orien Batzarrea, edo Konzilioa; ta alderdi artatik ezin zuenean, besteren batez bazen ere, bide bera arkitu naiez, erraten dio Kaifasek Jesus maitagarriari: Jaunaren lekuan nagoenak bezala galdetzen dizut nik gaur, ta errazu zuk emen, emen bertan arkitzen diran guziak aditzen zaituztela, zu zaran, edo ez, Kristo, Jaungoikoaren Seme bedeikatua.

Bai; erantzun zion Jesusek Kaifasi, bai: zuk diozun ori bera naz ni.- Baña, zekienak bezala zertarako zen, Kaifasen era artako galdetzea; ta adiraztegatik Jesusek Kaifas berari, ta gañerako an arkitzen ziran guziei, Jesus beraren orduko aitormenagatik eman nai zuten sententzia gaistoaz eman beariko zutela kontu munduko guzien begietan, aitormen oni zitxekola erran izandu zion Jesusek berak: Nazanak bezala diot, eta egi garbia: Ekusiko dezue bere denboran zuek gizon au, jarririk Aitaren eskoieko aldean, ta nola datorren zeruko odeietan; edo ekusiko dezue, dagoen eran orain egonagatik zuen artean arkitzen den, ta gizon utsa dirudien au, nola etorriko den odei gañean, Aitaren eskoietik arkitzen dena bezala, Jaungoiko-gizonaren esku guziarekin, zuen, ta gañerako guzien kontuak artzera. Maldonak. in Mattk. 26. 64.

Au zen aldi artan Jesusek Kaifasi, ta bere lagunei erran izandu ziena. Baña etzeuden Jesusen erran onak aditzeko Kaifas ta gañerako judu gogorak: eta, gero-koari batere begiratu bage, lotu zekizkion Jesusen erantzute utsari; ta, atsegin andiarekin gelditu zen Kaifas, zeren idaroki zion Jesusi, zena zela, edo Aita Eternoaren Seme bakar-Jaungoiko-gizona; eta denbora berean, damuz erdiratzeko eran arkitzen bailiz

bezala, urratu zuen bere soñekoa, ta erran izandu zien bere Batzarreko edo Konzilioko lagun guziei: aditu dezue, gizon onek diona. Aditu dezue onek orain, guk guziok aditzen dugula egin, edo bota duen blasfemi arrigarria! Zer da bada orain guk aditu au aditu ondolan, dagikeguna? Bizia kendu, eranzun zioten an arkitzen ziran guziak: *qui omnes condemnaverunt, eum esse reum mortis*. Mark. 14. 64.- Orra zer sententzia, gure Jesus maitagarria, zere etsaiak orain zere egia-gatik eman dizutena! Bekatu andia deritzate zure etsai, gezurrez dabiltzanak, zuk diozun egiari. Gure Jaungoikoa zarala zu, ta Jaungoikoaren Seme, gure guzien onerako gizon egiñ izandua, ezin siñistatu dute, edo ez dute siñistu nai niola ere judu gaistoak.- Berak ala nai izatera, erraz aski, ta aisa ekus lezakee orain oriek, zure aotik aditu dutena dela egi zuzen-garbia, ta ez besterik; bada aski lukee oriek orretarako, zuk beren begietan egin dituzun gauzei zuzen begiratzea: zu zara alabaña itsuei ekustea, eriei osasuna, ta illei bizitza eman oi zeniena, ta era onetako beste anitz gauza on egiten zenituena; ta egiten zenituen zuk zere gauza ta egiteko andi oriek juduen begietan, edo juduak berak zekitela: ta oriek, oriei ongi begiratzera, ezagutuko zuten Jaungoiko-gizona-

ren gauzak zirala zure gauza guziak; eta zu ziñala, Kaifasek zion Kristo bedeikatua, ta zuk zerorrek aitorzen zenuen Aita Eternoaren Seme-Jaungoiko-gizon egiazkoa.- Baña itsutu zituzten judu gogor-tzarrak begiak, zuri gaizki naiez, ta zure gauzei ez ongi begiratzeagatik: eta guziak diote, ta guziak batean: Blasfemia da gizon au, ta ill bearra, nai ta ez: *reus est mortis*.

Ekusten dezu zuk au, gure Jesus maitagarria? Ekusten dezu zer den, zure gauz onak ez ekusteko itsukor egiten diran judu gogorak diotena? Ori, bada: beldur naz ni, ez dirala oriek geldituko, ez, berak erraten dutena bukatu artean, ta utziko zaituztela zu (ta laster alere) beren sententzia makur-galduak erran duen eran, edo illotza, ta bizirik bage.

A! nere Jesus maitagarria, ta zu zere eriotz gogor orren ortzetan gelditu baño len zure begira dauden gauzak! Zein arrigarriak, gau onetan berean zuk ekusi bear dituzunak! Ukituz badere, goazen ekustera orientatik bat edo beste.

Sentenzi au eman orduko, asten zaizka Jesusi listuka; ta lotzen diozkate bere begiak

Eriotzeko sentenzi gogor zuzen-ez au eman orduko, asi zekiozkan Jesusi bere etsai gaisto galgarriak, eta ango gizatxarrak, nork daki zenbat txarkerirekin.

Lendabiziko, etsai oriek Jesusi egiñikako txarkeria zen, San Mateo Ebanjelariak dionaz, etsai beren listuka zikiñ bat; *Tunc expuerunt in faciem ejus.* - Zikintzea bati bere aurpegia tuz ta listuz, nonnai ta edozein bazterretan alkekizunezko txarkeri loi-lizuna da; baña juduen ta israeldarren artean (orduan beintzat), beste bazterretan ere baño txarkeri loiagoa zen, ta agitz lizunagoa; ta, geiago baño geiago Jesus alkerazi naiez, asi zekiozkan judu gaistoak, (eta agian Apezetatik ere zenbait badere-bai) Jesusi listuka; ta listukari guzien artean laster listuz beteko zioten Jesusi bere arpegia: ta Jesus maitagarriaren arpegia itxura txar artan ekusi orduko, abiatuko ziran listulariak berak, eta orien lan txar au ekusten zutenak iji-ajaz, ta irriz, ta ista ta burla.

Ekusten dezue zuek, Jaungoikoaren Aingeruak, zertara duten gure Jesus, Jesusen etsai judu gogorrak?

Orra, bada, orra, zer eran iutzi dizuten, bere edertasun andi bazterbagekoarekin zuek liluratzen zaituzten Jesusen aurpegia! Orra zuek beti ta beti ekusi nai dezuten Jaungoikotasun guzi-guziaren ispillu ezin-ederragoa!- Zer deritzazue zuek, Aingeru onak; zer deritzazue zuek? Utzi ote diote judu gogorak Jesus maitagarriari, zegokan eran, bere ispillu eder arpegia?- Ez, baizik ezin-zikinduagoa, ta ezin era, ta itxura txarra-goan. Ongi, Aingeru onak, ongi: ta ezin garbi zenezoke zuek zerok zeren esku leun-zuri-ederrekin?

Ez ote da mundu guzian arkituko, zuek zeren lan orretarako bearko dezuten adiña ur ta esku-oial, eun mee, olanda, ta ruan?- Badira, bai, zuek lan au, egin liteken era zuzen batez, egiteko bearko liran ur ta oial guztiz egokiak; eta pozik zuek billatuko zenituzkee, Jaungoikoaren Aingeru onak, eta, oriez zuek baliatuz, edo orrelakorik bat ere bage, ta aisa aski, fite ta laster kenduko zeniozkee gure Jesus maitagarriari juduen listu, ta karkais zikiñak Jesusek ori, ta Jesusen Aita eternoak, ala nai izatera.

Baña Aita eternoak orain bere Aingeru onetatik nai duena da, arrituen eran, oriek Jesusi begira egotea, guk bekatari gaisook ekusi dezagun astiz, ongi, ta kontuz, norenak ote diran karkais eta listu oriek, edo

oriek adirazten duten loaia ta zikinkeria; gureak dirala, guk gerok ezagutu ondoan, geren bi begietako negar beroekin, ta damu onezko oial zuriz, Jesusi bere arpegitik kentzera egiteko.

Baña zer loi ote da loi zikin, Jesusen arpegia onenbat lizuntzen duen loi likits au?– Zer loiak, edo nondik datozen loi-erak ote dira gure Jesus maitagarriaren arpegia era onetan lizuntzen duten loi likitsak? Gure itz arinetatik, gure kanta, bear ez bezalako galgarrietatik, gure lausenga ta ele eroetatik, gure marmaria mukerretatik, gure errierta sutu-beroetatik, gure ziñ eta juramento gezurtietatik, gure maldizione, otoitz gaisto, ta erregu errebesetatik, eta, bear ez diran gure erausiero galdu guzietatik datozenak.– Era onetako ta beste gure bekatu guziak dira, bai, gure Jesus maitagarriaren arpegi ederra loitu zuten karkais zikin ta listu galduak: eta gure bekatu berak dira, guk geren ziñezko damuz, ta urrikiz, ta Jesus maitagarriari eskatuz, gu gerok gero galduak ez izateko, kendu bearko ditugun karkais listuak.

Eta ori da gaur bertan gugandik Aita eternoak nai duen, Jesusen arpegiaren garbiera.– Eta oraingo bere nai onetan nai ote du geiegi bere seme Jesusen Aita maitagarriak?

Garbiera onetako lanera zu saiatzeko, begira egio-
zu zuk zere Jesus maitagarriari; ta ongi oartzuz, ta
astiz, ekusi zazu orrenbat karkais ta listuren artean
Jesus maitagarriak egiten duena; edo ekusi zazu, kar-
kaisak karkaisen gain bere arpegira Jesusi Judu gogo-
rrak aurtikiagatik, ez duela Jesusek bere aurpegia
batere baztertzen.- Ekusi zazu, era onetako Jesusen
egoerak nai ta ez lotsatzen zituela listulari, ta karkais-
gin judu gaistoak; eta oriek, bere alkekizun ta lots au
ez ekusi naiez; ta, berak nai bezala, ta alkekizunik
bage Jesusi egiteagatik, era bereko, ta beste berak
asma al adiña ista, ta txarkeri, traputzarrez, edo berak
zekiten eran, estali ziozkaten Jesusi bere begiak, *Et
caeperunt quidam conspuere eum, et velare faciem
ejus.* Marc. 14. 65.

A juduak, a judutzar ero-itsuak! Zuen listu, ta kar-
kais zikiñak estaliak daduzkate, bai (ta ongi alere)
Jesusen begi ederrak. Bestela ere lurrera begira dago
Jesus, ta bere betazal bat ere illuntzen ez dizutela; ta
alere lotsatsen zaituzte zuek Jesusen begi ederrak;
eta, lotsarik batere bage egin naiez gogogaistoak
ematen dizutena, kendu nai dituzue zuek zeren begie-
tatik Jesusen begiak, eta ezartzen diezue gogoak
ematen dizuten, edo zuek zeren eskutartean arkitzen

dezuten estalkia!- Galdu-zoratuak zuek; eta agitz alere! Jaungoiko-gizona da Jesus maitagarria; ta zuek orain, zerok nai dezuten eran estali arren gizon-Jaungoiko onen begiak, berekin ditu Jesusek Jaungoikoaren begiak, eta Jaungoikoa begiz-begira dagoka, zuek egiten dezuten guzi-guziari; ta zuek nai, edo ez, eku-siko du Jesus maitagarriak zuek egiten dezutena; ta orain ixillik badago ere, emain dezue bai, Jesus orrek berak bere denboran, zuen gaizkiei dagoten pagua: ta a zer pagua!

Eta ona nik nere Jesus maitagarria; ona non daku-sadan nere oraindañoko, ta juduenaren erako itsumentu nere galgarri berbera!- Zokoak billatzen nituen nik, ni gaizki nenbillen denboran, nik nere zikinkeriak nere gogara, ta lotsarik bage, egiteko. Gabaren begira nengoen ni, nik neronek dakidan etxe artan sartze-ko, nik dakidan arekin an itzketan, ta bear ez den eran, egoteko: ta, nik emengo jendeen begietatik nere ebasteak, nere lapurreriak, eta beste nere gauza gais-toak gorde, edo estali ezkeru, ez nuen beldurrik batere: lotuak zeudela neritzan nik, zure begi guziak; eta ezin ekus zezakela ordu artan nere Jaungoiko begidun ekusle ederrak ere, aldi artan nik egiten nuen gauza-rik batere.- A, baña! a, ta nere galduegia, nere leneko

gauza gaistoak konfesatuz urratu ondoan, egiten ezpaditut nik nere gaurgeroko gauzak, dakidanak bezala, etzaiola nere Jaungoikoari gordeko batere, diran guzietatik, eta orietatik bakoitzari begira dago-kala, mundu guzian besterik ezpaliz bezala, ta ezin argiroago.

C.

Ematen diozkate Jesusi bere arpegian esk-ukaldi gogorrak eta egiten diozkate ista ta burla izugarriak

Bere bi begiak Jesusi juduak estali orduko abiatu ziran Jesusen borrheroak: *Colaphis eum caedera* (ibid.) eskukaldika Jesusen aurpegian; edo abiatu ziran batak batetik, eta besteak bestetik behar-ondokoka, okabilka, zapladaka, ta, sulezekoak, Jesusen etsai berei adirazten zien alde guzietara Jesusen arpegia zerabil-tela.

Ongi; ta, nola geldituko ote zen urrengo bigaramu-neko Jesusen aurpegia? Zein anditua? Zein ustel-idu-ria? Ta zenbat oñazerekin?- Egunen batean au guzia guri adiraziko zaiku. Eta bidenabar egun artan berean

adiraziko zaiku, etzirala izandu, ez, juduen esku utsak lan orretan aritu ziran eskuak; edo, juduen esku gogorrekin batean, an aritu zirala, bai, zureak ere.

Bai, bai; an aritu ziran zure eskuak ere, bekatari txar, Jesusen nekagarria, ta zere buruaren galgarri gaistoa! An zebiltzan, bai, zure eskuak ere, edo zure bekatu loitzar-zikiñak, gure Jesusen begietan, ta bera-
ren arpegian; bada zuk geroz egin izandu dituzu esku-
ka zikiñak, ukitze loiak, erabiltze lizunak, eta, zuk zerorrek dakizkitzun lan likits-itsusiak, ebaste gaisto-
ak, eta gañerako zure bidegabeak ekusten zituen aldi
artan Jesus maitagarriak, juduen ta jentil arroen esku-
ka gogorak bezain ongi, ta naigabe andiarekin; eta
oriek guziak judu gogorren eskuekin batean naigabez
agitz betetzen zioten Jesus maitagarriari bere Biotz
guzia.- Zeren lan gaisto au egin baño len erreak gel-
ditu bear zenuzten, animako nere eskuak, orra zer
egin dezuten zuek zeren lan makur galgarri gaistoe-
kin! Egunen batean ekusiko dezue, bai, zuek, zein gal-
garriak ziran era orretako zuen ibillera gaistoak! Jaun-
goikoak barka ditzakidala guzi-guziak niri, an oriek
nere alkekizunerako gertatu gabe!

Arrats onetako Jesusen anitz neketatik bat izandu
zen, oraindaño koan guk ekusi ditugunak bezain gogo-

rra eta arrigarria; izandu zen alabaña, Jesusek eraman zezaken saietsik minbereenean zeraman nekea, edo neke, ondoren kontrako.

Ekusi ditugun txarkeriak, eta beste beren lan gais-toak egitean, erraten zioten Jesusi judu gogorrak: Orain ekusi bear diegu, nor azan i; ta, guk iri ere begiak ongi lotu, ta estali ta ere, ote dakien ik, gerta-tzen zaiena: edo ezagutzen ote duela ik nondik dator-kien iri ere naigabea: Ea, erraguk, Kristo, erraguk, nork ematen dien oraingo nere esk-ukaldia: Propheti-za nobis, *Christe, quis te percussit?*- Eta, errate zikin oni guti eritzirik, erraten ziozkaten, dio San Lukas Ebanjelariak, beste anitz itz gaisto, ta blasfemia ere: *et alia multa blasphemantes diebant in eum.*

Zer blasfemiak ote ziran, aldi artan Jesusek aditu zituenak?- Ez aditzeko obeak. Jesusen etsai gogor judu gaistoen ezpañetatik; eta ezpañ, sulezeko amur-ratuak suturik zeduzkaten batzuetatik atera zitez-keen bezalakoek; iraz, ta izurriz, ziranak beteak; eta aditzen zituen edozein ikara, ta arriturik utzi zezakee-nak; baña, an arkitzen ziran guziei atsegin andi bat egiten zietenak.

Orra bada, Jesus maitagarria: orra zer opionean zaduzkaten zu zere erritar, edo erreinutar, judu gogo-

rrak! Orra oriekiko zuk zere mirakullu, ta orien beren onerako egin izandu dituzun gauz, andi-txiki guziekin, egin dezun irabazia!- Gizon oriekiko, gezurti andi bat zara zu, ta, zere eskuetan dakartzuna ere, ezagutzen ez dezun gizona.- Blasfemari arrigarri bat zarala zu, diote orien arteko Apezak; eta orregatik, bizirik ezin geldi zaitezken gizona.- Orretan berean daude orien lagunak; eta, lenbaitlen guzien artean ill nai zaituzte-la dirudi; ta, berak nai lukeen lan txar itsusi galdu au egin artean, or zarabiltzte karkaiska, listuka, okabilka, golpeka, ta ista, ta ista.- Nonbait gauza txar guztiz galdua zara zu orien begietan, gure Jesus maitagarria!

Eta nereetan nolakoa izandu ote zara oraindaño-koan, nere Jesus maitagarria? Jaungoiko-gizon guztiz errespetatua? Ongi, zuzen, biotzez, ta bear bezala beti nik maitaturikakoa?- Ez ote naz gorde ni bein ere zure begietatik, nere gauza txar zenbait egitera?- Ez ote dizut keñatu nik noiz edo noiz nere esku loi galdu-zikiñarekin? Etzen nik zuri eskuz keñatzea nere esku-tzar loi zikiñez urratzea, urratu dudan eran, zure sei-garren mandamentua, edo zure Legekoetatik beste edozein mandamentu?- Keñatu ezezik, eskuka ere eman dizut nik zuri, bein baño geiagotan, ta bekatu larriren bat egiten nuen aldioro!- Ez nuen nik orduan

erraten, ez, erran zenezala zuk, baldin bazenekien, norena zen orduko nere bekat-ukaldia: banekien nik, bai, baizenekiela zuk nork emana zen, zuk orduan artzen zenuen nere ukaldia edo golpe lotsagarria; ta argatik, zuk nai izatera, onda nintzakezula ni beti-ta-betiko sulezean.

Baña ez nuen orretara begiratu nai nik; eta estal-tzen nituen nik nere begiak, zureak ezin estal nitzake-la nekienak bezala; ta, ekusten ez duen itsu bat bazi-na baño geiago zuri begiratu gabe, ematen nizun nik zuri, eman alean, edo egiten nuen nik nere gogoak eman oi zidana, naiz zela ori, zuk nai etzenuen gauza-ren bat, edo naiz zela izan ziteken gauzarik itsusiena, naiz zela nolakoa nai.- Eta alere ixillik beti zu, nere Jesus maitagarria: ta alere beti niri ongi naiez zu, ta nondik niri, eme-emeki zu nerekin ibilliz bazen ere, arreraziko zenidan nere gaizki guzien urrikimentua, ta bizitza berri on bat egiteko asmoa!- A! eunetan, ta nik ezin asm-al adiñ aldiz bedeika dakiola zure Biotz umill on-maitariari!

Nori etzaio damutuko, zu bezalako bati nik nere naiez egin dizkitzudanen eraka txarkeriak egin ezke-ro.- Niri beintzat nerezeez damutu zait; eta ziñez alere: ta berriz, eta bereko, edo beste txarkerietara baño len

egin nezake nik, ez dakit zer; ta egiñen dut gaur bertatik, len egiñen alde, zuk nigandik nai dezun edozein gauza.

Errazu zuk orretarako, zer gauza den, nik egin bearra; ta lagun zakizkit egiten, lenik ematen didazu-la leneko nere utsen barkamentua, ta zere grazia: bai arren, bai!

*Posui ori meo custodiam,
eum consisteret peccator adversum me:
obmutui, et humilitatus sum, et silui á bonis.*

Ps. 38. 3.

Gauz arrigarria gaur guri gure Jesusek Dabiden ezpañez erraten, edo adirazten diguna! Giltzatuak baleude bezala, daude gaur, dio Jesus maitagarriak, nere bi ezpañak, nerekin gaur, gogoak ematen diena nere etsai gogorak egin ta ere!

Orra zenbat listu ta loikeri ditudan nik gaur nere aurpegian! Judutzar gogorren bat ez izatera, ezin begiratuko dit niri gaur, ni nagoen eran, alkez bera, lotsaz, ta negarrez beterik gelditu gabe judutzar gogorak; eta judu, ni beren aoz, ezpañez, ta mii lizunez

era onetan iutzi nautenak dira, niri begiratzetik atsegin andi bat artzen dutenak: eta, atsegin berriak, eta andiagoak artu naiez, listu ta listu niri ari zaizkidanak!

Dagitela nigatik, berak nai dutena. Nere naiez, ni mututurik bezala, ta ixill-ixill arkitzen naz, oriek beren lan lizun onetan asi ziran ezkerok; ta, nai duten orduraño ariagatik oriek, ez dut itz egin uste orien gain ez eta nere alde ere. Umill-umill egoteko asmoan arkitzen naz ni, ta itz bat atera gabe, nere neke loi natsgarri onek irauten dueño: au datorkit alabaña munduko bekatuakgatik; eta orien alde nai dut eraman nik, nere betiko Aitaren izenean, au guzia ta gañerako nere Aitak nai duena.

Ai Jesus maitagarria, ta zuk nigatik daramazun nekea! Eta zein ixillik! Eta zein emeki! Eta zein biotz leun-garbi-maitatzallearekin!- Au guzia zuk, (eta era onetan) nere bekatu zikin galduakgatik daramazu; eta alere bekatu berrietan ni!

Noiz utziko ote ditut nik betiko, ta arras, nere bekatu guziak? Noiz artuko ote dut nik biziera berri on garbiren bat edo beste? Eta noiz asiko ote naz ni, nere Jesus maitagarria, zure ondoren, ta geroz nik izaten ditudan nere naigabeei begi onez begiratzen diedala?- Ez ditut artuko nik ere nere obenen alde, ta zure

izenean, Jesus maitagarria, nere lagunen begitarte gogorak, eskergabeko lanak, eta gañerako txarke-riak?

Bai Jesus maitea, bai, nere lan on onetan zuk bizi-ro laguntzen badidazu. Lagun zakizkit bada bizi-bizi-ro, guztiz bortizki, ta zere indar andiarekin. Bai arren, bai!

*Oculi Domini multo plus lucidiores super solem,
circumspicientes omnes vias hominum.*

Eguzkiaren begiak begi argiak dira: baña gure Jau-narenak agitz argiagoak.

Eguzkiak ez du ekusten, edo bere argiz ukitzen ez du eguzkiak, gordeak dauden gauzetatik bat ere; ta gauaz, ezpaliz bezala, da zeruko eguzkia: baña, egu-naz bezain ongi ekusten du gure Jaungoikoak gabaz ere; eta lurpean edo non-nai gordeak dauden gauzak ere ekusten ditu lur gañean, ta toki agerian arkitzen diranak bezain ederki, zuzen, ta klaro: baita, nere gogoratzen diran asmo, ta oroitzapen edo pensamen-tu guziak ere.- Ez da zeruan, ez; ez da lurpean, ez; ez da nion ere, ez, gure Jaungoikoak ez dakusan gauza-rik bat ere, den txikiena izan dedilla, edo edozein era-

takoa, zeruko erpinetik lurraren ondorañokoan arkitzen den gauz au. Eta gauza guziak ekusten ditubatean, ta bein ere bere begietatik iutzi bage, gure Jaungoiko maitagarriak.

Au guzia badakit, nik nere fedea niri, edo nere siñiste onak erakutsirik; eta onelakorik ezpaneki bezain arin ibilli naz ni nere Jaungoikoaren igeska, gordeka, ta zikinkerietan, ta gogo galduak niri eragin dizkidan nere lan gaistoetan; edo ibilli naz ni, oraindañoka nere oben-kulpetan, niri nere Jauna begira zegokidala oroitu gabe bezala: ta denbora berean ibilli naz ni, ongi oarturik, eta norbaitek ni nere lan gaistoetan ekus nintzan beldur andiarekin!

A ni, Jesus maitagarriaren begi ederrak estali zituzten judu galduen laguntzar eroa! Alketzen ta lotsatzen naute noiznai lurreko gizonen begiak ni, gauza txar gaisto bat egiteko gogoak niri eman orduko; ta egiten ditut nik, era bereko anitz gauza ere, nere Jaungoiko ekusle andia begira dagokidala; ta orregatik batere lotsatzen, ta alketzen ez nazala!-Egunen batean agertuko dira, bai, munduko guzien begietan, orain oriei gordeagatik nik, nere Jaungoiko maitagarriak ekusten dituela, nik neronek egiten ditudan zikinkeriak!

A zer lotsak! A zer alkeak ordu artan nik orien begietan ekusi bearrak, orain nik damuz, ta negarrez ez garbitzera zikinkeri berak niri anbat eta anbat loitu didaten anima, gero au garbitu ondoan, ni bizitzeko, nere Jauna beti begira dagokidala dakidanaren eran!

*Dabit percutienti se maxillam:
saturabitur opprobriis.*

Thren. 3. 30.

Arriturik bezala, begira zegokan Jeremias profeta, Ostegun santu gauaz Jesus nekakor-maitagarriak zemanari. Baña zein ere arrigarriak ziran, aldi artako Jesusen nekeak, nekeak berak baño ere agitz geiago arritu zuen Profeta, Jesusek bere nekeetan zuen nekeen eramanagerak; eta, au guri nola-ere-bait adirazi naiez, ta egin gaitezen gu geren Jesus onarekiko eskerdun onak, erraten digu Profeta berak:- Ekusten dezue zuek zeren Jesus maitagarria? Ekusten dezue zenbaten artean arkitzen den gaur zuen Jesus; eta nolako gizonen esku gogor-galdu zikiñetan?- Begira; begira, dio Profetak: nola darabilten! Eskuka juduak, eta okabilka lertzear diote Jesus maitagarriari bere

aurpegia! Eta alere matrallbata zaplatzen diotenean, ez du estaltzen bestea; ez eta ura bera ere. Prest daduzka Jesusek biak, eman nai diozkaten ukaldi guziak artzeko: ta artzen ditu, norik daki zenbat, itz bat atera gabe, ta naigaberik erakusten ez duela!

Au ekusteko denbora berean, ekusten ditu Profetak, Jesusi bere etsaiak erraten diozkaten itz gaistoak, eleak, baldankeri dongeak, eta blasfemiak: baita oriek guziak nola ta zer eran Jesusek artzen dituen ere, ta au guzia guri ark adirazi naiez:- Ara, dio, ara zenbat gauz loi-arrigarri aditzen dagoen Jaungoiko-gizon Jesus maitagania. Ara: ixill-ixillik dago Jesus; ta denbora berean dago guztiz erne, ta agitz oartua, egiten zaizkan anbat bidegabetatik bat edo bertze gal dakion beldurrez bezala, ta egarti, edariz asetzen dagoenaren eran: ain borondatez, ta anbat bere naikunderekin, artzen ditu Jesusek gure zorren alde pagugai oriek guziak; diranak dirala izanik ere, zeru lurretako guziak asm-alak bezain izugarriak, eta agitz ere izugarriagoak.

Orra gizonak (erran nai digu Jeremias profetak, ekusten duenaz arritzen denaren itzketarekin); Orra guk, eta munduko guziak Jesusi zor diogun amore bazterrik bagekoa! Gure zortzar andien alde dira, ta bere

Aita gugana palakatzeko Jesusen oraingo naigabe ta neke guziak!

Zein andia den, guk onetan gure Jesusi zor diogun ongi naia! Gu bezain gauza txar errebes galdu batzuekगतिक onenbat Jesusen neke-ta-neke!- Oste-gun santu gau guzian gure Jesus maitagarria bein Apostoluen oñak garbitzen, bein ta berriz, ta irurgarren aldian orazioan, otoitz luzeetan, ta odolez izerditurik!- Andik laster, soldadu gogor, ta judu gaistoen milla ukaldi ta golperen artean, ta orien beren ostikopean, soketan ta arrastan!- Urrengo eguna argitu artean batetik bestera Jesus bera, beraren etsai gais-toei gogoak ematen dien eran, ta bezala; ta Jesusi berak leku guzietan ista, ta listu, eskualdi, ille-tira, ta ezin kont-al adiña gaizki ta blasfemia!- Au guzia darاما gau artan Jesus maitagarriak guri ongi naiez. Au guzia darاما gure zorren alde, ta guri berak erakusteगतिक, ordañez guk gure Jesusen amoreakगतिक egin bear duguna, neketan gu, ta gerok nai ez bezala, arkitzen garan aldietan.

Egiten badugu guk edo ixil-ixillik, asaldatu gabe, ta gure Jesusen izenean artzen baditugu guk, guri andik edo emendik datozkigun nekeak, izain dugu guk Jesusen irabazi andietatik geren zorrak ateratzeko

diña, ta sekula guziko gloria.- Ala guk oriek artzeko,
goazen berari gaur umilki eskatzera lenagoko gure
utsen barkamentua, ta uts berririk ez egiteko grazia,
itzez ta biotzez erraten diogula: *Nere Jesukristo, etc.*

LV.garren OTOITZ-GAIA

OSTIRAL SANTUZ LENBIZIKORIK

**JESUSI GERTATUA,
TA JUDASEN URKAERA**

A.

Iltzeko sententzia bigarren aldian emanik, badaramate juduak Jesus Pilatosen eskura

Judu gogorak erne zebiltzan, bai, Jesus maitagariari lenbaitlen bere bizia kenerazi naiez. Apez-Nagusiaren etxeko Batzarrean arkitzen ziran Ostegun santu gau-erdian Jerusalemgo gañerako Apezak, Eskribak, eta gizon Zar-jakintsu-adituak; eta andik beren etxetarako berandu atera baziran ere, bigaramunean, eguna argitu orduko, bilduak arkitzen ziran berriz, beren bigarren Batzarrean, edo konzilio-eran.- An bildu orduko, erakartzen dute Jesus bere presondegitik beren aitzeñera; ta Jesus bera, bere itzetan nolerebait nastu naiez, galdetzen diote berriz ere, leneko

Batzarrean galdetu zioten gauza berbera; ta erraten diote: errazu orain ere zuk, zu zaran Kristo, edo ez.

Bazekusan, bai, Jesus maitagarriak, (eta agerki alere), nora zijoan, ta zertarako zen judu gogorren aldi artako galdetze tolestatua, ta asmo ez-zuzena; ta au berau judu berei adirazi naiez, ta beren buruei galdegin gaistoak begira zezoten, eranzun izandu zien gure Jesus maitagarriak, zenak bezala, edo bear zen eran, ta batere beratasun beldurtirik bage, erraten ziela: baietz erranagatik zuei nik, ez nazue zuek, ez, siñistuko ni: nor nazan ni nik zuei agertuko banizue ere, naiz ager nezala Eskritura santaz, ez-aditu zuek orain egiteko eran arkitzen zarazte; ta alferrik da gauz onen gainean aldi onetan nik batere zuekin jardukitzea: ala ere ez dut errateko utziko, ez, egunen batean zuei zeren urriki arrigarriarekin gogoratuko zaitzuen: Orie, bada, aditzen nazuten guziak, zuen Jaungoikoaren Seme, emen arkitzen den gizon au, Jaungoiko beraren eskoietik, (eta anitz denbora bage) jarri bearra da; andik gero nori berea emateko, edo onei emateko sekulako zerua, ta zuek bezalako gaisto, gaistorik iltzen diranei, beti-betiko sulezea.- Orra zein arrigarria zen Jesusek, beren bigarren Batzarreko judu gogorre, agertu izandu zien egia!

Baña juduak, gogortuak baño ere gogorrako egi-
ñak arkitzen Jesusen itz onak aditzeko, ta ez egin nai
oriek, egin bear zutenik! Jesus maitagarriak bertatik
ekusten gizatzar orien gogo galgarria, ta asmo amu-
rratua; ta egiak atera Jesusek oriei agertu ziezten
gauza guziak.- Oriek ez begiratzen batere beren etor-
kizunari: ta beren gogoan ez artu ere izandu oriek
Jesus maitagarriaren galbideak, eta galbideak beste-
rik, batere!- Eta orregatik, aldebat utzirik oriek; adi-
tzen ziozkaten gañerako gauza guziak, erraten diote
Jesus maitagarriari: Zuk diozunaz, zu Jaungoikoaren
Semea zara?- Eta Jesusek, ekusirik oriena, ta bere
Aitari begiratzen ziola, erantzuten die: Ni nazala dio-
zue zuek Jaungoikoaren Seme ori; ta egia diozue.

Au oriek Jesusen aotik aditzean, betetzen dira
guziak pozez ta pozez, ta erraten diote elkarri, atsegin
andiarekin; gaurgero ez dugu testigu bearrik, ez: orra
orain berak bere ezpañez agertu digu guri guk gerok
nai genuen adiña; ta orrek agertu diguna aski da, ori
guk bidaltzeko ordu gaistozko eriotz baten ortzetara.

Ekusten dezu gaur zuk judu gogorrana? Beren
Jesus onaganako tirriarekin atera naiez, ez diote
juduak begiratzen beren osasunari; ez eta beren ani-
mei ere.- Loa galduz, ta sententzia gaisto bat emanaz

badere, illerazi nai dute judu gogorak Jaungoiko-gizon obenbageko Jesus maitagarria: ta alere nai dute juduak, munduko gizon guziak siñes dezaten, beren Jaungoikoari ongi naiez dirala, ta Jaungoiko beraren kontrako blasfemiak mundutik kentzeagatik aldi one-tako, orien lan-ibillera guziak: baña guziak dira judu gogor beren irabaziagatik; edo oriei beren irabazbi-deak Jesus maitagarriaren Lege garbiarekin urra dakizten beldurragatik.

Orra zertaraño daraman bat, makur dabilen bere pasioneak, edo naikunde gaistoak! Galerazten dio gaisoari bere Jaungoiko maitagarria, edo bere Jaungoiko-aren grazia, bere Jaungoikoaren adiskidetasuna, ta azkenean bere Jaungoikoa, bera, bear den eran bizi-tzera, emain likeon zeruko gloria.

Zorionekoa zu, zuk eskuratzen badituzu zere pasione guziak; bada ordutik zuk ongi naiko diozu zere Jaungoikoari; ta zuk izain dezu, emen Jaungoiko beraren grazia, ta emendik atera ondoan, beraren zeruko gloria.

Beren bigarren Batzarrean juduak berriro Jesusen gain emanikako sentenziak ziona lenbaitlen eragin naiez, loturazi zuten Jesus bera Batzarre bereko gizo-nak, edo Konzilioko Apezak, Eskribak, eta gañerako

jendeak; eta eraman zioten, Erromako Enperadoreen izenean an Jerusalemene arkitzen zen Presidente ta Juez Pilatosi, egin zezan onek orien sentenziak ziona, edo ken zezon lenbaitlen Jesus maitagarriari bere bizia.

Baña nola ote zijoan Jesus maitagarria jendagirotan orien artean?- Otzez ikara; bere aurpegi guzia listuz zikindua, esk-ukaldiz anditua, ta ustel-idurian zeramala; ta bearbada, bere ortzetatik edo sudurretatik atera zioten odolez betea.- An zijoan Jesus maitagarria, bere buruko ille edo billo guzia naspilla bat egiñik zeramala; eskuak loturik; zenbait gizatzar galduren artean, ta, munduko gaistagiñik andiena zoaken eran.

Orra nola zijoan gure Jesus maitagarria, Jerusalemgo Konziliotik, edo, Satanasek bilderazia zirudien Batzarretik atera, ta Pilatosen peera edo eskuetara, judu gogorrak eraman zutenean!

Zer bidez ote, ta zer eratan ote zeramaten Jesus ara judu gogorrak? Eta nondik ote?- Jerusalemgo kalez kale, ta eskanbil andiarekin.

Anbat gizonen oin-soñuak, orien beren eskanbilla, eta marmariak agerreraziko zituen atarietara batzuek, eta besteak beren etxeetako leioetara; eta, itxura, edo era artan Jesus ekustearekin, galdetuko zuten guziak, zer zen ura, ta zergatik, edo nora zera-

maten, eramagiro ain itxura txarrekoan, ta zergatik, len anbat gauz andi, ta ekusteko egin izandu zituen gizon ura?

Eta nola, Jesus ala zeramatenak etzeuden Jesusen alde itz egiteko, eranzunen zuten: Milla blasfemietan, ta gauza gaistotan arkitu zutela Jesus; ta illtzeko sentenziarekin zeramatela Pilatosen eskuetara, lenbaitlen kenerazi zezon Pilatosek bere odol bizitza, ta bukara-zi zitzan gizon aren gaistakeriak; edo zerbait orrelako. Eta bidenabar Jesus maitagarriari errain ziozkatzen, nork daki zenbat itz gaisto ta baldankeri.

Orra bada, gure Jesus maitagarria, orra, zure barko gabari dagokan egunaren asiera! Ibillera ederra da, bai, goizetik gaur zuri judu gogorrak eragiten dizutena!- Nere zorrak artu zenituen zuk zere gain? Orra bada Jesus maitagarria, orra zenbat kostatzen zaizkitzun zuri nere kaleetako begiratze ariñak, eta asmo zikiñak; nere karriketako, ta plazetako ibillera likits loigalduak, eta nere atarietako, leioetako, ta barre-kanpoetako iztketa galgarri lizunak, bada oriekgatik, edo nere era orretako gaistakerien alde dira, bai, oraingo zure ibillera gogorrak, alkekizun andiak, eta neke guziak!

Isill-isillik zoaz zu gaur, nere Jesus maitagarria, ta nere bidegaberik, eta oben-kulparik ekusten ezpazenu bezain baketasun andiarekin; baña, ni gaurko zure ibillera nekagarriaz ez baliatzera, eta nere damuzko urarekin nik ez kentzera oraindañoko nere kulpen loiak, egiñen dezu zuk egunen batez nerekin judu gogorrei bart erran zeniena; jaitsiko zara zu zere zerutik ongi gogor ta zuzen, nere zor arrigarrien, edo bekatu zikiñen kontu zuzenak artzera; ta etorriko zara, kontu gaistoei dagozten neke andiak ematera.- Ez arren, ez, Jesus maitagarria!

Era izugarri onetan, bada; mill alkekizunekin, ta, nork daki zenbat, Jerusalengo ta kanpoko jende begira zegozkala (Bazkoak ziran alabaña, orduko egunak, eta anitz milla gizaki, ta andre kanpotik etorriak, an arkitzen ziran egun artan, Lege zarrak ziona egitera etorriak), eraman zuten Jesus Batzarreko edo Konzilio-ko jende andi, ta txiki guziak, Pilatosen etxera; ta an utzi zioten Jesus Pilatosi Apizpikuak edo Obispo jaunak noizbait Eliz gizon sakrilejioz ta bekatu arrigarriz beterik dagoena, Alkateen edo Juezen eskuetan utzi oi duten bezala; ta an utzi zioten utzle gogor gaisto berak berezi edo bota dioten eriotz-modua emateko.

B.

Bera bere eskuz urkatzen da Judas

Etzuen Judasek usteko, ez, Jesusen saltzeko denboran, edo Jesus judu gogorrei saltzean, zein ere gogorrek ziran juduak, juduak egiñen zutela egin zutenaren laurdenik ere Jesus maitagarriarekin. Eta, ekusi zuenean juduak Jesusekin egiten zutena, bere lan eskergabe gaistoegiaz agitz damutu zitzaion Judas saltzalle galgarriari: ta bere gaizki au, ta igual zirtzilla, edo Jesusen saltzea galerazteagatik, eta ez-egintzat geldi zedin, Judasek berak, eta judu-Apaizak eginikako diru-iguala, egin izandu zuen Judasek alegiña.

Badoa bada, igual au arekin egin zuten Apezetara. Billatzen ditu, Apez guzien artean, eskurik geiena zuten Apezak, eta errespetuzko Zarrak; eta, oriek arkitu orduko, erraten die Judasek: Ona ni emen, leneko nere makurrak zuzentzera, ta, nere uts guziak atera naiez, zuen billan etorria.- Orra non dituzuen, zeren ogeita amar diruak. Oriek artu nituen nik, Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria zuen eskuetaratzegatik. Bart nik zuen eskuetara nuen nere Jaungoiko-gizon au, baña ala gaizki, ta zorigaistoan, ta guztiz

alere; ezin egin nezaken nik, egin nuen au baño gauza gaistoagorik.- Egiñaz damutu zait geroz niri eunetan, ta milletan ta milletan ere; ta nere damu onek nakar ni gaur zuen artera, nere lan makur au emen zuzentzera.- Ori (erraten die gero Apez Nagusi berei): anitz da, ta geiegi oraingotz ere zuek Jesusi erakutsia, edo, arrerazi diozuten nekeria, edo neke salla: baña erakusten, edo arrerazten diozue zuek Jesus maitagarriari ori guzia, Jesusek orretarako biderik batere zuei ematen ez dizutela; ezin eman dezake alabaña; aïñ on-zuzen-ezinobea da Jaungoiko-gizon, Jesus maitagarria.- Itsutu ninduen ni nere diru-naiak, edo sulezeko Satanas gaisto-galgarri-madarikatuak; eta onek eragin zidan niri, nik ezin negiken, lan gaisto au, edo nik zuei Jesus saltzea; ta badakizue zuek, gizon jakintsuak bezala, ez dutela balio tratu-kontratu, ta saltz-eroste makur-gaistoak.

Egizue bada bertatik kontu, Apez jaunak, ez nizuela nik saldu Jesus maitagarria, etzenidatela erosi zuek, guk geren igual errebes makur au egin genuenean.- Ona, nik arturikako dirua; ta betor Pilatosen eskuetan zuek utzi dezuten Jesus maitagarria.- A Judas, Judas! sasi gaistoan sarturik arkitzen zaran Judas! Anitz, eta andi-zorrotzak dira, or zu urratzen zaituzten elorriak!

Beldur naiz ni gaur, etzatala ortik aterak zu bakarrik bazabiltza beintzat, eta baldin bazabiltza, zabiltzan aldetik edo eran.

Errazu zuk orain, Judas; ta etzen agitz ohea, Jesusek bart zuri, zuen afaritakoan, ta gero zere oñak zuri Jesusek berak garbitzean arrerazi nai zizun era ta bidea?

Era ta bide au ordutik zuk artzera, damutuko zekitzun zuri, zuk ordurañokoan Jesusen gain zenekazkien asmo galduez: geldituko ziñan zu gau artan, ta gerozko denboretan Jesus maitagarriarekin, ta Jesusen Apostolu, zere lagun onekin: etzenuen zuk egiñen, egin dituzun txarkerietatik bat ere; etziñan zu gaur arkituko, arkitzen zaran kezketan ta estutasunean; ta etziñan arkituko orrenbat naigaberekin, ez eta, arkitzen zaran tranzean ere.

Au berau erraten dizu zuri ere, bekatari txar Judasen laguna, gure Jaungoiko maitagarriak. Etzenituen izain zuk ere, ez, izandu dituzun adiña naigabe, alkekizun, arazo gaisto, ta kezka, aditu izandu bazenitu zuk zere Jaungoikoaren anbat barrengo dei mee, libruen itz on, edo Predikarien oju.

Baña egin zenuen zuk ere Judasena, edo ez-aditu; ta egin zenuen zuk denbora berean, gogoak eman oi

zizuna, edo zere bekatuz Jesus saltzea, ta zere pasio-
ne galgarriei Jesus arreraztea.- Eta orain? Kezka ta
naigabea zere barren zirtzill dollorrean! Alkea ta lotsa
orain zuk, zere gaizki egiñak, eta bekatu lizunak kon-
fesatzeko, ta ez jakin zuk orain, kenduko dituzun edo
ez denbora datozenetan, orain zu zulatzen ta urratzen
zaituzten, zere bekatu zikiñen aranzak eta elorri oña-
zetiak!- Kentzen badituzuzuk bein zeregandik oriek,
ez arren berriz zu orietara: ta, oriek orain zuk kentze-
ko, ez artu, ez, arren Judasen bideak.

Judasen aldi onetarako eginak guziak, etzuten
deus egin izandu, Apez-nagusiak eta judu gogorrak
beratzeko.- Judasek oriei erran zienean, gaistoa zela,
ta ez-zuzena, ark oriekin, oriei Jesus saltzearen gain
eginikako igual-txarra ta ajustea; ta gaizki ta bekatuz
saldu ziela on, zuzen, edo justo baten odola, edo
Gizon-Jaungoiko Jesus maitagarriarena: Or-konpon, ta
guri zer zaiguk, eranzun zioten, otz-otzean Apez
juduak: *quid ad nos? tu videris.*

A, gogortzar arrituak zuek, israeldar Apezak! Zer
zaitzuen zuei Judasek Jesus zuei gaizki saltzeaz? Ongi
erosten dezue zuek, zuei gaizki saltzen zaitzutena?
Eta zillegi da, obenduntzat zuek erosten dezuten
obenbageko Jaungoiko-gizon bat, eun milla nekerekin

urratu zuek bein, ta gero zuek zerok nai dezuten eran, ta ezin gaizkiago bukaratzea?

Baña alferrik da: pasionez dabiltzan gizonak ez dute aditu naiko, aditu bear dutenik; eta biotzez beintzat, errain dute: Nai duena dagiela nigatik nere Jesus maitagarriak, nere gogoak niri ematen didana nik egin artean: ta ori bera da beren aldarte onetan juduak Judasi adirazi ziotena.

Au orien aotik aditzen duenean Judas gizajoak; eta ekusirik, denbora berean, ekusi zuen bezala, etzuela judu gogorak utzi nai libre Jesus maitagarria, ez eta artu nai ere oriek Judasi Jesus saltzeagatik eman izandu zioten diru zatia, artu au, ta tiratzen die eliza berean, berak zeuden tokira, badoa andik naigabez, illuntasunez, ta tristuraz betea. Nora, uste dezu? Satanasek nai zuen tokira, edo urkabera.

Len eragin ziozkan Satanasek amurratuak, ekusi ditugun adiña gauza gaisto; ta guzien ondoren eragiten dio au ere.- Bere buru txar galduan sartu zion orduko Satanasek Judasi, andiegia zela Jesus saltzearekin eginik zedukan bekatua, ark bere bekatuaren barkamentua bere Jaunagandik erdisteko. Sartu zion bere buru berean, gizonak ere begitan emain ziotela, bizi zen artean, aldi artako bera gaizkiarekin, ta obe

zela bere burua lenbaitlen berak, bere eskuz bazen ere, iltzea.- Asmo txar galdu onekin artzen du soka bat bere lepotik, lotzen du soka muturra, an arkitzan duen zur baten adarrera, ta gelditzen da illotz urkatua; anditzen da andik laster, den guzia, ta lerturik gero, erortzen zaizka bere errai ta barren guziak.- Orra Judas diru-zale gaisto saltzallearen bukaera! Orra zertara den azkenerako Jesusen amabi Apostoluetatik bata! Orra Satanasek gizon bati, au bein ark bere eskuratzerara, eragin dezokena!

Nor ez da bada beldurtuko, ta nor ez da ikara beti ibilliko, mundu onetan arkitzen den artean? Etsai gaisto amurratuz ingurutuak gabiltza gu, emen garaño. Bide gaistoak eta gaistoak dira, edozein tokitan emen agertzen diran bideak. Gerez gu geren gaztetasunetik gaitz aldera agitz makurtuak gaude; ta gaitzez gaitz ibilli gara gu, guk gerok dakigun adiña denboraz.- Eta ez ote gabiltza era berean gu gerozko denboretan ere?

A nere Jesus maitagarria, nik badakit, bai, Judas bat egiñik bizitu nazala ni, bekatuz bekatu, ta gaizkiz gaizki ibilli nazan denbora guzi-guzian; ta denbora berean badakit, bai, saldu zaitudala nik zu, Judasek baño ere agitz gutiagoan; bada saldu izandu zaitut nik

nerre atsegin txar-loi-zikin batean, edo era bereka beste edozein zirzilkeritan!- Jabetu ote da Satanas nitaz ere, Judasez bezala? Egin bear ote ditut nik, emendik aitzina, nere aztura gaistoak eskatzen dituzten gauza galduak, edo Satanasek nigandik nai dituen erakeriak?- Betetzen, ta betetzen ariko naz ni beti nere bekatuen neurria? Galdu bear ote dut nik ere, Judas galgarriaren eran, nere zerurako ustea, urkatze-ko gero nik ere nere burua, edo emen Judasen eran, edo gero sulezean, ango guziak niri begira dagozkidala, ta istaz ta irriz?

Ez arren, Jesus maitagarria, ez! Artu nazazu ni zuk zere aldamenean, ta lagun zakizkit niri, nere etsai galgarri gaistoak garaitzen.- Nik egin uste dudana gaurgero da, zuk nigandik nai dezuna; ta egin uste dut au, zuk zerorrek nai dezun eran. Lenagotik nik au ez eginaz ongi damuturk arkitzen naz ni, ta, ori nik egin bagez, egin ditudan uts egite guzien barkamentu eske. Ez ukatu au zuk niri, nere Jesus maitagarria: ez arren, ez!

Manifestari nomen tuum homininibus.

Joann. 17. 6.

Lurreko bere bizitzaren azken aldean, agertu zituen bein gure Jesus maitagarriak anitz gauz andi gorde, mundu guziko gizonen on andi baterako ziranak, eta, oriek guri guztiz ederki agertu ondoan, asitzen Jesus bera, bere buru-begiak bere Aitagana goititurik, otoitz garbi-zuzen eme-ezinobe bat berari egiten; ta, eskatzen ziozkan gauzak eman zetzazkon, agertu ziozkan Jesusek bere Aita berari, beraren amorez Jesusek berak eginikako gauzak; eta, bertzeen artean, banatu zuela edo agertu munduan Aita beraren berria, ta izate andi bazter-bagekoa.

Au berau erran dezoke Aita berari Jesusek gaur ere: Bai, Aita (erran dezake gaur Jesusek, aldi artan bezain ederki, ta garbiro): bai, Aita nerea, bai: agertu diet nik lurreko gizonei nor zaran zu; baita ni nerau nor nazan ere; ta agertu diet nik au bein, ta berriz ere; eta agertu diet nik oriei au, ongi nekiela nere agertze ontatik zetorkidana; edo agertu diet nik au nekiela, nik au oriei agertzetik artuko zutela nere etsai galgarriak ni galerazteko bidea.

Banakien nik orduan au, bai; baita zuri zere izatearen, ta zarantasunaren alde zor zaitzun errespetua ere: ta, zure errespetuan ez uts egin naiez, agertu dut

nik, gaur au guzia. Eta ona non orregatik oriek utzi nauten ni, iltzeko sententzia guztiz gogorrarekin!- Baña pozik emain dut nik nere bizi au zure izen santuan, zuri zor zaitzuna zuzen egiteagatik, eta gal ez ditezen, zuk niri emanikako gizonak.

Amorearen arrigarria! Jesusek bere Aitari nai diona! Eta Jesusen beraren guganako ongi naia! Bada bere Aita maitagarriaren amoreakgatik, eta guri ongi naiez, ta bidenabar guri geiago baño geiago bere Aita bera maitarazteagatik, ez dio Jesusek bere buruari batere begirutzen; ta bere bizi-odol ondraz uzten ditugure Jesus maitagarriak beraren eskuetan!

Eskerrak zuri gure Jesus maitagarria, ta milletan, ta milletan eskerrak zuri onenbat zure ontart-aldi, ta fabore ondasundunagaktik.- Ez dakit zer egiñen nuke nik, nere Jesus maitagarria, nolerebait nik zure bazterrik bageko amore eder oni erantzuteagatik! Maitatu nai zinduzket nik bizi nazaño, guztiz biziro, ta alik eta zinkiena. Eman bear didazu zuk orretarako, bear den laguntza ta grazi guzia. Bai, Jesus maitea; bai aireo, bai!

*Non enim misit Deus Filium suum in mundum,
ut judicet mundum,
sed ut salvetur mundus per ipsum.*

Joan. 3. 17.

Ezagun da, bai, gure Jesus maitagarria, egia dela san Juan Ebanjelariak diona, erraten digunean: etzara-la zu gizon egiñik, etorri giz-artera, orain gizonen kontuak artzera!

Gizon galduak, edo judu gogorak zu galdu naiez dabilta: ta gaizki baño ere agitz gaizkiago, zu galera-zi naiez, Pilatos, juez jentilaren eskura zaramazte oriek zu; ta aren eskura zaramazte zu, eriotzeko bi sententzia gogor zure gain berak eman ezkeru; ta isillik zaude zu, alere, ta itz bat zere alde ateratzen ez dezula!

Orrela zarabilzten judu gogorren, ta gañerako gizon guzien onerako, etorria zara zu, gure Jesus maitagarria; ta orien beren ta gure guzien on au billatzen dezu zuk, oriek zuri egiten dizuten bide galgarri berez, edo oriek eman nai dizuten eriotzarekin!- Au onela den ezkeru, (den bezala), nere Jesus maitagarria, egizu zuk deritzazuna, ta zure Aita eternoak nai duena. Nik badakit orain, bai, nere bekatu galgarriak

dirala, era txar nekagarri orretan zu zarabilztenak!
Nere bekatu galgarriakgatik da, zuri juduak eman
dizuten iltzeko sententzia! Nere bekatu galgarriak
zaramazte zu batzarrez batzarre, ta juduen esku
gogorrez, Pilatosen eskuetara; ta nere bekatuak berak
dira, zuri eragin bear dizkitzutenak, zere bizia kendu
artean, zuk dakizun adiña jorrada, ta ibillera latz.

Besterik ezin dagiket orain nik, nere Jesus onegia;
egiñen dut dagikedana: ibilliko naz ni gogoz ta damuz
zure ondoren; ta zure ibillera umil, mindurarik ez duen
ta beazun-bagekotik ikasiko dut nik, nola umilki, ta
bear den eran artzen diran, egiten dizkiguten bidega-
beak, eta txarkeri guziak.- Ala nik guziak artzeko; ta
guzi-guziak ar ditzadan nik, leneko nere utsen alde, ta
zuk orain, guri ongi naiez daramazun neke arrigarria-
ren izenean, indazu zuk, nere Jesus maitagarria, zere
laguntza ta grazia: bai arren, bai!

*Si autem impius egerit poenitentiam
ab omnibus peccatis suis...
et custodierit omnia praecepta mea..
vita vivet, et non morietur.*

Ezech. 18. 21.

A Judas, Judas, len, ta gero Satanasek itsutu zaituen, gizon zorigaistoan jaioa!- Itsutu zinduen len zu Satanasek, juduei Jesus ezer-ez batean salerazteko; ta itsuturik iduki zaitu zu gerozko zere denbora guzian, orien eskuetan ori zuk loturik utzi artean.- Geroz utzi dizu zuri Satanas berak, zuk nai bezain ongi ekusten zere lan itsusi maradikatu au; baña kendu dizu zuri zere begietatik lan gaisto au urratzeko bidea; ta zere bekatuaren itsustasunarekin arritu zaitu zu ezin geia-goraño Satanas amurratuak; eta kendu dizu, zere gaistakeriaren barkamentua erdits dezakezulako uste guzia; ta eraman zaitu zu, zere eskuz zuk zere burua urkatzera; ta gelditu zara zu zere sokaz itorik urka-bean: ta gelditu zara anditurik zaran guzia, ta lerturik, zere barren guzia ta erraiak darizkitzula!

Atozea zu Judas; ta etzenekien zuk zein ongille beratxa den gure Jesus maitagarria! Etzenekien zuk zein aisa ta zein laster barkatzen zituen Jesusek, beren gaizkien damaturik geldizen ziranen bekatu guziak? Etzenekien zuk gaistagin beren gaizki guziak barkatu naiez, bera ibilli oi zela gaistagin beren billan, ta ondoren; ta bere gaizkien barkamentua nai zuen gaistagin, edo bekatari bat arkitu orduko, barkatzen

ziozkala bere oben-kulpa guziak; eta Jesusen aldi orietako itzik gogorrena izan oi zela; *ea, zoaz; ez berriz orrelalorik?*- Zergatik bada etziñan urbildu zu Jesus beragana, barka zitzan Jesusek zureak ere, beste bekatarien zorrak, edo bekatuak barkatu oi zituen eran? bada jakin zenezakean zuk, barkatuko zizkiztuzula guziak, guzien barkamentua umilki zuk berari eskatu orduko?

Eta lotsatzen, edo alketzen bazinduen zu, zuk orretarako Jesusen begietan agertu bearrak, zergatik etzenuen billatu zuk Jesus beraren Ama maitagarria, erditsi zezan onek bere Seme onagandik, zuk billatzen zenuen zere obenen barkamentua?- Pozik egiñen zuen, bai, lan au zure onerako, ta utziko zinduen damuz, ta atsegin-kontentuz betea Jesusen Ama maitagarriak, zuk ura billatu, ta au ari eskatu ezker.- Baña itsutu zinduen zu Satanasek, bide onelakorik ez ekusteko; ta itsu-itsuan bezala eragin zizun zuri zere lan madarikatu au; ta au zuri ark eragin orduko, ondatu zaitu zu berekin batean Satanasek bere sulezean.

Eta eragiñen ote dit niri ere Satanas gaistoak, era bereko lan galgarrien bat? Lotuko ote dit niri alkez ta lotsaz Satanasek nere mii au, nere bekatu zikiñak nik ez konfesatzeko? Gogortuko ote dit niri nere biotz au,

nere asmo galduak ez uzteko nik bein ere, bizi naza-
ño? Ibilli bear ote dut nik nere ill artean bekatuz beka-
tu, ta gaizkiz gaizki, era orretan galtzeko nik nere
Jaungoikoak barkatuko didalako ustea ta esperantza?—
Ez baldinbere! Anitz dira, bai, badakit nik, nere orain-
dañoako gaizkiak, eta oben-kulpak; baña nere gaizki
guziez ongi damaturik arkitzen naz ni gaur; ta arkitzen
naz bein ere berriz gaizki berririk ez egiteko asmoan:
ta oraingo nere asmo on onek diona egin ezkerro, ez
naz ni berriz bekatuz illen bein ere: biziko naz ni zeru-
ko graziaren bizitzan; ta gero beti-ta-beti zeru berean.
Ori guzila da orain nik nai dudana; ta, nai dudalako
siñutan, ziñez erratera noa, ta biotz oso-osoarekin:
Nere Jesukristo Jauna, etc.

LVI.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN JUEZEAZ JUEZEAZKO

IBILLERA ALKEGARRIA

A.

Ekusirik Pilatosek juduak ziotena, igortzen du Jesus Herodes gaistoagana

Jesus preso zeramaten Apez jaunak gelditu ziran Pilatosen etxeko ateetan, edo atarian; ta sarrerazi zuten Jesus, Pilatos jueza jarririk zegoen lekura.- Sartu zen ara Jesus, ta gelditu zen an zutik, eta zijoan eran, edo loturik, eta gaistagin arrigarri bat bailiz bezala.- Zein ere nekatua, ukaldikatua, edo golpatua, ta zikin-dua zijoan Jesus, Jaungoiko-gizona zen Jesus maitagarria; ta an zegoen Pilatos juezaren atzin artan, Jesusi berari, zegokan bezala, edo bere begietan ta bere egoera guzian adirazten zuela, Etzuela obenik batere, ta biderik gabe zekartela judu gogor galduak, zekarten eran.

Au ekusi, ta ezagutu orduko, ateratzen da Pilatos bere leiora, edo Apezak eta gañerako jendagiro gais-toak zeuden, aldeko balkoien batera; ta oriei ark begi-ratu orduko, ekusten ditu guziak, edo geienak beintzat, Jesus ez bezala, edo bekoki illunekin, asaldatuak, eta erdi sutuak; era onetan ere ezaguntzen du berriro Jesusen oben-gabea ta inozentzia.

Baña bere lan au juduak nai zuten eran, edo, bear bezala egiten asteko, erraten die guziei: Ongi, jendeak; eta zer diozue zuek, emen preso dakartzuen gizon onen gain? Zer gertatu da Jerusalemgo erri andi onetan gizon onekin, edo zer gauz arrigarri egin du onek, zuek au Pazkoz, onen goizik, eta zerok orrenbat Apezek, gizon andik eta jakintsuk, loturik eta gis onetan onara ekartzeko? *Quam accusationem affertis adversus hominem hunc?*

Ezagutu zuten an bertan, edo bere-bereala judu gogorak, Pilatosen galdera onek adirazten ziena (adirazten zien pasione ta Jesus galdu-nai geiegi erakusten zutela, zuzen ibiltzeko): ta gelditu ziran ongi min-duak; eta, sutuen eran, erantzun zioten Pilatos Juez gald-egilleari: Den bezain gaistagin andia ori ez izate-ra, ez giñan gu, ez, emen agertuko gaur zure begie-tan, ta ekarriko ez genizun guk, ez, dakargun egu-

nean, dakargun orduz, ta dakargun eran.- Arki diteken gaistaginik andiena da, guk gaur ekarri dizugun giza-giro ori, ta orregatik dakargu gaur, adin onetan, ta datorren bezala, ill-erazi dezazun zuk bertan, ta trikatu edo bat ere luzatu gabe.

Egiaz, Apez jaunak? Orren gaistagin andia da gure Jesus maitagarria? Guk dakiguna, ta zuek zerok ere ezin uka dezakezuten gauza da, Jesusek askotan eman diela eriei osasuna, gorrei adiera, itsuei ekustea, mutuei izketa, ta illei bizitza; ta ez dugu aditu guk bein ere, Jesusek bati ere egiñikako gaizkitxo, edo bidegabetsu bakar-bakar bat ere; ez eta zuek ere; bada zuek zerok, egun goizeko, ta barko zeren Batzarreetan egin dezue alegiñik asko, bat badere ager-erazteko; ta etzaitzue agertu zuei, erdi baten agertzal-lerik ere: ta era orretako gauzarik ezin arkituz, egin dituzue zuek zeren salsak, eta eman dezue zuek Jesusen gain bein, ta berriz zeren bidebageko sententzia.- A langille gaistoak zuek, judu gogorak! Beste sus-traiezkoa da, bai zuen gain, zuen Jesus onaganako gorrotu andi, ta sentenzi makurratik, erortzeko dagoen azken-sententzia!- Eta nork gorde zuek, au emateko dagoen Jaungoiko altsu zuzenaren esku

indartsu nekatzalleetatik? Eta nork ni, baldin banabill ni ere zuen eran, ta gaizkiz gaizkiz?

Baña orren gaistoa, bada gizon au, erraten die Judu gogorrei Pilatosek, zergatik ez dezue zuek zerok illerazi; edo zertara dakartzue zuek nere eskuetara?—Nai badezue zuek, dagidan nik gaur, gaur nik ongi deritzadana, errazue zuek gizon onen gain errateko dezutena; bada nik ezin dagiket deus ere, zuena bein, ta gero berarena ongi-ongi aditu artean.

Jauna, eranzuten diote judu gogorrek Pilatosi, gizatzar gaistagin orrek erakusten ditu dotrina gaistoa; orrek eragozten du geren Erregeari, edo Romako Enperadoreari guk ematea, oni gugandik dagokan, edo guk oni zor diogun tributua; ta azkenean egin da bera gure errege, edo artu du erregeren, ez dagokan, izena.

Sartzen da onekin, edo au aditu orduko, Pilatos, gure Jesus maitagarria arkitzen zen tokira edo gelara: egiten diozka Jesus maitagarriari bere galde-moduak; eta ekusten du, gezurra dela juduak dioten guzi-guzia.

Artzen du gero berekin Jesus bera Pilatosek; eta ateratzen du judu gogorrek ekus dezaken leiora, edo lekura; ta erraten die juduei: Zertako, jaunak orrenbat joan-etorri, arazo, gezur, ta naspilla? Nik ez dut one-

gan, edo onen baitan, arkitzen zuek daraustazuten gauzetatik batere. *Ego nullam in eo invenio eausam.* Aditu dut nik, bai, zuek diozuen: aditu dut nik onek erantzuten duena; ta ez dut nik funtsik, edo pitsik arkitzen, gizon oni gaitzik egiteko.

Orra non, Jesusen umeak, orra non azkeneko agertu oi den egia. Ez da, ez, zer zuek atsekabetu, zuek zeren gauzak ongi egiñik ere asmatzen badizute, zuekin dabiltzanak, ez den zer edo zer. Etzaitzue orretan, ez, zuei gertatuko, gure Jesus maitagarriari aldi onetan gertatu gabeko gauzarik.

Gertatzen zaitzuenean, era bereko zerbait zuei ere, egizue orduan zuek, aldi onetan Jesusek, egin izandu zuena. Eramazue zuek ixill-ixilltxorik, eta zeren Jaunaren izenean, ordu artako zeren naigabea; eta zuen Jaungoikoak len edo gero agertuko du dena, den bezala; ta agertzen ezpadu beste munduraño, zuen onagatik izain da, egiaren emengo gordetzea; ta izain da, ondra ta gloria geiago zuei gero zeren Jaungoikoak eman naiez.

Zer? (erraten dute judu gogorak, Pilatosen itzke-ta zuzen au aditu orduko) Zer? Ez duela gizon orrek iligairik bat ere? Eta, Galileatik asi, ta Judako azken bazterreraño, nastuak daduzka alde guziak bere erausie-

kin baita gure Erri-Jerusalen au ere: *Commovet populum, docens per universam Judaeam, incipiens a Galilea usque huc.*

Eta, au erran ondoan, beren oin, marmarria, ta furrustadatzar latzekin bazterrak urratu bear zituztela zirudien judu gogorrak.

Beldurtu bide zen Pilatos, onenbat oju, onenbat ezinegon, ta onenbat judu gogorren eskanbil ekusi izandu zuenean; ta Jesusen prediku kontua, ta Galilea aditu zuenean, galdegin zuen Pilatosek galiletarra zen, edo nongoa, gure Jesus maitagarria? ta, ikasi zuen galileatarra zela, ta Herodes pekoa. Denbora berean Jerusalemene arkitzen zen Herodes au; ta, bururik ez autsi naiez judu gogorrekin, ta obenbageko bat ez galerazteagatik, asmatu zuen Pilatosek, Jesusen Juez Herodes egitea; ta igorri zion Jesus bera Herodes berari, ekus zezan ark, bere orde, Jesus onarekin egin zitekena.

B

**Herodesen etxera daramate
Jesus alkekizun andiarekin;
ta andik berriz**

Pilatosen eskuetara, agitz andiagoarekin

Ateratzen dute juduak Jesus Pilatosen etxetik, an sarturazi zuten eran, edo eskuak loturik; eta gizatzen zenbaitek itsasten ziotela.- Zenbat, eta geiago zebillen Jesus, anbat arkitzen zen nekatuagoa, ta flakia geiagorekin: ta, Pilatosen etxean sartu zenean ere baño indar gutiagorekin arkitzen zen Jesus, eta kolore agitz galduagoarekin, andik atera zenean.

Ateratzen da, bada, Jesus Pilatos-enetik, al duen bezala, ta beraren etsai gogorak nai duten eran: ordukotz aitzina zijoan goiza. Jerusalendarrak jaikiak arkituko ziran garai edo adiuntz artarako; jakinen zuten leneko arratsetik ordurañoko denbora guzian Jesusi gertaturikakoa: ta, aditu zutenean nora zijoan Jesus, jendez beteko ziran Pilatosenetik Herodesen etxerañoko kaleak, eta leio guziak.

Onenbat jenderen begi artean igaro zen Jesus, bat dabilken erarik alkegarrienean. Adituko zuen batzuetan Jesus maitagarriak, edo leioetatik, edo bera zebillen karrika beretan: Ta zer? au da Lege berri bat banatzen zebillen gizon ura? Ona bide zen zekarren Legea, gis-onetan bera dakartenean!- Adituko zuen

gero: zer egin dira gizon onen indarrak, eta esku mirakullugilleak? Illak ere bizten zituela zioten len gizon onek; eta orra non daramaten loturik preso, ta ill bat eraman oi den bezain aisa.- Emen adituko zuen Jesussek bat bere lagunei erraten: Orra, orra zertan gelditu den zuen predikaritzar andi au! Zabilzte, bai, zabilzte orren ondoren, oraindañokoan ibilli zarazten bezala; ta ekusiko dezue zein ondratuak gelditzen zarazten ori, ta zuek guziok!

An errain zion norbaitek Jesus nekatu-maitagarriari berari: A giza-gaisoa; lan onetan sarturik ekusten dezu zuk gaur zere burua, ta bide zuzenak daramazkitzu zuk, bukaera onak izateko.- Eta etziran noski faltako, ez, blasfemiaz ta izketa gaistoz bere bearriak Jesusi aldi artan ongi beteko ziozten gizatzarrak ere.

Eta nola ote zebillen gure Jesus maitagarria, onenbat eskanbillen, ta bidegaberen artean?- Zena bezala; edo ixill-ixillik, eta bere adiera gogor au, ta bideko bere neke guziak bere Aita eternoaren izenean, ta gure onerako zeramazkiela.

A nere Jesus, milletan ta milletan maitagarria; ta nik zuri zor dizudan ontartea ta faborea! Noiz oni erantzun nik, nola-ere-bait bada ere!

Jesus ara bitartean, billatuko zuten Herodes Apez andiak, gizon jakintusuak, eta Jesusen etsai guziak.- Bazekiten oriek, bai, nor zen Herodes, ta nola zebillen Herodes orien beren errege izan naiez; ta usteko zuten, oriei atsegin egiteagatik, aisa illeraziko zuela Jesus Herodesek; bada, anitz denbora etzela, dantzari txar neskatx bati atsegin egiteagatik, illerazi zuen Jesusen bidegille on S. Juan Bautista.

Uste onekin errain zioten judu gogorrak Herodesi nola igortzen zion Pilatosek Jesus, ta zertarako: ta errain ziozkaten bidenabar nork daki zenbat gauza ta gezur Jesusen gain, edo Jesusen kontra.

Sartzen dute judu gogorrak Jesus Herodesen gelara. Etzen atsekabetu, ez, Herodes tzarra Jesus an, bere gelan ta bere begietan, ekustez; bada denbora zen Jesus ekusi-nai andiarekin arkitzen zela Herodes errege au.- Zergatik, uste dezu?- Zeren aditzea zuen Herodes onek, egiten zituela Jesusek anitz gauz arri-garri ta milagro; ta ekusi nai zuen orietatik bat, edo beste.

Abiatzen zaio Jesusi Herodes bereongiotorriekin, ta Jesusekin izketa andi-luzeak nai zitukenaren eran.- Baña bazekien Jesusek Herodesen gogoko berria. Bazekien zein gizon gaisto-zikiña zen Herodes errege

au; baita Herodesek bere anaiaren bizi-kidearekin, edo emaztearekin zekarren bizitza loi galdua ere; ta etzion Jesusek itz bat erantzun Herodesi, ez ta begiratu ere.

Orduan an arkitzen ziran Apez nagusiak, Eskribak, eta Jesusen etsai guziak ekusten zuten au guzia; ta, ekusi zutenean Jesusek an artu zuen berariazko mututasuna ta ixilera, beldurtu ziran guziak utz zezan bizerik Herodesek gure Jesus maitagarria; ta abiatu ziran Jesusen gain, edo kontra, erausi-ta-erausi, ta ixiltzen etzirala.- Egia da, etziela begiratze andirik egin izandu Herodesek orien erausi guziei; ez eta Herodesen jendeak eta Zaldunak ere; bada azkenean Herodesek eta bere Zaldunak egin izandu zutena izandu zen, soñeko zuriz Jesus maitagarria jauntz-eraztea, soñeko-era onekin juduei ta Pilatosi adirazteko bezala, Jesus maitagarria, obenik ezin zuken, ta adimentu laburrezko gizonen bat bide zela, edo gizon eroa zela Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria. Eta era orretan jauntzirik itzuli zuen Jesus Herodesek erromatier Pilatos beraren eskuetara; ta beren artu eman onetan adiskidetu ziran, edo bat egiñik gelditu ziran, len ase-re zebiltzan Pilatos ta Herodes.

Nornai arritzekoa den gauza, aldi onetan Jesusek daraman alkekizuna! Jesus izaki, dakigun bezala, Aita eternoaren Jakiundea, ta gauza guziak dakizkien Jaungoiko-gizona; ta eroa dela Herodesek, eta Herodesen jende ta Zaldun guziak! Eta, berak au asmatzea, ta erratea deus ez bat bailiz bezala, eroz jauntzirik Jesus Jerusalengo kaleetan, jerusalendar guziak erotzat artu dezaten Jesus jakintsu guztiz maitagarria!- Orra zein andia Jesusek guri digun amorea! Bere amore onek Jesusi eragiten derozkan gauzak erakeriak dira, amore andi onen berririk ez dutenentzat.

Eta neretzat zer ote dira Jesus maitariaren gauzak berak?- Ezer-ez bat adiña; edo beintzat ez anitz geiagogo; bada geiagotan baneduzka nik nere Jesusen gauzak, egiñen nituke nik, oriei erantzuteko, egiten ez ditudan anitz gauza ta lan.- Guziagatik ere, atziña daramatzi Jesusek bere amorearen egitekoak, eta ez da geldituko Jesus, ez, bere gauza guziak egin artean, naiz izan ditezela gañerako gizon guziak Jesus beraren, ni bezain maitatzalle txarrak.

Ordu gaistoan bezala, bota zuen bere begietatik Jesus maitagarria Herodesek; eta loturik, ekarri zuten bezala, eraman zuten berriro judu gogorak kalez kale Pilatosenitxera.- Len itxura txarrean Jesus ekusi zute-

nak, orain itxura agitz txarragoan bera ekusten zute-
nean, zer ote zioten? Len ziotena noski, ta anitz geia-
go.

Eta zer ote zion Jesus maitagarriak, ori orien aotik
aditzen zuenean?- Gure bekatuei zegoten alkekizuna
zela, berak bere biotzean zeraman naigabe guzia: ta
pozik zeramala guzia gure onagatik, eta guk alkerik
ekus ez genezan Jesus beraren begietan, gu mundutik
atera ondoan, ta azken egunean.

Eta zer ote diozu zuk, bekatari txar eskergabea?
Etzaitzu zuri lots andiz, ta alkekitzun izugarriz, estal-
tzen zere arpegia? Zugatik alkez ta lotsaz betea gure
Jesus, ta denbora berean eroaren soñekoz jauntzia; ta
alere zu alkerik gabe, ta ero baten lanetan, edo alke-
kizuna alkekizunen gain ematen diozula zuk Jesus
berari zere bizitza makur galduarekin?- Lotsaturik,
edo alketurik Jesus, zuri ongi naiez kalez kale, ta etxez
etxe; ta zu etxez etxe ta kalez kale Jesus maitagarria-
ren alkekizunerako onak diran gauzak egiten! Zu zer-
tan gelditu bearra ote zara, gelditzen ezpadituzu zuk
zere lotsagabekeriak eta ibillera makurrak?

Ez onetan, Jesus maitagarria, ez! Ori ezagutzen
dezu zuk, bekatari txarra; ta alere uzten ez dituzu zuk
zere lotsagabekeriak eta pausu gaistoak? Eta alere

bizi nai dezu zuk eroaren eran, ta zere buruaren galgarri egiñik!- Ori da, bai; nere Jesus maitagarria, oraindañokoan nik zugatik egin izandu dudana! Baña, ezaguturik orain nik nere gaur arteko ibillera makur-
ren eskergabetasuna; ta, ezaguturik bidenabar zuri nik nere bidegabea arrerazi dizkitzudan alkekizun illun gogorak, ongi damuturik arkitzen naz gaur, ta begitan guztiz artuak daduzkadala oraindañoko nere erakeriak; eta denbora berean arkitzen naz ni, oriek guziak uzteko, ta bizi modu berri on bat artzeko asmoan; ta negarrez, ta ziñezko urrikiz zuri zere nekeak gaur aleginean arindu-nai guztiz andiarekin.- Iraun balezate, nere ill arteko denboran, oraingo nere asmoak! Ala gerta dedilla gure Jesus maitagarria; bai arren. bai!

*Ego autem constitutus sum Rex
ab eo super Sion montem sanctum ejus:
praedicans praeceptum ejus.*

Ps. 2. 6.

Nere umeak, erraten digu guri gure Jesus maitagarriak; nere umeak, Errege naz ni, bai; baña ez naz ni,

ez, Errege, munduko erregeen erara. Orien eskanbillak, orien soldadeskak, orien gerrak, diruak, eta gañerako orien gauzak ez dute nerekin zer-ekusi, nere etsai judu gogorak nai dutena erran arren nere Erregetasunaren gain, edo kontra.- Errege naz ni, bai, nere umeak; baña biotzen Errege, Elizako jendeak, bataiatuak arkitzen diran umillak, dira nere Erresumaren edo nere Erreinuko ondasunak, soldaduak, eta gauza guziak. Orien beren Errege naz ni; ta nere nai andiarekin alaere. Oriei erakasten diet nik, eta pozik alere, nere Erreinuko Legea, ta Zerubidea.

Bide on zuzen onez ongi nekatzen diranak dira nere soldadu maiteak. Oriek guziak, nere ondoren dabilta beren gurutzearekin, edo beren aztura gais-toak garaituz, pasione sutuak eskuratzen dituztela, ta beren anitz ilduraren ta nere izenean arturikako nekeren artean.- Nai dezu izan zuk ere, nere soldadu maite orietatik bat? Ori bada: birtutezko peleak dira nere gerra guziak. Bere umillerak, bere alkekizunak, bere bidegabeak, eta gaistoen eskuetatik erortzen zaizkan bere txarkeriak emekiena eramaten dituen da nere soldadurik onena.- Berak eginala baizik, ez diot eskatzen batiere nik. Egiten duen guzi-guzian laguntzen diot nik nere soldaduetatik edozeini, izan dedilla au

errumes beartsua, edo aberats ondasunduna.- Ongi egiten baditu nere soldadu batek bere gauzak, iltzen denean au, nerekin daramat nik nere zeruko Erresumara, ango nere glorian, nere senide ona bezala, Printzipe izatera. Orra nere soldadu onen pagua. Nai dezu au zuk, edo ez?

A, Jauna! baietz errain dut nik, len askotan bezala; baña beldur naz ni, izan nadin emendik aitzina, oraindañokoan bezain minbera, ta izukorra edo beldurtia; ta utziko zaitudala nik zu bearren-bearren den denboran; edo, nere gogoari atsegin egiteagatik, ez natzaie-la gogortuko ni, nere aragiari, aragi au gaitzera makurzen denean; sulezekoari, gaitz bideren bat onek niri agertzen didanean, edo nere lagun gaistoei, gauz onetatik ater-erazi ni, ta mukur-gaistoetara oriek eraman nai nautenean!

Au gerta ez dakidan niri oraindañokoan bezela, sendortu nazazu zuk, nere Jesus maitagarria, zere graziarekin; ta pozik izain naz ni gerozkoan zure soldadu umill on, gogorretatik. Bai arren, Jesus maitea, bai!

*Obmutui, et non aperui os meum:
quoniam tu fecisti.*

Mututu nintzan ni, nere Aita eternoa, erran zezaken, bai, Jesusek egungo egunarekin; mututu nintzan ni, ta ez nuen ezpañik erabilli nik, itz bat ateratzeko nere alde, edo nere onerako, nai zuten guzia nere gain judu gogorak zerausten aldietan; ez eta Herodes erregek, ongi naiez bezala, anitz gauza galdegin zizkidanean ere; banekien alabaña, orregatik zetorkidan eriotza, zure naiez zetorkidala, ta munduko galduen onerako.

Mututu nintzan bada, munduko guziei ongi naiez, ta zeren zu ezin-geiagoraño maite zaitudan nik, nere Aita maitagarria: ta mututuko ninzake ni berriz ta berriz ere, zuk ala nai izatera.- Bai, Aita maitea, bai: au badakizu zuk zerorrek ere, nik bezain ongi; ta badakizu orain berriro ezezik, lenagoko zere eternidade guzi-guzian ere.

Eta ote nekien nik bekatari txarrak, gure Jesusen mututze onekin Jesusek guri erakutsi nai ziguna?- Nere erausiak, nere itzontzikeliak, nere mintzatze beroak, nere erantzute txarrak ezetz diote: bada Jesusen mututzeak erakusten zidan niri, bear etziran itzei nik ez-aditu egitea; ta mintzen baninduten ere, nere-

kin zebiltzan lagunak, edo besteren batzuek, nere Jau-nagana nik biotza goititurik, nere orduko minduerak Jesusen minduerekin batean Aita eterno berari nik ematea: bidenabar nik Aita berari eskatzen niola, era orretako aldietan eme-emeki, ta guztiz ixill, gelditzeko grazia.

Baña ez nik ori egiten! Orregatik galdu ditut nik anitz irabazi, ta merezimentu!

Gaurgero irabazi, andiak egin naiez nago; ta bear den aldietan, zu bezala, gure Jesus maitagarria, nere alegin guzian mututzeko asmoan. Indazu arren, orretarako nik bearko dudan zere laguntza ta grazia. Ala bizi bai arren, bai!

*Ergo vos estis soli homines,
et vobiscum morietur sapientia?*

Job. 12. 2.

Ongi, Herodes errege ta jaun andia; ta ongi! Orre-la zu, ta zure Zaldunak zarazte, gauzak aditzen zaiz-ten gizonak? Zuek ez izatera, ez lizake noski arkituko gaur mundu guzi-guzian lekikenik batere, jakin bear

diran gauzetatik; eta illotza legoke gizonen arteko jakinde guzi-guzia?

Orra, Herodes jauna; orra, zuriz jauntzirik uzten dezu gaur zuk gure Jesus maitagarria! Era orretan bidaltzen dezu gaur zuk gure Jesus Jerusalemgo kalez kale Pilatos baitara, edo Pilatosen etxera! Zuk orretan adirazi dezunagatik, ero bat dela, uste dute Jesus israeldarrak, eta Jerusalemgo jendeak; eta istaz ta irriz dagozka, alkerik batere gabe.

Eroa da beraz Jesus, Herodes jakintsua? Ala diozu! Zuk diozu? Zuk? Zere anaiaren emaztearekin, bazter guziak dakitela, bizitza loi-lizun bat dakartzun gizon, arrika ill ta erre bearrak? Zuk, S. Joan Baptistari burua kenerazi zenion gizonak, bizi-modu likits au zeren utzerazi nai zizun, besterik bage? Zuk, antustez beterikako gizatzarrak, eta Judako Erreinua zeretu naiez zabil-tzan arrotzarrak; zuk diozu itzez, ta siñuz, eroa dela gure Jesus maitagarria?- Eroa Jesus? Aita eternoaren Jakiundea? Aita eternoaren Seme bakar Jaungoiko-gizona; ta Jaungoiko-gizon, gauza guziak dakizkiena? Au da Herodesen ustez gizon ezer-ez ero txoratu bat?

Bai bada! Norañokoa den gizonen itsutasuna, ta erakeria! Eta norañokoa gure Jesusen guganako nai-

amorea; bada amore-nai onek eragin diozkan lanak-gatik eman diote Jesusi eroaren izena ta soñekoa!

Eta, Herodes illagatik, bukatu ote dira Izengoiti onen emalleak?- Ez egiaki? Anitz dira oraindik ere, eroaren izena eman oi dietenak Jesusen ondoren dabilzanei; munduko erakerietatik, jan-edan galgarrietatik, sartu-atera, ta jostatze arin-likitsetatik bereisten diranei; baita oriek orietatik urrunerazten dituztenei ere.

Zorionekoak izen onen soñeko zuriarekin beren buruak ekusiagatik, Jesusen biderik uzten ez dutenak! bada oriek dira Jesusen eran, edo zuzen, gauzak dakiztenak; eta oriek, gero zeruan jakiundez beterik, Jesus berarekin biziko diranak.- A! ni ere izaten banintz orietatik bat! Ezpanaz izandu ni orien erakoa, nere oben kulpakgatik izandu da; ta lenago ni orieta-tik ez izanduaz ongi damaturik, gaurdanik badaere izaten asteko, egin uste dut, bai, nik egin ala. Orretarako asmoan erratera noa orain nere itzez ta nai osoz:
Nere Jesukristo, etc.

LVII.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN TA BARRABASEN

BERDIÑERA, TA BEREISTIA

A.

Ematen die Pilatosek juduei, bitatik bat: Jesus edo Barrabas

1. Damutuko zitzaion Pilatosi, edo naigabetuko zen Pilatos, berriz Jesus bere eskuetan, Herodes erregek itzulirik, ekusi zuenean; bada igorri zion Jesus Herodesi, Jesusen egitekoan deus ez ebaraki naiez; ta naita ez ebaraki bearrean gelditzen zen, Jesus ona berriz aren eskuetaratzearekin.

Artzen du bada berekin Pilatosek Jesus maitagarria; artzen du zetorren eran, edo zuriz jauntzia, ta eroaren idurian, ta aintzura txarrean. Ateratzen du, berekin berriz leneko leku edo ekustegi berera. Deitzen die, bein, beste judu guzien izenean itz egiten zuten Apaizei, oriekin batean an arkitzen ziran Kargudunei, ta azkenean gañerako judu guziei: ta erraten die Pilatosek: Ona non dezuten, zuek zerok ekarri

didazuten gizon au. Zuek erran izandu didazue niri, gizon onek nastuak daduzkatziela bazter guziak, eta, ez dakit beste zenbat, zeren gogoak eman dizuten, gauza: ta orra, nik egin diozkat oni, zuek zerok begira zaudeztela, nere karguak, edo niri zegozkidan galde-tze guziak: eta ekusi dezue zuek zerok, ez dela egia- ren pitsik ere, zuek esan didazuten guzi-guzian. *Luc. 23. 13. etc. 14.*

Herodes errege zuen erritarra da, edo bazter ebe- takoa. Badu, bai, Herodes erregek zuen usantzen, zuen Legeen ta gauzen, bear den adiñako berria: orre- gatik igorri zaituztet nik zuek Herodes erregeagana gizon onekin berarekin, ekusi zezan Herodesek, egia zen, edo ez, zuek emen zeniotena; ta, ala zelarik, eman zezon zegokan sententzia.- Eta zer egin du gizon onekin gizon andi errege Herodesek? Onen soñeko onek adirazten duena: edo zuei zeroi begitan ematea zeren aser-era, ta pasione sutuarekin; ta zuei zeroi adiraztea, obenbagekoa dela, zuen iduriz, munduko obendun andiena den gizon au.

Zer nai dezue bada zuek, dagidan nik era onetako gizonarekin? Il-erazi obendundako, obenen pitsik ere ez duela?

2. Ori: Bazkoetan arkitzen gara, zuek zerok daki-zuen bezala; ta, aldi onetako Bazkoz eman oi dizuet nik, Presondegian arkitzen diran gaistagin guzietatik bat, edo orietatik edozein, zerok eskatzen dezutena.

Ez dut nik, ez, zuen usantza galdu nai, niola ere. Baña aurtengo zuen Bazko andi onetan laburtu nai dizuet zerbaitxo zeren usantza, Presondegian arkitzen da gaur, anitz beste gaistoren artean, Barrabas deritzan gizon guztiz errebes galgarri bat.

Au da, zuek zerok dakizuen bezala, lapurreri andiak egin izandu dituen gizon, etxeen nasgarri bat. Au da, gau ta egun bazterrak asaldatzen dabillen gizon bat, eta norekin-nai, ta guziekin, noiznai gaizki datorren gizona. Eta au berau da, oraindik anitz ez dela, bere aser-aldi batean bati bizia kendu zion giza-tzarra.

Gizon, onen gaisto au, bada, ta zuek emen ekusten dezuten Jesus, dira aurtengo Bazkoan zuen eskuetan gelditzen diranak. Bietatik bat emain dizuet nik, bai, baña ez besterik. Zer diozue Jerusalengo jendeak? Zer diozue, judatarrak? Zein nai dezue, eman daki-zuen zeren aurtengo Bazkoan, Jesus edo Barrabas? *Quem vultis dimittam vobis, Barabam, an Iesum?* Matt. 27.17.

Ederki, Pilatos jauna; ta ederki alere! Obenik ez duela, diozu zuk, gure Jesus maitagarriak; eta obendun gaistoen gaistoenaren aldean ezartzen diezu judutarrei, ta Jerusalengo guziei! Badakizu zuk, juez jauna, naigabe utsez Jesusi gaizki-iritzik, eta ezin eku-siz Jesus maitagarria, dirala juduen erausi guziak. *Ibid.* v. 18.

Eta egia baliz ere, oriek dioten guzi-guzia, egin zenezake zuk Jesus maitagarriarekin, egiten dezuna baño gauz-itsusiagorik? Bada, Bazkoz presondegitik ateratzen diranen artean ezartzen dezu zuk Jesus maitagarria; ta orien artean ezezik, guzien artean gaistoenaren aldamenen: ta juduak artzen badut ere, Barrabas uzten dutela mundu guziak usteko du, gais-toa zela Jesus; ta, juduak Jesus bere katepetik ez ateratzera, presondegian usteldu bearra, urkabera bearra, edo nekez ta kastiguz zenzarazi bearra zela Jesus; ta, uste onetan gelditzen badira munduko jendeak, ez dira mundukoak egoin, ez, Jesusen Lege on guztiz garbi-zuzena artzeko: ta orra zugatik, Pilatos jauna, galdurik bezala betiko gure Jesus maitagarria!

Lan ona, Pilatos, bai segurki, zuk gaur Jesus onari egiten diozuna! Lan ona, bai, onik izandu bada, mundua mundu denetatik.

3. Baldin bazekien Pilatosek (errain didazu zuk) Judatarrena; baldin bazekien etzutela agertu Judako Apezek beren erausi guziekin egiazko gaizkirik Jesusen gain, edo kontra; ta, egia bazen (zen bezala), Pilatosek berak erran ziena judatar gogorrei, ark egiazko gaizkiak baizik ezin kastiga zitzakela; nola orain sartzen du Pilatosek gaistagin arrigarrien artean, orietatik bat bailiz bezala, gure Jesus maitagarria.- Juez beldurti txar, bear ez bezalakoa izanez Pilatos; eta zeren Pilatosek obeki begiratzen zien gizon aberats erausleei, ixillik zegoen Jesus beartsuari baño.

Eta ez ote dira arkitzen egungo egunean ere gure artean zenbait orrelako gizatxar beldurti? Ez ote naz ni nerau ere orietatik bat? Bik billatzen banaute ni; ta oriek badira, aberatsa bata, ta bestea ondasun-gabea, edo ez orrelakoa, zeñi begiratu oi diot nik geienik? Beartsuari? Ez-aberatsari?- Orrek biok badiote, edo batzarrean, edo lagun artean; batak bat eta besteak bertzea, egia izanagatik aberats-ezak esaten duena: ori bera erran oi dut nik ere, edo erran oi dut nik beste aberatsak nai duena.

Artu-emanetan badabiltza oriek berak, edo besteren bi; edo auzitan, ta pleitotan badabiltza, era bereko besteren batzuek, beartsuari nik eman oi diot

eskua batetan, edo banaka, niri au oriek eskatu ezkerro?

A! noski nik beartsu orri eskurik ez emateagatik, besterik ezin dudanean, igesiari ematen diot, edo, aberatsari atsekaberik ez egiteagatik, gelditzen naz ni guztiz mututua, edo ez dut agertu nai nik ager neza-ken gauzarik batere, naiz atera dedilla nai bezala, ta gaizki, errumes beartsua, edo gutiena dezakena!- A Pilatos gaistoa ni ere! bada, Jesusen ume beartsuarekin onenbat egitea, Jesus bera gaistoen artean uztea bezala da.

B.

Juduak, edo judatarrak Jesus utzirik, artzen dute Barrabas

1. Zer egin ote zuten judatar gogorrek, bitatik bat; Barrabas edo Jesus maitagarria, artzeko eskua Pilatos-ek Bazkoz oriei eman zienean? Edo zein artu ote zuten bietatik judatar gogorrek, beren Jaungoikoari eskerrak emateko, zeren lenago atera zituen judatar beren aitziñeko israeldarrak ijito gogorren eskuetatik?

Zein? Barrabas, edo Jesus?

Ganz arrigarria zen, Jesus utzi, ta Barrabas artzea. Bazekiten judatar Apezak, nekazariak, arrantzaleak, langilleak, eta gañerako, antustez, jakiundez, diruz, ta arrotasunez beterik bizi etziran guziak ongi nai izandu ziotela beti Jesus maitagarriari; pozik aditzen zituztela Jesusen itz onak; eta, oriek aditu naiez, ibilli oi zirala gaisoak erriz erri, edo tokiz toki.

Bazekiten Apez berak, bai, Jesusek egin oi zituen sendatze ta gañerako gauz andiak begi onez ekusi oi zituztela, ta ziran bezala Jaungoiko-gizon baten mirakullotzat jenda-era onek berak, eta beldurtu ziran, Barrabas utzirik, eska zezaten oriek beren Jesus maitagarria, ta geldi zitezen Apezak berak, eta beste, Jesus gurea galerazi naiez zebiltzan guziak, len ere baño agitz gaizkiago, ta atsekabe ta damu geiagorekin.- Beldur onekin, bada ta, zekitenak bezala, artu zuten Apez berak beren bidea, Jesusi ongi nai zioten oriei, Jesus utzirik, Barrabas ar-erazteko.

Sartzen dira, bada, orien guzien artean; ta batzuek batzuei; ta besteak bertzei adirazten die Jesusen gain, berak asmatu ala; ta noski, beste zenbait gauzaren artean, begira zutela zer egitera zidoazen, baldin, Barrabas utzi, ta artzen bazuten Jesus

maitagarria. Asiko zela Jesus berriz ere bere predikuz ta milagroz bazter guziak nasen; gogan-beartuko zira-la erromatarrak; eta, orien petik judatarrak atera zitezzen beldurrarekin, beteko zituztela armaz ta soldaduz judatar beren, ta israeldar guzien erriak eta bazterrak; eta galduak izan bear zutela batak ta besteak.

Oriek guziak, bada ta era bereko beste anitz asmazio ta gauza sarten diotzate buruan jende gaiso-ari, an zebiltzan Apezak, errespetuzko jendeak, eta kargudunak; eta eragiten diote jende berari, berak nai dutena, edo eskarazten diote Barrabas, aldebat utzirik gure Jesus maitagarria.

Orobat egin oi dute gurekin ere gure etsai sutu-galgarriak.

Erraten digu guri guziori gure Jaungoiko maitagarriak, zer gauza den guk nai duguna? Nai dugun guk gure Jesus bere Lege zuzen-garbiarekin, edo nai ote dugun guk Jesusen lege berak debekatzen digun zer edo zer? Bizi nai dugun guk besteren gauzarik artzen ez dugula, edo lapurrerietan? Izan nai dugun guk itzez, gogoz, eskuz ta lanez garbiak, edo nai dugun ibilli arin, ta aisa, loiez loi, itz zikiñez zikin, asmo gaiztoz gaisto, ta atsegin lizunez lizun ta likits?

Ibilli nai dugun guk bidegaberik bage; edo bidegabe bez bidegabe, ta txarkeriz txarkeri? Barkatu nai ditugun guk geren atsekabe ta naigabe miñak: edo arkitzen garan gu, gaizkiren bat egiten digutenei ordañez erantzuteko asmoan? Izan nai dugun guk Jesusen ume umillak, eta bear bezalakoak; edo, arrotzar errebes, gogoak ematen digun eran bizi nai dugunak?

Otz-otzean galdetzen bazaiku guri au guzia, edo era bereko zer edo zer, gure Jaunaren alde jarriko gara gu; ta erantzunen dugu, guk gure Jesus maitagarria bere lege garbi onarekin nai dugula.

Baña sartzan badira gure artean, bein sulezeko etsai amurratuak, gero mundu eroa bere gauzekin, ta azkenean naikunde makurrak eta aragi gaistoaren su biziak; eta bein bakoitzak bere bidetik, eta gero guziak elkar artzen dutela ta tentatzen gaituztela, askotan arrerazten digute, lenbizian guk gerok nai ez genuena; edo, gure Jaun maitagarria bere lege garbiarekin aldebat utzerazirik, arrerazten digute, gure Jaunaren Lege berak debekatua, ta Jaun beraren etsai galgarria, edo bekatua.

Anitz nekatzen ote dira, beren lan gaisto au guri eragiteko, gure etsai-era oriek?- Ez, beintzat batzuetan!- Ez da au ala? Errazu ezperen: nai etzenuen itz

bat aditu orduko, etziñan sutu zu, itz ura zuri erran zizunagana?– Bide gaistoak, edo okasio txarrak esku-
ra zizuneko etzenuen artu zuk, eta an bertan gorde,
besteren era onetako edo artako gauza ura?– Itzketan
zu asi bezain laster zuk zerorrek dakizunarekin, etze-
biltzan an zure ezpañak eta zure eskuak, bear ez
bezala, ta agitz lizunki?– Sartzen ziñan zu, zuk zero-
rrek dakizun jostaketan, zere biotza edo besterena an
zuk erre-erazi gabe?– Etzen askotan aski zure begira-
tze arin txar bat, atsegin loi batez zikintzeko zuk zure
barren guzia?– Aserretzen ziñan zu noizbait, edo aldi-
ren batzuetan?– Ezin errazago!

Bagetzen ziñan gero zu?– Bai; baña, nork daki
noiz? Gogortzen ziñan zu zere gurasoekin? Mukertzen
ziñan zu gañerakoekin?– Aisa, ta maiz!

Orra bada zein neke gutirekin eragiten zizuten zuri
zere etsaiak, berak nai zutena, ta Jerusalengo Apez
nagusiak, Gizon adituak, eta Kargudunak israeldar
gasoei eragin izandu ziena.

2. Nola beren lan gaisto orretara ote ziran israel-
dar gaisoak, edo, Jesus utzirik, Barrabas artzera?–
Lenbiziko aldian etziran trebe izandu; ez eta saiatu
ere beren lan txar galdu au egitera; ta Pilatos juezak
erran zienean zein nai zuten berak, agertzen ziezten

bietatik, edo Jesus, edo Barrabas? Apez gaistoak, eta gañerako orien lagunak bazerausaten ere, Jesusen gain edo kontra, mututurik gelditu ziran gañerako jendeak; baña Apez orien, ta orien lagunen itzontzikeriari berriak eman ziezteneko, asi ziran beren gaitz alde-ra makurtzen; ta Pilatosek gero bigarren aldian erran orduko, zein nai dezue zuek, orain nigandik aditzen dezuten bietatik: Jesus, edo Barrabas? Bertan, ta bate-tan eranzun izandu zioten: Barrabas: au da, au, guk orain nai dugana, ez beste ori, ez Jesus: *Quaem vultis de duobus vobis dimitti? At illi dixerunt: Barabam.* Ibid. v. 21.

A zuek, Apez gaistoak! A zuek, Eskribatzar galdu-galgarriak! Israeldar zentzugabeak egin dute, bai, zuek nai zenuten egitekoa; baña oriek beren ezpañez eskatugatik, zuek zarazte zeren Jaungoikoarekiko len-bizikorik Barrabas eskatzen dezutenak! On dagizuela, bai; bada emen bezala, Barrabas izain da gero ere sekulako zuen lagun ta adiskide!- Zorigaistoan jaiok noinbait zuek, erran dakikezue zuei orrenbat anima gaisoren galgarri gaistoei: bada oraingo zuen lanari dagokan bukaera da betiko sua, ta beti lerturik suleze arrigarrian erretzen egotea.- Ez dezue zuek anitz urri-kari, ez, orain zuek neke-penetan darabiltzuen Jesus

maitagarria, orrenbat Jesusen nekerekin aspertu gabez, zeren aldean ori utzirik, Barrabas artzen dezutenean: ez eta zeren buru gaisoa ere; bada, neketan zuek Jesus uztearekin, zuzen-zuzen zoazte zerok betibetiko zeren buruak galtzera.

Zer egiten dezue zuek, israeldar gaistoak? Barrabas bategatik, galdu betiko Jesus maitagarria? Galtzearen andia!

Ai ene! ta ez ote da galtze agitz itsusiagoa, nik bein, ta askotan ere egin izandu dudan, Jesus beraren galtzea? Ez dut galdu izandu nik ere nere Jesus, bekatu larriren bat egin izandu dudan aldioro? Ez dut galdu izandu nik, ongi-ongi, ta agitz garbiro nekiela zer zen, ta norañokoa, nik orretan galdu oi nuena?

Israeldarrak jakin balute, nik dakidan eran, nor zen Jesus, utziko zuten gure Jesus maitagarria Barrabas gaistoagatik? Ez dut uste.- Eta ez nekien nik, ni nerau bekaturatzen nintzanen aldietan, gure Jesus maitagarria zela Jaungoiko-gizon, nere amorez orrenbat neketan ibilli ondoan, gurutze batean illik gelditurikakoa?- Eta au guzia nik nekiela, utzi dut nik nere Jesus maitagarria ezer-ez bategatik, atsegin txar lizun loi bategatik, edo edozein beste bekatu mortalegatik?- Eta utzi

dut nik nere Jesus maitagarria, bein ezezik, berriz, ta birretan, ta nik neronek dakidan aldi guzietan?

Au badakit nik, eta alere etzait damuz lertzen nere biotza ta barren guzi-guzi au?

*Qui juxta me erant, de longe steterunt;
et vim faciebant, qui quaeredant animam meam.*

Ps. 37. 13.

Zer egin ote dira, gure Jesus maitagarria, zure Apostoluak? Zer, zurekin zebiltzan gañerako jendeak eta gizonak?

Igesi joanak dira nigandik, eta guztiz urrun dabil-tza, dio Jesus maitagarriak. Ongi: ta ez da au berau nik ere, beti-beti ez izan arren, askotan beintzat, egin izandu dudan lan txarra, ta egiteko eskergabekoa? Ez nenbillen ni ere, edo geienez, edo maiz aski beintzat, nere erara, nere gogara, ta zure Pasioneke nekeez, zure ibillera penatuez, ta egote gogorraz oroitu ere gabe, nere Jesus maitagarria? Eta ez da au, zure igesi ni, ta zugandik urrun, ibiltzea?

Baña nor naz ni, era onetan oraindano denboran ibilli nazan gizatxarra? Ez naz ni, nere Jesus maitaga-

ria, gizon guzien artean zure alderena bizi diranetatik bat?– Ez naz ni, geien-geiena zuri zor dizuten zere umeetatik? Eta orietatik nazala ni, ni naz oraindañokotan onen eskergabekoa? Onen itzurria? ta onen galgarrri galdua?

Eta alere ixillik arkitzen zara, zu, nere Jesus maitagarria? ta alere zu, ni zere gogoan nadukazula, arkitzen zara beti? ta arkitzen zara beti, niri ongi naiez, ta nere onerako, orrenbat nekeren ta etsai galduren artean lagun bat badere zere alde ekusten ez dezula. A, nere Jesus maitagarriegia! ta noiz erantzun nik zure amore bazterbagekoari?– Ongi beintzat, ez eta eternidade guzian orretan ni ariagatik ere!–Gaurdanik bade-re banegi nik nere lan on onetan nere alegina!

Baña zure Apostoluak, eta ni, nere Jesus maitagarria, era onetan ta zure igesi gabiltzan artean, nola dabilta, ta zer lekutan, zure etsai judatar gogorak?– Zure orpoetan dabilta orietatik batzuek, zuk iges egin dezazun beldurrez bezala; ta zure begietan arkitzen dira gañerakoak, eta inguruan, zu, gaizki illik lenbaitlen ekusi naiak, eta guziak dabilta zuri zere bizia era gogorren batean galerazteko bideak billatzea bezala: ta, orretarako, or dabilta guziak ojuz, marmariz, gezurrak asmatuz, Pilatos beldurtu naiez, ta israel-

dar gaisoei engañoiz, ta lilurazioz beren begiak betetzen dieztela.

Eta ez ote nabil orien eran ni ere! Ez ote dut nik askotan nastu (ta agitz alere) nere adimentua, ekus ez zezan onek nere gaistakerien itsustasuna, ta nere gaistakeriekin nik Jesusi emanikako atsekabea, ta damu izugarria?- Etzen au, nik nere aldetik alegina egitea, nere Jesusi ken zezoten borrero gogorak bere bizitza?

Onetan ibilli naz ni, bai, judatar gogor itsuen eran, ta ero galdu bat zebilken bezala; ta artan ibilli naz ni, zertan nenbillen oartzen ez nintzala?- Eta au guzia orain nik ezaguturik ere, onen dama labur-epelarekin arkitzen naz ni; ta arkitzen naz ni, arkitzen nazan bezain otz, eta atsekabe gutirekin?

*Ego autem tamquam surdus non audiebam,
et sicut mutus non apericus os suum.*

Ps. 37. 14.

Niri gaizki nai zidatenak, dio Jesus maitagarriak, erraten zuten nere gain gogoak ematen zien edozein erakeri ta gezur. Bazerausaten, bai, berak nai zutena,

ta etziran erausiz aspertzen bein ere jenda-giro txar galdu oriek; eta oriek izan naiez zer erausi nere gain, beren gogara ni berak galerazi artean, goizatik asi, ta gaueko beranduraño asmatzen zeuden beti erausi berrien gaiak, eta nere galbideak: eta alere ni guztiz gor-egiñik, edo deus aditzen ez duen edozein gizon gorren eran.

Zergatik au zuk onela gure Jesus maitagarria?— Zuri ongi naiez, dio, bekatari txarra, ta zuri zuzen erakusteagatik nola egon bearko dezun zuk, ongi egoteko zu era bereko erausiz, ta bidegabe zere bearriak zuri betetzen dizkitzutenetan.

Pilatosek etzekien, ez, onelakorik, zuk ederki daki-zun bezala, gure Jesus maitagarria; ta ala ere Pilatosek, ekusi orduko, ekusi zuen eran, zure mututasuna, ta judatar galduen erausi-ta-erausia: ta judatar berak zure gain asmatzen zutena, ta bazter guzietan zeraustena, erran izandu zion Jesus maitagarriari arrituaren eran, ta judatar gogorak berarazi naiez: Ez dituzu aditzen zure etsaiak emen zuri gaur asmatzen dizkitzuten gauzak? *Non audis quanta adversus te dicunt testimonia?*— Zertan zaude bada zu gaur emen, orren mututurik? Zergatik urratzen ez dituzu zuk zere egi garbi zuzenekin orien gezurrak? Zergatik isillerazten

ez dituzu zuk emen bertan itz-ontzi gezurti oriek?-
Orra Jesus maitagarriari gaur Pilatosek erraten diona.

Baña zer ote dio Pilatos onen erranetara, berariaz,
edo bere naiez mututurik arkitzen den gure Jesus maitagarriak?- Itzik ere!

Eta zer ote deritza Pilatosek era onetako Jesusen
ixillerari?- Ark deritzana da, au dela mundu guzian
arkitzen den gauzarik berriena, ta arrigarriena: *Ita ut
miraretur Praeses vehementer.*

Alere da, ta: da alabaña, utsik ez duen Jaungoiko-
gizon baten egiteko, edo lan ezin zuzenagoa; ta Jaun-
goiko-gizon, bere Aitaren izenean, itz bat atera nai ez
duenaren ixillera, denbora berean ekusten badu ere
beren itz galdu-txar gezurtiekin judatar gogorrak
zikintzen diotela, beren naiez ta ustez, bere mira ezin-
garbiagoa; ta au oni aiek zikindu ondoan, kendu nai
diotela duen odola ta bizitza; ta kendu nai diotela,
Barrabas bezain gizon gaisto bati barkatzen diotela
badere.

Izan bear ote dut nik gaurgero, au guzia nik nere
Jesus onagandik ikasi ta ere, oraindaño koan izandu
nazan bezain minberrea, edo izukorra? Nai ez nuken itz
bat nik aditu orduko, erran uste dut nik bertze bat,
aditzen dudana bezain gaistoa, edo agian gaistoagoa?

Ez ote dut artu bear emekitxo nik, eta itzik ere atera bage, nere Jesusen izenean, era orretako edozein itz, nik dakidan ezkerorain dakidan bezala, zenbat eta zenbat era berean artuak daduzkan nigatik nere Jesus maitagarriak? Bai, baldinbere! Bai berak laguntzen didala, bai!

*Convenerunt... adversus... Jesum Herodes,
et Pontius Pilatus cum gentibus,
et populis Israel facere quae manus tua,
et consilium tuum decreverunt fieri.*

Act. 4. 27.

Gaistoak badagikee, zenbait aldiz beintzat, berak nai dutena; baña, guk ala nai izatera, gure onerako dira gaistoen gaizki ta gaistakeri guziak. Ez dugu guk orretarako Jesus maitagarriari begiratzea, ta Jesusen eran ibiltzea besterik bear.

Israeldarrak, eta judu gogorak ibilli ziran Jesus illerazi naiez; ta azkenean eragin zuten oriek, berak nai zutena, irabazten zituztela, beren lan galgarri onerarako, Pilatos, Herodes, ta, artarako ziran gizon guziak.

Egin zezakeen israeldarrak, beren lan au baño gauza gaistoagorik? Eta zer ote zion, orretan oriek zebiltzan denboran, gure Jesus maitagarriak?- Israel-darrak, eta juduak, gaizki naiez billatzen ziotela, berak gero izandu zuen eriotza: baña, oriek ematen zioten eriotz beretik atera nai zuela Ata eternoak bere gloria, ta munduko galduen ona; ta Aitaren nai onari begiraturik, nai zuela Jesusek berak ere judatar galduak, gaizki naiez, ematen zioten eriotza.- Orretarako kendu zituen bere begiak Jesusek juduen gaizkietatik, judu gaistoetara mindu etzekion batere bere biotza, ta Aita eternoak nai zuen eriotza gogoan arturik, erditsi zuen Jesus maitagarriak beraren Aitak berak nai zuena; baita izen guziak garaitzen dituen izen andi bat ere, ta, gero zeruratzen zeneko, Aita beraren eskoï aldea.

Nai diozu zuk ere atsegin andi bat egin zere Jaungoiko Aita maitagarriari, txarkeriak, bidegabeak, gaizkiak, edo nekeak zere gain ekusten dituzun aldietan? Nai dezu zuk bidenabar irabazi izen andi bat, eta anitz gloria beste mundurako?- Egizu bada, Jesus maitagarriak zuri gaur erakusten dizun egitekoa. Ez begiratu, bada, bat ere zuk, zuretzat Herodes, Pilatos, edo orienpekoa dirudien giza-giro orri; ez begiratu, zuk batere,

Judu gogor gaistoak baño gogorragoa, edo gaistoagoa dirudien gizatxarrari, edo emakumeari: begira zaiozu zuk zere Jaungoikoari: eta ezaguturik dena, den bezala, edo zure Jaungoikoak ala nai izandurik dela, zuk Jaungoiko beraren izenean, ta zure animaren onerako eraman bear dezun kezka gogor edo naigabe ori, eramazu zuk alik emekiena, ta Jaungoiko berari eskatuz, zere lan au zuk ongi egiteko bearko dezun Jaungoiko beraren laguntza ta grazia.

A, nere Jaungoiko maitagarria! Nik nere lan au era onetan egin izandu banu nere oraindañoko denboran, gaur zerurako milla ondasunekin arkitzen nintzan ni, ta nere orain arteko, ta gaur bertako nekeak ere, eraman oi ditudan baño arintasun geiagorekin, ta agitz aisa naramatziela!- Baña galdu dut nik au guzia; ta zeruko nere bide zuzena galdurik, ibilli izandu naz ni, nork daki zenbat bekaturen artean?- Ez al dut berriz nik egiñen, era bereko ibillerarik? Ez baldinbere, ez!- Egiñen al ditut nik, orien lekuan, bere aldi onetan Jesussek niri erakutsi dizkidanak?- Nai nuke beintzat bai, ta oraindañoko nere utsen barkamentua ere. Ori eskatzen diot nere Jaungoiko maitagarriari, itzez ta biotzez erraten diodala: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

LVIII.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN AZOTEA

A.

Ematen du Pilatosek Jesus azotatzeko sententzia

1. Arriturik gelditu zen Pilatos, ekusi zuenean judatarrak, Jesus utzirik, artu zutela Barrabas, lapur gais-to, gizon ilgillea; ta zer gertatzen zaion ez dakien gizon baten eran, galdetzen die judatar berei: ongi, Jaunak, eta zer egin bear ote dugu guk gaur, Kristo deritzan onako Jesusez?

Zer? erantzuten diote judatar gogor galduak: guru-tze batean bizirik josi, ta an, milla nekeren artean, iltzen utzi.- Orra zeren billan dabiltzan judatar gogor-rak anbat arazo, gau-galtze, erausi, ta asmazio gezu-rrazkorekin; ta, au guzia berak erditsi artean, ez dute uste onik izan bear dutela.

Berebat neritzan nik ere, nere Jaunaz oroitzen ez nintzala, nere atsegin loien ondoren, ta bidegabeko

gauzetan nenbilen denboran. Baña niri aldi orietan gertatua gertatuko zaie judatarrei ere.

Damutzen zekidan niri, nik neronek eginikako gaizkiez, oriek nik egin ondoan, zerbait ni zentzatu orduko; ta berebat gertatuko zaie judu gogorreire, gure Jesus maitagarria berak illerazi orduko.- Ez dute oriek ori uste; ta orregatik orain eskatzen diote Pilatosi Jesus maitagarri beraren gurutzeko eriotza.

2. Pilatos etzen arkitzen, ez, judatar gogorren eran, edo etzen orien eran su biziz, pasione galduz, ta asaldazioz beterik arkitzen Pilatos; ta Pilatosek ekusten zituen gauza guziak, gauzak arkitzen ziran eran, ta batere anditu bage; ta judatar gogorren ezpañetik aditu orduko illerazi zezala Jesus gurutze batean, iltze sendorrez jos-erazirik, eman izandu zien Pilatosek judatar berei, beren gaizkia bertan ezagutzeko lekua; ta erran izandu zien gero, bide zuzenik utzi nai etzuen juez onak bezala: Eta zeri dagokala, egin bear dut nik, zuek nigandik orain orren gaizki eskatzen dezutena?- Zergatik ill-erazi bear dut nik, ez gurutze batean, ta ez bestela ere, obenik ez duen onen erako gizon bat?- Bein, ta berriz adirazi dizuet len nik, eta orain irurgarren aldian diot, ez duela gizon onek eman izandu, zuek eskatzen dezuten eriotz gogor orretara-

ko biderik batere; ta obenbageko gizona dela gizon au; ta gizon kulparik ez duena.- Bada nola nai dezue zuek, zuei atsegin egiteagatik, dagidan nik ezin dagikedan gauza bat; eta gauza, zuek nai dezuten au bezain gogor itsusia?- Nik dagikedan geien-geiena da, kastigu zerbait gizon oni ematea; baña eriotza? ez da legerik, ez; ezin dagiket nik niola ere, ez.

A Pilatos, Pilatos gizajoa! Beratu zaituzte zerbait zu zere judatar gogorak! Laster egiñen dezu zuk, bai, oriek nai dutena.

Etziran ase batere judatar gogorak, aldi onetan Pilatosek eskañi zienaz: ta aditu orduko, judu berei atsegin egiteagatik emain ziola Jesusi zerbait kastigu-era edo zearaziko zuela gure Jesus maitagarria, bazter guziak ojuz urratu naiez zebiltzan judatar gogorak; eta ezetz erraten zioten Pilatosi: etzirala kontent Jesusen azoteekin: illerazi zezala Jesus erraten zioten, ta gurutze batean alere, *At illi magis clamabant, dicentes, crucifigatur.*

Ori bera da, gure pasioneak geroztik egiten dutena, tentuz ta tentuz dabilzan aldietan, gu guztiz orientatu ez gogortzera, edo guk oriei geren gogorako sarbide zerbait eman ezkerok; bada, ori guk oriei eman ezkerok, garaitzen gaituzte gu, ta egiten dute gutaz

berak nai duten edozein gauza; ta juduen oju latzak, eta gure lan gaistoak eskatzen dute Jesus berarendako gurutzeko eriotza.- Begira bada asierari; begira! Bere lan onenari begiratu bagez, asi izandu zuen Pilatosek ez-ongi Jesusen bere lan au; ta, asi bezala, bukatu zuen bere lan gaizki asirikakoa.

3. Eta zein izugarria Jesus maitagarriarendako lan txar onen asiera!- Berdurtu zuten Pilatosek juduen aldi onetako ibillera arazozkoak, eta oju latz-gogorrak; eta oriek isillerazi ustean, artu izandu zuen Pilatosek, ezin ar zezaken bide makur galgarri bat; eta, bein, ta berriz, ta irurgarren aldian aitortu ezkeru, etzuela Jesusek obenik batere, bere etsai judatar galduak agertzen zituzten gauza guzietan, Jesusi, berak nai zuen aldetara joateko eskua eman lekuan, eman izandu zion, obendun Barrabas lapur iltzallearen gain eman zezaken sententzia bezain sententzia gogor izugarri bat; bada manatu zuen, an bertan azotez zea zezatela Jesus maitagarria; ta, ori baizik ezin mana zezaken: lenbiziko aldian Barrabasen gain ere, gero gurutze batean ill bearra izan bazen ere Barrabas izugarria.

Eta zer ote da, Jesusek diona, Pilatosen bidebageko manu au adirazten zaionean?- Ezpañez ez du Jesu-

sek erraten itz bat ere; baña biotzez erraten dio bere Aita maitagarriari, beraren izenean len Dabidek erra-
nik zedukan gauza bat: *Quoniam ego in flagella para-
tus sum.* (Ps. 37. 18.): Ona ni, nere Aita maitagarria;
ona ni bertatik prest zuk nigandik nai dezun guzi-guzia
egiteko.- Nere gain artuak ditut nik munduko bekatu
guziak, eta prest arkitzen naz ni, nere Aita maitaga-
rria, bekatu berak eskatzen dituzten azote guziak
artzeko.- Utzi diozu zuk, nere Aita, Pilatosi, berak nai
duena nere gain manatzeko esku guzia. Manatu ditu
azoteak: izan ditezela bada zure izenean, ta munduko
bekatu guzien alde, oraingo nere azoteak.

Au da, gaur Jesusek diona, nere bekatu guziak ere
gogoan daduzkatziela; ta, oriek ere, gañerako bekatu
guziekin batean bertatik urratu naiez, da era onetako
Jesusen erratea: ta nereak beintzat urratuko dira, nik
nere ez-naiarekin ez eragoztera.

Baña zenbat Jesusen oñaze-nekerekin? Goazen
ekustera.

Soñekoak kendurik, lotzen dute Jesus borreroak azot-ukaldietarako

1. Pilatosek bere manu, edo sentenzi gogor au eman zuenean, an orretarako prest zeuden gizonak artuko zuten Jesus bere besoetatik, eta eramain zuten azoteak artzeko tokira.

Arako bidean bein, ta gero an bertan, zer gauzak erran etziozkaten Jesus maitagarriari, ta zer elkarri borrero gogorrak?

Guziak aditzen zituen Jesus minbere maitagarriak; eta adituko zituen lots edo alke guztiz andiarekin: baña ezpañik ere erabilli bage; ta ontzat artzen zituela bere Aita maitagarriaren izenean, ta gure bekatu guzi-guzien alde.

Erran ziotenean borrero gogorrak gure Jesus maitagarriari, ken zitzala bere soñekoak, eta ager zezala bere gorputza, artzera zetorren azoteetarako, alkez noski, ta naigabez itotzear zitzaion bere Biotz guztiz maitaria: ta Jetsemaniko odol-izerdiak, eta gerozko ondra-ezak eta neke guziak baño atsekabetuagoa utziko zion au egin bearrak bere barrena.

Baña alere egin zuen Jesus maitagarriak (eta bate-re luzatu gabe), borrero gogorrak erran ziotena: ta berak bere aldetik alegina egitea zuela, ta, azoteak eman naiez, berandetsiak zeuden borreroak tiraka laguntzen ziotela, gelditu zen laster soñekorik gabe, lumaz egaztiak, illez laur-oñekoak, azalez zurak, eta printzez loreak estaltzen dituen gure Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria; ta ala gelditu zen Jesus, berak zekiela, nola zegozkan begira zeruko Aingeruak, Erromako soldaduak, eta judatarren arteko bere etsairik gogorrenak: eta orien begiratze onek alketzen zuen guztiz Jesus maitagarria, ta naigabetzen zion bere biotza ezin geiagoraño.

2. Soñekorik gabe, ta billusirik ekusi zutenean, lotu zuten Jesus pillare batean borrero gogorrak.- Egoin zen, bai, geldirik Jesus maitagarria, lotu ezpalute ere; ta eramain zituen gure bekatuen alde, borreroak eman nai adiña azote ta geiago ere: baña etzuten borreroak Jesusen guganako amorearen berririk bate-re; ta, igeska zebilken bat bailiz bezala, lotu zuten Jesus esku-muturretatik; eta agian bai oñetatik ere: eta lotuko zuten, alik ere segurkiena; ta orregatik ezin gogorkiago.

Begira egiezu zuk emen, beste ekuskizun guziak apur batez aldebat utzirik, zere Jesus maitagarriari. Soñekorik bage dago, ta bere esku-oñak sendorki lotuak daduzkala, gure Jesus maitagarria!- Leneko gau guzian ekusi ditu Jesusek batek ekus ditzaken bidegaberik, txarkeririk, eta nekerik andienak!- Goiz guzian erabill dute gure Jesus maitagarria, alkez alke, kalez kale, tribunal gaistoz gaisto, ta ukaldiz ukaldi!- Goiz otza da ostiral santu goiz au! Leku agerian dadukate, gure Jesus maitagarria, ta, aizea nondik-nai sartzen den lekuan!- Zer alkekizunak, bada, zer oñazeak, eta zer otzak ez ditu Jesusek ekusten gis-onetako eran ta lekuan?

Zergatik dago gaur soñekorik gabe gure Jesus maitagarria?- Zeren zuk eta nik galdu genuen grazia-
ren geren soñeko ederra; ta ori gugana itzul-erazi naiez.

Zergatik lotu ote diozkate borrero gogorak Jesusi bere oñak?- Gureen ibillera ariñakgatik, eta zeren sartu ginduzten gu geren oñak jostatze arin galgarrietan, ta itxe ta toki gaistoetan.

Zergatik eskuak?- Gureen luzatze gaisto, ukitze zikin, artze txar-labur, ta gañerako lijereziakgatik.

Eta zergatik dago Jesus onenbat alkerekin, ta onen otzikara?- Zeren guk urratu ditugun alkerik gabe gure Jesusen manuak; eta gure bendekuzko, ta gañerako ibillera bero zikiñakgatik.

Orrela, gu gara Jesusen borreroak, edo gis-orretan Jesus ezarrerazi dutetak?- Bai, bai! gure bekatu zikiñakgatik ezpazen, etzuten Jesus, ez judatarren borre-ro gogorak orretarako!

Eta au nik jakiñik ere, orain dakidan bezala, ni onetaz oroitzen nazan aldietan etzait niri alkez ta lotsaz betetzen nere aurpegi au guzia?

Baña ez da, ez, au, izanik ere den bezain gauza zikin itsusia, guk aldi artan borrero gogorreii eragin genien guzia; ez eta gauzarik gogorrena ere. Goazen ekustera.

C.

Urratzen dute Jesus bost milla azot-ukaldi, ta geiagorekin

1. Era artan Jesus ekusi orduko, asi ziran borrero gogorak Jesus zeatzen.

Omen ziran beintzat seietaraño, orretan aritu ziranak; eta bata, bestea bezain gogor-amurratua. Aritu ziran aldizka; ta aldian gogotikago. Bazuen nork bere azote-modua; ta guziak ziran arrigarriak; bada batzuek omen ziran elorrizkoak eta arantzez beteak, besteak idi-zañezkoak, eta burdin puska zorrotzez josiak, eta gañerakoak kate meezkoak.

Asma zazu zuk, al badagikezu, borrero gogorren azote oriekiko lenbiziko ukalditik azkenekoraño Jesus minbere maitagarriak an eraman, ta ekusi izandu zuena!

Jesusen gorputza zen gorputz odol garbien garbiernezkua; ta gorputz, oraindik agertu den, minbereena.- Jesusen gorputz au arkitzen zen ordurako agiz odol ustua; ta guztiz nekatua.- Berez gogorrak ziran, ta sendor-indartsuak, Jesusen gorputz minbere au zeatzen zuten borreroak; etzeuden oriek, ez, batere nekatuak.- Pilatosek, igorri zituenean Jesus zeatzera, errain zien borrero indartsu-sendorrei, zea zezatela Jesus maitagarria kupide bage, ta itxura txarrear uzten zutela, agertzen zienean gero, agertu uste zien bezala, ta ekusten zutenean judatar gogorrak Jesus era ain urrikalgarrian, erdi-urratua ta illa zirudiela urri-

kal zekiozkan Jesus maitagarriari; ta utz zezaten, ala bazen ere, bizirik eta gurutzeratu bage.

Sulezeko etsai gaistoak barrendik, eta judatarrak itzez, (ta agian bai diruz ere), sutuko zituzten Jesusen borreroak, Jesusen zeatze au egin zezaten ezin gogorkiago; Pilatosek gurutzeratzen ezpazuen ere, orduko zeatze onetatik egun anitz igaro bage, illotza arki zezaten billatzen zutenak, beren Jesus maitagarria.

Ekusi zazu zer-nolakoa izan ziteken orien orduko azot-ukaldia? Zenbait azot-ukaldiren buruko geldituko zen Jesusen gorputza odola zeriola. Andik laster asiko ziran borreroak, azot-ukaldiz kentzen Jesus maitagarriari, bere gorputzeko aragiaren zatiak.

Eta bein alde batean, ta bein bestean ematen ziotela, nola utziko zioten Jesusi bere gorputz guzia, burutik oñetaraño?- Ezurrak ere agerian zeduzkalanoski, ta erraietaraño zuloekin: bada Jesusek artzen zituen azot-ukaldiak guztiz arrigarriak ziran; ta izandu ziran oriek bost milla ta bost eun bezala, geroz zerutik anim-onei adiazi zaienaz.- Eta nai-ta-ez anitz izan bear zuten oriek, eta guztiz izugarriak; bada ziran gure atsegin loien, ta munduko bekatu guzien alde Jesusek arturikakoak; eta munduko bekatuak andi-itsusi-arrigarriak dira, ta guk kont-alak baño anitz

geiago: ta denbora berean ziran, guk ezagu-al baño agitz beltzagoak, itsusiagoak, eta gaistoagoak.

Nik nere gorputzari eman diozkadan atsegin txar ta gusto loiakgatik, onenbat Jesusen azote, odoltze, urratze, ta neke!

Amurratuak ote daude judatar gogorren oraingo borreroak? Azot-ukaldika atera nai ote diote Jesusi, Jesusek duen odola, Jesusen odolez berak asetzeko? An bertan Jesus illik utzi naiez ari ote dira borrarotzar oriek, edo zer?

Baña ez dut zer nik, ez, oriei galdetu, egiteko onen gain jakin nai dudana; galdetu bear diet ori nik nere oben kulpei, ta nere bekatu galgarriei; oriekgatik da alabaña, gure Jesusek aldi onetan daraman azot-ukaldia ta neke arrigarria.- Nere bekatuak, bada, ta nere oben-kulpak, noiz artean ariko zarazte zuek zeren azotez urratzen gure Jesus maitagarria? Noiz artean idukiko dezue zuek Jesus maitagarria bere gorputzeko bazter guzietatik odola dariola, ta urratze berriz, neke izugarritz, ta oñazez betetzen dezuela?

A bekatu madarikatuak, nere oraindañoko bekatuak! Zorigaistoan agertu ziñazten bekatuak! bada zuek, zuek zarazte gure Jesusen gaurko borrarorik gogorren gogorrena! Etorkizunak baziñazte zuek,

etortzen zuei utzi baño len, milletan illa pozik gelditu-ko nintzake ni!- Berandu badere damutu zait orain, nere Aita eternoa, oriei len nik nere biotzean leku egina: lagun zakizkit orain, zure graziazko urriki onez guziak iltzen; ta buka bitez lenbaitlen, nere bekatu oriek gatik diran Jesusen azot-ukaldiak; eta ez dezotela gaugerero eman batere judatarren borrero indartsu-gogorak: ez arren, ez!

2. Noizbait gelditu ziran oriek; eta kendu ziozkaten bere lokarriak gure Jesus maitagarriari. Oriek beren lokarriak Jesusi kendu orduko, flakiaz ta indarrik gabez eroriko zen gure Jesus maitagarria bere odolezko istillean: baña, ekusirik Jesusek bere orduko egoera; ta alkeak eta lotsak bizirazten zutela, jakin zen erdi ibiliz, erdi-arrastan, bere soñekoak zeduzkan tokira; ta, nekez bazen ere, jaunziko zituen Jesus maitagarriak; eta, itzik atera gabe, gelditu zen prest, borrero berak, eta gañera an arkitzen ziran guziak egin nai ziozkaten bidegabe guzietarako.

Ai! au ekuskaria! ta Jaungoiko-gizon Jesus maitagarriari gerta zekikeola, orain guk aditzen dugun alke-kizun ta neke ezin andiago au?- Au ekusten zeruko Aingeruak, eta ixillik alere!- Au ekusten Jesusen Aita eternoak berak, eta uzten alere sulezekoei, judatar

gogorrei, ta borrero gaistoei, dagitela guziak, bere Seme Jesus maitagarriarekin beren gogo amurratuak ematen diena! ta dagitela gure oben-kulpakgatik, eta gure bekatu zikin loi-gaisto-galgarrien alde!

Andiak dira nonbait gure oben-kulpen, ta bekatu galduen zorrak! eta andiak denbora berean gu bekatarienganako Aita eternoaren aserreak, orrenbat eskatzen duenean Aita eterno berak, beraren ta gure arteko bakeetarako!

A, nere Jesus maitagarria! ta an arkitu banitz ni, zuri zere borrero gogorak emanikako azot-ukaldiak bukatu, ta erori ziñanean! Zein ziñez orduan nik, zein negar beroekin eskatuko nizun zuri nere bekatu itsusien, ta nere oben-kulpekin zere neke arrigarrietarako eman izandu nizkitzun bideen barkamentua! Pozik apatuko nizun nik orduan, bai, ta umilki alere, odolez beterik arkitzen ziran zere esku on-ederretan.- Zerorrek artan niri uzten zenidala, artuko zindudan nik zu orduan zere besotik; lagunduko nizun nik zuri, zere odoletik ateratzen; ekarriko nizkitzun nik zuri zere soñekoak, eta oriekin estaliko zindudan nik zu alik lasterrena.- Eta, nai bazenuen zuk, geldi zedin an, nigatik isuri zenuen zere odol guzia, utziko nuen nik au, artuko nituen, odol bera isur-erazi zizuten borreroen

azote gogorak; apatuko nien guztiz debozki, zeren nere onerako ukitu zinduzten zu; ta gordeko nituen nik gero, egun artako zure nekeez beti ta beti ni oroitzeke, ta ekusten zituzten guzien onerako!

Ez nintzan ni, ez, an arkitu; ta ezin negiken nik, orain erraten ditudan gauzetatik bat ere. Nik gaurgero dagikedana da orduko zure gauzak, eta neke gogorak maiz gogoratzea: ta, oriek nik nere gogora ekartzten ditudan aldiero nere naiez ta gogoz, an egin gogonuena emen bertan egitea: ta egin uste dut, bai, zuk zerorrek niri, nere Jesus maitagarria, nere lan on au egiten laguntzen didazula. Ala gerta dedilla, bada, bai arren, bai!

*Quoniam propter te sustinui opprobrium,
operuit confusio faciem meam.*

Ps. 68. 8.

Badakizu zuk, bai, nere Aita eternoa, (erran zezaken aldi onetan Jesus maitagarriak): badakizu zuk, bai, zein irrigarri egiñik erabilli nauten ni gaur nere etsai sutu galduak! Oraindañoko orien eskukak, listukak, ille tirakak, eta gañerako nik daramazkidan

nekeak, neke ariñak dira neretako, gaurko nere alke-kizunaren aldean!- Zeru-lurrak, eta lurekoetatik anitz, begira dagozkidala, kendu dizkidate niri nere soñekoak; eta utzi naute ni, nere burutik oñetarañokotan, alkez ta lotsaz nazan au bete-betea.- Badakizuzuk, nere Aita maitagarria, au guzia dela zuri nik ezingeiagoraño naiez, ta barka dagiezun zuk bekatari gaisoei, berak, oartukabean bezala, edo beren gaistakeriz, egin izandu duten gaizki guzi-guzia.- Izan bitez nere gaurko alke-nekeak orien beren zorren alde, ta zure ondretan. Urrikal zakizte gaisoei gaur bertan, ta batere luzatu bage; bada orien zorraren diña bada nik daramadan oraingo nere lotsa ta alkekizuna.

Gure Jesusen amorearen arrigarria! Lotsarik bage ni anbat denboraz nere lan loietan, ta egiteko zikinetan; ta orain onenbateraño lotsaturik nere Jesus maitagarria, nere lotsabagekeri zikin galduakgatik.

Irriz ta farraz ni, nere anima bekatuaren loiez beterik, eta zeruko graziaren soñekorik bage, arkitzen nintzanetan ere; ta alkez anbateraño illundurik nere Jesus maitagarria, soñekorik ere bage nere orain arteko erakeri txarrakgatik!- Begitan arturik ni nere Aita eternoak, zeren, birtutezko soñekoak utzirik, nik jaun-tzi ditudan nere bekatukeri urratu zikiñarenak; eta

zeren berariaz egin nazan ni Aita berarren etsai itsu galgarri amurratua; ta nere Jesus maitagarria alkez ta nekez beterik, den guzia, niri nere soñeko loiak utze-razteagatik, eta, bere Aita palakaturik, aren ta gure artean bake on batzuek eragin-naiez!- Eta alere geldirik ni, ta Jesus maitagarriari itz on bat erraten ez diodala, onenbat ontarteren eskerrak emateko: ta denbora berean nere bekatuen loikeriak, eta graziaren soñeko bageak ez lotsarik niri, eta ez damurik, ematen didatela?

Ai au zentzagabekeria! Utziko al dut orain badere? Bai arren, Jesus maitea, bai!

*Quae non rapui, tunc exolvebam:
et fui flagellatus tota die:
et castigatio mea in matutinis.*
Ps. 68. 5.

Gure Jesus maitagarria pillare batean sendorki loturik, eta borrero indartsu-gogorren atzaparretan, oriei Jesusek berak uzten diela, berak nai duten guzia beraren gain egiten nere zorren alde, ta nere erakeri lizunakgatik: eta denbora berean ni nere buruari atse-

gin egiten; nere etsai galgarri amurratuen, ta pasione sutuen eskuetan ni; ta loiez ta bekatuz bekatu ni, orien gogara!

Jesusen bizkarrean, ta Jesus beraren burutik oñe-tarañoako bazter guzietan azot-ukaldika borrero gogor-rak, zeren nik izandu niozkan nere gorputz txar atse-ginkorrari, bear etziran, ta Jesusen Legeak debeka-tzen dituen nai lizunak; eta alere ni nere begiei, nere bearriei, nere gogoari, ta nere gorputz berari atsegin berak, eta beste anitz debekatu egiten dieztedala?- Jesusen gorputz minbereko ezurrak aragirik batere bage, ta, ori orrela izanik, nere aragizko bekatu liki-tsakgatik, ni, asmo zikiñez, gogoeta galduz, ta bekatu galgarriz asetzen ta asetzen nere aragi loitsu au, ta nere gorputz gaistoko ezur-muñak!

Nekez, damuz, ta tristuraz beterik gaur, obenik bageko gure Jesusen Biotz maitari ezin maitagarria-go; ta denbora berean nere biotz obendun loi zikina damurik batere bage bere bekatu galgarrien artean, ta bekatu zikiñen atsegin berrietan?- Nere zorrak atera naiez gure Jesus azotez urratua, ta soñekorik bage; ta ni apainduretan, ta zor berriak egiten ta era-giten etxean, elizan, kolean, bidean, plazan, ta non nai!

Au zer da, nere anima? Au zer da, nere biotza?– Zer izain da? Munduan den erakeririk andiena: ta ekusi dezun zentzagabetasunik eroeneroena!– Nere Aita maite, Jesus maitari maitagarria, ni gal ez nadin galdurik gaur, guzia nekez ta penaz; ta denbora berean ni nere erakerietan, neke-bide berriak Jesusi egiten, ta nere burua gaizkiz ta bidegabez galtzen ta galtzen!

Noiz artean iraun bear ote dute, oraindaño koan onen gaizki narabilten nere erakeriak?– Noiz artean izain naz ni nere buruaren onen galgarri galdua?– Zuk ni, dagikezunak bezala zentzarazi artean, nere Jesus maitagarria!– Egizu arren zuk au gaur bertatik, eta batere luzatu gabe. Eskatzen dizut nik zere ontarte berri andi au, lenekoei nik guztiz gaizki erantzun die-dalako damuz ongi beterik, eta lenaz damuturik, eta ondu-nai ziñezko bat nere biotzaren erdi-erdiraño sarturik dadukadala. Adi nazazu, bada, nere Jaungoiko maitagarria. Bai arren, bai!

Non est species ei, neque decor.

Isai. 53. 2.

Gu guziok, zeruko bidetik atereak, eta galdurik genbiltzan, dio Isaias profetak. Gutatik bakoitzak artu izandu zuen bere zearra; ta, bere zearrez jaitsiz, ta malkortuz, edo amilduz zebillen lenbaitlen sulezean gelditu nai zuenaren eran; ta an erortzear zen, ta an erortzen giñan gu guziok, guri gure Jesusek ez laguntzera, edo bere gain Jesusek ez artzera gure bekatuen kargatzar astuna.

Zer karga dela, deritzazu zuk, zure bekatuen kargatzar au?- Au zuk ezagutzeko, ez dezu begiratzea baizik, nola dabillen onekin Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria, izanik Jesus, dakizun bezain sendor-indartsua.- Azoteetako bere pausu au eman orduko, gelditu zen Jesus, ezin-nekatu galduagoa, dio Isaiasek: bada etzuen orduan Jesusek edertasunik batere; ta galdu zuela, zirudien, gizonaren itxura edo aintzura ere.

Begiratu genion, dio Profetak, eta etzuen Jesusek, tristuraz baterik gelditu gabe, begiratzen zionak ekus zezaken gauzarik batere.- Oinpean bezala zekarten guziak gure Jesus maitagarria, ta etzen orien guzien artean bat, ongi begiratzen zionik Jesus maitagarriari.- Nekez ta trabajuz egiña zirudien, ta doloretako

retablo latz urrikgarri bat, gure Jaungoiko maitagarriak.

Lots andiz, ta alke izugarriz estalia zekarren orduan Jesusek bere aurpegia; ta ez genion begiratu ere nai guk, era artan guk ura ez ekusteagatik, edo ez utzi-naiez Jesus artaratzen zuten gure bekatuak.- Agiri zen, bai; ta ongi alere, gain artuak zeduzkala Jesus maitagarriak gure animako eritasunak, eta oriekgatik guk eraman bear genituen neke oñazeak: baña ez genuen orretara anitz begiratzen guk; eta begiratzen genion guk gure Jesus maitagarriari, lepratsuari, ta gure Jaungoikoak berariaz, ta bere obenakgatik ala dadukan gizon galdu edo lotsatu bati bezala.- A! baña gure bekatuakgatik zen, aldi artan Jesusek zeraman guzi-guzia! Gure bekatuakgatik zegoen Jesus, bai, azot-ukaldiz ain urratu, ta, ezur osorik ez dadukanaren eran! Eta, gure bekatuei zegozten neke oriek orduan bere gain gure Jesusek ez artzera, etzen arkitzen bakerik geretako nion ere; ez giñan sendatzen gu, geren animako eritasunetatik; eta ondatzen giñan gu betibetiko suleze arrigarrian!

Ekusten dezu, Isaias Profetak itz bian, aldi onetako nekeen gain adirazten diguna? Ekusten dezu gaur gure Jesusek Pilatos baitan ekusten duena, edo dara-

man nekea?– Eta zer diozu zuk, Jesusen onenbat neke ta amore ekusi ondoan?

Zer erran dezaket nik gaur, nere Jesus maitagarria! Arriturik nagoela ni, ta mututurik bezala; ta, zerbait errateko, nondik asi ez dakienaren eran.– Ez da biotzik, ez, gure Jesus maitagarria, zu era orretan ekusi ezkeru, damuz lertu bage gelditu bear lukenik! Baña anitz gogortu didate niri nere au nere bekatuak, eta ezin eragin diot nik, nai nukenaren erdirik, edo laurdenik ere.– Alere illundu da zerbait, zu era orretan ekustearekin, nere biotz txar loitu gogortu au. Damutu zaio bere bekatuez. Artu dut bekatu berririk ez egiteko asmoa; ta beragatik zuk aldi onetan daramazkitzun nekeakgatik eskerrak eta eskerrak eman ondoan, dio alik zinkiena: *Nere Jesukristo, etc.*

LIX.garren OTOITZ-GAIA

JESUSI, IRRIZKO EDO ISTAZKO ERREGERI BEZALA, SOLDADUAK EGIN ZIOTENA

A.

Kentzen diozkate Jesusi, oñaze ta alkekizun andiarekin, bere soñekoak

1. Anbat milla azot-ukaldiren ondoan, etzuen Jesus-
sek izandu odol-garbitzallerik; eta, bere soñekoak
jaunziagatik, gelditu zen gure Jesus maitagarria odola
zeriola.- Zerion odola sartuko zen Jesus maitagarri
beraren soñekoetan; ta, Jesusi zerion odol au an,
soñeko artean geldituz ta oztuz zijoanean, Jesusen
soñekoak gelditu ziran Jesus beraren zauriei, edo
aragi urratuari lotuak edo itsasiak.- Era onetan, ta
aize otzak ematen ziola Jesus maitagarriari, nola gel-
dituko zen Jesus?- Illaren idurian, odolez betea, ta
urrikaltasunez nornai beterik utz zezaken bezala.

Baña anitz urrikaldu zekiozkan Pilatosen etxea zaitzen zeuden soldaduak?– Gauz-arrigarria! bat ere! ta, urrikaldu bearrean, istaz ta burlaz abiatu zekiozkan, ala zegoen Jesus maitagarriari. Eta beren lan gogor arrigarri au obeki egiteagatik, deitu zien, Jesus an zaitzen zeuden soldadu berak, beren lagunei.

Zenbati ote?– Koorte zeritzan pillari S. Mateok eta S. Markos Ebanjelariak diotenaz: ta soldadu pill-onek bazituen, gutienez, eun ta ogeita bost soldadu. Eta, guziak an ez egonagatik, sall ona arkituko zen, bai, an, lan au ekusten; istazkoa zen alabaña, orien aldi artako lan-egoera; ta era orretako egoerak pozik billatu oi dituzte soldadutzarren erako jendagiroak.

A nere Jesus maitagarria! ta bataiatuen artean ere ez ote dira arkitzen gaur anitz, damuzko, negarrezko, ta deboziozko gauzetara baño, orrelakoetara lasterra-go ta pozikago urbiltzen diranak?– Erran bekie bataiatu geienei, entzun dezatela egunoroko beren meza: Doazkiola Jesusi noizean bein bere ekuste-moduak elizan egitera; egin ditzatela aldareetako beren otoitzak: Ez dezatela galdu meza nagusirik; ez eta predikurik ere: konfesa-komeka ditezela, alik maizena; arki ditezela bezperetan, errosarioan, kalbarioan ta bertze orrelako gauzetan; zenbat aitzaki, orietatik geienak,

era orretako gauzarik ez-egiteagatik?- Eta, egiten dituztenetan ere, zer naigabeak, zer moteltasunak, zer andik egesezin-naiak, oriek ordu orietan agertzen dituztenak?

Baña erran bekie oriei berei, emen dirala zezenak, an dantzak, an jokoak, an jan-edanak, an jostaketak, an aurkeriak, ta an gauza farragarriak, arintzen zaie bertan oriei beren biotza, ta ara-naiez daude, ta ara doaz, askotan beintzat, an Jesusi egin oi zaizkan irrietara ta istera, edo bekatuetara, anitz begiratzen ez dutela. A Pilatosen soldadu jentilen erako bataiatuak!

2. Pilatosen soldadu oriek an bildu orduko, oriek ara deitu zituztenak, eta lenagotik an Jesusekin arkitzen ziranak, asi ziran Jesusi egiten bere ista ta irri gogorak.

Lenbiziko aldiaren kendu ziozkaten Jesusi soldadu oriek bere soñekoak, eta eman ziozkaten beren lan onetan Jesusi bi neka-giro guztiz arrigarriak: bata zen bere soñekoak Jesusi kentzea: ta bestea, soñeko berak kentzearekin Jesusi emanikako oñaze-bidea.

Andi-arrigarria zen, bai, Jesusen azkeneko neka-giro au; Jesusen gorputzeko aragiari itsatsiak zeuden alabaña Jesusen soñekoak; eta itsatsiak aragai, bost mill-azot-ukaldi, ta geiagorekin urratuberriari: ta ezin

ken zitezkeen orrela zeuden soñekoak, Jesusen zau-riak, edo gorputzaren urratzeak berritu gabe; ta, bere soñekoekin batean Jesus maitagarriari odol ta aragi zatiak kentzen etzizkatela.

Ekusi zazu zer oñaze-nekeak, Jesusen aldi artako neke oñazeak!- Bai! Bada, zein ere andi-arrigarriak ziran Jesusen neke oñaze oriek, agitz eta agitz latza-goak, soñekoen kentze utsarekin Jesusek eraman zituen neke-miñak.

Zer neke-miñak ote ziran, Jesusen neke-miñ orren arrigarri latz oriek?- Oriek ziran, Jesus maitagarri, bere billutsitzeak, edo soñekorik gabe gelditzeak; eta ala gelditzeak, ainbat soldadutzar, ta gañerako jenda-giro gaisto begira zegozkiola, berritu ziozkan alkekizunak eta, lotsa arrigarriak; au zen alabaña, Jesus bezain gizon lotsatiari, ta alketiari gerta zekikeon nekerik arrigarrienetatik bat.

Zergatik ote dira, Jesus maitagarria, zure oraingo neke-modu bi berri oriek?- Zergatik izan dira? Zeren nik, lenak aski etzirala, egin ditudan bekatu berriak! Zeren nik nigandik kendu ditudan zeruko graziaren nere soñeko ederrak, bekatu loiaren zar zikiñak jaun-tzi naiez: ta zeren alkerik bage, nabillen ni bekatuz bekatu, edo zeren egiten ditudan nik egin oi ditudan

adiña bekatu, oartukabeen bezala, edo begiratu bage, begira dagokidala niri nere Jaungoikoa, edo ezpaliz baño geiago, nere Jaungoikoaz ni oroitzen ez nazala; ez eta nik nere ibillera galduekin galerazten ditudan animez ere.

Alke-nekeen gogorrak, azken juizioko egunerako nere begira dauden neke-alkeak, nik emen ez kentze-
ra, Jesusen alke-nekez ni baliatzen nazala, nere orain-
dañoko lotsagabekeriak eragin dizkidan gaizki guziak!

B.
Ezartzen diozkate
Jesus maitagarriari
soñekotzar gorri bat,
arantzezko koroa,
ta kañaberazko zetroa

1. Soldaduen bigarren ista edo Jesusi soldaduak egin zioten gauz irrigarria izandu zen, soñeko gorritzar bat lepotik ematea.- Aditu zuten soldaduak Jesusen gain judatar gogorrak ziotena; ta, beste anitz gauza-
ren artean, aditu izandu zuten, errege egin naiez, ta erromatarren kontra armak artzeko asmoan, ibilli zela

Jesus maitagarria: ta bere errege-asm-onekin Jesusi begitan eman naiez, gogoak eman zien an Jerusalem arkitzen ziran soldadutzar erromatarrei, Jesus egi-tea joteetako, edo burlazko errege; ta, nola zekiten soldaduak, Erromako erregeak ekarri oi zutela granazko mantoa, ezarri zioten Jesus maitagarriari oialtzar gorri erdi-urratu bat; eta ezarri zioten ezin moldakaitzagoan, ta guztiz baldanki, begira zegozkanei, ta ekusten zuten guziei, obeki eragin naiez irri ta farra.

Baña, zein ere andia zen era onetan bere burua ekustetik Jesusek izandu zuen damu atsekabea, soldaduen oialtzarrak eta irriak baño atsekabe ta damu agitz andiagoa eman izandu zion Jesusi bere begietan zedukan beste gauzatzar batek.- Zerk ote!- Bataiatu anitzen gerozko bizitza gaistoak. Bizitz au da alabaña Jesus maitagarriarendako bataiatuen bekatuz egiñikako oialtzar itsusi, zikin-erraien nasgarri bat; ta bere soñean au ekusteak, aldi artan Jesus maitagarriak ekusi izandu zuen bezala, alketu bear zuen, ta illundu, gure Jesus maitagarria, soldadu guzien irrizko soñekoak baño milletan ta anitz geiago.

Au dakizun ezkerro zuk, bekatari txar bataiatua, ez ote dituzu utziko oraindañoko zere oialketak, edo bekatu-bideak? Leneko bide galgarri berez ibilli uste

dezu, ta Jerusalemgo soldadutzar galduen ondoren, datozen denboretan ere? Egunen batez damutuko zaitzu, bai, segurki! Eta izain ez ote da beranduegi?

2. Erromatar soldaduak atziña doaz beren egitekoan, edo gure Jesus maitagarriaren alkekizun bideetan. Billatzen dituzte zenbait elorri-adar, arantz luze gogorrez ongi beteak. Egiten dute arantz oriez Jesusek bururako korotzar gogor izugarri bat.- Koro au oriek egitean, kupide zituzten beren eskuak, eta zula zekizten beldurrez zebiltzan; baña, au oriek egin orduko, batere beldurrik gabe, ta, kupidetasun guziak aldebat uzten zituztela, ezarri zioten Jesus maitagarriari (ta gogorki alere) bere buru nekatu guztiz minberean; ta utzi zioten Jesusi bere buru guzia oñazez beterik, eta odola-ta-odola zeriola.- Andia da nonbait, gure Jesus maitagarria, zure odolarekin zure etsaiak duten tirria, orrenbat aldetara ta orren bortizki oriek ori zuri ixurrezaten dizutenean!

Bai: baña; ta ez ote da izandu Jesusen etsai gogor orientaren erakoa, ta agian oriena baño ere agitz andiagoa, geroztik nik nere Jesus maitagarri berarekin izandu dudana?- Ez ote dira, Jesus maitagarriaren buru bera zulatzen duten arantzak nere oraindaño

antusteak, nere arrotasunak, eta nere asmazio gaisto ta oroitzapenak, edo pensamentu likis galduak?

Bai; ta, Pilatosen soldaduenak, eta Jesusen etsai gogor guzienak baño ere agitz gogorragoak: bada soldaduak etzekiten nor zen Jesus, nik dakidan bezala; ez eta Jesusen etsaiak ere; ta, ez jakiñean egiten den txarkeria baño agitz gaistoagoa da jakiñaren gañean eginikakoa: ta orregatik ni nere Jesus onarekiko, arantzez burua zulatu zioten soldaduak eta beraren etsaiak baño gogorragoa izandu naz, ta odoltiagoa. A zer bataiatua ni! A zer gure Jesus maitagarriaren umea!

3. Eskuan ere badute erregeak, erregeak diralako beren siñua. Siñu au da urrezko edo zillarrezko Zetroa deitzen den bastoi-modu eder polit bat. Bastoi, edo erregeen Zetro onen orde, eman zioten Jesus maitagarriari erromatar soldaduak kañabera puskatzar uts bat; eta au ere, len ezarri ziozkaten koroaren, ta errege-mantuaren erako bastoia, edo zetroa zen.- Zetro, bastoi, edo kañaber uts au bere eskuan zeramala; bere buruko loak eta bazterrak urratzen ziozkan arantzeko koro latza bere buru berean ongi-ongi, edo agitz, sarturik zedukala, ta, erdizka baizik, estaltzen

etzuen oialtzar gorri au lepotik zuela, errege zein irri-garria Jesus erromatar soldadu arroendako!

Eta neretzat zer Errege ote da gure Jesus maitagarria?– Nere oraingo naiez beintzat, guztiz maitagarria; bada nere onerako dira, ta zeren guztiz maite naben ni, aldi onetan gure Jesusek ekusten dituen, edo daramatzien irri ta ista, txarkeri, neke, ta bidegabe guziak.– Gure Jesus maitagarriak nai izatera, itz bian (baita batekin ere) illotzak, elbarrituak, edo, eskurik ezin darabilkeen eran utz litzake an bertan ekusten dituen, ta munduko soldadu guziak; baña ez die deusik Jesusek egiten, ta uzten die soldutzar berei, dagitela berak Jesus berarekin, gogoak berei ematen diena; ta guk geren eskuz, buruz, ta gorputzaren zati bakoitzarekin egin ditugun zor guzien alde, artzen du Jesus maitagarriak bere soñean, ematen dioten oialtzar alkegarria; artzen du bere buruan, buru guzia urratzen ta odoltzen dion arantzazko korotzar odolti-urratzallea; baita bere eskuan ere errege eroaren zetroa, edo aizez beterikako kañabera.– Nigmatik onenbat egiten duen Erregea, nola neretzat izain ez da Errege guztiz maitagarria?

Baña maitatu dut nik Errege, onen maitagarri au, edo nere Jesus onegia?– Ez anitz, geienetan beintzat?–

Eta maitatuko dut nik gaurdanik asi, ta nere ill arteko denboran?– Bai baldinbere! bai, nere Jaungoiko maitagarria: bai arren, bai!

C.

Egiten diozkate Jesus maitagarriari soldadu gogorak beste anitz ista, ta gauz arrigarri

Erromako soldadu-jentil eroentzat errege irrigarria zen gure Jesus maitagarria; ta Jesusi zegozkan zenbait istekin irriz, ta farraz ase-naiez, egin ziozkaten Jesusi beren agur txarrak, eta agurren erako gauzak.– Erregez jauntzirik ekusi zutenean gure Jesus soldadutzar oriek, joan izandu ziran Jesusen oñetara; ta, belaun bana lurrean zutela, asi zekiozkan istaz erraten: ordu onean, errege jauna; bizi luzea dizula zere Jaungoikoak, juduen errege andia; baita judutar guzien bazterrak zuzen erabiltzeko, bear den jakindea, dirua, ta gañerako guzi-guzia ere.

Au oriek Jesusi erran ondoan, listu zikiñez bete zioten bere aurpegia: ta orietatik batzuek eskuz bere aurpegian, eta besteak bere eskuko kañaberarekin

buruan, orduko sarturik zedukan arantzazko koroaren gañetik eman izandu ziozkaten ukaldi arrigarriak.

Orra Munduarena, bai! Munduan arkitzen diranetatik anitzek egiten dute, Judasek egin izandua; edo, edozein ondasun, atsegin txar, edo ondra-aize irabazteagatik Jesus saltzea, edo beren Jaungoikoaren Lege ona urratzea: ta beste anitzek oraingo soldaduena.- Soldaduak egin zioten Jesus maitagarriari irri ta ista: ta egin zioten ori, an begira zeuden guziak ekusten zutela: ta berebat egiten dute anitz mundukok ere; bada beren gaizkiak egiten dituzte, nornai oriei begira egonagatik.

Etzuen, ez, era orretan egin izandu Judasek berea: gordean, agur onaren idurian, adiskidetasunaren siñuarekin, ta Jesus maitagarriari erraten ziola: *Jauna lagun dakizula, nere Maisua*, egin izandu zuen Judasek berea. Orra Judasen agurrak izurriz beteak, eta Jesus onarendako listuka zikiñak, eta ukaldi gogorrak!

Era berekoak dira anitzek Jesus maitagarriari egiten diezkatena; eta dira listuka zikiñak, eta ista guztiz arrigarriak.- Belaunikatzen dira anitz konfesariaren oñetan, ta aitortzen dute anitzek gure Jesusen Jaungoikotasuna; baña Judasen eran, edo itzez bai, ta biotzez ez.- Itzez an anitzek diote, bekatariak dirala

berak; eta, guzia dakien Jaungoiko berari erraten diozkatela, aren ordez dagoen konfesariaren belarrian beren obenak; eta erraten diozkatela, diranak diran bezala, ta bat bakarrik ere uzten ez dutela; ta erraten diozkatela, bekatu berririk ez egiteko asmo osoarekin; ta, len egin zituzten guzien barkamentua erditsi naiez.

Baña itz utsez diote oriek au guzia, ez biotzez: ta, diardukatela dirudi, oriek orretan ari diranean, Jaungoikotasunik ez duen Jaungoikoarekin; edo munduan gertatzen denaren berririk ez duen Jaungoikoren batekin.

Nola bada?- Zeren, era orretan konfesatzen diranetatik batzuek gordetzen diozkatzen konfesariari, egin dituzten bekatuetatik zenbait, edo bat edo bertze; edo, guziak ari oriek erran arren, erraten ez diozkatzen, diran eran, ta beren saiets guziekin.- Zeren besteak erraten dituzten berenak, osoro, bai, ta bear bezala; baña egin zituztelako urrikimenturik gabe; edo zeren oriek, dituzten oben guziak erranagatik, erraten dituzten uzteko asmorik bage.

Oriek guziak, bada, agur andiak Jesusi konfesategian itzez ta buruz egiñagatik, eta damuz bularrak urratu nai dituztelako idurian an egonagatik, ekusten ditugun soldadutzarren ta Judasen erako agurgilleak

dira, ta orien itzak eta konfesione guziak Jesusen aurpegirako listuka zikiñak.- Era orretako konfesione bat egin ondoan, oriek gero komunioratzen badira, aritzen dira, komunione uts gaistoaren kañaberarekin Jesus maitagarriari ukaldi gogor gaistoak ematera.- Baña, au guzia ala izan arren, edo izanagatik, lurrekoen begietan belaunikatze, ta agur eder ona da orien era orretako konfesa-komekatzea; ta orregatik da Judas galduaren langiro gaistoaren erakoa.

Beste anitzek egiten diote Jesusi zerbait agur, Meza enzutean, Bazkoetako komunionean, ta era orretako beste gauzaren batzuetan; baña oriek, ori egin orduko, istaka dagozka Jesus maitagarriari, ta irrizka ta ukaldika, oraingo soldadu gaistoen eran, ta ageri-agerian; bada agerian egiten dituzte oriek, nork daki zenbat juramentu ta maldizione, nork daki zenbat lotsagabekeria, aserretze, ta gaizki.- Eta, berenei guti eritzirik bezala, billatzen dituzte oriek beren erako lagunak, oriei ere beren irri-abarretan istetan ta langai gaistoetan eman naiez zatiren bat.

Atozea zu; ta era onetako jenda-giroetatik ez dira arkitzen egun anitz eta anitz? Eta ez dira arkitzen beste anitz, len agertu ditugunetatik ere? Eta atozea: ez dira oriek, egun artan Jesusi, Pilatosen soldaduak

baño ere atsekabe ta damugeiago ematen dioten jendeak?– Eta ez ote naz izandu noizbait ni ere jendagiogaisto orietatik beretatik? Ez ote diet lagundu nik oriei, noiz edo noiz, beren ista ta irri zikinetan; ta beren kañabera ukaldi, edo bekatu gaistoetan?

Ai nere Jesus maitagarria; baita, bein edo berriz ezezik, zuk dakizun adinetan ere!– Eta zer dakit nik egungo egunean ere nola, ta zertan nabillen ni, edo nolakoak ote diran oraingo nere konfesionek, oraingo nere komunioneak, eta gañerako nere gauzak! Bear bada leneko nere konfesionek guzien konfesionek oso jeneral bat eskatzen dutenak!

Egin bear den guzia egin naiez nago ni gaur, ta leneko nere egin gaisten damu arrigarriarekin. Barkatu bear dizkidatzu gaur niri guziak, nere Jesus maitagarria; ta bidenabar adirazi zadazu nolerebait nere zorren alde, ta zuri atsegin egiteko egin dezakedana: bai arren, Jesus maitea, bai!

Super dolorem vulnerum meorum addiderunt.

Ps. 68. 27.

Orain, bai, orain erran dezakezu zuk gure Jesus maitagarria, zure izenean, aspaldi dela, Dabidek erranik dadukan gauza guztiz egiazko bat; edo: Oñaze berriak billatu dituzte neretzat nere etsai gogorrak eta Erromako soldaduak. Urratzez, zauriz, ta oñaze biziz beterik nadukate ni nere etsai gogor oriek, oriek berak beren azot-ukaldiz illtzear nindutenetik, orain arteko denboran!

Nere zauriei, edo nere aragi, orien azot-ukaldiz urratuari itsasiak daude orain nere soñekoak; eta oriek niri kendu naiez dabilta nere etsaiak; eta kentzen ere dizkidate, tiraka ta nai duten bezala, ta oñaze berriz ni lerrerazi naiez dabiltzanen eran. Eta zenbat nere nekerekin! Zenbat nere min berri ta oñazerekin? Ekusten dezu!- Baña au guzia daramat nik nere Aita Eterno maitagarriaren izenean ta ondretan, ta guziguzia daramat nik denbora berean, beren bekatuekin onen gaizki narabilten bekatari gaistoen onerako: ta orien onerako gerta dedilla nere oraingo neke au guzia, nere Aita Eternoaren ondretan bezala. Orra oraingo Jesusen itzketa.

Eta zurea? Zer erraten ote diozu zuk zere aldetik, eta ordañez zere Jesus nekatu maitagarriari? Zer erran dezoket nik bekatari txar zentzu gutizko esker-

gabeak? Erdi-mututurik nadukala, nik au ekustean, nere oraingo lotsak eta alkekizun izugarriak.- Nigatik, eta nere bekatuakgatik gure Jesus maitagarriak onenbat enoju, onenbat neke, ta onenbat oñaze! Ni bezain bekatari txar errebesagatik gure Jesus maitagarria soñekorik ere bage gaur, ta lotsaz erdiratua bezala! Ni bezain bekatari txar zirtzillagatik, gure Jesus maitagarriak gaur oñazeak oñazeen gain, ta odol-isurtze berriak!- Eta alere ero bat bezala ni, Jesusi begiratu bage ni, Jesusek niri didan amoreagatik, eta onek arrerazi derozkan neke gogorren eskerrak emateko?

Ez al da gaurgero onelakorik gertutuko berriz bein ere? Gogoango al dut nik aldi onetan, ta beti, Jesus maitagarriari zor diodan bazterrik bageko bere amorea? Eginen al dut gaurgero beti nik nere alegiña, nere nekeak artuz nik Jesus beraren izenean, ta zuzen-zuzen ta bizi-ro narraikola ni, bizi-nazaño, lengo nere utsak ateratzeko?- Bear nuke beintzat; eta naiez nago, ta ori guzia zuzen egiteko asmoan, laguntzen didazula zuk zerorrek, nere Jesus maitagarria. Egizu anbat; bai arren, bai!

*Quid est homo, quod memor es ejus....
gloria et honore coronasti eum...
omnia subjecisti sub pedibus ejus.*

Ps. 8. 5.

Zer da gaur, Jesus maitagarria? Zer da gaur nik dakusana, ekusten zaitudanean nik zu mendiko kororekin, ta irriko errege baten eran?- Zure buruak bere edertasun guztiz andiarekin liluratzen ditu Aingeru-Serafinen begiak, eta Aingeru Serafinak alkez ta lotsaz daude, zugana oriek jatsotzeko; baña erromatar Pilatosen soldadutzar arroak alkerik batere bage begiratzten diote zure buru berari; ta munduko gaistagin andienaren buru bat baliz bezala, ezartzen diote arantz zorrotzeko korotzar arrigarri bat, eta uzten dute oñaze latzez dena, ta odolez ongi betea!

Gizonen gogorregiak, era orretako soldadutzarrak; eta zuek egin dezutena! Ekusten dezute zuek, dagoeneko ere, zertara den zuen lantzar izugarri gogor orregatik Jesusen buru nekatu minbere au? Bazter guzietatik odola dariola dago, dagoeneko ere! Ain zorrotzak dira, ta anbat dira izatez, zuen eskutzar baldanez sartu zaizkan arantza luzeak!

Begira! Begira! Iturri andiak dirudite Jesusen buruko bi loak; eta orietatatik, eta bere bi begien gañetik darion odolak itsuturik bezala daduka, ta aurpegi gustiz busti bustiarekin gure Jesus maitagarria! Ekusten dezue? Eta alere etzaizkate zerbait urrikaltzen Jaungoiko-gizon orren nekatuari? Zeer? Burutik atera bear diozue Jaungoiko-gizon oni, borrero gogorren azotukaldiei gelditu zaien odol zatia?- Ken egiozue lenbaitlen, ezarri diozuen arantzezko zeren korotzar gogoregi ori.

Ezetz diote soldadutzar gogorrak!

Eta zer ote da orren gain gure Jesusek diona?- Ongi dagoela dio Jesus maitagarriak: eta eraman nai duela, gizonen onerako, arantz oriek ematen dioten neke guzia, ta odol ixurtzea.

Baña nor gara gu, gure Jesus maitagarria, orrenbat zure nekeren artean orren gogoan gu zuk idukitzeko?- Gu gara gu, Dabidek dionaz, gañerako guzia geren onerako zuri, gure Jesus onegia, eragin genizun gauza; ta gu gara, nor bagara gu, ta gu ongi bizi ezkerro, ondrazko ta gloriatzko koroekin zeruan beti ta beti egon bear dugun zure zorioneko umeak.

Au guzia irabazten, guri lagundu naiez, darama gaur gure Jesus maitagarriak bere arantzezko koroa-

ren neke, ta odol-ixurtze guzi-guzial- Eta zer eraman bear ote dezu zuk, onenbat amoreri nolerebait zuk erantzuteko?- Nik neronek eraman ala, ta gure Jesusek nai duena.- Ala bear zenuke; bai, baña beldur naz ni, asalda zaitzan zu, zuk uste etzenuen lenbiziko itzak, edo bidegabeak. Ez arren, ez, nere Jesus maitagarria, ez!

*Tradent eum gentibus,
et illudent ei, et conspuent eum.*

Marc. 10. 34.

Zein izugarriak, aldi onetan soldadutzar gogorrak Jesusi eginikako istak! Ongi gogoan artuak erabilli zituen oriek, bai, gure Jesusek bere bizitzan; eta agertu ere ziezten nola-ere-bait (baita bein baño geiagotan ere) bere Apostolu maiteei. Bai, erraten ziela, bai: azot-ukaldiz ni borrero gogorrak urratu ondoan, utzi bear naute ni nere etsai sutu-galduak soldadu jentilen eskuetan: ta niri soldadutzar oriek egin bear didatena!

Epeñiko, edo utziko naute oriek ni, nork daki nola! Eta, ongi urrikagarria egonagatik nerez ni, oriek ni artzen nautenean, etzaizkit, ez, urrikalduko batere.-

Zarrez jauntzirik, eta, ez dagozkidan gauzak ematen dizkidatela, utziko naute oriek ni, artzen nautenean baño ere milletan urrikgarriagoa. Eta zenbat ere nere egotez orduan ni urrikgarriagoa, anbat irri ta ista zikiñagoak orien eskutik artu bearra naz ni.- Au guzia, ta anitz geiago adirazi nai zien bere Apostoluei Jesus maitagarriak, erran zienean: *Israeldarrak utziko naute jentilen eskuetan ni, ta oriek egiñen didate niri ista ta irri; ta ariko zaizkit listu ta listu.*

Eta ez ote dut egin nik era onetako zerbait gauza itsusi gure Jesus maitagarriarekin? Bekatuaren azotukaldiz urratu ondoan, ez diet utzi nik nere Jesus maitagarria beren esku zikinetan nere aztura ta pasione galduei? Eta nere pasione galdu-loiak, eta aztura zikin likitsak egin ez diote Jesus berari bein, ta berriz, ta askotan ta askotan ere, ista ta irri?- Eta zer da au guzia baizik, oriek ni erabilli nauten eran ibiltzea, gaizkiz gaizki, bekatuz bekatu, ta loiez loi? Eta au ez da ista ta irri nik nere Jesusez egitea? Au ez da, Jesusen Legean bizi nai dudala nik erran, ta Lege bera ni loitzen, zikintzen, ta urratzen ibiltzea?- Ista da, bai: irria da, bai; ta ist-irri, soldadu jentilenak baño agitz geiago Jegusi begitan ematen diona!

Eta ez ote diot nik, nere ist-irrien ondoren, listuka ere eman izandu nere Jesus maitagarriari?- Zer ote ziran Jesus onarentzat nere erdizkako konfesioneak; nere damurik bageko konfesioneak; eta nere ontzeko asmorik etzekarten konfesioneak?- Zer, baizik ni nere Jesusi bere bearrietan ematen niozkan listukak!

Eta zer ote ziran, bear bezala ni konfesatu bage, ta ni bekatutik konfesiara ta konfesiotik bekatura nenbillela nik egin oi nituen, komunioneak?- Zer, baizik nik nere Jesusi bere begi ekuste ederretara tiratzen niozkan listuka zikinak!

Onela bizitu naz ni; ta alere onen aisolakabeen? Au ezagutzen dut orain nik, berandu badere; ta etzait damuz lertzen niri nere biotz txargalgarri au?- Ez egiazki! baña urrikiturik nago nere gaizki egiñaz; ta berriz ez egiteko asmoan. Eta, asm-onen señaieren bat eman naiez, diot; eta alik zinkiena: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

LX.garren OTOITZ-GAIA

**PILATOSEN, TA JUDATARREN,
BI JARDUKI ALDITAN
GURE JESUSEK EKUSTEN DUENA**

A.

**Agertzen die judutarrei
Jesus Pilatosek
era guztiz urrikgarrian;
ta itz egiten die onen alde;
baña alferrik**

Pilatosek ekusi zuenean, Jesus maitagarriarekin soldadutzarrak egin izandu zutena, illundu zitzaion bere biotz barren guzia; ta berari iduriturik, era artan Jesus ekusi ezkeru, berebat gertatuko zitzaiela judatar gogorrei: ta orien gertaer au ekusi naiez, agertu zen beren begietan Pilatos jueza; ta agertu zen an Jesus urrikgarria bere ondoren zeramala.- Begiratzen die bada Pilatosek judatar guziei; ta zegoen era urrikgarrian Jesus agertzen diela, erraten die Pilatosek: Ona non dakardan, ta ona zer eran, ta zer itxuran onako

zuen gizon au; ekus dezazuen zuek, ez dudala nik obendun arkitzen au, zuek eskatzen dezutena nik onekin egiteko.

Pilatosek Jesus au oriei agertu zienean, arkitzen zen Jesus maitagarria erdi-agerian, zauriz, edo eridaz zen guzia guztiz betea; ta odoletan sartua zirudiela, odola odolaren gain zeriola; olaltzar gorri irrigarri bat lepotik zuela; ta bere buru minberean arantz zorrotzeko koro izugarri bat agitz sarturik zeramala.- Eskuak loturik eramain zituen Jesus maitagarriak, presondegiko gizonak bezala; ta eskuan eramain zuen soldaduak irriz ezarri zioten kañabera.

Begietatik aterako ziozkaten agian Jesus maitagarriari zenbait negar-malko, bere buruan sarturik zeduzkan, ta oñazez betetzen zuten arantza zorrotz gogorak; eta negar-malkoak jaitsiko ziran Jesusen aurpegitik, berari bere burutik zetorkion odolarekin nasteka.- Aurpegiko kolorea orduko galdurik zedukan, eta illarena zirudiela, gure Jesus maitagarriak. Begiak andituak eramain zituen, ta zuen oñaze andiarekin erdi-estaliak: anbat izandu ziran, ta alakoak, Jesusek orduko arturik zeduzkan esku-ukaldiak: eta bere arpegi guzia idukiko zuen Jesus maitagarriak odolez, ta listuz, ta ukaldiz ezin galduagoa.

Belaunetan ezin izan zezaken Jesusek orrenbat indar ta gozo. Nai-ta-ez otzez igaroa arkitzen zen Jesus bera, ta erdi galdua; otz denbora zen alabaña, Jesusen neka-denbora anitz zen Jesusi ordukotz atera zioten odola; luzaro iduki zuten Jesus soñekorik bage; ta orduan ere etzedukan Jesusek oialtzar urratu, lepottik zerion bat beste soñekorik. Era onetan, bada, ta ezinbestez bezala; erdi makurtua, ta oñak nekez zera-biltziela, agertu zien judatar gogorrei Jesus Pilatosek; eta erran zien, lenez gain: *Ecce homo*: ekusten dezute zuen gizon au. Nik lenago ere anbat aldiz adirazi dizutedan bezala, ez dut gizon onen baitan arkitzen obenik batere, ekusi baditut ere bein ta berriz, ta geia-gotan, zuek onen gain erraten, ta ezartzen dituzuen gauzak; eta ekusi ditut zuek zerok begira zaudeztela, ta zen guzia aditzen zenuzela: *Et ecce ego ooram vobis interrogans, nullam causam inveni in homine isto ex his, in quibus eum accusatis.*- Ala ere, erran nizuen nik emain niola zerbait kastigu, eskuetatik nik au utzi baño len *Emendatum ergo illum dimitam*; ta ekusten dezue, zein andiak ta zein arrigarriak diran, nik oni eman izandu diozkadan kastigu-nekeak.

Eta nola-ere, Pilatos jaun, juez gaistoa, nola-ere! Obenik ez duela diozu zuk orrenbat bider, ta aldiz,

gure Jesus maitagarriak; eta zearazten dezu zuk Jesus maitagarri bera munduko obendunik andiena zearazi liteken baño ere agitz gogorkiago!- Ez dela, diozu zuk, zergatik eman kastigurik batere Jesus maitagarriari; ta eman-erazi diozkatzu zuk zerorrek, nork daki zenbat, guztiak gogorak, eta bata baño ere bestea agitz gogorragoa!

Begira egiozu zuk astiz, ta burutik onetaraño, or dadukazun Jaungoiko-gizon Jesus maitagarriari, ta ekusiko dezu nola dadukaten ori zure kastiguak! Badu geiagoren bearrik Jaungoiko-gizon orrek or bertan, edo anitz luzatu bage, guztiz odolez ustua, ta illotza gelditzeko? bada, gelditu zaion odol-apurra bere buru guztik, eta azot-ukaldiz egin zaizkan anbat zulotatik dariola, ta dariola dago!- Zer itxura, denbora berean, Pilatos gogorregia, zure kastigu luze baldanak gure Jesusi utzi diotena?

Oraintxe, bai, oraintxe ekusten dut nik, nere Jesus maitagarria, egia ziola profeta Dabidek, zuri urrutitik begira zegokizula, zure izenean aldi batez erran izan du zuenean.- Ez naz ni, ez, zion Dabidek, giz-idurian edo aintzuran arkitzen nazan gizona; bada, guziak oinpean dakarten arra bezala, erabilli naute ni bart eta gaur nere etsaiak; egin dute nitaz oriek gogo zutena;

ta utzi naute ni, dakusazun eran, ta gizatzarren arteko txarrena baño agitz txarragoa dirudidala: *et abjectio plebis*. Ps. 21. 7.

Etzara zu, gure Jesus maitagarria, Dabid profeta berak dion bezala, *speciosus forma prae filiis hominum* (Ps. 44. 3.), edo lurrean agertu den gizonik ederrena, ta bere gauza guziak itxurarik onenean, edo ezinobeki zeduzkiena! Nola gelditu zara, bada, orain zu, zu orain zauden eran? ta nola orrenbat zikintasunez ingurutua, ta orren urrikalkia?

Asm-al adiña baño umiltasun agitz andiagoa zen zu, Jaungoiko izanik (zaran bezala) gizon egitea: egiñagatik zu gizonik ederrena: ta gizon naturalezaren ta graziaren doai guziak dituzuna, dituzun bezala. Bada zer eratako umiltasuna izain da zu, gizon egin ondoan, gelditzea, gelditu zaran eran, edo gizonaren izena utzi, ta arrarena ar dezakezun eran? *ego sum vermis, et non homo*.

Orra, Pilatos: orra zertara duten gaur zure kastinguak, obenik bageko gure Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria!

Zergatik ori!- Urrikal dakiozkan judatar gogorak, dio, era orretan ori ekusten dutenean.- Bai! on dagi-

zula, bai, juez ez zuzen Pilatos! Laster ekusiko dezu zuk, bai, judatarrena!

Ekusi zuen, bai; ta bere atsekabe andiarekin alere.

Judatarrak ala Jesus ekustean, etziran, ez, urrikaldu batere Jesus maitagarriaz; ta, Jesusez urrikaldu lekuan, asi ziran an bertan, gizon amurratuen eran, bazterrak ojuz urratzen, erraten zutela: *crucifige, crucifige eum*: bai, ongi dago, Pilatos, ta guztiz ongi, gizon orrekin zuk oraindañoan egin izandu dezun guzi-guzia; baña zere ongi asi au lenbaitlen buka zazu zuk. Ez dezu zer gelditu, eginkizun arkitzen zaitzun guzia zuk egin artean: edo gizon-gaistagin zeatu orri, gurutze batean iltzez josirik, bere bizia kendu artean: *crucifige, crucifige*.

A zer musika, Jesus maitagarria, zuri zerbait arintzeko, zere burutik oñetaraño zuk orain dituzun zere min-oñaze arrigarriak!- Alare zure oraingo neke-oñaze guziak baño, oñaze-min geiago ematen dizute zuri zere biotz maitari minbere orretan, zu eta orrelakora zaituzten judatar gogorrak; bada ekusten dezu zuk, oriek orain zurekin duten gogortasuna; ta ekusten dezu, oriek beren gogortasun orregatik, denboraz ekusi bear dutena: edo ekusten dezu zuk, uzten zaituztela orain oriek zu Erromako enperadoreagatik; eta

alere laster oriek galduko dituztela erromatar enperadore berak Jerusalengo beren erriarekin, ta erri eder orretako gauzeekin.

Au guzia Jesusek ekusten duen denbora berean, ekusten dago, ekusten duen au baño gauza gogorragorik ere; bada ekusten dago, berarekiko judatar beren gogortasunak eramain dituela judatar berak (garai onez oriek oraingo makurrak ez zuzentzera) eternidade bateko sulezera: ta betiko judatar galgarrrien galtze au da, bere biotza, bere neke guziak baño geiago ta geiago, Jesus maitagarriari illuntzen diona.

Baña ez dute au judatar gogorrak siñisten: uste dute judatarrek, berei, berak zuten erreinua kendu naiez, dabillega Jesus maitagarria; ta orregatik eskatzen diote Pilatosi, ken dezala lenbaitlen Jesus maitagarria lur gañetik; eta illerazi dezala gurutze bateko neke guziekin.

Aserretu zen Pilatos judatarren onenbat gogortasunekin: ta erran izandu zien: Zer da orain zuek darausazutena! Ill dezadala nik onako gizon au?—Geiegi da oraindañokoan ere zuekgatik onek eraman duena. Ill-erazi nik au? Ill ezazue zerok, nai badezue, zeren gurutzean, edo zeren gogo gaistoak ematen dizuten eran, ta ez dezadazuela niri egiteko onetan

bururik geiago autsi: bada ez dut nik gizon onegan arkitzen obenen pitsik ere.

Bada, jauna, baditu franko ere (erantzun zioten judatar gogorak) eta bere oben ta gaistakeri oriekin agitz, ta maiz urratuak daduzka gure Legeko gauzak; eta urratuak daduzka, bere eriotza irabazteko puntu-raño.- Eta ezagu dezazun zein egiazkoa den orain guk esaten dizugun au; eta ezagu dezazun norañoakoak diran gizon orren obenak edo kulpak, errege egiteko asmoari guti eritzirik, gure Jaungoiko izan naiez dabill, ta Jaungoiko-Semea delako erausiz bazterrak betetzen dituela.- Ekusten dezu, Pilatos jauna, zer blasfemia! eta an beste obenik ezpalu ere, ez du orrek obenik aski, bizia galtzeko?

B

Ekusten du Pilatosek berriz ta berriz ere

**Jesusen oben-gabea; ta ez du alere
gurutzeko eriotzetik libratzen Jesus**

Beren era onetako erausiekin nastu zioten bere burua, judatar gogorrak Pilatos juez erromatarrari, ta utzi zuten, zen guzia; zer egin etzekienaren eran.

Sartzen da Pilatos berriz bere Salara, ta galdetzen dio Jesus maitagarriari: Nongoa zara zu, gizona, edo noren umea; edo zer da, or dauden Apez, ta gañerako judatar oriek, daraustena?

Bazekien Jesus maitagarriak, batetik ongi ezagutua zedukala Pilatosek beraren obenbagea, edo inozentzia; ta bestetik, etzegoela Pilatos siñisteko, galde-tu zionaren gain eranzun bear ziona (erantzutekoan); bada erantzun bear zion Jesusek Pilatosi, erantzuten asi ezkeru, agertuz Trinitateko ta Enkarnazioko, gure bi misteriorik andienak: eta orrekin etzuen Jesusek itzik atera.

Berariazko Jesusen mututasun edo isillera au ekusten duenean, erraten dio Jesus berari Pilatosek: eta zer? Ez didazu niri zuk erantzuten? Ez dakizu zuk, nik orain zurekin dagikedana? Ez dakizu zuk nai badut nik illerazi zagikedala, edo gurutze batean, edo beste nik deritzadan edozein bidez ta eran; ta nai badut, utziko zaitudala nik ill bage, edo bizirik, orain zu arkitzen zaran eran?

Ala da, bai, erantzuten dio Jesusek Pilatosi; baña begira zer egiten dezun, Pilatos; bada zure Jaungoikoak zuri emanikakoa da, zuk orretarako dezun aala ta esku guzia; ta, zuzen ezpadarabiltzu zuk, orain zuk dezun zere aal edo esku ori, kontu gogorrek eman bearra zara zu: gaizki, edo bekatu egiñen dezu zuk zere eskuaren erabillera ez-zuzen orretan: ta gaizki, ta bekatu, nere etsai judatar gogorrek egiten dutena bezain andia; ta arrigarria ez izanagatik, ongi beltz itsusia, ta eternidade bateko neke izugarrien gaia.

Au berau da Jesusek gaur guri guziori erraten diguna: bada bere errate onetan berean erraten digu guri gure Jesus maitagarriak: zuen Jaungoikoak zuei emanikakoa da, zuek guziok dezuten ala ta esku guzia.- Eman dizkitzue zuei zeren Jaungoiko maitagarriak, zuek zerok nai dezutela, zeren gauz onak egiteko zuek bear dezuten bere eskua, laguntza, ta indar guzia; ta oriek zuek egiñaz, ta eginaz, grazia ta glori anitz irabazteko bidea: baña, oriek egin bearrean, edo egin lekuan, gauza gaistoak zuek egitera, Jaungoiko emalle bera izain da zuen kontu-artzalle zuzen zorrotza, ta Jaungoiko berak zuei azkenean emain dizue lan txar oriei dagotena, edo eternidade bateko sulezea.- Begira, bada, dio Jesus maitagarriak: begira zer egiten

dezuten, Pilatos bera bezala, gaista zaitzezkeen gizonak!

Etzara beldurtzen zu, bekatari txarra, Jesusen era onetako erran orrekin? Ez? Beraz ongi gogorra zara zu: ta, dirudienaz, Pilatos bera baño ere agitz gogorragoa: bada beldurtu zen Pilatos zuri orain adirazi zaitzunarekin; ta asi zen Pilatos bazter guzietan bide billa, gaizkirik ez egiteko, ta gure Jesus maitagarria judatar gaistoen atzaparretatik atera naiez.

Bazuen orretarako Pilatosek besterik ere. Ezkondua zen Pilatos; ta, judatar gogorren atzaparretatik Jesus atera naiean zebillen denboran, gaztigatu zion bere emazteak Pilatos berari: Begira, gizona, begira, zertara zoazen! Begira zere buruari; ta begira, ta kontu, zere eskuetan dadukazun obenbageko gizon orrekin: bada agitz izugarriak dira gaur niri adirazi zaizkidan gauzak, eta guziak dira orri dagozkanak, ta orren ontzalleak.

Bere emaztearen mandatu onek adirazi zion Pilatosi, oni beroni len Jesusek adirazia; bada, orain bezala, len ere adirazi zitzaion Pilatosi, egiten bazuen Jesusen gain egin bear etzuen; ta illerazten bazuen obenik etzuen gure Jesus maitagarria, atsekabe ta neke arrigarrietan sartuko zuela berak bere burua; ta, Jesus

onagatik ezpazen ere, egin zezala zuzen egin bear zuena, bere onagatik, eta eternidade guziko gaitzaren beldurrez bazen ere.

Baña bere beldur au kendu zioten judatar gogor-rak Pilatosi, edo bere beldur guziarekin eragin izandu zioten berak nai zutena.

Beldur au ari ken-erazteko; ta naiz beldur, ta naiez ez, ari eragin naiez berak nai zutena, asten dira juda-tar gogorrek ojuka, ta beren beste gisako beldur bat Pilatos berari arrerazi naiez, esaten diote: Ongi da, Pilatos Jauna, bai, ongi da, Pilatos Jauna, bai ongi da: ori bizirik zuk uztera (etzioten Jesus maitagarriari bein ere deitzen bere izenarekin: ain gogorki begiratzen zioten judatar galduak:) ori bizirik zuk uztera ez diozu ongi nai zuk, ez, zere Erromako enperadoreari, edo zere nagusiari, bada adiskidetzen zara za, zure nagu-si enperadorearen etsai orrekin, edo, ari emengo erreinua kendu nai dion orrako gizon gaistagin orre-kin. Egizu, baderitzazu, Pilatos Jauna; egizu zuk lan orise; ta adiraziko diogu guk Erromako zure nagusiari zenbat zor dizun zuri, bere orde z emen zaduzkanari.

Au judatar gogorren ezpañetatik aditu orduko, bel-durtu zen Pilatos gizajoa; ta Erromako bere nagusiare-kin gaizki gelditzeko beldurrez, etzion kasorik egin

izandu bere emaztearen mandatuari, ez eta beste munduko etorkizunari ere; ta, itsu-itsuan bezala, eman izandu zuen gurutze batean iltzez josirik Jesus illerazteko sentenzi gogor ezin makurragoa: ta, gizon baten ongi naia ez galdu naiez, galdu izandu zuen Pilatos gizajoak bere Jaungoikoarena, galdu izandu zen Pilatos bera beti, ta betiko; ta lertzen, ta erretzen dago orain, ta era berean egon bearra da eternidade guzi-guzian.

Beldurtzen ote nau ni, Pilatos ez bezala, gaizki bizi diranen eternidade bateko sulezean egon bearrak; eta beldur onek eragozten ote derezkit niri, ara daramaten oben kulpak eta bekatuak?

Ai ene! Zenbait aldiz bai noski; baña ez bear bezala beti, ta uts egin bage! Bada askotan, ta askotan ere ez nintzan oroitzen ni etorkizunaz; ta bein aragi gais-toak, bere oroitzapen lizun, naikunde loi, ta atsegin zikiñekin, eta beste zenbaitetan nere lagun galduak beren erranekin ta etsai gordeak sutuz ta sutuz ni, eragin izandu derozkidate anitz gaizki ta bekatu: ta, orietan nik uste nuen onagatik, galdu izandu dut nik nere Jaunaren grazia; galdu izandu dut nik eternidade bateko gloria, ta galdu izandu dut azkenean nik nere burua.

Baña beti-betiko!- Bai, bide on bat artu ezpadut nik gerozko nere denboretan, edo ori orain nik ez artzera. Bai, gogortzen ezpanazaie ni nere sulezeko etsai galgarriei, oriek dioten gaizkirik ez egiteko: ta bai baldin gogoan arturik nik gure Jesusek diona, edo, bai dela emendik atera ondoko kontu-artzalle jakintsu zuzen zorrotz-zorrotz bat, egiten ezpaditut nik nere legeko gauzak, eta nere Jaungoiko maitagarriak adirazten dizkidan beste guziak.

Nere Jaungoiko berak didala, artarako bear den bere laguntza ta grazia. Bai, ta anitz geiago ta geiago ere. Bai arren, bai!

Ecce homo.

Ioan. 19. 5.

Begira zaiozn, gizon zentzugabea; begira zaiozu, arantzazko bere koroarekin, oialtzar gorri batez inguratua, ta kañabera bat eskuan duela, Pilatosek erakusten dizun Jaungoiko-gizon oni.- Gizona dela, dio Pilatosek: *Ecce homo*; ta ala da; baña ez du, ez, Pilatosek uste zuen gizon utsa gure Jesus maitagarria; Jesus da alabaña Aita eternoaren Seme bakar Jaungoiko, gure

amorez gizon egiñikakoa; ta orregatik da gizonen, ta Aingeru guzien buru maitagarria. Jesus da, gure bekatuak bere gain arturik, orien alde orrenbat neke daramatzien Jaungoiko-gizon ezin altsuagoa. Jesus da, gure guzien onerako daramatzien bere nekeekin, gizonaren aintzura ere erdi-galdua dadukan gizon-Jaungoikoa.

Begira ezperen, zuk au siñisten ezpadezu: negarrez ta odolez illunduak daduzka Jesusek gaur bere bi begiak! Niri ongi naiez, edo ongi nai onek arrerazi diozkan nekeakgatik dago Jesus gaur bere aurpegiko koloreak galuriik, eta den guzia, eskukaldiz, listuz, ta odolez bete-betea!- Begira: burutik odola dariola dago gure Jesus maitagarria; ta bere gorputz guzia daduka zauri, urratze, ta odol uts egiña!- Orra zer gizonaren aintzura, guri gaur gure amoreakgatik gure Jesusek agertzen diguna! Bada zein ere iduri galduzkoa den, Jaungoiko-gizon ezin-ederrago batena da; ta, nere amorez era onetan arkitzen den Jaungoiko-gizonarena.

Ongi: ta zer ez diot nik zor, nigatik onela dagoen Jaungoiko-gizon nere Jesus maitagarriari?- Eta zer ez diot nik zorko emendik aitziña, nor banaz ni, ta nik Jesus berari erkatzera, aldian aldiakoa; baldin ori nik

eskatzen badiot, ume onaren eran, leneko bere ontar-
te guziakgatik eskerrak emanaz, oraindañoko nere
zorrak ongi ezaguturik, eta orien, edo nere uts guzien
damu andiarekin? Ori nork, ongi beintzat, adirazi?

Eta ez ote dut gaurgero nik nere Jaungoiko-gizon,
onen ongillea, ta niri ongi egin nai utsez onenbat neke
ta pena daramana, ziñez ta ziñez maitatu bear!- Ez
ote ditut nik artu bear, alik emekiena, ta Jaungoiko-
gizon beraren izenean, nondik-nai niri datozkidan
neke ta naigabe guziak?

Nai nuke beintzat, Jaungoiko-gizon berak niri
laguntzen didala. Lagun zakizkit bada, nere Jaungoiko-
gizon Jesus maitagarria: bai arren, bai.

Ecce homo.

Orra, erraten dizu Jesusen Aita eternoak; orra
Jaungoiko-gizon-Jesus nere Seme maitagarria. Orra
nola dadukaten gaur nere Seme maite ori bere
etsaiak; eta orra nola ta zertan ari den denbora
berean nere Seme Jaungoiko Jesus bera.

Andiak dira, bai, bere etsaiak nere Seme maite
Jesusi egin izandu derozten istak eta txarkeriak: baña

agitz eta agitz andiagoa da, Jesusek berak ista ta txarkeri orien artean dadukan umiltasuna.- Orra zein beartsu egiñik utzi didaten aldi onetan bere etsaiak nere Jesus maitagarria! Estaltzeko diña ez den oialtzar bat besterik ez diote Jesusi utzi bere soñerako bere etsaitzarrak: eta nere Seme Jesus bera soñekoez gain, bere bizia eman naiez dago zure ta munduko gizon guzien onerako!- Orra, oñazez beterik dadukate burutik oñetaraño nere Seme Jesus maitagarria; ta arrizkoa baliz bezala dago, ta itzik atera gabe, Jesus bere oñaze guzien artean!

Ona, nere Seme on ori ezin ekusi dutela daude orren etsaiak, eta, lenbaitlen oni bizia kendu naiez, ojuz, ta ibilliz bazterrak urratzen dituztela: ta Jesus denbora berean oriei ongi naiez dago, ta orien, ta nai duten munduko guzien onerako pozik daramala daraman guzi-guzia, ta or bertatik eman naiez dago Jesus bere zañetan ta biotz-maitarian gelditu zaion odol guzia!- Orra bada non dagoen, dio azkenik Aita eternoak; orra, zuei erakusten dago nere Seme-Jaungoiko Jesus maitagarria, zuek nere kiko, ta zeren etsaiekiko gaurdanik egin bear dezutena.- Begira egiozu, bada, bein ta berriz, ta maiz ta maiz ere, ta egizue zuek

zuzen, nere Seme maitari maitagarriak gaur erakusten dizuten guzi-guzia.

Ongi da, Aita eternoa: begiratuko diot nik beintzat, bai, zure Seme Jaungoiko-gizon, ongi nekatu oni; baña begiratu bear diozu zuk ere zerbait zu beraz urrikaltzeko: bada Jesusen umiltasunak, Jesusen gabeak, (eta gabe, Jesusek berak bere naiez daramanak), Jesusen isillera eta pazienziak, eta Jesusek zuri dizun, ta bere etsaiei ere dien, nai andi ta amore bazterrik gabekoak diote, obenik bage daramala berak daraman guzia: ta, ongi dirudien gauza da, era orretan nekatzen denaz nornai urrikaltzea.

Eta, erraten badidazu zuk, niri, nere Aita maitagarria, Jesusek berez obenik ez izanagatik, obendun arkitzen dela Jesus, eta gure guzien obenak bere gain artuak daduzkala, aitortuko dut atsegina andiarekin, zuk orregatik diozun guzia, baña onegatik diot berriz ta berriz ere, begira dezozala zuk, zure Seme Jesusek gure obenen beren alde egiten duenari: begira dezozala zuk gero Jesusi bere barren aldera, baldin ekusi nai badezu zuk nola daduzkan gu guziok, naiez ta amarez ongi sartuak bere Biotzeraño; ta Jesusen gudanako amore ta nai andi onegatik artu zazu zuk, Aita eternoa, oraindano gure zorren alde, oriekatik

Jesusek daramadan neke guzi-guzia; iguzu zuk bera berriz geren bekatu berriekin ez nekarazteko grazia. Bai arren, Aita eternoa, bai!

Ecce rex vester.

Joan. 19. 14.

Orra non dezuten, erran zien gure Jaungoikoak len judatar gogorrei Pilatosen ezpañez; orra non dezuten zuek zeren erregea. Orra, zuek aspaldi guzian uste zenuzten zeren Mesias, Dabiden etxetik datorkizue-na.- Datorkizue zeren onerako, ta zuek, zeren neke galgarrien artetik atera naiez. Ez dezozutela kendu zuek zeren Errege Mesiasi bere bizia, zuek zerok eskatzen dezuten bezala.- Artu zazue zuek gaurdanik zeren erregetako Mesias au, manatu edo agindu dezan emen bertatik zuen biotzetan. Nai dezue?

Ezetz, eranzun zuten judatar galduak; etzutela nai zioten, Erromako erregea beste erregerik. Illerazi zezala Pilatosek, zioten, Jesus; ta lenbaitlen alere; ta illerazi zezala gurutze bateko eriotz guztiz gogorrarekin.- A, judatar ero gaistoak! Egunen batez damutuko zaitzue bai, orain zuek ez artuaz, zeren Profetak era-

kutsirikako zeren Mesias, zeren errege au!- Mesias errege au zuen erregea da orain bertan; ta zuen beren errege izain da eternidade guzi-guzian ere: ta zuek zeren errege onen eskutik artu bearko dezue, naitaez, eternidade guziko zeren nekea, edo atsegin-kontentua: ta ez da eternidadeko atsegin-kontenturik, bere erregetzat Mesias au artzen ez duenarendako.- Begira, bada, zer diozuen, judatar gaistoak: begira ongi, ta begira berriz ta berriz ere! Zer diozue, bada, judatar eroak, zer diozue? Ezetz!- Ezetz diote: ta beren ezetz orretan gogortuak gelditzen dira judatar galduak!

Eta zertan ote zaude zu, edo zer ote diozu zuk, Jesus maitagarriaren ume bekatariak!- Orra (Aita eternoak erraten dizu zuri ere): Orra non dezun zuk, ona zere errege Mesias, Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria. Itxura txarrean orain egonagatik zure Mesias errege ori, errege jakintsua da; errege beratx urrikaltia da; errege aberats guztiz emallea da; ta errege bereei, ezin geiagorano, nai diena: ta, ez dagokan oraingo itxura ori ere, bereei ongi naiez daduka zuen Mesias errege maitagarriak; bada errege onek berak artu nai izandu ezpalu, etzion arreraziko bere, guztiz galdua dirudien, itxura ori mundu guziak ere: au da

alabaña, zeru guzian, ta lurreko edozein bazterretan, nai duen edozein gauza egiten duen Erregea; bada nere Seme bakar-maite Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria. Ekusi zazu bada nai dezun, edo ez, au zuk zere Erregetako?

Baña begira, dio Aita eternoak berak; begira: Jesusen soldadu onak ibilli bearko dute Jesusen beraren eran. Artu bearko dituzte, Jesusek berak bezala, ta nere izenean, edozein aldetatik egiten zaizten bidegabeak eta txarkeri guziak: onez erantzun bearko die gaistoen gaizkiei, ta errebestasunei: maitatu bearko dituzte beren etsaiak, eta gaizkigilleak: garaitu bearko dituzte beren pasioneak eta aztura gaistoak; eta egin bearko dituzte, Jesusen Lege garbiak eskatzen dituen gauza guziak.– Ori guzia egin nai dutenak dira, Errege maitagarri au beretzat artzen duten soldadu onak.

Nai dezu, bada, artu zuk ere; ta nai dezu egin orretarako eskatzen zaitzun au guzia?

Bai, Aita eterno maitea, bai; ta pozik alere. Lena-go au ez egiñaz dut orain agitz damu; baita, len, nere lan on au egin bagez, egin ditudan oraindañoko nere bekatu guziez ere: ta asi nai dut orain nik nere lan on

au nere bekatu orien barkamentutik, onen eskean
ziñez esaten dizudala: *Nere Jesukristo, etc.*